



JARRERA ETNOKRATIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN WALKER CONORREN TESIAREN ARABERA



DOKTOREGO-TESIA
Eider Alkorta Elorza
(eider.alcorta@ehu.eus)

Zuzendaria
Xabier Aierdi Urraza

2015eko iraila

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- *Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Argitalpen Zerbitzua*
- University of the Basque Country - UPV/EHU Press
- **ISBN: 978-84-9082-415-3**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**JARRERA ETNOKRATIKOAK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
WALKER CONORREN TESIAREN ARABERA**

DOKTOREGO-TESIA
Eider Alkorta Elorza

Zuzendaria
Xabier Aierdi Urraza

2015eko iraila

*Nere ondoan izan zareteneoi eta bereziki, Xabierri, proiektu hau aurrera eraman
ahal izateko ezinbestekoa nuen bultzada emateagatik*

AURKIBIDEA

Sarrera	9
I. Nazionalismoa, independentismoa eta etnokrazia	19
1. Etniatik naziora	19
2. Nortasun nazionalaren osagaiak, nazioak eta nazionalismoak	22
3. Nazionalismo eredu argiak? Eredu onak eta gaiztoak?	41
4. Nazioa ala estatua? Nazionalismoaren helburu politikoez	49
5. Autodeterminazioaz, independentziaz eta etnokraziaz	65
II. Nortasun nazionala eta hauteskunde portaera	69
1. Hauteskunde portaeraren korrante nagusiak	70
2. Hauteskunde partehartzea azaltzeko faktoreak	80
3. Bozka abertzalearen argibide-faktore batzuk	124
III. Egoeraren argazki bat	135
IV. Walker Connorren jarrera ereduak	141
1. Leialtasuna aztergai	141
2. Banaketaren aldeotasunaz	256
3. Autonomia handiagoaren aldeotasunaz	283
4. Bozka eta sentimendu separatistaren arteko harremanaz	353
5. Biolentziaren legitimazioaz	374
6. Banaketaren aldekoen perfil soziodemografikoa	433
V. Ondorioak	433
VI. Bibliografia	475

SARRERA

Tesi honen bitartez Walker Connor autoreak gutxiengo etnonazionalen xede edo helburuen inguruan luzatutako hipotesi nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan berresten den aztertzea da. Hauexek dira Connorrek luzatzen dituen bi premisa nagusiak:

- a. ***Autodeterminazioak etnokrazia auresuposatzen du, baina ez demokrazia.*** Connorren arabera, demokraziak herri subirautza auresuposatzen du, baina ez alderantziz. Etnokraziak, despotismotik demokraziara doan espektro osoa betetzen du. *Gemeinschaft* printzipioa aldarrikatzen haratago, hau da, nazioa bera dela giza talde garrantzitsuena eta leialtasuna merezi duena, nazionalismo terminoak eduki ez duela dio, ez dela ideologia bat. Nazionalismoaren ikurra hartu dute belaunaldi ezberdinetan ideologia ezberdinek, besteak beste, monarkiazaleak, errepublikarrak, faxistak, leninistak edota maoistak. Connorren aburuz, eduki falta honek esplikatzen du alderdi nazionalistek banaketarako duten joera unibertsala. Hortaz, autodeterminazio nazionala demokratikoa da talde nazional batek bere atxikimendu politikoak aukeratzeko duen eskubide kolektiboa auresuposatzen duen heinean, baina ez du auresuposiziorik talde nazionalak hartu beharreko gobernu sistemaren inguruan.
- b. ***Estatu demokratiko moderno bateko gutxiengo nazionaltako herritarrek etnokrazia nahi dute, baina ez independentzia.*** Horretarako, Connorrek estatu ezberdinetako iritzi inkesta eta hauteskunde datu ezberdinak hartzen ditu erreferentziatzat. Etnokraziak independentzia ez duela auresuposatzen baieztatzen du, baina gutxienean autonomia esanguratsu bat auresuposatu behar duela dio. Bestela, etnokrazia ez litzateke ezer.

Lehen premisari jarraiki, Connorrek etnokrazia eta demokraziaren artean dagoen elkarrekintzari erreparatzen dio. Bere ustez, autodeterminazioa egikaritzeak etnokrazia auresuposatzen du, baina ez demokrazia. Autodeterminazioa egikaritzea bera demokrazia denaren ustea oso zabaldua dago. Autodeterminazioa, talde nazional batek bere atxikimendu politikoak aukeratzeko duen eskubide kolektiboa egikaritzea auresuposatzen duen heinean, demokratikoa litzateke Connorren hitzetan. Baina autodeterminazioaren egikaritze horrek ez du zertan demokratikoa den gobernu sistema bat sortu behar, eta autodeterminazioa bera, erregimen ez demokratiko baten baitan aurrera ematea ere posible litzateke.

Hortaz, etnokrazia eta demokrazia kontzeptuak bat etorriko lirateke talde nazionalak bere atxikimendu politikoak aukeratzeko dituen ekintzari helduaz, baina bi kontzeptuen uztartzea erabakia hartzearen prozesu horretara mugatuko litzateke. Aldiz, etnokrazia eta demokrazia ez dira zertan eskutik helduta joan behar, atxikimendu politiko horiek erabakitzearen ondotik, edota erabaki hori eman den sistema politikoari dagokionean. Etnokraziaren egikaritzea sistema ez demokratiko baten baitan eman ahal da, eta horrela ez izanik ere, demokratikoa ez den sistema politiko bat izan dezake emaitza edo ondorio bezala. Ildo honetan planteatzen du Connorrek autodeterminazioak etnokrazia suposatzen duela, baina ez nahitaez demokrazia.

Etnokraziaz aritzean, hortaz, etniaren edo talde etnikoaren gobernuaz ari gara. Etnokrazia kontzeptuak ez digu beste ezaugarririk ematen gobernu motaren inguruan, ez eta bera egituratu ahal den sistema politikoaren inguruan.

Halere, Connorrek luzatzen duen hipotesian etnokraziaren ezaugarritze hau definitua dago jadanik, eta bere hipotesia estatu moderno demokratikoen baitan kokatzen du. Hortaz, gure doktorego tesiari dagokionean, estatu demokratikoen baitako gutxiengo etnonazionalen artean eman ahal den etnokraziaz arituko gara. Zehazki, (gure) sistema politiko demokratikoaren baitan eman ahal den etnokrazia izango dugu hizpide, helburu horrekin, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) herritarren jarrera eta portaerak izango ditugarik aztergai nagusi.


Dena den, eta Connorrek jarraian luzatzen dituen hipotesi eta jarrera ezberdinei helduaz, Espainiako Estatuko beste gutxiengo etnonazionalari

ere erreparatuko diogu, katalanari. Praktika eta diskurtso politikoari erreparatuz, Espainiako Estatuko gutxiengo etnonazional nagusiak Euskal Herriko eta Kataluniako herritarren artean leudeke, eta hauek izango dira, Estatuko gutxiengo etnonazionalen jarreraren arteko konparazioak egiteko kontuan izango ditugun subjektu ezberdinak. Modu honetara, Estatuaren baitan dauden gutxiengo etnonazionalen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak ikusi ahal izango ditugu, besteak beste, Estatuarekiko azaltzen duten leialtasunaren inguruan. Kasu honetan, galiziar nazionalismoa oso marjinala eta interesik gabekoa da.

Tesi honetan beraz, etnokrazia eta demokraziaren arteko harreman teorikoa alde batera utziko dugu Connorrek bere hipotesi nagusia estatu demokratikoen baitan kokatzen duen heinean. Bestalde, neurri batean behintzat, gutxiengo etnonazionalaren jardun politikoa demokratikoa izatera behartuta legokeela ere ulertu ahal dugu, kasu eta une historiko batzuetan jardun biolentoa praktikatu bada ere, etnokraziari dagokionean, aukera baina, xede politikoen lorpenerako oztopo izanik. Hemendik, Connorren hipotesi edo premisa nagusiari helduko diogu, eta hauxe izango da hain zuzen ere, tesi honen helburu eta aztergai nagusia; ea EAEn berretsi edo gezurtatzen diren ondoko bi ideia nagusiak:

- Batetik, gutxiengo etnonazionalak etnokrazia nahi dutela, baina ez independentzia.
- Bestetik, etnokraziak ez duela independentzia auresuposatzen, bai ordea, autonomia esanguratsu bat. Ildo honetan, gutxiengo etnonazionalak duten autonomia gradua dutelarik, etnokraziaren alde posizionatzen badira, helburutzat, autonomi gradu hori handitzea ere badutela uste dugu.

Etnokrazia eta gutxiengo etnonazionalen balizko xedeen ezaugarritze hau, autonomia maila ezberdinak irudikatu ahal ditzakeen prozesu bat bezala ulertu ahal dugu. Prozesu horren baitan, eta, autonomia mailari dagokionean, eszenatoki ezberdinak ditugu:



Estatu demokratiko baten baitako gutxiengo etnonazionalak edota komunitate politiko batek duen autonomia mailaren arabera, muturreko bi eszenatokiak honakoak lirateke: estatuarekiko dependentzia osoa lukeen egitura bat, non autonomia maila hutsa litzatekeen, eta, bestea, estatuarekiko inongo dependentziarik ez lukeen eszenatokia, hau da, independentzian edo estatu propioaren eszenatoki batean islatu ahal den autonomia maila gorena. Bi muturreko eszenatokien artean, autonomia maila ezberdinak kokatuko lirateke, *continuum* edo autonomia maila gradazio bat azalduaz. Bien arteko tarte horretan kokatu beharko genuke, beraz, Connorrek hizpide duen etnokrazia.

Gutxiengo etnonazionalen xede litzateken etnokrazia, eta autonomia maila handiago hori hortaz, bigarren eszenatokitik gertu kokatu ahal dugu, baina ez digu zehaztasun handiagorik ematen. Gainera, prozesu bat bezala ulertu ahal den heinean, irudikatu ditugun bi muturrerantz mugitu ahal da egungo testuingurua eta autonomia maila. Hizpide dugun *continuum* hau, era berean, Nielsonek etnizitatetik estatura marrazten duen *continuum*arekin ere aldera dezakegu.

Nielsonek etnizitatetik estaturako *continuum* bat irudikatzen du, nortasunaren sorreran eta giza taldearen ezaugarrietako eraldaketa fase ezberdinak aurkeztuaz. Bere aburuz, estatua litzateke autonomia maila gorena irudikatuko lukeen eszenatokia. Nielsson arabera, estatu horren aurretiazko eszenatokia nazioa litzateke, erlatiboki autonomoak diren instituzio politikoak dituen eta politikoki mobilizatuak dagoen talde etnikoa hain zuzen ere. Autonomia handiagoa lortze bidean, naziotik estaturako jauzia egin beharko luke jatorrizko komunitate etnikoak.

Hala eta guztiz, estatu bilakatu den komunitate oro iraganeko etnizitate edo atributu etniko amankomun batzuetan ez dela oinarritu ere esan beharra dago. Zenbait kasutan, eta kontingentzia historikoak medio, atributu etniko horiek gabeko estatuak ere sortu dira, Nielssonen irudikatutako *continuum*eko mailaketa hori hautsiaz. Bestalde, autonomia maila handitze bidean, atributu etniko partekatuak dituzten komunitate ezberdinek ere ez dute autonomia maila gorena bermatuko liekeen eszenatokia helburutzat, hau da, estatua. Nazioak diren komunitate ezberdinek, eta partzialki bada ere, instituzio politiko autonomoak dituztenak, bere xedeak bermatuak izan ditzakete hurrengo eszenatokira iragan gabe.

Bermatutako xede eta nazio ezberdinen helburu politikoei dagokionean, naziogintzatik estatugintzarako jauzi horretan egingarritzat diren helburu edo eszenatokiak ere kontuan izatea garrantzitsua iruditzen zaigu. Izan ere, posible da, une batean nazioek estaturako jauzi hori ez lehenestea, baina hau ez genuke zuzenki lotu behar, edo ez beti, xede politiko oro bermaturiko eszenatoki gisa. Posible da ingurumaria zehatz batetan, egingarritzat edo bideragarritzat jotzen diren helburu politikoak naziora, edota naziogintzara mugatzea, baina honek ez lituzke nahitaez nazio ezberdinen xede guztiak gogobeteko, ez behintzat jarrera mugiezin bat bezala ulerturik.

Modu honetara, eta nazionalismoen helburuei erreparatuz, Nielssonen premisari jarraiki, xede nagusia ez du zertan independentzia izan behar, autonomia maila esanguratsu bat duten heinean behinik behin. Nazionalismoek, eta gutxiengo etnikoek, ez dute zertan estatua helburu izan beharrik, nazioa bera edo nazio eraikuntza prozesu gisa ere helburu izan daitezkeelarik. Naziogintza eta estatugintzaren arteko jauziaz ariko ginatke beraz. Etnokraziak, gutxiengo nazionalak bere atxikimendu politikoak erabakitzeko nahian ipintzen du azpimarra, autodeterminazioan, herri subirautea egikaritzean. Etnokraziaz aritzean hortaz, naziogintzaz ari gara, ez estatugintzaz, edo estatu probableaz, *protoestatua*z.

Connorrek barneratzen duen premisa garrantzitsua, gutxiengo etnonazionalak independentzia ez dutela helburu da, baina beti ere erdigunea autonomia maila esanguratsu bat aitortzen dueneko ingurumarian. Zentralizazio/deszentralizazio maila ezberdinek independentzia maila eta nahi ezberdinetan izan dezaketen eraginaren inguruan hipotesi ezberdinak luzatu dituzte autore ezberdinek. Esaterako, Sorens-en aburuz, autogobernu mailaren bat onartzen den herrialdeetan, egungo autogobernu mailak ez luke eraginik izango sezesionismoaren babesean, baina autogobernu mailaren handiagotzeak sezesionismoaren babesa ahulduko luke, eta huts egindako deszentralizazioek sezesionismoaren babesa indartu dezakete.

Ezin dugu jakin, balizko deszentralizazio prozesu batek zer mailatan eragingo lukeen gutxiengo etnonazionalen independentzia nahien indartze prozesu batean. Dena den, interesgarria iruditzen zaigu autonomia maila eta sezesionismo nahien artean marrazten duen elkarrekintza norabidea. Gurean, EAEko gutxiengo etnonazionalen independentzia nahien irismena lotua egon daiteke egun Euskal Autonomia Erkidegoak duen

autonomia mailarekin. Baina ezinezkoa suertatzen zaigu aurkako prozesu batek, hau da deszentralizazio prozesu batek, sorrarazi edo indartu ahal duen sezesionismo baten ingurumaria berrestea.

Tesi honetan aztergai dugun gutxiengo etnonazionalen xedea egungo ingurumarian kokatu behar da. Xede horiek kokatzen diren testuinguruan aldaketak emanez gero, aldatu ahal da orain EAEn gutxiengo etnonazionalerako kideek azaltzen dituzten independentzia edota autonomia handiago nahia. Baina gure helburua oraingo argazkia egitea da, orain ditugun baldintzekin.

Etnokraziaz aritzean prozesuaren ideia errepikatzen ari gara. Prozesuari azpimarra egitean, hein batean, gutxiengo etnonazionalerako prozesuaren ondorengo emaitzei garrantzia kentzen dietela iradokigu dezakegu. Baina irakurketa hau, irakurketa partzial bat litzateke. Hau da, etnokraziaz aritzean, *gureen* gobernu nahiari, *gure* erabakitze nahiari, *gure* hautuari ematen diogu garrantzia, hortik erator daitekeen autonomia edo autogobernu maila handiago bati baino. Baina era berean, Connorrek gutxiengo nazionalen etnokrazia nahiak hizpide dituenean, autonomia handiago baten nahiak barneratzen ditu. Bestetik, gutxiengo etnonazionalerako *gurei* ematen dieten lehentasun horretan, hein batean, helburu edo espektatiba batzuk ere barneratuak lirateke, eta hortaz, prozesu eta bitartekoez gain, helburu eta xede zehatz batzuk ere inplizituki hor kokatuko lirateke.

Hau da, etnokraziaz aritzean, *gure* lehentasuna berresten denean, gutxiengo etnonazionalerako komunitate politikoaren auzi ezberdinei, identitatearekin loturikoak esaterako, heltzea ere espero dute. Gutxiengo etnonazionalerako izan ditzaketen behar eta nahiak, *gurei* erantzungo dietenaren ustea ere hor dela esango genuke. Honela, etnokraziaz aritzean, zeharka bada ere, helburuetaz ere mintza gaitzke, *gureen* gobernuarekin agenda politikoan barneratu edo lehenetsi beharreko auziez hain zuzen ere.

Behin Connorren etnokraziaren ideiarekin loturik dauden kontzeptuen zertzelada nagusiak azalduta, gurean, EAEn, etnokraziaren egikaritze honen nondik norakoei helduko diegu. Etnokraziaren prozesuak aitortutako autonomia maila bat du oinarrian, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 1979an koka dezakegu hasiera. Euskal Autonomia Erkidegoaren erakundetze politikoa urte horretan koka dezakegu Gernikako Estatutuaren onarpenaz. Bitarteko hori gabe ez dago ulertzerik

EAEk garatutako erakundetze eta autonomia maila. Estatutuaren garatze honek, era berean, gutxiengo etnonazionalen baitako gogobetetze maila ezberdinak ipintzen dizkigu mahai gainean.

Gainera, paradoxikoa dirudien arren, Estatutuaren bultzatzaile nagusiak izan zirenak, eta Estatutuaren kudeaketan protagonista izan direnak dira, egun, gogobetetze partziala erakusten dutenak. Eta alderantziz, Estatutuaren defendatzaile izan ez zirenak, zenbait kasutan aurkakotasuna ere azaldu dutenak, egun bere defentsaren ikurra hartu nahi izan dute.

Gure ustean, honek agerian utziko luke, lortzen den autonomia mailatik haratago, bestelako faktoreak ere esanguratsuak direla gutxiengo etnonazionalen xedean irudikatzean. Estatutua, honela, *gurea* edo gurea bakarrik ez den heinean, ez litzateke lehentasuna, bera bitarteko Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia maila esanguratsua garatu ahal izan badu ere. Paradoxa honen nondik norakoak sakontasun gehiagorekin aztertuko ditugu tesian zehar, autonomia mailaren gogobetetzea eta Estatutuarena erkatzen ditugunean. Gainera erkaketa honetan gutxiengo etnonazionalaren baitako ezberdintasunak agerikoak dira.

Gutxiengo etnonazionalaren baitako ezberdintasun hauek gainera, ez dira soilik Estatutuaren balioespenaren inguruan ematen, nazionalismoak izan behar lukeen azken xedean ere ezberdintasunak nabarmenak dira. Honela, Connorren hipotesi nagusiari berriro helduaz, hau da, gutxiengo etnonazionalen helburu nagusia, independentzian baino, autonomia maila handiagoan kokatzean, gutxiengoaren baitako ezberdintasunei erreparatu behar diogu.

Ezberdintasun honetan, euskal abertzaletasunaren barneko bi arimen baitan kokatzen diren herritarren nortasun subjektiboak eragina du, baina gutxiengoaren baitako ezberdintasunaren ardatz nagusia hauteskunde portaeraren arabera da. Honela, bozkaren arabera irudikatu ahal ditugun gutxiengo etnonazionala bi taldeek, bata nazionalismo instituzionalak irudikatzen duena, EAJk, eta, bestea, nazionalismo arradikalak, Ezker Abertzaleak, xede eta helburu ezberdinak aurkezten dizkigute. Egia da ere, xedeez gain, sarri bi azpitaldeen arteko talka, une batean konpartitu dezaketen helburuan baino, edo helburuetatik haratago, helburu hori lortze bidean luzatzen dituzten bitarteko eta prozesuan bertan kokatu ahal dugula. Ondorioz, gutxiengo etnonazionalaren baitan ere, eta etnokraziak berak irudikatzen duen prozesu eta autonomia

gradazio ezberdinean, borroka sinbolikoek indar handia dute gurean. Borroka sinbolikoak ikusmoldeak inposatzeko gizarte-saiakerak dira.

Laburbilduz, Connorrek aurkezten duen hipotesi nagusia, estatu demokratiko moderno bateko gutxiengo nazionalistako herritarrek etnokrazia nahi dutela da, baino ez independentzia. Gainera, etnokraziak independentzia ez duela auresuposatzen baieztatzen du, bai ordea, autonomia esanguratsu bat. Tesi nagusi honen nondik norakoak EAEn betetzen diren azaltzeko, Connorrek luzatzen dituen hipotesi edo jarrerak banan-banan aztertu ditugu tesi honetan. Horretarako, iritzi inkesta eta datu ezberdinak hartu ditugu erreferentziatzat. Hipotesi bakoitza baieztatu edo ezeztatu bidean iturri sekundarioak erabili ditugu. Hipotesien azterketarako iturri sekundarioak erabiltzeko datu iturri aberats bat izatea ahalbidetu digu, baina, era berean, muga batzuk ere suposatzen ditu. Esaterako, gutxiengo etnonazionalen subjektua definitzean, logikoagoa litzateke Euskal Herri osoa aintzat hartzea, baina portaera eta jarrera ezberdinak aztertzeko orduan base komun baten gabezia dugu. Hauteskunde portaerarekin ere arazo beretsua genuke, datu demoskopiko amakomunik ez baitugu.

Subjektu nazionalaren mugatze honetatik haratago ordea, tesi honetan erabili ditugun iturri sekundarioek Connorren hipotesien eduki nagusiak era egokian jasotzen dituztela uste dugu. Horretarako tesian zehar aztergai izan diren auziakin loturiko datu eta ikerketa ezberdin eta anitzak jaso ditugu. CIS, Soziometroa eta Euskobarometroak eginko ikerketa ezberdinetako datuak izan ditugu oinarrian, baina horretaz gain, hauteskunde emaitzak aurkezten dizkiguten datu base ezberdinak eta hipotesietan aurkezten diren auzi zehatzen inguruko informazio ezberdina eskaintzen diguten beste ikerketa eta iturri batzuk ere barneratu ditugu.

Tesi honen helburu nagusiari helduaz, Connorrek hizpide duen gutxiengo etnonazionalen etnokrazia nahia gurean berresten den jakitea da. Horretarako, bere tesiaren oinarri diren hipotesi edo jarrera ezberdinak gurean berresten diren ikusiko dugu.

Jarraian, kapitulu bakoitzean landutako ilgo nagusiak zeintzuk diren azalduko ditugu:

- Lehenengo kapituluaren gure ikerketa objektua izango dugu hizpide. Nazionalismoaren helburu eta azken xede politikoak zeintzuk diren ikusiko ditugu, nazionalismoa eta independentismoaren

arteko elkarrekintza eta harremani erreparatuz. Naziogintzaz eta estatugintzaz arituko gara, eta hemen kokatu dugu gure ikerketa objektu nagusia, etnokrazia.

- Bigarren kapituluaren ikerketa subjektuari erreparatuko diogu. Walker Connorrek gutxiengo etnonazionalak ditu hizpide, eta gutxiengo horiek definitzeko, autoidentifikazio aldagaiak, nortasun subjektiboa eta nortasun nazionala, eta bozka izan ditugu oinarrian. Gutxiengo etnonazionalen helburu politikoak aztertzeko bozkaren aldagaia erabakiorra da; EAEn bozka izan da historikoki, gizartea bitan banatu duena. Abertzaletasun instituzionalaz eta arradikalaz mintza gaitezke, eta banaketa ardatz hau erabakiorra da xede politikoak aztertzeko orduan, bestelako auzietan ere ezberdintasunak agerikoak badira ere. Ildo honi helduaz, hauteskunde portaeraren nondik norako nagusiak ere aztertuko ditugu kapitulu honetan.
- Hirugarren kapituluaren tesian zehar hizpide izango ditugun auzi ezberdinen bilakaera nolako izan den ikusi dugu.
- Laugarren kapituluaren tesiaren mamia helduko diogu, hau da Walker Connorrek gutxiengo etnonazionalen inguruan luzatutako hipotesiak EAEn berresten diren ala ez ikusiko dugu. Horretarako, hipotesi ezberdinak, hizpide dituzten edukiaren arabera bildu ditugu.
 - Lehenengo azpiatalean gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen Estatuarekiko duten leialtasuna izango dugu aztergai. Auzi hau funtsezkoa da nortasun nazional ezberdinen arteko nondik norakoak aztertzeko.
 - Bigarren azpiatalean, banaketaren aldeko babesak orain arte izandako bilakaera nolako izan den ikusiko dugu.
 - Hirugarren azpiatalean, gutxiengoek autonomia handiago baten alde izango luketen jarrera zertan den ikusiko dugu.

- Laugarrengo azpiatalean banaketa nahiak eta bozkaren harteko harremana aztertuko dugu.
 - Bosgarrengo azpiatalean biolentziaren legitimazioaren auziaren gako batzuei helduko diegu.
 - Bukatzeko, seigarrengo azpiatalean banaketaren alde leudekeen herritarren perfil soziodemografikoari helduko diegu.
- Bosgarrengo kapituluan, luzatutako hipotesi bakoitzaren ondorio nagusiak azalduko ditugu eta honen haritik, gure tesiaren galdera nagusiari erantzuten saiatuko gara, hau da, gutxiengo etnonazionalak, independentzia baino, etnokrazioren aldekoak liratekeen.

I. NAZIONALISMOA, INDEPENDENTISMOA ETA ETNOKRAZIA

Kapitulu honetan gure ikerketa objektua zertan datzan azalduko dugu. Aurretik ordea, gure objektuarekin harremanetik dauden eduki eta kontzeptu teorikoen inguruko zertzelada batzuk azalduko ditugu:

- Lehenik eta behin, nazioa, etnia eta estatuaren arteko harremanen nondik norakoei egingo diegu erreferentzia.
- Bigarrenik, nortasun nazionala eta nazionalismoaren ildo teoriko nagusiak aipatuko ditugu.
- Hirugarrenik, nazionalismoen helburu politikoak izango ditugu hizpide. Teoria politikoan, maiz trukagarri bezala ageri diren nazio eta estatuaren kontzeptu ezberdintasunei ere erreparatuko diegu. Askotan nazioaz hitzegiten da, estatuarekin parekatuz, edota estatuak nazio bakarrarekin identifikatuz. Nazionalismoen helburu politikoei dagokionean, nazio ororen azken xede politikoa estatuaren inguruko eztabaida zertan den ikusiko dugu. Horretarako ezinbestekoa dugu nazionalismoa eta independentismoaren arteko elkarrekintzak eta harremanak aztertzea; nazioagintza eta estatugintza proiektuak hain zuzen ere.
- Nazionalismoaren helburu politikoetatik abiatuz, gure objektuaren azterketari helduko diegu, *etnokraziari*.

1. Etniatik naziora

Gumar Nielsson-en arabera nazio eta estatu kontzeptuen ezaugarriak ongi definitu ahal izateko, bere barne osagaiak berdefinitu behar dira. Horretarako, besteak beste, etnizitatearen kontzeptua barneratuko du.

Etnizitatea nazioaren sorrerarekin lotua egon daiteke (Anthony Smith-en ildo berean), eta biak, estatuaren sorreratik ezberdindu daitezke, baina ez nahitaez berarengatik banandua. Nielssonen arabera nazioen formakuntza etnizitatearen dinamikarekin hertsiki lotua dago eta estatu kontzeptutik berezia (Nielsson, 1989:193-225). Nazio eta estatuaren prozesuaren dinamika ezberdinak aurrerago landuko ditugu kapitulu honen baitan.

Etnizitatea nortasunen sorrera prozesu bat bezala definitzen du Nielssonek. Prozesu horretan, gizatalde batek, era subjektibo batean, eta talde berri solidario bat sortzeko helburuarekin atributu batzuei heltzen die. Ildo honetan, McKay eta Lewinsen arabera, “etnizitatea ez da dohain primordial bat. Etnizitatea arrazoi instrumental ezberdinengatik kontrolatua, negoziatua, alienatua, manipulatu edo eraldatua izan daitekeen identitate bat da” (McKay eta Lewins, 1978:419).

Atributu etnikoak moldagarria den erabilera anitzeko material bat bezala definituak izan daitezke, eta era ezberdinetan eraldatuak izan daitezke talde etnikoak sortu edo eraldatzeko bidean, lotura soziokultural bat eratzeke modernizazio politikoaren prozesu baten baitan. Isajiw-entzat bost dira atributu etniko nagusiak: 1) jatorri komunean oinarrituriko familia loturak 2) antzekotasun kulturalak 3) arraza 4) hizkuntza eta 5) erlijioa (Isajiw, 1974:117). Brass-en arabera, “kategoria etniko bat irizpide kultural objektiboen arabera beste pertsonengandik bereizten den edozein giza talde da, eta gizataldea osatzen duten kideen barnean, printzipioz edo praktikan, lana eta erreproduzioaren banaketarako osagaiak dituzte” (Brass, 1976:226).

Talde etnikoa, berriz, subjektiboki inbokatutako atributu etnikoetan oinarrituriko interakzio jarrai batean dagoen gizataldea da. Muga etnikoei dagokienean, Barth-en arabera talde etniko bateko kidesasuna giza esparruaren arabera ezartzen da, eta ez derrigorrean, estatuaren bezala, mugaturiko lurralde baten baitan (Barth, 1976).


Historia eta jatorri komun baten mitoaren kontzientzia, talde etnikoko kideek euren interes sozioekonomikoen bilaketarako ekintza kolektibo bat bideratzeko antolatze gaitasunak garatzen dituztenean indartzen da, beti ere, ezberdintasun etnikoa babestu, mantendu edota finkatzeko helburuarekin. Zentzu honetan, modernizazio sozioekonomikoak interakzio aukera berriak errazten ditu hezkuntzaren zabaltzea eta komunikazio eta garraio sare integratuaz eraturiko giza azpiegitura berriari esker. Kontzientzia hartze honetatik sortuko da *Komunitate etnikoa*, Brass-en

hitzetan, “komunitate horretatik klaseentzako giza antolaketa forma berri bat eratortzen da eta etnizitatea klase kontzientziarentzat identifikazio forma alternatibo bat da” (Brass, 1976:226). Gizarteko edozein beste talderekin alderatuz, talde etnikoaren ezaugarri bereizgarria bere kideen nahigabeko natura da. Isajiwentzat, kideentzat oinarrizko garrantzia du honek, gizabanakoa kide bezala jaiotzen baita eta haurtzaroan zehar bere balore, ohitura eta hizkuntzaren arabera sozializatua da (Isajiw, 1974:120-122).

Nazioa berriz, erlatiboki autonomoak diren instituzio politikoak dituen eta politikoki mobilizatua dagoen talde etnikoa litzateke. Nazionalitate bezala dituen behar eta identitatearen arabera, ideologia bat garatu du, nazionalismoa. Antolaketarako bitartekoak nazioaren interes kolektiboen aldeko aldarrikapenak aurkezteko lidergo gaitasuna du eta estatu barnean prozesu politiko bat hastea du helburu.

Nazio-estatua autonomia gorena lortu duen nazioa da, independentzia subiranoa. Estatuko elitearentzat agintaritza politikoaren egikaritzarako oinarrizko legitimitate iturria balore nazionalen kontsentsua da.

Etnizitatetik estaturako *continuum*a Nielssonen arabera



Nielssonek eginiko kontzeptuen formulazio hauek, elkarren arteko lotura jarrai bat adierazten dute. *Continuum* bat bezala aurkezten ditu, nortasunaren sorreran eta giza taldearen ezaugarrietako eraldaketa fase ezberdinak aurkeztuaz. Dena den, kontuan izan behar dugu Nielssonek aurkezturikoa eskema logiko eta metatua dela, baina errealitatean, etnizitatetik estaturako prozesuak ez du halabeharrez ordena hori jarraitu behar. Esaterako, estatu bilakatu den komunitate oro ez da oinarritu iraganeko etnizitate edo atributu etniko amankomun batzuetan. Nielssonek etnizitatetik estaturako *continuum* hau aurkeztean, nazioen sorrera eta etnizitatearen dinamikaren arteko lotura hertsia azpimarratu nahi du.

Modernizazio sozioekonomikoa nazioaren sorrera indartu edo oztopatu dezakeen aldagai bat bailitzan ulertua da, eta hau, era berean, modernizazio politikoaren presioei atxikitzearen ohiko adierazpena da. Aurrerago

ikusiko dugun moduan, nazioen sorrera eta estatuen sorrera prozesuak ere ezberdintzen ditu egungo nazio-estatuen osaeraren konplexotasuna agerian utziaz.

2. Nortasun nazionalaren osagaiak, nazioak eta nazionalismoak

Nielssonek etnizitatea nortasunen sorrera prozesu batean kokatzen duen bezala, Smithek identitate nazionala talde nortasunen artean kokatzen du (Smith, 1997:7). Horretarako, 1908.urtean Friedrich Meineckek komunitate ezberdinen inguruan egindako ezberdintasunei erreparatuak dio: *Kulturnationa*, pasiboa den komunitate kulturala, eta *Staatsnationa*, autodeterminazioa duen nazio politiko aktiboa. Ildo honi jarraiki, Antzinateko Grezian politikoki *naziorik* ez dela adierazten du, euren subiranotasuna estuki zaintzen zuten hiri-estatuen multzo bat baizik. Kulturalki ordea, arlo politikoan aipatu ahal zen greziar komunitate bat bazen (*Hellas*). Horrela, greziar komunitate etniko eta kultural batetaz mintza gaitezke, baina ez Antzineko greziar *nazioaz* (ibid. 12).

Nielssonek azaldutako ildoari jarraiki, nortasun nazionalaren kontzeptuak hortaz, beste konnotazio batzuk ere izan ditzakeen arren, komunitate politiko baten ezaugarriak ere badituela esan genezake. Era berean, komunitate politiko batek instituzio komun batzuk eta komunitatearen kide guztientzako eskubide eta betebeharren kode bat igartzen du. Gune sozial definitu bat ere, kideak identifikatzen diren lurralde mugatu baten baitan. Ezaugarri hauek zituzten buruan *philosophesek* nazioa lurralde zehatz batetan lege eta instituzio berdinak obeditzen dituzten gizaki komunitate bat bezala definitu zutenean.

Honakoa, nazioaren Mendebaldeko ikuskera bat da, nazioaren eredu *zibikoa* deitua. Ezaugarrien artean, lehenik eta behin, lurraldean oinarrituriko ikuskera bat dela esan dezakegu, eta hortaz, nazioek ongi mugaturiko lurraldeak izan behar dituzte. Lurralde historikoa belaunaldietan lurra eta jendartea elkar eragin duten espazioa da. Bigarrena, aberria litzake, borondate politiko bakarra duen lege eta instituzio komunitatea. Hirugarrena, kideen berdintasuna legala da, eta honekin lotuta, lurralde jakin bateko kideen lege berdintasunak jendartean balore eta tradizio komunak izatea auresuposatzen du. Hau da, nazioek

kultura kolektibo eta ideologia zibiko baten jabe direla, xede, sentimendu eta ideia konpartituekin.

Hala eta guztiz, Mendebaldetik at nazioaren beste eredu bat garatu zen, non oinarri etnikoak garrantzia hartzen duen. Eredu honek honako ezaugarriak ditu:

- Leinuaren garrantzia lurraldearen gainetik.
- Herri mobilizazioaren garrantzia.
- Eredu zibikoan legeari egozten zaion papera, eredu etnikoan herri kulturak beteko luke, besteak beste, hizkuntzak, ohiturak eta tradizioak.

Nazionalismoaren eredu teoriko ezberdinetatik haratago, ordea, Smithek nazionalismo orok osagai etniko eta zibikoak eta diskurtso konpartitu bat duela adierazi zuen, nortasun nazionala beste talde nortasun edo kulturaletik bereizten duena (ibid. 12). Oinarri komun hauetatik abiatuta, honakoak lirarteke nortasun nazionala ezaugarrituko luketen ardatz ezberdinak:

1. Lurralde historiko edo aberri bat.
2. Oroimen historikoak eta mito kolektiboak.
3. Komuna den masa-kultura publiko bat.
4. Kideen eskubide eta betebeharrak berdinak.
5. Kideen lurralde mugimendua bermatzen duen ekonomia bateratu bat.

Nazionalismo kontzeptuak, aldiz, honako adierak izan ditzake:

1. Nazio edo nazio-estatuaren sorrera eta mantentze prozesua.
2. Nazio bateko kide izatearen kontzientzia, segurtasun eta oparotasun helburu eta sentimenduarekin.
3. Nazioaren lengoaia eta sinbolismoa eta bere papera.
4. Ideologia bat, zeinek xede nazionalak eta borondate nazionala egikaritu ahal izateko, nazioen eta borondate nazionalaren doktrina kultural bat eta arauak barneratzen dituen.
5. Nazioaren helburuak eta borondate nazionala egikaritzea nahi duen mugimendu sozial eta politikoa.

Smithek azken bi adierei helduko die nazionalismoaren definizioa osatzeko: “Giza talde baten izenean autonomia, batasuna eta nortasuna

lortu eta mantentzeko mugimendu ideologikoa da, zeinetako osagai batzuen arabera izatez edo potentzialki nazio bat osatzen duten” (ibid. 66-67). Nazionalismoaren ideologiari helduz, *oinarri-zko doktrina* honela defini daiteke:

1. Mundua nazioetan banatuta dago, eta bakoitzak bere indibidualitatea, historia eta helburuak ditu.
2. Nazioa botere politiko eta sozial ororen iturria da, eta nazioarekiko leialtasunak beste leialtasunak gainditzen ditu.
3. Gizakiek, aske izateko eta errealizatzeko, nazio batekin identifikatu behar dute.

Smithen arabera, ez da dudarik nazionalismoak nazioak sortzen laguntzen duela, baina era berean, nazioak eta nazionalismoa beste kultur forma, giza eraketa edota ideologia bezain asmatuak direla dio. Nazionalismoa kultur forma bat bezala ulertua izan daiteke, ideologia politiko bat edota gizarte mugimendu bezala. Nazionalismoarekin garai berri bat hasten bada ere, bere jatorri sozial eta kulturala *ethnie* premodernoetan eta Mendebaldeko nazio-estatuaren agerpenean kokatzen ditu.

Nazio eredu ezberdinen ezaugarriek harreman estua dute nazionalismoaren eredu ezberdinekin. Finean, harremana alderantzizkoa denaren ideia autore ugari azpimarratzen dute: hau da, nazionalismoak direla nazioak eta nortasun nazionala sortzen dituen. Nazioa beraz, nazionalismoak sorturiko objektu gisa ulertua izan daiteke. Auzi honen inguruan mintzatu dira nazionalismoa eta nazioa aztergai izan dituzten autore ezberdinak. Smithen aburuz, aurretiaz jasotako matriz baten baitan, belaunaldi bakoitzak nazioaren mapa kognitibo propioa eraikitzen du. Mapa hori, elementu mitiko eta sinbolikoen bidez artikulatzen da eta nazionalistek, oinarri horietatik abiatuta, kapital ideologiko nazional hori berrinterpretatzen dute testuinguruak eskatutako behar eta premien arabera.

Ernest Gellner-ek horrela definitzen du nazionalismoa: “nazionalismoa ez da nazioen kontzientziaren esnaera, nazioak asmatzen ditu existitzen ez diren lekuetan, baina aurretik ikur bereizgarri batzuk izatea behar du, baita negatiboak izanik ere” (Gellner, 1988). Benedict Anderson irudikatutako komunitateez mintzo da *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo* liburuan. Irudikatutako komunitateak aipatzea ordea, ez da zertan parekatu behar amestutako komunitate hutsalekin (Anderson, 1993:15). Hau da, nazionalismoek nazioak irudikatu izanak ez

du esan nahi komunitate horiek aurretiazko oinarri edo elementu objektibo edo materialik ez dutenik. Andersonentzat nazio “irudikatuak” ez du esan nahi “faltsuak” direnik; bere ustez, komunitateak ezin dira bereizi bere faltsutasun edo egiazkotasunaren arabera, irudikatuak diren eraren arabera baizik. Pérez Agoteren arabera, Andersonek irudikatutako komunitatearen ideiak “imajinazio” eta “sorkuntzarekin” zerikusi handiagoa du, Gellnerren baieztapenetik uler daitezkeen “fabrikazio” eta “faltsutasun” ideiekin baino (Gellner, 1964:169 *in* Pérez Agote, 1989:187).

Ildo beretsuan, Eric Hobsbawm-en ustez, nazionalismoak eta nazioak ingenieritza sozialaren produktu dira. Prozesu horretan “asmaturiko tradizioek” pisu handia dute. Hobsbawmentzat asmaturiko tradizioak, erritu eta sinboloetan oinarrituriko praktika multzoa lirateke. Praktika hauek, errepikapenez transmititzen diren balore eta arau batzuk irakasten dituzte, eta, automatikoki iraganarekin jarraipen bat ekartzen du. Asmatutako tradizioen baitan bi asmakuntza prozesu ezberdintzen ditu: tradizio eta instituzio zaharrak egoera berrira egokitzen dituen eta helburu berrietara egokitzeko tradizio berrien asmakuntza (Hobsbawm, 2005:7-21). Hortaz, eta jarraian ikusiko dugun bezala, ezinbestean erreparatu behar diogu narratiba nazionalistari eta mobilizazioaren garrantziari nazioa sortu edo ikusarazteko prozesuetan.

Azken urteetan nazionalismoari buruz eginiko ikerketek ikerlarien desadostasun ugari erakutsi dituzte, besteak beste, nazioa eta nazionalismoaren arteko elkarrekintzaren norabidearen inguruan edota nazionalismoaren modernotasun edota primordialismoaren ezbaian. Halere, Máizen (1997) arabera, badirudi oinarritzko hiru punturen inguruan adostasunik badela:

1. Nazionalismoa fenomeno modernoa da eta estatuari hertsiki lotua dago. Nazionalismoaren sorrera oinarri politiko instituzional batean txertatzen da, nazio-estatutik bultzatua delako, edota nazio-estatu eta inperio baten aurka jaiotzen delako estatu propioa aldarrikatuz.
2. Nazioa ez da datu primordial bat, testuinguru instituzional eta sozial batzuetan emandako prozesu baten produktua baizik.
3. Nazioaren kontzeptua hortaz, objektiboa baino, nortasun kolektibo nazional baten pertzepzio politikoa argitara eman nahi

duen kategoria praktiko bat da, eta hortaz. masa fenomeno da, eliteek bultzatzen badute ere.

Hala eta guztiz, honek ez du ukatzen elite eta intelektual nazionalistek nortasun kolektibo nazionalistaren eraikuntzan jokaturako papera. Smithen arabera intelektualek oinarrizko papera bete zuten nazionalismo kulturalaren sorrera eta ideologiaren eraketan (Smith, 1997:82-89). Are gehiago, nazionalismo politikoaren hastapenetan zenbaitetan lidergo papera ere bete zuten. Europari begira, intelektualek paper esanguratsua bete zuten nazionalismoaren kontzeptuak, mitoak, sinboloak eta ideologiaren sorrera eta analisisan. Autore honen arabera ordea, intelektual hauek mugimendu nazionalisten azken faseetan izandako papera gainbaloratua izan da.

Letamendiak mobilizazio etniko-nazionalak elite edo *intelligentsiaren* lidergoak baldintzatua dela azaltzen du, baina ez dela baldintza nahikoa izaten herri oso bat kalera irteteko (Letamendia, 1997:81). Lidergorik hoberenak eta prestatuenak ez du ezertarako balio herriak urgentziazko sentimendurik barneratzen ez badu edo gertu ikusten ez badu mobilizazioaren bidetik eurak bezalako herriek zer edo zer positiborik lortu dutenik.

Diani eta Melucci-ren hitzetan, analisi konbaratuak argi uzten du eliteek komunitate etnikoak sortu eta eraldatzen dituztela modernizazio bidean dauden gizarteetan edota euren espektatibak frustratuak direnean erregio garatuagoetan. Prozesu honek ordea, errekursoak, botere politikoa eta estatus soziala lortzeko, elite zentral eta periferikoen arteko gatazka eta lehia dakar. Sarritan, elite periferikoen interesentzako onuragarriagoa izan daiteke elite zentralekin elkarlanean aritzea beraiei aurre egitea baino. Diani eta Melucciren arabera, euskal eta kataluniar burgesia lankidetzaren adibide egokiak lirateke. Modu honetara, talde dominatuaren eliteek mobilizazio nazionalista ahalbideratu lukete elite dominanteekiko interes gatazkak handiagotzen doazen heinean. Dena den, kasu bakoitzeko indar korrelazioak erakutsiko du zein den elite periferikoen galera/irabazien ratioa. Autore hauen arabera, orokorrean, behin lankidetzaren aukera guztiak agortzen direnean bakarrik planteiatzen dute gatazka irekia elite lokal edo periferikoen (Diani eta Melucci, 1983 *in* Máiz, 1997:198-199).

Paul Brass-en arabera, eliteak eta instituzioak dira hizkuntza eta beste ezaugarri kulturalen esanahi subjektiboa zabaltzen dituztenak. Hizkuntza esaterako, komunikazio bitarteko soil bat izatetik komunitatearen ikur

garrantzitsuena izatera pasa daiteke, “jende askok, gehienak ez badira, ez du hausnarketarik egin euren hizkuntzaren inguruan eta aurretiaz ez zioten inolako esanahi emozionalik ematen” (Brass, 1991:70). Nortasun etnikoen sorrera eta eraldaketa, eliteen arteko lehia, gatazka eta, batzutan, elkarkidetzaren eredu ezberdinen bidez ematen da eta, bere oinarrian, boterea lortzeko eliteen arteko gatazka izan ohi du. Eliteek nortasun hauen sorrera eta kristalizatorako ezinbesteko dituzte erakunde politikoak. Modu honetara, estatu egiturak, alderdi sistemak eta boterearen lurralde banaketa aldagai garrantzitsuak dira nortasun etnikoen egitura eta intentsitaterako.

Dena den, etnonazionalismoa erakunde politikoek eta eliteek sortu eta bultzatutako fenomeno politiko bezala ulertzeak ez du esan nahi beste faktore guztiak esanguratsuak ez direnik (Lecours, 2001). Erakunde politikoek eta eliteek ingurumaria eta egitura sozioekonomikoak behar dituzte. Kultura ere mugimendu nazionalisten oinarritzko elementua da. Etnonazionalismoa goitik behera doan prozesu bat dela esateak ez ditu masak bazterrean uzten. Etnonazionalismoa, liderrak eta jarraitzaileak dituen mugimendu bat da. Bere izatea ezinezkoa da elite politikoen aldarrikapenak ez badute sostengurik elite hori osatzen ez duten herritarren artean. Are gehiago, zenbaitetan herritarren pasio nazionalista eliteek dutena gaindi dezake baina, modulazio kontuak daude tartean. Modulazio hauek gainera, norabide ezberdinak izan ditzakete; hau da, zenbaitetan, eliteak beraiek dira herritarrek sentimendu abertzalea hauspotzen dutenak eta beste batzuetan, eliteak lirakete herritarren aldarrikapenei erantzuten dietenak.

André Lecours-en arabera, elite zentral eta periferikoen arteko harremanen nondik norakoak ezagutzea ezinbestekoa da mobilizazio nazionalisten susperraldiak eta barealdiak aztertzeko orduan. Bere ustez, mobilizazio nazionalista indartsuak izaten dira eliteen arteko gatazka dagoenean; aldiz, mugimendu hauen intentsitate baxuagoa eliteen arteko elkarkidetzaren garaiekin lotu ahal da. Eliteen arteko gatazkaren intentsitatea eliteen erabaki kontziente bat izan daiteke (hauteskunde kalkuluak esaterako) edota historiako kontingentziak (adibidez, estatu autoritario baten mehatxuak eliteen arteko harremanak oso gatazkatsu bilaka ditzake). Periferiako eliteek estatuarekin gertuko harremanak izaten dituztenean, sezesioaren aukerak indarra galdu izan ohi du. Elite periferikoen kooptazioak, sezesionistak baino, autonomistak diren mugimenduak sortu ohi dituzte. Neurri batean, gure teoriak honekin antzekotasunak ditu.

Eliteen arteko harremanen nondik norako hauen ingurumarian sezesionismoaren gradu ezberdinak leudeke jokoan.

Espainiako Estatuari dagokionean, periferietako eliteek jarrera ezberdina izan dute historian zehar eta, Lecoursen arabera, honek eragina izan du mugimendu nazionalistek autonomia edota sezesioaren aldarrikapena defendatzeko orduan. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako eta Galiziako elite tradizionalak autonomiaren aldarrikapenaren erdigunean ipini zuten dimentsio kulturala, linguistikoa eta arrazan oinarriturikoa. EAeko lurraldeetako elite tradizionalen asmoa, modernizaziotik urruntzea eta arraza babestea zen, eta irtenbide gisa independentzia ikusten zuten. Baina, agian, EAeko eliteek eskura zituzten osakinak erabili zituzten, modernizazio propioa martxan jartzeko asmoari begira. Hortaz, Lecoursek hizpide duen modernizazioaren urruntzeaz baino, modernizazio propioaren bidez ere hitzegin dezakegu, argumentu modernistek ez baitute derrigorrean elementu modernistetan izan zutabe nagusiak.

Katalunian aldiz, burgesiak erregioaren kultur ezberdintasuna Espainiako Estatuan eragin txikia izatearen frustrazio gisa azaldu zuten. Kataluniako burgesiak Espainian eragin handiagoa izan nahi zuen euren negozio eta komertziorako mesedegarri zelakoan. Autorearen arabera, Katalunian orain dela urte gutxi batzuk arte independentziaren aldarrikapenak izandako ahultasuna eliteek izandako jarrera historiko honen ondorio izan da.

Aipatutako hiru puntu hauetaz gain, nazionalismo moderno eta primordialen arteko eztabaidetatik haratago, Smithek bezala, iragan etnikoaren eragina aktibitate nazionalistaren eraginarekin haztatzearen aldeko ikuspegi bat adierazten du Maízek. Honela, bere arabera, nazioaren sorkuntzak, ezberdintasun etnokulturaletik haratago, beste baldintza batzuen kongruentzia beharko luke:

1. Aurrebaldintza etniko ezberdinak, baina ez datu bezala ulertuak, nazionalistak oinarritzko materia batean oinarriturik aukeratu, filtratu edo asmatzen dituzten produktu bezala baizik, era berean, aurretiaz elite eta intelektualak garatuak direnak.
2. Nazioaren izatea ahalbidetzen duten aurrebaldintza sozialak; besteak beste, interes komunak eta beste taldeekiko gatazkatsuak izan daitezkeenak eta modernizazioaren krisi ekonomiko bat.

3. Aukera Politikoaren Egitura formala (desentralizazio politikoa), ezberdintasun nazionala politizatzen laguntzen duen irekiera politikoa eta informala, gobernatzen dauden politika publiko eta estrategia laguntzaileak, besteak beste.
4. Mobilizazio politiko eraginkor bat, zeinek bere antolaketa eta diskurtsoari esker, gizartearen gehiengo batengan zabaltzea lortuko duen nazioaren existentzia eztabaida ezin den egia politiko bezala.

2.1. Aurrebaldintza etnikoak

Nazioaren sorrerarako etnizitate ezberdin bat beharrezkoa da, baina bere hortan bakarrik ez dela nahikoa adierazi da. Honela, posible da, talde batek hizkuntza, kultura, tradizio, ohitura eta ekonomia propioak izatea baina horrek ez du derrigorrean nazionalitate bat sortzen (Stavenhagen, 1996; Gurr, 1993). Ezberdintasun etnikoa aktibatu egin behar da eta mobilizazio hori adierazle ezberdinen bidez neurtua izan da, alderdi nazionalisten bozka portzentajea (Hechter, 1975; Ragin, 1977; Nielsen, 1980 eta Olzak, 1982 *in* Maíz, 1997:173) edota gaztazka etniko mailaren arabera (Smith, 1981; Gurr eta Harff, 1994; Stavenhagen, 1996 *in* Maíz, 1997:173).

Garrantzizkoa da ere aurrebaldintza etniko hauen ze bertsio ezartzen den aztertzea, nazional guztiek elkarbanatzen duten egia naturalaren estatutua bideratzen duen orokortze prozesuekin batera (Pérez Agote, 1993, 1994; Gurrutxaga 1991, 1996 *in* Maíz, 1997:176). Kohn-ek talde batek elementu diakritiko batzuk politikoki esanguratsuak bilakatzen ditueneko prozesua zergatik eta nola ematen den aztertzea beharrezkotzat jotzen du (Kohn, 1949). Armstrong (1982) eta Smith-ek (1986) behin eta berriro azaltzen duten bezala, etnizitate erreperitorioak nazio ideia-aren etorkizuneko produkzioa aurre-determinatzen ez duten arren, baldintzatu eta hurrengo formulazioak bideratzen ditu. Honen adierazgarri lirateke EAEn eta Katalunian eratu diren nazio-idea ezberdinak. EAEn nazioaren ideiak antiespainolismo osagaiak izan ditu eta, horrek, euskal nazionalismoaren diskurtsoa eta praktika baldintzatu ditu. Katalunian, aldiz, euren nazio-ideia-aren euskarria elementu propioen defentsan gehiago oinarritu da, besteen, kasu honetan, Espainiaren naziotasunaren nortasun elementuen ukazioan baino. Ondorioz, Katalunian nortasun nazional ezberdinak gainditzen dituen katalanismo kultural indartsu bat dute. EAEn aldiz, ildo

transbertsal hori islatuko lukeen baskismorik ez da, ez behintzat Katalunian ematen den intentsitate berdinarekin, ezta gutxiago ere.

Arestian aipatu bezala nazioak hein batean nazionalismoaren produktu lirateke. Autore ezberdinek aipatu dute irudikapenen eta asmatutako tradizioen garrantzia nazioen sorrera prozesuetan, baina aurretik adierazi dugun bezala, irudikapen eta tradizioen berrinterpretazio hauek nazionalismoen indar mobilizatzailean ipini nahi dute fokoa. Eta ez, aurretiazko tradizio, mito eta sinboloen ukazioan, zenbaitek adiera hori eman nahi izan badiote ere hizpide izan ditugun autoreek luzatutako ideiei. Nazionalismoek, aurretik ere baziren elementu eta sinbolo ezberdinak aktibatzen eta eraldatzen dituzte une historiko ezberdinetan.

2.2. Aurrebaldintza sozioekonomikoak

Connorren arabera (1998) nazio bat existitzen da herritarren gehiengoak horrela asumitzen duenean. Hroch-en terminologian (1985), politika-asaldura fase batetik era zabalean asumitutako identifikazio nazional batera iraganean sortzen da nazioa.

Baina ze aurrebaldintza sozialek ahalbidetzen dute mobilizazio politiko nazionalistaren arrakasta? Hrochen (1993) arabera, mugikortasun sozial maila (hezkuntza sistema eta hauteskundeetan partehartzea, besteak beste) eta mugikortasun sozial bertikala eta komunikazio sozialerako kanal eta sareak lirateke mugimendu sozialen garapena laguntzen duten faktoreak. Deutsch eta Rokkan modernizazio eta mugikortasun sozialaren aurkako efektuaz ere mintzo dira. Honela, modernizazioak asimilazioa ahalbidetu badezake ere, bere azkartasuna medio, periferiaren erresistentzia prozesuak ere sor ditzake eta estatu nazionalen asimilatuak izateko bitarteko berdinek berpizkunde etniko bat ere ekar dezakete (Deutsch, 1966; Rokkan eta Urwin, 1982, 1983 *in* Maíz, 1997:181).

Bestalde, Brass, Breuilly eta Linz-ek nazio eraikuntza eta estatu eraikuntza era lineal eta mekaniko batean ematen direnaren ustea alboratzen badute ere, nazionalismoa, modernitatearen oinarritzko fenomeno izaki, beste bigarren elementu batekin harremanetan jarri behar dela azaltzen dute: estatua. Honela, diskurtso nazionalistaren aurrean, nazioa estatuaren produktu bezala ageri da, eta ez estatua aurretiazko nazioko baten adierazpen gisa. Etnizitatea eta nazionalismoa estatuaren aktibitate hertsiki lotuak dauden fenomeno modernoak dira (Brass, 1991), estatu

modernoak nazionalismoa modelatzen duen heinean, bere oinarri objektiboa ematen dio politikoki, estatu propioaren jabetza (Breuilly, 1993). Linzek adierazi du estatu eraikuntzen prozesuak eta bere krisiak, mapa etniko-linguistiko indartsua duten nazio potentzialak bere eraikuntzan zergatik egin duten porrot erakutsi diezagukeela (Linz, 1993). Tyryakian-ek nazionalismoaren hiru bolada historikoez, nazio-estatuak, nazionalismo kolonialak eta nazio-estatuaren aurkako nazionalismoak, estatua dutela erreferente gisa aipatzen du (Tyryakian, 1985 *in* Maíz, 1997:181).

Nazioen sorkuntzan eragina lukeen beste aurrebaldintza sozial bat klase ardatzen ahultzea izan daiteke. Honela, herritarrek *catch-all* motako alderdietan barneratuak izateko aukera irekiko litzateke. Bestea, periferiaren garapen ekonomikoan datza, etnokulturalki ezberdina den eta atzeratuagoa dagoen erdigunearekin alderatuz. Horretaz gain, etnikoki homogeenak diren biztanleen korrespondentzia eta lurralde konzentrazioa, muga geografiko berdinen baitan eman behar da (Lipset eta Rokkan, 1992; Linz, 1973; Petrosino, 1991; Linz eta Stepan, 1996 *in* Maíz, 1997:182). Garapenaren tesiari jarraiki, Díez Medranoren (1999) arabera, aurretik Lecoursek azalduko eliteen paper ezberdinaz gain, euskal eta kataluniar nazionalismoaren ezberdintasuna azalduko lukeen faktore bat, Euskal Autonomia Erkidegoan emandako kapital ondasunen produkzio espezializatu eta konbinatua litzateke, Kataluniako kontsumo ondasunen produkzio endogeno eta espezializatuarekin alderatuz.

Díez Medranoren arabera, kapital ondasunean oinarrituriko garapen kapitalistak euskal gizartearen sektore asko kaltetu zituen. Era berean, euskal kapitalismoak eta Espainiako Estatuak harreman ekonomiko oso estuak zituzten. Primo de Riveraren (1923-1930) diktadura eta gero, ordea, euskal burgesiaren bilakaera emango da. Tradizionalki, elite ekonomikoarekin alineatua zen burgesia, kexu agertzen da Estatuaren eraginkortasunarekin, ete bere babesa EAJri emango dio. Kataluniako garapen ekonomiko motak, kapitalismoarekiko trantsizioaren ondorioak lausagoak izatea ekarri zuen. Gainera, eta euskal industriarekin alderatuz, hartu-eman gutxiago zituen Espainiako Estatuarekin. Kataluniako industriak espainiar merkatuarentzat produzitzen zuen, baina ez, Estatuaren eskaera asetzeko. Modu honetara, euskal elite ekonomikoak EA Erentzako autonomia fiskal eta administratibo bat bermatu ahal izan zuen eta espainiar elite ekonomikoan integratua zegoen. Kataluniako elite ekonomikoak, aldiz, ez zuen autonomia administratibo eta fiskalik eta

botere politikotik at zegoen. Horregatik, Kataluniako burgesia komertzial eta industrialak, beharrezkoa zuen mobilizazio politikoa bere helburu ekonomiko eta politikoak lortzeko. Díez Medranoren arabera, behar horrek azalduko luke Katalunian nazionalismo burguesa EAEn baino indartsuagoa izatea.

Hortaz, euskal eta katalandar nazionalismoa prozesu ezberdinen emaitza dira. Euskal Herriko eta Kataluniako mugimendu nazionalista hauen izaera, garapen maila ezberdinean baino, garapen motan oinarritzen da Díezen arabera. Euskal nazionalismoa industrializazioak eta zentralizazioak ekarritako ondorioen aurrean euskal elite preindustrialek zuten frustrazioaren ordezkari izango da. Kataluniakoa berriz, Kataluniako burgesiak bere interesak defendatzeko espainiar politikan izandako gaitasun ezaren frustrazioaren ordezkari izan zen. Euskal nazionalismoaren oinarri soziala industrializazioak bazterturiko sektoreek eta burgesiaren zati txiki batek osatu zuten, Katalunian aldiz, burgesiak indar handiagoa izan zuen. Kataluniako burgesiak Espainian zuen botere gabeziak eta euren desira politikoak bitarteko, estrategia nazionalista besarkatu zuen.

Hetcherrek (1975) eta Nairnek (1977) esplotazio ekonomikoa eta kultur zapalkuntzek estatu nazional modernoaren periferia txiroen mugimendu nazionalistak indartu zituztela adierazten dute. Baina analisi empirikoek aurkakoa adierazi zuten, hau da, etnikoki ezberdinak diren lurraldeetan, baina garapen handiena dutenetan, ematen direla arrakasta politiko handien duten mugimendu nazionalistak (Ragin, 1977; Connor, 1998; Smith, 1984; Nagel eta Olzak, 1986; Díez Medrano, 1999 *in* Maíz, 1997:182-283).

2.3. Nazionalismoaren Aukera Politikoaren Egitura

Aurrebaldintza sozioekonomikoetatik haratago, badaude beste faktore batzuk mobilizazio politikoaren arrakastaren nondik norakoak baldintzatu ditzaketanak: nazionalismoak kokatzen diren testuinguru politiko instituzionala eta estrategikoa. Izan ere, dimentsio ekonomikotik haratago, taldeen arteko lehia, politikan ematen da batik bat. Instituzio eta politikek, aktoreen presentzia, euren interes eta ekintza erreperitorioak osatzen paper oso garrantzitsua jokatzen dute. Nagelen (1986) arabera, mobilizazio etnikoa ez da ahalbidetzen ezarritako politika publikoak ezberdintasun etnikoak errekonozitu eta instituzionalizatzen dituztenean bakarrik, muga

etnikoen erregulazioak ere sortu ditzake aurretiaz existitzen ez ziren identitate kolektibo berriak. Orrialde guzti hauetan, eta teoria ezberdinen arabera, nazioen sorrerei dagokionean mekanismo automatikorik ez dagoela adierazten ari gara. Hau da, atributu etnikoak izateak ez du halaber nazio eraikuntza prozesua abiarazten edo pizten.

Hemendik eratortzen da Aukera Politikoen Egituraren kontzeptua (mugimendu sozialek aurretik erabilia), zeinek mobilizazio nazionalista zaildu edo erraztu dezaken faktore politiko, estrategiko eta instituzionalak barneratzen dituen. APEk aintzat hartzen duen osagaietako bat mugimendua kokatzen den estatuaren deszentralizazio edo zentralizazio maila da. Asimilazioa izan da mundu mailan arazoa sustraitik konpontzeko erabili den estrategia nagusia. Helburu nagusia barne ezberdintasun nazionalak suntsitzea izan da nortasun etniko-kultural komun bat sortzeko helburuarekin. Integrazio politikak aldiz, nortasun komun zibiko bat eraiki nahi dute eta ez, nortasun etniko-kultural bat (O'Leary and McGarry, 1993). Azken politika hauek, gutxiengo nazionalen errekonozimendu maila batekin bateragarriak izan daitezke.

Estatuen egonkortasun demokratikoak aintzat hartu behar izaten dute lurralde arazoa eta nahiko ohikoa da botere politikoaren deszentralizazio egiturak eta estatu nazionalizataile baten eredia gaindituko lukeen egokitzapen politikoen inplementazioa, besteak beste, federalismoa, demokrazia konsoziatiboa eta sezesio demokratikoa. Buchananen (2013) arabera, mobilizazio nazionalista prozesuek sezesioaren aldarrikapenaren erabilera estrategikoa ere egiten dute, helburu apalagoak lortze bidean, eskumen gehiago eta autogobernua edota komunitatearen barneko elkartasuna indartzeko helburuarekin. Era berean, eta jarraian ikusiko dugun bezala, estatuak, partzialki bada ere, sezesionismoa arautzeko bidea ere ireki ahal dute, sarritan talde nazionalaren aitortza bera edota arautze mekanismoak nahikoak izaten baitira indar sezesionistak baretzeko. Buchananen antzeko hipotesia luzatzen du Sorensek jarraian ikusiko dugun moduan.

APEren beste osagai bat hauteskunde lerrokatze hauste batekin hertsiki lotua dagoen alderdi sistema litzateke. Honela, Brassenen (1991) hitzetan, lehiakortasun eskenatoki politiko bati begira, lidergo eta antolaketaren dimentsioak eta bitartekoen kudeaketak osagai garrantzitsu bat eratzen dute. Alderdi nazionalisten sorrera eta arrakasta alderdi sistemaren tinkotasunaren pean dago, hauteskunde sistemak bezala, gehiengoarena denean mugimenduaren kontsolidazio politikoa zaildu baiditzakete.

APERen baitan hizpide izango dugun azken aldagaia kanpo babesarena da, mugimenduaren garapena ahalbidetuko lukeen laguntza moduan. Nazionalismoen analisi konparatuan nazioartean aldeko koiuntura izatea, nazio-estatuaren krisia eta nazionalismoen boladak sorturiko zabalkundeak aipatzen dira, enpirikoki kasu bakoitzean aztertu behar badira ere (Melucci eta Diani, 1983; Gurr, 1993 *in* Maíz, 1997:199). Dena den, “despiste” historikoen auziak salbuetsita, ez dugu uste aipaturiko kanpo babesaren eragina hain ohikoa denik. Mugimendu nazionalistak une aproposan edo “zaintza” gabean heldzea erabakiorra izaten da. Esaterako, Baltikoko Errepublikak, Eslovenia edota Txekoslovakiaren haustura eman zireneko testuinguruak. Aldiz, Eskozia edo Katalunia, eta neurri batean Quebecoko egoera, kontrako kasuistikaren adierazle lirateke. Egoera oso arautuetan zaila izaten da independentzia lortzea, eta kasualtaterako aukerak desagertu egiten dira.

Jason Sorensek auzi honi erreparatu dio *Secessionism: Identity, Interest, and Strategy* liburuan eta askapen nazionaleko mugimenduek egonkortasun egoeretan autonomismoa bultzatzeko joera dutela azaltzen du: “Autogobernu mailaren bat onartzen den herrialdeetan, egungo autogobernu mailak ez luke eraginik izango sezesionismoaren babesean, baina autogobernu mailaren handiagotzeak sezesionismoaren babesa ahulduko luke, eta, huts egindako deszentralizazioek sezesionismoaren babesa indartu dezakete. Politika diskriminatzaileak medio, autogobernu maila mugatu bat ere posible ez dela azaldu duten herrialdeetan, sezesionismoaren babesa handiagoa izango da. Beste talde etniko batzuei eginiko autonomia eskaintzak herrialde bereko beste taldeek euren eskaerak egitea ekar dezake” (Sorens, 2012: 36).

Sorensen arabera, hortaz, independentzia eskuratzeko ezegonkortasun garaiak beharrezkoak dira. Mendebaldeko demokrazia-liberal egonkor batetik independendizatzea nahiko konplexua dela dirudi. Salbuespena Norvegia izan daiteke. Quebecen ildo honetan bi saiakera egin dira eta aukera sezesionistak ez dira aurrera ateratu. Zenbaiten ustez 2014ean Eskozian eta Katalunia eginiko erreferendumei inflexio puntu bat suposa zezaketeen, baina Eskoziako emaitzek erakutsi bezala, estatuarekin negoziatutako sezesio prozesuak aurrera ateratzea zaila da mendebaleko demokrazia egonkorretan.

2.4. Mobilizazio politikoa

Bukatzeko, edozein mugimenduk bezala, mugimendu nazionalistek beharrezkoa duten ekintza kolektiboa aipatuko dugu. Ekintza burutzeko ez da nahikoa etnizitate eta interes komunen oinarri bat izatea, mobilizazioaren potentzial hori aktibatu egin behar da. Horretarako, diskurtso nazionalistak burutzen duen aukera eta eraketa mitiko-sinbolikoak altruismorako, kooperaziorako eta aberriarengatik sakrifikatzeo, heroizitatea edo ankerkeriarako osagaiak ematen ditu. Era berean mobilizaziorako oinarrizko hunkiberatasun dosi handiak sortzen dituen gu/beraiek ezberdinetaren handiagotzea burutzen dute (Brass, 1991).

Weberrek ere hizpide du nazionalismoen mobilizazio gaitasuna eta talde etniko izatetik komunitate izaterako prozesuaz, honela dio: “Talde etnikoa ez da bere hortan komunitate bat, komunizazio prozesua errazten duen *unea* baizik. Komunizazio tipo ezberdinak indartzen jarduten da, bereziki maila politikoan.” (Weber, 1979:318-319). Talde estatistikoek ez bezala, talde sozialek komunitate sentimendua dute, eta kideek elementu amankomunak elkarbanatzen dituztenaren kontzientzia dute. Máizek aipatu bezala, Barthekek etnien oinarrituriko ezberdintasunaren logika beharrezkotzat jotzen du ezberdintasuna eta proiektzio politikoen sinesmenean oinarrituriko mundu indibidual, intersubjektibo eta kolektibo bat eraikitzeo. Honela, ezberdintasun etnikoak, arbitrarioak, azken instantzian ezberdintasunerako borondateari mugaturik ere, besteekiko muga bat eraikitzea dute helburu (Barth, 1976:9-49). Honela, adskripzio etnikoetan autoreek kontuan hartzen dituzten ezaugarriak ez lirateke ezberdintasun “objektiboen” batuketa, baizik eta aktoreek esanguratsutzat jotzen dituztenak.

Pérez Agotek (1984) ere hizpide du nazionalismoaren gaitasun *performatiboa*. Aktore sozialek talde errealitateak definitzean ekintza performatibo bat burutuko lukete, definitzen ari diren errealitatea sortzen ari diren heinean. Agregatu estatistiko bat agregatu sozial batean bilakatzeko ezinbestekoa da bere kideen artean talde kontzientzia izatea. Honela bakarrik bilakatu ahal da ezaugarri objektiboa, edo itxuraz objektiboa dena, ikur sozial batean. Agregatu sozial baten existentzia ez da ezaugarri objektibo baten existentziaren araberkoa. Ezaugarri objektibo hori ezberdintasunaren ikur denaren pertzepzioa izatea ezinbestekoa da. Aktoreek agregatu objektibo bat agregatu sozial bat bailitzan definitzea

performatiboa da agregatu sozial hau sortzen ari den heinean. Agregatu sozialaren definizioaren arrakastaren arabera, beste batzuek ere erabiliko dute, denen artean pertenezia kontzientzia sortuz eta erreproduzitzen. Paradoxikoki, sarritan balizko ezaugarri ezberdintzaile baten arabera egiten diren definizio sozialak arrakasta lortzen dute krisi garaietan, ezaugarria desagertze bidean dagoenean, baina desagertzen hau, baldintza sozialak medio, era traumatiko batean bizitzen da.

Aktoreen talde definizioak arrakasta izateko ez du behar plausibilitate logiko edo zientifiko egitura, plausibilitate sozial egitura bat baizik. Hau da, giza eremu bat, non definizio honek zentzua duen aktoreentzako, eta hor indar handiagoa dauka aktoreek ezaugarri objektiboekiko dituzten pertzepzioek, ezaugarri beraiek baino. Errealitatearen definizio sozialak oinarri esentzialista dute, diskurtsoa taldearen esentzia osatuko luketeen ezaugarri objektiboen arabera egiten baita. Honela, nortasun propioaren kontzientzia ezaugarri objektibo horien produktu edo jario bezala aurkeztua da.

Talde definizio batek objektibazio bide ezberdinak izan ditzake: aktoreen arteko aitortza eta indarrez mantentzen den objektibazioa. Ildo honetan, agregatu estatistiko bat agregatu sozial batetik bereizten duena arbitrariedade logiko bat litzateke. Ez dago arrazoi logikorik talde bat sortzeko, eta hortaz, bere sorrera ezin da aurreikusi. Taldeko kideek ezin dute arbitrariedade logikoaren parametroetan pentsatu, taldearen existentziaren inguruko diskurtso arrazionalizatzailerik bat sortuaz. Ezaugarrien aukeraketa ez da *arbitrarioa* aktoreen irudiko. Nortasun kolektiboa objektiboki ezarria bezala hautematen da eta arrazoi historiko eta sozialak lirateke norastun hori eta bere adierazpenak determinatzen dituenak.

Ildo honi jarraiki, Bourdieuk nazioek beharrezko dituzten aurrebaldintzez, errepresentazioen indarraz eta beharraz, eta botere eta borroka sinbolikoaz esandakoen inguruko aipu batzuk egingo ditugu. Lehenik eta behin, espazio soziala eta botere sinbolikoa izango ditugu hizpide. Giza mundua, ikuskera eta sailkapen printzipio ezberdinen arabera ikusia eta eraikia izan daiteke; adibidez, banaketa ekonomiko eta etnikoen arabera. Bourdieuren arabera, ikuspuntu ekonomikoari helduz, garatuenak dauden gizarteetan faktore ekonomiko eta kulturalak dira ezberdintasun ardatz nagusiak, baina honek ez du eragozten agenteak beste banaketa printzipio batzuen arabera antolatzea: adibidez, etnikoak, erlijiosoak edo nazionalak. Espazio soziala ondasun ezberdinen jabe eta sistematikoki elkar lotuak dauden

agenteek osatzen dute. Honela, ondasunen banaketa medio, mundu soziala, objektiboki ezberdintasunaren logikaren bidez antolaturiko sistema sinboliko bat bezala aurkezten da. Giza espazioak gune sinboliko bezala funtzionatzen du, bititza estilo eta estatus taldeen espazio bat.

Modu honetara, mundu sozialaren pertzepzioa egituraketa bikoitz baten produktua da:

- Objektiboa: sozialki egituratua dago agente edo instituzioei egotzitako ondasunak probabilitate oso ezberdinak dituzten konbinazioetan aurkezten direlarik.
- Subjektiboa: bereziki lenguaian barneratuak diren pertzepzio eta apreziazio eskemak, botere sinbolikoaren harremanen egoera adierazten dutelako.

Bi egituraketa hauek mundu komun bat sortzeko lehian daude, zentzu komunaren mundu bat, edo mundu sozialaren gutxieneko kontsentsu baten bila. Mundu sozialaren objektuak ordea, era ezberdinetan jasoak eta adieraziak izan daitezke eta hemendik eratortzen diren mundu sozialaren pertzepzioaren borroka sinbolikoek itxura ezberdinak har ditzakete (Bourdieu, 1988:135-137). Objektibotasunaren aldetik, errealitate batzuk ikustaratzera eta balorea ematera bideratutako irudikapen ekimenen bidez ekin daiteke. Subjektibotasunaren aldetik, mundu sozialaren pertzepzio eta apreziazio kategoriak, egitura kognitiboak eta ebaluatiboak aldatzen saiatzeari ekin daiteke. Pertzepzio kategoriak eta sailkapen sistemak, hau da, hitzak oinarrian, errealitate soziala eraikitzen duten izenak adierazten dituzten heinean, borroka politikoaren apustu bilakatzen dira, ikuskera eta sailkapen printzipio legitimoaren inposizioaren borroka.

Maila politikoan, errealitatearen eraikuntza berri bat ezartzeko estrategiak ditugu, lexiko politiko zaharra baztertuaz edota ikuspegi ortodoxoa mantentzera bideratutako hitzak. Erakuntza estrategia ohikoena oraineko beharrei egokitutako atzera begirako berreraiketa edota etorkizunari begira egiten direnak dira, orainaren zentzua mugatuz aurreikuspen sortzaile bat medio. Esaterako, Sabino Aranak “Euzkadi Euzkotarren Aberria da” leloarekin, hiru hitz berri eta dagozkion kategoriak ezarri zituen. Euzkadi Euskal Herriaren ordeztu, Euzkotarrak Euskaldunen ordeztu, eta Aberria Herriaren ordeztu. Aranak, lelo berri horrekin, muduaren ikuskera eta eskema berri bat ezarri zituen. Lehio berri honek era egoki batean islatzen du Bourdieuk hizpide duen biolentzia sinboliko onetsia.

Borroka sinboliko hauek, bai indibidualak eta bai kolektiboak, oinarrituriko egituretatik autonomia erreala ematen dieten logika zehatz bat dute. Ordenu sozialaren legitimazioa ez da propaganda edo inposizio sinbolikoaren nahitzako ekimen baten produktua; agenteek mundu sozialaren egitura objektiboetara egitura horietatik ateratzen diren pertzepzio eta apreziazio egiturak egoztearen produktua da, eta honela mundua, ebidente bezala ikustera daramatzate.

Botere harreman objektiboak botere sinbolikoaren harremanetan erreproduzitzen dira (ibid. 138). Zentzu komunaren produkzio sinbolikoaren borrokan, hau da, izendatze legitimoaren monopolioaren borrokan, agenteek aurreko borrokan irabazitako eta juridikoki bermatua izan daitekeen kapital sinbolikoa erabiltzen dute. Kapital sinboliko sendoa dutenak, euren produktuen aldeko balore eskala hoberena ezartzeko aukera gehiago dute gizarte ezberdinetan, erakundeekiko ia monopolioa dutelako, hezkuntza sistema kasu, non mailaketa hauek ezarri eta bermatzen diren. Weberrek zioen estatua zela biolentzia legitimoaren monopolioa zuen erakundea (Weber, 1979:1056). Bourdieuren arabera, Weberren formula ezaguna orokortu ahal da eta estatuan ikusi biolentzia sinboliko legitimoaren monopolioa ere. Izendatze ofiziala da Bourdieuren arabera estatuari dagokion biolentzia sinboliko legitimoaren monopolioaren adierazle tipikoenetarikoa. Biolentzia sinboliko hau inposatuz gainera, estatuak ez luke biolentzia fisikoaren errekurtsioa erabili beharrik izango. Halere, mundu sozialaren ikuspegi legitimoaren produkzio eta ezarpenaren borrokan, beti daude banaketa legitimoen ikuspegia ezarri nahi dutenen botere sinbolikoen arteko gatazkak.

Botere sinbolikoaren botere nagusia, *taldeak egitearena da* eta bi baldintzatan oinarritua dago. Lehenengoari dagokionean, diskurtso performatibo oro bezala, botere sinbolikoa kapital sinboliko baten jabetzan oinarritua egon behar da. Beste izpirituei banaketa sozialen ikuspegi bat ezartzeko boterea *aurreko borroketan lortutako autoritate sozialak baldintzatua dago*. Kapital sinbolikoa kreditu bat da, aitortza ezartzeko baldintzak izateko nahikoa aitortza lortu zutenek egikaritzen duten boterea, hain zuzen ere. Honela, konstituzio boterea, talde bat sortzearena mobilizazioa medio, edo prokurazioagatik desagertaraztea, berarengandik hitzegiten, mezulari autorizatu bezala eta instituzionalizazio prozesu luze baten bitartez bakarrik lortu ahal da. Instituzionalizazio horren amaieran agintariak taldearengandik jasotzen du taldeak egiteko boterea. Bigarrenari

dagokionean, eraginkortasun sinbolikoa, proposatutako ikuspegiak errealitatean duen oinarriaren arabera da.

Taldeen eraketa *ex nihilo* bat ezin da izan, eta arrakasta aukera gehiago ditu batu nahi diren gizabanakoen artean afinitate objektiboak badira. “Teoriaren efektua” indartsuagoa da teoria egokiagoa den heinean. “Botere sinbolikoa hitzekin gauzak egitearen boterea da “(ibid. 139-141). Egokia bada bakarrik, hau da gauzei egokitua bada, deskripzioak gauzak egiten ditu. Nelson Goodmanek dioen bezala, “konstelazio bat existitzen hasten da konstelazio bezala aukeratua eta izendatua denean, eta ildo honetan, talde bat, klase bat, sexu bat edota nazio bat ez da existitzen bere kide direnentzat eta besteentzat, bereiztua izan arte, beste taldeen printzipioen arabera” (Goodman, 1976 *in* Bourdieu, 1988:141) Ezagutzan, eta batez ere aitortzan, dago gakoa.

Klasea (edo herria, edo nazioa edota beste errealitate sozial bat) existitzen da baldin eta eurak klase bat direla esan ahal duen norbait badago, eta era berean bere partez publikoki, ofizialki hitzegiten dieteni klase horretako kide bezala errekonozitzen direnengandik hitzegiteko eskubidea errekonozitzen dietelako.

Bourdieu errepresentazioen indarra berresten du errealitate soziala eraikitzeke orduan. Nortasun erregional edo etnikoaren irizpide objektiboan bilaketak ez du aherentzi behar, praktika sozialean, irizpide horiek irudikapen mentalen objektu direla. Hau da, pertzepzio eta apreziazio ekintzak, ezagutza eta aitortzarenak, irudikapen objektalak sor ditzakete, gauza itxura hartuz (banderak, sinboloak...) edo ekintzak bideratuz. Guzti hauek, manipulazio sinbolikoaren estrategia interesatuak dira eta ondasun eta jabeen inguruan besteek egin dezaketek ideia zehaztea dute helburutzat. Jabetza (objektiboki) sinbolikoa, ezkorrena izanda ere, estrategikoki erabilia izan daiteke interes materialen arabera, baina baita bere jabearen interes sinbolikoaren arabera ere (Bourdieu, 1985:87).

Nortasun erregional edo etnikoaren definizioaren borrokan, errealitatearen irudikapena ere aintzat hartu behar da, hau da, irudi mentalen irudikapen borroka eta, era berean, irudi mental horiek manipulatzera bideratutako manifestazio sozialak. Nortasun etniko edo erregionalen borrokek, klase borrokan kasu partikular bat dira, ikusarazi eta sinestartzeko, ezagutarazteko eta aitortzaren boterearen monopolioaren borroka, mundu sozialaren sailkapenen banaketa legitimoa ezartzeko eta, hau medio, taldeak egin eta desegiteko.

La regio eta bere mugak (*finis*) herrialdea, nazioa zedarrizteko autoritate ekintzak besterik ez dira. Honela, muga eta lurraldearen definizio legitimoa ezarri nahi da, mundu sozialaren banaketa legitimoaren printzipioa, hain zuzen ere. Lege indarra duen egia autoritatez baieztatzea helburu duen ekintza honek, botere sinboliko orok bezala, errekonozimenduan oinarriturik, esaten duenaren izatea sortzen du (ibid. 88-90). Autoritatez esatean gauzak, hau da, denen aurrean eta denen izenez, publikoki eta ofizialki, arbitrariotasunetik ateratzen da, zigortu eta santutzen du. Izena emanaz izanarazi egiten ditu izanaraztea merezi duen bezala, gauza “naturalen” naturari egokitz bezala.

Bourdieuaren arabera ez da sailkapen “naturalik” muga “naturalen” bidez bananduak dauden erregio “naturaletan”. Muga, banaketaren produktua besterik ez da, eta geroago, maila handiagoan edo txikiagoan, “errealitatean” oinarriturik dagoela esango da. Irizpide ezberdinen arabera (hizkuntza, *habitata*, kultur estiloak) mugaturiko erregioak ez dute inoiz guztiz bat egiten. Muga, delimitazio juridikoaren ekintzak, ezberdintasuna sortzen du bera ezberdintasun horren produktu den maila berean.

Ildo honi jarraiki, Bourdieuk diskurtso erregionalista ere diskurtso *performatibo* bat dela adierazten du. Aurretik aipatu dugu diskurtso performatiboa botere sinbolikoarekin oinarrietako bat dela. “Diskurtso honek mugen definizio berri bat legitimo bezala ezarri nahi du, erregioa ezagutarazi, eta aitortza eskatzen duena kontuan hartzen ez duen erregioaren definizio menderatzaileari aurre egiteko. Kategorizazioak, aitortza lortzen duenean edota errekonozitutako autoritate batek bideratua denean, botere bat egikaritzen du. Magia sozialaren ekintzaren bidez, izendatutakoa existitzea finean, arrakasta lor dezake aurrera eramaten duenaren hitzari boterea errekonozitzen bazaio, mundu sozialaren ikuskera eta sailkapen berri bat ezartzearen boterea. Baina diskurtsoaren egilearen autoritateaz gain, diskurtsoa zuzentzen zaion taldearen objektibitatean zenbatean oinarritzen denaren arabera ere izango da arrakasta” (ibid. 90-91) Elementu hauetaz gain, taldeko kideek ematen dioten errekonozimendu eta sinesgarritasuna eta komunean dituzten jabetza ekonomiko eta kulturalak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Mugimendu erregionalista eta nazionalista orotan manifestazioaren dialektikak pisu handia hartzen du. Hitzen ofizializazioa manifestazioaren bidez egikaritzen da eta, honela, talde praktiko, birtuala, baztertua eta ukatua bistan ageri da, beste taldeen aurrean eta talde berarentzako, eta

bere izatearen testigu da talde ezagun eta aitortua den heinean eta instituzionalizazioa helburutzat izanik.

Hortaz, aurrebaldintza etnikoetatik haratago, autore ezberdinek garrantzia ematen diote, komunitate izaera hori indartzeko bideratzen diren mobilizazio, sinbolo, diskurtso eta errepresentazioei. Finean, hortik eratorriko da talde kontzientzia, talde ezberdinduaren kontzientzia, “gu”aren eraikuntza.

3. Nazionalismo eredu argiak? Eredu onak eta gaiztoak?

Behin nazioen eraikuntzan eragiten duten baldintzak azterturik, nazionalismoaren eredu nagusiak (sailkapen mota ezberdinak badaude ere) izango ditugu hizpide. Horretarako, nazionalismo etniko-kulturala eta politikoaren arteko ezberdintasunei erreparatuko diegu. Lehenak, elementu esentzialista edo primordialista deiturikoak hobesten ditu, berez taldeari itsasirik doazenak, arbasoengandik edo naturatik hartuak direnak, alegia: hizkuntza, arraza, erlijioa, sorlekua eta abar. Nazio politikoan berriz, politikotzat jotzen diren elementuak hobesten dira, etorkizunari begirako kontratu baterako beharrezkoak direnak, alegia: lurraldea eta borondatea (Zabalo, 1998:27-46).

Linzek mugimendu nazionalistek, praktikan jarrera esentzialista edo kulturaletatik politikoetara iragateko joera dutela adierazten du. Ildo honetan, elementu primordialak hobesten hasten den mugimenduak gaindiezineko oztopoa aurkitzen du etnikoki guztiz homogeneousak ez diren taldeetan, zabaldu nahi duen mezua gizartearen zati bati bakarrik heltzen baitzaio, beste zatia ez soilik aparte utzia edo baztertua, baizik eta ukatua ere baden bitartean. Baina arrakasta lortu ahala, mugimendu nazionalistak – eta gogora dezagun beti nazionalismoaren funtsezko jite politikoa- herri osora zabaltzeko premia sentitzen du, are gehiago, autogobernu mailaren bat eskuratu badu, eta bai hala erabaki duelako, bai gobernu erantzukizuna duelako, elementu primordialen inportantzia itzaliz, motelduz edo ilunduz doa, politikoen mesedetan (Zabalo, 1998:32 *in* Linz 1985:204-205).

Smithek gizarte industrialetan (bir)sortu diren mugimenduak nazionalismo etniko bezala ulertzen ditu (Smith, 1997:126-127). 50. hamarkada bukaeran, Ipar Amerikan, Europan eta Sobietar Batasun ohian, estatu

interbentzionistak aurretik isilduak edota zapalduak izan ziren xede autonomista edota sezesionistak piztu zituen gutxiengo etnikoen baitan.

Baina, zeintzuk dira susperraldi honen ezaugarri berriak? Lehenik eta behin, mugimendu hauen gehiengoa autonomistak dira banaketaren aldekoak baino: mugimendu etnikoaren jarraitzaile gehienak autonomia kultural, sozial eta ekonomiko bat izan nahi dute, baina barneratuak izan ziren estatuaren marku politiko eta militarrean jarraitu nahi dute. Salbuespenak ere badira: zenbait mugimendu etnikoen atal arradikalenak, ETA Euskal Herrian eta Eskoziako Alderdi Nazionala (SNP) Eskozian, Espainia eta Erresuma Batuarekiko independentzia osoaren aldeko apustua egin dute. Beste mugimendu batzuk bere osotasunean xede separatistak azaldu dituzte, Lituniako *Sajudis* kasu. Baina orokorrean, mugimendu etniko gehienek autonomia nahiago izan dute banaketa baino. EAeko mugimendu nazionalistaren susperraldian Aukera Politikoen Egiturak paper garrantzitsua jokatu zuen. Gurutz Jauregik (1981) bere tesi klasikoan azaldu bezala, abertzaletasunak Euskadi okupatutako herri bezala aurkeztu zuen, eta Francok gainera sinesgarri egin zuen abertzaletasunak zabalduko irudikapen hau.

Mugimendu nazionalista etniko hauen bigarren ezaugarria nortasun bikoitz baten onarpena da, nortasun nazional-kulturala eta nazio nortasun politikoa. Beste era batera esanda, nortasun nazionala estatu mailako lurralde nortasun baten barruan kokatuko litzateke; esaterako, nazio bretoi bat Frantzia, katalan nazioa Espainian, etab. Hau da, erraz banandu ezin daitezkeen oroimen historiko eta sentimendu politikoen bikoiztasuna onartzen dute, dagoeneko existitzen den estatu batean mantentzeak dakartzan abantaila ekonomikoekin. 70. hamarkadan *Devolution*aren eztabaidan eskoziarrek kontuan izan zuten faktore hau.

Halere, eztabaidagarria izan daiteke Smithen tesia, bai Eskozia eta bai Kataluniari begira, bi herrialde hauetan ematen ari den mugimendu edo aldarrikapenei erreparatzen badiegu. Batetik, itxura batean behintzat, azken urteetan, bi herrialde hauetan orain artean bigarren maila batean ziren sezesionismo indarren berpizkunde batean aurrean geundeke. Dena den, bai Eskozian eta bai Katalunian 2014ean izandako galdeketen emaitzek berpizkunde honen intentsitatea, hein batean, kolokan utzi dutenaren ideia dugu. Eskoziaren kasuan, 2014ko Irailaren 18an sezesioaren inguruko erreferenduma egin zuten honako galdera hau luzatuz herritarrei: *Eskoziak herrialde independentea izan behar luke? (Should Scotland be an independent country?)*. %85eko partehartzearekin, %55,3ak

independentziaren aurka bozkatu zuen. Tarte txikiarekin bada ere, sezesioaren aurkako posizioak atera ziren garaile. Kontuan izan behar da erreferendumean luzatu zitzairen galdera ez zela ziurrenik eskoziarrek nahiko luketeena, gehiengoak argi adierazi izan baitu *Devo Max*, edo hirugarren bide hori litzatekeela babes handiena izango lukeen aukera.

Kataluniari dagokionean, 2014ko Azaroaren 9an burutu zuten galdeketa, eskoziarren oso testuinguru ezberdinean. Katalunian galdeketa ez zen Estatuarekin adostua izan, eta galdeketaren kontsulta izaera azpimarratu nahi izan zuten antolatzaileek. Eskozian galdera argia zen, independentzia, bai ala ez, bozkatu behar izan zuten. Katalunian aldiz, galderaren formulazioa nahasia izan zen, edukia beretsua bazen ere, Katalunia estatu independentea izatearen ingurukoa. Hortaz, erabakitze eskubidearen aldeko galdeketa bailitzan aurkeztua izan bazen ere, nabarmena da, auzitan ez zela erabakitze eskubidea, estatu propioaren inguruko auzia baizik. Emaizetegi dagokionean, bozkatzeko eskubidea zuten %33ak bakarrik hartu zuen parte, eta hortik %80ak estatu independente baten alde zegoela adierazi zuen.

Emaizta hauek, azken urteetan bi herrialde hauetan ikusiriko susperraldi independentistaren indarra erlatibizatzen dutela uste dugu. Halere, bai Kataluniari, eta bai Eskoziari dagokionean, independentziaren aldeko mugimendu berriztatuek Smithen tesietako bat zalantzan jarri dezaketela uste dugu, estatuan jarraitzeko arrazoi gisa abantaila ekonomikoak aipatzen dituen heinean. Emaiztetatik haratago joanez, eta Katalunia kasu, gaur egun independentziaren aldarrikapenaren zutabeetako bat Espainiako Estatuan jarraitzeak dakarren balizko galera ekonomikoan oinarritzen dela esan dezakegu. Hortaz, ingurumaria honetan auzi ekonomikoa sezesiorako bultzada bezala ikus daiteke, Smithen hizpide duen xede horien euste-horma baino.

Honen haritik, ñabardura bat egin beharrean gaude bi herrialde hauetako mugimendu independentisten balizko susperraldiaren jatorriari dagokionean. Katalunian, printzipio batean akordio fiskal berri bat zen aldari nagusia, eta, behin hau ukatu zitzaientean hartu zuen indarra independentziaren aldeko aldarriak. Ildo beretsuan, eta aurretik aipatu moduan, Eskozian *Devo Max*aren aldeko jarrera nagusitzen zen eta independentziaren inguruko erreferenduma bai edo ez terminoetan kokatzea ez zen Eskoziako lider nazionalistek lehenesten zuten bidea. Hortaz, auzi ekonomikoak sezesiorako bultzada edo euste-horma direnaren eztabaidatik haratago, abantaila eta desabantaila ekonomikoen

balantzeak mugimendu nazionalista hauetan izan duen eta oraindik duen garrantzia ukatzina dela uste dugu.

Ingurumaria ekonomikoak mugimendu hauen birsortzean izan ahal duen eraginari jarraiki, Smithen autonomia etnikoaren aldeko mugimendu gehienak sortze bidean ziren estatuetan baino, bizi maila altuagoa zuten estatuen baitan eman zirela adierazten du (Smith, 1997:127). Kasu batzutan, argi dago *ethnieak* eta erregioak talde dominante eta erdigunea baino garatuagoak daudela; euskaldunak eta katalanak besteak beste, Gaztelako herritarrak baino garapen ekonomiko handiagoa izanik. Baina kasu hauetan ere, mundu garatuko estatu zaharragoetan eta oinarri ekonomikoa garatuago zuten estatuetan eman dira mugimendu nazionalista berriztatu hauek.

Azkenik, gizarte industrialetako autonomia etnikoaren aldeko mugimendu hauen ezaugarriei jarraiki, eta Sobietar Batasunaren salbuespenarekin, nazio-estatu modernoek aurreratuak direla adierazten du Smithen. Hau da, denboran zehar nazio bezala kontsideratuak ziren estatuen aurka, nazionalismoaren interpretazio zehatz batetik hibrido nazionalak baziren ere.

Ezin dugu ordea, gizarte industrialetan emandako nazionalismoaren birsorkuntza fenomeno berri eta *sui generis* bat bailitzan ulertu. XVIII.mendetik aurrera herri mobilizazio prozesuaren fase berri bat bezala ulertu behar da Smithen arabera. Modu honetara, mendebaldean autonomia etnikoaren alde izan diren mugimendu “berriak” ez dira oraingoak. 60. hamarkadan babes handia lortu zuten, baina hazkundera, 1939 aurretik izandako bitarteko eta idealetan errota zegoen, eta beste kasu batzuetan 1914a aurretik (Gales, Eskozia, Katalunia, Euskal Herria eta Britainia). Adibide guzti hauetan kultura, literatura eta hizkuntzaren berpizkunde bat eman zen eta ondoren, autonomia etniko bat aldarrikatu zuten.

Laburbilduz, Smithi jarraituz, gero eta sendoagoa izan aurretiazko nortasun etnikoa, taldeak aukera gehiago izango du nazio batean bilakatzeko. Nazioen prozesu eta sorkuntzan, Europan behinik behin, nortasun etniko premodernoen nazioen jaiotzaren zergatiaren oinarria ipini zuten. Gogoratu dezagun, Bourdieuk oso argi zioela ezerezetik nekez sor daitekeela ezer. Baina automatismorik ere ez da; atarian esan dugun moduan, garrantzitsuena teoria-efektuen irudiak jendearen sinesmenekin loturak mantentzea da.

Smithek nazionalismo etnikoak aipatzen baditu ere, beste autore asko bezala, nazionalismoaren etnikotasuna eta zibikotasunaren banaketa hau gainditzearen alde agertzen da, eta nazionalismo orok bi tipo ideal horien ezaugarriak barneratzen dituela dio. Are gehiago, aurrerago ikusiko dugun bezala, nazio ezberdinen formakuntzan etniek izandako garrantzia ikertuko du eta nazionalismo zibiko eta politikoenak ere, era berean, etnikoak eta linguistikoak ere badirela dio (Smith, 2004). Honela, borondatezko ideologia nazionalista eta organikoaren artean dauden ezberdintasunetik haratago, eta nazioaren ikuskera “zibikoa” eta “etnikoaren” artean bezala, euren politiketan espero zitekeen baino antzekotasun gehiago daudela azaltzen du. Tesi honi jarraiki, nazionalismo etniko eta zibikoaren (jakobinoa ere deitua) arteko banaketaren artifizialtasuna mantendu duten bi autore aipatuko ditugu.

José Ramón Recalderentzat “frantziar iraultzaileen nazioaren herri ideologiak – herri nazioak- ez du koherentzia logikorik Saboya eta Nizaren anaxioaren justifikazio etnozentrikoak suposatzen duen deribazioarekin; Estatu Batuen eraikuntza nazionalaren kontzeptuak ez du koherentzia logikorik beltzen aurkako jarrera segregazionistak adierazten duen etnozentrismo maila altuarekin” (Recalde, 1982:148 *in* Zabaltza, 2006:193).

Honela dio Juan Aranzadik: “Ez dago nazionalismo demokratiko, aurrerakoi, frantziar eta jatorri jakobinoduna nazionalismo etnizista, erreazionario, alemaniarra eta hizkuntza eta arrazan oinarrituriko baten *aurrean* [...]. Borondate orokorrak nazio bat sor dezake aurretik *komunitate natural* baten borondaterik bada. Borondate hau, borondate horren adierazpenaren aurretik zeuden irizpideen arabera definitua da, eta irizpide hauek politikoak ezin direnez izan, nahitaez biologikoak, historikoak eta linguistikoak izan beharko dira” (Aranzadi, 1981:54 *in* Zabaltza, 2006:193).

Habermasek nazio zibiko eta eredu errepublikarraz ezaugarritutako nazio-estatuaren aldeko hautua egiten du. Kontuan izan behar dugu, Habermas *patriotismo konstituzionalaren* ideiarekin aitzindarietako bat dela. Estatuaren ezaugarri eta balore errepublikarrak deskribatzean ordea, gizarteko kideen askatasuna eta herritarren askatasun edo autonomia politikoaz gain, hirugarren kontzeptu bat ere badago, hein batean, ideia errepublikar horietatik aldentzen dena: askatasun nazionalaren kontzeptua. Kontzeptu hau nazioaren independentziari dagokio, beharrezkoa izanez gero, “seme-alaben odolarekin” defendatua izan behar den independentzia. Askatasun kolektibo hau, gizabanakoaren askatasunak ez bezala, estatu sekularizatuak

oraindik mantentzen duen transzendentzia ez sekularizatuaren hondarra litzateke. Habermasen arabera, Frantziar Iraultzatik zerbitzu militarrekin loturiko betebeharrak herritarren eskubideen ifrentzu dira. Aberriarengatik borrokatu eta hiltzeko prestutasunean, nazio kontzientzia eta errepublikar mentalitatea era beretsuan ziurtatu behar dira (Habermas, 1997: 178-181).

Kodifikazio bikoitz hau oroimen historikoen inskripzioetan ere agerikoa da. Askatasun errepublikarren aldeko borroka gogoratzen duten zedarriak, orokorrean guda zelaian eroritako oroimenez eginiko erritueta heriotza-sinbolismoarekin bat doaz. Kontzientzia modernoaren memoria aztarna bikoitz honek, nazioaren natura anbibalentea eta duala azaltzen du:

- *Nabi den nazioa*, hau da herritarren nazioa, kideen borondatearen arabera sortutako nazioa.
- *Jaio garen nazioa*, hau da herri bateko kideek osatzen duten nazioa, herri bateko kideak hazi eta harremantzen diren nazioa.

Herritarrak kide aske eta berdinen asoziazio politiko bat bezala elkartzen dira nazioaren lehen adieran. Bigarrenean aldiz, *herriko partaideak*, hizkuntza eta helmuga historiko komun bat duen komunitate etniko baten kide dira jaiotzez. Habermasen aburuz, estatu nazionalean estatuak ordezkatzeko duen komunitate juridiko igualitarioaren unibertsalismoa eta nazioaren komunitate historikoaren partikularismoaren arteko tentsioa agerikoa da. Habermasen arabera, estatuaren sekularizazio osoa, kolektiboaren izenean bere herritarren bizitza eta heriotzaren buruzko eskubidea aldarrikatzeari uzten dionean emango da (heriotza zigorra eta zerbitzu militarra orokorrean). Orduan egikaturiko litzateke Habermasek aldarrikatzen dituen ideia errepublikar eta zibikotasunean oinarrituriko nazioa. Errepublikak bera ahuldua geratuko litzateke, nazioaren indar integratzailearen oinarria prepolitikoa bada, hau da, borondate politikoaren eraketatik independentea den ekintza batean oinarritzen bada.

Nazionalismoari buruzko literaturan nazionalismo etnikoaren gaitotasunak eta zibikoaren bondateak behin eta berriro irakurtzen dira. Baina existitzen al dira errealki bi tipo garbi hauek ingurumaria errealetan? Filosofia politikoan gailentzen den interpretazioan, lehenak estatu gabeko nazionalismoak ordezkatzeko ditu eta kuriosoki, bigarrenak, estatua dutenak. Lehena baztertzaila da *per se* eta bigarrena barneratzailea arrazoi

berdinarengatik. Banaketa honi helduko dio posnazionalismoak: modu honetara, maila teoriko eta normatibo batean posnazionalismoa ordena politiko modernoetako oinarri etnikoa gainditzearen aldeko proposamen bat bezala ikus dezakegu. Irakurketa praktikoa politiko batetik begiratuta, nazionalismo periferikoak ahultzeko proposamen bat litzateke, beti ere, erdiguneko nazionalismoaren mesedetan. Patriotismo konstituzionalarekin hertsiki lotua, baldintza etnikoen presentzia gutxiestea eta neutralizatzeko helburua elkarbanatzen dute, patriotismo konstituzionalak *gu* etnikotik kultura zibiko demokratiko batetarako leialtasun transferentzia eskatzen baitu: *ethnos* kulturaletik *demos* zibikora. Dena den, ez dago argi posnazionalismoaren helburua nazionalismo oro gainditzea denik edota bat lehenestea, nagusia, nazionalismo periferikoan biziotzat jotzen direnak nagusian bertute bezala ulertuz (Aierdi, 2009).

Nazionalismo *on* eta *gaiztuen* arteko sailkapena ordea, ez da estatua duten ala ez dutenaren araberakoa bakarrik izaten. Horren adibide dugu, Espainiako Estatuaren baitan sarritan eginiko ezberdintasuna: katalandar nazionalismoa zibiko edo politikoa bezala definituz, eta aldiz, euskal nazionalismoa, etnikoa bezala. Nazionalismo hauen ezaugarriak aipatzean, katalandarra organizista eta integratzailea dela adierazten da, eta era baikorrear, barneratzailea. Euskalduna aldiz, borondatean oinarriturikoa, separatista litzateke, eta zentzu ezkorrean, baztertzaila (Conversi, 1997:240). Honela, euskal nazionalismoa baztertzaila dela esaten da, eremu politikoan separatista delako. Nazio kontzeptua, hein batean, hizkuntzan oinarritzen duen katalandarra aldiz, eta hortaz, ikasten dutenak bakarrik barneratuko lituzkeena, barneratzailea eta integratzailea dela adierazten da.

Julen Zabalok azaltzen duen moduan, ez al litzateke euskal nazionalismoa barneratzaileagoa, nazio kontzeptua borondatean eta lurraldean oinarritua dela kontuan izaki? (Zabalo, 2004:81). Kontua da nazionalismo tipoen azterketan nahastu egiten direla nazio eredu bakoitzaren nondik norakoak eta euren politizazio maila. Eta hortaz, sailkapen artifizial hauek egikaritzeko orduan, etnikoa/zibiko dikotomia ordez, estatuak eskainitako autonomia graduen aurrean erakutsitako zorrotasun edo tolerantzia mailaren araberako sailkapen edo ezberdintasunak aipa genitzaizke. Zentzu honetan, orain artean, katalandarra estatuarekiko hain zorrotz ez dela azaldu da, euskal nazionalismoak aldiz, tolerantzia gutxiago erakutsiko zukeen. Nazionalismoen ezaugarritze honetan, ordea, ezin dugu ahantzi euskal abertzaletasunak inplizituki dituen akatsak: batetik, Sabino

Aranaren jatorrizko xenofobia eta geroagoko ETAREN existentzia eta jardun biolentoa. Bi zuhaitz hauek ez dute euskal abertzaletasunaren bilakaera ikusten utzi, euskal abertzaletasunak bere zailtasunetik haratago, berrikuntza doktrinarioa garatu zuen 60. hamarkadan.

Xabier Zabaltzak “patriotismo konstituzionala” eta “nazionalismo etnikoa” antagoniko bezala aurkezteak errealitate objektiboan oinarritik ez duela dio, eta erabiltzaileak bata ala bestea aipatzean emandako konnotazioan bakarrik legoke ezberdintasuna. Europako hizkuntza gehienetan “nazionalismo” kontzeptuak karga negatiboa du eta hortaz, oso gutxi errekonozitzen dute euren burua nazionalista bezala. “Nazionalismoa” eta “patriotismoaren” arteko bereizketa Tonniesek eginiko “gizarte” eta “komunitatearen” arteko bereizketa, eta Meinecken “nazio politikoa” eta “nazio kulturalaren” arteko bereizketarekin bat datoz (Zabaltza, 2006:189-208). “Patriotismoa” eta “Nazionalismoaren” arteko ezberdintasuna estatua izatean edo ez izatean datza. Estatu propioa duten nazionalismoek euren lurraldearen barruan praktikatzeko dute homogeneousazio linguistikoa eta kulturala. Estaturik gabe nazionalismoek egun batean beratu lortzea espero dute orain kritikatzeko duten homogeneousazio linguistikoa eta kulturala praktikatzeko.

Zabaltzaren arabera, patriotismo konstituzionala estatu bateko nazionalismo dominantearen nazionalismo lotsati bat dela pentsatzea zilegi da. Liberalismoaren amets antzu bat kulturaren neutrala denarena da, estatuak kultura bat suspertu eta babestu ez balukete bezala, eta gainera, kultura hori nazio kultura ez balitz bezala aurkeztuaz. Dena den, liberalismoak berak bigarren bertsio bat bilatu behar izan du estatuak gainontzekoen kaltetan, kulturaren bat babesten dutela aitortuz. Besteak beste, Walzer edo Kymlicka honen lekuko izan dira eta propaganda liberal sinplea alboratu dute. Ez da Komunitarismoan erori behar liberalismoaren bigarren bertsio hau ez sinesteko, estatu guztien asmoa nazioa izatea delarik, eta seguruenik, alderantziz.

Posnazionalismoaren proposamenaren ildo berean kokatu ahal dugu *nazionalismo metodologikoa* gaingaitzearen aldeko paradigma berri baten proposamena: *kosmopolitismo metodologikoa*rena, hain zuzen ere. Paradigmen alderaketa horretan planteiatzen diren dimentsio batzuk aipatuko ditugu (Beck, 2004):

- *Mugak* berriro marraztu eta oinarritzearen aldeko apustua litzateke, hautazko filiazio politiko anitzen alde. Nazionalismo

metodologikoaren filiazio politiko aurre ezarria eta baztertzaitetik aldenduz.

- *Etnizitatea/kultura*; kulturen bateragarritasuna eta ezberdintasun etnikoen aitortza aldarrikatzen du, baina beti ere, esentzialismotik urrunduz. Nazionalismo metodologikoaren ezkutuko esentzialismoa salatuko luke, arrazak eta lurraldeak diskurtso mortala osatzen duten heinean, politikaren helburua asimilazioa eta integrazioa direla azalduz.
- *Estatua/Politika*; espazioa eta politikaren arteko bereizketaren alde, estatua eta gizartearen arteko desespazializazioa luke helburutzat, hau da, estatu kosmopolitaren hautua. Nazionalismo metodologikoan aldiz, lurralde estatua eta estatu nazionala parekatzen dira. Subiranotasuna eta autonomia parekatuz.

Aipaturikoak Kosmopolitismo metodologikoak planteiatzen dituen zertzelada batzuk besterik ez dira. Gizarte Zientzien paradigma aldaketa bat suposatzen du baina printzipio batean proposamen teoriko baten aurrean besterik ez gaude. Une hauetan ez dirudi nazionalismo metodologikoaren ildo nagusiak gainditzeko bidean gaudenik, bereziki lurraldeari begira, baina ezta ere gainontzeko objektu eta sinboloei dagokienean ere.

4. Nazioa ala estatua ? Nazionalismoaren helburu politikoez

4.1. Estatua eta nazioa

Atal honetan, estatu eta nazio kontzeptuen ezberdintasunei eta nazionalismoen helburu politikoei erreparatuko diogu. Smithi jarraituz, estatua beste instituzio sozialetatik ezberdina eta independentea den erakunde publikoei dagokien kontzeptua da. Hertsadura eta ordainarazpenerako monopolioa duena lurralde jakin batean. Nazioak, aldiz, lotura kultural eta politiko bat irudikatzen du, komunitate politiko bakar batean kultura eta lurralde historiko bat elkarbanatzen dituztenak batuaz. Halere, egia da bi kontzeptuak lurralde historikoa aipatzen dutela eta herriaren subiranotasuna aldarrikatzen dutela. Honela, estatu modernoak nazio konkretuen estatuak izanagatik nazio eta herri

terminoetan legitimatuak izan behar badira ere, bi kontzeptuen oinarriak eta ikuspuntuak ezberdinak dira.

Nazioa eta estatuaren arteko ezberdintasunei jarraiki, nazionalismoa nazioaren ideologia dela dio Smithek, ez estatuarena. Nazioak aske izan nahi badute estatu bat izan behar dutenaren ideia nazionalismoaren doktrinaren ohiko dedukzioa bada ere, ez da nahitaezkoa, ez unibertuala (Smith, 1997:68). Ildo honetan, mugimendu nazionalista orok lehentasun bezala bere nazioarentzat estatu bat izatea dela ere ukatzen du. Bere arabera, kataluniar, eskoziar eta flandiar nazionalista asko gehiago arduratu dira autogobernuaz eta parekotasun kultural batetaz estatu multinazional batean, baldintza gabeko independentziaren alde baino. Horrek noski, ez du ezeztatzen ez direnik kasu hauetan baldintzarik gabeko independentzia nahi duten nazionalistak. Nazio orok bere estatua izan behar duenaren kontzeptuaren defendatzaileak, hain zuzen ere.

Gaur egungo Estatu “anitzak” estatu eta nazioaren kongruentzia ezaren adibide dira. Walker Connorren (1972) kalkuluen arabera, 70. hamarkada hasieran estatuen ehuneko hamarra besterik ez da “nazio-estatu” bere osotasunean, estatuaren mugak nazioarekin bat etorri eta estatuko jendarte osoak kultura etniko bakarra konpartitzen duenaren zentzuan. Estatu gehienak “nazio-estatu” bilakatu nahi badira ere, euren legimitate aldarrikapenak batasun politiko eta herri subiranotasun batera mugatzen dira eta, gainera, euren mugen barruan komunitate etnikoek zalantzan jartzeko arriskua dute (Smith, 1997:13).

Nazio eta estatuaren arteko ezberdintasunen azalpenean, bai Smithek eta bai Connorrek hirugarren aldagai edo kontzeptu bat barneratzen dute: etniarena. Honela, Smithen arabera, nazio-estatu gehienak polietnikoak badira ere, asko *ethnie* nagusi baten inguruan eratu ziren eta ondoren beste *ethnie* batzuk erakarri edo anexionatu zituen (Smith, 1997:34-37). Nazioa definizioz, *ethniea* bezala, oroimen eta mito kolektiboak dituen komunitate bat da. Baina lurralde komunitate bat ere bada, *ethnien* kasuan lurraldearekiko lotura historikoa eta sinbolikoa bakarrik izan daiteke, nazioen kasuan fisikoa eta erreala da, nazioek lurraldeak baitituzte. Hau da, nazioek beti behar dituzte osagai etnikoak baina ezin da nazio bat lurralde baten mito eta oroimen kolektibo gabe ulertu. Baina posible da nazioen eraketa aurretiazko *ethnie* bat izan gabe ere, etorkinen kultura ezberdinak batuaz, Estatu Batuetan, Argentina edo Australian gertatu zen bezala. Beste batzuetan estatuak inperioetako probintzietatik sortu ziren

(Latinoamerika). Afrika beltzean estatuak *ethnieak* kontuan izan gabe eratu ziren.

Adibide hauek nazio moderno eta oinarri etnikoen arteko harremana zenbait kasutan dudazkoa izan daitekeela agerian utzi dezaketen arren, nazioen sorkuntzan oinarri etnikoek izandako garrantzia berresten du Smithek honako arrazoiengatik:

- Historikoki lehen nazioak erdigune etniko premodernoen oinarritik sortu ziren; eta botere eta eragin kulturala izanik, beranduago sortu ziren nazioentzako eredu izan ziren.
- Nazioaren eredu etnikoa zabalduz joan zen eta onarpen altua izan zuen, Modernitaterarte bizirik iraun zuen herri komunitate premodernotara egokitzeko izan zuen gaitasunagatik. Beste era batetara esanda, eredu etnikoa soziologikoki emankorra zen.
- Sortzen ari ziren nazioek garrantzizko aurrekari etnikorik ez izan arren, eta, lotura etnikoak asmatuak izan arren, mitologia eta sinbolismo koherente bat eraikitzea ezinbestekoa izan zen batasun nazionala eta biziraupenerako.

Ildo berean, Nielssonek (1989) etniaren aldagaia barneratzen du nazio eta estatu eraikuntza prozesuak bereizteko. Aurretik aipatu moduan, sarritan estatu eta nazio kontzeptuak trukagarritzat jotzen dira mundua banatuta dagoen lurralde unitateen arteko eta barneko ordenu juridikoa eta autoritate politikoaren ezaugarriak ulertarazteko. Zentzu honetan, inplizitua dago estatu bakoitzaren barnean aginte subiranoaren egikaritzea nazio adostasun homogeen batetaz legimitatua dagoela. Ideologia liberal klasikoek eta marxismoak, etnizitatea eta nazionalitatea gizarte zibil modernoarekin alderatuz, zaharkituriko lotura *primordial* bezala tratatu dituzte. Honela, elkartasun politikoaren iturri bezala, bai nazionalismoa eta bai etnizitatea pixkanaka garrantzia galduko luketen faktore iragankorrak bezala aurkezten dira, eta azkenean gaitzik eragiten ez duen aniztasun kultural baten adierazpenetan bilakatuko lirarteke. Modernizazioaren teoria ekonomizista hauen postulatuen arabera gizarte baloreak eta balore instrumentalak premodernoak diren balore adskribatuak eta sentimentalak ordezkaturiko dituzte.

Paralelismo hau gaingitu asmoz, Nielssonek etnizitatea, nazioa eta estatuaren kontzeptuen harremanaz eraikitako loturaren inguruko

bestelako haunarketa bat erakusten digu. Eta horretarako mundu mailako estatuen osaketa aztertuko du etnia eta nazionalitateak kontuan izaki.

Estatuak gutxienean honako osagarri hauek lituzke Nielssonen arabera:

1. Lurraldea
2. Agintaritza politikoaren egitura bat
3. Legitimitatea

Lurraldearen osagaia da ezbaia gutxien sortzen duena. Erraz operazionalizatu ahal da, espazio batean dauden biztanleak kontuan hartuaz. Agintaritza politikoari dagokion osagaia konplexuagoa da eta subiranotasunarekin lotua dago. Gizarte bat gobernu legal baten pean batua denaren irudipena du. Hortaz, elite politiko bati barne harremanetako erabakietan eta estatuen arteko harremanetan ekiteko gaitasuna aitortzen zaio, besteak beste:

- Barne segurtasuna ziurtatzea (legea eta ordena) eta justizia.
- Gatazken konponbide eta erregulaziorako bitarteko instituzionalak ematea.
- Ekonomiaren garapenean partehartzea.
- Kanpo erasoan aurrean lurralde integritatea babestea.

Estatu agintaritzaren legitimitatearen auziak ere sortu du eztabaida. Demokratizazioak herri subiranotasunaren doktrina ideologikoaren oinarriak aldatu ditu, eta ondorioz, elite politikoek kontuak beste subjektu baten aurrean eman behar dituzte Mende hasieratik estatu agintaritzaren zilegitasunean nazionalismoak izan duen paperaren errekonozimenduaren arau berria bilakatu da nazio autodeterminazioa.

Europari begira, aldaketa gehien I. Mundu Gerra ondoren eman ziren, hamar estatu berri sortzean. Europako estatuen erdiak XX.mende bukaeran sortu zirela kontuan izatea garrantzitsua da. Oraindik mundu “zahar” eta “berriaz” mintzo bagara ere, europarrak Hirugarren Mundua deiturikoarekin alderatuz, estatu sistema modernoa ezartzen belaunaldi bat bakarrik doaz aurretik.

Paradoxikoki, industria iraultzaz geroztik mundu mailako garapen ekonomikoak gizartearen arteko interdependentzia areagotu duela uste denean, garapen politiko inportanteena kontrako norabidean joan da, independentzia subirano baten zentzuan, interdependentzia

sozioekonomikoa ahalbidetzen duen erabaki hartzeen prozesuen egitura zabalduz. Ingurumaria honetan eta Europako nazionalismoari erantzun asmoz sortuko da nazio-estatu kontzeptua.

Estatu eta nazio kontzeptuak era trukagarrian erabiltzeak leialtasun iturri ezberdinen azterketa oztopatu du, nazioarekiko leialtasuna estatuarekiko leialtasunaren parekatzen baita. Honela dio Connorrek: “Nahasketa honek (nazio eta estatu leialtasuna berdina direnarena) akademikoei nazionalismoa eta estatu integrazioaren arteko harremana funtzionala eta positiboa dela suposatzen eman die, disfuntzionala eta derrotista baino. Eta nazionalismoa indar motibatzaile nagusia denaren akordio orokorra existitzen denez, nazionalismoa eta estatuaren arteko loturak ez dio estatuari biztanleen leialtasuna irabazteko lehiakideen aurkako garaipenerako bermerik ematen” (Connor, 1978:378). Ondorioz, estatu eta nazio kontzeptuen nahasmenak estatuen gehiengoa nazio-estatu ez denaren dinamika ezberdinak ulertzea zailtzen du.

Walker Connor (1998) gaixotasun terminologikoaz mintzo da eta, bereziki, estatu eta nazio kontzeptuak parekatzearen ahuleziak eta ondorioak azaltzen ditu. Bere arabera, mundu mailako edozein behatzaile testigu izan da herriak giza generoaren azpisailkapen informal eta egituragabeekiko duten lotura sentimental intuitiboa estatuaren egitura formal eta legalistarekiko duten lotura baino indartsuagoa eta boteretsuagoa dela. Ildo honetan, nazionalismoaren ikerketa akademikoaren oinarriko errorea nazionalismoa estatuarekiko leialtasun sentimenduekin parekatzea izan da, eta ez nazioarekiko leialtasunarekin.

Nazionalismoa estatuarekiko leialtasunarekin parekatzearen errorea mundu mailako politikaren ikerketan eragiten duen gaixotasun terminologiko batetik dator. Mundu mailako politika ulertzeko hain garrantzitsuak diren lau kontzeptu anbiguetatez eta orokortuz erabiltzen dira: estatua, nazioa, nazio-estatua eta nazionalismoa. Halere, eta disziplinaren autore askok hiztegi zehatzago eta zientifikoago baten beharra azpimarratu duten arren, Karl Deutsche (1969) kasu, kontzeptu hauen erabilera ankerra onartzen da oraindik. Estatua eta nazioari erreparatu, estatua mundu mailako azpisailkapen politiko nagusi bezala definitu dezakegu, nazioari dagokionean aldiz, *sentimendua* da hitz klabea (Plano eta Olton, 1969:119). Honela, nazio bezala definitzen diren talde gehienek jatorri genetiko mixtoa dela azpimarratzen dute ikuspegi askok, baina ez dute kontuan hartzen maxima garrantzitsu bat, benetan balio duena ez dela *errealitatea, jendeak erreala dela uste duena* baizik. Eta jatorri

amakomunetikiko sinesmen subkontzientek eta taldearen garapen partikularrak nazio psikologiaren osagai garrantzitsuak dira.

Connorren arabera nazionalismoaren ikerketarako nazio kontzeptua estatuarengatik ordezkatzekak honako bi arrazoi posible izan ditzake:

- Locke bezalako autoreek indartutako herri subiranotasunaren doktrinaren hedapen azkarra. Herria botere politiko ororen iturri zela baieztatzean, doktrina iraultzaile honek, herria eta estatu kontzeptuak ia sinonimo bilakatu zituen.
- Nazio-estatu kontzeptua laburtzeko asmoz, nazio eta estatu kontzeptuak parekatzeko ohitura sortzea ere posible da Connorren arabera. Nazio-estatu kontzeptuak lurralde eta batasun politiko bat (estatu) izendatu nahi zuen eta bere mugak talde nazional baten lurralde banaketaren bat etortzea suposatzen zuen. Beste era batera esanda, nazio-estatu kontzeptuak nazio batek bere estatu propioa zueneko egoera deskribitzen zuen. Praktikan ordea, era indiskriminatu batean estatu guztiei aplikatu zaio eta aurrerago ikusiko dugun bezala, nazio eta estatuen mugak askotan ez datoz bat.

Connorrek uste du nazioa eta estatuaren mugak bat datozenean estatu edo nazio kontzeptuak sinonimo bezala erabiltzea zuzena litzatekeela. Kuestioa da mugak bat ez datozenean ere nahasmen terminologiko hau aplikatzen dela. Era berean, nahasmen honetatik beste bat eratorri zen, *nazionalismoa* estatuarekiko identifikazioarekin lotzen duena hain zuzen ere, nazioarekiko leialtasunaren ordeza. Autore honen arabera, neglijentzia terminologiko honek nazionalismoaren indar iraultzailearen benetako dimentsioaren balorapen errealista bat egitea ekidin du. Nazionalismoa hobeto ulertzeko ezinbestekoa da, lehenik, errekonozitzea, eta bigarrenik, nazionalismoa, eta bakarrik nazionalismoa, identifikatzea berarekin.

Baina, zenbat nazio-estatu daude munduan? Enpirikoki berretsi ahal da Nielssonen postulatua? Nielssonen hitzetan nazio-estatu ondo mugatua dagoen lurralde fisiko batean nazioko kide eta estatuko kideen artean ematen den kongruentzia da. Gogoratu dezagun Connorrek estatu eta nazioaren kongruentzia ezaren adibide bezala azaltzen zituela gaur egungo estatu "anitzak". Guztira Nielssonek 571 komunitate etniko izan zituen aztergai. Parentesi artean mobilizazio politiko maila bakoitzean kokatu zituen komunitate etniko kopurua ipini dugu. Laburbilduz, mobilizazio

politikoren bat duten kategoria etnikoak 375 lirateke eta aurrerago ikusiko dugun bezala, Nielssonek, 375 hauek, mobilizatutako nazio bezala ulertuko ditu.

Nielssonek hiru irizpide hartuko ditu kontuan estatuen nazio osaketaren taxonomia bat eraikitzeko (Nielsson, 1989:215):

1. *Mobilizazio politiko maila*: Irizpide hau komunitate etniko bat nazio bilakatzen deneko mobilizazio politikoaren prozesuan oinarritzen da. Mobilizazio politiko maila ezberdinak honakoak lirateke:
 - a. Mugimendu para-politikoak(48): antolaketaren inguruko ikurren bat adierazi duten kategoria etnikoak.
 - b. Insurgentzia mugimenduak (32): errebolta aktibo eta biolentoen bidez, dagoen estatu erregimenaren aurka antolatzen hasi diren kategoria etnikoak.
 - c. Alderdi politiko batean antolatzea (31): prozesu politikoaren baitan kategoria etnikoari aitortza eman dietenaren adierazlea litzateke honakoa.
 - d. Gobernu ardurak partekatzeak (264): kategoria etnikoa nazio bezala aitortua izan dela esan nahiko luke.
 - e. Mobilizazio politikorik ez dutenak (164)
 - f. Informaziorik gabe (32)
2. *Estatuen dispersio maila*: estatu bakarra duten nazioak eta estatu anitzdun nazioak.
3. *Estatu bateko biztanleriaren proportzioa*: estatu bateko biztanleriaren proportzioa nazio bateko kideen zenbatekoarekin alderatuta. Irizpide honi jarraiki, honako sailkapena daukagu:
 - a. *Estatu-nazioak*: estatuko biztanleriaren %90a baino gehiago nazio bereko kide denean.
 - b. *Nazio-estatuak*: nazio batek posizio nagusia duenean estatuaren barruan. Estatuako biztanleriaren %40-%90 ordezkatzen duten nazioen bidez neurtua dago. Nazio nagusiak estatuko biztanleriaren erdia baino gutxiago

ordezkutzen duenean, kategoria honetan barneratzen da nazio minoritarioen egitura fragmentatua delako. Estatu bakarraren tipoa da nazio-estatu indartsuena.

- c. *Nazio anitzdun estatuak*: nazio nagusiak estatuko biztanleriaren %40a baino gutxiago ordezkutzen duenean.

I.1.Taula: Mundu mailako nazio eta estatuen banaketa etnia oinarrian harturik (1989)

		ESTATU-NAZIOAK		NAZIO-ESTATUAK		NAZIO ANITZDUN E ^o -K		GUZTIRA
		Estatu bakarrekoak	Estatu anitzdunak	Estatu bakarrekoak	Estatu anitzdunak	Estatu bakarrekoak	Estatu anitzdunak	
Amerika	Nazioak	12	1	7	1	0	3	24
	Estatuak	12	9	7	1	0	5	34
Europa	Nazioak	9	8	5	4	3	2	31
	Estatuak	9	10	5	4	1	1	30
Ekialde Ertaina	Nazioak	0	1	1	2	0	0	4
	Estatuak	0	9	1	11	0	0	21
Afrika	Nazioak	2	4	3	14	18	17	58
	Estatuak	2	5	3	17	0	17	44
Asia	Nazioak	1	3	10	6	20	11	51
	Estatuak	1	5	10	6	1	3	26
Ozeania	Nazioak	4	0	4	0	0	1	9
	Estatuak	4	0	4	0	0	2	10
Guztira	Nazioak	28	17	30	27	41	34	177
	Estatuak	28	38	30	39	2	24	161

Iturria: Nielsson (1989)

I.1. taulan ikusi ahal dugun bezala, estatu bakarreko nazioetan oinarrituriko estatu-nazio eta nazio-estatuak dagokienean¹, korrespondentzia 1:1ekoa da (28 eta 30). Hau da, estatu bakarra duten hogeita zortzi nazioetatik hogeita zortzi estatu-nazio sortu dira, eta estatu bakarra duten hogeita hamar nazioetatik hogeita hamar nazio-estatu sortu dira. Beste estatuak begira nahasmenak sor daitezke. Esaterako, estatu ezberdinetan bananduriko hamazazpi nazioetatik hogeita hamazortzi estatu-nazio sortu dira. Eta alderantziz, nazio anitzdun hogeita sei estatuen osaketan hirurogeita hamabost nazioek hartu dute parte. Ondorio nagusi moduan, munduko estatu gehien kasuan, estatu eta nazioen konposizioa

¹ Kasu honetan, estatu-nazioa eta nazio-estatuaren kontzeptuak mantendu ditugu, Nielssonen itzulpena jarraituz. Dena den, testuan zehar estatu-nazio ordez nazio-estatu kontzeptua erabiliko dugu jatorrizko Nation-State kontzeptuaren itzulpen gisa.

bi kontzeptu hauen erabilera konbentzionalak aldarrikatutakoa baino konplexuagoa dela esan dezakegu.

Modu honetara, I.1. taulan azaldutako ehun eta hirurogeita bat estatuetatik hogeita zortzi soilik lirateke estatu-nazioak zentzu hertsian. Gainontzeko ehun eta hogeita hamahiruk konplexutasun gradu ezberdinak adierazten dizkigute. Estatu anitzdunak dituzten nazioez osaturiko gainontzeko hogeita hamazortzi estatu-nazioek estatuen formakuntza prozesu bat azaltzen dute, non mobilizazio politikari dagokionean nazioak baturik baino, bananduak leudekeen. Estatu bakarreko nazio-estatuak estatu-nazioen antzeko ezaugarriak dituzte. Estatu anitzdunetan kokatzen diren gainontzeko hogeita hemeretzi nazio-estatuak aldiz, konplexotasun handiagoa erakusten dute. Halere, estatu anitzdunetz osaturiko nazioak dituzten hogeita sei estatuak dira konplexuenak.

Kontuan izan behar dugu gainera, etnien oinarrituriko ehun eta hirurogeitabat estatuen sailkapenak, politikoki mobilizatuak dauden hiruehun eta hirurogeita hamabost nazioetatik ehun eta hirurogeita hamazazpi bakarrik hartu dituela kontuan. Argi geratzen da beraz estatu eta nazioen formakuntza prozesuak ez direla berdinak. Kategoria edota komunitate etnikoen kopuru esanguratsu bat politiko mobilizatua dago eta nazio formakuntza prozesu ezberdinetan kokatua egon da. Aldiz, mobilizatutako nazio hauen zati esanguratsu bat estatuen sorrera prozesuetatik at geratu da.

Mundu mailako estatuen osaera nazionalak izan duen ibilbide historikoa izango dugu hizpide jarraian. XIX.mendeko estatu osaketei erreparatzen badiegu, estatu bakarra duten nazioek osaturiko estatu-nazio eta nazio-estatuaren proportzioa oso handia dela ikus dezakegu (ikus I.2. taula). XIX.mendean sorturiko hogeita zortzi estatuetatik, hamasei, estatu-nazioak lirateke, eta bederatzi, nazio-estatuak. Aldiz, XX.mendean sorturiko ehun eta hamazazpi estatuetatik, estatu-nazioen portzentajea %37koa da. XX.mendean sorturiko estatuen erdiak osaera konplexua azaltzen dute; bereziki, estatu bat baino gehiago dituzten nazioez osaturiko estatuak dagokienean. 1900 urteaz geroztik sorturiko estatuen hiru laurdenak osaera konplexu hau lukete.

Nielsonek burututako ikerketa enpirikoaren ondorio nagusia munduko estatu gehienetan, nazio eta estatuen osaketaren konplexutasuna da, eta hortaz, bi kontzeptuak ezberdintzearen garrantzia berresten da. Tilly-ren arabera, XVIII.mende bukaeran sortu, eta XIX.mendean mugimendu

nazionalista modernoak indartu zirenetik, nazioen sorrera estatuen sorreraren aurretiazko fasea denaren ideia berresten du Nielssonen ikerketa enpirikoak (Tilly, 1975:80-95). Ondorioz, estatu modernoak bere lurraldeen baitan aurretiaz baziren nazioengatik baldintzatuak egon dira. Estatu askotan gainera, europar inperioek marrazturiko mugen arbitrariedadek, are eta gehiago korapilatu zuen estatu berrien osaera nazionala, politikoki mobilizatuak zeuden kategoria etnikoak bananduz. Munduko estatu gehienentzat, estatu subirano bateko elitearen legitimitatea, dauden nazioen koexistentzia baketsua, balore sozioekonomiko komunak eta hortik eratorritako ideologia politikoen kontsentsua garatzean datza.

I.2. Taula: Estatuen osaera nazionalaren bilakera (1989)

		Aurreko Estatuak	XIX.mendea	XX.mendea	Guztira
ESTATU-NAZIOAK	Estatu bakarreak	4	12	12	28
	Estatu anitzdunak	3	4	31	38
NAZIO-ESTATUAK	Estatu bakarreak	7	8	15	30
	Estatu anitzdunak	2	1	36	39
NAZIO ANITZDUN	Estatu bakarreak	0	0	2	2
ESTATUAK	Estatu anitzdunak	0	3	21	24
GUZTIRA		16	28	117	161

Iturria: Nielsson (1989)

Bukatzeko, Nielssonek hurrengo ikerketetarako irizpide berriak proposatuko ditu:

1. Nazio ezberdinen arteko egokitzapenarengatik presioa jasaten duten estatuen zenbatekoak, estatuen barnean, estatuen artean baino nazioarteko harreman gehiago ematen direla esatera garamatza.
2. Nazioen formakuntza oinarrizko prozesu politiko bat bezala azaldua izan daiteke, eta aldagai honen oinarria estatu barneko akomodazio politikoaren dinamikaren pean dago.
3. Modernizazio sozioekonomikoaren prozesua, aldagai bitartekari bezala ulertua izan ahal da, baina ez oinarrizko aldagai aske bezala.
4. Nazio berrien sorkuntza estatuko eliteak alienaturiko elite etnikoko kideen aukera arrazionalan oinarritu daiteke, euren mugikortasuna oztopatzen duten heinean.

5. Estatu baten barnean nazio ezberdinen egokitzapen politiko baikor batek, taldeek balore ezberdinetan, baina era berean, bateragarriak diren leialtasun anitzetarako gaitasuna onartu behar duen oinarri teorikoa izan behar du.
6. Nazioarteko harremanak, edota estatu barneko harremanak aztertzeko, nazioen formakuntzan estatu barneko gudak izandako eraginari erreparatu behar zaio.
7. Estatu anitzdun nazioen kategoria barneratu behar da gatazka eta kooperazioarekin lotuak dauden ikerketetan.
8. Estatu eliteek egokitzapen politikorako presioak ezabatu ditzakete estatu sistemaren egituraren egonkortasunaren mantentzeko, eta gainera, mundu mailako potentzia garrantzitsuagoek politika hauek babes ditzakete aliantza harreman egonkorak mantentzeko interesa medio.

Modu honetara, Nielssonen hitzetan, europar inperioen deskolonizaziotik eratorritako estatuaren sorrera bukatutzat eman ahal bada ere, munduko estatu sistemaren baitan eman daitezkeen aldaketaren dinamika, nazio anitzdun estatuaren eta estatu anitzdun nazioaren emandako egokitzapen politikoaren erroretan kokatua dago.

4.2. Nazionalismoaren helburuak, naziogintza/estatuagintza?

Nazio eta estatu kontzeptuak parekideak ez direla ikusi dugu, edo ez dutela zertan izan behar. Estaturik gabeko nazioak ditugu eta nazio anitzdun estatuak ditugu. Ezberdintasun hauek nazionalismoaren proiektura iraganaz ere, ondorio bakar batera ezin irits gaitzke; hau da, ea nazionalismo ororen azken xedea estatu propioa eraikitzea den. Eta hirugarren jauzi batean, ideologia, doktrina edo mugimendutik haratago subjektura jo behar dugu, independentziaren hautua egingo luketen nazionalistak, abertzale izan gabe independentziaren hautua egingo luketenak, eta beste hautu bat lehenetsiko luketen nazionalistak. Finean, horiek izango baitira maila ideologiko teoriko batetik haratago, nazionalismoa eta independentismoa, nazioa eta estatuaren antzekotasun eta parekotasunak nola islatu edo bizitzen diren agerian utziko dutenak. Teoriatik praktika politikora.

Honek, lehen ez baira garamatza, naziogintzatik eraiki behar da estatua edota behin estatua izanik bakarrik eraiki ahal da nazioa? Ze pisu izan behar du nazioak estatu eraikuntzan? Zeintzuk dira nazionalismoaren helburu politikoak? Eta subjektu politikoak? Euskal Herriari dagokionean, José Manuel Mataren arabera, proposamen nazionalistaren barne arrakasta zedarritze etnikoaren oinarriaren onargarritasun sozialaren arabera da, eta arrakasta honen kristalizazio politikoa estatua eta bere ikuskeraren, boterea eta indarraren aurkako borrokaren emaitza da (Mata, 1993:50).

Ildo honetan, Linzek honako hiru eskenatoki hauek ikusten ditu: “Giza taldeak autogobernuren bat duen komunitate bat sortzea duenean helburutzat, kide izaera territorialki definitu beharko du. Kasu honetan, kanpoko osagaien aurkako oinarrizko ezaugarrien defentsa muturrera ematen bada, aukera bakarrak asimilazioa, diskriminazio politikoa eta potentzialki, oinarrizko balore horiek onartzera prest ez daudenen kanporatzea dira. Hirugarren aukera bat oinarrizko ezaugarri horiei enfasia kentzea litzateke eta komunitate berriko kidesuna borondatezko terminoetan definitzea: bai nortasun nazionala konpartitu nahi duten horiek barneratzeagatik, edota lurraldean bizi diren guztiak kide bezala onartzeagatik, oinarrizko ezaugarri horiek elkarbanatu ala ez, edota jaiotze bidean den komunitatearekin identifikatzeko asmorik izan ala ez” (Linz, 1985:205). Identifikazio hori ez bada ematen ordea, erdigune sinboliko eta karismatiko nazionalista estatuak ezartzen duen indar nazionalizatzailearekiko desabantailan aurkituko da.

Ikuspuntu honen arabera, euskaldun izateko borondatea estatu bat eratzeke borondatea da, hortik, nazioa eraiki ahal izateko. Bitarteko pausuak honakoak lirateke: helburuen onarpen sinbolikoa (estatuaren erakunde eta botere harremanen erregulazio gabe lortzeko zailak) eta bestalde, nazionalismo orok lortu nahiko lukeen independentzia politikoa lortzeko behar diren bitarteko eta helburuei lotura afektiboa. Kasu honetan berriro harremanetik agertzen dira, nazioa eta estatua baina elkarrekiko harremanaren zentzua alderantzizkoa izanen da; hau da, nazio eta nazionalismo guztiek estatua helburutzat duten ala ez ezbaian ipini ordez, estatuaren beharra azpimarratzen du José Manuel Matak, nazioa eraiki ahal izateko. Tesi hau, Smith eta Connorrek adierazitakoaren ez dator bat, nazionalismo ororen oinarrizko elementua independentzia politikoa dela adierazten duen heinean.

Nazionalismoaren helburu politikoak izan daitezkenaren ikusmolde ezberdinetatik haratago, estatu eraikuntzan nazioak berak izan duen eta

izan beharko lukeen protagonismoaren inguruan ere hausnarketa ezberdinak ikus ditzakegu. Naziogintzatik estatugintzarako jauziaren inguruko artikulua sorta argitaratu zuen *Berria* egunkariak 2014ko Abuztuan. Bertan, Unai Apaolazak independentziaren aldeko gehiengoak lortzeari begira, abertzaletasunetik harago doan mugimendua artikulatu behar dela azaltzen du. Bere aburuz, independentismoaren subjektua euskal nazioaren partikularrekin artikulatu da orain artean eta gainera, independentzia partikular horiek salbatzeko tresna bezala erabilia izan da.

Apaolazak buelta eman nahi dio gaurdaino indarrean egon den estrategiari eta nazioa, independentzia lortzeko erreminta posible bat dela azaltzen du, baina beste tresna batzuk ere badirela. Honela, subjektu independentistan beste nazio sentimendu batzuk ere onartzearen aldeko jarrera adierazten du. Bere ustez, independentismoa demokraziarekin identifikatzen denean izango du zabaltzeko eta aktibatzeko aukera, hau da, estatua lortzeko aukera. Dena den, hemendik ez da eratortzen nazioaren ezaugarri objektiboak ukatu behar direnik, baina Apaolazaren aburuz, ezin dira artikulatzaile nagusi izan.

Ildo berean, Jule Goikoetxeak, euskal nazioa kultura eta folklorearekin identifikatu izanak euskal nazioari kalte egin diola uste du. Euskal Herrian euskal nazioaz harago doazen nazio nortasunak baitaude: espainar zein frantziar sentimenduak, adibidez. Apaolazaren ildo beretik, abertzaletasuna eta independentismoa elkarrekin lotuta joan direla dio, eta ondorioz, euskal nazioko kide sentitzen ez direnen independentziarako atxikimendua zaildu egiten dela. Bai Apaolazak, eta bai Goikoetxeak independentismo demokratikoaren ideia defendatzen dute, baina Imanol Galfarsororen arabera, ideia honek ez du babes handiegirik, abertzaletasunaren baitan oraindik kultur berezitasunaren ideia nagusitzen baita. Nazio kulturalaren aldarrikapenarekin estatu demokratiko eta kosmopolita eraikitzeari bideak ixten zaizkiola usten du Galfarsorok: independentzia lortzeko diskurtso demokratikoaren unibertsaltasunaz baliatu beharko litzateke.

Apaolaza, Goikoetxea eta Galfarsorok estatuaren beharra azpimarratzen dute, baina ez nazioa indartzeko tresna bezala, edo ez hori bakarrik. Are gehiago, naziogintza baino, estatugintzaren aldarrikapena egiten dute, demokrazia garatzeko tresna gisa. Horretarako, subjektu politikoari erreparatuko diote, subjektuaren zabaltze eta demokratizazioari hain zuzen ere. Planteamendu honen baitan kokatu ahal dugu azken urteetan autodeterminazio eskubidetik erabakitze eskubidera emandako

aldaketa. Baina agerikoa da, nazio eta estatu kontzeptuen nahasketarekin bezala, autodeterminazio eskubidea, erabakitze eskubidea eta biek, demokraziarekin izan ditzaketen harremanen nondik norakoan inguruan ere ez dela adostasunik.

Zabaltzak azaltzen duenari jarraiki, autodeterminazioaren printzipioa eta nazionalitatearen printzipioa, hau da, nazio orok estatu propioa izan behar duenaren ideia, ez dira sinonimoak. Italia eta Alemaniaren Batasuna eman zirenean XIX.mendearen bigarren erdian, Cavour eta Bismarck-ek ez zuten gehiegi erreparatu herritarren iritzietan. Euren helburuak betetzeko, historiaren interpretazio oso zehatzean, bere dinastiarekiko leialtasunean eta interes politiko, ekonomiko eta estrategikoetan oinarritu ziren (Zabaltza, 2006:189-208).

Autodeterminazioa eta demokraziaren arteko harremanari ere erreparatzen dio Zabaltzak, eta autodeterminazioaren printzipio demokratikoak bere bultzatzaile guztiak demokrata ez dituela egiten azaltzen du. Adibide moduan 1935.urtean Sarreko biztanleek Alemania nazira batzea libreki erabaki zuteneko plebiszitoa ipintzen du. Era berean, autodeterminazioak ez du derrigorrean independentzia esan nahi, independentzia aurretiazko autodeterminazio ekimen batetik eratorria izan ez daitekeen bezala. Autodeterminazio eskubidearen oinarria lurralde batetako biztanleen borondatearen errespetua litzateke. Egia da ordea, nazionalismo “etniko” askoren motibazio erreala ez dela autodeterminazioa, Alfred Cobbanek “determinismo nazionala” bezala defendatzen duena baizik (Cobban, 1969:114-116). Printzipio honen arabera nazioa eratzen duen lurraldeak, kultura eta hizkuntza propioekin, eta data bateraino independentea ere izan daitekeena, eskubideaz gain, independentzia lortzeko –edota bereganatzeko- obligazio morala du. Hau da, nazionalista asko autodeterminazioak ematen dien zurigarri demokratikoan babesten dira, nazioa eta historia gizabanakoen eskubideen nahien gaintik ipintzeko. Horregatik, Zabaltzaren arabera, egiazko patriota konstituzionalak ez lukete autodeterminazio ipini behar jomugan, determinismo nazionala baizik.

Baina autore guztiek ez dute era berdinean ikustean autodeterminazioa eta independentziaren arteko harremana. Barbería eta Unzuetak autodeterminazio *eskubideaz* ezin dela hitzegin uste dute, ez behintzat Iraultza Frantsesa eta gero kontzeptu horri ematen zaion zentzuaren arabera. Autore hauen arabera, aspirazio, edo programa bat izan daiteke autodeterminazioa: arazo nazionalarekiko legitimitate arazo batzuk

konpontzeko erabili daitekeen bitartekoen artean kokatuz. Gainera, autodeterminazioaren kontzeptua era interesatuan erabiltzen dela diote, printzipio abstraktu eta orokor bat bailitzan, non bere defentsak banaketarako nahia ez duen auresuposatzen. Honela, metodoa (autodeterminazioa) eta helburuaren (independentzia) arteko gaizki ulertuak nahitakoak direla adierazten dute: inork ez du autodeterminazioa eskatzen dagoen bezala geratzeko (Barbería eta Unzueta, 2003:164-166).

Azken urteetan, Euskal Herriko mugimendu independentistaren baitako diskurtsoan aldaketa esanguratsu bat eman da, autodeterminazio eskubidea aldarrikatetik, erabakitze eskubidea aldarrikatzera iragan da hein batean. Erabakitze eskubidea gainera printzipio demokratikoarekin lotzen da. Baina ze ezberdintasun dago bi printzipio hauen artean? Subjektuari erreparatuz, *Ethnosetik Demoserako* jauzi baten aurrean geundeke.

Mario Zubiagaren arabera (2013) bi kontzeptuen ezberdintasun gakoak subjektuan legoke. Autodeterminazioak nazioa aldarrikatzen du eta subjektuaren eskubidea hortaz, nazioa litzake. Hori oinarri izanda, nazioaren elementuetan bilatzen du justifikazioa: hizkuntzan, etniam, kulturen edota historian. Ezberdintasunaren adierazle diren elementuak nabarmentzen dira. Horretaz gain, nazioa izatearen aitorpena nazioarteko zuzenbideak egiten dio: “Kanpotik onartzen diren subjektuek dute autodeterminazio eskubidea”. Erabakitzeko eskubidearen subjektua aldiz, komunitate politikoak berak eratzen du. Erabakitzeko eskubidea printzipio demokratikoan oinarritzen da: “Komunitate politiko batek, demokratikoki, bere buruaren inguruan erabakitzeko duen eskubidea da”. Hortaz, komunitateak berak aitortzen du eskubidea, eta ez nazioarteko legediak. Gauza dadin, subjektuak borondatea besterik ez du behar. Asier Blasek, ondoren erabakitzeko eskubidea printzipio demokratikoarekin lotzen du: “Nazio izateagatik baino gehiago, eskubide demokratiko bat delako duzu erabakitzeko eskubidea”.

Helburei begira ere, bada ezberdintasunik autodeterminazio eskubidea eta erabakitze eskubidearen artean. Autodeterminazio eskubidea sezesioarekin lotzen dela adierazten du Zubiagak, estatu berri bat sortzea du helburu. Erabakitzeko eskubidea, aldiz, subiranotasunarekin lotzen da, boterearen kudeaketa propioarekin. Horrek ez du zertan independentzian bukatu. Logika hau jarraituz, beraz, erabakitzeko eskubidea etnokrazia baino ez dela ondorioztatu ahal dugu.

Txema Monterok (2009) *Hermes* aldizkarian argitaratutako artikulu batean atal honetan hizpide izan ditugun gako ezberdinei erreparatzen die. Estatu eta nazio proiektuei dagokienean, euskaldunok, nazio ezaugarriak izanik, XXI.mendera estatu bat egikaritu gabe nola iritsi den galdetzen du. Erantzun posibleen artean euskal herritarren borondateari erreparatzen dio. Hau da, euskal herritarren borondate eza, interes falta, akomodoa edo aukera independentistak sor zezakeen desgastea aipatzen du naziotik estaturako jauzi hori eman ez izanaren balizko argudioetariko bat bezala. Euskal herritar guztiak independentzia ez dutela nahi izan, eta hau horrek aukera bat izateko oinarri sozialik ez duela izan, momentuz behinik behin.

Bestetik, zentzu honetan nazio eraikuntzak aztertu edo eraldatu beharreko aldagaiak ditu hizpide. Nazio eraikuntzaren proiektuak herritarren gehiengoaren atxikimendua jaso nahi badu, ezin du sozialki partzialak liratekeen mito, sinbolo eta proiektu nazionalistak orokorrak bailitzan azaldu. Honela, nazionalismoa bere ezaugarri propioen berrespenean oinarritzean baino, interdependentzia sozialaren sarea landu beharko luke. Hau da, euskal nazionalismoak bere burua bakarrik edo gizarte osoa ordezkatu nahi duen erabaki behar du. Honela, Goikoetxea, Apaolaza eta Galfarsorok adierazitakoaren antzekotasun batzuk ikus ditzakegu, nazioa hustearen ildotik alegia, Monterok estatuaren beharrari erreparatzen ez badio ere.

Monterok gainera, Zabaltzak azaldutako ildo berean, autodeterminazioa nazionala eta demokrazia bereiziko ditu, bere hortan, batetik bestea erartzen ez den zentzuan. Connorri egiten dio erreferentzia “autodeterminazio nazionala demokratikoa da talde nazional bati bere atxikimendu politikoak aukeratzeko eskubide politikoa aitortzen zaion heinean, baina ez badu taldeak aukeratu beharrako gobernu sistemaren inguruko aurreuposiziorik, etnokrazia da, baina ez demokrazia”. Eta hain zuzen ere, hemendik osatuko dugu gure ikerketaren objektua, Connorrek gutxiengo etnonazionalen gehiengoak, independentzia baino, etnokraziaren aldeko jarrerak dituela azaltzen du eta. Hurrengo atalean azalduko ditugu zeintzuk diren Walker Connorren aburuz gutxiengo etnonazionalen xede politikoen nondik norako nagusiak.

5. Autodeterminazioaz, Independentziaz eta Etnokraziaz

Herrialde ezberdinek euren xede etnikoak lortzeko eginiko borrokak, borroka horiek eman zireneko sistema politikoaren demokrazia mailak garrantzi handia duela agerian uzten du. Connorren aburuz, nahikoa da Frankoren pean zegoen euskal mugimendua eta egungo Konstituzioaren markuaren baitan ematen dena konparatzea. Halere, nazionalismoaren ikerlari askok demokrazia eta etnokraziaren arteko harremanari ez diote gehiegi erreparatu.

Harreman honen nondik norakoak aztertzeko, gizartea ulertzeko Ferdinand Tönnies soziologo alemaniarrak garatutako bi ikuskera (Horton eta Hunt, 1994:185-187) ezberdinen ezaugarriak aipatzen ditu Connorrek:

- *Gemeinschaft*: gizarte sistema bat da, bertan harreman gehienak pertsonalak eta usadiozkoak dira, eta sarritan bi motatakoak dira. Adibide guztiz argia feudal jaureria da, komunitate txiki bat elkarturik irauten duena harreman pertsonal eta estatusko betebeharren konbinaketa baten bidez. Ezberdintasun handia bazegoen ere, jauntxoa pertsonalki ezagutzen zuten menpekoek, harekiko beren betebeharrak orekatuak zeuden arren, nagusiaren menpekoen ongizatea bilatzeko betebeharrarekin. Gizarte mota hau, aintzinetik harremanduak daudenen sinesmena duten gizakiak osatzen dute, oinarrizko balorea talde etnikoa eta taldearen ontasun komunaren balorazioa beste guztien gainetik dago. *Gemeinschaft*aren iturriak emozionalak eta intuizioan oinarriturikoak lirateke, bihotza eta odolari dei egiten die.
- *Gesellschaft* gizartean aldiz, gizarte tradizionala kontratuko gizarteak ordezkutzen du. Gizarte honen barruan, ez maitakortasun pertsonala eta ez ohizko eskubide eta betebeharrak dira garrantzizko. Pertsonen arteko harremanak negoziaketa bidez erabakitzen dira eta akordio idatzitan zehazten dira. Orokorki onartuak diren jokabide arauak irabazi eta galerazko kalkulu arrazionalerik ordezkatuak dira hein handi batean. Gizarte mota honetan, kideak gizarte horretan parte hartuz euren interesak babestuagoak eta defendatuak izango direnaren ustean oinarritzen da. Gizabanakoaren nahiak eta baloreak azpimarratzen ditu. *Gesellschaft* arrazoiaren produktua da eta buruari deitzen dio.

Dena den, eta nazio eta nazionalismoaren kategoriekin bezala, Connorrek ez du balizko dikotomia hau bere hortan babesten eta errealitatean horrelako gizarte tipoak ez direla aurkitzen adierazten du, eta lider politikoek bien lenguaiak erabiltzen dituztela adierazten du. Connorrek gizartea ulertzeko bi ikuskera hauen nondik norakoak nazio eta estatuaren arteko leialtasunaren auzira eramango ditu.

Connorren arabera, demokraziak herri subirautea auresuposatzen du, baina ez alderantziz. Etnokraziak, demokraziatik despotismora doan espektro osoa betetzen du. *Gemeinschaft* printzipioa aldarrikatetik haratago, hau da, nazioa bera dela giza talde garrantzitsuena eta leialtasuna merezi duena, nazionalismo terminoak edukirik ez duela dio, ez dela ideologia bat. Nazionalismoaren ikurra hartu dute belaunaldi ezberdinetan monarkiazaleak, errepublikarrak, faxistak, leninistak eta maoistak, besteak beste. Eduki falta honek esplikatu du, bere arabera, alderdi nazionalistek banaketarako duten joera unibertsala. Hortaz, autodeterminazio nazionala demokratikoa da talde nazional batek bere atxikimendu politikoak aukeratzeko duen eskubide kolektiboa auresuposatzen duen heinean, baina ez du auresuposiziorik talde nazionalak hartu beharreko gobernu sistemaren inguruan. Autodeterminazioak etnokrazia auresuposatzen du, baina ez demokrazia (Connor, 1989:123).

Halere, autodeterminazioa eta *Gesellschaft* sistema politiko moderno, demokratiko eta nazio anitzezkoaren artean harreman garrantzitsu bat dago, autodeterminazio eskakizunei irekiena den sistema izaki. Gobernu autoritario batek, eskaera horiei zilegitasun osoa kendu dakiok, gobernu mota hauen zilegitasunak oinarri demokratikorik ez duten unetik. Baina bere burua demokratizat duen gobenuentzat lotsagarriagoa eta hipokritagoagoa litzake autodeterminazio printzipioaren ukapena. Ildo honi jarraiki, Ernest Barker-ek estatu demokratikoa banaketarako bidean zihoala adierazi zuen, barneko nazio orok estatu bat eratzeko bidea hartuko luketen heinean (Barker, 1927 in Connor, 1989:123). Ez dirudi horrela denik, autodeterminazioaren doktrinak nazio orok banatzeko eskubidea duela dio, *horrela nabiko balu*.

Kontuan izan behar da *Gemeinschaft* loturak indartsuago izanik ere, *Gesellschaften* garrantzia ezin uka daitekeela. Bereziki ongizate estatu modernoan, estatutik eratorritako onurak galtzeko beldurrak, pentsioak, besteak beste, banaketarako grina ahuldu dezake. Estatuarekiko sinpatia gutxienekoa izanik ere, ez da inkongruentea gutxiengo nazional bateko kideen gehiengo autonomiarekin konformatzea. Autonomiak taldeko

aspirazio nagusiak gogobetetzeko gaitasuna du. Xede etnonazionalak, arrotzen domeinutik aske izatearen ametsarekin daude itsutuak, estatuekin harremanak izateko aske izateaz baino. Bi nazioen arteko harremanen artean aldaketa esanguratsuak nahi dituzte, ez estatuen arteko harremanetan.

Honela Connorri jarraiki, mendebaldeko demokrazia batzuk, Italia eta Espainia kasu, xede etnonazionalak lasaitzea lortu dute itzultze mailakatu baten bidez. Autonomia, ordea, kontzeptu amorfoa da, tokian toki esanahi ezberdina duena. Itzultze mugatu batean oinarritu daiteke edota nazioarteko politika salbu, kontrol osoa, hau da zentruarekiko menpekotasun oso batetik independentzia osora hel daitekeen egoera guztiak barnera ditzake. Gutxiengo nazionalak gainera, nazioarekiko *Gemeinschaft* leialtasuna eta estatuarekiko *Gesellschaft* leialtasuna bateragarri izatearen pertzepzioa dute, erdiguneak autonomia esanguratsu bat emateko prest dagoen heinean beti ere. Hori bai, gutxiengo nazionalak estatuarekiko leialtasuna eta nazioarekiko leialtasuna bateragarri ez baditu ikusten, nazioarekiko leialtasunak irabaziko luke lehia.

Connorren arabera estatu ezberdinetako iritzi inkesta eta hauteskunde datu ezberdinak erreferentziatzat hartuaz, estatu demokratiko moderno bateko gutxiengo nazionalak herritarrek etnokrazia nahi dute, baina ez independentzia. Etnokraziak independentzia ez duela auresuposatzen baieztatzen du baina gutxienean autonomia esanguratsu bat auresuposatu behar duela dio. Connorrek etnokrazien xede politikoei erreparatzen die, eta, independentzia baino, autonomia maila esanguratsu baten aldeko hautua azalduko omen lukete gutxiengo etnonazionalak. Hemendik definituko dugu gure ikerketa objektua: ze mailatan betetzen da Connorren jarrera eredu Euskal Autonomia Erkidegoan? Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko gutxiengo etnonazionalen helburua etnokrazia da, eta ez independentzia?

Gurean etnokraziaren helburu politikoak argitu bidean, bigarren kapituluaren hauteskunde portaeraren nondik norakoei erreparatuko diegu. Jarraian aukezten diren Connorren jarrera edo hipotesi ezberdinak oinarrian harturik, Connorrek hizpide duen autonomia maila handiago hori EAEn nola islatzen den ikusten saiatuko dira. Helburu politikoei helduaz, ezinbestekoa iruditzen zaigu EAEn herritarren hauteskunde portaeraren nondik norakoei erreparatzea, eta, zehazkiago, abertzaletasunaren bozka adierazpenari. Izan ere, bozka horren oinarriak lagunduko digu, batetik, etnokrazioaren irismena neurtzen, eta bestetik,

etnokraziaren helburu politikoak Connorrek luzatutako ildoan diren ala ez gurean. Honela, bigarren kapituluan hauteskunde portaeraren korronteen inguruko marku orokor bat irudikatu dugu. Jarraian, EAEn, mapa horretan adierazitako aldagai eta faktore ezberdinen indarrak ze mailatan islatzen diren ikusiko dugu. Gurean nortasun nazionalak eta nazionalismoak, identitateak eta, hertsiki lotua den balio politikoak eragin zuzena du hauteskunde portaeran gainontzeko faktoreak bigarren maila batean kokatuz.

Hein batean, nortasun nazionala eta nazionalismoaren gailentasunak ordea, ez digu argitzen euskal herritarren balizko etnokraziaren helburuak zertan diren. Hau da, “gureak” aukeratzeaz gain, etnokrazia ariketa gisa, helburu politikoei begira konkrezio urriko zehaztapenak besterik ez genituzke. Horretarako, Connorren jarrera eta hipotesiei erreparatu behar diegu, non abertzaletasunaren eta independentismoaren eboluzio eta tarteari helduko diogun. Gainera, egun, etnokrazia horren helburua, Connorrek hizpide duen autonomia handiago baten nahia, zertan den ikusiko dugu, besteak beste, seigarren hipotesia aztergai dugunean.

Aurretik azaldu bezala, Connorrek iritzi inkesta eta hauteskunde datuei egiten die erreferentzia bere hipotesi nagusia azaltzen duenean, hau da, gutxiengo etnonazionalak independentzia baino etnokraziaren aldekoak direla. Horretarako, hamahiru hipotesi luzatzen ditu, eta horietatik izango dira, hain zuzen ere, iritzi datu horiek oinarrian harturik aztertuko ditugunak.

II. NORTASUN NAZIONALA ETA HAUTESKUNDE PORTAERA

Lehenengo atalean tesi honen objektua zein den azaldu dugu, hau da, Walker Connorrek planteatutako gutxiengo etnonazionalen jarrera eredia zenbatean betetzen den Euskal Autonomia Erkidegoan. Subjektua berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar abertzaleek osatuko lukete orokorrean eta, era zehatzago batean, independentziaren aldeko hautua adierazten dutenak. Hiru matizazio egin beharrean gaude, subjektuaren definizioaren inguruan:

- Gutxiengo etnonazionalak ditu hizpide Connorrek eta hortaz, logikoagoa litzateke Euskal Herri osoa aintzat hartzea tesi honen subjektu gisa. Tesi honetan ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak soilik izango ditugu kontuan. Aukera hau egiteak justifikazio metodologiko bat du oinarrian, izan ere, bai hauteskunde portaerari dagokionean, bai tesi honetan hizpide izango ditugun beste gai batzuei dagokionean, gure objektuaren analisirako egokitzat jotzen ditugun azken urteetako portaera eta jarreraren eboluzioa aztertzea galarazten duen datu base amankomun baten gabeziaren aurrean gaude. Are gehiago, hauteskunde portaerara joan gintezke iturri ezberdinak bilduz, baina ez dugu datu demoskopiko amankomunik, ezta antzekorik ere, beraz, jarreraren azterketa oso zaila izango litzaiguke.
- Independentziaren aldeko hautua adierazten duten herritarrak aipatzen ditugu, eta ez, derrigorrean, independentziaren hautua egingo luketeenak. Iritzi bezala azaldutako independentzia nahia, erreferendum edo kontsulta batean independentziaren alde bozkatuko luketeenetatik ezberdina izan daiteke.
- Abertzaleak definitu, mugatu edo aukeratzeko orduan, adierazpen ezberdinak har daitezke kontuan. Guk oinarrian,

abertzaletasunaren adierazpen gisa, bozka hartuko dugu kontuan. Zehatzago, alderdi abertzale edo nazionalistei bozka ematen dieten herritarrek; EAJ, EA eta Ezker Abertzalearen alderdi nahiz koalizio edo hauteskunde plataforma ezberdinak. Era berean, bozkatik haratago, autoidentifikazio aldagai ezberdinak ere izango dira kontuan; sentimendu nazionalista edota nortasun nazionala neurtzen duten eskala ezberdinak esaterako. Gainera, sakoneko irizpide etnikoa, gizartea bitan banatzen duena, botua izan da historikoki. Abertzaletasun graduak, honela, eta abertzaletasunaren helburuen intentsitate gradua ere, botuak emango liguke eta, horrela, bat gatoz abertzaletasun instituzionala eta arradikala bereiztu duten autoreekin, eurengan oinarritu gara eta².

Hortaz, subjektuaren definiziorako EAEko herritarren bozka eta autoidentifikazio aldagai ezberdinak izango ditugu kontuan. Bigarren atal honek hiru zati ezberdin izango ditu:

- Lehenengoan hauteskunde portaeraren korrante nagusiak aipatuko ditugu.
- Bigarrean hauteskunde portaera baldintzatzen duten faktoreak azalduko ditugu.
- Hirugarrenean botu abertzalea, eta zeharka, hautu independentista baldintzatu dezaketen faktoreen lehen hurbilketa bat egingo dugu.

1. Hauteskunde portaeraren korrante nagusiak

Hauteskunde portaeraren azterketaren garai modernoaren hastapena 1944. urtean koka dezakegu. Urte horretan Paul Lazarsfeld eta Kolumbiako Unibertsitateko Ikerketa Sozial Aplikatuak Bulegoak akademi-izaera zuen hauteskundearen lehen ikerketa burutu zuen, *The People's Choice*. Kolumbiako soziologoak ordea, ez ziren bakarrak izan hauteskunde ikerketa batean begirada boto-ematearen zentratu zutenak. Beste bi ikerketa korrante ere garai honetan eratu ziren; Campbell, Converse, Miller eta Stokesen

² José Manuel Mata (1993), *El nacionalismo vasco radical. Discurso, organización y expresiones*. Bilbao, Servicio Editorial UPV/EHU.

(1960) *The American Voter* eta Anthony Downsen (1957) *An Economic Theory of Democracy* .

Ohikoa da hiru tradizio hauek era bananduan aztertzea eta ezberdintasunei erreparatzea baina, hein handi batean, tradizio bakoitzak teoria demokratikoaren erronka ezberdinei heldu ziola esan dezakegu. Hortaz, hiru tradizioen konbergentzia puntua instrumentalki motibatua dagoen herritar intenzionatua litzateke.

1.1. Demokraziaren teoria ekonomikoa edota aukera arrazionalaren ikuspegia

Anthony Downs-en “Bozkaren kalkulua”ren (1957) ereduaren arabera, lehen une batean, herritarrak bozka ematea edo abstentitzea erabakitzen du bozkatzeak ekar dakizkiokeen irabazi edo kostuen arabera. Bigarren une batean, bere posizio politiko idealekiko eta jarduera hoberena espero duen hautagaia aukeratuko luke. Arrazionalki aukeratuko luke beraz, hautesleak. Bozkatzea honela, irabazi/kostu kalkulu baten eta hauteskunde emaitzetan bere bozka erabakiorra izan daitekeen probabilitatearen produktua litzateke. Bozkatzeko erabakia hortaz, hiru parametroren arabera eraikia izango da:

1. I = irabaziak (materialak eta materialak ez direnak), aukeratutako hautagaia edo alderdia aukeratua bada.
2. p = bere bozkek hauteskunde emaitza determinatu dezakeenaren probabilitatea.
3. K = bozkatzearen kostua. Hemen, bozka lekura joateko behar den dirua eta denbora, eta era egokian bozkatzeko beharrezko den informazioa lortzeak dakartzan kostuak hartzen dira kontuan.

Anthony Downsen ereduaren arabera hortaz, herritarrek bozka ematen dute $pI > K$ bada. Kalkulu horren arabera, abstentzioa litzateke ekintza arrazional bakarra eta Downsek abstentzio arrazionalaren defentsa sutsu bat egiten duen arren, errealitate enpirikoak hauteskunde partehartze zabalen aurrean gaudela azaltzen digu. Downsen teoriak aplikazio praktikoan izandako arazoa “bozkaren paradoxa” bezala ezagutua da. “Teoria honen zoritxarrerako, jende gehienak bozka ematen du” (Criado Olmos, 2003:3). Green eta Shapiro-ren arabera teoriak aurreikusten duena

eta behatutako errealitatearen arteko desorekak porrot enpiriko bat suposatzen du aukera arrazionalaren teoriarentzako (Green eta Shapiro, 1994: 51-57).

Bozkaren paradoxa honi irtenbidea eman nahian, aukera arrazionalaren teoriaren baitan birformulazio ezberdinak eman dira gehienak porrot egin badute ere (Overbye, 2003; Riker, 1995; Aldrich, 1993; Ferejohn eta Fiorina, 1974 *in* Criado Olmos, 2003:1-14). Riker eta Ordeshookek, parametro berri bat sartu zuten Downsek planteiatutako erudian, *B parametroa* (Riker eta Ordeshook, 1968,1973 *in* Criado Olmos, 2003:5). Parametro honek betebeharrak zibikoarekin konplizitatearen balioa adierazten du eta, honela, hautesleek bozkaren ekintzaren ondorioz lor ditzaketen irabaziez aparte, bozkatzaren ekintza bera irabazi moduan ikusiko lukete. Green eta Shapirok bozkaren paradoxari irtenbidea eman asmoz eginiko planteamendu hau kritikatuko dute. Izan ere, euren aburuz, bozkaren kalkuluan betebeharrak zibikoaren betetzetik eratorritzen den haborikin psikologikoa barneratzea *ad hoc* azalpen bat litzateke eta aukera arrazionalaren eremutik kanpo legoke (Green eta Shapiro, 1994:52).

Fiorinaren hitzetan “bozkatzeko kontsumo ekimen bat da, inbertsio ekintza bat baino” (Fiorina, 1976 *in* Criado Olmos, 2003:5). Horretaz gain, hauteskunde portaera ezin da kalkulatu arrazionalaren abantailatik ulertu epe motzean, partehartzea eta informazioa lortzea intrinsekoki baloratuak diren ekintzak baitira. Jendeak betebeharrak zibikoak garatzen ditu gustuko dutelako edota errudun sentitzen direlako ez badituzte betetzen. Puntu garrantzitsuena herritarren betebeharren praktika berak balioa duela da, helburu bat ere izanik.

Lehen aipatu dugu esfortzu ugari egin direla partehartzearen enigmari eta abstentzio arrazionalaren logika eta bere aurkako ebidentzia enpirikoari aurre egiteko. Baina aukera arrazionalaren teoriak ere izan du bere arrakasta; izan ere, hauteskunde portaeraren beste tradizioak beraien jatorriak birpentsatzera bultzatu ditu, herritar intenzionatu eta jokabide politikoaren analisiari dagokionean. Nolanahi ere, arazo nazionalak dirauten eremuetan, nekez pentsa liteke botua ematea kontsumo soilera mugatzen denik. Ez dugu uste horrelakorik gertatzen denik EAEn edo Euskal Herrian.

Azken urteetan, eredu ekonomiko edo arrazionalarekin loturiko ikuspegiak gehiago hurbildu dira hautesleek izan ditzaketen interes ekonomikoetara. Eredu arrazionalaren argudioak galera edo irabazi

ekonomikoen klabeetan interpretatzea errazagoa izaten da. Hauteskunde portaeraren azalpen ekonomikoen bariazio batek gizabanakoen onura/galera balantzeari baino, egoera makroekonomikoari erreparatzen dio. Honela, bilakaera ekonomikoa ezkorra den testuinguruetan hautesleek gobernuan dauden alderdiak zigortzera jotzen dute, eta alderantziz, testuinguru ekonomiko baikor batean gobernuko alderdi edo alderdiak sarituko lituzkete. Lawrence LeDuc eta Richard G. Niemiren aburuz, 2008-2010 urteetan Europan zehar izandako hauteskunde ezberdinetan nabaria izan zen bozka eredu honen eragina (Lawrence LeDuc eta Richard G. Niemi, 2014).

1.2. Soziologia politikoaren korrontea

Kolonbiako eskolaren arabera atributu sozialak gizabanakoak gizarte egituraren kokatzeko baliagarriak dira baina benetan esanguratsuak dira informazio politikorako izan dezaketen esposizioa baldintzatzen duten heinean (McPhee *et al.*, 1963 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:336). Kontuan izan behar dugu Kolonbiako lehen ikerketan, *The People's Choices*, oso agerikoa zela, lehen begirada batean behintzat, determinismo sozialaren argudioa: “Pertsona batek, bera sozialki den bezala pentsatzen du politikoki. Gizarte ezaugarriek lehenetsun politikoak baldintzatzen dituzte” (Lazarsfeld *et al.*, 1944: 27).

Key eta Mungerrek ikerketa honi emandako erantzun klasikoan, politikaren izaera idiosinkratikoa, independentea eta bereiztua aldarrikatzen dute. Honela, atributu sozialez gain, hauteskunde portaeran eragin dezaketen beste aldagai batzuen eragina aztertzen hasiko da tradizio soziologiko politikoa (Key eta Munger, 1959 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:337).

a) Testuinguru sozialak

Bozkaren ikerketa modernoek gizabanakoen testuinguru eta sare sozialetan ipini zuten fokoa: Warren Miller (1956) eta Robert Putnam-ek (1966), besteak beste. Testuinguru sozialak politikoki garrantzitsuak dira taldeen mugen barruan eta, bere bitartez, egon daitekeen elkarrekintza sozialean eragin dezaketelako. Honek, politikoki esanguratsua den informazioaren fluxu sozialean inpaktua izan dezake. Testuinguru sozialak konposizio sozial terminuetan definituak dira (Eulau, 1986) eta zentzu honetan, testuinguru bat giro batean dagoen eraketa soziala bezala ikusia

izan daiteke. Modu honetara, testuinguruak banakako kontroletik haratago doaz, baina honek ez du esan nahi jendea ez denik testuinguru partikular batean kokatzen beste batzuk ekiditzen dituzten bezala.

Are gehiago, posizioari dagozkion erabakiak irizpide ekonomiko, politiko eta sozialaren arabera hartuak izan daitezke. Halere, behin gizabanakoa testuinguru batean kokatzen denean, esfortzu handiak egin behar dira testuinguruz aldatzeko. Gutako gehienok, testuingurua emanda bezala hartzen dugu eta testuinguruak hautesleekiko exogenoak bailitzan ikusiak dira. Testuinguruaren eraginak askotarikoak izan ahal dira. Autore ezberdinek, testuinguruaren efektuaren literatura, jarrera eta informazioaren arteko interdependentziara iragan zuten, konpartitutako ezaugarri sozialetan oinarritutako argudioei oposizioa eginez (Przeworski,1974; Sprague eta Westfield, 1979; Huckfeldt ,1983, 1984, 1986; Przeworski eta Sprague, 1986 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:341).

Langton eta Rapoportek Santiagoko langileek Allende babestearen honako azalpena eman zuten: beste langileekin bizi ziren langileak langile horiekin identifikatzen ziren, eta hemendik eratortzen da Allenderi emandako babesa (Langton eta Rapoport, 1975 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:341). Dena den, argudio hau autoselektzioaren aurkakoa ere bilaka daiteke: langileekin identifikatzen diren langileak bakarrik erabakitzen dute langileekin bizitzea. Hortaz, testuinguruaren eraginaren azterketek bateragarritasun bat ahalbidetzen dute banakako intentzioa eta egitura sozialaren kanpo eragin independentearen artean. Gizabanakoak giro batzuk aukeratu eta beste batzuk ekiditu arren, aukeraketa horren zergatian gizabanakoak giroarekin duen interakzioa ere aztertu beharrekoa da.

b) Sare sozialak

Testuinguruak estrukturalki definituak dira eta gizabanakotik at daude, sare sozialak aldiz, behintzat teorian, gizabanakoa eta bere aukeraketaren ondorioz sortzen dira. Finifterrek (1974) politika eta lantokiaren artean eginiko ikerketa baten arabera, gutxiengoa osatzen duten gizabanakoek, testuinguru sozialetik haratago, beraien lehentasunak ezartzen dituzte harreman sozial eta politikoen sarea osatzeko orduan. Sareen eraketan ematen den aukeraketa indibidualaren egikaritzea testuinguruak baldintzatua dago eta, gutxiengoak, asoziazio ereductan selektiboagoak izan ohi dira. Coleman (1964) eta McPheek (1963) eginiko lanetan, jendeak inguruak eskaintzen dion edozein informazio politiko onartu eta manciatzen ez dutela azaltzen dute, baina era berean, inguruak elikaturiko

informazio iturrien ondorioetatik guztiz aldentzeko aukerarik ere ez lukete.

Lehentasun politikoa informazioaren aukeraketatik ez dago baldintzatua ordea, eta gizabanakoaren informazio eskaera dagoen eskaintzaren baitan ulertua izan behar da. Jendeak, informazio iturriak bere lehentasunen arabera aukeratzen ditu eta gizabanakoaren aukera informatiboen baldintzak ingurugiroko sesgoak azaltzen ditu. Honela, iritziak, ingurugiroak bideraturiko informazioa eta aurretiaz dituzten irizpide propioen produktu konplexuak lirateke. Sarritan, oharkabean, jendea informazio baten eraginpean dago. Honi, askotan jendeak informazio iturrien aukeraketarako lehentasunik ez duela gehitzen badiogu, informazioarekiko kontrolik egikaritzen ez dutela esan dezakegu.

c) Eragin ereduak

Boudonek (1986) soziologiaren tradizio indibidualista eta Weberren lanetik (1966) eraikitako eredu mikrosoziologiko baten aldeko apustua egingo du. Tradizio indibidualista da arrazoi indibidualetan ipintzen duelako enfasia, baina soziologikoa da, jarreretan eragina daukaten kanpo faktoreek osatzen dutelako objektua. Jennings eta Niemiren (1974,1981 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:348), sozializazio ikerketen arabera, herritarren eragin politikoa intimitate eta konfiantza giro batean ematen da eta, hortaz, eragina, arrazoi eta helburuetatik aldentzen da. Huckfeldt eta Spraguerek (1991), aldiz, jendeak eremu intimotik at eztabaida politikoetan partehartzen dutela frogatu zuten eta hortaz, intimitateak ez dakar derrigorrean eragin maila altuagoa. Ildo berean, Burten hitzetan (1987), gizabanakoek eragina izatearen gaitasuna, interes beretsuak izatean oinarritzen da. Gizabanako batengan eragina izateko aukera handitzen doa, eragina jasotzen ari den herritarrak interes konpartitu eta amankomunak errekonozitzen dituen heinean, hemendik eratortzen baita aurredisposizio baikorra (Downs, 1957; Huckfeldt eta Sprague, 1991 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:349). Informazioa, gertuen ez dauden kontaktu sozialen bidez transmititzeak eraginak ditu, politikan komunikazio sozialak duen natura eta ondorioengatik. Izan ere, komunikazio sozial honek benetan publikoa den iritzi publiko bat sortzeko gaitasuna du.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, soziologia politikoaren ereduaren baliagarritasuna auzitan ipinia izan da egun *cleavage* tradizionalen baitan emandako ahultasunagatik. Halere, Bartolini, Mair eta Thomassenek, egun

ere, eredu honen baliagarritasunean sinesten dute alde zurrerako jarrerak bozka aukeratzeko orduan duten eragina aintzakotzat hartuaz (Bartolini eta Mair, 1990; Thomaseen, 2005 *in* Lawrence de Luc eta Richard G.Niemi 2014:146). Dena den, aurrerago sakonduko dugu banaketa sozialek hauteskunde portaeran duten eraginaz, bereziki, posizio sozial hauek balio politikoetan bilakatzen direneko prozesuari helduz.

1.3. Sikologia politikoaren korronea

Instrumentalki motibatua eta intentziodun herritarra ikerketa soziologikoetan barneratu den bezala, sikologia politikoaren korroneak ere herritar hau berraurkituko du, hein batean, Downsen teoria ekonomikoaren eraginez. Michiganeko korroneak, boto-emailek alderdiekiko zuten identifikazioen hauteskunde ondorioei buruz luze hausnartuko du. Korrone honen aburuz, alderdi politiko batekin identitate sendo bat garatzen duen gizabanakoak alderdiak gai ezberdinetan dituen posizioa beretsuak barneratzen ditu eta gehienetan, alderdiaren hautagaiekin bat egiten dute. Butler eta Stokes-ek kontzeptu hau “alderdiak boto-emaileen buruan” izenarekin definitu zuten Erresuma Batuan egin ziren lehen ikerketetan, honela lotura sikologikoen ideia azpimarratuz alderdikidetasun formalaren gainetik (Butler eta Stokes, 1969 *in* Lawrence de Luc eta Richard G.Niemi, 2014:145)

Europar eginiko hauteskunde portaera ikerketa ezberdinek auzitan ipini zuten Estatu Batuetatik haratago, alderdi identifikazio handi batek izan zezakeen eraginaz. Holmberg-en ustez (2007), kontzeptu honen eraldatze batzuk baliagarriak dira. Lawrence de Luc eta Richard G.Niemik (2014) atxikimendu ideologikoa hautesleek duten beste aurredisposizio faktore bezala ulertzen dute. Hortaz, hautesleek, alderdi identifikaziotik haratago, beste nortasun politiko bati helduko baliokete, esaterako ezker/eskuin dimentsioari dagokionean, ondorioak, alderdi identifikazio sendo bat izatearen parekoak izan daitezke.

Sikologia politikoaren korronearen zertzelada batzuk aipatu ditugu, aurrerago landuko baitugu balio politikoaren eragina azaltzen dugunean. Oraingoan, korrone honek haritik, komunikabideen eraginean edota erabaki politikoak hartzeko prozesuetan azalduko aipatuko dugu.

a) Komunikabideen eragina

Kolonbiako Unibertsitateko ikerketen atal bat komunikabideek gizabanakoengan eta bere aukeraketetan izan zezakeen eraginetan zentratu zen. Hogei urteko ikerketa baten ondorioz ordea, Klapper-ek “gutxieneko eraginen eredu” azaldu zuen, non komunikabideen eragin politikoa leundu lezakeen argudioak adierazten dituen (Klapper, 1960 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:351):

1. Herritarrak eragina izateko beste erne ez daude.
2. Mezu intermitente eta gatazkatsuak besteekin ezabatuak izan ohi dira.
3. Maila indibidualeko prozesuak –aurretik badiren xedapen politikoetan oinarrituriko erretentzio eta atentzio selektiboak– komunikabideen mezuak desitxuratzten dituzte eta, hortaz, bere balizko eraginak indargabetu ditzakete.
4. Maila indibidualetik ateratzen den edozein mezu komunikazio eta elkarrekintza sozial ereduaren bitartez prozesatua izan da.

Denborarekin, komunikabideen eraginari buruzko ikerketek *agendaren* garrantzian ipini zuten fokoa eta, hortaz, komunikabideen eragina, nola bozkatu baino, gaien eta arazoen garrantzien pertzepzioan izan zezaketen eraginera zuzendu zen. Argudio honen arabera, komunikabideetan agertzen diren gaiak dira herritarrek gero garrantzitsu bezala ikusten dituztenak. Hemendik eratortzen da arazoen paisaia politiko erreala eta politiken helburuen arteko lotura alde batetik, eta, bestetik, paisaiari buruz jendeak dituen pertzepzioak informatzeko erabiltzeko dituzten komunikabideen arabera izatea.

Komunikabideen eragin zoliaren beste forma bat, *primingaren* eragina izan daiteke. Iyengar eta Kinderren arabera, herritarrak, epai politikoak erreproduzitzeko erabil dezaketen informazio kantitateagatik mugatuak daude eta, horregatik, aukeraketa, gai kopuru mugatu baten arabera egiten dute (Iyengar eta Kinder, 1987 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:352). Era berean, alderdi eta hautagai baten arrakastaren gakoak, sarritan herritarrek bere erabakia politikoak hartzeko izandako irizpide multzoaren arabera da. Iyengar eta Kinderren arabera, komunikabideen boterea nabarmena da herritarren erabaki hartzea “prestatzeko” ebaluazio oinarriak ezartzen dituztenean. Euren ikerketaren emaitzek ingurugiroaren arabera

elikatutako informazioa eta informazio iturrien eraginpean jartzen direnen lehentasun politikoen elkargunearen arteko garrantzia babesten dute. Autore hauek gizabanakoak komunikabideen biktima bezala aurkezten dituzte. Baina hemen ere interpretazioak anitzak dira.

b) Erabaki politikoak hartzea heuristikoki

Herritarren gutxiengoa ongi informatua badago ere, gehiengo zabal batek ez du informaziorik oinarritzko ekintza, gai eta figura politiko aipagarrien inguruan. Halere, herritarren gehiengoak iritzi politikoak dituzte eta horrela azaltzen dituzte gai ezberdinen inguruan. Nola da posible politikan ipintzen duten atentzio urria eta gai publikoekiko duten informazio eskasa kontuan izanik?

Anthony Downs (1957) izan zen demokrazia modernoetan informazio politikoaren arazoari erreparatu zion lehen analista. Downsek (1957: 210) informatua egoteko hiru kostu tipo identifikatzen ditu:

- a. Datuak jaso, aukeratu eta transmititzeak dakartzan kostuak.
- b. Datuak objektiboki aztertzeak dakartzan kostuak.
- c. Analisi objektiboa helburu zehatzekin harremantzearen ebaluazio kostuak.

Downsen arabera, kostu hauek politikoki informatua egoteko oztopo handiegia suposatzen dute. Honela, herritar arrazionalak pizgarriak dituzte informazioa lortzeko, kostuak ekiditzeko eta metodoak garatzeko. Bere erabilera medio, minimoki informatutako herritargo baten aurrean geundeke, baina finean informatua. Downsek ignorantzia politikoaren oinarri arrazionaleri buruz idatzi zuenetik, psikologia sozial eta kognitiboak erabaki hartze prozesu konplexuak aztertzeari ekingo dio.

Kahneman eta Tversky-k herritarrak informazio mugatu batean zentratzea ahalbidetzen duten lau oinarri heuristiko identifikatu dituzte (Kahneman eta Tversky, 1974 *in* Carmines eta Huckfeldt, 2001:362):

- *Erabilgarritasuna*; herritarrek ez dute derrigorrean informazio guztia, ez esanguratsuen, kontuan izan behar. Adibidez, norbaitek bere burua liberalekin identifikatzen duen erabakitzeko, ordezkari liberal ezagunetan bakarrik ipini dezake harreta.

- *Adierazgarritasuna*, informazio *item* bat informazio osoaren adierazgarri izatean datza. Honela, adierazgarritasunari informazioaren tipikotasunak eragiten dio. Printzipio heuristiko bat aldarrikatua izango litzateke adibidez, afroamerikar eta zuri baten arteko lehia dagoen Kongresurako hauteskunde batean boto-emaeleak hautagaiaren arraza nabarmenduko balu hautagai demokrata edo errepublikarra zein den identifikatzeko.
- *Doikuntza*, hasierako estimazioa aldatua izan daiteke informazio garrantzitsuagoa jasotzen dugunean.
- *Simulazio heuristikoa* informazio esanguratsurik ez denean erabiltzen da. Gizabanakoak honela, erabakitze eszenatoki zehatz batetan egon daitezkeen ondorioei aurrea hartzen saiatu behar da.

Hauteskunde portaeraren ikerketa berriek gero eta gehiago erreparatzen diete hautesleen informazio barneratze prozesuari. Richard Lau eta David Redlawsk-ek (2006) eredu arrazionalaren itxura izan dezakeen ikuspegi bat lantzen dute, baina errealki hautesleen prozesu kognitiboei erreparatzen diete. Luzatzen dituzten lau erduetatik, “arrazionalitate mugatua eta erabaki intitutiboa” bezala definitu duten irudia litzateke euren aburuz egungo gizarteetan gailenduko litzatekeen bozka eredu nagusia. Carmines eta Huckfeldt-en aburuz logika heuristiko bat “arazo konplexuen irtenbidea epai operazio errazagoetan bilakatzen dituen bidezidor kognitiboak erabiltzean datza” (Carmines eta Huckfeldt, 1988:246). Esaterako, alderdiak edo hautagaiak muturreko dimentsioetan kokatzea: gertukoa/urrutikoa, jatorra/ezatsegina, autoritarioa/demokrata, liberala/kontserbadorea, etab. Ezker/eskuin dimentsioa ere programa politiko konplexuak dimentsio bakarra lukeen ardatzean kokatzeko baliagarria litzateke. Kapitulu honen bigarren atalean ezker/eskuin dimentsioak bozkan duen eraginaren inguruan sakonduko dugu.

Laburbilduz, hauteskunde portaeraren korronteez boto-emaeleengan eragiten duten faktore ezberdinei erreparatzen diete. Kolunbia eta Michiganeko ereduak hautesleak politikoki oso sofistikuak ez direnaren ideia eta gizarte moderno bateko bizitza politikoaren konplexutasunaren inguruko informazio urria dutenaren ideia partekatzen dute. Horregatik, hauteskunderetan erabakiak hartu ahal izateko, azterna batzuk (*cues*) behar dituzte. Kolunbiako eskolaren kasuan azterna hauek gizabanakoen giza talde edo erreferentziatzeko taldeen portaera eta balore nagusietatik eratoritzen dira. Michiganeko ereduari jarraiki aldiz, azterna hauek alderdi

identifikaziotik sortuko lirateke (Mayer, 2006:20 *in* Sulmont Haak, 2010:4). Downsen ereduaren aburuz, herritarren arrazionalitate utilitaristak bere alderdi identifikazioak edota talde sozial ezberdinetako kidezkak baino eragin gehiago luke bere hauteskunde orientabideetan. Ildo honi jarraiki, herritarren erabakia hautagaiei buruzko iritzian, iraganean egindako lanaren ebaluazioan edota aurrera eginiko promesetatik izan ditzakeen irabazietan oinarritua dagoela espero da.

Atal honetan korrante bakoitzaren oinarritzko zertzeladak bakarrik aipatu ditugu eta, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, hauteskunde partehartzea azaltzeko orduan, hiru begiraden fokoa eta aportazioak ikusiko ditugu. Finean, denen ekarpenak eta osagaiak dira beharrezko hauteskunde portaera eta bozkaren nondik norakoak azaltzeko orduan, eta sinkretismoan erori gabe azalpen gehigarriak faltako zaizkigu oraindik.

2. Hauteskunde partehartzea azaltzeko faktoreak

Aurreko atalean hauteskunde portaeraren inguruko korrante nagusiak azaldu ditugu. Oraingo atalean, korrante bakoitzaren markoetatik haratago, hauteskunde partehartzea baldintzatu dezaketen faktore ezberdinak azaltzen saiatuko gara. Hauteskunde partehartzea, partehartze politiko mota bat bezala ulertu behar dugu. Kontuan izanda tesi honen oinarri enpirikoa abertzaletasunaren bozka adierazpenean kokatua dagoela, atal honetan hauteskunde partehartzearen nondik norakoak azal ditzaketen faktoreetan zentratuko gara;

- *Hauteslearen posizio soziala*: generoa, adina, ikasketa maila, diru sarrerak edota bizitokia.
- *Hauteslearen jarrera politikoak*: interesa, politizazio maila edota sistema eta instituzioen balorazioa.
- *Hauteskunderen testuinguru politikoak*: hauteskunde sistema, hauteskunde lehia edota pizgarri instituzionalen sistema.

Jarraian aurkeztuko dugun bozka ereduak Campbell eta beste ikerlari batzuek 60. hamarkadan proposaturiko eta kausaliarekin inbutu baten irudika dezakeguna du oinarrian. Atal honetan aurrerago azalduko dugun bezala, irudi honen muturrean gizabanako eta alderdien arteko harreman

egonkorrak sortzen dituzten oinarriak ditugu, egiturazko aldagai sozialak, ekonomikoak eta politikoak. Alegia, gizabanakoen posizio soziala definitzen dutenak. Beste muturrean, hauteskunde batetako ezaugarri konkretuak marrazten dira, besteak beste, ingurumaria ekonomikoa edo politikoa eta hautagaitzen eraketa. Bi muturren arteko lotura, gizabanakoek hautagaiekiko, eztabaida politikoaren gai edo arazoekiko eta alderdi politikoekiko garatzen dituzten jarreraren bidez ematen da.

Kolonbiako ereduarekin alderatuz, Michiganekoak ez du uste egiturazko aldagaiek, posizio soziala definituko luketeenak, klase identitatea, erlijioa edota talde etnikoa, besteak beste, bozkan eragin zuzena dutenik. Bai ordea, alderdi identifikazioaren garapena ahalbidetzen duten erakunde politikoekiko jarrera eta lotura afektiboen garapena bideratzen duten faktoreekin. Modu honetara, bozka eredu honetan aurretik hizpide izan ditugun hiru korronteen nondik norakoak barneratzen direla ikus dezakegu. Ikerlarien artean bozkan eragin dezaketen faktoreen inguruko eztabaida handia dago. Aurkezturiko ereduak Campbell eta beste ikerlari batzuek jorratutako auziak jasotzen ditu baina azken urteetan hauteskunde portaeraren azterketa ezberdinek eginiko aportazioak ere barneratzen saiatu gara.

2.1. Posizio soziala eta bozka

Gizabanakoek euren herrialdeko egitura sozialean duten posizioaren arabera ematen dute bozka gehienetan. Herritar bat langilea edo burgesa izan, katolikoa, protestantea, musulmana edo judua, autoktonoa edo etorkina, hiri handi batean bizi izatea edota periferiako hiri txiki batean, gaztea edo zaharra izatea, ez dira egite neutroak. Baldintza guzti hauek herritarra tokian tokiko egitura sozialaren posizio batean kokatzen dute. Eta kokatuz, gizabanakoak mundua, politika eta hauteskundeak ikusteko abiapuntua baldintzatzen dute eta, ondorioz, euren bozka ere.

Posizio soziala, klase soziala, erlijio komunitatea, jatorria edo beste ezaugarri batzuen arabera da, eta horretarako *cleavage* kontzeptua erabiliko dugu. *Cleavage*ak gizarte zehatz batean dauden banaketaren adierazgarri dira, eta tokian tokiko cleavage horien arabera sortuko dira alderdi politikoak ere. Dena den, egiturazko banaketa guztiek ez dituzte *cleavage*ak sortzen, horretarako, gizarteko bi aldean artean lerrotatzeak eta alderdiak sortu beharko lituzkete. Kontuan izan behar dugu ere, *cleavage* ez dela banaketa ideologiko bat, egiturazkoa baizik, eta herritarrak alde

batean ala bestean kokatzen dituela bere borondatearekiko independenteki (Anduiza eta Bosch, 2012).

Eztabaida handia dago *cleavage* terminoaren inguruan eta beste banaketa ardatzetatik zerk bereizten duenaren inguruan. Bartolini (2005) eta Mairren (2006) arabera, *cleavage*ak aipaturiko egitura sozialeko banaketa objektiboaz gain, talde sozial ezberdinek euren interesak antolatu eta adierazi beharko lituzkete (dimentsio organizatiboa). Hirugarren osagaia dimentsio normatiboa edo kulturala litzateke; hau da, taldeek nortasun kolektiboa eta elkartasun sareak antolatzen dituzten maila.

Lipset eta Rokkanen arabera (1992), mendebaldean hiru *cleavage* nagusi izango genituzke: erlijio komunitateena, jatorriena eta klase sozialena.

a) Klase soziala eta bozka

Mendebaldeko demokrazia aurreratu guztiek klase sozialetan bananduriko gizarte egitura dute. Sailkapen anitz egin daitezke klaseen inguruan baina ohikoa izan da era dikotomiko batean planteatzea: langilegoa eta burgesia edo *middle-class*. Klase sozialaren *cleavage*aren eraginez sortzen den bozka, klase bozka da. Inkesta ezberdinei erreparatu³, agerikoa da langileek eta burgesek era ezberdinean bozkatzen dutela eta, hortaz, klase bozka baieztatuko litzateke. Halere, honek ez du esan nahi langileek automatikoki langileen alderdiei bozkatzen dietenik, ez eta burgesek alderdi burgesei. Baldintzapenak baldintzapen dira, ez determinazioak. Kontuan izan behar dugu gainera *cleavage*en garrantzia testuinguruen arabera oso bestelakoa izan daitekeela. Euskal Autonomia Erkidegoan esaterako, eta aurrerago ikusiko dugun moduan, klaseak baino, nortasun nazionalaren ardatzak eragin handiagoa izango luke hauteskunde portaeran.

Klase bozkaren indarra neurtuz asmoz, Robert Alford-ek indize bat eratu zuen (1963), alde batetik, Estatu Batuei begira eta, beste aldetik, Europari. Bietan, klase bozkaren eragina ahultzan zihoala ikusi ahal zen, nahiz eta

³ Anduiza eta Boschen (2012) eskuliburuan dauden taula estatistikoak Eurobarometroa dute iturri moduan, Katalunian ezik. Herralde honetarako CISen 2374 inkesta erabili dute.

klase bozkaren indarraren beherakada hori nabarmenagoa izan Estatu Batuetan⁴ (Harrop eta Miller, 1987:184).

Baina, zeintzuk dira ahultze historiko honen zergatiak? Lehenik eta behin, eta aurretik aipatu bezala, langileen bozka ez da hain automatikoa. Gaur egun, langileek lan mugikortasun eta mugikortasun sozial handiagoa dute. Era berean, jendearen ikasketa maila asko handitu da eta langile tradizionalaren irudia, ikasketa gabea, toki berean lan egiten zuena eta sarritan langile komunitate bati hertsiki lotua, iraganekoa dela esateko moduan gaude. Anduiza eta Boschek azaltzen duten moduan, geratzen diren langile tradizionalak ziurrenik lerrokadura estua izanen dute langileen alderdi tradizionalekin, baina mota honetako langileak gero eta gutxiago dira (Anduiza eta Bosch, 2012).

Bigarrenik, klaseen arteko ezberdintasunak murriztuz joan dira. Mendebaldeko herrialdeetan langilegoaren bizi maila hobetu egin da, bai soldata aldetik eta bai ongizate estatuaren segurtasunarengatik. Baina hobekuntza objektiboaz gain, aldaketa subjektibo oso esanguratsu bat ere eman da: langilegoaren bizitza estiloa aburgesatu egin da eta, ondorioz, langileen alderdiekin zegoen lerrokatzea ahuldu egin da. Era berean, lehenagoko burges asko proletarizatu egin da. Ikerketa ezberdinek adierazi bezala, mugikortasun soziala handia den herrialdeetan klase bozkaren indarra ahultzen doa; fenomeno hau *aburgesatzearen teoria* bezala ere ezagutua da (Goldthorpe *et al.*, 1968:1).

Hirugarrenik, klase sozial berri bat ere sortu dela esan dezakegu, edota klase sozialaren kontzeptua bera aldatu dela. Demokrazia aurreratuetako egitura ekonomikoan eman den aldaketa handienetarikoa zerbitzuen sektorearen hazkundera da. Sektore honetan diharduen zati garrantzitsu batek ikasketa maila altuak ditu eta lan baldintza eta baldintza ekonomiko onak ditu. Klase sozial berri hau ez da burgesia baina ez da langile klasea. Bere agerraldi eta zabalkundeak bozka klasea ahuldu du aurretiazko lerrokatzerik ez baitu. Aurrerago ikusiko dugun moduan posible da egun *cleavage* edo ardatz berrien aurrean aurkitzea ongizatearen gizartearen baitan. Ingurumaria horretan kokatzen dira hauteskunde lerrokadura berriak; esaterako Suedian, non gehiengo sozialdemokrata sektore

⁴ Alford indizea oinarri, Europarako Eurobarometroko fitxategiak erabili dira, Estatu Batuetarako alduz, NES 2000 inkesta.

publikoki beharginek osatuko luketen, iraganeko klase banaketa gaindituaz (Harrop eta Miller, 1987:195).

Ildo honetan, Bergerrek ere hizpide ditu II. Mundu Gerraren ondoren klaseen baitan emandako aldaketak. Bereziki, mendebaldeko klase ertainei erreparatuko die: izan ere, Bergerren aburuz (1989), egun, era bertikalean bananduak dauden bi ertain klaseren aurrean gaude. Bata, merkatari eta profesionalek osaturiko ertain klase zaharra litzateke, eta bestea, ertain klase berria, edo klase berria litzateke. Bergerrek “klase hezia” bezala definitzen du ezagutza sinbolikoak sortu eta banatzeaz arduratzen den jende multzo hau. Klase heziko gizabanakoez, hezkuntza sisteman, komunikabideetan, aholkularitza eta orientazio sareetan eta gizartearen behar ez materialak antolatzen dituzten agentzia burokratikoetan egiten dute lan.

Bergerren hitzetan gainera, klase berri honek, klase berri orok bezalaxe, bere klase interesak gizartearen ongizate komunarekin identifikatzen ditu teorikoki, eta bereziki, zapalduenak daudenekin. Klase berri hau ongizate estatuaren defendatzailea da eta txiroenen eta bazterturiko taldeen aldeko jarrera erakusten du. Ondorioz, orokorrean aberatsak eta heziketa maila altua duen talde honen eta klase baxuko beste batzuen arteko sinbiosi politiko bat ematen da. Sinbiosi honek gainera langile klase industrialarekin tentsio-harremanak sortu ditu; bereziki eskulan antolatua ordezkatzeko duen sektorearekin.

Laugarrenik, alderdiek hauteskunde estrategia interklasistak hartu dituzte. XX.mende erditik aurrera masa alderdi zaharrak *catch all* alderdi berriengandik ordezkatuak izan dira. Hauteslego osoari egiten diete dei, ez talde zehatzei. Estrategia berri honek klase bozka ahultzen du eskaintzaren aldetik. Klaseak iraganean bezain sendoak izango balira ere, klase *cleavage*aren arabera definitzen diren alderdi ezak hauteskunde portaeran aldaketak sortzen ditu (Anduiza eta Bosch, 2012).

Espainiako Estatuaren baitan, eta sortu berri den Podemos alderdiaren aldetik, estrategia honen nondik norakoak argi ikus ditzakegu. Bereziki, alderdi bezala eratu ondoren, behin eta berriro saihestu nahi izan dute klase sozial batekin identifikatzea edota ezker/eskuin ideologia parametroetan kokatzea. Etiketak jartzearen jokoan ez direla eroriko azaldu dute eta, zeharka bada ere, kategorizazio ideologikoa gainditu beharreko ardatz bat bezala aurkeztu nahi izan dute. Zentzu komunaren alderdi bezala ere definitu izan dute euren burua. Alderdiaren

diskurtoaren transbertsalitateak balizko hautesleen profilaren aniztasunean ere badu isla.

Kontuan izan behar dugu sarri alderdietako eliteak direla klase ardatza diskurtoetan barneratu ala ez erabakitzen dutenak, uneko interes eta beharren arabera. Alderdi batek bere programa edo hauteskunde kanpaina klase ardatzean oinarritzen badu, automatikoki hauteslego potentzial batzuk bazterrean uzten ditu.

Baina egun, zein da bozka eta banaketa sozialen arabera definituriko egitura sozialaren arteko harremana? Egitura sozialak hautesleen interesak definitzen ditu eta interes horiek hautesleen lehentasunak baldintzatzeko orduan paper garrantzitsua jokatzen dutela suposatzea logikoa da. Paramioren arabera (2000) hauteskunde lehiak klase banaketa inongo alderdik ez badu aktibatzen, edota klaseak ez badu alderdi identifikazioa era hertsiki batean determinatzen, banaketa ardatza baino, eragina izan dezakeen beste aldagai bat bailitzan ulertua izan beharko litzateke.

Ikerketa ugari hauteskunde portaera determinatzeko orduan klase sozialak izan duen garrantziaren galtzea erakutsi nahi izan dute. Baina ez dago erabateko ondorioz ateratzerik. Bigarren Mundu Gerra ondoren, Manza, Hout eta Brooks-en arabera (1995:158): “inongo herrialde kapitalista demokratikoan ez du lortu bozkak klase sozialarekiko guztiz independentea izatea hauteskunde nazional batzuetan”. Estatu mailan ere ikerketa ezberdinak egin dira klase bozkaren eraginaren nondik norakoak azaltzeko. Euskal Herrian aldiz, gabezia handiak ditugu arlo honetako ikerketa enpirikoei dagokioen, ziurrenik gurean nazionalismoaren ardatzak izan duen eta oraindik duen indarra medio.

Espainiako herritarren hauteskunde portaerari buruzko ikerketa ezberdinek agerian utzi dute lidergoa eta ideologia direla bozkan gehien eragiten duten aldagaiak. Gizarteko gainontzeko haustura larriak edota *cleavage*ak bigarren paper bat jokatu izan dute espainiarren hauteskunde lehentasunak osatzeko orduan eta, honek, gizarteko sektore guztietako bozkak jasotzearen aukera ahalbidetu die alderdi politikoei. Baina badirudi 1989 arte Espainiako alderdi sistemaren ezaugarri izan den honek aldaketak izan dituela eta, honela, une konkretu batean elite politikoek klase gatazkak berpiztearen estrategiari nola heltzen dioten erakusten dute ikerketa ezberdinek.

Torcal eta Chhiberrek (1995) egindako lana erreferentziatzen hartuz, 1992an aldaketak ematen dira eta PSOEek ordurarte sektore sozial guztietan zuen babesa galtzen joango da. Gainera, edota agian horren eraginez, klase soziala bi alderdi handien hauteskunde lehia eragin handia izan dezakeen aldagai bezala agertzen da. Aurretik ikusi ez bezala, PSOEn bozka ematen dietenen klase sozialaren artean eta bozka ematen ez dietenen arteko ezberdintasun estatistikoa nabarmena da. Torcalen aburuz, klase sozialaren indartze hau PSOE eta PPko liderrek onartutako estrategia politikoa eta 1989az geroztik gobernu sozialistak martxan ipinitako politika ekonomiko eta fiskalen baitan ulertu behar da. 1989a aurretik ikusitakoaren aurkako zentzuan, bi alderdi handiek gai ekonomiko eta fiskaletan izandako posizioak asko aldatu dira eta euren arteko eztabaida arazo ekonomikoak eta ezberdintasun sozialetan zentratzen hasi zen, bi programa ezberdin erakutsiaz.

Baina zergatik mugitu ziren ezkereruntz sozialistak hainbeste arrakasta eman zien erdigune politikotik aldenduz? Zenbaitek aldaketa, 1986tik Izquierda Unida-n bilduak ziren komunisten hazkunde elektoralean kokatu zuten, 1988an sindikatuek antolatutako greba orokorraren arrakasta ahantzi gabe. PSOEek emandako biraketa medio, kontserbadoreak aldaketa honen ondorioak kapitalizatzeko posizio ezin hobean kokatu ziren. 1986an estatus baxuko herritarrek, estatus altukoekin alderatuz, sozialistei bozka emateko %5eko probabilitate handiagoa zuten. 1992an aldiz, panorama guztiz aldatzen da; eta estatus baxuko herritarrek PSOE bozkatzeko probabilitate altua erakusten zuten bitartean, maila altukoek bozkatzeko aukera erdiraino murriztu zen. Aurreko urteetan ez bezala, ikerketa honek espainiarren hauteskunde portaeran klase sozialak eragina duela erakusten du, epe konkretu batez ari badira ere.

Hala eta guztiz, aurretik aipatu moduan, erabateko ondorioz ezin dugu atera. Interesgarria iruditzen zaigu elite politikoen klase sozialaren banaketa larriak apaldu edota astintzeko hartu ditzaketen estrategiei begirada bat luzatzea. Bazirudien egungo krisi ekonomikoan PSOEek berriro ipini ahal zuela mahai gainean ezberdintasun sozialen auzia, eztabaida politikoa PPk onarturiko neurri ekonomikoetan eta murrizketetan kokatzeko. Baina badirudi Podemosen agerpenak kolokan jarri duela estrategia hori, edo gutxienean, PSOE *moderazio* posizioak hartzera bultzatu duela, bi muturretatik aldenduz erdigune politikoen espazioa lortu bidean.

Ikerketa ugari klase soziala eta bozkaren arteko harremanaren ahultzeaz jardun badute ere, oraindik bere eragin estua ere ikus dezakegu hauteskunde ezberdinetan. Lawrence de Luc eta Richard G. Niemi (2014) horren adibide gisa ipintzen dituzte 2012ko Frantziako hauteskunde presidentzialistak non hautesle goak Francois Hollande aukeratu zuen.

b) Erlijio komunitateak eta bozka

Egia da erlijio komunitate ezberdinek ezberdin bozkatzeko dutela, baina ez dago herrialde guztietara orokortu daitekeen pautarik komun bat. Adibidez, ezin dugu esan katolikoek alderdi kontserbadoreei ematen dietenik bozka mundu osoan. Alemanian bai, baina ez Estatu Batuetan, eta Britainia Handia eta Holandan aurkakoa egiten dute. Herrialdearen egoera kultural eta historikoarekin harreman kontingente bat du bozka norabideak eta testuinguru bakoitzean eman diren lerrokatzeen arabera izan da. Mundu mailan aipa dezakegun erregulartasun bakarra herrialdean nagusi diren komunitate erlijiosoak alderdi tradizionalekin lerrokatzeko ohitura dutela da, *statu quo*aren defentsa egiten dutela esan genezake (Anduiza eta Bosch, 2012). Aldiz, gutxiengo erlijiosoak alderdi transformatzaileekin lerrokatzeko joera dute. Honela, Estatu Batuetako katolikoek, gutxiengoa izanik, Alderdi Demokratari bozkatzeko joera dute eta, aldiz, katoliko bavariarrak CSU alderdi tradizional eta kontserbadoreari eman ohi diote bozka.

Cleavage honen garapenari dagokionez, erlijio kolektibitateetan integraturik daudenak “euren” alderdiekin lerrokatuz jarraitzen dute eta, hortaz, ikus ahal dugun aldaketa handiena ez da *cleavage* honen ahulezia bat, baizik eta kolektibitate horietan integraturik dagoen jende kopuruaren murrizketa. Hau da, posible da katolikoek bozka aldatu ez izana, baina posible da ere, orain katoliko gutxiago egotea.

Europa mendebaldeko gizarteek sekularizazio prozesu bat izan dute eta ardatz erlijiosoak hauteskunde portaeran gero eta eragin txikiagoa duela esan genezake. Espainiako Estatu horren adibide litzateke. Espainiar Trantsizioaren hasieran katolikoek desproporzionalki UCD alderdiari ematen zioten bozka, baina 80. hamarkadan espainiar katolikoek hauteskunde portaera heterogeneagoa izan zen, bozka PSOE eta APren artean banatuz. 90. hamarkadan PPk UCDren hauteskunde herentzia jasotzen duenean ere, katolikoek portzentaje esanguratsu batek PSOEri ematen dio bozka. Modu honetara, eta kontuan izanik PPk ez katolikoek

artean ere inplantazio garrantzitsua izan duela, ardatz erlijiosoaren indarra ez da inolaz ere Errepublika garaian eta 70. hamarkadan izan zena.

Gunther eta Monterok ere (1994), erlijioak Espainiako hauteskunde portaeran zuen harremana ahultzen joan dela azaltzen dute. Euren aburuz, eta *cleavage* soziala osatzen duen klase sozialarekin bezala, ahultze hau ez da bakarrik gizartean eman den sekularizazio prozesu baten ondorio izan; elite politikoez ere, ardatz honen garrantzi ezean eragina izan zuten eztabaida politikoaren lehen planotik aldentuz.

Euskal Herrian ere nabarmena izan da sekularizazio prozesuaren eragina. *Euskaldun fededun* esaeraren data zehatza XX.mendean kokatu ahal bada ere, aurretiazkoa da euskaldun on batek fededuna izan behar zuenaren ideia. Belen Altunak azaldu bezala, XIX.mendeko mugimendu politiko garrantzitsuenak, karlismoa, fuerismoa eta sortzearen nazionalismoa, aintzineko bizimoduaren zaintzaile bezala agertuko dira, fedea, legeak, moralak, egitura soziala eta euskara babestuz. Sabino Aranak muturreraino eramane zuten euskaldun fededunaren harreman hautsiezina hau eta gure bizilagunengandik bereiztuko ligukeen katolizismo etniko honi azpimarra berezia egin zion (Altuna, 2012:17-50). XX.mende erdialdetik aurrera kristautasunean oinarrituriko euskaldun onaren ideia indarra galtzen hasi zen. Egun, Euskal Herrian ardatz erlijiosoak ia eraginik ez luke euskal herritarren hauteskunde portaeran.

Erljio komunitate ezberdinen eta bozkaren arteko harremanaren inguruko zertzelada batzuk besterik ez ditugu aipatu. Kontuan izan behar dugu zenbaitetan erlijioaren ardatzak hauteskunde portaera edota ideologiatik haratago doan eragina duela. Esaterako, Ipar Irlandan hauteskunde portaera baldintzatzen duen ardatz nagusia erlijioa da eta bere eragina eremu berdinean bizi diren baina ezer gutxi elkarbanatzen duten bi komunitate ezberdinetan islatua ikus genezake. Ipar Irlandan erlijioa izan da bi komunitate paralelo sortzearen ardatza. Jatorria eta bozkaren arteko harremanaz aurrerago hitzegino dugun arren, ezin dugu ahantzi Ipar Irlandaz ari garenean gainera, jatorri nazional ezberdinetako herritarrak ditugula eta honela, biak, bai jatorria eta bai erlijioa, gainjartzen diren ardatz bezala ikus genitzazkeela.

Lippset eta Rokkanen arabera (1992), klase sozialean eta erlijioan oinarrituriko banaketa sozialak kontuan harturik sortu ziren alderdi liberalak, kontserbadoreak, sozialistak, komunistak, arradikalak eta sozial-kristauak Europan. Sekularizazio prozesua medio, *cleavage* erlijioso

orientazio moral liberal edo kontserbadoreen arteko ezberdintasunera iragan da, eta pisua galdu zuen ezker/eskuin ezberdintasunaren mesedetan. XX.mendearen europar gizarteetan klasearekin loturiko orientabide ideologikoak izan dira alderdien posizioak era argiengan azaldu dituen banaketa ardatza.

Hala eta guztiz, Mair, Scarrow eta Siavelis-en arabera *cleavage*-en ikuspegia ezin da ulertu ardatz soziala ardatz politikoaren gainetik kokatzen duen gaideterminazio teoria bat bailitzan (Mair, 2006; Scarrow, 2006; Siavelis, 2006 *in* Sulmont Haak, 2010:13). Oinarritzko ardatz sozialen existentziak ez du derrigorrean ardatz hauek ordezkatu lituzkeen alderdien sorrera ekartzen ez eta *cleavage* araberako egitura bat sortzen. Esaterako, Scarrowren arabera, alderdiak, dauden banaketa sozialak ustiatzen dituzten enpresak lirateke, nortasun sozialak nortasun politikoetan bilakatu. Honela, alderdiek *cleavage*-en eraikuntzan duten paper garrantzitsua azpimarratzen du Scarrowk (2006) ere. Ildo beretsuan, Mairrek alderdien sorreren isla izan daitezkeen banaketa sozialei garrantzia kendu gabe, ezberdintasun sozialak politizatu eta esfera politikora iragaten dituzten alderdiak jotzen ditu eraikuntza prozesu honetako eragile nagusi bezala.

c) Jatorria eta bozka

Jatorriaren bozkak bertsio ezberdinak hartzen ditu tokiaren arabera:

- a. Belgika eta estatu gabeko nazioetan, jatorria nortasun nazional ezberdinetan oinarrituriko banaketa da.
- b. Estatu Batuak, Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan jatorriak oinarri etniko bat du.
- d. Mediterraneoko herrialde batzuetan, zentru dominante eta herrialdearen periferiaren arteko gatazkan oinarritzen da.
- e. Eskandinaviar herrialdeetan jatorri ezberdina herritar landatar ta hirikoen artean oinarritzen da.

Nortasun nazionala; belgiar eredua

Belgika izango litzateke eredu honen adibide adierazgarrienetarikoa. Bertan bi komunitate nazional oso ezberdin bizi dira: flandestarrak eta baloiak. Bi komunitate hauek ez dira ezberdintzen ez adskripzio erlijiosoan, ez klase sozialean, komunitate bakoitzaren jatorri nazionalean

baizik. Flandestarren nazioa Flandes da; Baloiena, Valonia. Belgikako estatua sortzean, bi nazioak estatu bakar batean elkartu ziren baina bi komunitate nazionalak oso ezberdinak izaten jarraitzen dute. Antzeko kasua litzateke Ipar Irlandarena, hemen gainera, oso paper garrantzitsua jokatu zuen immigrazioak jatorri nazional ezberdineko komunitateak sortzeko orduan. Espainiako Estatuaren kasuan, bai Katalunian eta bai EAEn, espainiar immigrazioak jatorri nazional ezberdinak dituzten kolektibitateak egotea ahalbidetu du. Etnikoki ere, Euskal Herriko aurreko lerroketa batek euskaldun eta fededun hitzak kidetu egiten zituen. Denborarekin eta gertatu izan den sekularizazioak lokarri hori zeharo apurtu du.

Nortasun nazionalaren *cleavage*ak zer nolako eragina du hauteskundetan? Belgikari begira, aipaturiko bi kolektiboen hauteskunde portaera oso ezberdina da, are gehiago, baloien alderdiak eta flandestar alderdiak daude. Belgiar eredia muturrekoa bada ere, Katalunian eta EAEn ere ardatz honen eragina esanguratsua da. EAEn dagokionean hauteskunde portaeran era zuzenean eragiten duen faktorea da nortasun nazionalarena. Balio aurrepolitikoa izanik ere, nazionalismoan eragina du, eta hortaz, gurean, bozka erabakitzeko funtsezko aldagai eta balio politikoa litzateke.

Oinarri etnikoa; bertsio amerikarra

Europar oraindik *cleavage* etnikoaz ezin bagara mintza ere, etnikoki heterogeneoak diren beste herrialde askotan ardatz honek bozkan badu eragina. Estatu Batuei erreparatzen badiegu, minoria etnikoak Alderdi Demokratarekin lerrokatzen direla ikusi ahal dugu (Anduiza eta Bosch, 2012).

Zentru-periferia; bertsio mediterranea

Ezberdintasun nazional eta etniko gehiegi ez dituzten gizarte askotan, herrialdeko zentrua eta periferien arteko ezberdintasunak daude. Kasu hauetan kolektibitate nazional bakarra dago eta jatorri etniko bakarra, baina zentru politiko eta ekonomiko eta periferietako errealitate politikoak oso ezberdinak daude. Adibide argienak Europa hegoaldeko herrialdeak lirateke; adibidez, Italia eta Portugalen hiriburuen inguruan zentru argiak dituzte eta bi periferia dituzte, aberatsa iparraldean eta txiroa hegoaldean. Espainiaren kasua konplexuagoa da, nortasun nazionalaren *cleavage*a eta zentru-periferiaren arteko gainjartze bat egon baitaiteke. Jatorriaren ardatza bertsio batean ala bestean kokatzeak inplikazio baloratio handiak

ditu; batzuentzat nortasun nazional ezberdinu baten adierazpena izan daiteke, beste batzuentzat aldiz, jatorri folklorikoa duen eskualdeen arteko berezitasun bat besterik ez litzateke. Dena den, badago elementu bat bi bertsioak ezberdinu ditzakeena: zentru-periferia bertsioan banaketa gizabanakoaren bizitokiaren arabera da. Aldiz, nortasun nazional ezberdinari dagokionean, ezberdintasuna gizabanakoaren nortasunean dago. Hau da, zentru-periferia kolektibitate nazional bakarraren baitan ematen da; *cleavage* nazionala aldiz, lurralde berean bizi diren kolektibitate nazional ezberdinen artean ematen da.

Zentru-periferiaren *cleavage*aren existentziak elektoralki badu bere adierazpena era esanguratsuan alderdi erregional edo periferikoak agertzen direnean. Dena den, ardatz honen hauteskunde eragina nahiko erlatiboa eta kontingentea dela esan genezake orokorrean. Adibidez, Italiako iparraldean alderdi periferikoak agertu dira baina ez hegoaldean. Era berean, egiturazko oinarriak izanik ere, alderdi hauek ez dute ia inplementaziorik Frantzia, Grezia edo Portugalen.

Jatorri landatarra edo hirikoa: eskandinaviar eredua

Ardatz honen presentzia Noruega, Suedia eta Finlandian ikusi ahal da. Beste *cleavage*ak bezala, landatar sektoreak euren alderdiekin lerrotatzen dira eta hiri jatorriko sektoreak euren alderdiekin. Finlandia litzateke jatorri ardatz hau era indartsuenean ageri den herrialdea. Irlandan ere badu eragina. Alemania eta Britania Handian ezberdintasun txikiak daude eta, gainera, beste *cleavage* batzuen arabera ere azalduak izan daitezke. Espainian, aldiz, ia ez dago ezberdintasunik (Anduiza eta Bosch, 2012).

Jatorriaren *cleavage*ak sarritan adierazpen geografikoa du, eta inplementazio mapak erabili ohi dira ardatz honen hauteskunde ondorioak irudikatzen. Mapa hauetan agerikoa da lurralde batzuek era ezberdinduan ematen dutela bozka, hein handi batean, jatorriaren ardatzak baldintzatuko. Hala eta guztiz, posible da beste ardatz batzuk nahastea. Edozein herrialdeetako zona metropolitano eta industrialek langile klaseko hautesle gehiago dituela nabarmena da. Era berean, herrialde bateko erregio batzuetan erlijio adskripzio bat nagusitu daiteke. Ondorioz, herrialde bateko toki ezberdinek era ezberdinean bozkatuko dute, baina ez jatorriaren eraginarengatik, baizik eta beste bi ardatzen ondorioz. Kasu hauetan, jatorriaren ardatzak beste bien aplikazio gisa funtzionatu luke.

d) Beste *cleavage* batzuk?

Mundu errealean, aipaturiko hiru ardatzak ez dira era puruan azaltzen. Batzutan, *cleavagen* gainjartze bat ikus dezakegu eta ardatz baten arabera alde batean dauden herritarrak, beste ardatz baten arabera beste alde batean dauden berdinak dira. Adibidez, eta aurretik aipatu bezala, Ipar Irlandan, ardatz erlijiosoa eta nortasun nazionalarena gainjartzen dira; ia beti katolikoak jatorri autoktonoa dute eta protestanteak britaniar immigranteen ondorengoak izanen dira. Beste kasu batzuetan, ardatzen artean harremanik ez badago, *cleavageak* ondoan kokatzen dira, eta bakoitzak bere aldetik funtzionatzen du alderdi sisteman fragmentazio handiago bat sortuz. Bozkaren determinazioan ikus dezakegun beste ondorio bat ardatzen artean sortzen den lehia litzateke eta bietako batek eragin handiagoa izango du bozkan.

Ardatzen arteko kontraesana ere eman daiteke, hautesleak lerrokatze bat duenean alderdi batekin ardatz bat medio, baina beste ardatz baten arabera beste lerrokatze bat adierazten dutenean. Kontraesan hau boto-emaile askori gertatuz gero, posible da alde edo espazio berri bat sortzea, alderdi berri batekin eta lerrokatze berri batekin. Baina taldea txikia izanez gero, alderdi berri baten sorrera eta kontsolidazioa ia ezinezko bilakatzen da. Ez dakigu Podemos alderdiak zenbateko ordezkari-tza lortuko duen euskal instituzioetan baina posible da ardatz ezberdinen arteko lehia berri bat edota espazio politiko berri bat sorraraztea.

Orain artean euskal taula politikoa lau espaziotan banandua zenaren ideia nagusitu izan da: lau espazio hauek bi ardatzen arabera osatuak ziren: nazionalismoaren ardatza eta ezker/eskuin ideologiarena. Baina Podemos bezalako alderdiak azkenean nahikoa ordezkari-tza lortuko balu erakunde ezberdinetan, bosgarren espazio baten sorreraren ideia ere mahai gainean ipini beharko genuke. Esan beharra dago ere, zenbaiten aburuz bosgarren espazio hau aurretiazkoa dela. Ezker/eskuin ideologian ezkerreko bi espazioen artean kokatu ahalko genuke alderdi berria; nazionalismoaren ardatzeko kokapena konplexuagoa da. Hori bai, agerikoa dena da nazionalismoaren ardatzaren arabera banandutako herritar ezberdinen babesa lukeela euskal taularen bosgarren espazioa osatu edo berreraiki ahal duen alderdi berriak.

Sexuak ere *cleavage* bat izateko baldintzak betetzen ditu, baina zein da bere hauteskunde eragina? Badaude emakumezkoak gehiago bozkatzen dituzten alderdiak? Enpirikoki ezezkoa frogatu da. Nahiko ohikoa izan da

emakumezkoak alderdi kontserbadoreekin lotzea, baina lotura honek ez du oinarririk, gaur egun behinik behin. Egun emakumeek egitura sozialean eta ekonomikoan duten posizioa asko aldatu da, oraindik gizonezkoekiko dituzten ezberdintasunak agerikoak badira ere. Bestetik, badirudi herrialde latinoetako emakumezkoak ez zirela kontserbadoreagoak, katolikoagoak baizik eta, hortaz, ardatz erlijiosoa legoke oinarrian. Beti ere kontuan izanik emakumezko latinoak kontserbadoreei gehiago bozkatzen dietenaren ideia ere ez dela oso zehatza. Eta bukatzeko, adinaren faktorea ere hor da, emakumezkoen bizi-itxaropena handiagoa izanik, bozkan egon daitezkeen ezberdintasunak adinaren eraginarengatik izan daiteke, eta ez sexuarengatik (Harrop eta Miller,1987:205).

Adinari dagokionean nahiko dudakoa da egiturazko aldagai bat denik, gizabanakoa momentu batean ala bestean bere kategoria eta tartetatik pasatzen baita. Dena den, adinaren arabera bozka ezberdina ematea ohikoa da. Hiru erregularitasun aipa ditzakegu (ibid. 203-204):

- Gazteek alderdi berriagoi eman ohi diete bozka; hein handi batean ez dutelako alderdi tradizionalerako lotura sendoegirik.
- Gazteek alderdi arradikalagoi ematen diete bozka; dena den, ezin dugu azaldu zein den arradikaltasun honen norabide ideologikoa.
- Gazteengan eragin handiagoa du uneko ingurumariak; honela, sozializazio politikoa eman deneko ingurumariaren arabera bozkatzeko joera bat dago.

e) *Cleavage* berrien erakuntza

Mendebaldeko gizarte egitura aldatuz joan da. XX.mendearen bigarren erditik aurrera gure herrialdeetako egitura soziala aldatu duten bi “iraultza” eman dira: Ongizatearen estatua eta ezagutzaren gizartea. Ziurrenik bi iraultza hauek eragin gehien izan duten gizarteetan hauteskunde *cleavage* berriak sortu dituzte.

Ardatz berri bat Ongizatearen gizartean

Ongizate estatuaren garapenak, gizarteko zati garrantzitsu bati segurtasun ekonomiko bat bermatzeaz gain, zerbitzu publikoetan lan egiten duten edota zerbitzu hauek kontsumitzen dituzten gizarte talde berri baten sorrera ekarri du. Honela, sektore publikoan lan egiten duten edo/eta

laguntza publikoak medio bizi diren talde bat dugu eta, beste aldetik, sektore pribatuan lan egin edo/eta laguntza publikorik jasotzen ez duen gizataldea ditugu. Baina balizko *cleavage* honek ba al du hauteskunde ondorioirik? Eraginak, batik bat, ongizate estatua garatuen dagoen herrialdeetan ikusi ahal izan dira, Suedian adibidez. Gehiengo sozialdemokrata hegemonikoa da sektore publikoko hautesleen artean. Posible da Europako beste herrialdeetan ere sektore publikoko beharginetan oinarritzen diren alderdiak sortzea. Dena den, zenbaitetan, alderdi berriak sortu baino, *cleavage* berriak, aurretiaz zeuden lerrokadurak aldatu edo ahuldu ditzake (ibid. 194-195).

Ezagutzaren gizartea

Azken mendearen amaieran, mendebaldeko gizarteak teknifikatzen joan dira eta, gero eta gehiago, herrialde eta gizabanakoen aberastasuna ezagutzan oinarritua dago. Ezagutzaren gizartean egitura soziala fragmentatzen joango da, gizabanakoen gaitasun kognitibo, ezagutzarako sarbidea eta berauek prozesatzeko dituzten konpetentzien arabera. Eta hemendik, pixkanaka, *cleavage* berri bat sor daiteke: ezagutzak barneratzeko gaitasuna dutenak eta ez dutenak. Espainiari erreparatzen badiogu, ikusi ahal da gaitasun teknologikoa handitzen doan heinean, PSOEn bozka beheruntz doala eta IUrena, aldiz, gora⁵. Eztabaida, emaitza hauek *cleavage* berri honen ondorioa denaren inguruan dago ordea. Ez dago akordio akademikorik honen inguruan eta badirudi luzerako doan prozesua dela (Anduiza eta Bosch, 2012).

Laburbilduz, *cleavagen* teoriak, gizabanakoak, bere posizio soziala medio, behin eta berriro “bere” alderdiari bozkatzeko diola azaltzen du. Honek ez du ukatzen, noski, aldaketarik ez denik epe luzean, baina epe labur eta ertainean hauteskunde portaera beretsua lukete gizabanakoek. Eta, hau da, hain zuzen ere, mendebaldeko herrialdeetako alderdi sistemaren iraunkortasunaren oinarria. Bestalde, *cleavagen* teoriak, *gizartea*, kolektiboek osatzen dutela auresuposatzen du, baina ez indibidualitateek.

Baina, zergatik eragiten dute *cleavage*ak bozkan? Zergatik bozkatzeko du langile batek langileen alderdia? Aipatu dugu aurretik bozka hau lerrokatze

⁵ Iturria: González (1996)

baten ondoriozko erreakzio ia automatikoa dela, baina, zertan oinarritzen da erreakzio hau?

- Posizio soziala gizabanakoak jasotzen dituen aztarnen adierazlea da. Langileez inguraturiko langile batek egunero estimulu asko jasoko ditu bere bozka bere kideen bozkara egokitzeko. Langile eta langileen alderdiaren lerrokatze batek ere, alderdiaren estimuluak jasotzera bideratuko du. Alderdiak egitura sozialaren ondorio izan daitezke, baina lerrokatzen diren bandoen bozka kontsolidatu eta indartzen amaitzen dute.
- Posizio soziala gizabanakoak hartuko dituen baloreen adierazle on bat da. Adibidez, langile batek berdintasuna aldarrikatu dezake, burges batek askatasun indibiduala. Honela, posizio sozialak gizabanakoaren balore politikoetan eragingo du eta hauek, bozkan.
- Ez da posizio soziala eta bozkaren arteko mekanismo zehatzik behar: langileek eta burgesek ezberdin bozkatzen dute euren interes objektiboak ezberdinak direlako. Dena den, ingurumaria batzuetan langile eta burgesen bozka antzekoa ere izan daiteke, batez ere arazo nazional eta erlijiosoak tarteko direnean.

2.2. Balio politikoak eta bozka

Atal honetan, balio politikoek herritarren bozkan izan dezaketen eragina aztertuko dugu. Berezi, ezker-eskuin ideologia, alderdi batekiko identifikazioa eta nazionalismoaren balio politikoak erreparatuko diegu. Balio politikoak hitz egiten dugunean, kultura politikoak, identifikazio politikoak, jarrera politikoak edota iritzi publikoak ari gara.

a) Balio politikoak informazio prozesatzaile bezala

Cleavagen teoriak, posizio sozialak balio politikoak behar dituela azaltzen du egiturazko banaketa soziala hauteskunde ondorioak dituen ardatz batean bilakatzeko. Nola baldintzatzen dute balio politikoak gizabanakoen bozka? Balio politikoak herritarrek jasotzen duten informazio politikoa prozesatzeko erabiltzen dituzten bitarteko mental nagusiak dira. Gure balioak sozializazioaren emaitza dira, eta balio politikoak, sozializazio honen eduki politikoei legezkiek lirarteke. Balio hauek, gainontzekoak

bezalaxe, ez dira beti kontzientiak izaten, egoera konkretuetan azalera ateratzen direlarik gertakari baten ondorio. Beraz, gure balore askoren kontzientziaz, balore epaiak egiten ditugunean jabetzen gara.

Gizabanakoek jasotzen duten informazioa barneraturik duten balio politiko batekin konbaratzen dute, ondoren, balio horrekin bat datorren ala ez intuizten du eta, azkenik, informazioa jaso ala ukatu egiten dute. Balio politikoak, ideologia, nazionalismoa, edo besteren bat, garrantzitsuak dira gizabanakoari ongi eta gaizki dagoenaren aztarnak ematen dizkietelako. Eta hauxe da balio politikoek bozka baldintzatzen duela esateko argudio nagusia. Gure ideologia edo balio politiko baten arabera ditugu iritziak, eta ez alderantziz.

Dena den, kausalitate kateak aurkako zentzuan ere funtziona dezake; hau da, balio politikoak informazioa prozesatzeko erabiltzeak balio politikoak autoerreproduzitzen amaitzea ere ohikoa da. Balio politiko batzuen arabera bozkatzeak balio beraiek erreproduzitzea ekar dezake. Sekuentzia honelakoa litzateke: eskuinekoa naizela uste dut, jasotzen dudana informazioa honen arabera baloratzen dut, ondorioz, eskuineko alderdi bat bozkatzea erabakitzen dut, eta, behin bozkatu ondoren, eskuinekoa naizela konbentzitzen naiz, bestela ez niolako eskuineko alderdi bati bozka emango (Anduiza eta Bosch, 2012).

Aurrerago ikusiko dugu bozka ideologikoaren nondik norakoak zeintzuk diren, baina aurretik ezker/eskuin ideologiaren arabera sailkatzen diren herritarren balioak nolakoak diren ikusiko dugu. Horretarako, Francisco Herreros (2011) burututako analisi empirikoaren datu batzuk luzatuko ditugu. Bertan, eskuin eta ezkerreko espainiar herritarren baloreen artean ezberdintasunik baden aztertzen du.

Askatasunaren idearen erpin nagusia tolerantziarena litzateke. Bere burua ezkertiar bezala definitzen dutenen artean handiagoa da homosexualekiko begikotasuna sentitzearen probabilitatea, berdina gertatzen da musulmanei buruzko iritziaz galdetzen badiegu eta etorkinen inguruan ere. Tolerantzia beraz, jatorri liberal bat izanik ere, ezkertiarren artean nagusitzen den balioa litzateke. Homogeneitate kulturalaren defentsa, aldiz, eskuinekoen artean garrantzitsutzat jotzen den balioa litzateke, kolektibo minorizatuekiko erakusten duten intolerantzia aztarnak zentzu batean esplikatuz. Segurtasun eta askatasun balioak aurrez aurre ipintzen baditugu, eskuinean kokatzen direnak segurtasunaren aldeko hautua egingo lukete, eskuineko zein ezkerreko herritarren artean badago ere

segurtasun kolektiboaren ideia babestu beharraren aldeko jarrera. Era berean, demokrazia sistema politiko hobereana denaren ideiak ere babes handiagoa du ezkerreko herritarren artean.

Berdintasunari dagokionean, ezkerreko herritarren artean estatuak txiro eta aberatsen arteko ezberdintasunak murrizteko parte hartu behar duenaren ideiak babes handiagoa du. Berdina gertatzen da estatuak herritar ororen ongizateaz arduratu behar duenaren ideiaz galdetzean, auzi honetan akordio sozial esanguratsua dagoen arren.

Komunitatearen balioari erreparatuz, ezkerrekoak solidarioagoak lirateke, baina berdintasuna hizpide izan dugunean bezala, egoera okerrean daudenei lagundu beharraren ideiak babes zabala du ezkerreko zein eskuineko herritarren artean. Konfiantza sozialari dagokionean, ezkerreko herritarrak besteengan konfiatzeko probabilitate askoz handiagoa dute.

Laburbilduz, ezkerreko eta eskuineko herritarrek askatasun ideia ezberdinak defenditzen dituztela esan genezake. Halere, interesgarria da tradizio batean sortutako ideiak beste tradiziokoek nola defendatzen dituzten ikustea, adibidez tolerantziarena, edota tradizio ideologiko batek eskusiboki defendatu izan dituzten balio batzuk nola lortu duten herritarren guztiengana iristea. Esaterako, eta berdintasunari erreparatuz, mendebaldeko azken hirurogei urteetako ongizate estatuen eraginez, estatuak ezberdintasun sozialak murriztu behar dituenaren ideiak babesa du herritarren artean, eskuinekoak zein ezkerrekoak izan.

Halere, gaur egun, eta espainiar herritarrei erreparatuz, ezker/eskuin ardatzaren arabera balio batzuei garrantzi gehiago ematen dietela esateko moduan gaude. Eskala ideologikoaren arabera ikusiriko balio hauek hauteskunde portaceran zer nolako isla duten aurrerago ikusiko dugu. Edonola ere, Herrerosen arabera, balore jerarkia baino, espainiarrek balore sasizehazetan oinarritzen diren preferentziak izango lituzkete; ezker edo eskuin preferentziak, eta orohar, preferentzia hauek estilo bat ekarriko lukete. Esaterako, estilo progresista eta ez hain progresistaren artean hautu bat eginaz, batez ere, askatasunaren balioari dagokionean. Baina aurretik azaldu dugun moduan, badituzte pare bat koinzidentzia, eremu fiskalean eta migranteei dagokienean adibidez. Zentzu honetan, ideologiak askotan oso errealitate labainkorrak direla azaldu nahi dugu, eta gehiago dutela, preferentzia edo uneko balorazioetatik, ordenazio nabarmen batetik baino.

b) Balio politikoaren jatorria

Gizabanakoaren balio politikoak zio ezberdinen ondorio dira; besteak beste, lehen sozializazioa, balio aurrepolitikoak, mugikortasuna eta bigarren sozializazioa.

Lehen mailako sozializazioa

Sozializazio politikoaren prozesuaren bidez gizabanakoaren balio politikoak finkatuko dira. Sozializazio politikoaren lehen eragilea eta, garrantzitsuenak, familia da. Gurasoek seme-alabei igortzen dizkieten balio politikoak eragin handia dute. Haurrek oso txikitatik balio politiko lauso batzuk dituzte eta gurasoen balio politiko eta haurren artean harreman oso estua dago. Familiaren baitako sozializazio prozesuan, gurasoek zehaztu gabeko balio politikoak igortzen dituzte, balio zehatz batekiko sinpatia eta beste batzuekiko antipatia adibidez. Balio politiko hauek gurasoek seme-alabekin gai politiko zehatzez hitzegiten hasi aurretik transmititzen dira. Sozializazio politikoak, hortaz, ditugun balio politikoaren kausa nagusia da eta, gainera, balio hauek nahiko egonkor mantentzen dira bizitzan zehar. Jennings eta Niemiren (1981) ikerketen arabera, gai politikoekiko gizabanakoak dituzten iritziak era esanguratsuan alda daitezke, balio politikoak aldiz, nahiko egonkor mantentzen dira.

Balio aurrepolitikoak

Balio hauek ez dira politikoak zentzu hertsian, baina era erraz batean politizatu ahal dira. Balio aurrepolitikoak dira, besteak beste, integrazio soziala, nortasun nazionala, erlijioaren maila eta klase sozial subjektiboa. Integrazio sozialak eragina du bozkatu ala ez erabakitzeke orduan, baina azken hiruak eragina dute balio politikoetan eta, hortaz, zeharka bada ere, bozkan. Nortasun nazionalak nazionalismoan eragiten du, klase sozial subjektiboak ezker-eskuin ideologia baldintzatzen du eta erlijioaren mailak balio politiko guztietan eragiten du. Balio aurrepolitikoak, politikoak bezala, sozializazioaren fruitu dira.

Mugikortasuna

Jendearen balio politikoaren aldaketak mugikortasun soziala (posizio sozialean emandako aldaketak) edota mugikortasun geografikoarekin (bizilekuaren aldaketa) lotuta daude. Mugikortasun sozialari erreparatuz, nahikoa ohikoa da ertain klaseko jendea, familia aberatsekoa eta eskuineko

jarrera eta balio politikoak dituenak bere balio politikoak aldatzea, bere familiaren posizio ekonomikoa okertzen bada. Ohikoa da ere balore ezkertiarak dituen langile klaseko jendeak bere balioak aldatzea bere posizio ekonomikoa hobetzen den heinean.

Mugikortasun sozialaren aldagaiari aurretik ere egin genion erreferentzia; izan ere, klase bozkaren ahultzearen argudio nagusitzat erabiltzen dute askok. Ongizate estatuetan, teoria batean behintzat, mugikortasun soziala errazagoa da eta, hortaz, pixkanaka galduz joango litzateke klase kontzientzia eta, ondorioz, klase bozka bezala definitu izan duguna. Gurean mugikortasun sozialak mugikortasun geografikoak baino eragin handiagoa izan dezakearen ustea dugu hauteskunde portaerari dagokionean. Gainera, eta aipatu bezala, posible da mugikortasun sozialak ezker/eskuin ideologiaren araberrako bozkan eragina izatea, baina ez dugu uste mugikortasun horrek berak nazionalismoaren balio politikoan aldaketa handiegirik sorrarazten duenik.

Mugikortasun geografikoari dagokionez, beste zenbait testuingurutan izan dezakeen eragina ukatu gabe, gurean ez luke eragin handiegirik izango balio politikoaren aldaketei dagokionean. Bernardo Atxagaren *Euskal Hiria* kontzeptua erreferentziatzen hartuaz, gurean ez legoke hirigune eta landagunaren arteko talkarik egun balio politiko ezberdinduei dagokionean.

Bigarren mailako sozializazioa

Bigarren mailako sozializazioak balio politikoaren erakuntzan indar handia du, eta baita lehen mailakoan jasotako balioak indartu edota aldatzeko orduan. Eragile nagusiak eskola, komunikabideak eta adiskide/lankideak izan ohi dira. Sistema demokratikoen kasuan, teorikoki behinik behin, eskolak balio zibikoak eta elkarbizitzarekin harremanetarakoak igortzen ditu, baina errealitatean balio politiko argiak transmititzen dituela esan genezake (Anduiza eta Bosch, 2012).

Komunikabideen eragina ere aztertua izan da lehen mailako sozializazioan jasotako balioak eraldatzeko gaitasunaren inguruan, eta iritzi ezberdinak direnez, balizko iturri bat dela esango dugu. Kideei dagokienez, lankideak, lagunak, beste ahaideak eta pareko taldeak eragina izan dezakete aurretik jasotako balio horien mantenu edo errefuxapenean. Eragile hauen indarra sinesgarritasuna eta kontaktuen maiztasunean oinarritzen da.

c) Alderdi batekiko identifikazioa eta bozka

Michiganeko ereduaren arabera, Estatu Batuetan alderdi batekiko identifikazioa litzateke bozka gehien baldintzatzen duen balioa (Campbell *et al.*,1960). Honela, Alderdi Demokratarekin identifikatzen diren hautesleak Alderdi Demokratari ematen diete bozka eta, aldiz, Alderdi Errepublikarrarekin identifikatzen direnak Alderdi Errepublikarrari. Harreman estua dago hautesleak alderdi batekin duen identifikazioa eta bozkatzearen artean. Eredu honi jarraiki, alderdi batekin identifikatzen den hautesleak behin eta berriro alderdi berdinari emango dio bozka, bozka normala deritzoguna. Hautesleak alderdi batekiko bozka errepikatzen duen heinean, alderdiarekiko duen identifikazioa ere indartzen doa eta, honela, alderdi batekiko identifikazioa indartua da bere hauteskunde erabilpena medio. Errituala gero eta gehiago errepikatu, are zailagoa bere haustura. Dena den, hauteskunde egonkortasun honek ez du galarazten hautesleak bere bozka aldatzearen aukera, botu desbideratua deritzaiona. Halere, hautesle leialak, bozka normal horretatik, alderdiz aldatu baino, abstentziorako joera hartzen du.

Ezin ditugu ahanzi ordea, Michiganeko ereduak izandako kritikak (Budge *et al.*,1976 *in* Anduiza eta Bosch, 2012:200). Kritika hauen arabera, bozkaren kausa alderdi batekiko identifikazioan oinarritzea, inflazioaren kausa prezioen igoera dela esatea litzateke, hortaz argibidea baino, tautologia bat litzateke. Bigarren kritika, Michiganeko eredu sistema bipartidista batentzat eraikia izan dela da eta ezin dela alderdi anitzeko sistemara egokitu. Hortaz, eredu azaltzeko orduan kontuan izan behar dira Estatu Batuetako hauteskunde sistemaren berezitasunak. Europako baliaigarria ez izateak halere, ez du ezeztatzen Estatu Batuetan izan dezakeen egokitasuna.

Aurrerago ikusiko dugu alderdi identifikazio honen eragin urria Espainiako hauteskunde portaerari dagokionean. Gunther eta Monterok (1994) eta Torcal eta Medinak (2002) eginiko ikerketa enpirikoei erreparatuz, agerikoa da, Espainiaren kasuan, alderdi identifikazioaren ardatzak baino, ezker-eskuin ideologiak duela eragin gehien. Are gehiago, alderdi atxikimendu urria izanik ere, orain artean Espainiako hauteskundearen artean eman diren aldaketak, salbuespenak salbuespen, mugatuak izan dira, eta hein batean, ezker-eskuin dimentsioak izan duen garrantziagatik eman dira.

d) Ezker-eskuin ideologia eta bozka

Hauteskunde portaeraren korranteak hizpide izan ditugunean azaldu bezala, Europa kontinentalean, ezker-eskuin ideologia da bozkan eragin gehien duen balio politikoa. Bozkaren eredu ideologikoa hiru axioma hauetatik abiatzen da:

- Hauteslegoaren gehiengoak ezker-eskuin ideologia bat du eta, hortaz, eskala ideologikoa autokokatzeke gai da.
- Hauteslegoaren gehiengoa gai da eskuineko eta ezkerreko alderdiak zeintzuk diren identifikatzeko.
- Ondorioz, hauteslegoaren gehiengoak bere ezker-eskuin ideologiarekin bat datorren alderdiari ematen dio bozka.

Michiganeko eremuan bezala, alderdiei emaniko bozka bere ideologiaren emozio adierazpen bat da. Enpirikoki frogatu da, ezker-eskuin eskala ideologikoa hautesleak duten autokokapena eta bozkatutako alderdiaren artean harreman estua dagoela. Honela, ezkerrean kokatzen diren hautesleak ezkerreko alderdiei ematen diete bozka, zentruan kokatzen direnek zentrukoei eta eskuinean kokatzen direnek eskuineko alderdiei.

Bozka ideologikoa, aurreko eremuan aipaturiko bozka normala eta desbideratuaren pautak errepikatzen dira. Esan beharra dago ere ezker-eskuin ideologiak posizio sozialak baino eragin handiagoa duela bozkan baina honek ez du esan nahi ideologia garrantzitsuagoa dela. Posizio soziala balioetan eraldatu behar da bozkan eragiteko, ezker-eskuin ideologiak aldiz, zuzenean eragiten du. Bestalde, bozkaren eredu ideologikoa ezker-eskuin ideologia bozkaren ezberdina dela auresuposatzen du. Eta hau ez da hain nabarmena. Ezkerreko alderdiei bozka ematen dieten guztiak ezkertiarak balitz, bi aldagaiak berdinak lirerateke, eta indar gutxiagokin bada ere, Michiganeko eremuan bezala, tautologia baten aurrean egon gintezke. Hirugarrenik, eredu honek ezker-eskuin ideologia bozkaren aurretiazkoa dela suposatzen du, baina zenbaitetan gizabanakoaren ezker-eskuin ideologia bere bozkaren eraginez sortu edo indartzen da.

Behin bozka ideologikoa oinarri teoriko nagusiak aipatuta, Espainiako Estatuan ezker-eskuin ideologiak hauteskunde portaeran duen eraginaz arituko gara. Horretarako, Guillermo Cordero eta Irene Martínek (2011)

eginiko ikerketa bati erreparatuko diogu, *Quiénes son y cómo votan los españoles de izquierdas*. Autore hauen arabera, demokrazian izan diren hauteskunde guztietan gehien eragin duen faktorea ideologia da. Are gehiago, autoreen arabera espainiarren bozka norabidea gehien baldintzatzen duen faktorea da gaur egun ere. Horretaz gain, Espainiako Estatua da herritar gehien ezkertiar bezala definitzen diren Europako estatua. Ezker-eskuin ardatzean autokokatzea, besteak kokatzea, alderdi politikoak kokatzea edota politika publikoak eta gobernuen erabakiak sailkatu ahal izatea eroso egiten zaigu. Hitz bakar batekin gai anitzen inguruko posizio politikoak laburbiltzen ditugu. Ideologiak, ezker, zentru eta eskuin terminoetan ulerturik, Espainiaren historian protagonismo handia izan du eta gaur egungo bizitza politikoan ere paper handia du. Espainiarrek, bozkatzeko orduan, alderdi politikoez ezker/eskuinean duten kokapen ideologikoari garrantzi gehiago ematen diote ordezkatzeko duten klase sozialari baino.

Baina, ze faktorek baldintzatzen dute bozka ideologikoa? Trantsizioetik honaino egindako hauteskunde guztietan agerikoa da herritarrak eskuinetik gero eta gertuago egon, are eta probabilitate gutxiago dutela PSOeri bozka emateko. Hezkuntzak ere eragina du bozkan; zentzu honetan, bigarren edo goi-mailako ikasketak izateak PPri bozka emateko probabilitatea handitzen du. Lehen mailako ikasketak dituztenak aldiz, probabilitate handiagoa dute PSOeri bozka emateko.

Ezkerreko herritarrak beste herritarrekiko honako gai hauetan bereiztuko liriateke:

- Auzi moralak (sexu berekoen arteko ezkontza, adopzioa, eutanasia eta abortua), erlijiosoak (estatua eta elizaren arteko banaketa) edota estatuak nola kudeatu beharko lukeen memoria historikoa.
- Bigarren maila batean, ezkerreko herritarrak deszentralizazio handiagoa baten aldekoak liriateke eta ez daude hain harro espainiar izateaz.
- Orokorrean genero-berdintasunaren aldekoagoak dira, ekintza positiboa eta hauteskunde zerrenden parekidetasunaren inguruan gainerako herritarrekiko bereizten ez badira ere.

Halere, eta Herrerosek azaldutako ildo beretsuan, badira gai batzuk ezkerreko herritarrak beste herritarrekiko bereizten ez dituztenak.

Horietako bat, immigranteen erregularizazioaren ingurukoa litzateke, non ezker eta zentruko herritarrek antzeko jarrerak erakusten dituzten.

Orokorrean aldagai soziodemografikoek herritarren bozka azaltzeko faktore nagusi moduan pisua galdu dutela esan dezakegu. Ideologiaren ondoan, hezkuntza da Espainiako hauteskudeetan era egonkor batean eragina izan duen aldagai soziodemografiko bakarra.

Herritar eta alderdien arteko distantzia ideologikoari dagokionean, PSOE eta IUko boto-emaileak ideologikoki bozka ematen dieten alderdiekiko gertu sentitzen dira. Halere, PSOEko boto-emaileak bere alderdia baino ezkerreago kokatzen dira eta IUkoak aldiz, zentzurago. PSOEko boto-emaileak, orokorrean, zentru-eskuinean kokatzen dira, IUkoak, ezker muturra eta zentru-ezkerrean bananduak daude. Inportantea da boto-emaile eta alderdien arteko distantzia ezagutzea. Izan ere, ideologia faktore nagusia bada ere, beste aldagai batzuk ere eragin dezakete herritarren bozkan. Distantzia hori handitzen doan heinean, bozka baldintzatu dezaketen beste faktore batzuk sartu ahal dira eta ondorioz, hauteskunde babesaren ezegonkortasuna handitu daiteke.

Bozka ideologikoaren gaiarekin bukatzeko, Espainiako hauteskunde portaerari dagokionean eginiko bi ikerketei erreparatuko diegu. Lehena, Gunther eta Monterok (1994) Europa hegoaldeko lau herrialdeetan eginiko ikerketa izango da. Guk espainiarren hauteskunde portaeraren datuak izango ditugu hizpide non alderdien ainguraketaren oinarriei erreparatzen dieten. Euren ustez, ezker/eskuin dimentsioa erabakiorra izan daiteke herritarren bozka determinatzeko, bereziki, alderdiekiko atxikimendu urria erakusten dutenentzat. Gunther eta Monterok 1977-1993 bitartean Espainiako hauteskunde ezberdinen artean izandako aldakortasuna ikertu dute eta boto-emaileek euren kokapen ideologikotik gertuen ikusten duten alderdiari emango liekete bozka. Honek, hauteskunde ezberdinetan eman ahal den bozka aldaketa ez luke ekidingo; baina eman ahal den aldaketa hori, espazio ideologiko berean lehiari diren alderdietara mugatuko litzateke. Honek azalduko luke hein batean, Espainian alderdi identifikazioa baxua izanik ere, hauteskudez-hauteskunde bloke ezberdinen artean eman izan diren aldaketa txikiak.

1993ko hauteskunde portaera hizpide dute autoreek bozka ideologikoaren garrantzia azpimarratzeko. Izan ere, 1993an Alderdi Popularrak hauteskunde lehiari bozka asko irabaztea aurreikusten zen, PSOERI ere gainjarriz Espainiako Gorteetan. Alderdi Popularrak faktore asko zituen

bere alde; gobernuan zegoen alderdi gisa, PSOE hauteskondeak aurreratzera behartua izan zen langabezia altuko eta atzerakada ekonomiko ingurumaria batean, gainera, bere barnean ere banaketak agertzen hasiak ziren. Halere, PPK hiru milioi bozka irabazi bazituen ere (CDStik eta abstentziotik bereziki), PSOEk lehen alderdia izaten jarraitu zuen eta nahikoa eserleku zituen Diputatuen Kongresuan alderdi bakarreko gobernu eratzeko. Hortaz, alderdien ainguraketan, alderdi atxikimendua urria izanik ere, ezker/eskuin dimentsioaren pisuak hauteskunde arteko aldaketak murrizten dituela ikusenez Espainiako hauteskunde portaerari dagokionean behinik behin. Arazoak arazo, eta ezinezona bazegoen ere, espainiar herritar asko, gobernuko alderdia, PSOE, alboratzera erresistitu ziren.

Autore hauen hitzetan, 1997-1993 hauteskunde eboluzioari erreparaturik, 1982ko hauteskundeek espainiar hautesleentzat aldagai sozioestrukturalak zuten garrantzia islatu zuten baina hurrengo urteetan alderdien babesaren oinarri sozioestrukturalak ahultzen joan ziren. Aurretik hizpide izan ditugun Torcal eta Chibberren (1995) aburuz aldiz, 1992an klase bozkak hauteskunde portaeran aurretik izan ez zuen eragina izan zuela azaltzen dute; bereziki PSOEko boto-emalei dagokionean. Dena den, autore hauek ere ez dute erabateko ondorioz atera nahi izan, urte zehatz batetaz bakarrik ari baitira.

Gunther eta Monterok (1994) aipatzen duten *cleavage* sozialaren ahultze hau ordea, ez da ainguraketarik gabeko hautesle baten isla; izan ere, PP eta PSOEren arteko banaketa ezker/eskuin espazioan duten kokapenaren pertzepzioarekin loturiko irizpide ideologikoetan oinarritu zen batik bat. Esan beharra dago ere, hautesleen ainguraketa ideologikoak ez dituela boto-emaleak alderdi batekin lotzen, baizik eta alderdi bat baino gehiago lehian egon daitezkeen bloke ideologiko batekin. 1993an espainiarrek erakutsitako hauteskunde portaerari erreparaturik, badirudi hauteskunde portaera baldintzatu ahal duten ardatz sozial ezberdinak, klasea edota erlijioa esaterako, ez direla esanguratsuak. Ezker-eskuin ideologia litzateke banaketa ardatz berria, zehazkiago, hautesleek ezker-eskuin espazio politikoan alderdiak kokatzen dituztenaren arabera.

Hizpide izango dugun bigarren ikerketa, Torcal eta Medinak (2002) eginikoa da eta hauek ere ideologia eta bozkaren arteko harremanaz dihardute. Atal honen hasieran aipatu bezala, Europa mendebaldeari begira, ezker/eskuin terminoetan definituriko eskema, bozkaren ainguratzea ahalbidetzen duen osagai garrantzitsua litzateke. Europako

hauteskunde portaera aztertzen duten ikerlariek ezker/eskuin ardatzean oinarrituriko ardatz hau Estatu Batuetatik ekarritako alderdi identifikazioaren ardatza ordezkatzeko bitarteko batean bilakatu zuten.

Espainiar herritarren autokokapen ideologikoari erreparatzen badiogu 1979-2000 bitartean aldaketak ikus ditzakegu. 1979an zentrua nagusitzen zen, 1982-1993 bitartean, zentru ezkerre eta 1996tik aurrera, berriro herritar gehienak zentruan birkokatuko dira. Hala eta guztiz, esan beharra dago, alderdiak hautesleen lehentasun ideologikoetara egokitu baino, alderdiek markatzen duten ildoari jarraiki, herritarrek direla ideologia aldatzen dutenak. Boto-emaileak zentzurantz mugitzen joan dira alderdiak zentzurantz mugitu diren maila beretsuan, AP/PP alderdian ikus dezakegu aldaketa, baina baita baita ere PCE/IU alderdi eta boto-emaileetan ere. Espainiako azken urteetako gobernuei erreparatzen badiegu, zentru politikoa bereganatzea lortu duten alderdiak dira hauteskundeak irabazi dituztenak; 1977-1979an UCD, 1982-1993 bitartean PSOE eta 1996-2000 bitartean Alderdi Popularra.

1996ko Alderdi Popularraren gehiengo absolutuak ezbaian utzi zuen espainiar herritarren artean ezkerreko gehiengo natural bat zenaren ideia. Bestela, nola da posible 1996an horrelako emaitzak lortzea Alderdi Popularrak? Ba agian ezkerreko gehiengo hori ez zelako hain naturala, eta trantsizioaren ingurumarian kokatu behar delako ere herritarren uneko kokapen ideologikoa. 1996an eta 2000an Alderdi Popularrak izandako garaipena, alderdiak zentrua bereganatzeko izandako gaitasunean kokatzen dute analista ezberdinek. Hau da, Alderdi Popularrak eurak zentruko alderdi bat zirela konbentzitzea lortu zuen.

Alderdi eta boto-emaileek zentzurantz emandako biratzeak ezker/eskuin ideologiak garrantzirik ez duela adieraziko luke hortaz? Badirudi ezetz; ezker/eskuin eskalak esanguratsua izaten jarraitzen du hautesleentzat. Gero eta lehia handiagoa egon alderdien artean, bozka ideologikoak garrantzi handiagoa hartzen du. Autore hauen arabera, hauteskunde ziurgabetasun egoeretan herritarrek betaurreko ideologikoen beharra izaten dute, eskaintza ezberdinak ezker/eskuin terminoetan kokatu ahal izateko. Betaurreko hauek medio, eta Corderoren lanean hizpide izan dugun bezala, hautesleei errazagoa zaie lehian direnen arteko hautua egitea.

Baina orain Podemos alderdia espainiar instituzio ezberdinetan indartsu sar daitekeenean ez dakigu zenbatean bete ahal den autore hauek azaltzen duten premisa. Ziurgabetasun egoeran egonik ere, ez dakigu herritarrek

zenbatean behar dituzten aipatzen dituzten betaurreko ideologikoak, alderdi berriaren eskaintzaren balorazio bat egiteko. Hain justu, aurkakoa da Podemos alderdiaren estrategia, ezker/eskuin ideologia ardatzetik aldentzea, betaurreko ideologikoetatik urruntzea, eta hemen ere izango du eraginik atal honetan aipatu dugun zentru politikoa irabaztearen garrantziak.

Bestalde, ez dakigu herritarrek ere zenbatean eskatzen dioten Podemos alderdiari ezker/eskuin ideologian posizionamendu zehatz bat. Herritar xumeak baino, lehian diren gainontzeko alderdi politikoak dira posizionamendu hau etengabe eskatzen dietenak; “ez dakigu zer diren, komunistak, sozialdemokratak...”. Beste ildo batetik ere badoaz aurkarien estrategiak ezker arradikalean kokatuz Podemos alderdiaren ideologia eta proposamenak. Izan ere, jakin badakite, horrek oraindik ere muga bat suposatzen duela herritar askorentzat eta, hortaz, kokapen zehatz bat egotziz zailagoa litzateke zentru politikoa bereganatzea eta, ondorioz, hauteskundeak irabaztea. Oraindik goizegi da ezker/eskuin ideologiaren bozkaren ardatzean aldaketa esanguratsuak badirela adierazteko, baina Podemos alderdiaren agerpenak gutxienean auzitan jarri lezake autore hauek aipatzen duten betaurreko ideologikoaren beharra.

Eugenio del Ríok (2015) hizpide ditu Podemosen ezker-eskuin kokapenaren nondik norakoak. Bere ustez Podemos alderdiaren igoera hiru eskalaren arabera ulertua izan daiteke, eta horietako bat, ezker-eskuin ardatzaren araberrako kokapena litzateke. Honela, autorearen ustez, Podemosek bere burua ezkerreko aukera bat bezala aurkeztea ekidin badu ere, nahikoa nortasun ikur erakusten ditu ezkerrekin identifikatzen diren herritarrek eremu horretan koka dezaten. Are gehiago, Eugenio del Ríok, Podemosek taldearen identifikazio ikur nagusi bezala ezker nortasuna hartu ez izatea egokitzen ikusten du. Horrek ez luke eragotziko bere kide eta buruak ezkerrekoak bezala definitzea, ez eta ezker/eskuin eskala gainditutzat ematea.

Aldaketa politikoa babestu ahal duten herritar askorentzat, nortasun horrek sinesgarritasuna galdu du, hein batean PSOE eta PPko eliteen arteko gertutasun politikoa medio. Identifikazioarekiko helburu honek, ezker izan duen joera tipikoa balentriaz haustea suposatzen zuen. Ezkerrek historikoki autoafirmazioa eta autogogobetetzea lehenetsi ditu sektore sozial zabal eta anitzegoetara iristea zailduz. Podemosek orain artean nagusitu izan den marku interpretatiboa aldatu nahi du zentzu honetan; ezker/eskuin kategoriak goi/behe kategorietan eraldatuz.

Podemos alderdiak argi du gehiengoa lortzea ezinezkoa dela ezkerreko sektoreetara edota langile klaseetara mugatuaz; ezker-eskuin eskeman itxita geratzea ekidin behar da. Euren ustez PSOE eta PP alderdien arteko koinzidentziak medio, ezkerreko nortasun kolektibo moduan debalutuak izan da. Ezkerrearen batasuna ordez, batasun popularra behar da, herritarren gehiengoek asumitutako helburuetan oinarritua, ez ideologia batean.

e) Nazionalismoa eta bozka

Bozkaren eredu ideologikoa azaltzean, Irlanda da eredu hau gutxien betetzen deneko herrialdea. Bertan, ezkerreko hautesle askok ez diete bozka ezkerreko alderdiei ematen eta, alderantziz, eskuineko hautesle askok ez dituzte eskuineko alderdiak bozkatzen. Zergatik? nazionalismoagatik. Honela, hautesle askok bozka ez dute ezker-eskuin ideologiaren arabera aukeratzen, baizik eta nazionalismo graduaren arabera. Europari begira, Irlandaz gain nazionalismoaren balio politikoak eragin handia du Belgika, EAE edota Katalunian. Modu honetara, bozkan gehien eragiten duten balio politikoak aldatuz doaz herrialdeen arabera. Europa kontinentalean ezker-eskuin ideologia da bozkan gehien eragiten duen balio politikoa, baina beste batzuetan nazionalismoa da ardatz nagusia, eta Estatu Batuetan alderdi politiko batetik identifikazioa izanen da balio nagusia.

EAERI dagokionean bi lerrokatze ezberdin nagusitzen dira eta gure ustez lehen lerrokatzea, nagusia, nazionalismoarena litzateke, eta ondoren ezker/eskuin ideologiarena. Gure ustez beraz, ezker-eskuin ardatzak baino eragin handiagoa luke nazionalismoak euskal herritarren hauteskunde portaera baldintzatzeko unean. Halere, nortasun nazionala, eta ondoren nazionalismoaren balio politikoaren indarra eta eragina azpimarratzek, ez du ukatzen gurean ezker-eskuin ideologiak izan dezakeen eragina. EAeko mapa politikoa, orokortuz bada ere, lau espazio politikoetan banandurik egon dela esan genezake. Mapa horretan, alderdi politikoak abertzale/ez abertzale izaeraz gain, ezker-eskuin ideologiaren arabera ere bananduak daudela ikus dezakegu. Honela, ezkerrean edo eskuinean koka ditzakegun alderdi abertzaleak eta ez abertzaleak ditugu.

Modu honetara, herritarren bozka erabakitzeke orduan abertzaletasunak lehentasuna izanik ere, ondoren ezker-eskuin ardatzaren araberako bigarren hautu bat egiten dute. Une hauetan, Podemos alderdiak Aldundietan soilik du ordezkaritza eta ezin dugu jakin aurrera begira zer nolako pisua izango duen euskal instituzioetan, ez eta ze espazio

politikoetan kokatuko litzatekeen. Zenbaitek EAEn den balizko bosgarren espazio horretan kokatzen du Podemos alderdia, hein batean abertzale/ez abertzale ardatza gaindituko lukeen espazio batetan. Halere, euskal politikagintzan aurretik ere egon dira antzeko saiakerak eta, posible da ere Podemos alderdiak beste guztiak porrot egin duten tokian zailtasun berbera izatea.

EAEko lerrokatze nagusia nazionalismoaren baitakoa dela azaldu dugu, bigarren pausu batean herritarrek ezker/eskuin ardatzaren araberrako hautua egingo lukete. Dena den, aukera abertzaleen arteko hautuaren oinarri bakarra ideologikoa dela ez dugu uste halere. Ezta aukera ez abertzaleen artekoa ere. Hau da, behin abertzale/ez abertzale ardatzean kokaturik printzipio batean posizio ideologiko ezberdinak ordezkatzeko lituzketen alderdien artean aukeratu behar dute herritarrek. Baina posible da hautu horren oinarri nagusia ez izatea ideologikoa, bi espazioen baitako alderdi ezberdinen beste ezaugarri batzuei lehentasuna emanaz.

Aukera abertzalea egiten duten herritarrei erreparatuz, enpirikoki ezin dugu jakin jendea ezkererako klabeetan kokatzen delako bozkatzeko dion Ezker Abertzaleari, edota EAJri eskuinekoa delako. Beste faktore batzuk ere eragin handia dutela uste dugu, ETAREN biolentziaren inguruko jarrera, kultura politikoa edota independentismo maila esaterako. Finean, gurean bi nazionalismo ezberdin ditugu; nazionalismo instituzionala bezala definitu dezakeguna eta nazionalismo arradikala bezala definitu dezakeguna. Euren praktika eta diskurtso politikoa ezberdina izan da eta benetan ezberdintasunen gako nagusia irizpide ideologikoetan baino, beste ardatz batzuetan kokatzen dela esan genezake.

ETAREN inguruko jarrerak bi nazionalismoen arteko hautuan zeresan handia izan duela uste dugu. ETAK bere jardun armatua utzi badu ere, jardun horrek urte luzeetan markatu dituen praktika politikoez oraindik hautesleengan eragina dutela uste dugu. Ez gara soilik ari bi alderdi nagusien inguruan egituratutako nazionalismoek ETAREN jardunaz izan duten posizio politikoez, baizik eta posizio guzti horiek gizartean sorrarazi duten egonezinaz, batzuen babestuz eta besteena kritikatuaz. Finean, kultura politiko ezberdin bat ere sortu da bi nazionalismoen artean. Horretaz gain, euskal nazionalismoaren bi arimek balio edota irudi ezberdina islatu izan dute; nazionalismo instituzionala tradizioarekin, agintaritzaren politikorekin eta pragmatismoarekin harremanetan da eta, nazionalismo arradikala aldiz, berrikuntzarekin, hausturarekin eta ikuspegi alternatibo bat bilatu eta inposatzearekin.

Aipaturiko faktoreez gain, eta ETAREN biolentziaren inguruko jarreraz haratago ordea, badira bi nazionalismoak ezberdintzen dituen beste faktore bat; egitura instituzionalaren balioespenaz hitzegin dezakegu zentzu orokorrean edota *status quo*aren defentsaz. Nazionalismo instituzionalak egungo Estatututik eratorritako erakunde eta politikak balioan ipini baditu, nazionalismo arradikalaren aldetik, politikak eta erakunde hauekiko kritika etengabekoa izan da. Aurrera begirako estatusaren inguruan printzipioz adostasun gutxi legoke bi ereduaren artean; nazionalismo historikoak alde bikotasunari ez dio uko egin, ez behintzat definitiboki, abertzaletasun arradikalak aldiz, alde bakarreko bidearen apustuarekin jarraitzen du, aldaketa, erreforman baino, haustura parametroetan planteatuz. Connorren seigarren hipotesia aztertzean sakonduko dugu bi nazionalismoen arteko ezberdintasunen inguruan autogobernuaz aritzean. Hortaz, ezker-eskuin ideologiak izan dezakeen eragina bazterrean utzi gabe, aipaturiko aldagaiek ere nazionalismoaren baitako bi hautu nagusien arteko aukeraketan herritarrengan eragin esanguratsua dutenaren ustea mantentzen dugu.

f) Bozka ideologikoaren ereduaren berrikustea

Errebisio arrazionala: espazio kompetentzia sinplearen eredia

Hauteskunde portaeraren korrronteak aipatzean ikusi genuen bezala, Downsek proposatutako ereduaren arabera (1957), hautesleek bozkaren erabilgarritasuna kontuan hartzen dute bozka emateko orduan eta, hortaz, bozkaren eredu ideologikoak planteatzen duen emozio adierazpena ukatzen du. Erabilgarritasun hori neurtzeko bide ezberdinak daude, baina bozka ideologikoaren errebisio esanguratsuenetarikoa den espazio kompetentzia sinplearen eredia aipatuko dugu. Eredu honen arabera, pausu hauek jarraituko lituzke boto-emaeleak:

- Lehenik eta behin, ezker-eskuin ideologia eskalan autokokatuko da.
- Bigarrenik, hautesleak alderdi bakoitzaren kokapen ideologikoa ebaluatuko du.
- Hautesleak bere ezker-eskuin ideologian izandako kokapena eta alderdiaren ezker-eskuin kokapen ideologikoaren artean distantzia gutxien duen alderdiari emango dio bozka.

Eredu berri honen abantaila nagusia epe motzera aldatzen diren osagaiak barneratzen dituela da. Honela, hauteskunder ezker-eksin egon daitezkeen aldaketak azal ditzake, bozkaren eredu ideologiko tradizionala aldiz, iraunkortasuna azaltzera mugatzen da.

Baina, herritar xumeek badute ideologiarik?

Pentsamendu korrante batek (Converse, 1964) gizabanako gehienek ideologia bat izatearena auzitan ipini du. Gizabanakoen jarrerak aztertzen baditugu hauen atzetik ideologiarik baden aztertu beharko da. Horretarako, hautesleei ezker-eskuin ardatz batean kokatzea eska diezaiekegu. Bigarren teknika errekonozimendu edo ezagutzarena litzateke. Teknika honen arabera ezker-eskuin ideologia duten hautesleak gai izan beharko liriteke behin bere burua kokatu ondoren, ezkerrekoa eta eskuinekoa zer den definitzeko. Hirugarrena, erabilpen aktiboa litzateke. Hau da, ezker-eskuin ardatza informazio politikoa prozesatzeko bitarteko bat bada, ezker-eskuin ideologia bat duten hautesleak era aktiboan erabiliko dute euren iritzi politikoak osatzeko.

Estatu Batuetan egin ziren lehen ikerketetan, %17a bakarrik izan zen gai ezker-eskuina definitzeko eta erabilpen aktiboaren emaitzak are eta okerragoak izan ziren (Anduiza eta Bosch, 2012). Beranduago eginiko ikerketek beste emaitza batzuk azaldu zituzten hiru arrazoi medio (Dalton, 1996): mendebaldeko demokraziatan emandako mobilizazio kognitibo prozesua, lehen ikerketak Estatu Batuetan egin izatea, mendebaldeko herrialdeetako ideologia eskasen duena herrialdea hain zuzen ere, eta, hirugarrenik, lehen ikerketek ez ziotela inongo garrantzirik eman autoubikazioaren teknikari.

Autoubikazioari helduz, 70. hamarkadan, herritar gehienak (Estatu Batuak barne) ideologikoki autokokatzeke gai ziren. Baina autokokatzen direnen artean, heren batek bakarrik erabiltzen du aktiboki ezker-eskuin ideologia. Hortaz, nola lortzen dute beste bi herenek autokokapen ideologikoa? Ezker edo eskuinarekiko sentitzen den afinitate edo gertutasuna oso asumitua dago, baina gutxi arrazionalizatua. Baina honek ez du esan nahi ezker-eskuin ideologiarik ez dutenik, balio politiko honek (gainontzekoak bezala) arrazionala baino emotiboa den alderdi garrantzitsu bat duela baizik.

Lerrokatze eza eta aldakortasuna

Balio politikoetan oinarrituriko bozkaren azalpenak jaso duen kritika nagusia balioa galdu duten azalpenak ematen dituenarena da. Alderdiekiko lerrokatze tradizionalak indarra galdu duela dirudi. Gaur egungo gizartean, besteak beste, klase sozial eta erlijioaren arabera sorturiko talde loturak ahulduz doaz, hautesleen gaitasun kognitiboa asko hazi da, belaunaldi ordezkapenak ere lerrokatze eza ahalbidetzen du, bozkaren erabakian koiunturak eta ingurumariak eragin handiagoa du eta balio politiko berriak azaldu dira. Lerrokatzearen ahultzeak arrazoi guzti hauek izan ditzake eta hauteskunde ondorioen artean honakoak aipa ditzakegu:

- *Bozkaren aldakortasuna*: hautesle eta alderdien arteko lerrokatzea ahuldu denez, bozka normala deritzaionak ere indarra galdu du. XX.mendearen bigarren erdialdetik aurrera aldakortasuna handitzen joan da.
- *Alderdi sistemen aldaketa*: alderdi tradizionalakiko lerrokatzearen ahultzeak alderdi berrien sorrera ere dakar eta azken hamarkadetan mugitu ez diren alderdi sistematan aldaketak sortzen ditu.
- *Balio politikoetan oinarrituriko azalpenen ahulezia*: balio politikoak ahulak direnean, sinesgarria da hautesleak lehenik bozka erabakitzea eta, ondoren, bere balioak bozka horri egokitzea.

Agerikoa dirudi krisi sozialaren ingurumarian (talka politikoak edota ekonomikoak) alderdiekiko identifikazioa ahulduz doala; boto-emaile batzuen ilusio ezak, eta beste alderdi batekiko sor daitekeen identifikazioak, hauteslearen lerrokatze berri bat sor dezake. Orokorrean lerrokatze berri hauek hauteskunde portaeran banaketa sozialek izan duten pisuaren galeraren isla besterik ez lirakeke (Burnham, 1970). Alderdi identifikazio tradizionalak egonkortasun handia erakusten duten arren, egun ahulagoak dira eta hauteskunde aldaketa handietarako aukera zabalik uzten dute eta, hortaz, alderdi identifikazioaren nondik norakoak ulertzeko *cleavage* sozialaren eragina ez litzateke orain artean ulertu den bezain indartsua.

Siavelisen arabera mendebaldeko gizarteetan alderdi sistemen oinarrian zeuden *cleavage* batzuen ahultzea edo aldaketa azaltzeko bi ikuspegi hartu beharko genituzke kontuan; batetik, hizpide izan dugun ikuspegi

soziodemografikoa, zeinek gizarte postindustrialaren ondorioak azpimarratzen dituen (hirugarren sektorearen gorakada, esparru ekonomiko eta politikoa emakumeen partehartzea, sozializazio esparru berriak). Bigarren ikuspegiak, jarraian ikusiko dugun balio eta aldaketa kulturaletan ipintzen du fokua (Siavelis, 2006 *in* Sulmont Haak: 2010, 15).

Ideologia berriak: posmaterialismoa eta bozka

Ezker/eskuin ideologiak XX.mende amaieratik balio politiko berri bat du aurrez aurre: posmaterialismoa (Inglehart, 1977 eta 1991). Posmaterialismoaren postulatuak arabera gizabanakoek helburu jarraiak bilatzen dituzte era jerarkiko batean, beti ere, aurreko helburuak bete ditugun heinean. Tesi honen arabera, mendebaldeko herritar gehienek balio eskala ezberdin batean sozializatuak dira eta helburu materialak lehenesteari utzi diote. Gainera, gizarte postindustrialean emandako aldaketekin lotuta, sorturiko balio berriek garrantzi gehiago ematen diote autonomia indibidualari determinazio sozial tradizionalei baino (familia, erlijioa, perteneziazko lehen mailako taldeak...). Inglehartek eraikitako eskalaren arabera, balio politikoen aldaketa bat eman da posizio materialistetatik posizio postmaterialistetara. Aldaketa handienak, noski, behar materialak gehien asetuak dituzten gizarteetan eman dira, eskandinaviar herrialdeetan. Posmaterialismoa errenta altuko eta gazteen artean hedatu da gehien.

Postmaterialismoa eta bozkaren artean harremana badago ere, honek ez du ukatzen ideologiaren bozka ereduak, gainjartze bat baitago ezker-eskuin ideologia eta balio politiko berriaren artean:

- Hautesle materialista gehienek eskuineko alderdiei ematen diete bozka.
- Hautesle postmaterialistek ez dute alderdi liberaleri bozkatzeko joera handiagorik.
- Ez lirateke alderdi berriak agertuko, postmaterialisten bozka alderdi sozialdemokrata klasikoek eta alderdi arradikal birziklatuak bereganatuko lukete.

Torcalek (1989) Inglehartentzako tesia Espainian zenbateraino betetzen duen aztertu du. Bere aburuz, ezker/eskuin ideologiaren banaketa eraldatzen ari da berau definitzen zuten balio materialisten desagerpena medio, eta

azaldu berri diren balio postmaterialisten mesedetan. Halere, eta postmaterialismoaren pisua ezkerrean eskuinean baino handiagoa izanik ere, Espainiari erreparatuz, besterik gabe postmaterialismoa ezkerrean patrimonioa dela ondorioztatzen ezin gaitzake eraman.

Ez dakigu Podemosen agerpena postmaterialismoaren indartze baten isla egokiena litzatekeen, baina gutxienean, orain artean ezaguturiko ezker/eskuin ardatza gaindituko lukeen fenomeno berri baten aurrean aurkitzen gara. Euren ideologiaz interpelatuak izatean, Podemosko buruzagia den Pablo Igleziasek askotan aipatzen du zentzu komunaren alderdia direla. Laclauri jarraiki, Podemosentzat ezinbestekoa da adierazle mugikorrei (askatasuna, demokrazia, aberria, etab.) esanahi egokia ematea. Adierazle horiei eduki egokia ematea hegemonia lortzeko baldintza da, eta hegemoniaren ideia hau Podemosen buruzagitzaren ikuspegi politikoaren erdigunean kokatuko litzateke

Gramsciren arabera, hegemoniaren kontzeptua Leninek zientzia politiko marxistari eginiko ekarpen nagusia litzateke. Leninek, hegemonia, zuzendaritza politikoaren zentzuan ulertuko luke, eta hegemonia hori lortzeko, klase batek bere ikuspegi korporatibista alde batera utzi beharko luke (Augusto Buonicore, 2006). Langilegoaren hegemoniari dagokionean, ugazaba eta gobernuaren aurkako borroka ekonomikotik haratago, gainontzeko bidegabakeria eta zapalkuntzen aurkako manifestazioen buru ipini beharko litzateke, kaltetuak klase batekoak ala beste batekoak izan. Hegemonia izatea hortaz, herri osoaren xedeen bozeramailea izatea zekarren. Horretarako, ezinbestekoa zen iraultzaren oinarri soziala zabaltzea. Agerikoa da Leninek sortu, eta, aurrerago, Gramscik jorratutako hegemonia kontzeptuaren ildo nagusiak ikus ditzakegula Podemos alderdiaren diskurtso, ibilbide eta estrategian.

Dena den, prozesu luze baten aurrean gaude eta denborak esango du postmaterialismoak zer nolako eragina duen bozkan. Oraindik ez du lortu ideologia edo balio politiko hau ordezkatzeko lukeen alderdietan gauzatzea, alderdi berdeetatik haratago behinik behin. Ildo honetan, eta Espainiako Estatuari dagokionean, Cordero eta Martínek (2011) dimentsio materialista-postmaterialista eta ezker-eskuin dimentsioa elkarrekiko independenteak diren, edota elkar harremandurik dauden aztertzen saiatu dira. Horretarako, ideologia ezberdinetako herritarrek ze politika publikoei eskainiko lieketen errekurso gehien izan dute aztergai. Euren burua ezkertiarizat jotzen duten herritarrek, defentsa eta herritarren segurtasunera bideratutako errekursoak urriak direla ez dute uste, bai

ordea, kultura eta ingurugiroaren babesera zuzendurikoak. Defentsa eta herritarren segurtasuna, balio materialistak dira, kultura eta ingurugiroa aldiz, postmaterialistak. Autoreek hemendik ezkerreko herritarrak eskuinekoak baino postmaterialistagoak direla ondorioztatzen dute babesten dituzten politiken izaera kontuan izaki. Era berean, postmaterialismo gradua ezker muturrean handiagoa da zentru-ezkerrean baino.

Bestalde, balio materialistak ordezkatzan dituzten ezker politika tradizionalak ikus ditzakegu, zeintzuk ez daukaten ezkerreko herritarren artean, zentru eta eskuinekoen artean baino babes handiagoa. Adibidez, osasungintza, langabezirako babesa edota etxebizitza. Gizarte Segurantzza eta pentsioen kasuan bakarrik, garraio eta komunikazioekin batera, ezker muturrean kokatzen direnak dira gaur egun errekurtsio gutxi bideratzen direla uste dutenak. Gainera, zentru-ezkerra ez da zentru eta eskuineko herritarrengandik bereizten politika hauei bideratutako gastuaren pertzepzioari dagokionean.

Nolanahi ere, susmoa badugu izaera honetako bozka uste baino handiagoa dela Euskal Herrian, eta Erkidegoko herrialderen batean, Gipuzkoan esaterako. Zenbait analistek, krisiaren ondorioz seguruenik, postmaterialismoaren gainbehera datorrela uste dute. Baina, orohar, ez dugu uste postmaterialismoaren tesia hain azalekoa denik. Fenomeno honen ondorioz jarrerak sortu dira eta jarrerak normalean, iraunkortasun handikoak izan ohi dira. Ez dira gauetik goizerako aldaketa zaleak. Beraz, postmaterialismoak aldaketa kultural bat adierazten du eta, aldaketa hori uhin luzekoa izango denaren ustea dugu. Normalean egoera ekonomiko sendoekin eta soziologiak aipatzen duen destradizionalizazioarekin bat dator gizaki indibiduala, jabetu egiten du eta aldaketa guzti hauen ondorioz uste dugun baino indar handiagorekin sustraitu. Faktore guzti hauek, batez ere Gipuzkoan, era sakon eta intentsoagoan ematen dira datu demoskopiko eta aztertu izan diren posizio eta baloreen arabera⁶.

⁶ Soziometroek eta Europa eta mundo mailako baloreen inguruko ikerketak Euskal Herrian egin direnean, Gipuzkoan balio hauek era intentsoagoan ematen direla azaldu dute. Ikerketa hauek orain dela gutxirarte Javier Elzok zuzendu ditu eta urte batzuetatik honantz, Maria Silvestrek.

2.3. Hauteskunde testuingurua eta bozka

Posizio sozialak bozka zuzenean ez duela baldintzatzen ikusi dugu, horretarako balio politikoetan bilakatu behar zen. Baina balio politikoak ere ez dira guztiz determinanteak hauteslearen bozka azaltzeko orduan. Hirugarren elementu bat falta zaigu bozkaren kausazio prozesua osatzeko; hauteskundearen ingurumaria. Autore ezberdinen arabera, 60 eta 70. hamarkadak bozkaren aldakortasunaren erakusle dira eta lerrokatze aldakorrek nabarmenak izan ziren alderdi tradizionalen dagokienean. Ondorioz, autore ezberdinen aburuz Kolunbia eta Michiganeko eredu klasikoaren baliagarritasun analitikoak auzitan geratu zen; bereziki, sozializazio prozesuarekin, talde edota *cleavage* sozialen pisuarekin edota alderdi eta ideologia identifikazioarekin harremanetarako aldagaien balizko garrantziari dagokionean (Clark eta Lipset, 2001; Mayer, 2006; Norris, 2006; Rose, 2000 eta Thomassen, 2005 *in* Sulmont Haak 2010:16).

Urte hauetan ikerketa enpiriko ezberdinetan oinarrituriko ikuspegi teoriko berriak agertu ziren, eta, hauek, bere isla izan zuten modernizazio kulturalaren teoriaren formulazioan. Laburbilduz, teoria hauen arabera, portaera politikoak, gizabanakoek erreferentziatzeko taldeetatik gero eta era independentetagoan asumitutako baloreen orientazioen bidez gero eta baldintzatuagoa egongo da. Honela, Kolunbia eta Michiganeko ereduaren arabera herritarrek jasotzen zituzten aztarnak gero eta eragin gutxiago izango lukete hauteskunde portaeran (Rose, 2000:332-339). Eman ziren aldaketa sozialek faktore indibidualen eta eredu arrazional eta ekonomikoaren ereduarekin harremanetarako hauteslearen erabaki arrazionalen prozesuei (*issuevoting*, *pocketvoting*) eta faktore indibidualak indartzen zituen paradigma teorikoaren garapena bultzatu zuten.

Hauteskunde portaeraren inguruan eginiko azterketa berriek, informazioaren prozesatzeko mekanismoak, hautagaien irudi eta pertsonalitatearen ebaluazioa eta hauteslearen lehentasunen aldaketan hauteskunde kanpainak izan dezaketen eragina xehetasun gehiagorekin aztertu nahi izan dute (Knight eta Marsh, 2002:175 *in* Sulmont Haak, 2010: 18). Aldagai hauetaz gain, aldagai makrosozialei ere erreparatu zaie: esaterako sistema politikoari (presidentzialista, parlamentarioa edo mixtoa), hauteskunde sistemei (gehiengoak edo proportzionalak) eta ordezkari politikoaren bitarteko antolatuei (alderdi sistema). Ikerketa tendentzia berri hau CSESen (*Comparative Studies of Electoral Systems*) baitan ikusi ahal dugu. Bertan nazioarteko ikerlari ezberdinek hauteskunde

portaeran eragina izan dezaketen ordezkariak demokratikoaren ikerketa ezberdinak burutzen dituzte.

Jarraian hauteskunde testuinguaren baitan koka ditzakegun aldagai ezberdinek bozkan izan dezaketen eraginaz jardungo dugu.

a) Alderdien mugimenduak: espazio eredu aurreratua

Bozka lortzeko helburuarekin, alderdiek ezker-eskuin eskala ideologikoan mugimenduak egingo dituzte, hau da, alderdien ezker-eskuin kokapena aldatzen joango da. Bi alderdi espazio ideologiko berdinetatik lehian badaude, eta helburua bozka gehien lortzea bakarrik bada, bi alderdiak erdigunean posizioa hartzen saiatuko dira, alderdien *konbergentzia ideologikoa* bezala ezagutzen dena. Alderdien mugimendu hauek hautesleek bozka baldintzatzen dute. Orain artean hautesleek bozka hautesle beraien ezaugarriengatik baldintzatua zela uste genuen baina eragina alderantzizko zentzuan ere interpretatu ahal dugu.

Hautesleek bozka baldintzatu dezakeen beste aldagaierako bat alderdien ospea izan daiteke. Alderdi batek gobernatzeko aukera gutxi duenaren ospea badu, bere erakartze gaitasuna murriztu egiten da. Hautesle arrazionalak bozka erabilgarriaren hautua egiten dute eta, hortaz, gobernatzeko gaitasun edo aukerarik ez luketen alderdiei bozka ematea emozioetan oinarriturik legoke. Bozka erabilgarria hautesleak gustuko duen alderdia bozkatzen ez dueneko fenomenoari dagokio, horren ordez, gobernatzeko aukera duten alderdien artean aukeratu luke.

b) Hauteskunde kanpainak eta komunikabideak

Hauteskunde kanpainak eta komunikabideek hautesleengan duten balizko eraginaren artean desadostasunak dira nagusi. Teoria hipodermikoaren arabera hauteskunde kanpainak, eta orokorrean, komunikabideek iragartzen dituzten mezuak herritarren iritzia aldatzeko gaitasuna dute eta, hortaz, bozka ere. Baina kontuan izan behar dugu, gizabanako guztiak ez direla medio guztien eraginpean jartzen, eta alderdien mezuak ere ez dituztela era berdinean barneratzen. Hautesleak ez ditu mezuak zoriz aukeratzeko, baizik eta bere balio politiko, posizio sozial eta alderdiekiko gertutasun edota urruntasunaren arabera.

Gutxieneko eraginaren teoriaren aburuz, kanpainak hautesleek bozka normala indartzeko bakarrik balio dute. Dena den, teoria honek ez du

aintzat hartzen epe luzera kanpaina nahiz komunikabideek izan dezaketen eragina. Bestalde, hautesleen aukeraketa selektiboa ere ez da operatiboa zenbait testuingurutan eta ez da oso eraginkorra, ezkutuko mezu eta telebistaren sinesgarritasuna medio. Gainera, lerrokatzeen ahultzeak mezuen aukeraketa estrategia aktiboa ez izatea eratoritzen du, mezuak gutxiago filtratuz eta honela kanpainen hauteskunde eragina areagotuz (Harrop eta Miller, 1987).

Baina dikotomia hau gaindituz, kanpaina eta komunikabideen helburua hautesleen iritzia aldatzean baino, gaien katalogoaren aukeraketan legoke, *agendaren* ezarpena hain zuzen ere. Honen ildo beretsuan kokatuko da *issue rotting* deritzaiona. Aurretik ere hizpide izan dugun bezala, teoria honen arabera, hautesleek gai zehatz batzuen inguruan alderdiek duten posizioaren arabera erabakiko lukete bozka.

c) Testuinguru ekonomikoa

Herrialde bateko testuinguru ekonomikoak gobernuan dagoen alderdian izan dezakeen eraginaren tesia berria ez bada ere, hauteskunde ikerketei dagokionean, Anthony Downs izan zen gako honi erreparatu zion lehena (1957). Ekonomia eta bozkaren arteko harremanaren oinarriari erantzukizunaren hipotesia deritzaio. Hauteskunde portaeraren korrante nagusiak aztertzean esan bezala, testuinguru ekonomikoa ona denean hautesleek gobernuaren saritzen dute, txarra denean zigortu egiten dute eta, hortaz, herritarrek gobernuari egozten diote ekonomiaren egoera.

Baina dimentsio makroekonomikoetatik haratago, ekonomiaren eboluzioari buruz herritarrek dituzten pertzepzio subjektiboak ere hartzen dira kontuan. Izan ere, sarritan, ekonomia objektiboak baino hauteskunde eragin handiagoa izaten dute. Pertzepzio hauen oinarrian ekonomia erreala dago, baina herritarren balio politikoak, komunikabideak eta lider politiko eta sindikalek egiten duten estaldura ekonomikoa ere. Bozka ekonomikoaren oinarria beraz, ez dago estatistika makroekonomikoetan, *feel-good factor* deiturikoan baizik (Anduiza eta Bosch, 2012).

d) Hautagaiak

Europari begira, hautagaien eraginaren tesi tradizionalaren arabera, boto-emaleen hauteskunde portaera alderdiak aukeratzera zuzentzen da, berauek ordezkatzeko dituzten hautagaietan gutxi erreparatuz. Hauteskunde emaitzetan hautagaien balizko eragina aztertzeko garatu

diren eredu estatistikoek (Miller eta Shanks, 1996; Bosch eta Rico, 2003 *in* Anduiza eta Bosch 2012:255), hauteslearen bozka hautagaiaren balorazioarekin harremantzea errore bat bezala ikusi dute. Izan ere, alderdi bati bozkatzea erabaki duten hautesleek, bere hautagaiak era positiboan baloratu ohi dituzte, eta hor legoke korrelazio altuaren gakoa. Laburbilduz, hautagai bat era baikorrean baloratzen den heinean aukera gehiago izango du bozkatua izateko. Baina kontuan izanik gehien baloratzen dituztenak bere alderdiarekin identifikatzen direnak direla, posible da korrelazioa balio politikoaren zeharkako eraginaren ondorio izatea.

Gunther eta Monteroren arabera (1994) hautagaiek paper garrantzitsua jokatzen dute bozka erabakitzeko orduan, baina ez bloke ideologiko ezberdinetako hautagaien aukeraketari dagokionean, espazio ideologiko berdinean kokatzen diren alderdien arteko aukeraketa egiteko orduan baizik. PSOErentzako izan ezik, alderdietako hautagai ezberdinekiko jarrerek bloke baten baitan hauteslearen babesa ze alderdik jasoko duen determinatzen du. PSOErentzat aldiz, *catch-all* alderdia ezberrik gabe autoreen ustez, hautagaien balorazioak determinanteak lirateke blokeen arteko eta barneko lehenetsunak definitzeko orduan. Laburbilduz, hautesleek Felipe Gonzalezekiko azaldutako jarrera PSOE alderdiaren hauteskunde arrakastaren osagarri garrantzitsua da. EAEn ere hautagaien balorazioak izan du eraginik; horren adierazle litzateke 2001ean EAJk Ibarretxe buru zuela izandako hauteskunde arrakasta. Dena den, urte horretan EAJ alderdiak bere ohiko hauteslegotik at jasotako bozka kopuruaren nondik norakoak ezin dira Ibarretxeren paperera mugatu, indar espainolisten balizko garaipen batek ere eragin handia izan zuen EAJrenganako bozka transferentzian.

Ildo honetan, ezinbestean, Podemos alderdia izan behar dugu hizpide. Pablo Iglesias izatea Podemoseko Europar Hauteskundeetako buru ziuurrenik faktore erabakiorra izan zen herritar askorentzat. Europar hauteskundeetarako boto-zerrenda orrialdeetan alderdi bakarrak ipini zuen bere liderraren argazkia; Pablo Iglesiasena hain zuzen ere. Honela, eta komunikabideetan buruzagi politiko honek lorturiko oihartzunaz baliaturik, jende askoren bozka erakarri zuen. Gainera Pablo Iglesiasen kasuan, bere alderdiarekin identifikatzen ez direnen begikotasun politikoa ere jasotzen du. Iritzi inkesta ezberdinetan, bai Espainian, eta bai EAEn eta Nafarroako Erkidegoan, Pablo Iglesias hoberen baloratzen den politikaria izan da zenbait iritzi inkestetan, eta herritar bakoitzak duen alderdi atxikimendutik haratago doa gainera. Dena den hasierako

erakargarritasun hori lausotzen ari denaren ustea dugu. Gainontzeko hautagaien balorazioa hertsiki lotua dago hautesleen alderdi identifikazioarekin, *gureak* ongi baloratzen ditugu eta *besteak* gaizki. Pablo Iglesias da korrelazio honen salbuespen nagusia, bakarra ez bada ere.

Lidergo sendo baten aldeko apustua agerikoa izan da Podemosen prozesu eratzailan. Pablo Echenique, Teresa Rodríguez eta beste kide batzuek proposatutako antolaketa ereduak hiru bozeramaile zituen. Eredu hau ez zen aurrera atera ordea, eta, lidergo argi eta bakar baten aldeko apustua egin zuten. Pablo Iglesiasen korronteak honela erantzun zien bigarren geratu zen antolaketa ereduari: “lider batek irabazten du, hiruk ez”.

e) Hauteskunde sistema eta alderdi sistema

Hauteskunde sistemak ere eragin dezake hautesleen portaeran. Eragin hau koiunturazkoa da eta hauteskunde sistema aplikatzen deneko deialdiari atxikitzen zaio. Hautesleen portaeran gehien eragiten duen hauteskunde sistemaren ezaugarria alderdien sisteman sortzen duen zatiketa da. Hauteskunde sistema batzuk legebiltzarrera bi alderdi soilik iristea ahalbidetzen dute eta alderdi parlamentarioen zenbakia baxua denean, alderdi minoritarioak extraparlamentarioetan bilakatzen dira. Kasu hauetan ohikoa da alderdi minoritario hauek bozkatu dituzten hautesleak frustrazio sentsazio bat izatea. Izan ere, bere bozkak inongo ordezkariaren aukeraketarako ez duela balio izan ikusten dute. Honen aurrean, inkondizionalenak alderdi minoritarioei bozka ematen jarraitzen dute. Etsikorrek bozka emateari uzten diote eta pragmatikoek bozka aldatzen dute alderdi parlamentarioei bozka emanez, aurretik aipatutako bozka erabilgarria hain zuzen ere. Bozka erabilgarria bozka estrategikoa bezala ere ezagutua da.

Duvergerrek (1992) itzuli bakarreko hauteskunde sistemen ondorio psikologikoak aztertu zituen. Bere aburuz, sistema hauek alderdi biko sistemak bultzatzen dituzte barruti batean garaile diren alderdiei gainordezkaritza bat emanez. Ondorioz, hirugarrengo alderdiak edo alderdi txikiak zigortuak dira, hautesle askok alderdi horiei bozka ematea galdutako bozkatzat joko bailukete.

Banducci eta Karpe-k (2009) aurkezten diren alderdi kopuruen beste eraginetako bat dute hizpide. Euren ustez, legebiltzarrean are eta alderdi gehiago egon ordezkatuak, hauteskunde abstentzioa txikitzen dela azaltzen dute. Izan ere, hautesleak euren interesak ordezkatu ditzaketan aktore


politikoak sistema politikoaren baitan botere esparruak bereganatzeko gai direla ikusten dute. Kroh-en ustez (2009), ordezkariak lortu ahal duten alderdien zenbatekoak bozka ideologikoan ere badu eraginik. Gero eta alderdi gehiago aurkeztu, bozka ideologikoaren garrantzia txikituko litzateke, alderdi ezberdinek hauteskundeetan jokoan leudekeen gai ezberdinetan antzeko posizioak izatea ahalbidetzen baitu, hauteslearen aldetik alderdien arteko ezberdintasun ideologikoa egitea zailduz.

Hauteskunde sistemak lotura handia du bozka erabilgarriarekin eta parte hartze mailarekin. Barruti txikiak, gehiengoaren formulak eta lortu beharreko bozka zenbaki eta portzentajearen langa altuak, besteak beste, eragina dute boto-emaeleen aukeraketan. 2009an Hans-Dieter Klingemann-en ikerketa lan batean autore ezberdinek hauteskunde sistema eta alderdi sistemak hauteskunde portaeran duten eraginaren inguruko ondorioak atera zituzten. Horretarako, 1996 eta 2002 urte bitartean hogeita hamahiru estatuetan eginiko hauteskunde ondorengo inkestak izan zituzten aztergai. Esaterako, Nevitteren arabera, legebiltzarreko eserlekuen banaketa eta bozkaren arteko proportzio eza handitzen den heinean, hauteskunde barruti txikietan hauteskunde barruti handietan baino ohikoagoa dena, abstentziora jotzen duten hautesle kopurua handitu egiten da (Nevitte *et al.*, 2009 in Sulmont Haak, 2010:27).

Hizpide izan dugun bozka eredu laburbilduz, Kolunbiako ereduari jarraiki, posizio sozialak hauteslearen bozka baldintzatu dezakeela ikusi dugu. Posizio soziala, egitura sozialak determinaturiko lerrokatzeaz gain, berau sorrarazi zuten zedarrak historikoen arabera ere bazen. Aurrerago, posizio sozial hau balio politikoetara iragan behar dela azaldu dugu bozkan eragin ahal izateko. Michiganeko ildoari jarraiki, balio politiko hauek hautesleak bizitzan zehar izandako sozializazio prozesuen bidez sortuak izango dira. Honela, balio politiko hauengan eragina duten hiru oinarriko elementu leudeke: posizio soziala, sozializazioa eta balio aurrepolitikoak. Bukatzeko, testuinguruaren ebaluazioak bozkan eragiten duela azaldu dugu, hautesleen ebaluazioa medio, baina aurretiaz hizpide izan ditugun balio politikoaren isla gisa ere.

Prozesu guztiak hauek kontuan izanik, bozkaren eredu orokorra irudika dezakegu (Campbell *et al.*, 1960):

BOZKA EREDU OROKORRA




Aurkezturikoa bozka eredu bat besterik ez dela esan beharrean gaude. Eredu honek korronte ezberdinen aldagaiak barneratzen ditu baina posizio soziala eta hortik erator daitezkeen balio politikoen eraginari azpimarra egiten dio. Egun, hauteskunde portaera aztergai duten ikerlari askok eredu honetan hauteskunde testuinguru bezala deitu dugunarengan arreta berezia ipini dute, ideologia, alderdi identifikazioa edota beste identitate sendoen eragina bigarren maila batean utziaz. Honela, aldagai makrosozialen eraginari azpimarra egiten diote (besteak beste, sistema politikoa, alderdi sistema edota hauteskunde sistema), aldagai mikrosozialen (adina, generoa, hezkuntza, klase soziala, besteak beste) eraginean ohikoa izan den begiradatik aldenduaz.

Jarraian maila teorikoan azalduko bozkaren eredu orokorra EAEko ingurumariara moldatzeko saiakera aurkezten dugu. Bertan, kapitulu honetan zehar, eta EAERI begira, hizpide izan ditugun posizio sozialean eta balio politikoen baitan koka ditzakegun aldagai nagusiak barneratu ditugu. Hurrengo kapituluetan hauteskunde portaera eta portaera politikorekin loturiko datu enpirikoei heltzen diegu eta bertan ere hemen aipatzen ditugun aldagaien eragina hizpide izan dugu; bozkan edota independentismo nahiei dagokienean, esaterako. Azterketa enpirikoan ikusiko dugun bezala, gurean ere, posizio soziala definitzen duten aldagai edo *cleavage* soziodemografiko ezberdinek, gero eta eragin gutxiago daukate hauteskunde portaera azaltzeko orduan. Beste autoidentifikazio aldagaiek

aldiz, nortasun nazionala eta nazionalismoak, eragin zuzena dute euskal herritarren hauteskunde portaeran. EAeko bozka ereduak bi fase ezberdin lituzke; lehenengoan abertzale/ez abertzale lerrokatze baten aurrean geundeke, bigarrengoan faktore ezberdinek eragin dezakete; hala nola, ideologiak, hauteskunde ingurumaria edota hautagaien balorazioak, besteak beste.

BOZKA EREDUA EAEn



Hala eta guztiz, bozka eredu orokorrari jarraiki eta bigarren kapitulu honetan aipatu ditugunei begirada luzatuaz, jatorria litzateke EAEn posizio soziala gehien determinatuko lukeen ardatza. Honek eragina du euskal herritarren balio aurrepolitikoetan, bereziki nortasun nazionalari dagokionean, eta era berean, euskal herritarrok bizitako sozializazio politikoarekin hertsiki lotua dago. Nortasun nazionalaren balio aurrepolitikoaren nazionalismoaren balio politikoan bilaka daiteke eta, bilakatzen da, modu honetara, hauteskunde portaera, bozka, baldintzatuz. Bozka ereduaren eragina duen hirugarren ardatza hauteskunde testuinguruarena litzateke eta gurean orain artean hautagaien balorazioak eragin handiegirik ez bazuen ere, alderdi identifikazioarekin hertsiki lotua egotean, posible da Podemosen balizko sarrera honek aldagai honen eragina berriro indartzea gurean ere. Bestetik, eta EAeri erreparatuz, bozka baldintzatzeko aldagai garrantzitsua litzateke uneko alderdi abertzale/ez abertzaleen arteko indar korrelazioa.

Horren adierazgarri litzateke 2001eko hauteskunde autonomikoetako ingurumaria, non alderdi espainolisten garaipen baten beldurrez, herritar askok EAJra bozka transferentzia egin zuten. Agerian geratu zen orduan balizko indar korrelazio aldaketa batek herritarrak mobilizatu zituela eta hauteskunde kanpainak eragin zuzena izan zuela. Hizpide ditugun 2001eko hauteskundeetan etnokrazia agerikoa dela uste dugu. Batetik, eta aipatu bezala, indar espainolisten beldur EAJri bozka eman zioten herritar kopuru handiari erreparatuz, baina baita ere “kudeaketaren etnokrazia” bezala uler dezakeguna aintzat hartuaz. 2001eko hauteskundeetan ez abertzaleen portzentaje esanguratsu batek ere EAJri bozka eman ziotenaren ustea dugu, abertzaleen, zehazkiago, EAJren kudeaketa onaren premisan oinarrituaz. Hau da, EAJren ideologia nazionalistarekin bat egin ez arren, nahiago izan zuten nazionalisten aldeko bozka eman, indar espainolistek kudeaketa gaitasuna hein batean kolokan utzia.

Pallaresek 2001eko hauteskunde autonomikoez egindako analisisian azken auzi honi heltzen dio. 2001ean EAJk 604.222 bozka jaso zituen, 1998an baino 150.000 bozka gehiago. Bere ustez, emaitza hauen haritik eginiko lehen interpretazioak oker zeuden; EAJk irabazitako bozka kopuru osoaren erdia besterik ez baitorke EHTik. Ildo honetan, Pallaresek dio 80.000 bozka inguru EHko boto-emaile ohienak izan zirela, baina gainontzeko 70.000ak sektore moderatuetatik etorri zirela. Pallaresek sektore moderatuak aipatzen ditu eta, hauek, 2001ean EAJri bozka emateko izan zituzten arrazoi batzuk luzatzen ditu. Bere ustez, abertzaleak izan gabe ere, herritar askok EAJrengan botu segurtasun bat ikusi zuten, PP arradikal bat buru zuen gobernu batek sorrarazten zien ziurgabetasunaren aurrean. Honela, egokiagotzat ikusi zuten EAJk lideratutako gobernu bat une hartan EAEn baitan zen prozesu politikoa aurrera eramateko (Pallarés, 2002).

2001eko hauteskunde autonomikoetako emaitzek beraz, interpretazio erpin ugari ditu. Abertzaleen etnokrazia agerikoa izan zen, baina ez abertzaleen sektore batek ere beste izaera bateko etnokrazia bat irudikatu zuela esan genezake. Kudeaketa etnokrazia aipatu dugu aurretik eta Pallaresen hipotesiari helduz, kudeaketa hau oso era zabalean ulertua izan daitekeela agerikoa da. Gai ekonomiko eta instituzionalen kudeaketa gaitasunaz haratago, Pallaresek prozesu politikoa bideratzeko kudeaketa egokiago baten ideia barneratzen du berak sektore moderatu bezala izendatzen dituen zenbait herritarrek ere 2001ean EAJri bozka emateko argudio gisa.

Baina 2001eko hauteskunde autonomikoez haratago, 2009koek ere erakutsi zuten euskal herritarren artean dagoen etnokraziarekiko aldekotasuna. Izan ere, 2009ko hauteskunde autonomikoak eta gero, Patxi López buru zuen PSEk gobernua osatu zuenean, herritar batek baino gehiagok adierazi zuen, emaitza hori izango zela aurrez jakinez gero, EAJri eman izango liokeela bozka. EAEren historia motzean lehen aldia zen abertzalea ez zen lehendakari bat izatea, eta ikusiriko erreakzioek agerian utzi zuten herritarren artean, agian azaleratua ez zen, baina bai barneratua zegoen etnokraziarik badela. PSE eta Patxi López abertzale askorentzat ez ziren *gu*-aren parte, *gu* hori abertzaleei mugatuz. Esan beharra dago ere, une horretan Ezker Abertzalea legez kanporatua izateak ere izan zuela eraginik, bestela zenbakiek ez ziotelako aukerarik emango Patxi Lópezzi lehendakari izateko. Hala eta guztiz, eta hein batean, PSE eta Patxi Lópezen gobernua kritikatu, eta zenbaitetan arbuiaitzeko, erabilitako argudio honen atzean, abertzalea ez zen gobernu baten onarpen eza dagoela uste dugu.

EAEko bozka ereduaren marrazte bidean, klase sozialaren *cleavagea* eta ezker-eskuin ideologiaren balio politikoa eskematik kanpo utzi ditugu. Honek ez du ukatzen euskal herritarren bozka baldintzatzeko orduan ez dutela eraginik, baina kapitulu honetan aipatu moduan, nazionalismoaren ardatzaren araberrako bozka aukera gailentzen denaren ideia berresten dugu. Hauteskunde portaeraren azken ikerketek testuinguru politikoa eta aldagai makrosozialei erreparatzen badiete ere, EAEko hauteskunde portaeran, Rokkan eta Lippsetek hizpide duten jatorriaren *cleavagea* indarrean dagoenaren ideia berresten dugu. Jatorria eta nortasun nazionalak eragin zuzena du nazionalismoan eta honek, bozka abertzalean, azken bi hauen arteko harremana erabatekoa ez den arren.

3. Bozka abertzalearen argibide-faktore batzuk

Aurreko atalean hauteskunde partehartzean eragiten duten faktore ezberdinei erreparatu diegu. Oraingoan, bozka abertzaleari zuzenduko diogu begirada, bozka honetan eragin dezaketen faktore edo aldagaiak azaltzeko asmoarekin. Posizio sozialaz aritu garenean, jatorriak, zehazki, nortasun nazionalaren ereduak, bozkan zer nolako eragina izan zezakeen azaltzen genuen. Balio aurrepolitikoez hitzegin dugunean, nortasun nazionalaren balizko eragina aipatu dugu eta balio politiko bilakatu daitekeen heinean, nazionalismoan hain zuzen ere, bozkan eragina izan

dezake. Honetaz gain, aurretik azaldu dugu ingurumaria batzuetan alderdien lehia ez dela balio politiko bakarrean oinarritzen. Irlanda, Belgika, Katalunia edo EAERI begiratzuz, alderdiak ezker-eskuin ardatzean kokatzeaz gain, nazionalismoaren ardatzean ere kokatzen direla ikusi dugu eta hortaz, bi dimentsioetako lehia espazio baten aurrean geundeke. Ardatz hauei emaniko garrantzia ezberdina izan daiteke eta hauteskunde mota ezberdinen arabera bata ala besteari lehentasun handiagoa eman diezaiokie hautesleak.

3.1. Nortasun mobilizazioa, hizkuntza eta jatorria

Zergatik hautesle batzuek bozka abertzalea ematen dute eta beste batzuk ez? Ze faktore indibidualek dute eragin gehien? Zer nolako eragina du nortasun nazionalaren aldarrikapenak? Eta ezker-eskuin ideologiak? Faktore sozioekonomikoek badute eragina? Galdera hauei erantzun asmoz Pérez-Nievas eta Bonetek Europa mailako zortzi alderdi nazionalisten inguruan eginiko ikerketa bateko emaitza eta azalpenak izango ditugu hizpide (Pérez-Nievas eta Bonet, 2005).

Ikerketa honetan hiru estatuetan bananduriko zortzi alderdi nazionalista dira aztergai baina atal honetan, EAE eta Kataluniari buruz aterako ondorioak soilik aipatuko ditugu, eta alderdici buruz ari garenean EAJ/EA, CIU eta ERCra mugatuko gara, horiexek baitira ikerketa honetan EAE eta Kataluniari begira aztertutako alderdi nazionalistak. Bozka abertzalea baldintzatu dezaketene faktore nagusiei hurbildu asmoz, nortasun mobilizazioak eta lurralde mobilizazioaren pisu ezberdinaren nondik norakoak ikusiko ditugu herrialde eta alderdi ezberdinei erreparatuz.

a) Hizkuntza nortasun mobilizazioaren elementu gisa

EAEn eta Katalunian hizkuntza autoktonoaren erabilera hertsiki lotua dago nortasun nazionalarekin. Euren nortasun nazionala estatukoa dela adierazten dutenek, euskararen eta katalanaren ezagutza oso baxua dute eta alderantziz, euren nortasun/leialtasuna nazionala naziokoa, kasu honetan, EAE edota Katalunia, dela adierazten dutenen artean askoz handiagoa da euskararen eta katalanaren ezagutza.

Halere, kontuan hartu beharrekoa da euskara eta katalanaren ezagutza maila oso bestelakoa dela. Euskal nazionalismoa eta katalandar

nazionalismoa konparatuz, Conversik hizkuntza erregionala nagusia den herrialdeetan hizkuntza nazionalismo politikoaren balio nagusi bilakatzea errazagoa dela dio, eta hortaz, nortasunaren osagai indartzaile bat, Katalunia kasu (Conversi, 1997:166-182). Alderantziz, hizkuntzaren erabilera minorizatua bada, eta hortaz, herritarren arteko banaketa sor badezake, nazionalismo politikoak beste balore nagusi bat aukera dezake, hizkuntza bigarren maila batean kokatuz nortasunaren osagai indartzaile bezala, Euskal Herrian bezala. Hizkuntzari buruzko auzi hau Conorren lehen hiru hipotesietan era sakonago batean ikusiko dugu.

b) Jatorria

EAEk, Kataluniak bezala, Espainiako fluxu migratzaile handiak jaso zituen eta, bietan, jatorriak bozkan duen eragina agerikoa da. Nortasun nazional bakarra, euskal edo kataluniar nazioarena, dutela adierazten duten herritar gehienak EAEn edo Katalunian bertan jaiotakoak dira. Hortaz, autoreen arabera, jatorria ere nortasun mobilizazioaren elementua litzateke. Kapitulu honetan aipatu dugun jatorria hortaz hertsiki loturik legoke herritarren nortasun nazionalarekin EAE eta Kataluniako ingurumarietan.

c) Lurralde mobilizazioa

Alderdi nazionalistak, nortasun mobilizazioaz gain, lurraldean ere oinarritu dira. Alderdi nazionalisten aldarrikapen nagusienetako bat autogobernu mota ezberdinekin loturiko estatuaren boterearen lurralde berrantolaketa bat izan ohi da (Türsan, 1998:6 *in* Pérez-Nievas eta Bonet., 2005:131). Aldarrikapen nazionalistatetan nagusi den autogobernu eskaera nortasun mobilizazioarekin hertsiki lotua egon daiteke. Kasu hauetan, autogobernuak talde minoritarioaren *empowerment* bitarteko gisa funtzionatzen du eta, bere aldarrikapena talde nazionala bezala aurkezten den gutxiengo taldearen existentziaren bitartez legitimatzen da.

Dena den, nortasun eta lurralde mobilizazioa batera joan badaitezke ere, lurralde mobilizazioa nortasunen arteko gatazketatik haratago doazen interesei erreparatuz egin daiteke. Besteak beste, autogobernu aldarrikapenak lurralde konkretu bateko herritar guztien mesedegarri bezala aurkez daitezke, aldarrikapenak taldeari hain loturik aurkezten ez direlako, edota taldea lurraldeari bakarrik loturiko irizpideen arabera definitzen delako, eta ez aurretiaz aipatu ditugun hizkuntza eta jatorria bezalako nortasun elementuen arabera. Modu honetara, talde minoritario nazionalaren balizko legitimatzaile izateaz gain, herritarrek autogobernu

aldarrikapenak babes ditzakete, honek, euren ongizate materiala hobetu dezakeelako, edota deszentralizazioak, erabakiak herritarrengana gerturatzean demokraziaren kalitatea hobetu dezakeelako.

Pérez Nieves eta Bonetek eginiko ikerketaren emaitzen arabera, EAEko eta Kataluniako alderdi nazionalisten hauteskunde mobilizazioaren oinarrian nortasun mobilizazioa eta lurralde mobilizazioa leudeke. CIUren kasuan bakarrik ikus dezakegu eragin gehiago duen beste faktore bat, boto-emaileen kokapen ideologikoa, hain zuzen ere. Ezker-eskuin ardatzak badu eragina kasu honetan, eta boto-emaileak eskala ideologikoan gero eta eskuinerago kokatuz, koalizioa bozkatzeko aukera gehiago dute. Ikerketa honen arabera gainera, ERCren kasuan nazio identitateak eta kokapen ideologikoak pareko eragina izango luke. EAJ/EAREN kasuan aldiz, ideologiak ez luke pisurik izango bozkan. Gainera, CIUk boto-emaileak lurralde eta autogobernuaren aldeko argudioei helduz mobilizatzen dituen bitartean, ERC eta EAJ/EARI dagokionean, nortasun nazionalari erreparatuko diete. Dena den, ERCren kasuan, nortasunek kokapen ideologikoaren adineko indarra dute. Aipatzekoa da ere, ERC alderdia dela bere hautesleak bi faktoreen bidez mobilizatzen dituen bakarra: nortasuna eta lurraldearentzako autogobernu aldarrikapena.

Hizpide ditugun lurralde eta nortasun mobilizazioetatik haratago, beste faktore batzuek ere eragiten dute bozka abertzalean: CIU eta EAJ/EAREN (azken honi autonomikoetan) bozka ohikoagoa da gizonezkoen artean. ERCrena aldiz, gazteen artean. Estratifikazio sozialaren aldagaiei dagokionean, eragina CIUn bakarrik ikusi ahal izan da, eskulangile kualifikatuek koalizioari bozka emateko probabilitate gutxiago dute inoiz enplegurik izan ez dutenekin alderatuz. Bestalde, katoliko bezala definitzeak efektu baikorrak ditu CIUren bozkan hauteskunde orokorretan, eta EAJ/EAN hauteskunde autonomikoetan. Edozein kasutan, generoa, adina, erlijioa eta ezaugarri sozioekonomikoak ahulagoak dira bozka abertzalea azaltzeko nortasun edo/eta autogobernu aldarrikapenak baino, eta CIU eta ERCren kasuan, kokapen ideologikoa baino.

EAJ/EA eta ERC dira nortasun mobilizazioa agerikoen duten alderdiak eta hain justu, alderdi hauek dira hauteskunde deialdi ezberdinetan fideltasun gehien duten alderdiak. Lipset eta Rokkanek azaltzen duten bezala (1967), politikan auzi eta arazo berriak sortzen badira ere, gizarte egiturako banaketa klasiko eta lerrokatzeak oso astiro aldatzen dira. EAE eta Kataluniako ingurumaria politikoen, jatorritik eratorritako nortasun

nazionala banaketa ardatz esanguratsua da, eta leialtasun estuko atxikimendu politikoa adierazten dute egun ere. Hiru alderdi hauetako boto-emaileek fideltasun handia erakusten dute; CIUkoen botu leialtasuna aldiz, erdi mailakoa dela esan genezake.

Katalunian deialdi motaren arabera ikusten diren emaitza ezberdinak bi portaera indibidualen arabera izan daitezke. Bata, deialdiaren arabera alderdi nazionalista eta estatu mailako alderdien artean ematen den bozka transferentzia (PSC eta CIUren artekoa bereziki), *bozka duala* deritzaiona eta, bigarrena, hauteskunde autonomikoetan, orokorrekin alderatuz, eman ohi den abstentzio maila altuagoa, bereziki espainiar nortasuna azaltzen duten boto-emaileen artean (Montero eta Font, 1989,1991; Pallarés eta Font, 1994 in Pérez-Nievas eta Bonet, 2005:140).

EAEn ere alderdi nazionalistek emaitza hobekoak izaten dituzte hauteskunde autonomikoetan baina *bozka dual* horrek, Katalunian ez bezala, EAEn ia eraginik ez duela esateko moduan gaude. Lleraren aburuz (1994), hauteskunde autonomiko eta orokorren artean eman daitekeen bikoiztasun horrek ez du pautaz zehatzik EAEn, eta ez litzateke Katalunian ematen den fenomenoarekiko konparagarria. Bi hauteskunde mota hauen artean ikusi ahal diren mugimenduak hauteskunde eskaintzetan ematen diren aldaketa eta abstentzioaren gorabeheren bitartez esplikatutakoak izan daitezke. Bestalde, eskaintza nazionalisten aniztasuna medio, EAEn, eskaintza hauen arteko fluxua alderdi nazionalista/espainolistaren arteko bozka duala baino esanguratsuagoa izatea ahalbidetzen du.

II.1. taulan ikus dezakegun moduan, alderdi abertzale eta espainolisten arteko botu transferentzia esanguratsurik ez dugu ikusten hauteskunde deialdi motaren arabera. 2012an EH Bilduri bozka eman ziotela azaltzen duen %77,1ak 2011an Amaiurri bozka eman ziola azaltzen du. %4,1k bozka IUri eman ziola azaltzen du, %5,5ak EAJri eta %6ak Espainiako 2011ko hauteskundeetan ez zuela bozkatu azaltzen du. Hortaz, kasu honetan, ikus ahal ditugun transferentzia txikiak ez dute loturarik abertzale/ez abertzale ardatzaren arteko balizko botu transferentzia batekin. EAJri dagokionean botu leialtasuna are eta handiagoa da; 2012an bozka eman zion %88,1ak 2011an ere bozka eman ziola adierazten du; %4,5ak 2011an PSOE bozkatu zuen eta %3,1ak ez zuen bozkarik eman 2011ko hauteskunde orokorretan.

PSOEn kasuan ere antzeko pautaz bat ikus dezakegu; 2012an bozka eman ziotenen %83,8ak 2011an ere bozka eman ziola azaltzen du. %4,6ak

2011ko hauteskudeetan IU bozkatu zuela azaltzen du eta %4,6ak ez zuela inongo bozkarik eman. Hortaz, EAEko hauteskunde portaerari dagokionean hauteskunde deialdiaren araberrako alderdi lerrokatze ezberdinik ez dugu antzematen. EAJ eta PSOEn arteko botu-transferentziarik ia ez da eta, hortaz, Kataluniako *bozka dualaren* islarik ez da gurean. Katalunian bozkatzeko modua espainolagoa da, identitateak bateragarriago ikusten dituzte eta.

II.1. Taula: 2012ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapena eta 2011ko hauteskunde orokorretako bozka oroitzapena (% bertikalak) (2013)

	EHBildu	IU+EB	EAJ	PP	PSE-EE
Amaier	77,1	5,4	0,0	0,0	0,0
IU	4,1	73,0	0,0	0,0	4,6
EAJ	5,5	2,7	88,1	0,0	0,0
PP	0,5	0,0	0,7	84,4	1,5
PSOE	0,0	5,4	4,5	9,4	83,8
UPyD	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5
Besteren bat	1,4	8,1	1,0	0,0	0,0
Txuriz	0,9	0,0	1,4	0,0	0,0
Adinik ez	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez zuen bozkatu	6,0	2,7	3,1	3,1	4,6
ED/EE	3,7	2,7	1,0	3,1	3,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Iturria: Enskobarometroa (2013)

Nortasunean oinarrituriko mobilizazioak beste mobilizazio estrategia batzuk baino lotura sendoagoak sortzen dituela esatera ausartu gaitezke. Alderdi nazionalista bat baino gehiago den ingurumarietan alderdiek mobilizazio espezializazio baterako joera erakutsi ohi dute, nortasunean oinarriturikoa EAJ/EA eta ERCren kasuan, lurralde mobilizazioan oinarriturikoa CIUren kasuan. Ondorioz, eta hauteskunde portaerari buruzko ikerketa berriek posizio eta balio politikoekin harremanuriko aldagaien eragina auzitan ipintzen badute ere, gurea bezalako ingurumaria politikoa eragin zuzena dutela esateko moduan gaude. Aldiz, eredu arrazionalaren ereduarekin loturiko bozka pautak, edota testuinguru politikoa edota faktore makrosozialek ez lukete eragin handiegirik.

Ikerketa honetan ikusirikoa, Europako alderdi nazionalisten faktore mobilizatzaile nagusien lehen gerturapen bat izan daiteke. Aurreko atalean, posizio soziala eta balio politikoak hizpide izan ditugunean,

testuinguru batzuetan ezker-eskuin ideologia ez zela bozka determinatzen zuen faktore bakarra, edo nagusia, azaldu genuen. Horretaz gain, zenbait balio aurrepolitikoek, nortasun nazionala kasu, balio politikoetan bilakatuz gero, bozkan eragina zutela azaldu genuen. Ikerketa honen ondorio nagusiek agerian uzten dute, alderdi nazionalisten boto-emaitzen mobilizazio faktore nagusiak, nortasun nazionala eta lurralde antolaketa edo autogobernuan oinarritzen direla. Zenbait kasutan, ezker-eskuin ideologia ere. Faktore indibidualek aldiz, ez dute ia eragin handiegirik, estratifikazio sozialeko aldagai ezberdinak kasu. Dena den, honek ez du ukatzen eraginik ez dutenik, baina horretarako aurreko atalean azaldu moduan, balio politikoetan izan beharko lukete isla.

Hala eta guztiz, erabateko ondorioz ez dugu atera nahi. Ikerketa honetarako lagina, baliagarria da Europako alderdi nazionalisten mobilizazio estrategien lehen hurbilketa baterako, baino lurralde bakoitzeko lagin mugatuak ez du ahalbidetzen ondorio gehiago aurreratzea. Beste bi ñabardura ere egin beharrean gaude interpretazioak testuinguru egokian kokatzeko. Kataluniari dagokionean inkestaren dataren ondorengoak dira azken urteetan Kataluniak bizi izan dituen mobilizazioak eta independentziaren aldarriaren indartzea. Bestalde, alderdi nazionalisten azterketari dagokionean, agerikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen hutsunea, Ezker Abertzalearen hauteskunde adierazpenik ez baitute kontuan izan. Kataluniaren kasuan, ezker-eskuin eskala ideologikoan ezberdin kokatzen diren alderdi nazionalisten arteko konbaraketa egin da, baina EAERen kasuan lagina EAJ-EAren boto-emaitetara mugatu da. Hortaz, EAJ/EAren boto-emaitengan ezker-eskuin ideologiak bozkan eraginik ez duela ikusi arren, ondorio hori ezin dugu orokortu gure esparruko alderdi abertzale orori.

Laburbilduz, Europako alderdi nazionalisten eragin faktoreen mapa orokor bat aurkeztu dugu eta bertan kokatuak daude EAERen lehen indar nazionalistaren mobilizazio estrategiaren nondik norakoak.

3.2. Nortasuna eta ongizatearen dimentsioak eta independentzia

Aipatu berri dugu, ze alderdik lehenesten duten lurralde mobilizazioa, eta ze alderdik erabiltzen duten mobilizazio identitarioa hauteslegoan babesa lortzeko. Baina alderdi nazionalisten mobilizazio iturrietatik haratago,

independentzia nahien inguruan eragin dezaketen faktoreen inguruko aipu bat ere egin nahi dugu. Horretarako, Ivan Serranok (2013) Kataluniako herritarren parte batek independentzia/sezesioaren aldeko hautuaren nondik norakoak aztertu dituen artikulu bati erreparatuko diogu. Bertan, estatu deszentralizatu baten baitan biztanleriaren zati batek independentzia edota sezesioa babestearen arrazoiak aztertuko ditu, horretarako bi dimentsio hauek kontuan izanik : nortasunarena eta ongizateari dagokiona.

Nortasunaren dimentsioari begira, datuek agerian uzten dute nortasun subjektiboa eta lehenetsitako estatu ereduaren/antolaketaaren harremana oso estua dela. Halere, kontuan hartu behar da harreman hori ematen duena baino konplexuagoa dela eta erping ugari dituela (Pattie *et al.*, 1999:309; MacCrone eta Paterson, 2002; Paterson, 2003; Johns *et al.*, 2009:211 *in* Serrano, 2013:526). Nortasun nazionala era ezberdinean definitua izan daiteke; Serranok, nortasun nazionala ardatz sozialean gizanakoek duten posizio indibiduala bezala ulertzen du. Posizio hori, sozializazio faktore ezberdinen konbinazio eta interakziotik sortzen da. Almond eta Verba (1989) edota Lipset eta Rokkanek (1992) azpimarratu bezala, posizio sozialak, ez daude beti politizatuak, eta hortaz, adierazpen eta intentsitate politiko ezberdinak har ditzakete. Ondorioz, ezin dugu nortasun subjektiboa nazionalismoaren adierazletzat hartu zuzenean, gizabanakoen identifikazio horiek jarrera eta lehentasunen politikoetan nola islatzen diren aztertu beharko da.

Kataluniaren inguruko azterketa ezberdinek, bertako herritarren nortasun bikoitz eta bateragarria izan dituzte hizpide (Llera, 2009:313). Azken urteetan nortasun subjektiboaren baitan aldaketa esanguratsuak eman dira. 1979an, katalana gehiago, edo kalatalana bakarrik bezala definitzen zen biztanleriaren %24a, gaur egun portzentajea %40ra iristen da. Bestalde, espainola bakarrik, edo espainola gehiago bezala definitzen direnak, %33tik %15era iragan dira. Hortaz, nortasun bikoitz horrek garrantzia izaten jarraitzen badu ere, Kataluniako nortasun egituraren baitan eman diren aldaketak esanguratsuak dira. Aldaketa hauek gainera, nortasun subjektiboa eta lehentasun politikoaren arteko harremanaren konplexutasuna agerian uzten dute. Nortasun nazionala, ingurumaria konkretu batean aktibatua izan daiteke, baina horrek ez du zertan eragin zuzena izan behar banaketa edo independentziaren aldeko jarreteran (Hale, 2008:39 *in* Serrano, 2013:528). Hau da, nazio identitatearen indartzea ez da zertan islatu behar, edo ez maila berean, herritarren estatu

egituraren edo ereduaren inguruko hautuan. Elkarrekintza hau ere hizpide izango dugu Conorren hipotesiak aztertzen ditugunean.

Estaturik gabeko nazioak konparatuz, nortasuna eta independentziaren aldeko hautuaren babesaren arteko harreman eredu ezberdinak ikus ditzakegu. Honela, Katalunian nazio identitatea (katalana gehiago edo katalana bakarrik) herritarren %45ak adierazten du, EAEn %50ak eta Eskozian %60ak. Halere, independentziaren hautuaren babesa Katalunian handiagoa litzateke aipaturiko beste bi herrialdeetan baino. Katalunian azken urteetan autogobernua eta independentziaren aldeko jarrerak handitu egin dira, nazio identifikazioaren egitura maila berean aldatu ez bada ere. Eta hortaz, beste aldagai batzuk ere kontuan izan beharko dira independentismoaren gorabeheren nondik norakoak aztertzeko orduan.

Hauteskunde datuei erreparatuz, Katalunian, independentziaren hautua babesten duen %56ak bakarrik bozkatu ohi die alderdi abertzaleei. Bestalde, alderdi abertzaleei bozkatzeko dieten %24ak ez du independentzia babesten. Hortaz, bozka ezin da ardatz edo auzi bakar batera mugatu eta dimentsio ezberdinak aztertu beharko dira.

Kataluniako independentziaren aldeko jarrerak aztertzeko, bigarren dimentsio bat ere aztertu behar dugu, ongizatearena. Estaturik gabeko nazioetako diskurtso nazionalistek ongizateari ere egiten diete erreferentzia, sezesioaren onura politiko eta ekonomikoak azpimarratuz. Nazionalismoak izaera bikoitza duenaren tesian kokatu beharko genuke hortaz Kataluniako ingurumaria, non osagai emozionalak eta instrumentalak uztartuko liratekeen (Máiz, 2003:208). Diskurtso nazionalistek, auzi etnokulturalez gain, independentziak ekar litzakeen ongizate politika hobeak eta herritarrekiko gertuagoko gobernuari egiten diete (Sorens, 2005:307).

Serranok eginiko ikerketaren arabera, Katalunian independentziaren alde azaldu direnen %63,5ak ongizatearekin zerikusia duten argudioak dituzte eta, %25,4ak bakarrik erreparatzen dio Kataluniaren nazio izaerari edota bere nortasun subjektiboari, %82,9a katalana bakarrik edo katalana gehiago bezala definitu arren. Hortaz, ezin uka daiteke katalana bakarrik edo katalana gehiago bezala definitzeak lotura estua duela independentziaren babesarekin, baina hautu hau adierazten dutenak, nortasun irizpideak baino, ongizatearekin loturiko argudioei heltzen diete.

Laburbilduz, Katalunian, independentziaren aldeko diskurtso tradizionalan aldaketak nabari ditzakegu, auzi etnokulturaletik haratago, sezesioaren balizko onurei men eginez. Hurrengo ataletan ikusiko dugu era zehatzago batean, eta azken urteetako eboluzioari erreparatuz, EAEko alderdi abertzaleen boto-emaitzen ezaugarriak eta, hemendik abiatuz, lurralde eta nortasun mobilizazioari begira, zeintzuk diren hautu independentista baldintzatu dezaketen norbanakoen faktoreak.

Ildo honetan, gutxiengo etnonazionalaren helburu politikoak zeintzuk diren azaltzen saiatuko gara, besteak beste, Espainiako Estatuarekiko leialtasuna zertan den azalduaz. Aurrera begira, gutxiengo etnonazionalaren xedeari edo xedei helduko diegu, ikusiko dugun moduan, gurean, gutxiengoak etnokraziaz haratago, ez baitu helburu edo proiektu konpartiturik, etnokraziaren kontzeptuaren lausotasuna agerian utziaz. Horretarako, hurrengo orrialdeetan Connorrek gutxiengo etnonazionalen inguruan luzatutako hipotesiak banaka aztertuko ditugu:


1. Gutxiengo etnonazionalaren kideek estatuarekiko talde dominanteko kideek baino afektu gutxiago erakusten dute.
2. Estatu bereko gutxiengoek jarrera ezberdina izan dezakete.
3. Jendartearen gehiengoak ordea, leialtasun hori ez du bai edo ez terminoetan kokatzen. Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen dira.
4. Banaketaren aldeko mugimendua aktiboa den kasu askotan, jende asko, normalean inplikaturik den taldearen gehiengoa, ez da banaketaren aldekoa.
5. Zenbait kasutan, banaketaren aldekoek ordezkaturako portzentajea egonkor mantendu da, beste batzuetan aldiz, aldaketa nabarmenak izan ditu.
6. Banaketarekiko izan dezaketen jarrera kontuan izan gabe, autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema politikoaren aldaketaren aldekoak dira.
7. Banaketaren aldeko alderdiak hauteskundera aurkez daitezkeen sistemetan, bozka ez da sentimendu separatistaren adierazle egokia.

8. Iritzi datuak dauden kasu guztietan, talde etnonazionalak kideak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen dira.
9. Halere, portzentaje esanguratsu batek, banaketaren alde ez dauden asko barne, biolentziaren egileak begiko dituzte eta biolentzia horren errua beste batzuei egozten diete.
10. Banaketaren aldekoek babesak dute maila sozial guztietan eta adin talde ezberdinetan.
11. Babes gehien ordea, hogeita hamabost urte baino gutxiagokoen artean eta batezbestekoa baino hezkuntza eta errenta maila altua dutenengan kokatzen da.
12. Profesionalak gainordezkatuak dira.
13. Babes eza berrogeita hamabost urtetik gorakoengan artean nabaria da.

III. EGOERAREN ARGAZKI BAT

Connorrek luzatutako hipotesien azterketari ekin aurretik, gure aztergai nagusia den independentzia nahia eta berarekin harremandurik dauden beste auzi edo aldagaien bilakaeraren argazki xume bat aurkeztuko dugu. Hurrengo kapituluetan era sakonagoan aztertuko ditugu independentzia nahien eta beste auzien bilakaeraren nondik norakoak.

III.1. Grafikoa: EAEko herritarren independentzia nahien bilakaera (1979-2014)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

1979-2014 aldian independentzia nahien gorabehera batzuk ikusi baditzakegu ere, konstantzia da nagusi, eta EAEko herritarren heren bat inguruk azaltzen ditu independentzia nahi handiak aztertutako aldira.

Herritarren abertzaletasunari dagokionean, orokorrean abertzale bezala eta ez abertzale bezala definitzen diren herritarren pisua beretsua da

EAEn. Aztergai dugun aldiaren hasieran gehiago ziren bere burua abertzale bezala definitzen zutenak, 1989tik aurrera aldiz, gehiago dira euren burua ez abertzaletzat definitzen dutenak. 2011tik aurrera abertzale eta ez abertzaleen pisua oso antzekoa dela ikus genezake. Aldi osoari erreparatuz, hemen ere konstantzia da klabea, eta euren burua abertzale bezala definitzen dutenak %40aren inguruan kokatuko lirateke (ikus III.2. grafikoa).


III.2. Grafikoa: EAEko herritarren abertzaletasunaren bilakaera (1987-2014)



Iturria: Euskobarometroko Serieak


Independentzia nahien eta abertzaletasunaren adierazgarri bezala konstantzia aipatu badugu, nortasun subjektiboaren bilakaeran are eta azpimarragarriagoa da herritarren ezaugarritze hau. Espainiar bezala definitzen direnak %10aren inguruan kokatzen dira aztergai dugun aldiaren. 1983a aurretik ordea, euren burua espainol bezala definitzen zutenen kopurua ia bikoitza zen. Urte horretatik aurrera kopurua txikitu egiten da, eta handitu, euren burua espainol bezain euskaldun definitzen dutenena. Ondorioz, espainiar bezain euskaldun definitzen diren taldea nahiko anitza denaren ustea dugu. Nortasun bikoitza dutenetaz gain, espainiar nortasuna luketen herritar kopuru batek ere bere burua hor kokatzen duela uste dugu. Nortasun euskalduna adierazten dutenen portzentajea ere nahiko egonkor mantentzen du 1992tik aurrera (ikus III.3. grafikoa).

III.3. Grafikoa: EAEko herritarren nortasun subjektiboaren bilakaera (1981-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak


III.4. Grafikoa: EAEko herritarrek Espainiako Estatu ereduaren inguruan duten lehentasunen bilakaera (1977-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak


III.4. eta III.5. grafikoek orain arte esandakoa berresten digute. Independentzia nahiak, abertzaletasuna eta nortasun subjektiboaren bilakaeran konstantzia da nagusi eta estatu ereduaren bilakaeran ere aldaketa urriak ikus ditzakegu. III.5. grafikoari helduaz, azterturiko aldi osoan, EAEko herritarren %30 inguruk egungo Autonomien Estatua lehenetsiko luke eta %60ak aldiz, estatu federal edo independentea lehenetsiko luke.

III.5. Grafikoa: EAEko herritarren Espainiako Estatu ereduaren inguruan duten lehentasunen bilakaera (1977-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

III.6. Alderdi abertzale eta ez abertzaleen bozka bilakaera EAEn (1986-2012)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

III.6. grafikoak alderdi ez abertzale eta abertzaleek izandako bozka bilakaera irudikatzen du. 1986-1994 bitartean alderdi abertzaleek jasotako bozkaren beherakada bat ikusi ahal dugu. 1994tik aurrera aldiz, alderdi abertzaleek eta ez abertzaleek jasotzen duten bozka kopuruaren artean tarte handirik ez dugu ikusten, 2005etik aurrera goranzko tendentzia bat ikus badezakegu ere alderdi abertzaleen bozka portzentajeari dagokionean.

Bukatzeko, hizpide izan ditugun aldagai edo auzi ezberdinak grafiko bakar batean irudikatu ditugu (ikus III.7. grafikoa). Horretarako, tesian zehar gutxiengo etnonazionalako kide bezala definitu ditugun herritarretara mugatu gara, horietatik baitira oinarrian tesi honen subjektu.

III.7. Abertzaleen, euskal nortasun dutenen, estatu independente bat eta independentzia nahi handiak azaltzen dituzten herritarren bilakaera EAEn (1995-2014)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Laburbilduz, aukezturiko argazkiak EAeko gizartearen irudi ia estatiko bat erakusten digu nortasun nazionalarekin harremanduriko auziei dagokiean. Konstantzia honi erreparatzea garrantzitsua iruditzen zaigu gure tesiko aztergai nagusiaren eta hipotesien nondik norakoak kokatzeko eta interpretatzeko. Gainera, eta III.7. grafikoan ikusi bezala, aztertutako aldagaiak harremandurik egonik ere, ez dira berdinak. Euskal nortasuna

adierazten dutenen portzentajea abertzaleena baino handiagoa da, eta abertzaleen portzentajea independentzia nahi handiak adierazten dituztenena baino handiagoa da. Euskaldun guztiak ez dira abertzale hortaz, eta abertzale guztiak ez dira independentziaren aldekoak. Ezberdintasunak hauei erreparatzea ezinbestekoa da EAEko herritarren independentzia nahien nondik norakoak aztertu eta interpretatzeko.

IV. KAPITULUA: CONNORREN JARRERA EREDUA

Kapitulu honetan, Connorrek luzatutako hamahiru hipotesien nondik norakoei helduko diegu. Hipotesiak banan-banan aztertuko baditugu ere, zenbaitetan auzi berdina hizpide dutela ikusirik batu egin ditugu eta eduki beretsua aztergai duten hipotesiak azpiatal berean bildu ditugu.

1. LEIALTASUNA AZTERGAI

Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak estatuarekiko duten leialtasuna aztertzeko honako hiru hipotesiak izango ditugu kontuan:

1. Gutxiengo etnonazionalak kideek estatuarekiko talde dominanteko kideek baino afektu gutxiago erakusten dute.
2. Estatu bereko gutxiengoak jarrera ezberdina izan dezakete.
3. Jendartearen gehiengoak ordea, leialtasun hori ez du bai edo ez terminoetan kokatzen. Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen dira.

Hipotesi bakoitzaren azterketari ekin aurretik, hipotesi hauen azterketarako oinarrian izan dugun ikerketa, eta hipotesietako aldagai bakoitzaren operazionalizazioaren nondik norakoak azalduko ditugu. Azpiatal honetan gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak nola eta ze aldagairen arabera definitu ditugun azalduko dugu. Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak definitze bidean eginiko operazionalizazioa tesi osoan zehar mantenduko dugu gainera.

Connorren jarrera ereduaren lehen hiru hipotesien nondik norakoak aztertzeko, CISeko 2006ko ikerketa bati helduko diogu, *La identidad nacional en España* deiturikoa, hain zuzen ere. Connorrek, bere jarrera ereduaren hainbat hipotesietan estatu berdineko gutxiengo eta gehiengo

etnonazionalei egiten die erreferentzia eta hortaz, estatu barnean egon daitezkeen errealitate edo identifikazio nazional ezberdinak aztertzea ahalbidetuko digun ikerketak izan behar ditugu oinarritzat. Modu honetara, gutxiengo eta gehiengo etnonazional ezberdinen arteko konparaketa egin ahal izango dugu, gure ikerketarako Katalunia eta EAeko laginak aukeratu ditugularik. 2006koa da Espainiako Estatuan nortasun nazionalaren inguruan eginiko azken azterketa eta era berean, herrialde ezberdinetako lagin baliagarriak dituena. Eta hain zuzen ere, horixe izan da, 2667 zenbakidun ikerketa hau aukeratzearen arrazoia Connorren jarrera ereduaren lehen hiru hipotesiak aztertzeko.

Connorren lehen hiru hipotesien aztergai nagusia afektua edo leialtasunarena da. Leialtasun edo afektuaren auzia funtsezkoa da nortasun nazional ezberdinen arteko harremanen nondik norakoak aztertzeko. Izan ere, funtzionatzen duen sistema politiko demokratiko orok herritarrek estatuarekiko duten leialtasuna du bere oinarrian. Boterean dagoen erregimen edo gobernutik haratago, estatuarekiko leialtasuna beste estatu batekiko edo sortze bidean dagoen beste batekiko baino handiagoa izan behar da. Demokrazia eta nazionalismoa batera jaio zirenez zentzu historikoan, eta arrakasta izan zuten lehen demokraziak nazio-estatuak izaki (Suizar Konfederazioa salbu), teorikoek, xede nazional eta prozesu demokratikoen arteko balizko gatazkari ez zieten erreparatu (Linz, 1987). Baina auzi honek hor dirau eta, Connorren jarreraren azterketa medio, gutxiengo eta gehiengo etnonazional ezberdinek estatuarekiko duten leialtasun edo afektua zertan den ikusten saiatuko gara.

Connorrek hizpide duen afektuaren neurketarako, ikerketa honetan nortasun nazionalarekin zerikusia duten *item* ezberdinak aukeratu ditugu. Ondoren, Katalunia eta EAeko gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak jarrerak konparatu ditugu. Hauek dira Connorren lehenengo, bigarrenengo eta hirugarrenengo hipotesiak aztertzeko aukeratu ditugun *item*ak:

- A. *Espainia estatu bat da, eta ez, nazio bat.*
- B. *Gaztelania gure nortasunaren oinarritzako elementua da.*
- C. *Espainiako ereserki nazionala entzuten dudanean, harro nagoen komunitate bateko partaide sentitzen naiz.*
- D. *Agian gaztelania gebiengoaren hizkuntza da, baina galegoa, katalana edota euskara ere espainiar hizkuntzak dira.*
- E. *Espainiak batuta jarraitu behar du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko.*

- F. *Espainiako banderak ez du inongo emoziorik pizten nigan.*
- G. *Konstituzioa era baikorrean baloratzen dut, Espainia baturik mantentzeko bitarteko bat izan delako.*
- H. *Kataluniak, Euskal Herriak eta Galizjak, euren kirol selekzioak izateko aukera izan beharke lukete herritarrek borrela nahi izanez gero.*
- I. *Partekatzen dugun historia da, bere gauza on eta txarrekin, denak espainiar egiten gaituena.*

Behin estatuarekiko afektua edo leialtasuna aztertzeko kontuan izango ditugun *itemak* aurkeztuta, Connorrek hizpide dituen gutxiengo etnonazionalak eta talde dominanteko kideak identifikatzeari ekingo diogu. Inkestatuak gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak irudikatuko lituzkeen taldeetan kokatzeko, honako hiru aldagai hauek aukeratu ditugu:

- a. Nortasun subjektiboa
- b. Nazionalismo eskala
- c. Bozka


A. Nortasun subjektiboa

Nortasun subjektiboari dagokionean, honako erantzun aukerak izan dituzte inkestatuek:

- Espainola bakarrik
- Espainola gehiago euskalduna/katalana baino (espainolagoa)
- Espainola bezain euskalduna/katalana (bikoitza)
- Euskalduna/katalana gehiago espainola baino (euskaldunagoa/katalanagoa)
- Euskalduna/katalana bakarrik


Datuei erreparatuz, bai Katalunian, eta bai EAEn, nortasun subjektiboari dagokionean, inkestatu gehienak hiru erantzun aukera hauetan biltzen direla ikus dezakegu: espainola bezain euskalduna/katalana, euskalduna/katalana gehiago espainola baino eta euskalduna/katalana bakarrik. Katalunian handiagoa da nortasun bikoitza azaltzen dutenen portzentajea; EAEn aldiz, gehiago dira euskaldunak bakarrik sentitzen direnak, Katalunian katalanak bakarrik sentitzen direnak baino.

IV.1.1.Grafikoa: Nortasun subjektiboa Katalunia eta EAEn (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

VI.1.2.Grafikoa: Euskal eta katalan nortasuna Katalunia eta EAEn (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bi herrialde hauetako ezberdintasunen oinarrietako bat da gainera aipaturiko banaketa. Batetik, nortasun bikoitza azaltzen dutenen pisu ezberdina, eta bestetik, nortasun subjektibo berdina izanik ere, herritarrek azaltzen dituzten jarrera ezberdinak aurkeztutako zenbait *itemetan*. Jarraian hizpide izango ditugun 2006ko datuetan agerikoa da, euskaldunek ez bezala, katalanek orokorrean, errazago uztartzen dutela euren nortasun katalana nortasun espainolarekin. Euskaldunak bakarrik edota euskaldunagoak bezala definitzen direnak aldiz, auzi gehienetan, bi

nortasunen arteko kontrajartze bat irudikatzen dute, bataren berrespena bestearen ukazio gisa islatuz.

Item ezberdinetako datuak aztertzerakoan, kategoria bakoitzean erantzun aukera ezberdinek duten pisua ere aintzat hartu behar dugu. Espainolak bakarrik edo espainolak gehiago bezala definitu direnen portzentaje txikia dela eta, nortasun subjektiboari dagokionean, talde dominanteetako kideez aritzean, bereziki, nortasun bikoitza azaldu dutenak izango ditugu erreferentziatzat.

B. Nazionalismo eskala

Nazionalismo eskalari dagokionean inkestatuei 0tik 10era doan eskalan autokokatzeke eskatzen zaie, 0 gutxieneko nazionalismoa izanik eta 10 gehienezko nazionalismoa. Inkestatuek hortaz, 11 erantzun aukera dituzte. Eragiketa estatistikoak eta gutxiengo eta gehiengo etnonazional bezala definituko ditugun taldeei hurbildu asmoz, nazionalismoaren aldagaia errekodifikatu dugu. Horretarako EAEn eta Katalunian, nortasun subjektiboaren aldagaia hartu dugu oinarritzat eta nortasun subjektibo bakoitzean kokatu direnen nazionalismo maila (batezbestekoa) izango dugu kontuan:

- Espainola bakarrik, EAEn: 1,77/Katalunian 2,22
- Espainola gehiago euskalduna/katalana baino: 2,37/2,93
- Espainola bezain euskalduna/katalana: 4,34/4,79
- Euskalduna/katalana gehiago espainola baino: 6,34/7,09
- Euskalduna/katalana bakarrik: 8,14/8,84


Katalan gutxiagok lehenesten dute bere identitate propioa, hau da, katalanak gehiago edo katalanak bakarrik definitzen direnen portzentajea euskaldunak gehiago edo euskaldunak bakarrik definitzen direnena baino baxuagoa da (ikus IV.1.1. grafikoa). Baina era berean, nortasun kategoria ezberdinetan kokatzen diren katalanek nazionalismo maila handiagoa erakusten dute. Ezberdintasun honen gakoetako bat Katalunian katalanitate kulturalak duen irismen zabal eta anitzagoa izan liteke, aipaturiko intentsitate hori katalanitate politiko indartsuago batean ez bada egikaritu ere, orain artean behinik behin.

EAEko inkestatu guztiak kontuan izanda, nazionalismo eskalan lortutako batezbestekoa 5,45 da, Katalunian 5,61. Horretaz gain, bai EAEn eta bai

Katalunian, inkestaturen gehiengo esanguratsu batek bere burua nazionalismo eskalan 5ean kokatzen duela ikusi dugu. Bi herrialdeen arteko ezberdintasunei erreparatuz, Katalunian nortasun subjektibo ezberdinetan kokatzen diren herritarrak, euskal herritarrak baino nazionalismo maila indartsuagoa erakusten dute.

Nazionalismoaren aldagai honen errekodifikazioaren nondik norakoak azaltzeko, nazionalismo eskalan azaldutako autokokapena nortasun subjektiboarekin gurutzatu dugu bai EAEn eta bai Katalunian.

IV.1.3. Grafikoa: EAEko herritarren nortasun subjektiboa nazionalismo eskalaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


IV.1.3. grafikoan ikusi ahal dugu nazionalismo eskalan 0tik 5era kokatu direnen gehiengoa honako nortasun subjektiboetan biltzen dela: espainola bakarrik, espainola gehiago edota espainola bezain euskaldunean. Aldiz, euren burua 6 edo 7an kokatu dutenen gehiengoa euskalduna gehiago sentitzen da espainola baino, eta 8, 9 eta 10ean kokatu direnen gehiengoa euskalduna bakarrik sentitzen da. Datu hauek kontuan izanik eta 5ean kokatu direnak, 4ean kokatu direnengandik gertuago daudela ikusirik (6ean kokatu direnak baino), modu honetara errekodifikatu dugu nazionalismo eskalaren aldagaia:

- 0 eta 5 artean kokatuak: ez abertzaleak.
- 6 eta 7 artean kokatuak: abertzale moderatuak.

- 8 eta 10 artean kokatuan: abertzale arradikalak.

Kataluniako datuei begiratzan badiegu, EAEn bezala, nazionalismo eskalan 0tik 5era kokatu direnen gehiengoak honako nortasun subjektiboa azaltzen du, espainola bakarrik, espainola gehiago edota espainola bezain katalana. Aldiz, euren burua 6 edo 7an kokatuko dutenen artean, gehiengoak, katalana gehiago edota katalana bezain espainola sentitzen da. Hortaz, nazionalismo eskalan 5ean edo beherago kokatu direnenekiko talde ezberdina osatuko lukete, baina EAeko banaketarekiko pautaz ezberdinak jarraituz (ikus IV.1.4. grafikoa).

IV.1.4. Grafikoa: Kataluniako herritarren nortasun subjektiboa nazionalismo eskalaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Ezin dugu ahantzi nortasun bikoitzak indar handiagoa duela Katalunian eta gainera nazionalismo eskalan izandako kokapen ezberdinetan duela babes handia. EAEn, euren burua 6 edo 7an kokatu dutenen artean, euskaldunak gehiago izatearen nortasuna gailentzen da eta pisu baxuagoa du nortasun bikoitzak. Katalunian ere, tarte horretan kokatzen direnen artean gehiago dira katalanak gehiago sentitzen direnak, baina ia portzentaje berean kokatzen dira nortasun bikoitza azaltzen dutenak. 0tik 10eko eskalan 8, 9 edo 10ean kokatu direnen artean aldiz, katalana gehiago edo katalanak bakarrik direla esaten dutenak nagusitzen dira. Hori bai,

EAErekin konparatuz, 8 eta 9an kokatzen direnen portzentaje esanguratsu batek nortasun bikoitza duela azaltzen du eta 10ean kokatu direnen artean bakarrik nagusitzen da “katalana bakarrik” aukera.

Hortaz, EAEn inkestatuentzako erabili dugun eskala berdina erabiliko dugu Katalunian, 0-5, 6-7 eta 8-9-10 erantzun dutenak talde ezberdinak direla ulertuaz. Bi herrialdeen arteko ezberdintasuna, hiru talde horietan kokatzen direnen jarrera ezberdintasunean antzeman dezakegu. Abertzale moderatuei erreparatuz, Katalunian indar gehiago du nortasun bikoitz subjektiboak, eta abertzale arradikalei erreparatuz, gutxik erantzun dute katalanak bakarrik direla. Agerikoa da hortaz, Katalunian, gutxiengo etnonazionalak barne, nortasun nazional ezberdinak bateragarriago ikusten direla eta, aldiz, EAEn abertzaletasunak nortasun bakarra izango luke oinarrian.


Nolanahi ere, eta bereziki Katalunian azken hiru urteetan emandako bilakaerari erreparatuz, Kataluniako eta EAeko abertzaletasunak izandako oinarrietan posizio aldaketarik ikusi baduenik ere bada. Ildo honi jarraiki, orain artean marraztutako bi abertzaletasunen arteko ezberdintasunak ez lirateke egun baliagarriak, Kataluniako abertzaletasunak hartutako norabide berriari erreparatuz. Denborak esango digu bi abertzaletasunen arteko diskurtso eta praktiken arteko ezbaia iraganekoa den. Paradigma aldaketa berresteak, orain artean katalan abertzaleek izandako posizioak asko aldatu direla adieraziko luke. Posizio aldaketa horiek ordea, testuinguru zehatz batean ikusi ahal diren uneko mugimendu bezala ere interpretatuak izan daitezke, eta aurrera begirako bilakaerak bakarrik erakutsiko digu balizko aldaketaren trinkotasun maila.

Nazionalismoaren aldagaia errekodifikatu ondoren honakoa litzateke inkestatuen banaketa EAEn eta Katalunian: herritarren erdiak ez abertzaleak lirateke. Abertzaleei begira, hamarretik bi abertzale moderatuak lirateke eta oso abertzale bezala definitu ditugunak aldiz, pisu ezberdina lukete. IV.1.5. grafikoan ikusi ahal dugun moduan, Katalunian oso abertzale bezala definitu ditugunak (%29,5) (nazionalismo eskalan bere burua 8,9 edo 10ean kokatu dutenak), EAEn oso abertzale direnak (%23) baino pisu handiagoa dute.

Hala eta guztiz, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, hau ez da islatzen estatuarekiko leialtasun ahulago batean. Katalunian abertzaleek, moderatuak eta oso abertzale bezala definitu ditugunak, estatuarekiko leialtasuna neurtzeko aukeratu ditugun adierazle ezberdinetan hartutako

posizioek ez dute euskal abertzaleek irudikatzen duten adinako nortasunen arteko talka erakusten. Hortaz, Kataluniako abertzaletasunaren intentsitate handiagoa ez litzateke auzi etniko sendoago baten iragarle.

IV.1.5. Grafikoa: Nazionalismo maila EAEn eta Katalunian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

C. Bozka

Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak sailkatu bidean erabiliko dugun hirugarren aldagaia bozkarena izango da, zehazkiago, 2005eko hauteskunde autonomikoetan inkestatuen bozka oroitzapena.

Bozka oroitzapenaren datuak tentuz irakurri behar ditugu. Alderdi batzuk duten erantzun kopuru txikia dela eta, zenbaitetan emaitza hauetatik interpretazio orokorrak egitea ezinezkoa zaigu (ikus IV.1.1. taula). Bai Katalunian eta bai EAEn, PPri bozka eman ziotela adierazi dutenen portzentaje txikia medio, talde dominanteetako kideen jarrerak aztertzeke orduan, PSE eta PSCri bozka eman ziotela adierazi dutenak izango ditugu hizpide. EHAK eta ERCri bozka eman ziotela adierazten dutenen kopurua ere txikiegia da interpretazio zuzenak egiteko. CIU eta EAJK ordezkatzan duten nazionalismo instituzionalarekiko egon daitezkeen ezberdintasunak ikusteko erabili ahal ditugu datuak baina, beti ere, erantzun kopuru murrizta ahortzi gabe. Honela, bozka oroitzapenaren

aldagaia, zenbaitetan, nortasun subjektiboa eta nazionalismoaren aldagaien emaitzetatik atera ahal ditugun ondorioak osatzeko erabiliko dugu.

IV.1.1.Taula: 2005eko hauteskunde autonomikoen bozka oroitzapena Katalunia eta EAEn (2006)

	Bozka abertzalea	Bozka ez abertzalea
KATALUNIA	CIU	18,4 PSC
	ERC	8,9 PP
		Ciutadans
	Guztira	27,3 Guztira
EAE	PNV-EA	25,5 PSE-EE
	Aralar	0,6 PP
	EHAK	5,6
	Guztira	31,7 Guztira

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak hiru aldagaien arabera

Behin gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak neurtzeko kontuan hartuko ditugun aldagaien nondik norakoak azalduta, bakoitzaren baitan gutxiengo eta gehiengo etnonazionalako kideak nortzuk hartuko ditugun azalduko dugu.

- Nortasun subjektiboari dagokionean, gutxiengo etnonazionalako kide bezala hartuko ditugu euskaldunak gehiago eta euskaldun bakarrik sentitzen direnak. Espainolak bezain euskaldunak sentitzen direnak, espainolak gehiago edota espainolak bakarrik sentitzen direnak aldiz, talde dominanteko (Connorren terminologia erabiliz) kide bezala definituko ditugu.
- Nazionalismoari dagokionean, talde dominanteko kideak ez abertzaleak bezala definitu ditugunak lirake, eta aldiz, abertzaleak, moderatuak eta arradikalak, gutxiengo etnonazionalako kideak lirake.
- Bozkari dagokionean, talde dominanteko kideak bozka espainolista egiten dutenak lirake eta gutxiengo etnonazionalako kideak aldiz, bozka abertzalea egiten dutenak. Nolanahi ere, jakin badakigu, zehaztasun ugari egin dakizkiola bozka eta abertzaletasuna parekatzeari, Kataluniari dagokionean bereziki. Izan ere, alderdi abertzaleci bozka ematen dieten herritar

ez abertzaleak ditugu, eta hortaz, ez geundeke sentimendu abertzalea eta bozka abertzalearen arteko korrelazio perfektu baten aurrean. Dena den, talde dominante eta gutxiengo etnonazionalen arteko nondik norakoak azaltzeko, bozkaren ardatza erabilgarria dela deritzogu nortasun subjektibo eta nazionalismoaren aldagaiek azaldu ahal dituzten ezberdintasunak osatze bidean.

Datuen interpretazioari heldu aurretik, erantzun ezaren inguruko pare bat xehetasun luzatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Izan ere, hizpide izango ditugun hipotesi ezberdinetan ikusiko dugun bezala, erreferentziatzen izan dugun nortasun nazionalari buruzko ikerketan, EAEko herritarren artean handiagoa da ez dakiela edo erantzuten ez dutenen kopurua. Kontuan izan behar dugu CISEko 2667 ikerketa 2006koa dela, eta ingurumaria horretan oraindik errezelarik bazela auzi nazional edo “euskaletatik” harremanurik egon zitekeen gaien inguruan mintzatzeko. Gainera, CISEko inkesta honetatik haratago, gai hauei buruz iritzia libreki emateko errezelo eta beldur handiena ohikoa izan da EAEn ez abertzaleen artean, eta bereziki, PPko boto-emaitzen artean. Ikerketa honetan bozkari dagokionean izandako erantzun kopuru baxuetatik ezin dugu interpretazio orokorrik egin, baina “ed/ee” (ez daki/ez du erantzuten) aukeran kokatzen direnen portzentaje handi horren baitan bozka espainolista egiten dutenen portzentajea esanguratsua dela uste dugu.

Bestetik, eta PPren ezkutuko bozkaren fenomenoarekin lotuaz, beste faktore bat ere aintzat hartu beharko genuke. Kontua ez da bakarrik jarrera ezberdinetan ikusi ahal dugun erantzun kopuru baxua, baizik eta esaterako, inkesta ezberdinetan PPri bozka ematen diotela aitortzen dutenen kopuru baxua. Hauteskunde portaerari erreparatzen badiogu, PPk inkestetan baino emaitza hobetoak lortzen ditu hauteskunde deialdi ezberdinetan. Aurretik esan bezala, ikerketa honetako jarreretan ikusirik bozkaren araberrako emaitzek estatistikoki ondorio hauek frogatzen ez garamatza, baina beste ikerketa eta inkestetatik ateratako ondorioen ildo berean, ezkutuko bozkaren eta auzi batzuen inguruko iritziak azaltzeko errezelo eta beldurrak oraindik ere badirenen ideia dugu. Biolentzia politikoaren auzia aztertzean ikusiko dugun bezala, Linzek azaltzen duen iritzi publikatua eta iritzi publikoaren arteko tartearen premisa ere baliagarri zaigu nortasun nazionalarekin harremanuriko datuak aztertzeke orduan.

Behin aldagaien operazionalizazioaren nondik norakoak aztertuta, Connorren lehen hipotesia aztertzeari ekingo diogu, horretarako, aukeratu

ditugun *itemei* banan-banan erreferentzia eginez. Irakurketa errazte bidean, *item* batzuk laburtu egin ditugu taula eta grafiko ezberdinetako izenburuetan.


1. Hipotesia: “Gutxiengo etnonazionalitateko kideek estatuarekiko talde dominanteko kideek baino afektu gutxiago erakusten dute”

Connorren lehen hipotesia aztertzeko erabiliko dugun lehen *itemak* honakoa dio: “*Espainia estatu bat da, eta ez nazio bat*”. Jarrera honen bitartez estatuarekiko afektua zeharka aztertu nahi dugu, Espainia Estatu baino ez dela diotenak afektu gutxiago erakutsiko diotela uste baitugu. Espainiaren naziotasuna azpimarratzen dutenen artean aldiz, afektua indartsuagoa litzateke, nazioa baita, eta ez estatua, leialtasun iturri garrantzitsua eta elkartasun sentimenduaren sortzaile eta euskarria.

A) “Espainia estatu bat da, ez nazioa”

Espainiako lagina kontuan hartuz gero (EAE eta Katalunia barne), inkestatuena %34,3a bat dator Espainia estatu denaren ideiarekin. EAEn, adostasun maila antzerakoa da, %38,5koa eta Katalunian, aldiz, inkestatuena erdia, %50,4a, Espainia estatu bat denaren adierazpenarekin bat dator (ikus IV.1.6. grafikoa).

IV.1.6. Grafikoa: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Lehen begiradan harrigarria izan daiteke, Espainia osoko lagina kontuan izanik, eta EAEkoa bereizirik, adierazpen honek lortzen duen antzeko adostasun maila. Baina kontuan izan behar dugu, batetik, estatu eta nazio kontzeptuen nondik norakoak era ezberdinetan interpretatuak izan daitezkeela eta, bestetik, espainiar herritar askok ere, Espainia nazio bakarraren ideia iragan gertuko erregimenarekin lotzea eta, hortaz, berak irudikatuko lukeen nazio ideia horrekin bat ez egitea.

Katalunian, Espainia estatua denaren ideia defendatzen dutenak gehiago dira, eta hemen ere eraginik izango du katalan herritarrek Espainiako nazioaren ideia hori oraindik frankismoarekin lotzea, baina baita ere, bertako herritarren zati esanguratsu batek azaltzen duen nortasun subjektibo bikoitzak. Hau da, bi nazioekiko, Espainia eta Katalunia kasu, duten identifikazio horrek ere, Espainiaren estatu izaeraren aldarrikapenera eramatera, espainiar nazio bakarraren ideia errefuxatuz. Atal honen hasieran azaldu bezala, Katalunian naziotasunaren ideiak EAEn baino irismen zabalagoa du, naziotasun izaera horren elementu garrantzitsuenak kulturalak badira ere. Xehetasun hau garrantzitsua da Kataluniako naziotasun indartsuagoaren nondik norakoak ulertzeko; izan ere, naziotasun horrek ondoren ez du izan maila bereko adierazpen politikoa, edota ez behinik behin EAEn duen adinakoa.

IV.1.2. Taula: "Espainia estatu bat da, ez nazioa" adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera EAE eta Katalunian (2006)

		Espainola	Espainolagoa	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Gutzira
KATALUNIA	Ados	41,0	28,9	42,2	61,8	73,6	50,4
	Zalantzan	2,6	13,2	9,0	8,8	5,6	8,2
	Aurka	38,5	34,2	25,1	16,2	12,5	22,7
	ED/EE	17,9	23,7	23,7	13,2	8,3	18,7
EAE	Ados	12,5	8,3	17,6	52,2	78,8	38,5
	Zalantzan	0,0	8,3	15,7	8,7	6,1	10,0
	Aurka	62,5	50,0	37,3	15,2	9,1	26,8
	ED/EE	25,0	33,3	29,4	23,9	6,1	24,7
	Gutzira	100	100	100	100	100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

EAE eta Kataluniako laginetan oinarriturik, eta bertako herritarren nortasun subjektiboaren aldagaia kontuan izanik, EAEn nortasun bikoitza azaltzen dutenen %17,6a ados dago Espainia estatu bat denaren ideiarekin eta %37,3a aurka. Euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean,

adostasuna %52,2koa da, eta adostasun maila %73,6ra igotzen da euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean. Dena den, gutxiengo etnonazionalaren baitan ere, Espainia estatua baino, nazioa dela uste dutenak ere badira. Euskaldunak gehiago sentitzen direnen %15,2a Espainia estatua denaren aurka azaltzen da, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, %9,1a. Katalunian, nortasun bikoitza azaltzen dutenen %42,2a ados dago adierazpenarekin, katalanak gehiago sentitzen direnen artean %61,8 ados dago Espainia estatu bat denaren ideiarekin eta portzentajea %73,6ra igotzen da katalanak bakarrik sentitzen direnen artean (ikus IV.1.2. taula).

Hortaz, EAEn, eta maila baxuagoan, Katalunian, jarrera ezberdinak azaltzen dituzte gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak kide bezala definitu ditugun herritarrek. Euskalduna/katalana gehiago edo euskalduna/katalana bakarrik sentitzen direnen artean, Espainia estatua denaren ideia nagusitzen da, eta hortaz, Connorren lehen hipotesia berretsiko litzateke. Dena den, nortasun subjektibo berdina azaltzen dutenen jarrerak ez dute posizio bera aztertutako aldagai honi dagokionean. Katalunian, nortasun bikoitza azaltzen dutenak, EAEn horrela definitzen direnak baino adostasun maila altuagoa erakusten dute Espainia estatua denaren ideiarekin inguruan (ikus IV.1.7.grafikoa). Gainera, gutxiengo etnonazionalak *item* honetan azaldutako jarreretik ez dira asko aldentzen.

IV.1.7. Grafikoa: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektibo bikoitza dutenen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Gutxiengo etnonazionalak eta talde dominanteak diskriminatzeko erabili dugun bigarren aldagaia bozkarena izango da. Zehazki, inkestatuek 2005eko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapena izango dugu kontuan. Bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman ziola adierazi duen %24a ados dago Espainia estatu bat denaren ideiarekin, EAJri bozka eman ziotenen artean, adostasuna %50ekoa da eta %21,4a Espainia estatu bat denaren ideiarekin aurka azaltzen da. EHAKren boto-emaileen %88,9ak Espainia estatu bat dela uste du. Kataluniari dagokionean, PSCko boto-emaileen %46,9ak Espainia estatu bat denaren ideia defendatzen du eta %25,9a aurka azaltzen da. CIUkoen artean adostasun portzentajea %58,9koa da eta %20a Espainia estatua denaren ideiarekin aurka azaltzen da. ERCko boto-emaileen %68,9ak bat egiten du Espainia estatu bat denaren ideiarekin (ikus IV.1.3. taula).

Bozkaren arabera irudika ditzakegun talde etnonazionalak jarrera ezberdina erakusten dute EAEn kasuan. Ezberdintasun handia dago bozka abertzalea eta ez abertzalea egiten dutenen artean eta, beraz, agerikoa da gutxiengo etnonazionalak afektu gutxiago erakusten dutela. Dena den, bozka abertzalearen artean ere badaude ezberdintasunak; EAJko boto-emaileen jarrera PSE eta EHAKren boto-emaileek azaldukoaren erdibidean kokatuko litzateke.

IV.1.3. Taula: "Espainia estatu bat da, ez nazioa" adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzapenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	46,9	33,3	63,4	58,9	68,9	50,4
	Zalantzan	4,9	5,6	7,3	7,4	6,7	8,1
	Aurka	25,9	44,4	12,2	20,0	8,9	22,7
	ED/EE	22,2	16,7	17,1	13,7	15,6	18,7
EAE	Ados	24,0	0,0	60,0	50	88,9	38,5
	Zalantzan	8,0	20,0	20,0	7,1	11,1	10,0
	Aurka	44,0	60,0	20,0	21,4	0,0	26,8
	ED/EE	24	20	0	21,5	0,0	24,7
	Guztira	100	100	100	100	100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Katalunian ere bada ezberdintasunik bozka abertzalea edo ez abertzalea egiten denaren arabera, baina EAEn baino urriagoa, eta gutxiengoaren afektu hori oso gutxi aldentzen da bozkaren arabera definitu ditugun talde dominanteetako herritarrek erakutsitako jarreratik. Katalunian bozka ez

abertzalea egiten dutenen portzentaje esanguratsu batek ere (PSCekoen %46,9a eta PPkoen %33,3a) Espainia estatua denaren ideia defendatzen du. Besteak beste, Katalunian PSCri bozka eman ziotenen eta EAEn PSEri eman ziotenen arteko aldea nabaria da auzi honi dagokionean. PSCren boto-emaileen %25,9a azaltzen da Espainia estatua denaren ideiarene aurka; PSEkoen artean aldiz aurkakotasuna %44ra iristen da (ikus IV.1.8. grafikoa).

ERC eta EHAKren boto-emaileen artean ere bada ezberdintasun baina erantzun kopurua hain urria izanik haratago doan interpretaziorik ezin dugu egin. Katalunian nazioa aipatzeak ez dakar estatismoaren aldeko hautua. Nazio kulturala argiago dute, nazio politikoa ere, baina ez independentzia. Katalunian nazio eta estatu kontzeptuen arteko ezberdintasuna argiago dute, eta etengabe ikus dezakegu nazio izatearen sentimendua eta estatu propioaren aldeko hautuaren artean dagoen jauzia. Honela, Katalunian nazio izatearen sentimendu oso sakona dute, baina horrekin nahikoa izan dute, orain artean behinik behin, eta hauxe litzateke hain zuzen ere estatuaren aldarrikapena atzeratu izanaren arrazoi nagusienetarikoa.

IV.1.8. Grafikoa: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko aurkakotasuna bozka orotzapenaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen jarrerak aztertzeke erabili dugun hirugarren aldagaia nazionalismo graduarena da. EAERI erreparatu, ez

abertzale bezala definitu ditugun inkestatuen %20,3a bat dator Espainia estatu bat denaren ideiarekin, abertzale moderatuen artean, portzentajea %54,3koa da, eta oso abertzaleen artean, portzentajea %73ra handitzen da. Kataluniari dagokionean, ez abertzaleen %39,8a Espainia estatu bat denaren ideiarekin bat dator, abertzale moderatuen artean portzentajea %61ekoa da eta oso abertzaleen artean %64,5ekoa. Ildo honetan, Katalunian ez abertzaleek edota nortasun espainiarra duten herritarrek Espainia estatua denaren ideiarekin bat datozela adieraztean, ez lukete ezinbestean Espainiaren naziotasuna ukatuko. Eurentzat ez dago kontrajarria. Ziurrenik, hein batean, Espainiaren estatu izaera ere berretsiz, nazio-estatu kontzeptuaren ideiatik aldentzen dira, eta nazionalitate ezberdinak barneratuko lituzkeen estatuaren aldeko jarrera baten aurrean egon gintezke (ikus IV.1.4.taula).

IV.1.4. Taula “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	39,8	61,0	64,5	50,4
	Zalantzan	11,2	4,0	6,6	8,1
	Aurka	30,7	17,0	16,4	22,7
	ED/EE	18,3	18,0	12,5	18,7
EAE	Ados	20,3	54,3	73,0	38,5
	Zalantzan	12,7	5,7	8,1	10,0
	Aurka	38,0	22,9	8,1	26,8
	ED/EE	29,1	17,1	10,8	24,7
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Espainia estatua denaren ideiak Katalunian eta EAEn duen babesa oso bestelakoa dela azaldu genuen atal honen hasieran. Bi herrialdeen arteko ezberdintasun honek gainera badu eraginik aldagai ezberdinen gurutzaketetik ateratzen diren datu eta posizio ezberdinetan.

Nazionalismo graduaren arabera jarrera ezberdinak nabari ditzakegu bai EAEn eta bai Katalunian, baina hizpide ditugun hiru taldeen arteko gakoek interpretazio ildo ezberdinak azaltzen dituzte. Katalunian nazionalismo mailaren arabera identifikatu ditugun talde orotan, Espainia estatua denaren ideiak babes handiagoa du. Esaterako, Katalunian ez abertzaleen taldea osatuko luketen inkestatuen %39,8a bat dator Espainia estatu bat denaren ideiarekin, EAEn aldiz, ez abertzaleen %20,3ak

babestuko luke ideia hau. Izan ere, Katalunian ez abertzaleek ere, Espainia estatua (ere) badenaren ideia berrestean, ez dute zertan Espainiaren nazio izaera ukatu behar. Aldiz, EAEren baitan, eta kasu honetan ez abertzaleei begira, askoz ere errotuagoa dago nazio-estatuaren binonimoa, eta estatu izaeraren onarpenak espainiar nazioaren ukapena dakarraren ideia barneratuago legoke.

Bestetik, eta bi herrialdeetako posizioak erkatuz, EAEren baitan hiru taldeen portzentajeen arteko mailaketa argi bat ikus dezakegu; abertzaletasun maila handiagotuz doan heinean, handituz doa ere *item*arekiko adostasun maila. Modu honetara, nazionalismo graduaren arabera osaturiko talde ezberdinek adostasun maila ezberdina adierazten dute. Eta hortaz, aurretik aipaturiko euskal abertzaletasunaren jite politikoa ikusi ahal dugu. Espainiaren estatu izaerak berresteak hein batean bere nazio izaeraren ukazioa lekarke eta, alderantziz, nazio izaera berresteak estatua izatea ekidituko luke zentzu handi batean.

Katalunian aldiz, abertzaleak orokorrean, moderatuenak eta arradikalenak, babes maila antzekoa azaltzen dute eta ez abertzaleek azaldutako posizioa ere ez litzateke hain ezberdina. Katalunian Espainiaren estatu edo nazio izaera beste parametro batzuetan ulertzen da, EAEko bateraezintasunetik urrun. Zerikusirik izango du, batetik Katalunian, nazionalismo kulturalak duen hedapenak eta, EAEn ez bezala, Kataluniako nazionalismoa Espainiarekiko ideiarekiko kontraposizioz eraiki ez izana. Horren ondorioa da, Espainiaren estatu edo nazio izaeraren aldeko hautuan abertzaletasunak duen gaitasun diskriminatzaile lausagoa. Kataluniako nazionalismoa proaktiboagoa da; Euskadikoa, erreaktiboagoa.


Laburbilduz, EAEn nabarmenagoa da gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko erakusten duten afektua ahulagoa dela. Dena den, gutxiengo etnonazionalak kideak ez dira talde homoginoa eta bere baitan ere badira ezberdintasunak, batik bat, bozkaren aldagaiari erreparatzen badiogu. Katalunian gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasunak auzi honetan askoz txikiagoak dira; izan ere Katalunian, gehiengo etnonazionalaren baitan kokatu ditugun nortasun bikoitzeko herritarren artean, edota PSCko boto-emaleen artean ere, gehiago dira Espainia estatua denaren ideia defendatzen dutenak eta, beraz, gutxiengo etnonazionalak Espainiako Estatuarekiko auzi honetan azaltzen duten afektu eskasa elkarbanatzen dutela esan genezake.

B) “Gaztelania gure nortasunaren oinarrizko elementua da”

Espainiako lagina kontuan hartuz gero (EAE eta Katalunia barne), inkestatuen %88,6a bat dator gaztelania euren nortasunaren oinarrizko elementua denaren ideiarekin. EAEn, adostasun maila %60,2koa eta Katalunian %74,2 (ikus IV.1.9. grafikoa).

EAEko herritarrek eta Kataluniako herritarrek adostasun zabala erakusten dute gaztelania euren nortasunaren oinarrizko elementua den ideiarekiko. Egia esan, adierazpena nahiko anbigua da suerta daiteke eta datuetatik egin ahal ditugun interpretazioak hortaz, anitzak. Bi erkidegoetako datuak konparatuz, katalanen artean gehiago dira gaztelania euren nortasunaren parte dela uste dutenak euskal herritarren artean baino.

IV.1.9. Grafikoa: “Gaztelania gure nortasunaren oinarrizko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Katalanek azaldutako babes handiagoaren ardatzetako bat, euskara eta katalaneraren egoera soziolinguistikoaren artean dagoen ezberdintasunean egon daiteke. Izan ere, katalaneraren ezagutza eta erabilera askoz ere hedatuago dago Kataluniako biztanleriaren artean. Katalanek gainera, hizkuntza politikari etengabe erreparatu diete katalaneraren irismena handitu bidean. Egun, katalanerak duen presentzia eta erabileraren transbertsalitateak, katalaneraren politizazioa ekidin du, eta ez da nortasunen arteko lehia batean islatu. Katalaneraren erabilera nortasun

ezberdinetatik haratago dagoen auzia da eta zentzu horretan bere inplementazio zabalak gaztelaniarekiko joku defentsiboa ekidin du.

EAEn aldiz egoera oso bestelakoa da. Euskararen ezagutza eta erabilera maila askoz ere baxuagoa da eta ohikoagoa da gaztelania mehatxu gisa ikustea. Nolabait esateko, gaztelaniak EAEn duen hedapen zabalak, euskararen ezagutza eta erabilera oztopatu dituenaren ustea izan ahal da eta, hortaz, bi hizkuntzen, euskararen eta gaztelaniaren, arteko harremana etengabeko lehia edo norgehiagoka batean irudikatzen da. Hein batean, euskal herritarrek gaztelania euren nortasunaren parte denari eskaintzen dioten babes lausagoa (handia, halere) parametro hauetan kokatu ahal da.

Dena den, kontuan hartzekoa da ere, euskarak EAEko agenda politikoan izan duen presentzia apalagoa, bere egoera, normalizazio terminoetan, katalaneraren baino okerragoa bada ere. Katalunian, aldiz, katalaneraren hedapena askoz zabaldagoa egonik, bultzada handiagoa eman zaio erakunde ezberdinetatik. Esanguratsua da ere, euskararen ezagutzarik ez duten herritarrek ere, sinbolikoki bada ere, euskarari ematen dieten garrantzia. Orohar, abertzale katalandarrek gaztelania ez dute ez arazo, ez etsai bezala ikusten, bitartean katalana hitzegiten dutelatik. EAEn, ordea, alderantziz.

Nola ulertu ahal da itxurazko kontraesan hau? Gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denaren berrespenak, elementu espainolak ere euren nortasunaren parte direla onartzea dakar. EAEn abertzaletasuna, espainiar nazionalismoaren aurka eraiki da, berarekin harremanduak egon daitezkeen osagai oro ukatuz. Hizkuntza da osagai horietako bat eta bere pisu sinbolikoa inportantea da estatuarekiko leialtasun gradua neurtzeko orduan. Ondorioz, konplexuagoa suertatzen da abertzaleentzat gaztelania euren nortasunaren baitan txertatzeko prozesua, edota euren nortasunaren parte denaren onarpena.

Euskara eta katalaneraren hedapen ezberdinaren ingurumarian ere interpretatu ahal dugu katalan herritarrek gaztelania euren nortasunaren parte den ideiarri emandako babes zabalagoa. Era berean ordea, kuriosoa da EAEn den euskararen erabilera maila baxuagoa kontuan izanik, eta gaztelaniaren erabilera handiagoa, jarraian, euren nortasunaren elementutzat jotzeko erreparaoak handiagoa izatea. Aurretik azaldu bezala, EAEn euskarak eta gaztelaniak duten indar sinboliko handiagoak eman ahal digu azalpen posible bat, espainiar nortasunaren aurka eraikitzen den

euskal nortasuna, Espainiako elementu sinbolikoak errefuxatuz, praktika bestelakoa izan arren, gaztelaniaren erabilera kasu.

EAEri erreparatuz, nortasun bikoitza azaltzen dutenen %76,9ak gaztelania euren nortasunaren oinarriko elementua dela uste du, espainiarra baino gehiago, euskaldun sentitzen direnen artean, portzentajea %53,5koa da eta aldiz, euskaldun bakarrik sentitzen direnen %20,6a dator bat adierazpenarekin. Katalunian, nortasun bikoitza dutenen %86,8a ados dago gaztelania euren nortasunaren oinarriko elementua denaren ideiarekin, espainolak baino, katalanak sentitzen direnen artean portzentajea %61,3koa da eta katalanak bakarrik sentitzen direnen artean %32,9koa da (ikus IV.1.5. taula).

IV.1.5. Taula “Gaztelania gure nortasunaren oinarriko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)

		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Gutzira
Katalunia	Ados	95,0	97,4	86,8	61,3	32,9	74,2
	Zalantzan	2,5	0,0	4,2	7,3	12,3	5,6
	Aurka	2,5	0,0	5,7	27,7	50,7	17,1
	Ed/Ee	0,0	2,6	3,3	3,6	4,1	3,1
EAE	Ados	88,9	84,6	76,9	53,5	20,6	60,2
	Zalantzan	0,0	7,7	11,5	11,6	5,9	9,9
	Aurka	11,1	0,0	5,8	27,9	67,6	24,2
	Ed/Ee	0,0	7,7	5,8	7,0	5,9	5,6
	Gutzira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, gaztelaniari dagokionean, gutxiengo etnonazionalak, gehiengoak, kasu honetan nortasun subjektibo bikoitza azaltzen dutenak, baino afektu gutxiago erakusten dute. Dena den, auzi honetan gehiengo eta gutxiengoaren artean dauden adinako ezberdintasunak ikus ditzakegu gutxiengoaren artean, hau da katalanak/euskaldunak gehiago eta katalanak/euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean. Modu honetara, katalanak eta euskaldunak bakarrik sentitzen diren gutxiengo etnonazionalako herritarrak lirateke Espainiako Estatuarekiko afektu ahultasun hori adieraziko luketeenak. Halere, herritar hauen artean ere badira gaztelania euren nortasunaren oinarriko elementua dela uste dutenak, baina beste nortasun subjektiboak adierazi dituztenen baina indar gutxiagorekin.

Bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman ziola adierazi zuen %84,6a bat dator gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denaren ideiarekin, EAJko boto-emaileen artean portzentajea %43,9koa da, eta EHAKren boto-emaileen artean %33,3koa. Kataluniari dagokionean, PSCri bozka eman zion %82,9a bat dator baieztapenarekin, CIUkoen artean %74a dago ados eta ERCren boto-emaileen artean portzentajea %32,6raino txikitzen da. Arestian aipatu dugu Kataluniako eta EAeko herritarren artean gaztelania euren nortasunaren elementua denaren inguruko ezberdintasun gakoak zeintzuk izan daitezkeen. Bi erkidegoetako herritarren konparaketarako erabili dugun bozkaren aldagaiak agerian uzten du nazionalismo ezberdinen diskurtsoek zer nolako eragina duten gaztelania euren nortasunaren elementu bezala berretsi edo errefuxatzeko orduan.

IV.1.6. Taula “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzapenaren arabera (2006)


		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	82,9	100,0	64,3	74,0	32,6	74,2
	Zalantzan	4,9	0,0	7,1	4,2	15,2	5,6
	Aurka	9,8	0,0	26,2	18,8	52,2	17,1
	Ed/Ee	2,4	0,0	2,4	3,1	0,0	3,1
EAE	Ados	84,6	100,0	50,0	43,9	33,3	60,2
	Zalantzan	3,8	0,0	16,7	9,8	11,1	9,9
	Aurka	7,7	0,0	33,3	39,0	44,4	24,2
	Ed/Ee	3,8	0	0	7,3	11,1	5,6
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bi erkidegoetako euskararen eta katalaneraren irismenez gain, elementu sinbolikoak eta euskal nazionalismoaren antiespainiaratasuna hizpide izan ditugu babes ezberdinaren nondik norakoak azaltze bidean. Katalunian eta EAEn nazionalismo instituzionala ordezkatzeko luketen alderdiei bozka eman dietela adierazi dutenek erakutsitako posizio ezberdinek azken ideia hau berretsiko luke. EAJri bozka eman diola adierazi duten herritarrak bananduak agertzen dira gaztelania euren nortasunaren elementua denaren ezbaian. CIUkoen artean aldiz, ideia honekiko babes maila askoz altuagoa da. Bi posizio ezberdin hauek ez dira katalanera edo euskararen ezagutza mailaren ondorio, eta hortaz, euskal eta kataluniako nazionalismoaren oinarri ezberdinei erreparatzea ezinbestekoa egiten zaigu.

Beraz, bozkaren arabera irudikatu ditugun gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen jarrera ezberdinak ikus ditzakegu *item* honetan. Hala eta guztiz, eta nortasun subjektiboarekin ikusi bezala, hemen ere, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak ez lukete bloke homogeen bat osatuko, are gutxiago, Kataluniari erreparatzen badiogu. EAEn bozka abertzalea eta ez abertzalea egiten dutenen arteko ezberdintasunak ikus ditzakegu eta gutxiengo etnonazionala ordezkatzan dutenen Espainiako Estatuarekiko afektua ahulagoa da.

IV.1.10. Grafikoa: "Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da" adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzapenaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hala eta guztiz, eta aurretik aipatu moduan, bozka abertzalea egiten dutenen portzentaje esanguratsu batek ere, gaztelaniarekiko atxikimendu afektiboa erakusten du. Kataluniaren kasuan ordea, PSC eta CIUko boto-emaileek adostasun maila antzekoa azaltzen dute eta ERCko boto-emaileak dira gehien ezberdintzen direnak. Hortaz, gutxiengoez azaltzen duten afektu ahul hori ERCren boto-emaileek ordezkatzeko lukete, baina auzi honi dagokionean, ez gutxiengo etnonazionala osatuko luketen herritar orok, ezta gutxiago ere. CIUko boto-emaileak bozka abertzale/ez abertzale ardatzean gutxiengo etnonazionalerako parte izanik ere, auzi honetan, PSCko boto-emaileek adinako afektua erakusten dute Estatuarekiko, kasu honetan, gaztelania medio. EAEn, hizkuntza auzi

sinboliko batean bilakatu da, euskararen ezagutza eta erabilerarekin harreman urria badu ere. Sinboloa besarkatzen da; ez erabilera.

Ildo honi jarraiki, interesgarria iruditu zaigu Julen Zabalok euskal nazionalismoaren diskurtsoa eta praktikaren inguruan eginiko azterketari erreparatzea. Zabaloren arabera, eliteak dira nazioaren arketipoa eta diskurtsoa eraikitzen dituztenak. Bere ustez, euskal nazioak lehenik arraza edo etniaman izan zuten bere funtsa, eta beranduago hizkuntzan (Zabalo, 2006). Hizkuntzari dagokionean, euskara izatea nazioaren euskarri nagusi, gatazkatasua da euskara ez dakitenak nazionalismotik baztertuak izateko aukera zabalitzean. Horretarako, euskal nazionalismoak bere diskurtsoa malgutu behar izan du; maila sinbolikoan mantenduko litzateke euskararen garrantzia baina praktikak eredu barneratzaileagoak asumitu dituela azaltzen du Zabalok.

Ukaezina da euren burua abertzaletzat duten herritar askok euskararen ezagutzarik ez dutela. Ezagutza eza hau azaltzeko arrazoiak anitzak dira eta askok, alderdi politiko bat dute (errepresio frankista, estatukoak ez diren hizkuntzek jasotzen duten diskriminazioa...) eta paper bikoitza betetzen dute; batetik, euskal hiztuna ez denaren egoera pertsonala justifikatzen dute eta bigarrenik, estatu zapaltzailearen aurkako diskurtso nazionalista indartuko lukete. Honela, zentzugabekeria bat dirudien arren, justifikazio hau medio, euskaraz ez dakien abertzaleak nazioaren oinarritzko izaera hizkuntza dela defenda dezake. Julen Zabalok eginiko eztabaida taldeetan agerikoa da euskal periferiak abertzaleen euskal nortasunaren oinarria bestelakoa dela. Sentimendua litzateke ezaugarri garrantzitsuen eta nazioa definitzeko orduan ezaugarri politikoek lukete garrantzi gehien; borondatea eta lurraldea.

Euskara, berriz, garrantzitsua izanik ere, ez litzateke ezinbestekoa. Zabaltzak honela laburbiltzen du euskal nazionalismoak izandako bilakaera: “Lehenengo euskal nazionalismoa- Sabino Aranarena- tipologia etnikokoa izan bazen ere, gaur egun, lurraldetasunean oinarritzen da gehienbat (eta soilik bigarren maila batean hizkuntzan), eta guztiaren gainetik eta, batez ere, politikoa da” (Zabaltza, 2003:625-626 in Zabalo, 2006:90).

Euskal Herriko egoera soziolinguistiko ezberdinek nazionalismoaren diskurtsoan eragin handia izan dute. Apaolazak (1993) azaltzen duen moduan, euskara galdu duten herrietan nazionalismoa kontu berria da. Halere, gizarte-egituraren osaketan beharrezkoa da *gu* eta *haiak* nortzuk

diren zehazten duen ezaugarriak izatea. Euskara, edo euskararen defentsa litzateke elementu bereizgarri horietako bat; komunitatea irudikatuko lukeen sinboloa. Julen Zabalo (2006) Eleizalderi buruz eginiko aipuak era egokian laburbiltzen du egun euskara eta nazioa edota nazionalismoaren arteko harremana: “nazionalistaren jarrera ez da horrenbeste euskara ezagutzean oinarritzen, baizik eta berau ezagutu eta izatearen nahian...” (Eleizalde, 1911:63).

Abertzaleen aldetik, euskara, euren nortasunaren oinarritzko zutabe litzateke, ezberdintzen dituen elementu nagusienetarikoa, errealitatean funts handirik ez badu ere. Hau da, ikur bereizgarria izatea, ez da euskararen ezagutza edo erabileraren bidez neurtua, bere defentsa mailaren arabera baizik. Dena den, lehen kapituluan ikusi ahal genuen moduan, honen inguruko ezbaia ere handia da, hizkuntza, katalan nazionalismoaren zutabe nagusizat jotzen baitu zenbaitek, euskal nazionalismoak lurraldetasunari gehiago erreparatuko liokeen bitartean. Ikerketa honetako datuek auzitan ipiniko lukete ideia hau; hain zuzen ere, EAEn nazionalismo mailaren arabera baita euskararen izate espainiarra edota gaztelania euren nortasunaren parte denaren inguruko ezbaia.

Halere, maila sinbolikoaz arituko ginateke, euskararen defentsaz eta ikur bereizgarriaz. Nazionalismo mailaren arabera herritarrek euskararen izate espainiarraz iritzi ezberdina izateak ez du euskara bilakatzen euskal nazionalismoaren zedari nagusi. Lurraldetasuna eta borondateari loturiko faktore politikoak ere esanguratsuak direla uste dugu, honekin ezaugarri etnikoak desagertu direla ezin badugu esan ere. Kymlicka-k adierazten duen moduan, “nazio *zibiko* eta nazio *etnikoen* ezberdintasuna ez datza nortasun nazionaleko ezaugarri kultural ooren gabezia, baizik eta arraza edo koloretik haratago, edozein gizabanakok ahal duela kultura amakomunean barneratu” (Kymlicka, 1996:43 in Zabalo, 2006:90).

Nazionalismoaren aldagaiari erreparatuz, EAEn ez abertzaleen %77,2ak gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua dela uste du, abertzale moderatuen artean portzentajea %42,9ra txikitzen da eta %35,1era oso abertzale bezala sailkatu ditugun inkestatuen artean. Katalunian, ez abertzaleen %87,6ak uste du gaztelania euren nortasunaren parte dela, abertzale moderatuen artean ere babes handia du *item* honek eta %78,2a ados dago, oso abertzaleen artean aldiz, eta nahiz eta babes altua izan, portzentajea %52ra txikitzen da (ikus IV.1.7. taula).

IV.1.7. Taula: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	87,6	78,2	52,0	74,2
	Zalantzan	3,3	5,9	9,2	5,6
	Aurka	7,0	14,9	36,2	17,1
	Ed/Ee	2,1	1,0	2,6	3,1
EAE	Ados	77,2	42,9	35,1	60,2
	Zalantzan	11,4	11,4	8,1	9,9
	Aurka	7,6	40,0	48,6	24,2
	Ed/Ee	3,8	5,7	8,1	5,6
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


EAEn hortaz, gutxiengo etnonazionalak gaztelaniari afektu txikiagoa erakusten diote, baina nortasun subjektiboaren aldagaiarekin eta bozka oroitzapenarekin ikusi bezala, gutxiengoaren zati esanguratsu batek ere Estatuarekiko lotura afektiboak mantentzen ditu. Are eta gehiago Katalunian, non abertzale arradikalek, eta bereziki abertzale moderatuek, gehiengo etnonazionala ordezkatuko luketen ez abertzaleen jarreretatik gertu kokatzen diren. Honela, Connorren lehen hipotesi hau aztertzeko kontuan izan dugun bigarren *itema* maila batean berretsiko litzateke EAEn, baina Katalunian, gutxiengo etnonazionalaren afektu ahultasun hori katalanak bakarrik sentitzen diren herritarretara edo/eta ERCko boto-emailetara mugatuko litzateke. Ahantzi gabe, Kataluniako laginean bi azpitalde hauek, katalanak bakarrik sentitzen direnak, eta ERCri botua eman ziotela adierazi dutenak, duten pisu baxua.

Nazionalismo mailaren arabera *item* honekiko babes maila ezberdinak ikus ditzakegu, eta nortasun subjektiboaren eta bozkaren aldagaiak erakutsi bezala, nazionalismo mailaren arabera irudikatutako taldeen arteko ezberdintasuna bestelakoa da EAEn eta Katalunian. Ez abertzale bezala sailkatu ditugun inkestatuek *item* honi adierazitako babes maila antzerakoa da EAEn eta Katalunian; abertzaleen jarrerak aldiz, ez dituzte pauta berdinak jarraitzen.

EAEn *item* honekiko banaketa ardatza nahiko agerikoa da ez abertzale eta abertzaleen artean, abertzale moderatu eta oso abertzaleen arteko babes maila berdina ez bada ere. Katalunian aldiz, eta bozkaren aldagaiaren interpretazioaren ildo beretsuan, ezberdintasuna ez legoke abertzale/ez

abertzale artean. Izan ere, ez abertzaleak eta abertzale moderatuak azaldutako adostasun maila antzerakoa da, eta oso abertzaleak diren babes maila da ezberdina (kontuan izanda beti ere EAErekin alderatuz abertzale “tipo” honen artean ere babes maila adierazgarria dela).

IV.1.11. Grafikoa: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko aldeketasuna abertzaletasun mailaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


C) “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du”

Espainiako datuei erreparatuz, inkestatuen %60,7ak Espainiako ereserki nazionala entzutean harro dagoen komunitate bateko partaide sentitzen dela adierazten du. Katalunian, sentimendu hau inkestatuen %37,5ak berresten du eta EAEn portzentajea %20,2ra txikitzen da. Hortaz, Espainiako herritarren artean ere, eta katalan eta euskal herritarrak laginaren parte direla ahantzi gabe, Espainiako ereserki nazionalarekiko atxikimendu eza azaltzen dutenak ere badirela ikus dezakegu. Ziurrenik eraginik izango du herritar horien artean ereserki nazionalak oraindik aurreko erregimenarekin lotzearen ideiak edota ereserkiak irudikatu dezakeen nazio ideia ez elkarbanatzea (ikus IV.1.12. grafikoa).

Talde etnonazionaleri dagokienean, EAEn nortasun bikoitza duen %26,9ak ereserki nazionala entzutean harro dagoen komunitate baten partaide sentitzen dela adierazten du, euskaldunak bakarrik sentitzen

direnen artean berriz, %3ak. Espainolak bakarrik edo espainolak gehiago sentitzen direnen artean, harrotasunik sentitzen ez dutenak ere izan arren, adostasuna nagusitzen da, baina kontuan izan behar dugu, euskal herritar gutxik adierazten dutela nortasun subjektibo hori. Katalunian aldiz, nortasun bikoitza dutenen ia erdiek (%49,5) adierazpenarekiko adostasuna azaltzen dute, katalanak bakarrik sentitzen direnen artean portzentajea %8,3ra txikitzen da (ikus IV.1.8.taula).

IV.1.12. Grafikoa: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila EAE. Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.8. Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)


	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira	
Katalunia	Ados	72,5	78,9	49,5	14,6	8,3	37,5
	Zalantzan	10,0	15,8	19,0	15,3	5,6	15,5
	Aurka	15,0	5,3	29,5	67,9	81,9	44,8
	Ed/Ee	2,5	0,0	1,9	2,2	4,2	2,3
EAE	Ados	66,7	50,0	26,9	6,5	3,0	20,2
	Zalantzan	11,1	25,0	28,8	13,0	3,0	18,0
	Aurka	11,1	16,7	32,7	71,7	93,9	53,0
	Ed/Ee	11,1	8,3	11,5	8,7	0,0	8,8
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

EAEn gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko ezberdintasuna Kataluniakoa baino txikiagoa dela ikusi ahal dugu. EAEn gainera, eta nortasun subjektiboari erreparaturaz, talde dominantea ordezkaturako lukeen azpitalde handiena, hau da, nortasun subjektibo bikoitza azaltzen dutenak ere, ereserki nazionalarekiko atxikimendu ahula erakusten dute.

Hortaz, Connorri jarraituz, gutxiengoez auzi honi dagokionean afektu gutxiago erakusten dutela esan genezake, baina beti ere, kontuan izanik talde dominanteko herritar kopuru handi batek ere atxikimendu urria duela ereserki nazionalak sortu lezakeen balizko harrotasunari dagokionean. Katalunian, gehiengo eta gutxiengoen arteko ezberdintasunak nabarmenagoak dira, bereziki, eta EAekoekin alderaturaz, nortasun bikoitza azaltzen duten inkestatuen jarrera ezberdina medio. EAEn adostasun portzentajea %26,9koa den bitartean, Katalunian nortasun bikoitza azaltzen dutenengan ia bikoitza da adierazpen honekiko sostengua (%49,5) (ikus IV.1.13.grafikoa).

IV.1.13 Grafikoa: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko aldekatasuna nortasun subjektiboaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkari erreparaturaz, EAEn PSEri bozka eman ziola adierazi duen %40a bat dator Espainiako ereserki nazionala entzutean partehartzen duen komunitateaz harro sentitzen denaren adierazpenarekin, EAJko boto-emaitzen artean portzentajea %7,5ra txikitzen da eta, EHAKren boto-emaitzen artean ez dago inor baieztapen honekiko adostasuna erakutsi

duenik. Katalunian, PSCri bozka eman zion %45,7ak bat egiten du ereserki nazionala entzutean harro sentitzearen ideiarekin, CIUko boto-emaileen artean portzentajea %35,8koa da eta ERCKoen artean %10,7koa (ikus IV.1.9. taula).

IV.1.9 Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera (2006)


		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	45,7	82,4	11,6	35,8	10,6	37,5
	Zalantzan	18,5	11,8	9,3	14,7	8,5	15,5
	Aurka	33,3	0,0	76,7	45,3	78,7	44,8
	Ed/Ee	2,5	5,9	2,3	4,2	2,1	2,3
EAE	Ados	40,0	60,0	25,0	7,5	0,0	20,2
	Zalantzan	20,0	20,0	0,0	12,5	0,0	18,0
	Aurka	32,0	0,0	75,0	75,0	100,0	53,0
	Ed/Ee	8,0	20	0	5,0	0,0	8,8
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkek, eta horren arabera irudika ditzakegun talde etnonazionalen jarrerak ezberdinak dira; bereziki EAEren baitan. EAEn argiagoa da bozka abertzalea eta ez abertzalea egiten dutenen ezberdintasuna. Gutxiengo etnonazionala ordezkatzeko luketen EAJ eta EHAKren boto-emaileek, PSEkoak baino atxikimendu afektibo urriagoa erakusten dute ereserki nazionalarekiko. Dena den, PSEkoen artean aurkakotasuna azaltzen dutenen portzentajea nahiko esanguratsua da. Kataluniari begira, bozka abertzale/ez abertzale ardatzak ez du horrenbesteko indarririk inkestaturen jarrera ezberdinak diskriminatzeke. Izan ere, PSC eta CIUko boto-emaileen arteko ezberdintasuna, CIUkoak eta ERCKo boto-emaileen artekoa baino txikiagoa da (ikus IV.1.9.taula eta IV.1.14. grafikoa).

Nazionalismoaren aldagaiari helduz, EAEn ez abertzale bezala definitu ditugun inkestaturen %30a Espainiako ereserki nazionala entzutean partehartzen duen komunitateaz harro sentitzen denaren adierazpenarekin bat dator, abertzale moderatuen artean %8,8a, eta abertzale arradikalen artean %5,6. Katalunian, ez abertzaleen %49,6a ados dago Espainiako ereserki nazionala entzutean harro dauden komunitate baten parte sentitzen direnarekin, abertzale moderatuen artean portzentajea %22koa da, eta oso abertzaleen artean %25,7koa (ikus IV.1.10. taula).

IV.1.14. Grafikoa: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko aldeketasuna bozka oroitzapenaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Honela, Connorrek dioen bezala, gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko afektu gutxiago erakusten dutenaren ideia berretsiko litzateke, baina gehiengo eta gutxiengoen artean ezberdintasuna ez da hain handia ereserki nazionalaz mintzo garenean. Talde dominanteko kide bezala sailkatu ditugun ez abertzaleen artean ere, portzentaje esanguratsu batek ez du ereserki nazionalatik erator daitekeen harrotasun sentimendu horrekin bat egiten (ikus IV.1.10.taula).


IV.1.10. Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	49,6	22,0	25,7	37,5
	Zalantzan	15,7	18,0	11,8	15,5
	Aurka	32,2	58,0	59,9	44,8
	Ed/Ee	2,5	2,0	2,6	2,3
EAE	Ados	30,0	8,8	5,6	20,2
	Zalantzan	26,3	11,8	5,6	18,0
	Aurka	33,8	76,5	80,6	53
	Ed/Ee	10,0	2,9	8,3	8,8
Guztira		100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, nazionalismoaren aldagaia medio, gutxiengoek erakusten duten afektua urriagoa dela esan genezake. Bestalde, eta ereserki nazionala kontuan izanik, bai Katalunian eta bai EAEn, abertzale moderatuak nahiz arradikalek, jarrera beretsua erakusten dute (ikus IV.1.15.grafikoa).

IV.1.15. Grafikoa: Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzaletasun mailaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


IV.1.12.grafikoan ikusi dugu espainiar herritarren portzentaje esanguratsu batek ere ez duela atxikimendu afektiborik ereserki nazionalaz dihardugunean. Eta badirudi, jarrera hori, EAE eta Kataluniako talde dominanteetako herritarrek ere partekatzen dutela. Gainera, ereserki nazionalak ordezkatu dezakeen nazio irudi eta identifikazio ezaren zergatiak ere aplikagarriak izanen dira Katalunia eta EAeko herritar ez abertzaleen artean. Finean, gauza bat da ez abertzale izatea, edota nortasun subjektibo bikoitz bat izatea, eta bestea, iragan hurbileko erregimenarekin oraindik lotu ahal den ereserkia, eta berak sinbolizatzen duen nazio ideiarekin bat egitea.

D) “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira”

Espainiako lagina kontuan hartuz gero, inkestaturen %67,3a bat dator galegoa, katalana edota euskara ere espainiar hizkuntzak direnarekin. EAeko herritarren artean portzentajea %54,7koa da, Katalunian, aldiz, %87,6a bat dator adierazpen horrekin. Hizkuntzaren auziari erreparatzen zion aurreko *ite*mean ikusi bezala (“*Gure nortasunaren parte da gaztelania*”),

Katalunia eta EAeko herritarrek posizio ezberdinek azaltzen dituzte. Katalunian katalaneraren irismena askoz zabalagoa izanik ere, katalanera ere espainiar hizkuntza denaren ideiarekiko adostasun zabalagoa erakusten dute. Kontuan izan behar dugu printzipio batean katalanera eta euskara ere espainiar hizkuntzak direla baieztatzeak ez duela nortasunen edo hizkuntzen arteko gradazio edo leialtasun auzi bat planteatzen.

IV.1.16. Grafikoa: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Katalunian ez bezala, EAEn euskara espainiar hizkuntza denarekiko adostasuna ahulagoa da, inkestaturen erdia baieztapenarekin bat datorren arren. Berrito ere borroka sinboliko batean aurrean geundeke EAEn, kasu honetan espainiar hizkuntzez ari garenean, eta badirudi, euskara espainiar hizkuntzatzat jotzeak, espainiar nortasuna barneratzearen onarpen batekin parekatzen dela. Behin eta berriz esan dugun bezala, euskal nortasuna espainiarekiko kontraesanean eraikia izan da hein batean, eta hortaz, espainiartasunaren isla suposa dezakeen elementuak ukatzen dira. Katalunian aldiz, nortasun bikoitza azaltzen dutenen portzentajea handiagoa izateaz gain, nortasun bateragarritasuna ahalbidetu duen praktika eta diskurtso nazionalista izan dute.

EAeko talde etnonazional ezberdinei erreparatuz, nortasun bikoitza adierazten duen %71,2a ados dago galegoa, katalana edota euskara ere espainiar hizkuntza direnarekin, euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean portzentajea %50ekoa da eta euskaldun bakarrik sentitzen direnen artean, portzentajea %28,6ra txikitzen da. Kataluniari dagokionez,

nortasun bikoitza dutenen %93,4a ados dago adierazpenarekin eta katalanak bakarrik sentitzen direnen artean portzentajea txikitzen bada ere, %73,2a adierazpen honekin ados azaltzen da (ikus IV.1.11. taula).

IV.1.11. Taula: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)


		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira
Katalunia	Ados	77,5	74,4	93,4	90,6	73,2	87,6
	Zalantzan	7,5	2,6	2,8	0,0	5,6	2,7
	Aurka	12,5	20,5	1,4	8,7	19,7	7,9
	Ed/Ee	2,5	2,6	2,4	0,7	1,4	1,7
EAE	Ados	60,0	61,5	71,2	50,0	28,6	54,7
	Zalantzan	10,0	15,4	11,5	17,4	5,7	11,8
	Aurka	20,0	7,7	9,6	19,6	60,0	23,6
	Ed/Ee	10,0	15,4	7,7	13,0	5,7	9,9
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, Connorren lehen hipotesiari erreparatuz, EAEn bere hipotesia erlatiboki betetzen dela ikus dezakegu. Izan ere, egia da gutxiengo etnonazionalen artean afektua baxuagoa dela, baina kasu honetan, euskaldunak gehiago sentitzen direnak, espainolak bezain euskaldunak sentitzen direnekiko gertu azaltzen dira. Eta afektu gutxi erakusten duen gutxiengo etnonazionala euskaldunak bakarrik direnen bitartez ordezkaturia da. Kataluniari dagokionean ez da ia ezberdintasunik gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen artean, nortasun subjektiboaz haratago doa hizkuntzen inguruko adostasuna. Katalanak bakarrik sentitzen direnak ere katalan hizkuntzaren espainiar izaera ontzat ematen dute, printzipio batean, balizko kontraesan edo bateragarritasun ezetik aldentuz.

Bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman zion %75a galegoa, katalana eta euskara ere espainiar hizkuntzak direnaren ideiarekin ados dago. EAJren boto-emaleen %52,5a ere ados dago eta EHAKren boto-emaleen artean portzentajea %33,3ra txikitzen da. Kataluniari dagokionean, PSCri bozka eman zion %92,6a bat dator galegoa, katalana eta euskara ere espainiar hizkuntzak direnaren ideiarekin, CIUko boto-emaleen artean ere adostasun maila oso handia da, %89,6koa, eta ERCren boto-emaleen artean %73,9koa da (ikus IV.1.12.taula).

IV.1.17. Grafikoa: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko aldeketasuna nortasun subjektiboaren arabera



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nortasun subjektiboaren arabera irudikatutako gutxiengo eta gehiengo etnonazionalekin aipatu moduan, EAERen kasuan bozkaren arabera jarrera ezberdinak adierazten dituzte inkestatuek, baina bozka abertzale/ez abertzalearen artean ikus dezakegun ezberdintasun bera ikus dezakegu EAJ eta EHAKren boto-emaitzen artean.

IV.1.12. Taula: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera


		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	92,6	70,6	92,7	89,6	73,9	87,6
	Zalantzan	1,2	11,8	0,0	2,1	8,7	2,7
	Aurka	6,2	17,6	7,3	7,3	17,4	7,9
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	1,7
EAE	Ados	75,0	60,0	75,0	52,5	33,3	54,7
	Zalantzan	8,3	20,0	0,0	7,5	11,1	11,8
	Aurka	12,5	20,0	25,0	30,0	55,5	23,6
	Ed/Ee	4,2	0	0	10,0	0,0	9,9
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Euskara, galegoa eta katalaneraren espainiar izaerarekiko adostasuna beraz, oso maila txikian dago baldintzatua bozka abertzale/ez abertzalea egiten dutenaren arabera. Are eta gutxiago Katalunian, non bozkak

baieztapen honekiko adostasun/desadostasun mailan ia eraginik ez duen. Nortasun subjektiboaren araberrako ezberdintasunen ildo berean, Katalunian alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen gehiengo ere bat dator galegoa, katalana edota euskara ere espainiar hizkuntza direnaren ideiarekin.

IV.1.18. Grafikoa: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko aldektasuna bozka oroitzenaren arabera



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismoaren aldagaiari dagokionean, EAEn ez abertzaleen %64,2a bat dator galegoa, katalanera edota euskara ere espainiar hizkuntzak direnaren baieztapenarekin. Abertzale moderatuen artean, adostasun maila %50,4era txikitzen da eta oso abertzaleen artean %36,8ra. Katalunian aldiz, nazionalismo mailaren arabera eraturiko taldeen artean ia ez dago ezberdintasunik, ez abertzaleen artean %90,9a bat dator *item*arekin. Abertzale moderatuen artean, %87,1a eta oso abertzaleen artean %84,9a.

Hortaz, eta aldagai honi dagokionean, EAEn gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko ezberdintasun apal batzuk ikus ditzakegu eta nazionalismo mailaren arabera osaturiko hiru taldeen arteko gradazioa ikus dezakegu. Katalunian aldiz, nazionalismo mailak ez du diskrimatzen eta ez abertzale izan edo oso abertzale izan, adostasun maila altua erakusten dute inkestaturek. Aurreko bi aldagaiekin ikusi bezala, nortasun subjektiboa eta bozkarekin batera nazionalismo graduaren eragina oso bestelakoa da EAEn eta Katalunian.


IV.1.13. Taula: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	90,9	87,1	84,9	87,6
	Zalantzan	2,1	2,0	3,3	2,7
	Aurka	5,4	8,9	11,8	7,9
	Ed/Ee	1,7	2,0	0,0	1,7
EAE	Ados	64,2	51,4	36,8	54,7
	Zalantzan	12,3	17,1	7,9	11,8
	Aurka	13,6	22,9	44,7	23,6
	Ed/Ee	9,9	8,6	10,5	9,9
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Laburbilduz, Connorrek hizpide duen hipotesairi dagokionean, euskara, galegoa eta katalanera espainiar hizkuntzak direnaren inguruko ezbaian, EAEn gutxiengo etnonazionalaren baitako talde batek bakarrik erakutsiko luke Espainiako Estatuarekiko afektu ahula, esaterako, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak eta abertzale arradikalak direnak. Katalunian aldiz, auzi honek ez du ia banaketarik sortzen eta *item* honi dagokionean bederen, gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko lotura afektibo handia, edo talde dominanteen adinakoa erakutsiko lukete.

IV.1.19. Taula: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzaletasun mailaren arabera



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Kataluniako herritarrek gaztelaniarekiko erakutsitako atxikimenduak euren nortasun subjektiboa, abertzaletasuna eta bozkatik haratago doan auzia dela agerian utzi du. Hizkuntza ez litzateke konfrontazio politikoaren elementu eurentzako. Katalaneraren hedapen zabalak eta katalanismo kulturalaren indar eta aniztasunak zerikusirik izango du posizio honetan. Baina Katalunian era indartsuago batean islatzen den nortasun bateragarritasunak ere ahalbidetzen du gaztelaniarekiko atxikimendua konplexurik gabeko azaltzea. EAEn aldiz, herritarren abertzaletasun mailak baldintzatzen du hein batean euskara espainiar hizkuntzat maila batean edo bestean onartzea, hizkuntzaren politizazioa agerian utziaz. Izan ere, euskal herritarren artean, euskararen erabilera propiotik haratago baloratzen da euskararen espainiartasuna sinboloen indarra berriro ere mahaigaineratuz.


Abertzaleen aldetik, euskara, espainiarrengandik ezberdinduko lituzkeen elementu nagusienetakoa da, praktikan funts handirik ez badu ere. Espainiartasunaren ukazioa da ardatz, euskararen defentsa, maila teorikora mugatuaz. Honela, eta aurretik azaldu dugun moduan, ez dugu uste egun euskara nazionalismoaren zedarri nagusi denik, komunitatea irudikatzeko eta ezberdintzeko euskararen ikur eta sinboloak oraindik paper garrantzitsua jokatzen badu ere. Honela, euskal hiztunak ez diren abertzaleek ere euskara elementu propioa eta bereizgarriaren aldeko jarrera erakusten dute. Euskararen ezagutza honela, bigarren maila batean geratzen da, espainiartasuna ukatzearen gailentasunaren aurrean.

E) “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria”

Item honen interpretazioari heldu aurretik, barneratzen dituen kontzeptu ezberdinei erreparatzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Aurretik aipatu dugun moduan, *item* batzuk laburtu egin ditugu taula eta grafiko ezberdinetako tituluetan. Jatorrizko *itema* honakoa da: “*Espainiak batuta jarraitu behar du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko*”. Espainiaren batasunaren beharraz ari da, baina ez argudio politiko, juridiko eta historikoei erreparatuz, herritarren eta erkidegoen arteko elkartasun berme gisa baizik. Hau da, Espainiaren haustura emango balitz, egun dauden elkartasun mekanismoak hautsiko lirerateke. Hortaz, *item* honi jarraiki, Espainiaren batasuna auzitan ipintzen duten herritarrak posizio insolidarioak eta berekoiak erakutsiko lituzkete. Sarritan erabili izan du espainiar nazionalismoak argudio hau, estatuaren barneko nazionalismo periferikoen banaketa nahiak baretze asmoz.

Ondorioz, alde batetik, hausturaren aldeko zenbait posizio zangotrabatzea nahi izan da, beti ere, balizko elkartasun horren lelopean, eta bestetik, espainiar herritarren artean ere, nazionalismo periferikoez izan ahal duten banaketa nahia errefuxatzera eramanez, insolidariotzat joaz Espainiaren batasuna auzitan jotzen dutenen jarrera edo hautua. Argigarria izan daiteke, ildo honetan Kataluniako sezesioaren asmoen aurka Espainiak martxan jarritako makinaria politiko propagandistikoa. Dena den, hemen ere lagundu du Kataluniako nazionalismo instituzionalak erabilitako argudio ekonomizista eta erakutsitako gailentasun ekonomikoak. Katalanen “*Espanya ens roba*” (Espainiak lapurtzen digu), “*zuekiko elkartasunik izan nahi ez dugun*” mezuan bilakatua izan da Espainiako Estatuaren aldetik.

IV.1.20. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Behin *item* honek barneratzen dituen kontzeptu eta esanahi ezberdinak hizpide izan ditugula, datuen interpretazioari helduko diogu. Espainiako laginari dagokionean, inkestatuen %83,1a bat dator Espainiak batuta jarraitu behar duen ideiarekin, EAEn portzentajea %41ekoa da eta Katalunian %61,2koa. EAeko herritarren artean beraz, Espainiaren batasunarekiko adostasun maila Kataluniakoa baino baxuagoa da, batasun honen aurkako posizioak ez badira ere oso ezberdinak Katalunian (%21,8) eta EAEn (31%). Batasunaren aldeko posizioa Espainiako Estatuarekiko leialtasun adierazle bezala ulertuaz, agerikoa da katalanek euskal herritarrek baino leialtasun handiagoa erakusten dutela. Jarraian ikusiko dugu, bai

Katalunian eta bai EAEn, ze aldagaik baldintzatzen dituzten gehien Espainiaren batasunaren aldeko edo aurkako jarrerak.

Herritarren nortasun subjektiboaren arabera datuak izango ditugu aztergai lehenik eta behin. Herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatu bidean, EAEn nortasun bikoitza azaltzen dutenen %60,8a Espainiak batuta jarraitu behar duenaren ideiarekin bat dator. Euskal nortasuna lehenesten duten herritarrek aldiz, nortasun bikoitza dutenekiko oso bestelako posizioa azaltzen dute. Modu honetara, espainiar baino, euskaldun sentitzen direnen artean herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatu bidean Espainiak batuta jarraitu behar duenaren ideia %22,7ak bakarrik babesten du, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean berriz, portzentajea %9,1era txikitzen da. Kataluniari dagokionean, nortasun bikoitza azaltzen dutenen %78,8ados azaltzen da Espainia batuta jarraitzearen beharraz, espainolak baino katalanak sentitzen direnen artean portzentajea %40,6koa da. Katalanak bakarrik sentitzen direnen %19,2ak ere bere adostasuna erakusten du adierazpen honekiko.

IV.1.14. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)


		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira
Katalunia	Ados	90,0	92,3	78,8	40,6	19,2	61,2
	Zalantzan	5,0	5,1	6,1	13,8	17,8	10,4
	Aurka	0,0	0,0	8,0	37,7	60,3	21,8
	ED/EE	5,0	2,6	7,1	8,0	2,7	6,7
EAE	Ados	100,0	76,9	60,8	22,7	9,1	41,0
	Zalantzan	0,0	7,7	17,6	18,2	9,1	15,0
	Aurka	0,0	0,0	7,8	45,5	72,7	31,0
	ED/EE	0,0	15,4	13,7	13,6	9,1	0,0
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, bai EAEn eta bai Katalunian (era apalagoan) talde etnonazionalen jarrerak ezberdinak dira Espainia batuta mantentzearen beharraz. EAEn gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen jarreraren arteko aldea agerikoa da eta gutxiengo etnonazionalaren baitan nahiko ahula da Espainiaren batasunaren aldeko jarrera. Katalunian ere badira ezberdintasunak, baina esaterako, katalanagoak sentitzen direnen artean ere, Espainiaren batasunaren aldekoen portzentajea esanguratsua da. Katalanak bakarrik

sentitzen direnak lirateke Estatuarekiko afektu gutxien sentituko luketeenak eta, halere, %19,2ak Espainiaren batasunaren aldeko jarrera azaltzen du. EAEn espainiarrak bakarrik sentitzen direnak salbu, nortasun subjektibo ezberdina duten herritar guztien artean du babes txikiagoa Espainiaren batasunaren aldeko *itemak*.

IV.1.21. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko aldeketasuna nortasun subjektiboaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bai EAEn eta bai Katalunian, gutxiengo eta gehiengoek Espainiaren batasunaren inguruan erakutsitako posizioak ezberdinak direla ukatu gabe, nortasun subjektibo berdinean kokatzen diren euskal eta katalan herritarren jarrera ezberdintasuna agerikoa da. Kataluniako nazionalismoa ez da izan Espainiaren hausturaren aldekoa eta, aurretik ere aipatu dugu katalanismo kulturalaren indar handia ez dela islatu jarraian katalanismo politiko batean. Ez behintzat, EAEn baitan eman den maila berean, euskal nazionalismoaren baitako haustura nahiak ere eztabaidagarriak izan badaitezke ere. Gai honi helduko diogu Connorrek luzatutako seigarren hipotesiaren baitan, non auzitan ipintzen den gutxiengo etnonazionalak duten banaketaren aldeko jarrera.

Bozkari dagokionean, herritarren arteko berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko, EAEn PSEri bozka eman zion %70,8a Espainia baturik mantendu beharraren ideiarekin ados dago. EAJren boto-emaitzen artean portzentajea %22raino txikitzen da eta EHAKren boto-emaitzen adostasun portzentajea %12,5ekoa da. Kataluniari dagokionean,

PSCri bozka eman zion %71,6 bat dator Espainia batuta mantentzearen beharraz. CIUko boto-emaielen artean portzentajea %56,3koa da eta, aldiz, ERCren boto-emaielen artean adostasuna maila %15,6koa da (ikus IV.1.15.taula).

IV.1.15. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	71,6	94,1	39,5	56,3	15,6	61,2
	Zalantzan	11,1	5,9	16,3	10,4	15,6	10,4
	Aurka	11,1	0,0	32,6	26,0	64,4	21,8
	Ed/Ee	6,2	0,0	11,6	7,3	4,4	6,7
EAE	Ados	70,8	100,0	33,3	22,0	12,5	41,0
	Zalantzan	12,5	0,0	16,7	14,6	0,0	15,0
	Aurka	4,2	0,0	50,0	48,8	87,5	31,0
	Ed/Ee	12,5	0	0	14,6	0,0	0,0
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


Berriro ere, espazio politiko beretsuetan, Kataluniako datuek Espainiarekiko afektibitate gehiago erakusten dute. Esanguratsua da nazionalismo instituzionala ordezkatu ahal duten CIU eta EAJren boto-emaielak azaltzen dituzten posizio ezberdinak. Jarrera ezberdintasun hau bat dator bai CIUk eta bai EAJk izan duten ibilbide historikoari erreparatzen badiogu. Azken urteetan aldiz, CIUren baitan jauzi politiko bat ikusi ahal izan dugu, eta katalan nazionalismoak euskal nazionalismoari banaketaren aldeko proiektua zehazteari dagokionean aurre hartu diola interpretatu ahal dugu. Dena den, prisma aldaketa batetaz mintzo ahal izateko denbora pasa beharko da, posible baita uneko mugimenduen aurrean egotea, eta erakutsitako aldaketa nahiaken trinkotasuna oso indartsua ez izatea.

Item honen hasieran aipatu dugu zer nolako konplexotasuna dakarren bere interpretazioak, Espainiaren batasunaren defentsa argudioa herritar eta erkidegoen arteko elkartasun bermean oinarritzen baitu. Hau da, adierazpenarekiko adostasuna Espainiaren batasunaren aldeko jarrera bezala ulertua izan daiteke, hutsean, edota berdintasuna eta elkartasuna bermatu biden onartu beharreko eszenatoki gisa. Berdin, aurkako jarrera azalduaz gero, Espainiaren batasunaren idearen errefuxapena adierazi dezake, edota Estatuak darabilen berdintasun eta elkartasunaren argudioa

erabiltzearen aurkakotasuna adierazi dezake. Hortaz, adostasun eta desadostasunak klabe ezberdinetan interpretatuak izan daitezke. Berdintasuna eta espainiartasuna kidetzeak dilema faltsu bat planteatzen du logikoki. Baina politikoki erabili egiten da. Printzipioz eta mamiari dagokionean ez du zertan kontraesanik egon behar berdintasuna eta nazionalismo ezberdinen artean. Espainiak desberdintasuna gara lezakeen moduan, EAEk berdintasuna, eta alderantziz.

Bozkak baieztapen honekiko adostasun/desadostasun maila baldintzatzen du. EAEren kasuan ezberdintasuna agerikoa da bozka abertzalea eta bozka ez abertzalearen artean, EAJ eta EHAKren boto-emaileen artean ere ezberdintasunik badago ere. Katalunian aldiz, bozka abertzale/ez abertzale baino, alderdien arteko ezberdintasunak azpimarra ditzakegu. Honela, bozka ez abertzalea egiten dutenen adostasun maila bozka abertzalea egiten dutenen baino handiagoa izanik ere, ezberdintasuna handiagoa da CIU eta ERCko boto-emaileek erakutsitako babes mailaren artean, CIUko boto-emaileak eta PSCren artekoak baino. Hortaz, gutxiengoek Estatuarekiko afektu gutxiago erakutsiko lukete, baino bozkari erreparatuz, gutxiengo horren parte bat, CIUko boto-emaileak kasu, gehiengoaren parte lirakeen PSCren boto-emaileen jarreratik gertu leudeke eta, benetan, ERCren boto-emaileek osatzen duten gutxiengo etnonazionala litzateke afektu horren ahultasuna erakutsiko lukeena. Ahantzi gabe, ERCko eta EHAKren boto-emaileek inkesta honetan duten pisu baxua.

IV.1.22. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzapenaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Dena den, ERC eta EHAKren boto-emaielen datuetatik interpretazio orokorrik ezin badugu egin ere, Kataluniako herritarrek batasunaren aldekoagoak dira, pertsonen berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasunaren izenean bada ere. Posible da, beraz, katalanek erakutsitako posizio hau *item* honen inguruan aurkeztutako interpretazio klabe batean oinarritzea; honela, adostasun portzentajeek, Espainiaren batasunaren aldeko ideiarekin defentsa baino, ezinbestean onartu beharreko eszenatoki bezala ulertua izan daiteke elkartasuna eta berdintasuna bermatu bidean.

Abertzaletasun mailari begiratuz, EAEn ez abertzaleen %63,3a bat dator Espainia baturik mantendu behar diren ideiarekin herritarren arteko berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatu dadin. Abertzale moderatu bezala definitu ditugun artean portzentajea %20koa da eta oso abertzaleen artean %13,5a. Kataluniari dagokionean, ez abertzaleen %77,6k Espainia baturik mantendu behar dela uste du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko, abertzale moderatuen artean *item*arekiko adostasun maila %55ekoa da eta oso abertzaleen artean %40,8koa. Berriz ere, nazionalismoa eta nortasun subjektiboaren arabera hizpide izan ditugun konstante berberak ikus ditzakegu.

IV.1.16. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)


		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	77,6	55,0	40,8	61,2
	Zalantzan	7,5	17,0	10,5	10,4
	Aurka	8,3	23,0	45,4	21,8
	Ed/Ee	6,6	5,0	3,3	6,7
EAE	Ados	63,3	20,0	13,5	41,0
	Zalantzan	16,5	11,4	16,2	15,0
	Aurka	8,9	57,1	59,5	31,0
	Ed/Ee	11,4	11,4	10,8	13,0
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismoaren aldagaiak EAEn ezberdintasunak sortzen ditu talde etnonazional ezberdinek *item*arekiko azaldutako adostasun mailan. Gutxiengo etnonazionalaren artean, Espainiaren batasunaren aurkakotasuna adierazten dutenak nagusitzen dira nahiz eta Espainiaren batasunaren aldekoak ere badiren. Katalunian, nazionalismo graduaren

arabera osaturiko hiru taldeen arteko ezberdintasunak askoz ere apalagoak dira, eta EAEkoek baino sostengu handiagoa azaltzen dute Espainiaren batasunaren aldeko baieztapenarekiko. Kontuan izan behar dugu Katalunian gutxiengoaren parte diren abertzale moderatuen artean ere, askoz gehiago direla Espainiaren batasunaren ideiarekin aldekoak eta oso abertzaleen artean ere, babes maila handia du Espainia batuta mantentzearen ideiak.

IV.1.23. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzaletasun mailaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España


Nortasun subjektiboarekin eta bozka oroitzairekin ikus bezala, nazionalismo mailaren arabera gutxiengo etnonazionalistaren kideen parte batek Katalunian Estatuarekiko lotura afektiboak nahiko maila indartsuan azaltzen ditu. Kontuan izan behar dugu, batetik, *item* honetan sezesioaren auziaz ari garela, eta abertzale izatea ez dela zertan banaketaren aldeko jarrera izatearekin parekatu behar. Bigarrenik, Espainiaren batasunaren aldeko ideia elkartasuna eta berdintasun berme gisa aurkeztu izanak ere baldintzatu ahal izan dituzte herritarren posizioak.

F) “Espainiako banderak ez nau hunkitzen”

Item honek Espainiako Estatuarekiko afektuaren intentsitatea era argi batean adierazi dezakeela uste dugu eta horregatik oso garrantzitsua izan daitekeela uste dugu Connorren lehen hipotesiaren nondik norakoak neurtzeko. Honela, eta datu orokorretatik hasita, Espainiako inkestaren %25,3a ados dago Espainiako banderak inongo emoziorik pizten ez

dionaren ideiarekin. Katalunian portzentajea %53,2koa da eta EAEn %55,3koa (ikus IV.1.24. grafikoa).

IV.1.24. Grafikoa: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

EAEn barnean, nortasun bikoitza dutenen %30,2a bat dator Espainiako banderak inongo emoziorik pizten ez dionaren sentimenduarekin. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean portzentaje hau %94,1eraino handitzen da. Kataluniari dagokionean, nortasun bikoitza adierazten dutenen %38,4a Espainiako banderak emoziorik pizten ez dionaren adierazpenarekin bat dator eta portzentajea %82,4eraino handitzen da katalanak bakarrik sentitzen direnen artean (ikus IV.1.17.taula).

IV.1.17. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira	
Katalunia	Ados	22,5	23,1	38,4	76,1	82,4	53,2
	Zalantzan	7,5	10,3	19,0	10,1	5,4	12,9
	Aurka	70,0	66,7	42,2	13,0	10,8	33,2
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,5	0,7	1,4	0,7
EAE	Ados	12,5	7,7	30,2	77,8	94,1	55,3
	Zalantzan	12,5	23,1	30,2	11,1	2,9	17,2
	Aurka	75,0	61,5	30,2	8,9	2,9	22,3
	Ed/Ee	0,0	7,7	9,4	2,2	0,0	5,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Datuak kontrara aurkeztuta aldiz, hau da, banderak hunkitzen dituenen portzentajeak aintzakotzat harturik, ezberdintasunak nabarmenak dira nortasun subjektibo beretsua azaltzen duten kataluniar eta euskal herritarren artean. EAEn espainolak bakarrik direnak, Espainiako banderarekiko emozio handiagoa aurkezten dute Katalunian baino, beti ere ahanzi gabe oso herritar gutxi direla nortasun subjektibo kategoria horretan kokatzen direnak. Gainontzeko nortasunei dagokionean, euskal herritarrek espainiar banderarekiko afektu gutxiago erakusten dute katalanak baino. Ezberdintasun handiena, Katalunian eta EAEn nortasun bikoitza azaltzen dutenen artean ikus dezakegu.

Beraz, bai Katalunian eta bai EAEn, talde etnonazional ezberdinen jarrera ezberdina da espainiar banderak sortu ahal duen emozioaren aurrean. Connorren lehen hipotesia berresten dela esan genezake, gutxiengo etnonazionalak, kasu honetan Espainiako bandera bitarteko, Estatuarekiko lotura afektibo ahulagoa erakusten baitute. Hala eta guztiz, bai EAEn eta bai Katalunian, gehiengo etnonazionalaren parte diren herritar batzuk ere, nortasun bikoitza azaltzen dutenak bereziki, Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dionaren ideiarekin bat datoz.

Espainiako banderak agian oraindik ere errefusa sor lezake ezkerreko kultura politiko espainiarzalean eta sentimendu hau duten hainbat pertsonak azaldu ahal dute nortasun bikoitza bai Katalunian eta bai EAEn. Ezkerreko kultura politiko honen ordezkari izan litezke PSE eta PSC alderdien boto-emaileak. Ildo honetan, bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman zion %28a Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dionaren ideiarekin bat dator. EAJko boto-emaileen artean %72,1a da emozio gabezia honekin bat datorrena eta EHAKren boto-emaileen portzentajea %88,9raino handitzen da. Katalunian aldiz, PSCri bozka eman zion %43,2a Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dionaren baieztapenarekin ados dago, CIUko boto-emaileen artean portzentajea %61,1ekoa da eta ERCkoen artean %87,2koa (ikus IV.1.18. taula).

EAEn baitan bozkaren arabera irudika ditzakegun talde etnonazionalen jarrera ezberdintasuna agerikoa da. Bozka abertzalea eta ez abertzalea egiten dutenen adostasun maila oso bestelakoa da. Katalunian ere bada ezberdintasunik bozka abertzale eta ez abertzalearen artean, baina EAekoarekin konparatuz apalagoa. Alde batetik, kontuan izan behar dugu PSEko boto-emaileekin konparatuz, PSCkoak adostasun maila altuagoa

erakusten dutela aurkeztutako *item*arekin eta, bestalde, CIUko boto-emaileen adostasun maila EAJkoena baino txikiagoa da. Honela, CIUko boto-emaileek PSCko boto-emaileekiko azaltzen duten adostasun maila ezberdina, ERCko boto-emaileekiko dutenaren antzekoa litzateke.

IV.1.18. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	43,2	17,6	69,0	61,1	87,2	53,2
	Zalantzan	18,5	0,0	9,5	9,5	8,5	12,9
	Aurka	37,0	82,4	21,4	29,5	4,3	33,2
	Ed/Ee	1,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,7
EAE	Ados	28,0	16,7	60,0	72,1	88,9	55,3
	Zalantzan	16,0	16,7	20,0	11,6	0,0	17,2
	Aurka	48,0	66,7	20,0	9,3	11,1	22,3
	Ed/Ee	8,0	0	0	7,0	0,0	5,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismoaren aldagaiari erreparatuz, EAEn ez abertzaleen %33,8a Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dionaren ideiarekin bat dator. Abertzale moderatuen artean portzentajea %77,1koa da eta oso abertzaleen artean %88,9koa. Kataluniari dagokionean, ez abertzaleen %40,5ak Espainiako banderak ez diola inongo emoziorik sortzen adierazten du. Abertzale moderatuen artean portzentajea %66koa da eta oso abertzaleen artean %66,7koa (ikus IV.1.19. taula).

Abertzaletasunaren graduaren arabera ere, berriro Katalunian espainiar banderaren onarpen handiagoa ikusten dugu. Aldagai honek gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasunak azaltzen ditu, baina askoz ere indar gehiago du EAEn aldagai diskriminatzaile moduan. Bai EAEn, eta bai Katalunian, abertzaleek (bai moderatuek eta bai arradikalek) jarrera antzekoa erakusten badute ere, eta ez abertzaleekiko jarrera ezberdina, EAEn ez abertzale eta abertzaleen arteko tartea askoz handiagoa da.

Ondorioz, Connorren lehen hipotesia berresten dela ikusten dugu, baina bereziki EAEn baitan. Alde batetik, EAEn gutxiengo etnonazionalaren parte liratekeen EAJ eta EHAKren boto-emaileak, abertzale moderatu eta oso abertzaleak, adostasun maila altuagoa erakusten dute Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dietenaren baieztapenarekin.

Bestetik, gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasuna murrizten duen beste faktorea, Katalunian gehiengo etnonazionalako kide liratekeen PSCko boto-emaileek, eta ez abertzaleek erakutsitako jarrera ezberdina litzateke. Izan ere, PSEko boto-emaileekin eta EAEn, ez abertzaleak liratekeenekin konparatuz, Espainiako banderaren emozio eza era indartsuagoan adierazten dute, eta hortaz, Estatuarekiko edo bere sinbolo indartsuenekiko lotura afektibo ahulagoa.

IV.1.19. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	40,5	66,0	66,7	53,2
	Zalantzan	14,9	11,0	10,5	12,9
	Aurka	44,2	21,0	22,9	33,2
	Ed/Ee	0,4	2,0	0,0	0,7
EAE	Ados	33,8	77,1	88,9	55,3
	Zalantzan	27,5	8,6	2,8	17,2
	Aurka	33,8	11,4	5,6	22,3
	Ed/Ee	5,0	2,9	2,8	5,1
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Arestian aipatu dugun ezkerreko kultura politiko espainiarzalearen ezaugarrien haritik ulertu ahal dugu, PSE, eta bereziki, PSCko boto-emaileek espainiar banderarekiko erakutsitako leialtasun urria. Dena den, afektibitate lauso honen irismena ez da espainiartasuna irudika dezakeen elementu guztietan aplikagarria.


Honela, espainiar banderak duen karga sinbolikoa ez onartzeak ez dakar jarraian espainolitatea irudika dezaketen auzi ororekiko ukazioa. Espainiaren batasuna esaterako, PSE eta PSCri bozka eman ziotela adierazi zutenen artean ez dago auzitan, hemen ezinbestekoa bada ere batasun horren zergatiaren oinarriari erreparatzea. Hau da, *item* horretan Espainiaren batasuna herritarren eta erkidegoen arteko elkartasuna eta berdintasuna bermatzeko bitarteko gisa aukezten da, eta hortaz, logikoa da PSE eta PSCko boto-emaileak premisa horrekin bat etortzea. Hortik, Espainiako banderarekin hunkitzera jauzi esanguratsu bat dago.

G) “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago”

Espainiaren batasunari buruzko *itemak* bezala, honakoak ere, adierazpenaren esanahia aldatu dezakeen beste premisa bat barneratzen du. Izan ere, ikusi ahal ditugun datuak Konstituzioaren onartze edo errefuxatze gisa bezala interpreta ditzakegu, baina horrek ez luke jasoko adierazpenaren adiera osoa. Item honetan, Konstituzioaren balioespena Espainia baturik mantentzeko bitarteko edo berme gisa aurkezten da. Hortaz, posible da Konstituzioa ontzat emanik ere, *item* honekiko ados ez agertzea, bitarteko hori Espainia baturik jarraitzearen arrazoitzat jotzen bada, edo batasun horretan kokatzen bada Konstituzioaren xede edo lorpen nagusia. Hein batean, bi ideiak parekatu nahi dira, Konstituzioaren aldeko jarrera eta Espainiaren batasunaren aldeko ideia.

Espainiako laginari helduz, inkestatuen %82,3ak Konstituzioa era baikorrean baloratzen du Espainia baturik mantentzeko bitartekoa izan den ideiarekin adostasun maila altua azalduz. Katalunian ere adostasuna nahiko altua da Konstituzioaren balioespenari dagokionean, %70,8koa. EAEn aldiz, inkestatuen %46a da Konstituzioa era baikorrean baloratzearen ideiarekin ados dagoena. Aldagai honetan hortaz, Espainiako nahiz Kataluniako herritarren iritzia nahiko gertu daude, EAEn aldiz, inkestatuen jarrerak nahiko bananduak daude.

IV.1.25. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)




Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Jarrera ezberdin hauek bat datoz Espainiaren batasunaren auzian euskal eta katalan herritarrek erakutsitakoarekin. Posizio nagusi hauek interpretatzeko, 1978ko Konstituzioak Katalunian eta EAEn izan zuen babes ezberdina aipatzea ezinbestekoa suertatzen da. EAEn abertzaleek, eta bereziki, ezkerrekoek, ez zuten Konstituzioa onartu, jarrera homogeneorik izan ez bazen ere. Nazionalismo instituzionalak abstentziorako deia egin zuen eta Ezker Abertzaleak aldiz, ezezkoaren aldeko aldarria egin zuen.

Jarraian, 1978ko Konstituzioaren erreferendumean baiezkoak jasotako babesa irudikatu nahi izan dugu herrialde ezberdinetan botu balioduna eta errolda kontuan izanik. Botu balioduna kontuan hartzen badugu (baiezkoa, ezezkoa edota txuriz bozkatu zutenak), bai Espainian, bai Katalunian eta bai EAEn Konstituzioaren aldeko bozka nagusitu zela esan genezake. Gainera, Kataluniako herritarren artean (%90,9), Konstituzioak izandako babesa Espainiako Estatu osokoa (%88,5) baino zertxobait altuagoa izan zen. EAEn aldiz, bozka ematera joan zirenen %70,2ak eman zuen aldeko bozka.

IV.1.26. Grafikoa: 1978ko Konstituzioaren balioespena botu balioduna eta errolda osoaren arabera EAE, Katalunia eta Espainian



Iturria: Espainiako Barne Ministeritzaren Hauteskunde Artxiboa

Errolda osoari erreparatzen badiogu, herrialdeen arteko ezberdintasuna areagotzen dela ikus genezake EAEn izandako abstentzio altua medio. Espainiako (%59) eta Kataluniako (%61,4) errolda osoa kontuan hartzen badugu, bietan, bozkatzeko aukera zuten hamar herritarretatik, seik, aldeko bozka eman zuela ikus genezake. EAEn aldiz, %55eko

abstentzioarekin, bozka aukera zuten herritarren %30,9ak besterik ez zuen berretsi Espainiar Konstituzioa (ikus IV.1.26. grafikoa). 1978. urtean katalan eta euskal herritarrek Konstituzioarekiko erakutsitako babes ezberdina oraindik ere era beretsuan mantentzen dela ikus genezake.

Hasieran aipatu dugun batasunaren premisa Konstituzioaren aurkakotasuna ulertzeko gako nagusia da, Konstituzioa auzitan ipini baino, EAEn Espainia baturik mantentzeko tresna izanagatik errefuxatu baita orokorrean abertzaleen aldetik. EAEn tresna politikoaren alde onenak ere ezin dira onartu edota ez zitzaizkien onargarri egiten bere momentuan Konstituzioaren kontra egon zirenei. Beraz, badirudi jatorrizko zilegitasun eza kondizio bilakatzen dela, ez prozesu. Prozesuari erreparatuta, emaitza positiboak onartzen dira baina gero legitimitatean sustraitzen dira eta ezin da onartu.

EAEko talde etnonazional ezberdinei erreparatuz, nortasun bikoitza adierazten duen %66a ados dago Konstituzioa era baikorrean balioestearekin, espainolak baino euskaldunak sentitzen direnen artean portzentajea %31,8ra txikitzen da eta %12,1era euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean. Kataluniari dagokionean, nortasun bikoitza azaltzen duen %78,8a ados dago Konstituzioa era baikorrean balioestearekin, espainolak baino katalanak sentitzen direnen artean ere adostasuna nahiko handia da, %67,2koa. Katalanak bakarrik sentitzen diren %40,3ak ere baikorki balioesten du Konstituzioa Espainia baturik mantentzeko bitarteko bat izan den heinean.


IV.1.20. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)

		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira
Katalunia	Ados	85,0	82,1	78,8	67,2	40,3	70,8
	Zalantzan	10,0	0,0	8,5	9,5	9,7	8,9
	Aurka	2,5	10,3	4,7	20,4	47,2	15,0
	Ed/Ee	2,5	7,7	8,0	2,9	2,8	5,3
EAE	Ados	87,5	81,8	66,0	31,8	12,1	46,0
	Zalantzan	12,5	9,1	17,0	25,0	18,2	18,5
	Aurka	0,0	0,0	9,4	29,5	63,6	24,7
	Ed/Ee	0,0	9,1	7,5	13,6	6,1	10,9
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bai EAEn, eta bai, Katalunian, talde etnonazional ezberdinen arteko adostasun maila ezberdinak ikus baditzazkegu ere, EAEn nortasun subjektiboak askoz ere gehiago baldintzatzen du Konstituzioarekiko balioespena. Katalunian ere ezberdintasunak badira, baina katalanak bakarrik direla esaten dutenak, euskaldunak bakarrik direla adierazten dutenak baino adostasun maila altuagoa erakusten dute. Hortaz, badirudi, Katalunian nortasun subjektiboari dagokionean eta, bereziki, espainolak baino, katalanak edota katalanak bakarrik direla diotenek ez dituztela (hain) baterazin bizitzen Espainiaren batasuna ahalbidetu duen Konstituzioa eta euren identifikazio nazionala.

IV.1.27. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko aldekotasuna nortasun subjektiboaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Berriro ere aurreko *itemetan* ikusi bezala, nortasun subjektibo berdina duten katalan eta euskal herritarrek posizio ezberdinak erakusten dituztela ikus genezake eta, Kataluniako gutxiengo etnonazionalaren parte liratekeenak ere, katalanak gehiago sentitzen direnak esaterako, Estatuarekiko leialtasun handiagoa erakusten dute euskaldunak gehiago sentitzen direnak baino. Connorri erreparatuz, EAEn agerikoa da gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko afektu ahulagoa erakusten dutela. Katalunian katalanak bakarrik sentitzen diren gutxiengo etnonazionalak ere afektu gutxiago erakusten du baina gehiengo etnonazionalarekiko jarrera ezberdintasuna ez da hain nabarmena.

Bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman zion %76,9a bat dator Konstituzioa positiboki baloratzearekin, Espainia baturik mantentzeko

bitarteko gisa. EAJren boto-emaileen artean adostasuna %31koa da eta EHAKren boto-emaileen adostasun maila %12,5ra txikitzen da. Kataluniari dagokionean, PSCri bozka eman zion %81,5a ados dago Espainia baturik mantentzeko bitarteko izan den heinean, Konstituzioa positiboki balioestearekin. CIUko boto-emaileen artean ere adostasun maila altua da, %71,1ekoa eta ERCko boto-emaileen artean portzentajea %44,4koa da (ikus IV.1.21. taula).

IV.1.21. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	81,5	94,1	62,8	71,1	44,4	70,8
	Zalantzan	8,6	5,9	4,7	10,3	8,9	8,9
	Aurka	4,9	0,0	27,9	14,4	46,7	15,0
	ED/EE	4,9	0,0	4,7	7,2	11,1	5,3
EAE	Ados	76,9	80,0	50,0	31,0	12,5	46,0
	Zalantzan	11,5	0	25,0	23,8	25,0	18,5
	Aurka	3,8	20,0	25,0	33,3	50,0	24,7
	ED/EE	7,7	0	0	11,9	12,5	10,9
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

EAEren kasuan bozka abertzale/ez abertzalearen arteko ezberdintasunak agerikoak dira Konstituzioa positiboki baloratzeko orduan, EAJ eta EHAKren boto-emaileen artean ezberdintasunak badaude ere. Katalunian aldiz, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko jarrerak ez dira hain ezberdinak. Bozka abertzale/ez abertzalearen diskriminazio gaitasuna apalagoa da eta berriro ikus dezakegu PSCko eta CIUko boto-emaileen adostasun mailak nahiko antzekoak direla aztergai ditugun *item* ezberdinetan. Hortaz, nortasun subjektibo ezberdinekin ikusi bezala, bozkaren eragina askoz apalagoa da Katalunian Konstituzioaren papera balioesteko orduan.

Nazionalismoaren aldagaiari helduz, EAEn ez abertzaleen %65,4ak Konstituzioa positiboki baloratzen du Espainia baturik mantentzeko bitarteko gisa. Abertzale moderatuen kasuan portzentajea %25,7ra txikitzen da eta oso abertzaleen kasuan %18,9ra. Kataluniari begira, ez abertzaleen %78,8ak Konstituzioa positiboki baloratzen du, abertzale moderatuen artean adostasun maila %68koa da eta oso abertzaleen artean %59,9koa (ikus IV.1.22. taula).


IV.1.22. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	78,8	68,0	59,9	70,8
	Zalantzan	8,7	12,0	7,2	8,9
	Aurka	6,6	15,0	30,9	15,0
	Ed/Ee	5,8	5,0	2,0	5,3
EAE	Ados	65,4	25,7	18,9	46,0
	Zalantzan	17,3	20,0	24,3	18,5
	Aurka	8,6	40,0	48,6	24,7
	Ed/Ee	8,6	14,3	8,1	10,9
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, eta nortasun subjektiboa eta bozka oroitzenarekin ikus bezala, gutxiengo eta gehiengoaren Estatuarekiko afektu ezberdinak ikus ditzakegu EAEn eta Katalunian. Nazionalismo mailari erreparatuz, EAEn agerikoa da gutxiengo etnonazionalen Konstituzioa askoz ere maila baxuagoan babesten dutela. Katalunian aldiz, Konstituzioaren balioespen positiboa askoz ere transbertsalagoa da eta gutxiengo eta gehiengoetatik haratago doa. Abertzaleen artean ere, gehiengoak Konstituzioa era baikorrean baloratzen du Espainia baturik mantentzeko bitarteko izanik ere.

IV.1.28. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko aldeotasuna abertzaletasun mailaren arabera (2006)




Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Batasunaren inguruko eta Konstituzioaren inguruko *itemek* agerian uzten dute, bi herrialde hauetako nazionalismoek izan dituzten ibilbide historiko eta helburu politiko ezberdinak, Katalunian azken urteetan ikusitako mugimenduek katalan nazionalismoaren *ibilbide orriaren* norabide aldatuta irudikatu ahal izan badute ere. Denborak bakarrik esango digu, azken gertaerek bi nazionalismoen arteko diskurtso eta praktikaren ezberdintasunen amaiera ekarri duten, hau da, kataluniar nazionalismoaren helburuak Espainiaren baitako egokitze batean txerta daitezkeen, edota hau jadanik iragan hurbileko xede batean bilakatu den.

H) “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izan beharko lituzkete”

Espainiako banderaren inguruko *itemarekin* azaldu bezala, jarraian aurkezten dugunak ere pisu sinboliko handia du. Banderak bezala, kirol selekzioak ere elementu sinboliko oso garrantzitsuak dira eta beste posizio guztiak laburtzeko baliagarriak izaten dira. Hau da, osagai diskurtsiboak sinpletu, erraztu eta ikusgarri bilakatzen dira sinboloetara heltzean. Kirol selekzioak estatuak izatearen edo estatuak duen ikusgarritasunaren adierazgarri gisa bizi izaten dira abertzaleen aldetik. Hortaz, Connorren planteiatzen duen estatuarekiko afektu edo leialtasuna neurtzeko egokia dela uste dugu.

IV.1.29. Grafikoa: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta Espainian (2006)



Iturria: CIS (2006), *La identidad nacional en España*

Espainian, inkestaturen %32,6a Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukerarekin ados dago. Katalunian adostasun maila, %67koa da eta EAEn %65,5ekoa. Nolanahi ere, adostasun ezaren portzentajeak garrantzitsuagoak dira kirol selekzioak izateko aukeraren babesa neurtzeko. Espainiar herritarren gehiengoa Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak kirol selekzioak izateko aukeraren aurka dago (%41,1a) eta %10a zalantzan dago. EAEn aldiz, herritarren %22,3a da kirol selekzioak izatearen aukera babesten ez duena, katalanen ildo beretsuan (%24,7) (ikus IV.1.29. grafikoa).

EAEn nortasun bikoitza adierazten duen %49a bat dator Katalunia, Euskal Herria edota Galiziak aukera hori izatearekin, euskaldunak bakarrik direla adierazten dutenen artean adostasuna ia erabatekoa da, %94,1. Katalunian nortasun bikoitza adierazten duen %58ak euren selekzioak izateko aukera izan beharko luketeela uste du, katalanak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, adostasuna ia erabatekoa da, %95,8.

IV.1.23. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)

		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira
Katalunia	Ados	35,0	31,6	58,0	86,2	95,8	67,0
	Zalantzan	7,5	10,5	8,5	8,0	0,0	7,5
	Aurka	42,5	55,3	23,6	3,6	1,4	17,2
	Ed/Ee	15,0	2,6	9,9	2,2	2,8	7,3
EAE	Ados	33,3	16,7	49,0	82,6	94,1	65,5
	Zalantzan	11,1	25,0	17,6	4,3	0,0	9,3
	Aurka	33,3	33,3	19,6	4,3	2,9	13,0
	ED/EE	22,2	25,0	13,7	8,7	2,9	12,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, *item* honetan ere ezberdintasunak ikus ditzakegu nortasun subjektibo ezberdinen arabera irudikatu ditugun talde etnonazional ezberdinen inguruan. Dena den, bai EAEn eta bai Katalunian, gehiengo etnonazionalaren parte liratekeen nortasun bikoitzdun herritarrak ere, hein batean Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak euren selekzioak izateko aukerarekin bat datoz. Eta hortaz, auzi ezberdinetan gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko lotura afektiboak mantentzen dituzten bezala, alderantziz ere gertatzen da, eta gehiengo etnonazionalak kideek

ere auzi batzutan Estatuarekiko afektu edo leialtasun gutxi erakutsi dezakete.

Bi herrialdeak konparatuz, Katalunian nortasun bikoitza adierazten dutenak EAEn nortasun bikoitz horrekin identifikatzen direnak baino babes handiagoa ematen diote selekzio propioak izateko aukerari. Deigarria izan daiteke EAEn eta Katalunian selekzio propioekiko aldarriak duen indar ezberdina. Izan ere, Katalunian pixka bat intentsuagoa eta anitzagoa da kirol selekzio propioaren aldeko mugimendua. Posible da Katalunian kirol selekzioen aldeko aldarria espainiartasunaren aurkako parametroetan luzatu ez izanak, aldarria indartzen lagundu izana. Hein batean aldarriaren babesak abertzale/ez abertzale ardatza gainditzen duela esan genezake, hurrengo lerroetan Kataluniako PSC eta PPko boto-emaeleen posizioek adierazten duten moduan. EAEn aldiz, nortasun subjektiboak eragin handiagoa du kirol selekzioen aldarria babesteko orduan, gurean selekzioen aldeko jarrerak antiespainolismo kutsu handiagoa du.

IV.1.24. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzapenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	59,3	29,4	64,3	79,8	95,7	67,0
	Zalantzan	4,9	0,0	16,7	6,4	0,0	7,5
	Aurka	25,9	58,8	14,3	9,6	4,3	17,2
	Ed/Ee	9,9	11,8	4,8	4,3	0,0	7,3
EAE	Ados	45,8	20,0	75,0	85,7	100,0	65,5
	Zalantzan	16,7	20	0,0	4,8	0,0	9,3
	Aurka	25,0	60,0	0,0	2,4	0,0	13,0
	ED/EE	12,5	0	25	7,1	0,0	12,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Modu honetara, bozkari dagokionean, EAEn PSEri bozka eman zion %45,8a ados dago Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak euren selekzioak izateko aukerarekin, EAJren boto-emaeleen artean %85,7a ados azaltzen da eta EHAKren boto-emaeleen artean adostasuna erabatekoa da. Kataluniaren kasuan, PSCren boto-emaeleen %59,3a ados dago selekzio propioak izateko aukerarekin, herritarrek horrela nahi izanez gero, CIUren boto-emaeleen artean portzentajea %79,8koa da eta ERCKoen artean adostasun maila %95,7ra handitzen da. Nortasun subjektiboarekin ikus

bezala, bozkaren arabera ere, gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko afektu gutxiago erakusten dute.

EAEren kasuan handiagoa da botu abertzalea eta ez abertzalea egiten dutenen arteko babes maila ezberdina. Dena den, gehiengo etnonazionalerako parte liratekeen PSC eta PSEko boto-emaitzen artean ere Estatuarekiko afektua nahiko ahula dela esateko moduan gaude, izan ere, gehiago dira Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukera izan beharko luketeela uste dutenak, aurkakoa adierazten dutenak baino.

Nazionalismo mailari erreparatuz, EAEen ez abertzaleen %49,4a ados dago Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak euren selekzioak izateko aukerarekin. Abertzale moderatuen artean portzentajea %82,9ra handitzen da eta abertzale arradikalen artean %91,9ra. Kataluniari begira, ez abertzaleen %52,9a bat dator Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukerarekin, bertako herritarrak horrela nahi izanez gero. Abertzale moderatuei dagokionean, %73,3a ados azaltzen da aukera horrekin eta abertzale arradikalen artean portzentajea %90,1eraino handitzen da.

IV.1.25. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	52,9	73,3	90,1	67,0
	Zalantzan	9,2	10,9	1,3	7,5
	Aurka	29,6	11,9	5,9	17,2
	Ed/Ee	8,3	4,0	2,6	7,3
EAE	Ados	49,4	82,9	91,9	65,5
	Zalantzan	12,7	5,7	2,7	9,3
	Aurka	21,5	5,7	0,0	13,0
	Ed/Ee	16,5	5,7	5,4	12,1
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, nazionalismoaren aldagaiari erreparatuz ere, agerikoa da gutxiengo etnonazionalak, kasu honetan Katalunia eta EAEko abertzale moderatu eta arradikalek, Estatuarekiko lotura afektibo urriagoa erakusten dutela. Baina era berean, eta aurretik aipatu moduan, gehiengo etnonazionalerako

kideen artean ere, kasu honetan, ez abertzaleak, Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukeraren aldekoak nagusitzen dira.

Item honi dagokionean ere, nazionalismoaren aldagaiaren eragina ezberdina da Katalunian eta EAEn. Bi herrialdeetan nazionalismo graduaren arabera eraikitako hiru taldeen ezberdintasunak ikusi ditugu, baina EAEn begira, ezberdintasun nagusia ez abertzale eta abertzaleen artekoa da. Katalunian aldiz, gradazio bat ikusi ahal dugu eta ez abertzale eta abertzaleen artean baino, azpitalde ezberdinen artekoaz aritu beharko ginateke. Modu honetara, eta EAEn ez bezala, abertzale moderatuek ez abertzaleekiko eta abertzale arradikalekiko duten distantzia antzerakoa da.

l) “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol”


Historia partekatuaren argudioa askotan erabili izan da espainiar nazionalismoa eta Espainiako Estatuaren aldetik, nazionalismo periferikoen banaketa eta ezberdintze nahien oinarriak lausotu asmoz. Eta alderantziz, nazionalismo periferikoak deiturikoez, kasu honetan aztergai ditugun katalandar eta euskal nazionalismoek, historia ezberdinduaren aldarrikapena egin dute, eta hein batean, egun Espainiako Estatuaren parte izatea inposizio historiko baten ondorio litzateke. Honela, biek aipatzen dituzte azkenengoz “aske” izan zireneko data edota gertaera historikoak, espainiar menperaketa aurretik izandako egitura politiko edota subiranotasun mailaren aldarriak eginez. *Izan ginelako* ideia baten baitan ere eraikiak izan dira katalan eta euskal nazionalismoak, argudio historizistak hein batean pisua galdu badute ere, aurrera begira proiektu abertzaleetan borondateari edo izate nahiari gehiago erreparatu.

Espainiako lagina kontuan harturik, inkestatuen %78,4a ados dago partekatzen duten historia dela denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. Kataluniako inkestatuen artean ere adostasuna nahiko altua da, %66,4koa, EAEn kasuan adostasun maila %46,5ra txikitzen da (ikus IV.1.30. grafikoa).

EAEn nortasun bikoitza adierazten duen %57,7a bat dator partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. Espainiar baino, euskaldunak direla esaten dutenen artean, adostasuna %38,6koa da. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean, adostasuna %21,2ra txikitzen da. Katalunian, nortasun bikoitza adierazten duen %78,7ak bere adostasuna azaltzen du partekatzen duten historia denak espainiar egiten

dituenaren ideiarekin. Espainiarrak baino, katalanak direla esaten dutenen artean portzentajea %57,7koa da eta katalanak bakarrik direla dioten artean %28,4koa (ikus IV.1.26. taula).

IV.1.30. Grafikoa: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko adostasun maila EAE, Katalunia eta EAEn (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.26. Taula: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2006)

		Espainola	Espainolago	Bikoitza	Kat./Eusk.go	Kat/Eus	Guztira
Katalunia	Ados	90,0	84,2	78,7	57,7	28,4	66,4
	Zalantzan	7,5	10,5	9,0	14,6	14,9	12,1
	Aurka	2,5	5,3	7,6	21,2	55,4	17,4
	Ed/Ee	0,0	0,0	4,7	6,6	1,4	4,0
EAE	Ados	88,9	66,7	57,7	38,6	21,2	46,5
	Zalantzan	0,0	8,3	23,1	20,5	9,1	17,7
	Aurka	0,0	8,3	7,7	25,0	63,6	23,7
	ED/EE	11,1	16,7	11,5	15,9	6,1	12,2
Guztira		100	100	100	100	100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bai EAEn, eta bai Katalunian, nortasun subjektiboaren araberako talde etnonazionalen arteko ezberdintasunak ikus ditzakegu. Bietan, gutxiengo etnonazionalak afektu gutxiago erakusten dute eta partekatzen duten historiak denok espainiar egiten dituenarekiko babes baxuagoa erakusten dute. Halere, Katalunian katalanak gehiago sentitzen direnen artean,

partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenarekiko adostasun maila handia da.

Dena den, bi herrialdeetan nortasun subjektibo berdina azaltzen dutenen jarrera ere ezberdina da *item* honen inguruan. Modu honetara, Katalunian nortasun bikoitza adierazten dutenak EAEn nortasun bikoitza adierazten dutenak baino adostasun maila handiagoa azaltzen dute partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. Era berean, espainiarrak baino, katalanak sentitzen direnak ere adostasun maila altuagoa azaltzen dute espainiarrak baino, euskaldunak sentitzen direnekin alderatuz. Espainolak bezain katalanak eta katalanak bakarrik sentitzen direnen arteko erdibideko posizio bat adierazten dute. EAEn aldiz, gutxiengo etnonazionalak kideak, jarrera antzekoagoa dute. Berriro Kataluniari begira, nortasun subjektiboaren arabera taldeen baitan progresibitate bat antzeman dezakegu (ikus IV.1.31.grafikoa).

IV.1.31. Grafikoa: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko aldekatasuna nortasun subjektiboaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkari erreparatuz, EAEn PSEri bozka eman zion %70,8a ados dago partekatzen duten historiak egiten dituela espainiar. EAJren boto-emaielen artean adostasuna %31,7koa da eta EHAKren boto-emaielen artean %22,2koa. Kataluniari dagokionean, PSCri bozka eman zion %70,4a dago ados partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. CIUko boto-emaielen artean adostasun maila altua azaltzen dute baieztape honetik, %67,7koa, eta aldiz, ERCko boto-emaielen artean adostasun maila %30,4ra txikitzen da (ikus IV.1.27. taula).


IV.1.27. Taula: "Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol" adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera (2006)

		PSC/PSE	PP	IU/ICV/EB	CIU/PNV-EA	ERC/EHAK	Guztira
KATALUNIA	Ados	70,4	94,1	60,5	67,7	30,4	66,4
	Zalantzan	12,3	5,9	9,3	13,5	13,0	12,1
	Aurka	14,8	0,0	23,3	13,5	50,0	17,4
	Ed/Ee	2,5	0,0	7,0	5,2	6,5	4,0
EAE	Ados	70,8	100,0	75,0	31,7	22,2	46,5
	Zalantzan	12,5	0	0,0	19,5	11,1	17,7
	Aurka	8,3	0,0	25,0	36,6	66,7	23,7
	ED/EE	8,3	0	0	12,2	0,0	12,2
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, EAERen kasuan bozka abertzalea eta bozka ez abertzalea egiten dutenen arteko tartea nabaria da eta gutxiengo etnonazionalak partekatzen duten historiari helduz, Estatuari afektu gutxiago erakusten diotela ikus dezakegu. Katalunian aldiz, ezberdintasunaren ardatza ez legoke abertzale/ez abertzaleen artean. Izan ere, bai PSCko boto-emaileek eta bai CIUko boto-emaileek adostasun maila beretsua adierazten dute *item* honekiko ere.

IV.1.32. Grafikoa: "Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol" adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzenaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hizkuntzen inguruko baieztapenetan eta Konstituzioaren balioespenean ere ikusi genuen bi alderdi hauetako boto-emaileen jarreraren antzekotasunak nabarmenak direla. Baina abertzale eta ez abertzaleen arteko haustura lerroa suposa lezakeen beste *item* batzuetan ere Estatuarekiko afektu maila antzekoa erakusten dute; Espainiaren lurraldetasunaren buruzko auzian, besteak beste. Hortaz, Katalunian Connorrek aipatzen duen gutxiengoaren afektu urriagoa, bozkari erreparatuz, ERCko boto-emaileek ordezkaturiko lukete (laginean ia pisurik ez dutenak) eta ez, bozka abertzalea egiten duten katalan herritar orok.

Nazionalismoaren aldagaiari dagokionean, EAEn, ez abertzaleen %63a bat dator partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. Abertzale moderatuen artean portzentajea %28,6koa da eta abertzale arradikalen artean %25ekoa. Nazionalismoaren aldagaiak hortaz, EAEn gutxiengo etnonazionalaren afektua lausagoa dela erakusten du. Kataluniar erreparatuz, ez abertzaleen %78,3 bat dator partekatzen duten historiak guztiak espainiar egiten dituenaren ideiarekin. Abertzale moderatuen artean ere *item* honek babes maila altua du, %64,7 ados azaltzen da eta abertzale arradikalen artean ere babesa %49,7ra iristen da. Honela, nazionalismoaren arabera eraikitako gutxiengo etnonazionalen balizko afektu ahultasun hori eztabaidagarriagoa da, abertzale arradikalen artean ere gehiago baitira partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekin bat egiten dutenak.

IV.1.28. Taula: "Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol" adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera (2006)

		Ez abertzaleak	Abertzale moderatuak	Oso abertzaleak	Guztira
KATALUNIA	Ados	78,3	64,7	49,7	66,4
	Zalantzan	11,3	9,8	13,2	12,1
	Aurka	7,1	21,6	33,8	17,4
	Ed/Ee	3,3	3,9	3,3	4,0
EAE	Ados	63,0	28,6	25,0	46,5
	Zalantzan	18,5	20,0	13,9	17,7
	Aurka	7,4	37,1	52,8	23,7
	ED/EE	11,1	14,3	8,3	12,2
	Guztira	100	100	100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Honela, nazionalismoaren aldagaiak EAEn baita, eta *item* honekiko ere, Katalunian baino eragin handiagoa edo ezberdina duela esateko moduan

gaude. EAEren baitan, aldagai honen arabera sorturiko hiru taldeen datuei erreparatuz, ezberdintasunak abertzale/ez abertzale ardatzean ematen direla agerikoa da eta auzi honetan behintzat haustura lerro bat irudika dezakegu. Ez abertzaleen gehiengoak bat egiten du *item*arekin eta abertzaleen artean, gutxiengo batek.

Katalunian aldiz, hiru taldeetako inkestatuek babestu dute hein batean *item* hau, eta aurretik ere ikus ahal izan dugun bezala, ezberdintasun nagusia ez legoke ez abertzale/abertzale ardatzean, abertzale moderatuak azalduko babesaren ez abertzale eta abertzale arradikalek azaldukoaren erdibidean kokatuz. Katalunian ez abertzaletasunetik muturreko abertzaletasunaren artean irudika ditugun hiru taldeen arteko jarreretan *continuum* bat irudika dezakegu (ikus IV.1.33. grafikoa).

IV.1.33. Grafikoa: "Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol" adierazpenarekiko aldekatasuna abertzaletasun mailaren arabera (2006)




Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Behin baino gehiagotan ikusi dugu atal honetan Katalunia eta EAEko gutxiengo eta gehiengo etnonazionalak jarrera ezberdinak dituztela Estatuarekiko afektua neurtzeko erabili ditugun baieztapen gehienetan. Horretaz gain, aipatu dugu ere, PSC eta CIUko boto-emaileek sarritan gertuko posizioak dituztela. Batetik, kontuan izan behar dugu, nortasun bikoitzaren pisua ezberdina zela EAEn eta Katalunian (ikus IV.1.1. grafikoa). Gainera, interesgarria da ikustea ere PSC eta CIUko boto-emaileek nola sailkatzen diren nortasun subjektiboaren arabera.

Kataluniari begira, PSCko botoemaileen %49,4ak nortasun bikoitza adierazten du eta %22,2ak espainola baino, katalana sentitzen dela azaltzen

du. CIUko boto-emaileen artean gehiago dira katalanak bakarrik sentitzen direnak (%40,6), baina portzentaje esanguratsu batek ere (%32,3) espainola bezain katalana dela adierazten du. Ezberdintasunak badira ere, CIUren eta PSCren boto-emaileen hiru laurdenak bi nortasun subjektibo horietan autokokatzen dira, katalana bezain espainola, edota katalana gehiago.

IV.1.34. Grafikoa: PSC, CIU, PSE eta EAJko boto-emaileen nortasun subjektiboa (2006)




Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

EAERI begira, PSE eta EAJko boto-emaileak konparatzen baditugu, ezberdintasunak askoz handiagoak dira. PSEkoen gehiengoa (%64) espainola bezain euskalduna definitzen da, EAJkoen artean aldiz %17,1ak azaltzen du nortasun bikoitza eta bere boto-emaileen gehiengoa euskalduna gehiago (%41,5) edo euskalduna bakarrik sentitzen da (%36,6). Hortaz, herrialde bakoitzaren baitako konparaketaz gain, agerikoa da PSC eta PSEkoen boto-emaileen nortasuna ez dela berdina, baina are eta nabarmenagoa da ezberdintasuna CIU eta EAJren boto-emaileak konparatzen baditugu.

Abertzaletasun mailari erreparatuz aldiz, ez abertzale/abertzaleen arteko banaketa beretsua ikus dezakegu CIU eta EAJko boto-emaileen artean. PSC eta PSEri dagokionean aldiz, PSEko boto-emaileen artean gehiengo zabal bat ez abertzalea litzateke (nazionalismo eskalan 5ean edo beherago kokatu direnak); PSCkoen artean aldiz, gehiago badira ere ez abertzaleak

(%56,1), %40a abertzalea litzateke. Nortasun subjektiboa eta abertzaletasuneran arabera Katalunian eta EAEn boto-emaeleek duten posizio hau lagungarria zaigu atal honetan aztergai izan ditugun gutxiengo eta gehiengoaren jarrera ezberdinak interpretatzeko.

IV.1.35. Grafikoa: PSC, CIU, PSE eta EAJko boto-emaeleak abertzaletasunaren arabera (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Laburbilduz, Connorren lehen hipotesiari dagokionean, hauexek lirateke ondorio nagusiak:

- Connorrek aipatzen duen Estatuarekiko gutxiengoaren afektu urriagoa berretsi daiteke, bereziki EAEn. Katalunian ere, *item* gehienetan gutxiengoek gehiengoek baino afektu gutxiago erakusten dute, baina EAerekin alderatuz, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko tartea txikiagoa da.
- Gaztelaniarekin edota katalanera eta euskara espainiar hizkuntzak direnaren *itemetan* agerikoa da Katalunia eta EAeko gutxiengoaren jarrera ezberdintasuna, Katalunian afektu gehiago erakutsiaz.
- Konstituzioaren balioespenaren inguruko jarrera ezberdintasuna EAEn bakarrik ikus daiteke, Katalunian ez da eztabaidarik auzi honetan eta gehiengoek adinako leialtasuna erakusten dute gutxiengo etnonazionalak.
- Hizkuntzak salbu, Espainiako elementu sinboliko edota identitarioei dagokionean gertuago daude Katalunia eta EAeko

gutxiengoak, ereserki nazionala eta Espainiako bandera hizpide dituzten *item*etan ikus dezakegun bezala.

- Gainera, ereserki nazionala eta Espainiako banderaren auziaz gain, Espainia Estatuaren denaren ideiarekin inguruan eta kirol selekzio propioak izateko aukeraren inguruan, gehiengo etnonazionalak ere, bereziki Katalunian, nahiko afektu ahula erakusten dute Estatuarekiko.
- Hortaz, gutxiengoak orokorrean Espainiako Estatuarekiko afektu gutxiago erakusten badute ere, gai askotan lotura afektiboak daudela ezin uka daiteke, Katalunian bereziki. Eta alderantziz, gehiengo etnonazionalak ere ez dute leialtasun osoa Estatuarekiko hizpide izan ditugun auzi batzuetan.
- Badirudi, eta Katalunian bereziki, gehiengo etnonazionalaren zati esanguratsu bat orain artean eraiki den Espainiako nazio ideiarekin nahiko kritikoa dela. Bestalde, EAEn gutxiengoak orokorrean nortasun bateragarritasuna hizkuntzen auzian onartzen dute gehien, Katalunian aldiz, nazio identifikazio ezberdinak bateragarri ikusten dira arlo ezberdinetan.

2. Hipotesia: “Estatu bereko gutxiengoak jarrera ezberdina izan dezakete”

Connorren lehen hipotesia aztertzeko EAEn nahiz Kataluniako gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko ezberdintasunei erreparatu diegu. Bigarren hipotesi honen nondik norakoak aztertzeko aldiz, bi herrialde hauetako gutxiengo etnonazionalen arteko konparaketa egingo dugu, horretarako lehenengo hipotesian ikusirik *item* berdinak kontuan izango ditugularik.


Bigarren hipotesi honetan ere gutxiengo etnonazionalak hiru aldagai hauetan oinarrituta definitu ditugu:

- a. Nortasun subjektiboari dagokionean, euskaldun/katalan bakarrik edota espainolak baino, euskaldun/katalan sentitzen direnak.
- b. Bozkeri erreparatu, bozka abertzalea egin zutela adierazi dutenak; EAEn EAJ eta EHAK eta Katalunian CIU eta ERC. Lehenengo hipotesian azaldu bezala, EHAK nahiz ERCren boto-emaileen datuetatik interpretazio orokorrik ezin dezakegu egin, bi alderdi

hauetako boto-emaileek oso pisu baxua dute EAE eta Kataluniako laginetan eta.

- c. Nazionalismo mailari dagokionez, nazionalismo eskalan oinarriturik sorturiko aldagai berrian, bai EAEn, eta bai Katalunian, abertzale moderatu eta abertzale arradikal bezala definitu ditugunak.

IV.1.36. Grafikoa: EAE eta Kataluniako herritar abertzaleen nortasun subjektiboa (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bigarren hipotesiari heldu aurretik, Katalunia eta EAeko herritar abertzaleen nortasun subjektiboa nolakoa den irudikatzen duen grafiko hau aurkezten dugu jarraian ikusiko ditugun gutxiengo etnonazionalen ezberdintasunen gakoak ulertzeko baliagarria izan daitekeela uste dugu eta.

Lehenengo hipotesia aztertzean aipatu bezala, Kataluniako abertzale moderatuen artean nortasun bikoitzak EAeko artean baino pisu handiagoa du. Bestalde, abertzale arradikalei erreparatu, Katalunian katalanak gehiago eta katalanak bakarrik bezala definitzen direnak ditugu; EAEn aldiz, abertzale arradikalen artean, euskaldunak bakarrik sentitzen direla adierazten dutenen pisua askoz ere handiagoa da (ikus IV.1.36.grafikoa).

A) “Espainia estatu bat da, ez nazioa”

Lehen *itemari* dagokionean, eta nortasun subjektiboaren arabera gutxiengoei erreparatu, bi herrialdeetan jarrera antzekoa erakusten dute gutxiengo etnonazionalak Espainia estatua denaren ideiarekiko. Halere, espainolak baino, katalanak sentitzen direnen artean, *itemarekiko* adostasuna maila (61,8%) euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean baino altuagoa da (52,2%). Euskaldunak bakarrik eta katalanak bakarrik sentitzen direnak Espainia estatua den baieztapenarekiko jarrera antzekoa erakusten dute.

VI.1.29. Taula: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	61,8	52,2
	Zalantzan	8,8	8,7
	Aurka	16,1	15,2
	Ed/Ee	13,3	23,9
Kat/Eus	Ados	73,6	78,8
	Zalantzan	5,6	6,1
	Aurka	12,5	9,1
	Ed/Ee	8,3	6
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Kontuan hartzekoa da ere euskaldunak gehiago direla erantzun duen %23,9ak ez diola galdera honi erantzun. Inkesta egin zen garaian zeuden egoera bortitzak direla medio, auzi hauetan posizioa hartzeak ekar lezakeen deserosatuna aintzat hartu behar dugu. Aurretik ere hizpide izan dugu, ez abertzaleean artean, eta bereziki PPren baitan ematen den ezkutuko bozkaren fenomeno. Ildo honetan ulertu behar dugu EAEn ikusi ahal den erantzun ezaren kopuru altua, Linzek azaltzen duen moduan zaila baita iritzi publikoan onargarriagotzat ematen direnen aurkako posizioak erakustea testuinguru zehatz batzuetan. Edonola ere, galdera honi erantzutea ez da erraza, *nazional* atributua oso errotua dagoelako estatuko hainbat ezaugarri edo eremurekin, eta, horrek, estatu eta nazio kontzeptuen arteko mugak era argian ez ezberdintzea dakar.

Nazionalismoaren arabera definitu ditugun taldeei erreparatu, Katalunia eta EAEn abertzale moderatu eta arradikalen artean bada

ezberdintasunik, baina nortasun subjektiboarekin ikusi bezala, nahiko apalak dira. Abertzale moderatuei dagokienean, Katalunian, Espainia estatuaren ideari sostengu zabalagoa ematen diote (61,8%), EAEn baino (52,2%). Abertzale arradikalen artean aldiz, EAEn babes handiagoa du aurkeztutako adierazpenak (72,9%), Katalunian baino. Bestalde, Katalunian ez da ezberdintasunik abertzale moderatu (%61) eta arradikalek (%64,5) osatutako gutxiengo etnonazionalen baitan, eta aldiz, EAEn bai, abertzale arradikalek sostengu zabalagoa erakusten baitute Espainia estatu bat denaren ideiarekiko (72,9%).

IV.1.30. Taula: "Espainia estatu bat da, ez nazioa" adierazpenarekiko adostasun maila nazionalismoaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	61,0	54,2
	Zalantzan	4,0	5,7
	Aurka	17,0	22,8
	Ed/Ee	18,0	17,2
Abertzale arradikalak	Ados	64,5	72,9
	Zalantzan	6,6	8,1
	Aurka	16,5	8,1
	Ed/Ee	12,5	10,8
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Espainiako Estatuaren izaera presentego dago EAEn Katalunian baino, agian toki bateko eta besteko nazionalismoak ere bere izatea era ezberdinean argudiatu eta defendatu dutelako. Kataluniakoak jauzi etnikoa osagai kultural eta historikoetan dauka; euskaldunak, ordea, Espainia bera ukatzean. Batean, kulturak, hizkuntzak eta abarrek dute zama handiagoa; bestean, ordea, antispainolismoa da oinarri nagusia. Kataluniako nazionalismoaren euskarria bere historia eta ezaugarri kultural propioak izan dira; katalanen izaera propioa berretsiz, baina espainiar nazionalismoarekiko aurkakotasun posizioetatik aldentuz. Euskal nazionalismoa aldiz, Espainiarekiko kontraposizioz eraikia izan da, eta sarri bere izate propioa espainiar ez izatean oinarritu izan da.

Bozkaren araberrako gutxiengo etnonazionaleri dagokionean, bozka abertzale historiko edo instituzionaltzat bezala definitu ditzakegun CIU eta EAJren alderdien boto-emaitzen artean ez dago ezberdintasun handiegirik,

CIUren boto-emaileen artean *item*arekiko adostasun maila handiagoa bada ere. Bozka abertzale arradikalari dagokionean ordea, EHAKren boto-emaileek adostasun maila handiagoa erakusten dute (88,9%), Katalunian ERCkoak baino (68,9%). Dena den, kontuan izan behar dugu bozkaren aldagaiari erreparatzerakoan, bi alderdi hauen erantzun kopurua baxua dela. Katalunian CIUko boto-emaileek Espainiaren estatu izaera EAJkoek baina era indartsuagoan babesten dute. Honek katalanismoak jite nazionalizatzailea duela erakusten du, baina estatua aldarrikatzeke momentuan EHAK-ko boto-emaileek ERCkoek baino nazionalismo arradikalagoa erakusten dute. Naziogintza, nazioa egitea da, eta Katalunian nazioa argiago dute, nazio sentitzen dira eta nazio gisa jokatzeko dute, baina ez dira estatu zale, ez, orain dela gutxi arte behinik behin.

IV.1.31. Taula: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzenaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

	Katalunia	EAE
Bozka historikoa (CIU/EAJ)	Ados	59,0
	Zalantzan	7,4
	Aurka	20,0
	Ed/Ee	13,9
Bozka arradikala (ERC/EHAK)	Ados	68,9
	Zalantzan	6,7
	Aurka	8,9
	Ed/Ee	15,6
	Guztira	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, *Espainia estatu bat da, eta ez nazio bat* adierazpenaren inguruan Kataluniako eta EAeko gutxiengo etnonazionalen artean ikus ahal ditugun ezberdintasunak nahiko apalak dira. Katalunian katalanak gehiago sentitzen direnak eta abertzale moderatuak halere, EAEn euskaldunak gehiago eta abertzale moderatuak direnak baino babes handiagoa azaldu dute *item* honekiko. Aldiz, EAEn, euskaldunak bakarrik, eta bereziki, abertzale arradikal bezala definitu ditugunak, Katalunian abertzale arradikalak definitu ditugunak baino babes zabalagoa erakusten dute.

B) “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da”

Bigarren *item* honi dagokionean, nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalak osatzen dituzten taldeen arteko ezberdintasunei

erreparatuko diegu lehenik eta behin. Euskaldunak gehiago (%53,5) eta katalanak gehiago (%61,3) sentitzen direnen gehiengo bat dator gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua dela adierazten duen ideiarekin. Aldiz, euskaldunak bakarrik (%67,7) eta katalanak bakarrik (%50,7) sentitzen direnen artean, gehiago dira gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementu bezala sentitzen ez dutenak. Honela, bai EAEn, eta bai Katalunian, euskaldunak/katalanak gehiago sentitzen den gutxiengo etnonazionala, gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekin bat dator. Eta aldiz, euskaldunak/katalanak bakarrik sentitzen direnen gutxiengo etnonazionalaren artean, gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekiko desadostasuna nagusitzen da.

IV.1.32. Taula: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	61,3	53,5
	Zalantzan	7,3	11,6
	Aurka	27,7	27,9
	Ed/Ee	3,6	7
Kat/Eus	Ados	32,9	20,6
	Zalantzan	12,3	5,9
	Aurka	50,7	67,7
	Ed/Ee	4,1	5,8
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bi herrialdeen arteko datuak erreferentziatzat hartuaz, modu orokorrean, EAEnko gutxiengo etnonazionalak Kataluniakoak baino babes maila txikiagoa azaltzen dute *item*arekiko, eta horren atzean nazionalismo eredu ezberdinak leudeke: antiespainolagoa EAEn Katalunian baino.

Nazionalismo graduaren arabera taldeei begiratuaz, agerikoa da Kataluniako gutxiengo etnonazionalak babes maila altuagoa erakusten dutela gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denaren ideiarekiko. Abertzale moderatuak erreparatuaz, EAEn %42,8ak azaltzen du gaztelania bere nortasunaren oinarritzko elementu bat denarekiko babesa, aldiz, Kataluniako abertzale moderatuen artean, babesa %78,2ra handitzen da. Abertzale arradikalei dagokionean ezberdintasunak apalagoak dira,


baina halere, Katalunian gehiago dira ados azaltzen direnak (51,9%) aurka baino (%36,1), EAEko abertzale arradikalen artean babes portzentajea %35,1ekoa den bitartean.

IV.1.33. Taula: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	78,2	42,8
	Zalantzan	5,9	11,4
	Aurka	14,9	40,0
	Ed/Ee	0,0	5,8
Abertzale arradikalak	Ados	51,9	35,1
	Zalantzan	9,2	8,1
	Aurka	36,1	48,6
	Ed/Ee	2,6	8,1
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.37. Grafikoa: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzaletasunaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)




Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Katalanek onarpen handiagoa erakusten diote gaztelaniari euskaldunak baino, nahiz eta Katalunian katalaneraren erabilera eta ezagutza maila askoz handiagoa eta hedatuagoa dagoen. Arestian aipatu bezala, euskararen egoera minorizatuak defentsa mekanismoak aktibatu ditzake

gaztelaniaren aurrean, eta hauxe izan daiteke katalan eta euskal herritarren posizio ezberdinak argituko lituzkeen faktoreetako bat. Baina behin eta berriz aipatzen dugun antiespainolismoak ere izango du eraginik gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua ukatzeko orduan; izan ere, posizio hau ez da justifikatzen euskararen ezagutza eta erabilera handiagoan.

Bozkari dagokionean, bozka abertzale arradikala egiten dutenen artean ez dago ia ezberdintasunik EAE eta Kataluniaren artean, bai ordea, bozka abertzale “instituzionala” egiten dutenen baitan. Honela, EAJren boto-emaielen %43,9ak bat egiten du gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denaren ideiarekin, CIUko boto-emaielen artean aldiz, portzentajea %74ra handitzen da (ikus IV.1.38. grafikoa).

IV.1.38. Grafikoa: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzenaren arabera etnonazionalen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Laburbilduz, bigarren *item* honi dagokionean, Kataluniako gutxiengo etnonazionalak EAEkoek baino babes maila altuagoa erakusten dute. Lehenengo hipotesian ikusi genuen orokorrean Kataluniako gutxiengo etnonazionalak EAEkoek baino afektu handiagoa erakusten zutela Estatuarekiko. Hain justu, gaztelania eta nortasunarekin zerikusia duen adierazpen hau da bi herrialdeen arteko ezberdintasunak argien azaltzen dituen auzi horietako bat.

Katalunian, nahiz eta sarritan katalaneraren osasunaren inguruan kezka handiagoa erakutsi, gaztelararen onarpen askoz handiagoa erakusten dute euren nortasunaren oinarritzko elementu gisa. EAEEn, ordea, nahiz eta euskara gutxiago entzun eta praktikatu eta euskara jakin ere ez, gaztelaniaren ukazio handiagoa agertzen da, besteak beste eta, batik bat, espainiarren hizkuntza delako. Honela, paradoxikoa badirudi ere, gaztelania hutsez mintzo diren herritarrek ere gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekiko aurkakotasuna erakusten dute.

C) “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du”

Nortasun subjektiboaren arabera eratu ditugun gutxiengo etnonazionalak antzeko jarrera azaltzen dute *item* honekiko Katalunian eta EAEEn. Halere, eta ezberdintasun bat aipatzearren, Espainiako ereserki nazionala entzutean harro dauden komunitate bateko partaide sentitzen direla adierazten dutenak, babes handiagoa dute katalanak gehiago sentitzen direnen artean (%14,5), euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean baino (%6,5). Euskal abertzaletasunaren euskarri eta ezaugarri garrantzitsuena antiespainolismoa izanik, nahitaez, ereserkiaren aurkako lerratze negatiboagoa agertuko da, datuek baietatzen duten moduan (ikus IV.1.34.taula).

IV.1.34. Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren araberako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	14,5	6,5
	Zalantzan	15,3	13
	Aurka	67,8	71,7
	Ed/Ee	2,2	8,7
Kat/Eus	Ados	8,4	3
	Zalantzan	5,6	3
	Aurka	81,9	94,1
	Ed/Ee	4,2	0
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismo graduaren arabera EAEn eta Katalunian osatu ditugun gutxiengo etnonazionalen arteko ezberdintasunak zertxobait handiagoak dira. EAEn abertzale moderatuek (8,8%) eta arradikalek (%5,6) Espainiako ereserki nazionalari dagokionean azaldutako adostasun maila, Kataluniako abertzale moderatuek (%22) eta arradikalek (%25,7) adierazitakoa baino txikiagoa da (ikus IV.1.35. taula).

IV.1.35. Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	22,0	8,8
	Zalantzan	18,0	11,8
	Aurka	58,0	76,5
	Ed/Ee	2,0	2,9
Abertzale arradikalak	Ados	25,7	5,6
	Zalantzan	11,8	5,6
	Aurka	59,9	80,6
	Ed/Ee	2,6	8,3
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Gainera kontuan izan behar dugu, *item* honi dagokionean, Katalunian eta EAEn barruan ez dela ezberdintasunik abertzale moderatu eta arradikalen artean. Euskal nazionalismoa plano materialean (bozkan antzerako) Kataluniakoa baino ahulagoa dela esan genezake, esaterako katalanismo kulturala askoz ere indartsuagoa da (hizkuntza...) eta ondorioz, nortasun propioaren berrespena maila sinbolikora pasatzen da, espainiar identitatearekin zerikusia duten elementuak errefuxatuz (ikus IV.1.35. taula).

Bozkari dagokionean, Katalunia eta EAEn gutxiengoaren arteko ezberdintasunak bi herrialdeetako bozka abertzale historiko eta instituzionalaren baitan antzeman ditzakegu. EAEn boto-emaitzen %7,5ak bat egiten du Espainiako ereserki nazionala entzutean harro dagoen komunitate baten parte sentitzen denaren ideiarekin, CIUko boto-emaitzen artean aldiz, portzentajea %35,8ra handitzen da (IV.1.36. taula).

IV.1.36. taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasuna bozkaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Bozka historikoa (CIU/EAJ)	Ados	35,8	7,5
	Zalantzan	14,7	12,5
	Aurka	45,2	75,0
	Ed/Ee	4,2	5,0
Bozka arradikala (ERC/EHAK)	Ados	10,7	0,0
	Zalantzan	8,5	0,0
	Aurka	78,8	100,0
	Ed/Ee	2,1	0,0
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Laburbilduz, eta azterturiko hiru aldagaiei dagokionean, Kataluniako gutxiengo etnonazionalak babes handiagoa erakusten diote *item* honi EAEko gutxiengoak baino. Bereziki, abertzale moderatu eta bozka abertzale historikoa egiten dutenen artean ematen dira ezberdintasunak. Dena den, babes handiagoa izanagatik, Kataluniako gutxiengo etnonazionalaren baitan ere Espainiako ereserki nazionalaren inguruko adierazpenarekiko aurkakotasuna nagusitzen da.

D) “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira”

Nortasun subjektiboaren arabera definituriko gutxiengo etnonazionalen jarrerak oso bestelakoak dira EAEn eta Katalunian *item* honi dagokionean. Euskalduna gehiago sentitzen den %50a bat dator galegoa, katalanera edota euskara ere espainiar hizkuntzak direnaren ideiarekin; katalanak gehiago sentitzen diren artean aldiz, adostasuna %90,5era handitzen da. Ildo beretik, euskaldunak bakarrik sentitzen diren %28,6ak bakarrik uste du galegoa, katalanera edota euskara espainiar hizkuntzak direla eta aldiz, katalanak bakarrik direla adierazi dutenen artean adostasun maila %73,2koa da (ikus IV.1.37. taula).

Gaztelania eta nortasunaren auzia hizpide dituen adierazpenean ikusi bezala, *item* honetan ere agerikoa da Katalunia eta EAEko gutxiengo etnonazionalak adierazten duten jarrera guztiz ezberdina dela. Katalanera eta euskara espainiar hizkuntza denaren ideiarekin bat datoz katalanak

gehiago sentitzen direnak, berrogei puntuko alde ateraz euskaldunak gehiago sentitzen direnek azaldutako portzentajeari. Argi dago, beraz, abertzaletasun euskaldunak bere autoidentifikazioa egiteko momentuan, batez ere antiespainolismoan eta bateragarritasun posiblea ukatzean oinarritzen duela. Katalanen kasuan ez dago hain distantzia handia eta euren nortasun propioarekiko duten ziurtasunak hein handi batean espainiar identitatearekin loturiko osagaien balizko mehatxuari garrantzia kentzea ahalbidetzen die.

IV.1.37. Taula: "Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira" adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	90,5	50
	Zalantzan	0	17,4
	Aurka	8,7	19,5
	Ed/Ee	0,7	13
Kat/Eus	Ados	73,2	28,6
	Zalantzan	5,6	5,7
	Aurka	19,7	60
	Ed/Ee	1,4	5,8
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.38. Taula: "Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira" adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	87,1	50,4
	Zalantzan	2,0	17,1
	Aurka	8,9	22,9
	Ed/Ee	2,0	8,6
Abertzale arradikalak	Ados	84,9	36,9
	Zalantzan	3,3	7,9
	Aurka	11,8	44,7
	Ed/Ee	0,0	10,6
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismo graduaren arabera irudikatu ditugun gutxiengo etnonazionalak ere jarrera ezberdinak azaltzen dituzte EAEn eta Katalunian. EAEn baitan, abertzale moderatuen artean gehiago dira ados daudenak (%50,4) aurka daudenak (%22,9) baino. Katalunian aldiz, abertzale moderatuen %87,1a galegoa, katalanera eta euskara ere espainiar hizkuntzak direnarekin bat dator. Abertzale arradikalei erreparatu, EAEn gehiago dira aurka daudenak (44,7%) alde daudenak baino (%36,9), Kataluniako abertzale arradikalen artean aldiz, sostengua askoz ere zabalagoa da, %84,9koa. EAE eta Kataluniako gutxiengoen arteko konparazioari helduz, ezberdintasun nabarmenenak abertzale arradikalen artean ikus ditzakegu (ikus IV.1.38. taula).

Nortasun subjektiboarekin eta abertzaletasun mailarekin ikus bezala, gutxiengo etnonazionalen bozkak ere agerian uzten ditu Katalunia eta EAEn arteko ezberdintasunak, bereziki, bozka abertzale arradikala bezala definitu dugunaren baitan. Honela, EAJren boto-emaitzen %52,5a bat dator katalanera, galegoa eta euskara espainiar hizkuntzak direnaren ideiarekin, CIUko boto-emaitzen artean aldiz, portzentajea %89,6ra handitzen da. EHAKren boto-emaitzen artean, %33,3ak egiten du bat *item*arekin eta aldiz, ERCko boto-emaitzen %73,9ak uste du katalanera, euskara edota galegoa espainiar hizkuntzak direla (ikus IV.1.39. taula).

IV.1.39. Taula: "Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira" adierazpenarekiko adostasuna bozka oroitzenaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

	Katalunia	EAE
Bozka historikoa (CIU/EAJ)	Ados	89,6
	Zalantzan	2,1
	Aurka	7,3
	Ed/Ee	1,0
Bozka arradikala (ERC/EHAK)	Ados	73,9
	Zalantzan	8,7
	Aurka	17,3
	Ed/Ee	0,0
	Guztira	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Laburbilduz, Kataluniako gutxiengo etnonazionalak askoz ere babes handiagoa erakusten du katalanera, euskara edota galegoa espainiar hizkuntzak direnaren baiezta penarekin. Gutxiengo etnonazionalen baitan

irudikatutako taldeen artean ikusiriko ezberdintasunak nahiko txikiak dira Katalunian; EAERI dagokionean aldiz, ezberdintasunak antzeman ditzakegu nortasun subjektiboa eta abertzaletasun mailaren arabera talde ezberdinen artean.

E) “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria”

Nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean ezberdintasunak ikus ditzakegu *item* honen baitan. Berrero ere Katalunian nortasunaren arabera definituriko gutxiengo etnonazionalak Espainiako Estatuarekiko afektu gehiago erakusten dute.

IV.1.40. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	40,5	22,7
	Zalantzan	13,8	18,2
	Aurka	37,7	45,5
	Ed/Ee	7,9	13,6
Kat/Eus	Ados	19,1	9,1
	Zalantzan	17,8	9,1
	Aurka	60,3	72,5
	Ed/Ee	2,8	9,1
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Modu honetara, euskaldunak gehiago sentitzen direnen %22,7ak Espainiak batuta jarraitu behar duela uste du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko, katalanak gehiago sentitzen direnen artean aldiz, adostasun maila %40,5ekoa da. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen %9,1ak soilik babesten du Espainia batuta jarraitzearen ideia, katalanak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, babesa %19,1ekoa da (ikus IV.1.40. taula).

Nazionalismo mailaren arabera gutxiengo etnonazionalak ere jarrera ezberdina erakusten dute. Aldagai honek gainera, nortasun subjektiboak baino ezberdintasun handiagoak irudikatzen dituela ikus genezake EAE eta Kataluniar dagokionean. EAEn abertzale moderatu bezala definitu dugun %20ak babesten du Espainia batuta mantentzearen ideia,


Katalunian aldiz, abertzale moderatuen %55ak babesten du Espainiaren batasunaren ideia. Ildo beretsuan, EAEn abertzale arradikalen %13,5a da Espainia batuta mantendu behar denaren ideiarekin ados azaltzen dena eta portzentajea %40,8ra handitzen da Kataluniako abertzale arradikalen artean (ikus IV.1.40. taula).

IV.1.40. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	55,0	20,0
	Zalantzan	17,0	11,4
	Aurka	23,0	57,2
	Ed/Ee	5,0	11,5
Abertzale arradikalak	Ados	40,8	13,5
	Zalantzan	10,5	16,2
	Aurka	45,4	59,4
	Ed/Ee	3,3	10,8
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.39. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzenaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkari erreparatuz, gutxiengo etnonazionalen arteko ezberdintasunak ikus ditzakegu, bereziki bozka abertzale historikoa edo instituzionala egiten dutenen baitan. EAJren boto-emaileen artean, %21,9ak, Espainia batuta mantentzearen ideia defendatzen du, CIUren boto-emaileen artean aldiz, babesa %56,3ra handitzen da. Behin eta berriro ikusten ari gara, CIUko boto-emaileek EAJkoek baino leialtasun handiagoa erakusten dutela Estatuarekiko. Eta hauexek dira, abertzaletasun graduaren arabera, moderatu bezala definitu ditugunekin batera, EAE eta Kataluniako gutxiengoaren arteko ezberdintasunaren adierazle nagusiak (ikus IV.1.39. grafikoa).

F) “Espainiako banderak ez nau hunkitzen”

Nortasun subjektiboaren arabera EAEn eta Katalunian irudikatutako gutxiengo etnonazionalen jarrera nahiko antzekoa da Espainiako banderaren inguruko *item*ari dagokionean. Estatuaren afektua neurtzeko adierazpenean espainiartasunaren elementu sinboliko eta identitarioenak barneratzean, EAE eta Kataluniako gutxiengo etnonazionalen jarrerak antzekoagoak dira, beste *item*etan baino. Honela, ereserki nazionalaren auziarekin ikus bezala, gutxiengo etnonazionalak afektu urria erakusten dute Estatuarekiko. Gainera, eta Connorren lehenengo hipotesian ikusi bezala, Espainiako bandera edo ereserkiaren elementuei zegokienean, gehiago etnonazionalak ere, bereziki Kataluniakoak, Estatuarekiko afektu ahula erakusten zuten (ikus IV.1.41.taula).

IV.1.41. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	76,1	77,7
	Zalantzan	10,1	11,1
	Aurka	13,1	8,9
	Ed/Ee	0,7	2,2
Kat/Eus	Ados	82,4	94,1
	Zalantzan	5,4	2,9
	Aurka	10,8	2,9
	Ed/Ee	1,4	0
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismo mailaren arabera ere, gutxiengo etnonazionalak antzeko jarrera azaltzen dute. Dena den, EAEko abertzale moderatuak (%77,1) azaltzen duten adostasun maila Kataluniakoek adierazten dutena baino pixkat handiagoa da (%66). Ildo berean EAEn abertzale arradikalek azaldutako adostasun maila (%88,9), Kataluniakoena baino handiagoa da (%66,7) (ikus IV.1.42.taula).

IV.1.42. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasun mailaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	66,0	77,1
	Zalantzan	11,0	8,6
	Aurka	21,0	11,5
	Ed/Ee	2,0	2,9
Abertzale arradikalak	Ados	66,7	88,9
	Zalantzan	10,5	2,8
	Aurka	22,9	5,6
	Ed/Ee	0,0	2,8
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.43. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko jarrera bozka oroitzenaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Bozka historikoa (CIU/EAJ)	Ados	61,0	72,1
	Zalantzan	9,5	11,6
	Aurka	29,5	9,3
	Ed/Ee	0,0	7,0
Bozka arradikala (ERC/EHAK)	Ados	87,2	88,9
	Zalantzan	8,5	0,0
	Aurka	4,2	11,1
	Ed/Ee	0,0	0,0
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkaren arabera ere, bai EAEko eta bai Kataluniako gutxiengo etnonazionalak jarrera beretsua azaltzen dute. Ezberdintasun bat aipatzearen bozka abertzale historikoaren baitakoa litzateke, EAJren

boto-emaielen %72,1 bat dator *item*arekin eta CIUren boto-emaielen artean adostasuna zertxobait apalagoa da (%61) (ikus IV.1.43.taula).

Ñabarduraren bat egin ahal izan badugu ere, Katalunia eta EAeko gutxiengo etnonazionalak jarrera antzekoa erakusten dute *item* honi dagokionean. Gutxiengo etnonazionalen artean, bai EAEn, eta bai Katalunian, Espainiako banderak inongo emoziorik sortzen ez dionaren ideia nagusitzen da. Hortaz, Espainiako elementu sinboliko eta identitarioenen aurrean badirudi gutxiengoaren jarrerak antzekotasunak dituztela.

Aipatu izan dugu katalan nazionalistek zenbait auzitan, euren atxikimendu nazional propioa eta Estatuarekiko afektua bateragarri egiten dituztela eta, aldiz, EAEn askotan baterazin bezala ikusten direla. Baina ereserki nazionalarekin ikusi bezala, Espainiako banderaren auziak ere, agerian uzten du espainiar elementu sinboliko eta identitarioenen aurrean bi herrialdeetako gutxiengoaren jarrerak antzekoak direla, EAEn elementu horiekiko ukazioa indartsuagoa bada ere. Are gehiago, auzi hauetan, gehiengoaren zati batek ere, Katalunian bereziki, bat egiten du gutxiengo etnonazionalak azaltzen duen Estatuarekiko afektu ahularekin. Espainiako bandera eta ereserkiak nazio bakarraren ideia islatuko lukeela esan genezake, beste nazio identitateak ukatzen dituen, eta iragan gertuko erregimenaz kutsatua ikusia oraindaiño herritar askoren begietan.

G) “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago”

Nortasun subjektiboaren arabera eraikitako gutxiengo etnonazionalen jarrerak ezberdinak dira Konstituzioaren balioespenari dagokionean Katalunian eta EAEn. Euskalduna gehiago sentitzen den %31,8ak Konstituzioa era baikorrean baloratzen duen bitartean, katalanak gehiago sentitzen direnen artean babesa %67,2ra handitzen da. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean %12,1a bat dator adierazpenarekin eta aldiz, katalanak bakarrik sentitzen direnen artean, %40,3aren sostengua du honako adierazpenak (ikus IV.1.44. taula).

EAEn askoz gutxiago dira Konstituzioa era baikorrean baloratzen dutenak, eta, ziurrenik, adierazpenean barneraturiko batasunaren premisak zerikusi zuzena du. Connorren lehenengo hipotesia aztertzean *item* honen konplexutasuna izan genuen hizpide; izan ere, Konstituzioaren onarpen hutsaletik haratago doan adierazpena da, bere balioespena Espainia baturik mantentzeko tresna gisa aurkezten baita. Hortaz, Konstituzioa era


batera ala bestera ontzat eman ahal duten zenbait herritarrek ere adierazpenarekin bat ez datozela azaldu duten ustea dugu, hain zuzen ere, batasun hori mantentzeko bitartekoa izan delako.

IV.1.44. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	67,2	31,8
	Zalantzan	9,5	25
	Aurka	17,5	29,5
	Ed/Ee	5,8	13,6
Kat/Eus	Ados	40,3	12,1
	Zalantzan	9,7	18,2
	Aurka	47,2	63,6
	Ed/Ee	2,8	6
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.40. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko aldekotasuna nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bi erkidegoetako herritarrek erakutsitako posizio ezberdintasuna are eta nabarmenagoa da nazionalismo graduaren arabera EAEn eta Katalunian irudikatutako gutxiengo etnonazionalen jarrerari heltzen badiegu. Honela, EAEn abertzale moderatuen %25,8ak balioesten du positiboki


Konstituzioa Espainia baturik mantentzeko bitarteko gisa, Katalunian aldiz, abertzale moderatuen %68ak. Abertzale arradikalen artean ere bada ezberdintasunik, EAEn %18,9ak balioesten du positiboki Konstituzioa, Katalunian aldiz, abertzale arradikalen %59,9ak (ikus IV.1.45.taula).

IV.1.45. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	68,0	25,8
	Zalantzan	12,0	20,0
	Aurka	15,0	40,0
	Ed/Ee	5,0	14,3
Abertzale arradikalak	Ados	59,9	18,9
	Zalantzan	7,2	24,3
	Aurka	30,9	48,6
	Ed/Ee	2,0	8,1
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.41. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko aldeotasuna bozka oroitzenaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkari dagokionean ere nabaria da EAE eta Kataluniako gutxiengo etnonazionalen arteko jarrera ezberdintasuna. EAJko boto-emaileen %31ak balioesten du positiboki Konstituzioa eta aldiz, CIUko boto-emaileen artean adostasuna %71,1ra handitzen da. Bozka abertzale arradikalaren artean bada ezberdintasunik, EHAKren boto-emaileen %12,5ak baloratzen du positiboki Konstituzioa eta aldiz, ERCko boto-emaileen artean babesa %44,4koa da. Dena den, aurretik aipatu moduan, bozka oroitzapenean izandako erantzun kopuruak ez digu ahalbidetzen haratago doan interpretaziorik egitea (ikus IV.1.41. grafikoa).

Laburbilduz, *item* honetan agerikoa da Kataluniako eta EAeko gutxiengo etnonazionalak erakutsitako jarrera ezberdina. Connorren lehenengo hipotesian ikusi genuen Katalunian, nortasunaren eta abertzaletasun aldagaietatik haratago, Konstituzioaren balioespen positiboa nahiko orokortua zela. Are gehiago, Konstituzionaren balioespenean oinarrituta, gutxiengo etnonazionalak ia talde dominanteetako kideek adinako afektua edo leialtasuna azaltzen zuten Estatuarekiko leialtasun auzi honetan.

H) “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak, euren kirol selekzioak izan beharko lituzkete”

Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak kirol selekzio propioak izateko aukerari dagokionean ez dago ia ezberdintasunik Kataluniako eta EAeko gutxiengo etnonazionalen artean.

IV.1.46. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	86,2	82,6
	Zalantzan	8	4,3
	Aurka	3,6	4,4
	Ed/Ee	2,1	8,7
Kat/Eus	Ados	95,8	94,1
	Zalantzan	0	0
	Aurka	1,4	2,9
	Ed/Ee	2,8	2,9
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.47. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	73,2	82,9
	Zalantzan	10,9	5,7
	Aurka	11,9	5,7
	Ed/Ee	4,0	5,8
Abertzale arradikalak	Ados	90,2	91,9
	Zalantzan	1,3	2,7
	Aurka	5,9	2,7
	Ed/Ee	2,6	2,7
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.48. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak eure kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila bozka oroitzapenaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

Bozka historikoa (CIU/EAJ)	Ados	79,8	85,7
	Zalantzan	6,4	4,8
	Aurka	9,6	2,4
	Ed/Ee	4,3	7,2
Bozka arradikala (ERC/EHAK)	Ados	95,7	100,0
	Zalantzan	0,0	0,0
	Aurka	4,3	0,0
	Ed/Ee	0,0	0,0
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Gainera, eta lehenengo hipotesian ere ikusi dugun moduan, adierazpen honetan, gutxiengoaren arteko adostasun bat islatzeaz gain, gehiengo etnonazionalaren parte batek ere bere adostasuna azaltzen zuen. Hortaz, kirol selekzio propioak izateko aukerari dagokionean, Estatuarekiko afektu eza nabaria da herritar gehienaren artean eta gehiengo/gutxiengoaren banaketatik haratago doa.

I) “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol”

Nortasun subjektiboaren arabera eraikitako gutxiengo etnonazionalen jarrerak ezberdinak dira EAE eta Katalunian *item* honetan. Partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiak babes zabalagoa du Kataluniako gutxiengoaren artean. Gutxiengoaren baitan, jarrera ezberdintasuna nabarmenagoa da euskalduna/katalana gehiago bezala definitzen direnen artean. Honela, euskaldunak gehiago definitzen direnen %38,6a bat dator partekatzen duten historia dela denak espainiar egiten dituenaren adierazpenarekin, katalanak gehiago sentitzen direnen artean, adostasun maila %57,6ra handitzen da (ikus IV.1.49.taula).

IV.1.49. Taula: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko adostasun maila nortasun subjektiboaren araberako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Kat./Eusk.go	Ados	57,6	38,6
	Zalantzan	14,6	20,5
	Aurka	21,2	25
	Ed/Ee	6,5	14,9
Kat/Eus	Ados	28,4	21,3
	Zalantzan	14,9	9,1
	Aurka	55,4	63,7
	Ed/Ee	1,4	6
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Nazionalismo mailaren arabera definituriko gutxiengo etnonazionalen arteko ezberdintasuna nabariagoa da. Modu honetara, EAEn abertzale moderatuen %28,6 bat dator partekatzen duten historia dela denak espainiar egiten dituen adierazpenarekin, aldiz, Katalunian abertzale moderatuen %64,7a dator bat adierazpenarekin. Abertzale arradikalen artean ere bada ezberdintasunik, EAEn %25a ados dago *item*arekin eta Katalunian abertzale arradikalen artean %49,7a da partekatzen duten historiak denak espainiar egiten dituenaren ideiarekiko adostasuna azaltzen duena. Beste behin, Kataluniako gutxiengo etnonazionalak, EAEn baino afektu handiagoa erakusten dute Estatuarekiko (ikus IV.1.50.taula).


IV.1.50. Taula: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko adostasun maila abertzaletasunaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzale moderatuak	Ados	64,7	28,6
	Zalantzan	9,8	20,0
	Aurka	21,5	37,1
	Ed/Ee	3,9	14,3
Abertzale arradikalak	Ados	49,7	25,0
	Zalantzan	13,2	13,9
	Aurka	33,8	52,8
	Ed/Ee	3,3	8,4
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bozkaren arabera irudikatutako gutxiengo etnonazionalen jarrera ere bestelakoa da EAEn eta Katalunian, bereziki, bozka abertzale historikoa edo instituzionalaren baitan. Honela, EAJren boto-emileen %31,7a bat dator partekatzen duten historia dela denak espainiar egiten dituen adierazpenarekin eta aldiz, CIUren boto-emileen artean babesa %67,7ra handitzen da.

IV.1.42. Grafikoa: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko aldekatasuna bozka oroitzenaren araberrako gutxiengo etnonazionalen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Estatuarekiko afektu edo leialtasuna neurtzeko aukeratu ditugun *item*etan, bozka abertzale historikoaren baitako, hau da, CIU eta EAJren boto-emaileen arteko jarrera ezberdinak agerikoak dira. Boto-emaile hauek Estatuarekiko mantentzen dituzten lotura afektibo ezberdinek interpretazio ugari izan ditzakete. Horietako bat, lehen hipotesian ikusi dugun alderdi hauetako boto-emaileen nortasun subjektiboen pisu ezberdina izan daiteke. Izan ere, CIUko boto-emaileen artean nortasun bikoitzak pisu handiagoa du, eta aldiz, EAJkoen artean, nortasun bakarrak, hau da, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak, CIUn katalanak bakarrik sentitzen direnak baino pisu handiagoa dute. Ziurrenik honek badu eraginik bi alderdi hauetako boto-emaileek Estatuarekiko erakusten duten afektu edo leialtasun gradu ezberdinean.

Bigarren hipotesiaren harira

Connorren bigarren hipotesia aztertzeko nortasun subjektiboa, nazionalismoa eta bozkaren arabera irudikatutako gutxiengo etnonazionalen jarrerak ikusi ditugu bai Katalunia eta bai EAEn. Ondorio nagusi moduan Kataluniako gutxiengo etnonazionalak EAEkoek baino Estatuarekiko afektu edo leialtasun handiagoa erakusten dutela esan dezakegu. Hortaz, Connorren bigarren hipotesia berresten dela esan dezakegu. Ezberdintasuna nagusiak, Estatuarekiko afektu edo leialtasuna neurtzeko erabili ditugun *item* hauetan ikus daitezke:

- *Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da.*
- *Agian gaztelania gehiengoaren hizkuntza da, baina galegoa, katalanera edota euskara ere espainiar hizkuntzak dira.*

Bi *item* hauek hizkuntzei egiten diete erreferentzia eta EAEko eta Kataluniako gutxiengo etnonazionalak gaztelaniarekiko eta katalanera eta euskararen espainiartasunaren inguruko atxikimendu ezberdinak dituztela oso agerikoa da. Kataluniako gutxiengo etnonazionalak gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekin ados daude, baina EAEn adostasuna baxuagoa da. Katalunia eta EAEko gutxiengoaren arteko ezberdintasuna are eta nabarmenagoa da bigarren adierazpenean; izan ere, Katalunian ia ez da eztabaidagai katalaneraren espainiartasuna, EAEko gutxiengo etnonazionalaren artean aldiz, sostengu baxuagoa du.

Bi adierazpen hauetaz gain, badira beste batzuk bi herrialdeen arteko jarrera ezberdintasuna agerian uzten dutenak:

- *Espainiak batuta jarraitu behar du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko.*
- *Partekatzen dugun historia da, bere gauza on eta txarrekin, denak espainiar egiten gaituena.*
- *Konstituzio era baikorrean baloratzen dut, Espainia baturik mantentzeko bitarteko bat izan delako.*

Espainiako batasunaren auziari dagokionean eta partekatzen duten historiari erreparatuz, EAE eta Kataluniako gutxiengoek hizkuntzari erreferentzia egiten dioten adierazpenetan baina gertutasun handiagoa erakusten dute. Halere, Kataluniako gutxiengoek babes handiagoa ematen diete Espainiaren batasunari eta historia amankomunak denak espainiar egiten dituenaren ideiei. Baina benetan, Konstituzioaren balioespenean ikus dezakegu gutxiengoaren arteko distantzia handiena. EAEn gutxiengoaren baitan babes txikia duen bitartean, Katalunian gutxiengo etnonazionalak ere Konstituzioa era baikorrean baloratzen du. Gainera Konstituzioa hizpide duen adierazpenaren babesa transbertsala da, eta Katalunian gehiago nahiz gutxiengoaren babesa du.

Bestalde, Estatuarekiko afektua neurtzeko erabili ditugun beste zenbait *item*etan gutxiengoaren jarrera antzekoagoa dela ikus dezakegu. Esaterako, Euskal Herriak, Kataluniak edota Galiziak euren kirol selekzioak izateko duten eskubideari begira, edo Espainia estatua denarekiko ideiaz ari garenean. Bietan, Katalunia eta EAeko herritarrek afektu ahula erakusten dute Estatuarekiko. Bi *item* hauetaz gain, Espainiaren elementu identitario eta sinbolikoenei erreparatzen dien adierazpenetan ere, Katalunia eta EAeko gutxiengoaren jarrerak gerturatuz doazela nabaria da, esaterako, Espainiako ereserkia eta banderari buruzkoetan. Azpimarragarria da ere, hain justu gutxiengoaren jarrerak antzekoak diren auzi sinbolikoenetan, gehiengoaren jarrera ere gutxiengoetik gertu dagoela ikusteak. Ereserkia eta banderaren auzian, kirol selekzio propioak izateko aukeran, baina baita ere Espainia estatua denaren auzian, gehiengoaren parte batek ere, bereziki Katalunian, leialtasuna urria adierazten du Estatuarekiko.

Badirudi Katalunian abertzale direnak, eta katalanak bakarrik, edota espainolak baino, katalanak sentitzen direnak, nortasunari buruzko auzi ezberdinak ez dituztela aurkakotasun edota identitate talka baten baitan bizi. Posible da ere Kataluniako nazionalismoa ez izatea hain identitarioa edota baztertzaila, eta euren nortasun nazionala Espainiarekiko kontraposizioz eraiki ez izana. Euskal nazionalismoak berriz, badirudi bere

nortasuna hein batean, espainiar nortasunaren ukazioan ere eraiki duela. Katalunian abertzaletasunak identitate ezberdinen bateragarritasunak ere uztartu nahi izan ditu, eta errefuxatzen duten ideia espainiar nazio bakarraren ideia litzake. Ildo honetan, espainiar nazio bakarraren isla izan daitezkeen ereserkia eta bandera hizpide izan ditugunean, Kataluniako gutxiengo etnonazionalak EAEkoen adinako afektu ahula erakusten dutela ikusi izan ahal dugu.

Katalunian, abertzale askok barne, bateragarriago ikusten dituzte nortasun katalanarekiko atxikimendua eta arlo ezberdinetan Estatuarekiko afektua mantentzea, besteak beste, hizkuntza, lurralde batasuna edota historia amankomunaren onarpenari begira. EAEko gutxiengo etnonazionalen artean aldiz, hertsiki lotuak dira nortasun nazionala eta hizkuntza, eta nortasun horrek hein batean gaztelaniaren ukazioa eta euskararen espainiartasunaren errefuxapenera daramatza.

Ildo beretik uler dezakegu Konstituzioaren balioespen mugatuagoa ere, *itemean* lurralde batasunaren auzia ere barneratzen dela ahanzi gabe. Eta lurraldetasunaren auzian oso jarrera ezberdinak adierazten dituzte bi herrialdeetako gutxiengoek, finean, abertzale izateak ez dakar derrigorrean sezesioaren aldekoa izatea, Kataluniako gutxiengoaren jarreretan ikusi dugun bezala. Bi herrialdeetako gutxiengoaren arteko ezberdintasunaren beste gako bat, nortasun subjektibo ezberdinetan aurki dezakegu. Katalunian, abertzaleen artean ere, nortasun bikoitza azaltzen dutenen portzentajeak pisu esanguratsua du, EAEn aldiz, abertzaletasunak oinarria nortasun bakarrean du gehienbat, hau da, euskaldunak gehiago edo euskaldunak bakarrik sentitzen direnak.

3. Hipotesia: “Jendartearen gehiengoak ordea, leialtasun hori ez du bai edo ez terminoetan kokatzen. Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen dira”

Connorren lehenengo hipotesian gutxiengo etnonazionalak, gehiengoekin alderatuz, estatuarekiko izango luketeen afektu ahulagoari egin diogu erreferentzia. Bigarren hipotesian, gutxiengo ezberdinak izan ditugu hizpide, zehazkiago, Katalunian eta EAEn, aldagai ezberdinak medio, gutxiengo etnonazionala osatzen duten herritarrak. Hirugarren hipotesian, Connorrek, jendartearen gehiengoak estatuarekiko leialtasun hori, bai edo

ez terminoetan ez duela kokatzen azaltzen du. Lehenengo eta bigarren hipotesietan ikusitakotik ere horixe ondorioztatu dezakegu, gehiengo eta gutxiengoaren banaketa ardatza gainditzen duten estatuarekiko lotura afektiboak badirela. Hirugarren hipotesi honetan, estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin nola eta ze auzitan uztartzen diren ikusiko dugu. Horretarako, herritarrak abertzale eta ez abertzaleen artean banandu ditugu, nazionalismo eskalan izan duten autokokapena kontuan hartuaz. Nazionalismo eskalan 0 eta 5 bitartean kokatuko direnak ez abertzale bezala kontsideratuko ditugu, 6-10 tartean kokatu direnak aldiz, abertzale bezala.

A) “Espainia estatu bat da, ez nazioa”

IV.1.51.taulari erreparatzen badiogu, Katalunian eta EAEn abertzale bezala definitu ditugunak hein batean Espainiaren nazio izaera ukatzen dutela ikus dezakegu. Inkestaturen bi herenek, Katalunian %63,4ak, eta EAEn %62,9ak, ez dute uste Espainia nazio bat denik, estatua aldiz, bai.

IV.1.51. Taula: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	63,4	62,9
	Zalantzan	5,5	7,1
	Aurka	16,5	15,7
	Ed/Ee	14,6	14,3
Ez abertzaleak	Ados	39,8	20,3
	Zalantzan	11,2	12,7
	Aurka	30,7	38,0
	Ed/Ee	18,3	29,1
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Beste era batetara esanda, inkestaturen bi herenak, Espainia estatu bat dela uste du, eta ez, nazioa; hortaz, abertzaleen gehiengoak Espainia nazio soila eta bakarra izatea ukatzen duela esan genezake. Hau da, Espainia nazioa izan daiteke, baina batez ere, estatu izaera azpimarratuko lukete. Datu hauen atzetik esanahi eta interpretazio anitz egon daitezke. Besteak beste, posible da estatu izaera azpimarratzeak, eta ez nazioarena, edo ez nazio bakarrarena, lotura izatea estatu nazioanitzdun baten ideiarekin. Espainia

nazioa bezala definituz gero eta, are gehiago, nazio bakar bezala, beste nazioen izatearen ukaziora garamatza.

Nazio-estatu kontzeptutik bertatik horixe ondoriozta dezakegu, estatuak eta nazioak parekatzen ditu eta estatuak nazio bakarrarekin lotzen ditu, errealitate enpirikoak behin eta berriro ukatu badu ere estatu gehienak nazio bakarrak osatuak direnik. Nazionalitatearen teoria modernoak estatua eta nazioa berdindu egiten ditu, eta modu honetara, estatuaren mugen baitan egon litezkeen gainontzeko nazionalitate oro ia jopu izatera mugatzen ditu. Izan ere, estatuan nagusi den nazio dominantearen izaera berdina ezin die onartu, orduan estatuak bere izaera nazionala galduko lukeelako, bere izatearen printzipioarekin kontraesanean eroriz. Modu honetara, abertzaleen portzentaje esanguratsu batek Espainia estatua denaren ideia defendatuko luke, baina nazio-estatuaren kontzeptuaren esanahitik aldenduz, eta aurretik esan moduan, ziurrenik nazionalitate ezberdinak barneratu edo errekonozituko lituzkeen estatu baten ideien ildotik.

Dena den, abertzaleen artean ere, badira Espainia nazio bat dela uste dutenak. Katalunian eta EAEn abertzale bezala definitu ditugun hamarretik hiruk, Espainia estatua dela ukatzen dute edota ez diote erantzuten galdera honi. Katalunian, abertzaleen %16,5a Espainia estatua denaren ideien aurka agertzen da eta %14,6ak ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi. Ildo beretik, EAeko abertzaleen %15,7ak ere ez du uste Espainia estatua denik eta, hortaz, Espainiaren naziotasunaren ideia defendatuko lukete. Katalunian bezala, portzentaje esanguratsu batek ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi (%14,3). Ezin dugu jakin ordea, Espainia estatu bat, eta ez, nazio bat adierazpenarekin aurka azaltzen diren abertzaleak, Katalunia eta EAEn nazio izatea ukatzen duten ala ez, edota Espainia nazio bakarraren ideia bere egiten duten. Halere, eta Connorren jarrera ereduari jarraiki, partzialki bada ere, *item* hau oinarritzat harturik, estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen direla esan genezake.


Ez abertzaleei begiratzen badiegu, EAEn gehiago dira adierazpenarekiko aurka azaltzen direnak (%38), aldekoak baino (%20,3). Hau da, ez abertzaleen %38ak Espainia nazioa dela uste du, eta ez estatu bat. Hortaz, inkestatu hauek Espainiaren naziotasuna abertzaleak baino era indartsuagoan defendatzen dute. Hala eta guztiz, kontuan izan behar dugu, ez abertzaleen %20,3ak ere Espainiaren naziotasuna ukatzen duela, eta hortaz, Espainia estatu bat denaren ideia defendatzen dutela. Horretaz

gain, %12,7a ez ados/ez aurka agertzen da eta inkestatuen %29,1ak ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi.

Kataluniari dagokionean, ez abertzale bezala definitu ditugun inkestatuen artean ere, gehiago dira Espainia, nazioa baino, estatua dela ulertzen dutenak (%39,8), aurkako jarrera azaltzen dutenak baino (%30,7). Gainera, inkestatuen %11,2a ez ados/ez aurka azaltzen da eta %18,3ak ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi.

Hortaz, bai Katalunian eta bai EAEn, abertzaleen artean Espainia estatu bat, eta ez nazio bat, denaren ideia nagusitzen da. Kontuan izanik beti ere, abertzaleen artean ere, portzentaje esanguratsu batek ez diola galdera honi erantzuten edota Espainiaren naziotasunaren ideia defendatzen duela. Bestalde, ez abertzaleen artean, ez da nagusitzen Espainia nazioa denaren ideia eta Espainiaren nazio izaera ukatzen dutenen portzentajea handia da, Katalunian bereziki. Bi herrialde hauetan, legitimate eskasa du Espainiak nazio bezala ulerturik. Ondorioz, Espainia nazioa edo estatua denaren ideia abertzale/ez abertzale dikotomiatik haratago doala esan genezake. Are gehiago, datuei erreparatuz, estatu/nazioa hein batean ez litzateke, inkestatuen aburuz, eta bereziki Katalunian, bateragarria ez den dikotomia bat bezala ikusiko.

IV.1.43. Grafikoa: “Espainia estatu bat da, ez nazioa” adierazpenarekiko aldeketasuna abertzale/ez abertzaleen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Datu hauek interpretazio ugari izan ditzakete. Ezin dugu jakin inkestatuek zenbatean ezberdintzen dituzten nazio eta estatu errealitateak, ez eta

zeintzuk diren bi kontzeptuen arteko ezberdintasunak herritarren aburuz. Connor behin baino gehiagotan mintzo da nazioaren inguruan dagoen *gaixotaun terminologikoa*z (ikus 1.kapitulua) eta nazio-estatu kontzeptuaren desegokitasunaz. Posible da ere inkestatuek estatua eta nazioa ez ikustea era kontrajarrian, eta agian hemendik abiatuta aztertu ahal da Katalunia eta EAEko herritarrek azaldutako iritzi ezberdintasuna.

Nazio-estatu kontzeptuari dagokionean, Linzek dio espainiar gehienentzat Espainia nazio-estatu bat dela, horrek, beste inongo talde sozialarekin lortzen ez den elkartasun sentimendu bat suposatzen du eurentzako. Gutxiengo garrantzitsuentzako, ziurrenik, bere autoritatea obeditu behar den estatu bat izaten jarraitzen du. Hortaz, gutxiengo horientzako Espainia estatu bat da; baina ez euren nazioa eta hortaz, ez litzake nazio-estatu bat. Linzen (1973) aburuz, nazio katalan batekin eta euskal nazio batekin identifikatzen diren gutxiengoak, Espainia eta bere eliteek nazio (bakarra) egiteko orduan izandako porrota azaltzen dute. Linzek idatzitakoa gaur egungo errealitatea interpretatzeko ere baliagarria dela esango genuke. Bai Katalunian, eta bai EAEn, abertzaleen artean ere, Estatuarekiko lotura afektiboak existitzen dira, baina gutxiengo talde etnonazionalistak kideek lotura afektibo sendoagoak dituzte euren nazioekiko. Eta horixe da hain zuzen ere, nazio batekiko atxikimendu hori, elkartasun sentimenduaren sortzaile eta euskarria.

Estatua eta nazioaren arteko ezberdintasuna behin eta berriro ikusi dezakegu nazionalismo periferikoen ideologian. Horren adibide litzateke Espainiako Estatuaren terminoaren erabilera, Espainia ordez.

Nortasun nazionaleri erreparatuz, nortasun ezberdinen batergarritasunaren gaiari helduko diogu. Linzen arabera, Katalunian eta EAEn herritar askok nortasun bikoitza azaltzen dute, bi nortasun edo identifikazio horien artean gatazkarik ikusi gabe. Halere, bi herrialde hauetan euskal edo kataluniar nortasun nazionala bateraezin bezala ikusten dutenak ere badira, eta autore honen arabera, hau izango litzateke nazionalismo periferikoen oinarri sikologikoa eta soziologikoa. Hortaz, bai Katalunian eta bai EAEn, gizartearen zati batek Espainia nazio katalana edota euskal nazioari aurrez aurre ipintzen zaion estatu bat bezala ikusiko luke.

Linzekin jarraituz, eta estatu eta nazioaren arteko gatazkari dagokionean, XX.mende hasieratik katalan nazionalismoak Katalunia nazio bat bezala definitu izan du, baina ez nahitaez Espainiako estatu batean integrazioa errefuxatuz, eta bai, nazio espainiarren ideari uko eginez sarritan.

Katalunia eta EAE konparatuz, posible da Katalunian historikoki kontzientzia nazionala argiagoa izana eta horren ondorio izan daiteke katalan nazionalismoa espainiar nazionalismoaren ukaziotik edo errefuxapenetik eraiki ez izana. EAEn, “bestearen”, kasu honetan, espainiar nortasunaren ukazioa, indartsuagoa izan da. Katalunian aldiz, autoidentifikazioari garrantzi handiagoa eman diote, “bestearen” ukazioa bigarren maila batean utziaz. Linzek Kataluniako beste berezitasun bat ere aipatzen du, pertsonalki espainolistak sentitzen direnak ere, printzipio batean, nazionalitateek independentziarako eskubidea dutela onartzen dute. Bere ustez, autodeterminazioaren printzipioa onartzeak ez dakar derrigorrean espainiar nortasunaren ukazioa.

EAEn aldiz, independentista bezala definitzen diren gehienek ez dute espainiar nortasunik onartzen, Katalunian ez bezala. Ondorioz Linzen (1986) arabera, badirudi aukera independentistak esanahi ezberdina izatea Katalunian: “printzipio batean” onarpen teoriko bat litzateke, baina hau onartzen duten askorentzat Espainiarekiko loturekiko ukapenik ez dakar. Baieztapen ideologiko bat litzateke, katalan nazionalismoaren esanahi emozionalik eratortzen ez duena. Linzek azaldutako berezitasun hauek Katalunian ez abertzaleek ere, Espainia estatua denaren ideia defendatzearen nondik norako batzuk azal ditzakete.

Aurretik azaldu dugun moduan, Kataluniaren ezaugarri bereizgarria herritar askok duten nortasun bikoitzean legoke. Katalunian gainera, eta bereziki abertzaleei dagokienean, nortasun nazional ezberdinekiko atxikimendua bateragarriago ikusten da. Modu honetara, nortasun bikoitzetik haratago, adierazgarria da ere, EAEn abertzaleen %41,7ak nortasun nazional bakarra adieraztea, Katalunian aldiz, abertzaleen %27,6a da bere burua erkidegokoa bakarrik dela azaltzen duena (katalana bakarrik).

Laburbilduz, hizpide dugun “*Espainia estatu bat da, eta ez nazio bat*” itimean ikusitako datuek, maila batean behinik behin, Connorren hirugarren hipotesi hau berresten dute, hau da, gutxiengo etnonazionalen artean ere estatuarekiko lotura afektiboak existitzen direla. Ezin dugu ziurtasunez jakin inkestatuek estatu eta nazio kontzeptuak ezberdintzen dituzten eta zer nolako harremana ikusten duten bi ideien artean. Gainera, ezberdintasun nagusiak, abertzaleen artean baino, Katalunian eta EAEn, ez abertzaleen artean leudeke. Katalunian ez abertzaleak ere, hein handi batean Espainiaren naziotasuna ukatu eta estatu izaera aitortzen diote. Ziurrenik jarrera honetan eragina izango luke Linzek aipaturiko nortasun

bateragarritasunak eta abertzale ez izanik ere, Kataluniako herritarren parte batek ideologikoki onartzen duen autodeterminazio printzipioak.

B) “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da”

Bigarren adierazpenari dagokionean, jarrera ezberdinak ikus ditzakegu Katalunia eta EAeko inkestatuen artean, bereziki, abertzale bezala definitu ditugunen artean. Katalunian, ez abertzale (87,6%) eta abertzaleen gehiengoak (%62,3), gaztelania, euren nortasunaren oinarritzko elementu gisa ikusten dute. Hortaz, agerikoa da, Connorren hirugarren hipotesiak azaltzen duen bezala, estatuarekiko lotura afektiboak, kasu honetan hizkuntza bitarteko, kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen direla.

EAEn kasuan aldiz, abertzaleei erreparatuz, egoera ezberdina da, eta iritziak bananduak daude. Abertzaleen artean, gehiago dira (%46,5) gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua dela ukatzen dutenak, aldekotasuna azaltzen dutenak baino (%39,4). Halere, hamarretik lau, gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekin bat datoz eta hortaz, Connorren hipotesi hau EAEn ere berresten dela esateko moduan gaude (ikus IV.1.52. taula eta IV.1.44.grafikoa).

IV.1.52. Taula: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)


		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	62,3	39,4
	Zalantzan	7,9	8,5
	Aurka	27,8	46,5
	Ed/Ee	2,0	5,6
Ez abertzaleak	Ados	87,6	77,2
	Zalantzan	3,3	11,4
	Aurka	7,0	7,6
	Ed/Ee	2,1	3,8
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Egia da EAEn abertzaleen portzentaje esanguratsu batek bere burua euskalduna bakarrik bezala definitzen duela eta euskal nortasunari atxikituak diren ezaugarri ezberdinak, espainiar nortasun nazionalari kontraposizioz eraikiak direla. Baina halere, EAeko abertzaleen ia erdiek

gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementu bezala ikusten dute. Ezin dugu ahantzi, hizkuntza, kasu honetan euskara, ez dela izan euskal nortasunaren ardatz edo euskarri nagusi, eta bestetik, eta Kataluniarekin alderatuz, euskararen erabilera askoz era murriztagoa dela. Euskara eta katalaneraren erabilera ezberdin honek ere eragina izan ahal du EAEko herritar abertzaleen artean egon daitekeen ahulezia edo mehatxu egoera baten sententzioan eta ondorioz, errazagoa da katalan herritarrek baino erreparatu edo konplexu gehiago izatea gaztelania euren nortasunaren elementua gisa onartzeko orduan.

IV.1.44. Grafikoa: “Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzale/ez abertzaleen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

C) “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du”

Espainiako ereserkia aldiz, Estatuarekiko lotura afektiboa eta kontzientzia etnonazionalaren bateragarritasuna era lausagoan azaltzen duen adierazlea izango litzateke, bereziki EAERI dagokionean. EAEko abertzaleen gehiengoa (%80) ez dator bat Espainiako ereserki nazionala entzutean harro dagoen komunitate bateko partaide sentitzen denaren adierazpenarekin eta %7,1ak bakarrik azaltzen du adostasuna. Katalunian ere abertzaleen gehiengoa (%59,1) Espainiako ereserki nazionalan entzutean harro sentitzen denarekin ez dator bat, baina inkestaren laurdena (%24,2) Espainiako ereserkia entzutean harro dagoen komunitate baten partaide sentitzen da eta %14,3a zalantzan dago. Berrito aipatu beharrean gaude, Kataluniako abertzaleen artean nortasun bikoitzak duen

pisua, eta espainiar eta katalan nortasunak bateragarritzat dituen jende kopurua (ikus IV.1.53. taula).

IV.1.53. Taula: “Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	24,2	7,1
	Zalantzan	14,3	8,6
	Aurka	59,1	80,0
	Ed/Ee	2,4	4,3
Ez abertzaleak	Ados	49,6	30,0
	Zalantzan	15,7	26,3
	Aurka	32,2	33,8
	Ed/Ee	2,5	10,0
	Guztira	100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Abertzaleak ez direnei begira ere, ezberdintasunak agerikoak dira Katalunia eta EAEn artean. Katalunian, ez abertzaleen erdia (%49,6) bat dator adierazpenarekin, baina inkestatuen erdiak, ereserki nazionala entzutean harro dagoen komunitate bateko partaide ez dela sentitzen adierazten du (%32,2), edo zalantzan agertzen da (%15,7). EAEn aldiz, ez abertzaleen artean, %30a da Espainiako ereserki nazionala entzutean, harro dagoen komunitate bateko partaide sentitzen dela azaltzen duena. %33,8a aldiz, aurka dago eta esanguratsua da %26,3a ez ados, ez aurka azaltzea.

Datuak aztertuz, abertzale eta ez abertzaleen jarrerak ezberdinak izanik ere, azpimarragarria da, ez abertzaleen artean ere, portzentaje esanguratsu bat Espainiako ereserki nazionalak sortu ahal duen harrotasunarekin bat ez etortzea. Finean, abertzaletasunetik haratago, demokraziaren balioek eta Espainiako historia hurbilak ere eraginik izan dezake datu hauen interpretazioan. Ezin dugu ahanzi ez abertzale askok ere borroka antifrankistan izan zuten jardun aktiboa, bai Katalunian eta bai EAEn. Baina bi planoak bereiztu beharrean gaude; gauza bat da erregimen frankistaren aurka egotea, eta berak ordezkatzan zuen balio sinboliko guztia, eta bestea, Espainiaren batasuna auzitan ipintzea. Modu honetara, ez abertzale askok ereserki nazionala entzutean harro dauden komunitate bateko partaide ez sentitzeak ez dakar derrigorrean abertzale izatea,

erregimena izan zena eta berak ordezkatzeko duen sinbolo eta nazio ideiarekin ados ez egotea baizik.

IV.1.45. Grafikoa: "Espainiako ereserkiak nere komunitateko harrotasun sentimendua indartzen du" adierazpenarekiko aurkakotasuna abertzale/ez abertzaleen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Espainiako ereserki nazionalari dagokionean hortaz, EAEn gutxiengo etnonazionalari erreparatuz, Estatuarekiko lotura afektibo eza, edo oso ahula erakutsiko luke. Nortasun bikoitza eta nortasun bateragarrien hipotesiaren ildo beretik, Kataluniako gutxiengoak beste jarrera bat azaltzen du, eta hein batean, ereserkia ere Estatuarekiko lotura afektiboaren adierazle litzateke.

D) "Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara espainiar hizkuntzak dira"

Galegoa, katalanera edota euskara ere espainiar hizkuntzak direnaren galderaren inguruan jarrera ezberdina erakusten dute EAeko eta Kataluniako herritarrek. Katalunian, ez abertzaleak ezezik (%90,9), abertzaleen gehiengo ere (%85,8) galegoa, katalanera edota euskara espainiar hizkuntzak direnarekin bat dator. Hortaz, kasu honetan ez dago gatazkarik gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen artean. EAEn kasuan, ez abertzaleen gehiengo ere bat dator (%64,2), Kataluniako ez abertzaleen adinako babes ez badu ere. Abertzaleei dagokionean, gehiago dira (%45,7) galegoa, katalanera edota euskara ere espainiar hizkuntzak

direnarekin bat datozenak. %34,3a aurka azaltzen da eta %12,9 ez ados/ez aurka (ikus IV.1.54. taula).

Hortaz, eta hizkuntzarekin zerikusia duen beste *item*aren ildo beretsuan (*Gaztelania gure nortasunaren oinarriazko elementua da*), agerikoa da bai Katalunian, eta bai EAEn, kontzientzia etnonazionaletik haratago, Estatuarekiko lotura afektiboak ere badirela.

IV.1.54. Taula: “Gaztelaniaz gain, katalana, galegoa eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	85,8	45,7
	Zalantzan	2,8	12,9
	Aurka	10,7	34,3
	Ed/Ee	0,8	7,1
Ez abertzaleak	Ados	90,9	64,2
	Zalantzan	2,1	12,3
	Aurka	5,4	13,6
	Ed/Ee	1,7	9,9
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

E) “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria”

Espainiaren batasunari dagokionean ere, jarrera ezberdinak azaltzen dituzte Katalunia eta EAeko herritarrek, bereziki, abertzale bezala definitu ditugunak. Katalunian, abertzaleen artean ere, gehiago dira (%46,5) Espainiak batuta jarraitu behar duela uste dutenak herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatu bidean, aurkako jarrera azaltzen dutenak baino (%36,2). EAEn aldiz, abertzale bezala definitu ditugunon gehiengoa (%58,3) herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko Espainiak batuta jarraitu behar duenaren ideien aurka azaltzen da. Hala eta guztiz, abertzaleen %16,7a ados dago Espainiak batuta jarraitu behar duen ideiarekin, %13,9a ez ados/ez aurka azaltzen da eta %11,1ak ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi. Finean, abertzale izateak ez dakar derrigorrean independentzia zalea izatea edota sezesioaren alde egotea. Ezin dugu ahanzi ere adierazpenak barneratzen duen premisa zein den; izan ere, Espainiaren batasuna, herritarren berdintasuna eta


erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko bitarteko bezala aurkeztua da (ikus IV.1.55. taula).

IV.1.55. Taula: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	46,5	16,7
	Zalantzan	13,0	13,9
	Aurka	36,2	58,3
	Ed/Ee	4,3	11,1
Ez abertzaleak	Ados	77,6	63,3
	Zalantzan	7,5	16,5
	Aurka	8,3	8,9
	Ed/Ee	6,6	11,4
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

IV.1.46. Grafikoa: “Espainiaren batasuna da elkartasunaren oinarria” adierazpenarekiko aldekatasuna abertzale/ez abertzaleen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, eta hizpide dugun Connorren hirugarren hipotesiari helduz, Katalunian Estatuarekiko afektua, kasu honetan lurraldetasunari lotua, kontzientzia etnonazionalarekin bateragarria dela ikusi ahal dugu. EAEn aldiz, abertzaleen gehiengoak aurka egonik ere, parte batek auzi honi dagokionean ere mantentzen du Estatuarekiko lotura afektiboa. Agerikoa

da halere, Katalunia eta EAeko gutxiengo etnonazionalak abertzaletasuna modu ezberdinean ulertu eta bizi dutela. Nazionalismoen ikerketa ezberdinetan askotan errepikatu izan da, Kataluniakoa gertuago dagoela polo primordialetik, besteak beste, kultura eta hizkuntza, lurraldetasunaren polotik baino.

F) “Espainiako banderak ez nau hunkitzen”

Espainiako banderari dagokionean, bai Katalunian (%66,8) eta bai EAEn (%83,1), abertzaleen gehiengoa bat dator Espainiako banderak inongo emoziorik pizten ez dionaren adierazpenarekin. Halere, Katalunian, abertzaleen %22ak Espainiako banderak emozioa sortzen diola onartzen du. Ez abertzaleei dagokionean, bai Katalunian eta bai EAEn iritziak nahiko bananduak daude. EAEn kasuan gainera, inkestaren %27,5a ez ados, ez aurka azaltzen da. Azpimarratzekoa da ere, ez abertzaleen artean ere portzentaje oso esanguratsu batek Espainiako banderak inongo emoziorik ez diola sortzen adierazi duela. Hortaz, posible da, ez abertzaleak ere Espainiako banderak ordezkatzeko duen Espainiaren naziotasun ideia edo eredu horrekin bat ez etortzea. Aurreko adierazpenetan ikusi dugu zenbait auzitan gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko lotura afektiboak mantentzen dituztela. Eta hemen ikusi ahal izan dugu aurkako zentzuan ere ematen direla harreman eta lotura afektiboak.

IV.1.56. Taula: “Espainiako banderak ez nau hunkitzen” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	66,8	83,1
	Zalantzan	10,3	5,6
	Aurka	22,1	8,5
	Ed/Ee	0,8	2,8
Ez abertzaleak	Ados	40,5	33,8
	Zalantzan	14,9	27,5
	Aurka	44,2	33,8
	Ed/Ee	0,4	5,0
	Guztira	100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, Espainiako banderak sorrarazi lezakeen balizko emozioa, ez litzateke kontzientzia etnonazionala eta Estatuarekiko leialtasunaren

bateragarritasunaren adierazle EAEn. Katalunian gutxiengoaren zati batek mantentzen du, bandera medio, Estatuarekiko lotura afektiboa. Modu honetara, ereserki nazionalarekin ikusi bezala, badirudi, Espainia edota espainiartasunaren elementu sinboliko hauek, beste auzi batzuetan ez bezala, hein batean talka egiten dutela abertzaleen nortasun nazionalarekin.

G) “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago”

Espainiako Konstituzioaren balioespenaren inguruan, Kataluniako eta EAeko abertzaleek jarrera ezberdinak azaltzen dituzte. Kataluniako abertzaleen %63,4ak Konstituzioa era baikorrean baloratzen du Espainia baturik mantentzeko bitarteko bat izan delako. Aldiz, EAEn, abertzaleen %22,9ak bakarrik balioesten du Konstituzioa *itemean* azaldutako ildoan eta %45,7ak bere aurkako jarrera adierazten du.

IV.1.57. Taula: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	63,4	22,9
	Zalantzan	9,1	21,4
	Aurka	24,4	45,7
	Ed/Ee	3,1	10,0
Ez abertzaleak	Ados	78,8	65,4
	Zalantzan	8,7	17,3
	Aurka	6,6	8,6
	Ed/Ee	5,8	8,6
Guztira		100	100


Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Hortaz, lurraldetasunaren auzia barneratzen duen *item* honen interpretazioa, *Espainiak batuta jarraitu behar du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko* adierazpenaren ildo beretsuan interpreta dezakegu. Bietan, Katalunia eta EAeko abertzaleen jarrera ezberdina ikus dezakegu.

Katalanen kasuan, Connorren hirugarren jarrera/hipotesia baietatzen dela ikus dezakegu, Estatuarekiko elementu afektiboak eta kontzientzia etnonazionala uztartuz. EAeko abertzaleen artean aldiz, jarrera bestelakoa

da, eta lurraldetasuna eta Espainiaren batasunaren auziak euren kontzientzia etnonazionalarekin talka egiten du hein batean.

IV.1.47. Grafikoa: “Espainia batzen duelako, Konstituzioaren alde nago” adierazpenarekiko aldekotasuna abertzale/ez abertzaleen artean (2006)



Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

H) “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak, euren kirol selekzioak izan beharko lituzkete”

Katalunia, Euskal Herria eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukerari dagokionez, Kataluniako eta EAeko abertzaleen gehiengoak ados azaltzen da. Dena den, ez abertzaleen artean ere, gehiago dira ados daudenak, aurka azaltzen direnak baino. Honela, Kataluniako ez abertzaleen %52,9ak ongi ikusiko luke Katalunia, Euskal Herria edota Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukera, %29,6 aurka azaltzen den bitartean. EAEn %49,4a ere bat dator aukera honekin, ez abertzaleen %21,5ak bere aurkakotasuna azaltzen duen heinean (ikus IV.1.58. taula).

Kirol selekzio propioak izateko aukerari dagokionean, gutxiengo etnonazionalak Estatuarekiko lotura afektiborik ez dutela agerikoa da. Kasu honetan talde dominanteko kideen Estatuarekiko lotura afektiboa ere nahiko ahula dela gaineratu behar dugu. Honela, ez abertzale izateak ere ez dakar derrigorrean esparru guztietan espainiar nazionalista bati espero dakioken jarrera izatea. Finean, Connorren hipotesi honetan gutxiengo etnonazionalak Estatuarekin lotura afektibo anitz mantentzen dituztela ikusten ari gara. Gainera, zehazki kirol selekzio propioei

dagokienean, posible da, ez abertzaleek nortasun nazional ezberdinen arteko talkarik ez ikustea.

IV.1.58. Taula: “Kataluniak, Euskal Herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izan beharko lituzkete” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	83,8	88,6
	Zalantzan	4,7	4,3
	Aurka	8,3	2,9
	Ed/Ee	3,2	4,3
Ez abertzaleak	Ados	52,9	49,4
	Zalantzan	9,2	12,7
	Aurka	29,6	21,5
	Ed/Ee	8,3	16,5
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

I) “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol”

Partekatzen duten historiari dagokionean, Katalunia eta EAEko abertzaleek jarrera ezberdina erakusten dute. Katalunian, abertzaleen artean ere, adostasun maila altua du (%56) partekatzen duten historia denak espainiar egiten dituenaren adierazpenak.

IV.1.59. Taula: “Partekatzen dugun historiak egiten gaitu denok espainol” adierazpenarekiko adostasun maila abertzale/ez abertzaleen artean (2006)

		Katalunia	EAE
Abertzaleak	Ados	56,0	27,1
	Zalantzan	11,9	17,1
	Aurka	28,6	44,3
	Ed/Ee	3,6	11,4
Ez abertzaleak	Ados	78,3	63,0
	Zalantzan	11,3	18,5
	Aurka	7,1	7,4
	Ed/Ee	3,3	11,1
Guztira		100	100

Iturria: CIS (2006), La identidad nacional en España

Bestalde, Katalunian, %28,6 azaltzen da adierazpenaren aurka, EAEn aldiz, %44,3a. Dena den, EAEn ere, abertzaleen %27,1a partekatzen duten historiak denak espainair egiten dituenaren ideiarekin bat dator, %17,1a ez ados, ez alde agertzen da eta %11,4ak ez daki edo ez dio erantzuten galdera honi.

Modu honetara, beste behin, Katalunian era argiago batean azaltzen da Estatuarekiko leialtasun eta kontzientzia etnonazionalaren bateragarritasuna.

Atal honetan Connorren hirugarren jarrera/hipotesia, “*Jendartearen gehiengoak ordea, leialtasun hori ez du bai edo ez terminoetan kokatzen. Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen dira*”, Katalunian eta EAEn ze mailatan baliozkotzen den aztertu dugu. Honela laburbildu dezakegu Estatuarekiko loturiko afektibo eta kontzientzia etnonazionalaren arteko balizko bateragarritasuna Katalunia eta EAeko herritarrei erreparatuz:

Hizkuntza

Hizkuntzek estatuarekiko lotura afektibo gisa jokatu ahal duen papera aztertzeko bi *item* hauek izan ditugu kontuan:


- *Galegoa, katalanera eta euskara ere espainiar hizkuntzak dira*
- *Gaztelania gure nortasunaren oinarritzko elementua da*

Bi *item* hauetan Katalunia eta EAeko abertzaleek izandako adostasun mailari helduko diogu Estatuarekiko balizko lotura afektiboen nondik norakoak aztertzeko. Kataluniako abertzaleen artean, gaztelania, herritarren nortasunaren oinarritzko elementua denaren ideia inguruko adostasuna altua da. Katalanera, galegoa eta euskararen espainiartasunaren inguruko adostasun maila are eta altuagoa da. Honek agerian uzten du, batetik, Katalunian, abertzaleen artean ere, hizkuntzak Estatuarekiko elementu afektibo gisa jokatzen duen papera eta bestetik, kontzientzia etnonazionalarekin bat etorri daitekeela.

EAEn, abertzaleen portzentaje esanguratsu batek ere bat egiten du gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denaren ideiarekin eta euskara, galegoa eta katalaneraren espainiartasunarekin, baina Katalunian baino adostasun maila txikiagoarekin. Hortaz, Katalunian, eta hizkuntza bitarteko, Estatuarekiko lotura afektiboa kontzientzia etnonazionalarekin

batera existitzen da. EAEn aldiz, Connorren hirugarren hipotesiaren baliozkotasuna ukatu gabe ere, lotura afektibo hori ahulagoa litzateke.

IV.1.48. Grafikoa: Gutxiengoen Estatuarekiko lotura afektiboa hizkuntzak bitarteko EAE eta Katalunian (2006)



Lurraldetasuna/Batasuna


Lurraldetasunak, Espainiaren batasunak eta historia amankomunak Estatuarekiko lotura afektibo gisa jokatu ahal duten papera aztertzeko hiru *item* hauek izan ditugu kontuan:

- *Espainiak batuta jarraitu behar du herritarren berdintasuna eta erkidegoen arteko elkartasuna bermatzeko*
- *Konstituzio era baikorrean baloratzen dut, Espainia baturik mantentzeko bitarteko bat izan delako*
- *Partekatzen dugun historia da, bere gauza on eta txarrekin, denak espainiar egiten gaituena*

Hiru adierazpen hauetan Kataluniako abertzaleek eta EAeko abertzaleek azaldutako jarrera ezberdina agerikoa da. Espainiako batasunari dagokionean, Kataluniako abertzaleek, Konstituzioa era baikorrean balioesten dute Espainia baturik mantentzeko bitarteko gisa. Ildo berean, adostasun maila zertxobait txikitzen bada ere, Espainiak batuta jarraitu behar duenaren ideiak ere babes handia du Kataluniako abertzaleen artean. Partekatzen duten historiak espainiar egiten dituenaren ideiak ere onarpen altua du. EAeko abertzaleei dagokienean, hiru *item*ekiko adostasun maila

askoz ere txikiagoa da, bereziki, Espainiak batuta jarraitu behar duen adierazpenari helduz.

IV.1.49. Grafikoa: Gutxiengoen Estatuarekiko lotura afektiboa lurralde eta batasunaren auzian EAE eta Katalunian (2006)



Modu honetara, Connorren hirugarren hipotesia ontzat eman genezake Kataluniako abertzaleen artean, Estatuarekiko lotura afektiboak eta kontzientzia etnonazionala kontrajarriak bezala ikusten ez direnaren zentzuan. EAEn aldiz, Espainiaren lurraldetasuna, batasuna eta historiak azaldu dezaketen Estatuarekiko lotura afektiboa ahula da eta, hein batean, herritar abertzaleek euren kontzientzia etnonazionalarekiko bateraezin ikusten dituztela esan genezake. Finean, euskal nazionalismoak, diskurtsoan behinik behin, lurraldetasunaren inguruan ere eraiki du bere diskurtsoa, katalanek ez bezala.

Espainiako sinbolo eta ikurrak ⁷

Espainiartasuna irudikatzen duten elementu sinbolikoez Estatuarekiko lotura afektibo gisa jokatu ahal duten papera aztertzeko lau *item* hauek izan ditugu kontuan:


- *Kataluniak, Euskal herriak eta Galiziak euren kirol selekzioak izateko aukera izan beharko lukete*
- *Espainia estatu bat da, ez nazioa*
- *Espainiako banderak ez du inongo emoziorik pizten nigan*
- *Espainiako ereserkia entzutean, harro nagoen komunitate bateko kide sentitzen naiz*

Kirol selekzio propioak izateko aukerak adostasun maila altua du, bai Kataluniako abertzaleen artean eta baita EAEko abertzaleen artean ere. Era berean, bai Katalunian, eta bai EAEn, abertzaleek Espainiaren estatu izaera babesten dute, eta ondorioz, Espainiaren naziotasuna edo nazio bakarraren ideia ukatzen dutela esan genezake. Espainiako banderak sor lezakeen emozioari dagokionean ere, agerikoa da inkestatuen iritzia; EAEko abertzaleek eta Kataluniakoek argi uzten dute Espainiako banderak ez diela inongo emoziorik sortzen.

Estatuarekiko lotura afektiboa eta kontzientzia etnonazionalaren uztartze eza adieraziko lukeen beste elementu sinbolikoa, Espainiako ereserkia litzateke. Katalunian eta bereziki, EAEko abertzaleen artean, ia inork ez du azaldu bere adostasuna *item* honi dagokionean. Hala eta guztiz, eta bereziki Katalunian, gutxiengo etnonazionalaren parte batek ere, elementu sinboliko hauekiko atxikimendu afektiboa adierazten du. Eta alderantziz, ez abertzaleak direnen artean ere ez da nagusitzen elementu guzti hauekiko lotura afektiboa.

⁷ Hizkuntzen auziarekin loturiko *item*ak ere elementu sinbolikotzat har ditzakegu. Halere, atal honetan zehazki Espainiako sinbolo eta ikurrak aipatzen ditugunez, egokiagoa iruditu zaigu hizkuntzen auzia beste atal batean barneratzea gaztelaniaz gain, euskara, galegoa eta katalaneraren balizko espainiartasuna ere aztergai baitugu.

IV.1.50. Grafikoa: Gutxiengoan Estatuarekiko lotura afektiboa Espainiako sinbolo eta ikurrak medio EAE eta Katalunian (2006)



Laburbilduz, hizkuntzei dagokionean, eta Espainiaren batasunari dagokionean, Katalunia eta EAeko gutxiengo etnonazionalak jarrera ezberdina azaltzen dute. Auzi hauetan, Kataluniako abertzaleei dagokionean, Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen direla esan genezake, EAeko inkestaturen artean aldiz, ez. Hizpide izan ditugun beste elementu sinbolikoei dagokionean aldiz, Katalunia eta EAeko abertzaleek antzeko iritziak azaltzen dituzte eta Estatuarekiko lotura afektiboan eta kontzientzia etnonazionalaren arteko talka agerikoa dela esan genezake.

Hizkuntzaren auzia nahiko kurioa suertatzen da. Izan ere katalanera, euren elementu identitarioen parte oso garrantzitsua da, eta halere, abertzale eta ez abertzaleek jarrera antzekoak azaldu dituzte. EAEn aldiz, euskara, ez da izan euskal nortasun nazionalaren ardatz nagusia, eta beste balioei garrantzi handiagoa eman zaie euskal identitatea eraikitzeko orduan. Halere, abertzaleen erdiak ez du ontzat ematen gaztelania euren identitatearen osagarri garrantzitsu bat denik. Honen atzetik euskararen eta katalaneraren irismen ezberdina, eta hortaz, mehatxu sententzia egon daitezke, euskal nazionalismoaren antiespainolismoa ahantzi gabe, euskal nortasuna eratu ahal duten elementu oro etengabe espaniartasunaren elementuekin norgehiagokan planteatuz.

Aurreko bi hipotesietan ikusi bezala, agerikoa da, Katalunia eta EAeko herritarren jarrerak ezberdinak direla nortasun nazionala eta Estatuarekiko afektua neurtu dezaketeen aldagai ezberdinetan. Izan ere, gutxiengo etnonazional ezberdinek izan dezaketen nortasun nazionala eratorritako jarrerak adierazpen politiko ezberdinak izan ditzakete. Finean, balio aurrepolitikoek eta sentimenduekin loturikoak ez dute zertan bere isla balio politikoetan izan. Ikusitako datuen arabera, agerikoa da nortasun nazionalarekin loturiko aldagaiak, nortasun subjektiboak edota nazionalismo mailak, eragin ezberdina dutela Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, azken honetan balio aurrepolitiko eta politikoen arteko lotura hertsia bat sumatu dezakegularik. Katalunian aldiz, katalanismo kultural trinkoagoak ez du bere isla izan, edo ez maila berean, katalanismo politiko sendoago batean.

Hiru jarreraren bueltan, leialtasunaren auzia laburbilduz

Connorren lehen hiru hipotesien azterketatik ondorio nagusi hauek atera ditzakegu:

- Gutxiengo etnonazionalak ere lotura afektiboak mantentzen dituzte estatuarekiko.
- Katalunia eta EAeko gutxiengoen Espainiako Estatuarekiko azaltzen duten leialtasun maila ezberdina da; halere, auzi sinboliko eta identarioenetan gertuko posizioak azaltzen dituzte.
- Bi herrialde hauetako gutxiengo etnonazionalen jarrera ezberdintasuna nabarmena da, eta, agerian uzten du euskal eta katalan nazionalismoaren izate eta euskarriak ez direla berdinak:
 - Katalunian indar gehiago du nortasun bikoitzak, abertzaleen artean ere, eta, hortaz, aztertutako auzi ezberdinetan abertzaleek nortasun nazional ezberdinak bateragarri ikustea normalagoa da. Euskal abertzaleen artean ordea, nortasun subjektibo bakarra gailentzen da, hau da euskaldunak gehiago edota euskaldunak bakarrik direla azaltzen dute. Ondorioz, nortasun subjektibo horietatik eratortzen den atxikimendu nazionala, ez da bateragarritzat ikusten beste nortasun nazional batekin, kasu honetan, espainola izatearekin.
 - Kataluniako nazionalismoa, espainiar nazio eta identitatearen ukazioan ez da oinarritu. Errefuxatzen den ideia, espainiar nazio bakarraren ideia da. Euskal nazionalismoak aldiz, espainiar nazionalismoaren ukazioan ere badu oinarria.

- Katalunian, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen posizioak ez dira antagonikoak. Batetik, historikoki katalan gutxiengoa haustura posizioetan baino egokitzapen nahi batean murgildu delako, eta bestetik, Katalunian gehiengoa ordezkatzeko duen sektore garrantzitsu batek ere Espainia nazio bakarraren ideiarekin ez duelako bat egin. Euskal nazionalismoaren baitan ere Espainian egokitzapen bat bilatzearen aldeko jarrerak egon dira, eta badaude, baina hausturaren aldeko jarrera Kataluniako baino indartsuagoa izan da, orain artean behinik behin.
- EAEn gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko banaketa eta talka handiagoa da. Katalunian aldiz, ez abertzale/abertzale eskala bat irudikatuz, *continuum* bat irudika dezakegu Estatuarekiko leialtasuna neur dezaketeko adierazpen ezberdinei erreparatu.

2. BANAKETAREN ALDEKOTASUNA AZTERGAI

Azpiatal honetan EAEn herritarren artean banaketaren aldekoek duten pisua aztertuko dugu. Egungo egoerari pultsua hartzeaz gain, banaketaren aldekotasun horrek azken urteetan izan duen bilakaera ere aztergai izango dugu. Horretarako Connorrek luzatutako bi hipotesi hauek izango ditugu kontuan:

4. hipotesia: Banaketaren aldeko mugimendua aktiboa den kasu askotan, jende asko, normalean inplikaturik den taldearen gehiengoa, ez da banaketaren aldekoa.

5. hipotesia: Zenbait kasutan, banaketaren aldekoek ordezkaturako portzentajea egonkor mantendu da, beste batzutan aldiz, aldaketa nabarmenak izan ditu.

5. Hipotesia: “Zenbait kasutan, banaketaren aldekoek ordezkaturako portzentajea egonkor mantendu da, beste batzutan aldiz, aldaketa nabarmenak izan ditu”


Connorren lehen hiru hipotesiak aztergai izan ditugunean, gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko mantentzen dituzten lotura afektiboez aritu

gara. Gutxiengo horiek, gehiengoek baino leialtasun urriagoa erakusten zieten Estatuari; halere, Espainiako Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen direnaren hipotesia hein batean berresten zela ikusi genuen. Jarraian, balizko lotura horrekin zerikusia izan dezakeen faktore edo sintoma bati erreparatuko diogu: banaketaren auziari hain zuzen ere. Horretarako, herritarrek espresuki banaketaren inguruan azaltzen duten iritziaz gain, banaketa gogo horiek baldintzatu edota harremandurik egon daitezkeen aldagaien eta auzien bilakaera ere aztertzea egokia iruditu zaigu; herritarren nortasun nazionala edota nazionalismo maila esaterako.

a) Euskal herritarren independentzia nahien eboluzioa

IV.2.1. grafikoan, 1979tik 2014 bitartean, EAEko herritarren independentzia nahien bilakaera zer nolakoa den ikusi ahal dugu. 1999-2001 tartean aldaketarik ikus dezakegu herritarren independentzia nahiei dagokionean. Urte tarte honetan, 1999ko inkesta da (1993koarekin batera), herritarrek adierazitako independentzia nahi handiak maila gorena lortzen dueneko (%40a). 1999tik 2001era ordea, beheruntz doaz herritarren independentzia nahi handiak, eta, 2001ean herritarren %25ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak. Independentzia nahiei dagokionean hortaz, gorabehera esanguratsuak ematen dira hiru urte hauetan.

IV.2.1. Grafikoa: EAEko herritarren independentzia nahien bilakaera (1979-2014)



Iturria: Enskobarometroko Serieak

1998an Lizarra-Garaziko akordioa ematen da eta honek euskal politikagintzan aldaketa sakon bat suposatu zuen. 1996az geroztik akordio eta planteamendu berriak lantzen hasten dira, subiranotasunaren kontzeptua mahai gainean jarriaz, Estatutua agortutzat joaz, eta, guzti hori 1998ko akordioan islatua ikusi ahal izan genuen. Jarraian, 1999an ETAk su-etena emango du eta hain justu, testuinguru honetan ikusi ahal da azterturiko urte guztietako herritarren independentismo nahi handiena. Su-etenaren hausturaren ondotik ordea, Ibarretzek EHrekin zuen akordioa hautsiko du Legebiltzarrean eta bide propioari ekingo dio. Modu honetara, urrun geratu zen hiru urte lehenago abertzaleek erakutsitako irudi bateratua.

Dena den, uneko gorabeheren aurrean geundeke, eta ezin dugu tendentzia aldaketaz hitzegi. IV.2.1. grafikoan ikusi ahal dugun bezala, 2001etik aurrera independentzia nahi handiak azaltzen dituzten herritarren kopurua egonkor mantentzen da. Herritarren herenak izango lituzke independentzia nahi handiak.


Banaketaren inguruko posizioak aztertzeko kontuan hartu dugun lehenengo aldagaia, estatu ereduari erreferentzia egiten diona da. Estatu ereduaren inguruko lehenetsun bilakaera, herritarrek adierazitako independentzia nahien nondik norakoak osatzeko interesgarria dela iruditzen zaigu. Dena den, estatu ereduari dagokionean, erantzun aukera gehiago barneratzen dira, eta hortaz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea ez da estatu independente baten aldeko hautua egiten dutenen berdina. Halere, herritarrek banaketaren auzian duten pultsua osatzeko baliagarria zaigu.

Lehenesten duten estatu ereduaren bilakaeran, estatu independente baten hautua egingo luketen herritarren portzentajeetan aldaketak badirela ikus dezakegu. 1997-2001 urte tartean estatu independente baten aukera lehenesten duten herritarren portzentajeetan gorabeherak ikus ditzakegu eta ezin dugu tendentzia argi bat marraztu.

2001etik 2006ra aldiz, gorantz doa estatu independente baten aldeko hautua egingo luketen herritarren kopuruak. Halere, gorakada xumeaz ari gara, aztergai dugun bilakaeran estatu independente baten hautua egingo luketen herritarren kopuruak ez baitu inoiz %33ko langa gaintu. 2006tik 2009ra estatu independente baten hautuak indarra galtzen du eta jarraian gorakada txiki bat ikus badezakegu ere, 2014ko datuei erreparaturik, estatu independentearen aldeko hautuak 2001a aurretik zuen babes beretsua

duela ikus dezakegu. Hortaz, gorabeherak egonik ere, ikusi ditugun aldaketa txikiak intentsitate baxukoak edota epe motzekoak izan dira. Konstante bat adieraztearren hamar herritarretatik hiruk lehenetsiko lukete estatu independente bat.

IV.2.2. Grafikoa: EAEko herritarrek lehenesten duten Espainiako Estatu ereduaren bilakaera (1997-2014) (I)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Bestalde, estatu federal eta estatu independente baten aldeko hautua egiten dutenen portzentajeak batuaz, estatu ereduaren inguruko posizioen aldaketa urria are eta nabarmenagoa da. IV.2.3. grafikoari erreparatzen badiogu, egungo estatu autonomikoa lehenesten duten herritarren portzentajea 1977tik honuntz nahiko egonkor mantendu dela ikus dezakegu. Egungo estatu eredu aldaturiko luketeela adierazten dutenek ere ildo beretsua jarraitzen dute, eta estatu federal edota independente bat lehenetsiko luketen herritarren kopurua ere egonkor mantentzen da. Salbuespen moduan, 2005 urtea aipa dezakegu, non estatu autonomikoa lehenetsiko luketen herritar kopurua serie honetako baxuena den, eta aldiz, estatu independente edo federal baten aldeko hautua egingo luketenak serie osoan lortzen duen portzentaje handiena duten. Gutxiengo bat da

estatu zentralizatu baten aldeko hautua egingo lukeela azaltzen duen herritar kopurua.

IV.2.3. Grafikoa: EAEko herritarrek lehenesten duten Espainiako Estatu ereduaren bilakaera (1997-2014) (II)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

b) Euskal herritarren abertzaletasunaren eta nortasun subjektiboaren bilakaera


Connorren lehen hiru hipotesiak aztertzean, herritarren abertzaletasun graduak eta nortasun subjektiboak estatuarekiko leialtasun mailan eragin handia zuela ikusi genuen. Are gehiago, EAEko herritarrak izan ditugunean hizpide. Bi aldagai hauek independentzia nahietan duten eragina Connorren laugarren hipotesian izango dugu aztergai. Horretarako, aurretik, interesgarria iruditzen zaigu herritarren abertzaletasun eta nortasun subjektiboan zer nolako bilakera izan den ikustea, horrek banaketaren inguruko posizioak baldintzatu ditzakeen heinean.

Lehenik eta behin, herritarren abertzaletasun mailak zer nolako bilakaera izan duen ikusiko dugu. Independentzia nahi handiak azaltzen zituaztenen ildo beretsuan, 1999-2002 tartean euren burua abertzaletzat jotzen zuen herritarren kopurua txikituz doa. 1999an EAEko herritarren %46ak euren burua abertzaletzat zuen; 2002an, portzentajea %36ra txikitzen da. 2003tik

aurrera berriz, eta gorabehera batzuk medio, goruntz doa euren burua abertzaletzat duten euskal herritarren kopurua eta txikituz, euren burua ez abertzaletzat dutenena.

Ondorioz, bi posizioak gerturatzeko joan dira eta 2014ak gizarte banandu baten argazkia erakusten digu, non pareko diren abertzale bezala eta ez abertzale bezala definitzen diren herritarrak. Ibilbide osoari erreparatzen badiogu, ez abertzale bezala definitzen diren herritarrak, abertzale bezala definitzen direnak baino gehiago direla ikusi ahal dugu orokorrean, azken urteetako datuek gerturatzeko bat azaltzen badute ere. Zazpigarren hipotesian ikusiko dugu nola uztartzen den sentimendu abertzalea eta alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua, alderdi abertzalei bozka ematen dieten herritar guztiak ez baitute bere burua abertzaletzat jotzen.

IV.2.4. Grafikoa: EAEko herritarren abertzaletasunaren bilakaera (1987-2014)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Estatuarekiko leialtasuna eta banaketaren auzian eragina izan dezakeen beste aldagaia nortasun subjektiboarena da. Orokorrean independentzia nahie dagokionean aldaketa esanguratsurik ez dela eman ikusi dugu. Herritarren abertzaletasunari dagokionean gora behera gehiago ikusi ditugu. Nortasun subjektiboari dagokionean aldiz, aldaketarik ez da aztergai ditugun urteetan, 1983-1992 bitarteko urteak salbu. Aldi horretan, euskaldun bezain espainiar sentitzen direla azaltzen dutenen portzentajeak goruntz egiten du, nortasun bakarra (espainiarra zein euskalduna) azaltzen

dutenen kaltetan. Baina 1992tik aurrera, posizioak nahiko konstanteak dira eta aztergai izan ditugun aldagaietatik hauxe da egonkortasun gehien erakusten duena (ikus IV.2.5. grafikoa).

Aipatu berri dugun moduan, 1983tik aurrera txikitzen doa euren burua espainiarizat jotzen duten herritar kopurua eta goruntz, euren burua euskaldun bezain espainiarizat dutenena. Dena den, kontuan izan behar dugu identitateak nahiko egonkorrak izan ohi direla eta identitate nazional baten aldaketaz baino, autodefinizioen aldaketaz aritu gaitezkeela. Honela, 1992tik aurrera, euren burua espainiar bezain euskalduntzat dutenen artean kokapen nazional ezberdinak uztartzen direnaren ustea dugu. Batetik, euskaldun bezain espainiar sentitzen direnak genituzke, nortasun bikoitz horren jabe direnak, baina bestetik, espainiar nortasuna dutenen zati esanguratsu batek ere autokokapen horren hautua egiten duela uste dugu.

IV.2.5. Grafikoa: EAEko herritarren nortasun subjektiboaren bilakaera (1981-2014)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Ezin dugu ahantzi EAEn oso herritar gutxi azaltzen duela bere nortasun subjektiboa espainola dela, eta are gutxiago 1983tik aurrera. Baina iritzi inkesta ezberdinei erreparatzen badiogu, eta besteak beste, herritar hauen

abertzaletasun mailari helduaz, agerikoa da EAEn espainiar sentitzen direnak, espainiar bezala definitzen diren etatik haratago doazela. Ideia hau irudikatu asmoz IV.2.6. grafikoan marratxo beltz baten bidez islatu nahi izango dugu, nortasun bikoitzaren hautua adierazi arren, espainiar nortasuna luketen herritarren kopurua ze mailalara gerturatuko litzatekeen.

Conorren lehen hiru hipotesietan nortasun bikoitza azaltzen dutenen posizioak aztertzean uste hau berretsi ahal izan dugu, gutxiengo etnonazionala osatuko luketen herritarrekiko posizio eta jarrera ezberdinak erakutsiaz. Nortasun bikoitz horren atzean benetan bi nortasunak dituzten herritarrak badirela ukatu gabe, espainiar sentitzen direnen zati batek ere nortasun bikoitzaren aldeko hautua egingo luke iritzi inkesta ezberdinetan.

IV.2.6. Grafikoa: Euskaldun bezain espainiar eta espainiar sentitzen diren herritarren bilakaera EAEn (1981-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Independentzia nahiek eta abertzaletasun mailak aldaketak izan dituzte, fluktuazio azpimarragarriak ez bada ere, ez behintzat tendentzia aldaketa bezala interpreta genezakeenik. Herritarren nortasun subjektiboa aldiz, egonkor mantentzen da eta honek, agerian uzten du abertzaletasuna edota independentzia nahiei dagokienean aldaketa txikiren bat ikus badezakegu ere, hori ez dela nortasun aldaketa batetik eratortzen eta hortaz, beste

faktore batzuk hartu beharko lirateke kontuan hizpide ditugun auzietako balizko fluktuazioak eta aurrera begirakoak aztertu bidean.

Laburbilduz, euskal herritarrek banaketaren inguruan azaldutako jarreraren ondotik ondorio nagusi hauek aipa ditzakegu:

- Banaketaren aldeko portzentajea nahiko egonkorra dela esan genezake. Ikusi ahal diren gorabeherak puntualak dira; errealki, ez dago intentsitatea mantentzen duen gorabeherarik. Konstantzia nagusitzen da.
- Independentzia nahien eboluzioaz haratago, lehenetsitako estatu ereduaren bilakaerari, abertzaletasunaren bilakaerari eta nortasun subjektiboaren bilakaerari erreparatzen badiogu, azken hogeita hamar urteetan aldaketa nabarmenik ez dela ikusi dugu. Gainera, uneko fluktuazioak egon badira ere, serie osoa azterturik ia hasierako puntuan gaudela esan genezake.
- Banaketaren aldeko jarrera hertsiki lotua dago herritarren nortasun subjektiboarekin. Hain zuzen ere, egonkortasun maila altuena mantentzen duen aldagaia da nortasun subjektiboarena. Jendeak ez du egun batetik bestera bere nortasuna aldatzen. Hortaz, independentzia nahiak nortasun subjektiboarekin hain lotura estua duen unetik zaila da independentzia nahien baitako tendentzia aldaketa nabarmen bat ematea. Banaketaren aldeko aldarria mantentzeko nortasun nazionala garrantzitsua den maila berean, aldarriaren hedapenerako muga ere bilakatu daiteke.
- Ildo honi jarraiki, bapateko berpizkunde independentistarik ezin da espero. Horretarako, independentziaren aldeko argudioek klabe etnizistak gaingitu beharko lituzke argudio funtzionalen alde, esaterako, ongizate eta ekonomiarekin loturikoak. Baina era berean, etnizitate eta oinarri etnikorik gabe ere zaila da independentziaren aldeko aldarria mantentzea. Finean, banaketaren aldeko mugimendu edo proiektuak aurrera jarraitu ahal izateko elementu guzti horiek barneratu beharko lituzke; nortasunarekin loturikoak eta ongizateari loturikoak.
- Lehenengo kapituluan ikusi ahal izan genuen moduan, aurrebaldintza etnikoak garrantzitsuak dira, baina nazioaren sorkuntzan beste elementu batzuk ere paper garrantzitsua jokatzen zuten; besteak beste, mobilizazio politikoaren beharra izan genuen hizpide. Halere, kontuan izan behar dugu faktore guzti hauei erreparatzen zitzaizela nazioegintzaz aritzean, eta guk

independentzia nahiak hizpide ditugunean estatugintzaz ari garela. Nielsonek etnizitatek estaturako *continuum*a aurkeztean, nazioen sorrera eta etnizitatearen dinamikaren arteko lotura hertsia azpimarratu nahi du. Gainera, etnizitatek estaturako prozesuak ez du halaberrez ordena hori jarraitu behar. Esaterako, estatu bilakatu den komunitate oro ez da oinarritu iraganeko etnizitate edo atributu etniko amankomun batzuetan. Halere, eta Smithek azaldu bezala, gero eta sendoagoa izan aurretiazko nortasun etnikoa, taldeak aukera gehiago izango du nazio batean bilakatzeko. Bestelako kontua litzateke naziotik estaturako jauzia.

- Estatu propioaren aldarria naziogintzatik haratago doa, eta nazio sendo bat eraiki edo izateak ez du zertan Nielsonek irudikatzen duen azken eszenatokia sortu behar, estatua. Halere, eta estatua nazioen azken balizko xedetzat hartuaz, ziurrenik aipaturiko aldagai guztiak barneratu beharko lituzke banaketaren aldeko aldarria egikaritzeko.

4. Hipotesia: “Banaketaren aldeko mugimendua aktiboa den kasu askotan, jende asko, normalean inplikaturik den taldearen gehiengoa, ez da banaketaren aldekoa”

Connorren lehen hiru hipotesietan gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko duten leialtasun edo afektua nolakoa den aztertu dugu. Bosgarren hipotesian, banaketaren aldeko portzentajeak zer nolako bilakaera izan duen ikusi dugu. Jarraian, Connorren lehen hiru hipotesietan hizpide izan dugun estatuarekiko afektu ahulago hori, beti ere gehiengoekin alderatuz, eta, banaketaren aldeko jarrerak nola uztartzen diren izango dugu hizpide. Horretarako, herritarrek banaketaren inguruan duten jarrera euren nortasun subjektiboa eta nazionalismoaren aldagaiarekin gurutzatuko dugu. Modu honetara, nortasun subjektiboak eta nazionalismoak EAEko herritarren independentzia edota banaketa/sezesio nahien inguruan zer nolako eragina duten aztertuko dugu.

Hipotesi honen azterketarako eta banaketaren auzia jorratzen duten gainontzekoetarako ere, gure ustez esanguratsuak diren urteak aukeratu ditugu: 1995, 1999, 2001, 2005, 2009 eta 2013. Aipaturikoak, oinarrian izango ditugun iritzi inkesten urteak dira, eta, gehienek, hauteskunde autonomikoak izan zireneko urteekin bat egiten dute, 1995, 1999 eta 2013a

salbu. Urteen aukeraketarako kontuan izan dugun irizpideetako bat hauteskunde autonomikoen gertutasuna da, baina era berean, gure aztergaiarekin, etnokraziarekin, lotuak egon daitezkeen gertakarien ingurumaria ere aintzakotzat hartu dugu. Etnokrazia, maila batean, subiranotasunarekin ere lotu dezakegu eta ildo horretan guk aukeratutako datak aldaketa ingurumaria batean kokatzen direla uste dugu.

Connorren laugarren hipotesi honek gainera, agerian utziko digu, etnokrazia subiranotasunarekin lotu ahal dela, baina ez independentzia nahiekin, ez nahitaez. Bestalde, bozka abertzalea eta independentismoaren arteko jauzia ere nabarmena da, eta aipamenen bat egiten dugu atal honetan, zazpigarren hipotesian sakonduko badugu ere alderdi abertzaleek jasotako bozka eta independentzia nahien arteko elkarrekintzari dagokionean. Sintesian, guk aukeratutako urteen ingurumariako klabe batzuk aipatuko ditugu:

- 1995: Aldi subiranistaren hasiera urtetzat jo dezakegu. Urte inguru hauetan aurkezten dira, besteak beste, Ollora eta Zalloren proposamenak, eta honi jarraiki, 1997an lehen aldiz, Estatutua auzitan ipiniko da. ELAk Gernikan eginiko ekitaldi batean Estatutua agortutzat eman zuen eta euskal politikagintzan aro berri bat ireki zela esan genezake.
- 1999: 1998ko Irailaren 12an Lizarra-Garaziko akordioa hitzartuko da eta lau egun beranduago ETAk su-etena iragarriko du. Testuinguru berezi honetan izango dira 1998ko hauteskunde autonomikoak. Urte bete beranduago, 1999ko Azaroan ETAk su-etena hautsiko du.
- 2001: 1999ko ETAREN su-etenaren hausturaren haritik, Ibarretxek EHrekin zuen akordioa hautsi zuen. 2001eko hauteskunde autonomietako kanpaina abertzale/ez abertzale klabean murgildu zen eta 2001ean EAJk hauteskunde arrakasta handia izan zuen, bere betiko hauteslegotik haratago bozka kopuru handia jasoaz. Legegintzaldi honetan Batasuna legez kanporatua izango da.
- 2005: Ibarretxeren aroa bezala definitu genezake. Eusko Legebiltzarrean bere proposamenak babesa jaso ondoren, Madrilen atzera bota zioteneko legegintzaldia. Dena den, eta mugimendu politiko handiko aldia izanik ere, bere proposamenak ez zuen lortu gizartea aldarri subiranistari dagokionean gehiegi

mobilizatzea. Bere alderdiaren babesa ere ez zen erabatekoa izan, eta EHAK-k emandako babes partzialak ere sortu zuen zeresana.

- 2009: Ibarretxeren proposamenaren porrotaren ondorengo ingurumarian, eta Ezker Abertzalea hauteskunderetan aurkeztetako aukerarik gabe, 2009an lehen aldiz, Gasteizko gobernua alderdi ez abertzale baten esku geratuko da; PSEko Patxi López lehendakari bilakaturik.
- 2013: 2012ko hauteskunde hauek ETak jardun armatua utzi ondorengo lehen hauteskunde autonomikoak dira eta gainera Ezker Abertzalearen alderdi politikoa, Sortu, legeztatua da.

a) Independentzia nahiak eta nortasun subjektiboa

Behin urteen aukeraketarako izan ditugun irizpide nagusiak aukezturik, erreferentziatzat ditugun inkesta urteetako independentzia nahiak banan-banan aztertzeari ekingo diogu. 1995eko datuei begiratzen badiegu, herritarren nortasun subjektiboak independentzia nahiak oso maila altuan baldintzatzen dituela ikus dezakegu. Modu honetara, espainiar sentimendutik euskal herritar sentimendura hurbildu ahala independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea handituz doala ikus dezakegu. Ildo berean, independentzia nahi txikiak dituztela edota batere ez dutela adierazten dutenen kopurua txikituz doa nortasun subjektiboaren eskalan euskal herritar sentimendura hurbildu ahala.

Bi talde argi irudika ditzakegu gainera; batetik, espainiarrak bakarrik, espainiarrak gehiago eta euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnak, eta bestetik, euskaldunak gehiago edota euskaldunak bakarrik sentitzen direnak. Kontuan izan behar dugu, EAEn espainiarrak bakarrik edota espainiarrak gehiago definitzen direnen kopurua nahiko baxua dela. Bestetik, euskaldunak bezain espainiarrak definitzen direnak nortasun bikoitza dutela uler bagenezake ere, EAEn kasuan, eta aurretiaz ikusi ditugun beste hainbat hipotesietan azaldu bezala, antzekotasun gehiago dituzte espainiar definitzen direnekin, euskaldunak direla adierazten dutenekin baino. Hizpide dugun auzian, independentzia edo banaketaren inguruko nondik norakoetan, balizko nortasun bikoitz hau adierazten dutenen posizionamendua oso argia da.


IV.2.1. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (1995)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	1,6	4,5	12,2	41,5	73,9	30,9
Nahi txikiak	23,0	33,6	26,3	23,3	8,9	20,5
Batere ez	53,6	49,1	35,9	9,6	6,5	26,3
Axolagabe	5,5	3,6	15,6	12,2	5,0	10,1
Ed/Ee	16,4	9,1	10,0	13,3	5,6	12,1
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

Lehen taldeari helduz, euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direla adierazi dutenen %12,2a da independentzia nahi handiak dituenak. Hamarretik seik aldiz, independentzia nahi txikiak (%26,3) edota batere nahirik ez dutela adierazten dute (%35,9). Bigarren taldeari dagokionean, nabarmen handitzen da independentzia nahi handiak adierazi dituztenen portzentajea. Halere, euskaldunak gehiago sentitzen direla eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen arteko ezberdintasunak ere esanguratsuak dira (ikus IV.2.7. grafikoa). Euskaldunak gehiago sentitzen direnen %41,5ak independentzia nahi handiak dituela adierazten du. Inkestatuen herenak aldiz, nahi txikiak (%23,3) edo batere nahirik ez duela azaltzen du (%9,6). Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, %73,9ak independentzia nahi handiak dituela adierazten du.

IV.2.7. Grafikoa: Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (1995)



Iturria: Euskobarometroa (1995)


1999. urtean herritarren independentzia nahiak handitzen direla ikus dezakegu. Nortasun subjektiboari dagokionean, 1995ean esan bezala, nortasun subjektiboaren ardatzean espainiar ardatzetik euskal ardatzera hurbildu ahala handitzen doa independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen herritarren portzentajea. Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnei erreparatuz, %18,3ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %43,3ak independentzia nahi txikiak eta %25,5ak independentziarako batere nahirik ez duela azaltzen du. Euskaldunak gehiago sentitzen direnen %45,4ak, 1995an bezala, independentzia nahi handiak azaltzen ditu (ikus IV.2.2. taula).

IV.2.2. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (1999)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	6,5	8,9	18,3	45,4	74,4	39,8
Nahi txikiak	39,1	44,4	43,4	37,9	15,2	32,6
Batere ez	45,7	33,3	25,5	5,0	5,5	16,5
Axolagabe	5,4	11,1	9,2	7,4	2,1	7,3
Ed/Ee	3,3	2,2	3,7	4,3	2,8	3,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa(1999)

IV.2.8. Grafikoa: Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (1999)



Iturria: Euskobarometroa(1999)

Dena den, aldaketarik bada 1995etik; izan ere, 1999an handitu egiten da independentziarako nahi txikiak (%37,9) dituztela adierazten dutenen

portzentajea. Honela, 1999an, euskaldunago sentitzen diren herritarrak bananduta leudeke independentziaren auziari dagokionean. Euskaldunak bakarrik sentitzen diren herritarren gehiengoak aldiz, independentzia nahi handiak erakusten jarraitzen du (%74,4) (ikus IV.2.8.grafikoa).

2001eko datuei erreparatzen badiegu, 1995eko eta 1999ko datuekin alderatuz aldaketarik badela ikus dezakegu. Aztertutako urte guztietan 2001a da herritarrek independentzia nahi handi baxuenak azaltzen dituzten urtea. 1995 eta 1999tik ikusi ahal dugun beherakada hau ordea, konstantea ez dela ikusiko dugu, 2005ean berriro independentzia nahi handiak azaltzen dituen herritar kopurua gorantz baitoa.

Beherakada honen hipotesiak anitzak izan daitezke. Hasteko, 2001 urtean, herritarren %20ak ez dio galdera honi erantzuten (%10,3) edota axolagabe agertzen da (%10). 2001eko hauteskunde testuingurua ezin aiantzi ahal dugu; euskal gizarte polarizatu bat erraz irudikatu zuten hauteskunde autonomikoen. EAJk, Ibarretxe buru zuela, inoizko emaitza hoberenak izan zituen baina alderdi espainolistek ere, PPK batik bat, botu kopuru handia jaso zuten.

IV.2.3. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (2001)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	6,7	1,8	5,1	25,6	70,6	25,2
Nahi txikiak	22,2	50,9	49,0	41,9	16,1	37,6
Batere ez	40,0	28,1	24,6	12,2	3,6	16,9
Axolagabe	24,4	12,3	13,4	8,1	4,0	10,0
Ed/Ee	6,7	7,0	7,8	12,2	5,6	10,3
Guztira	100	100	100	100	100	100


Iturria: Euskobarometroa(2001)

Jarraian aztergai izango dugun nortasun subjektiboari erreparatzen badiogu gainera, jarrera aldaketa, bereziki, espainiar baino, euskaldunago sentitzen direnen artean eman zela ikus genezake. Hortaz, posible da Ibarretxeren garaipenak mugimendu independentista indartu baino, Estatuarekiko konfrontazio edo euskal gizartearen baitan eman zitekeen balizko gatazka batetik urruntzea herritarren kopuru bat. Halere, banaketaren inguruko jarrerak aztertzean, egon ahal dira uneko gorabeherak baino, garrantzitsuena independentziaren aldeko jarrera mantentzen duen herritar kopuru konstantea da.

1995eko eta 1999ko datuak aipatzean bi talde ezberdinu ahal genitzazkeela azaldu genuen. 2001ean ere ikusi ahal dugu espainiar sentimendutik euskal herritar sentimendura iragan ahala independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak handituz doazela. Urte honetan, ordea, euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean jarrera aldaketa bat nabarmendu dezakegu. Izan ere, 1995ean, euskaldunak gehiago sentitzen zirenen artean independentzia nahi handiak azaltzen zituztenen portzentajea nahi txikiak edota batere nahirik azaltzen ez zutenena baina handiagoa zen. 1999an aldeko eta kontrako jarrerak gerturatu direla ikusi ahal dugu eta independentziaren inguruko auzian bananduak zirela ikusi genuen. 2001ean aldiz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea (%25,6) independentzia nahi txikiak adierazten dituzten baino txikiagoa da (%41,9).

Bestelako nortasun subjektiboa adierazten dutenen jarrerak beretsu mantentzen dira; euskaldunak bezain espainolak sentitzen direnen artean ia inork ez du adierazten independentzia nahi handiak dituela (%5,1) eta gehiengoak, nahi txikiak (%49) edota independentziarako inongo gogorik ez duela adierazten du (%24,6). Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenak nagusitzen dira (%70,6), 1995eko eta 1999ko datuekin alderatuz babes txikiagoa erakusten badute ere 2001ean.

IV.2.9. Grafikoa: Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (2001)



Iturria: Euskobarometroa (2001)

2005eko datuei erreparaturaz, euskalduna bezain espainiarra sentitzen den gehiengoak independentzia nahi txikiak (%47,2) edota independentziarako inongo gogorik ez duela adierazten du (%38,5). Euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean nabarmenki igotzen da independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea (%42,9).


IV.2.4. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (2005)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	0,0	0,0	4,4	42,9	80,8	37,9
Nahi txikiak	36,4	31,3	47,2	34,7	9,4	30,0
Batere ez	63,6	65,7	38,5	6,3	2,9	21,6
Axolagabe	0,0	1,5	4,4	6,7	2,3	4,5
Ed/Ee	0,0	1,5	5,6	9,3	4,7	6,0
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

Halere, euskaldunak gehiago sentitzen direnak nahiko bananduak daudela ikus dezakegu, %34,7ak nahi txikiak dituela adierazten baitu, %6,3ak batere ez eta %6,7a axolagabe agertzen da auzi honi dagokionean. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen gehiengoak (%80,8) aldiz, eta aurreko urteetan ikusi bezala, independentzia nahi handiak adierazten ditu.

IV.2.10. Grafikoa: Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (2005)



Iturria: Euskobarometroa (2005)

2009ko datuei erreparaturaz, 2005arekin alderaturaz independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea zertxobait txikitzen dela ikus dezakegu. Ildo honi jarraiki, euskaldunak gehiago sentitzen direnen

independentzia nahiak 2005arekin alderatuz txikiagoak direla ikus dezakegu eta 2001ean bezala, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea (%30,6) independentzia nahi txikiak adierazten dituztenen baino baxuagoa da (%47).


IV.2.5. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (2009)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	5,6	0,0	5,4	30,6	71,4	30,5
Nahi txikiak	18,5	21,2	39,9	47,0	15,7	32,2
Batere ez	63,0	66,7	36,7	8,2	3,7	22,4
Axolagabe	7,4	0,0	14,0	8,9	6,0	10,2
Ed/Ee	5,6	12,1	4,1	5,3	3,1	4,7
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

Euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen jarrera aurreko urteetako berdina dela ikus dezakegu. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen gehiago independentzia nahi handiak azaltzen ditu berriro ere (%71,4), 2005arekin alderatuz erantzun aukera honek babes txikiagoa badu ere.

IV.2.11. Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (2009)



Iturria: Euskobarometroa (2009)

2013an independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea zertxobait handitzen da, eta, aldaketa hori, bereziki, euskaldunak gehiago

sentitzen direnen artean nabari dezakegu. Orain artean batezbesteko independentzia nahi handien gorabeherak euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean zuten eragina. 2009tik 2013rako independentzia nahi handien igoerari dagokionean aldiz, eragina, euskaldunak gehiago bezala definitzen direnen artean ikus dezakegu.


VI.2.6. Taula: Independentzia nahiak nortasun subjektiboaren arabera (2013)

	Espainola	Espainolago	Bikoitza	Euskaldunago	Euskalduna	Guztira
Nahi handiak	0	16,7	8,7	41,3	71,0	34,7
Nahi txikiak	0	66,7	27,7	34,6	15,1	22,8
Batere ez	100,0	16,7	46,8	10,6	5,9	28,4
Axolagabe	0	0,0	15,0	9,6	5,9	10,8
Ed/Ee	0	0,0	1,7	3,8	2,2	3,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

Ondorioz, 2013an euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea (%41,3) independentzia nahi txikiak adierazten dituztenena baino handiagoa da (%34,6), 1995 eta 2005ean bezala. Dena den, nortasun subjektibo hau adierazten duten herritarrak banandurik jarraitzen dute auzi honi dagokionean, nahi txikiak azaltzen dituztenen %34,6az gain, %10,6ak batere gogorik ez duela adierazten baitu eta %9,6a axolagabe azaltzen baita independentziari dagokionean (ikus IV.2.12. grafikoa).

IV.2.12. Grafikoa: Independentzia nahiak euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean (2013)




Iturria: Euskobarometroa (2013)

Espainiarrak gehiago sentitzen diren %16,7ak independentzia nahi handiak azaltzen dituela ikus dezakegu baino nortasun subjektibo honetan kokatu direnen erantzun kopurua hain baxua izaki ezin dugu haratago doan interpretaziorik egin. Euskaldunak bezain espainiar sentitzen direnen gehiengoak independentziarako nahi txikiak (%27,7) edota independentziarako inongo nahirik ez duela adierazten du (%46,8). Beste muturrean kokatuko lirateke euskaldunak bakarrik sentitzen direnak, %71ak independentzia nahi handiak erakutsiaz, 2009ko babes beretsua beraz.

Agerikoa da nortasun subjektiboak eragin zuzena duela herritarren independentzia nahietan (ikus IV.2.13. grafikoa). Laburbilduz, aukeratutako irizpideen arabera bi edo hiru talde irudika ditzakegu ,

- Espainiarrak bakarrik, espainiarrago eta euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnak independentzia nahi txikiak edota independentziarako batere gogorik ez dute.
- Euskaldunago sentitzen direnak nahiko bananduak azaltzen dira auzi honi dagokionean.
- Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen gehiengoak, aldiz, independentzia nahi handiak erakusten ditu.

IV.2.13. Grafikoa: Independentzia nahi handiak herritarren nortasun subjektiboaren arabera (1995-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Nortasuna hain garrantzitsua izaki, independentziaren inguruko datuetan jauziren bat ikusi ahal izateko zentzu identitarioaren langa edo muga hautsi beharko luke independentismoak.

b) Independentzia nahiak eta nazionalismoa

Connorren laugarren hipotesi hau aztertzeko erabiliko dugun bigarren aldagaia nazionalismoarena da. Modu honetara EAEko herritarrak nazionalista bezala definitzeak ala ez, euren independentzia nahietan zer nolako eragina duen aztertzen saiatuko gara.

IV.2.7. Taula: Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (1995)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	61,0	9,6	30,9
Nahi txikiak	15,6	25,1	20,5
Batere ez	6,3	43,7	26,3
Axolagabe	5,8	12,4	10,1
Ed/Ee	11,3	9,2	12,1
Guztira	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

1995eko datuei erreparatzen badiegu, nazionalista bezala definitzen diren herritarren %60,9ak independentzia nahi handiak adierazten dituela ikus genezake. Aldiz, bere burua ez nazionalistatzat duen %9,5ak soilik ditu independentzia nahi handiak, %25,1ak independentzia nahi txikiak dituela adierazten du eta %43,7ak berriz, batere ez.

IV.2.8. Taula: Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (1999)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	68,2	14,1	39,8
Nahi txikiak	24,0	41,6	32,6
Batere ez	2,7	29,4	16,5
Axolagabe	2,2	11,0	7,3
Ed/Ee	3,0	3,9	3,9
Guztira	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

1999.urtean independentzia nahi handiak adierazten dituzten herritar kopurua zertxobait igotzen da. Honela, bere burua nazionalista bezala definitzen duten herritarren %68,2ak independentziarako nahi handiak

ditu; bere burua ez nazionalistatzat dutenen artean aldiz, %14,1a da independentzia nahi handiak azaltzen dituenena (ikus IV.2.8. taula).

Aurreko atalean aipatu bezala, 2001ean batez beste independentzia nahi handiak txikitzen direla ikus genezake. Ondorioz, nazionalisten %52,7ak independentzia nahi handiak erakusten baditu ere, %32,6ak independentzia nahi txikiak dituela adierazten du eta %4,7ak batere ez. Herritar ez nazionalisten artean independentzi nahi txikiak (%42,2) nagusitzen dira. Gainera, %26,3 independentziarako batere gogorik ez duela azaltzen du eta %14,4a axolagabe azaltzen da auzi honekiko (ikus V.2.9. taula).

IV.2.9. Taula: Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (2001)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	52,7	7,7	25,2
Nahi txikiak	32,6	42,2	37,6
Batere ez	4,7	26,3	16,9
Axolagabe	4,5	14,4	10,0
Ed/Ee	5,5	9,4	10,3
Guztira	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2001)

2005ean aldiz, batez beste, goruntz doa independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea. Euren burua nazionalistatzat duen herritarren %75,1ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu. Nazionalistak ez direnen artean aldiz, hamarretik zortzik, independentziarako nahi txikiak (%42,5) edota batere nahirik ez dutela adierazten dute (%37,6).

IV.2.10. Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (2005)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	75,1	10,4	37,9
Nahi txikiak	13,2	42,5	30,0
Batere ez	2,5	37,6	21,6
Axolagabe	4,2	4,4	4,5
Ed/Ee	5,0	5,2	6,0
Guztira	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

2009an berriro independentzia nahiak zertxobait txikitzen direla ikus genezake. Halere, euren burua nazionalista bezala definitzen duen %56ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %26,7ak aldiz, independentzia nahi txikiak. Euren burua ez nazionalista bezala definitzen dutenen artean %8,3ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu eta hamarretik zazpik, nahi txikiak (%35,8) edota independentziarako batere nahirik ez duela azaltzen du (%38,6) (ikus IV.2.11. taula).

IV.2.11. Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (2009)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	56,0	8,3	30,5
Nahi txikiak	26,7	35,8	32,2
Batere ez	5,6	38,6	22,4
Axolagabe	7,5	12,3	10,2
Ed/Ee	4,2	5,1	4,7
Guztira	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

2013an gorantz doa independentzia nahiak adierazten dituen herritarren portzentajea. Euren burua nazionalistatzat duen %63,7ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %19,9ak nahi txikiak eta %6,8ak batere nahirik ez duela azaltzen du. Nazionalista bezala definitzen ez direnen gehiengoak aldiz, independentzia nahi txikiak (%28,2) edota independentziarako batere nahirik ez duela adierazten du (%44,4) (ikus IV.2.12. taula).

IV.2.12. Independentzia nahiak abertzaletasunaren arabera (2013)

	Abertzaleak	Ez abertzaleak	Guztira
Nahi handiak	63,7	12,0	34,7
Nahi txikiak	19,9	28,2	22,8
Batere ez	6,8	44,4	28,4
Axolagabe	6,8	13,2	10,8
Ed/Ee	2,8	2,1	3,3
Guztira	100	100	100


Iturria: Euskobarometroa (2013)

2001 eta 2009 urteak dira nazionalisten artean independentzia nahi handiak babes baxuena duena. 2001eko testuingurua esplikatu dugu aurretik, independentzia nahien nondik norakoak azaldu asmoz. 2001ean, Ibarretxeren garaipena eta gero, abertzaleak espainolen “inbasioa”ren

aurrean babestuak sentitu ahal ziren eta hortaz, independentziaren aldarria beheruntz joan zen. Lorturiko emaitzek agian, espainolen mehatxuari aurre egiteko nahikoa berme eskaintzen zituen herritar abertzale askoren irudiko. 2009an ere independentzia nahien beherakada bat somatu ahal da, eta ziurrenik Ibarretxeren proiektu agortuaren isla litzateke. 2009rako amets edo proiektu independentista bukatua zegoen, gutxienean EAJren aldetik, eta seguruenik honek herritar batzuk aldarrikapen hori bigarren plano batean kokatzera bultzatu zituen.

Laburbilduz, agerikoa da nazionalismoaren aldagaiak eragin handia duela herritarren independentzia nahietan. Dena den, harreman hertsia egonik ere, ezin dugu esan euren burua nazionalistatzat duten guztiek independentzia nahi handiak dituztela, ez eta euren burua ez nazionalistatzat duen orok independentzia nahi txikiak dituenik. Hortaz, eta lehen kapitulari erreferentzia eginez, nazionalismo ororen azken xede politikoa independentzia denaren ezbaiaren aurrean geundeke. Herritarrei erreparaturaz gero, agerikoa da nazionalista guztiek ez dutela xede hori bere egiten. Baina bestalde, independentzia nahi handiak dituztenen gehiengo zabala nazionalista bezala definitzen dela ezin uka daiteke.

IV.2.14. Grafikoa: Independentzia nahi handiak herritarren abertzaletasunaren arabera (1995-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Nortasun subjektiboaren aldagaiarekin bezala, hemen ere autodefinizio subjektibo baten aurrean gaude, eta ezin aurreratu dezakegu inkestatu bakoitzak zein faktoreren arabera definitzen duen bere burua nazionalista

edo ez nazionalista bezala. Gainera, EAEn badago nazionalista kontzeptuaren inguruko eztabaida, eta, tradizionalki, EAJ izan da bere burua nazionalista bezala definitu duen alderdi bakarra. Honek ere eragina izan dezake, esaterako, Ezker Abertzaleko boto-emake batzuk bere burua ez nazionalistatzat definitzearen hautuan. Izan ere, inkestetan erabili ohi den terminoa nazionalistarena da, eta ez abertzaleena. Dena den, ezin dugu jakin kontzeptu aldaketak, emaitzetan, hau da, herritarren autodefinizio horretan, eraginik izango lukeen.

Xehetasun hauetatik haratago ordea, datuek EAEn independentismoak oinarri identitarioa duela erakusten dute. Nazionalismoa faktore diskriminatzaile esanguratsua da, baina, are eta gehiago, herritarren nortasun subjektiboa. Honela, independentzia nahi handiak dituzten herritar gehienak nazionalistak eta, bereziki, euskaldunak bakarrik sentitzen direla esan genezake.

IV.2.15. Grafikoa: Banaketaren aldekoak eta banaketaren aldekoak izan daitezkeen bilakaera (1995-2014)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Connorren bosgarren hipotesian, aldagai hauen bilakaera zer nolakoa izan den ikusi genuen. Batetik, orohar, aldagai hauen baitan emandako fluktuazioak nahiko lausoak izan zirela ikusten genuen. IV.2.15. grafikoa, banaketaren alde daudenen bilakaera zer nolakoa den azalduko dugu.

Gainera, banaketaren aldeko izan litezkeen herritarren eboluzioa ere hizpide izango dugu. *Banaketaren aldeko* herritar horien hautua, laugarren hipotesi honetan azaldutako nortasun subjektiboa eta nazionalismo aldagaiaren araberakoa izan da. Nortasun subjektiboak eta nazionalismoak, determinanteak izan gabe, independentzia nahietan eragin handia duela ikusi genuen. Abertzale bezala definitzen direnak eta euskal nortasuna dutenak (euskaldunak bakarrik eta euskaldunak gehiago) ziren independentzia nahi handienak azaltzen zituzten herritarrak.


Aurretik aipatu bezala, azken urteetako independentzia nahien, nazionalismoaren eta nortasun subjektiboaren datu bilakaerari erreparatzen badiogu, aldaketa nabarmenik ez dela ikusiko dugu. Nortasun subjektiboaren atalean esan bezala, identitateak bere horretan mantentzen dira, euren burua nazionalistatzat edo ez nazionalistatzat dutenena ere. Hortaz, kontuan izanik, gurean, independentismoaren euskarri nagusiak bi aldagai hauek izanen direla, zaila da etorkizunari begira aldaketa esanguratsurik ikustea.

Bestalde, banaketaren hautua egingo luketen herritarrei dagokionean eta *banaketaren aldeko* izan daitezkeenei erreparatuz, jauzi baten aurrean geundeke. IV.2.15. grafikoak nortasunen eta banaketaren aldeko hautuaren iraunkortasunaz gain, beste aspektu esanguratsu bat ere mahai gainean ipintzen digu, euskal nortasuna, abertzaletasuna eta independentismoa parekatzearen errorea hain zuzen ere.

EAEn gehiago dira abertzale bezala definitzen direnak, independentzia nahi handiak edota estatu independente baten hautua egingo luketenak baino. Eta bestalde, gehiago dira euskal nortasuna dutela azaltzen dutenak abertzale bezala definitzen direnak baino. Hortaz, euskal nortasuna azaltzen duten guztiak ez lirateke abertzale (autokokapenez ari gara beti ere), eta abertzale guztiak ez lirateke independentista. Honekin, ez dugu independentismoaren oinarri identitarioa ukatu nahi, baina azalean jarri nahi izan dugu hiru aldagaien arteko parekotasun eza (ikus IV.2.16.grafikoa).

Hortaz, ze mailatan betetzen da Connorren laugarren hipotesia? *Banaketaren aldeko mugimendua aktiboa den kasu askotan, jende asko, normalean inplikaturik den taldearen gehiengoa, ez da banaketaren aldekoa.* Inplikaturik den taldearen gehiengoa abertzaleek eta euskal nortasuna duten herritarrek osatzen dutela ulertzen badugu, zeharka bada ere, Connorren hipotesia berretsi dezakegu.

IV.2.16. Euskaldun, abertzale eta independentzia nahi handiak dituztenen bilakaera EAEEn (1995-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Connorren hipotesia zeharka berretsi ahal dela esaten dugu, inplikaturik legokeen herritar kopuru esanguratsu batek, gehiengoa izan gabe ere, ez lukeelako independentzia nahi handirik azalduko. Halere, ezin ukatu ahal dugu abertzaleak, eta, bereziki euskaldunak bakarrik sentitzen direla adierazten duten herritar gehienek independentzia maila handiak azaltzen dituenik. Abertzale bezala definitzen direnen eta independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen tarte txikiagoa da, euskal nortasuna (euskaldunagoa+euskalduna) duten herritarren artean eta banaketa nahi handiak azaltzen dituztenen arteko tarte aldiz, handiagoa. Guzti hau inplikaturik den taldea bakarrik kontuan harturik gainera; izan ere, inplikaturik leudeken herritarrak, abertzaleak esaterako, EAEko gizartearen erdia ordezkatzeko dutela aintzat harturik, banaketaren aldeko hautua gizartearen heren batetara murriztuko litzateke. Euskal gizartea, banandurik dago abertzaletasun ardatzaren baitan, eta abertzaletasunaren esparruaren barruan ere ez da erabatekoa banaketaren aldeko jarrera.

Connorren seigarren hipotesian ikusiko dugu banaketaren inguruko auzitik haratago, euskal herritarrak autonomia handiago baten aldeko jarrerak dituzten ala ez, eta ze aldagaik baldintzatu ahal dituzten autonomiaren inguruko posizio ezberdinak. Zazpigarren hipotesian, Connorrek bozkaren faktoreari erreparatuko dio eta bozka sentimendu independentistaren adierazle egokia ez denaren ideia luzatzen du. Orain artean, eta Connorren lau eta bosgarren hipotesietan bereziki, herritarren

nortasun subjektiboa, abertzaletasun maila eta independentismoaren arteko harremanaz aritu gara. Zazpigarrengo hipotesian, hirugarren aldagai bat barneratuko dugu, bozkarena hain zuzen ere. Modu honetara, bozka abertzaleak, zehazkiago alderdi abertzaleek jasotako bozkak, sentimendu independentista ze mailatan baldintzatzen duen ikusi ahal izango dugu.

3. AUTONOMIA HANDIAGOAREN ALDEKOTASUNA AZTERGAI

Auzi hau aztertzeke Connorrek luzatuko seigarren hipotesia izango dugu kontuan:

6. Hipotesia: “Banaketarekiko izan dezaketen jarrera kontuan izan gabe, autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema politikoaren aldaketaren aldekoak dira”

Connorren laugarren eta bosgarren hipotesietan euskal herritarren artean banaketaren aldeko jarrera nolakoa izan den ikusi genuen. Inplikaturik legokeen herritar kopuru esanguratsu batek ere independentzia nahi handirik ez zuela azaltzen ikusi genuen. Gainera, azken bi-hiru hamarkadetan banaketaren aldeko portzentajea nahiko egonkorra dela esan genezake. Ikusi ditugun gorabeherak puntualak dira; errealki ez dago intentsitatea mantentzen duen gorabeherarik. Euskal gizartearen baitan banaketaren aldeko jarrera argi bat ez egoteak, ordea, ez du esan nahi euskal herritar gehienak egungo egoera edota markuarekin bat datozenik. Connorren arabera, herritarrak autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema politikoaren aldaketaren aldekoak liriateke. Seigarren hipotesi honetan autonomia handiago horren nondik norakoak eta bereziki lehenesten diren marko edo bitartekoei erreparatuko diegu.

Hipotesi hau aztertzeke Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen ikerketa eta Soziometro ezberdinetako datuak eta Euskobarometrokoak erabili ditugu. Horretarako, gaurdaino Euskal Autonomia Erkidegoak Estatutuaren bidez egikaritu duen autogobernuaz herritarrek duten iritzia izango dugu kontuan. Autogobernuak ekarri duen autonomia mailaren inguruko iritzia eta gogobetetze maila ere aztertuko ditugu. Horretaz gain, aurrera begira, euskal herritarrek ze autonomia maila hobesten duten jakin

nahi dugu eta azken urteetan, ildo horretan egon diren proposamenei ere erreparatuko diegu. Atal hau bi azpiataletan banatuko dugu:

- Lehenengo atalean, euskal herritarrek egungo autogobernu maila eta Gernikako Estatutuaren inguruan duten iritziaz eta balorazioaz arituko gara.
- Bigarrenean, euskal herritarrek nahiko luketen autogobernu maila eta, autogobernu hori egikaritzeko bitartekoak izango ditugu hizpide.

3.1. Egungo autogobernuaz eta Gernikako Estatutuaz euskal herritarrek duten iritzia

a) Autogobernuaren balantzea

Lehenik eta behin, euskal herritarrek egungo autogobernuaz eta Gernikako Estatutuaz duten iritzia jakin nahi dugu. Inkestatuen %65ak autogobernuaren balantze positiboa egiten du. %17ak ez dela ez positiboa ez negatiboa izan uste du, eta %7arentzat negatiboa izan da.

Nortasun subjektiboari erreparatzen badiogu, espainiar sentimendutik euskal herritar sentimendura joan ahala, autogobernuarekiko balorazio positiboa handituz doala ikus genezake. Euskaldun sentitzen direnen %73ak positiboki baloratzen du azken hogeita bost urteetako autogobernua, euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen artean, %59ak, eta espainiarrak sentitzen direnen artean, %51ak (ikus IV.3.1. taula).


IV.3.1. Taula: Autogobernuaren balantzea nortasun subjektiboaren arabera (2005)

	Euskalduna	Bikoitza	Espainola	Guztira
Positiboa	73	59	51	65
Zalantzan	13	22	18	17
Negatiboa	6	8	13	7
Ed/Ee	8	11	19	11
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Prospekezio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Honela, datu orokorrekin konparatuz, modu apalean bada ere, euskal herritar bakarrik sentitzen direnen artean autogobernuaren balorazio baikorrago bat ikus dezakegu. Espainiarrak sentitzen direnen artean, aldiz, txikitu egiten da autogobernuaren balantze positiboa egiten dutenen portzentajea, eta handitu, balantze negatiboa egiten dutenena. Halere, ezberdintasunak izanik ere, nortasun subjektiboaren arabera definitu ditugun hiru taldeetako inkestatuen artean nagusitzen da autogobernuarekiko balantze positiboa. Gogoan izan behar dugu, hiru euskal herritarretik, bik iritzi positiboa dutela autogobernuari dagokionean.

IV.3.1. Grafikoa: Autogobernuaren balantzea nortasun subjektiboaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Ondoren, autogobernuaren balantzea inkestatuek azaldutako begikotasun politikoaren arabera nolakoa den ikusiko dugu. EAJ (%89) eta EA (%84) alderdiekin identifikatzen direnak dira autogobernuaren balantzea positiboa dela uste dutela gehien azaltzen dutenak. Jarraian, EB (%69), Aralar (%66) eta PSErekiko (%63) begikotasun politikoa dutenak ditugu. PP (%45) eta Ezker Abertzalearekin (%55) identifikatzen direnen artean ere, gehiago dira autogobernuaren balantze positiboa egiten dutenak, baina batezbestekoak baino babes gutxiago erakusten dute. Gainera, PPrekin identifikatzen den inkestatuen %20a eta Ezker Abertzalearekiko begikotasun politikoa azaltzen duen %17ak azken hogeita bost urteetako autogobernuaren balantze negatiboa egiten du. Oro har, PPren boto-emaleek lukete ikuspeirik negatiboena (ikus IV.3.2. taula).

Bestalde, aipatzekoa da Ezker Abertzaleak Estatutuari zilegitasuna kendu arren, bai, abstentzio aktiboaren aldeko deia egin zutenean (ezezkoaren hautua ere onetsiz), eta bai, Estatutuari buruz azken hogeita hamar urteetan egindako balorazio eta kritikei erreparatuz, jarraian berarekin identifikatzen direnen balantze oro har positiboa.

Nortasun subjektiboaren arabera sailkapenean ikusi bezala, begikotasun politikoaren arabera ere autogobernuaren balantze ezberdinak ikus ditzakegu. Aipatu dugu espainiar herritarrak bakarrik sentitzen zirenen artean autogobernuarekiko balantze positiboa ahulagoa zela, eta hori, PPrekin identifikatzen diren herritarren artean islaturik ikus dezakegu. Euskal herritarrak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, autogobernuaren balantze positiboa gailendu arren, salbuespen bat ikus dezakegu begikotasun politikoari erreparatzen badiogu. Izan ere, Ezker Abertzalearekin identifikatzen diren inkestatuak euskal nortasun bakarra dutela adierazten duten arren, PPrekiko begikotasun politikoa adierazten dutenekin batera, autogobernuaren balantze positiboa era baxuagon azaltzen dute. EAJ eta EArekin identifikatzen diren inkestatuen artean aldiz, autogobernuarekiko balantze positiboa batezbestekoa baino handiagoa da.

IV.3.2. Taula: Autogobernuaren balantzea begikotasun politikoaren arabera (2005)

	EAJ	PSE-EE	PP	EB	EA	Aralar	Ezker Abertzalea	Guztira
Positiboa	80	63	45	69	84	66	55	65
Zalantzan	10	17	21	22	6	20	20	17
Negatiboa	2	7	20	4	4	4	17	7
Ed/Ee	8	13	14	5	6	10	8	11
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100


Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Begikotasun politikoaren arabera ikus ditzakegun ezberdintasun hauek interpretazio ezberdinak izan ditzakete, baina ziurrenik, autogobernuaren kudeaketan eta Estatutuarekiko izandako jarrerak badu eraginik autogobernuarekiko balorazioan. Kudeaketari dagokionez, Estatutua medio, Euskal Autonomia Erkidegoak izandako autogobernuaren kudeaketan, PSErekin batera, EAJ eta EA alderdiak izan dira protagonistak. Eta hain zuzen ere, alderdi hauekin identifikatzen diren inkestatuak dira autogobernuaren balantze baikorrena egiten dutenak. PP

eta Ezker Abertzaleak aldiz, ez dute autogobernuaren kudeaketaren arduraduna izan den Eusko Jaurlaritzan gobernu ardurarik izan. Are gehiago, aurretik azaldu bezala, AP alderdia Estatutuaren aurka azaldu zen eta Ezker Abertzaleak abstentzio aktiboaren aldeko deia luzatu zuen, ezezkoaren hautua ere ontzat eman bazuen ere.

Ildo honi jarraiki, garrantzitsua da bi alderdi hauek 1979ko Gernikako Autonomia Estatutuaren inguruko eztabaidan eta erreferendumean izandako posizioari erreparatzea. Garai hartan, Alianza Popular alderdiak ez zuen babestu Autonomia Estatutua Espainiaren batasunarekiko mehatxu bat zelakoan. Herri Batasunak bestalde, abstentzio aktiborako deia luzatu zuen, ezezkoaren bozka ere babestu bazuen ere, Estatutuan Euskal Herriaren subiranotasunarekiko aipurik ez zelako. Modu honetara, APrentzako Estatutua gehiegizkoa zelako, eta HBrentzako gutxiengoak jasotzen ez zituelako, ez zuten 1979ko Autonomia Estatutua babestu.

IV.3.2. Grafikoa: Autogobernuaren balantzea begikotasun politikoaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)


Hogeita bost urte beranduago, bi alderdi hauekin identifikatzen diren inkestaturen artean, gehiago dira autogobernuaren balantze positiboa egiten dutenak, baina beste alderdiekin identifikatzen diren herritarrak baina balorazio ezkorragoa egiten dute.

Behin autogobernuari buruzko balorazio orokorraz galdetuta, inkestatuei autogobernuaren inguruko iritzia eskatu zaie arlo ezberdinetan. Osasuna da euskal herritarrek hoberen balioetsi duten arloa, %81ak ongi edo oso ongi baloratu du. Bi heren inguruk, ongi edo oso ongi baloratu dute

ondorengo arloetan lorturikoa, euskaran (%69), azpiegituretan (%69), hezkuntzan (%68), kulturean (%63) eta gizarte ongizatean (%62). Maila baxuagoan bada ere, inkestatuak %49ak ingurumenaren lorturikoa positiboki baloratzen du eta ekonomian erdietsitakoa ere %47ak oso ongi edo ongi baloratzen du (ikus IV.3.3. grafikoa).

Autogobernuaren balorazioa herritarren nortasun subjektiboaren arabera aztertzen badugu, ezberdintasunak nahiko txikiak direla ikus genezake. Dena den, hizpide ditugun arlo guztietan, batez ere euskaldunak sentitzen direnak egiten dute balioespen positiboena. Eta bestalde, autogobernuaren balorazio ezkorrena egiten zutenak dira, gai ezberdinetan lorturikoaren inguruko balorazio ezkorrena egiten dutenak.

IV.3.3. Grafikoa: Autogobernuaren 25 urteen balorazio positiboa arlo ezberdinetan (2005)




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Baina ze arlotan ikus ditzakegu nortasun subjektiboaren arabera ezberdintasun handienak? Badirudi arlo despolitizatuak edota karga sinboliko edota identitario baxuena duten arloetan, nortasun bat ala besteak izateak ez duela eragin handiegirik. Aldiz, faktore identitarioak barneratu ahal ditzaketen auzietan, esaterako, euskara, hezkuntza eta kulturean, nortasun subjektiboak gehiago baldintzatzen du herritarrek

eginiko balorazioa. Nortasun subjektibotik haratago, arlo hauetan ere herritarren balorazio positiboa gailentzen da, baina espainiarrak, eta euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean, balorazio positiboa eskasagoa da. Gai edo eskumen identitariotzat eman ditugun arloetaz gain, bada beste bat, non herritarren balorazioa ezberdina den nortasun subjektiboaren arabera, ekonomia hain zuzen ere. Gogoratu dezagun azken hogeita bost urteetako autogobernuaren lorpenak hizpide izan ditugunean, ekonomiaren arloa zela orokorrean herritarren balorazio baikor baxuena jasotzen zuena.

IV.3.4. Grafikoa: Autogobernuaren 25 urteen balorazioa arlo ezberdinetan nortasun subjektiboaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Nortasun subjektiboari erreparatuz, espainiarrak sentitzen direnen %39ak baloratzen du positiboki ekonomian lorturikoa, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean, %52ak. Herritarrek autogobernua medio ekonomian lorturikoaren iritzi ezberdintasunaren nondik norakoak ugariak izan daitezke. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean ere, %52ak “bakarrik” baloratzen du positiboki ekonomian lorturikoa da eta zerikusia izan dezake hasiera batean zeuden espektatibekin, edota Estatutua ez osatzeak garapen ekonomikoaren geldiene bat dakarren ustarekin. Estatutuaren aurka azaldu zirenak eta autogobernuaren balorazio ezkorrena egiten dutenen artean aldiz, beste irakurketa bat

gailenduko litzateke. Autonomia edo autogobernuak garapen ekonomikoan izan dezakeen eragin ahularen ideia adierazi nahi da, edota Espainiarekin elkarlanean eta eskumen elkarbanatzean egon daitekeen onura ekonomikoen ustea. Aurrerago ikusiko dugu, etorkizunera begira, herritarrek ze iritzi duten autogobernu handiago batek ekonomian izan dezakeen eraginaren inguruan (ikus IV.3.4. grafikoa).

Jarraian, autogobernua neurtzeko hizpide izan ditugun gaien balorazioa, herritarren begikotasun politikoaren arabera nolakoa den ikusiko dugu. Arloz arloko ezberdintasunak bat datoz, autogobernuaren balantze orokorrean ikusitakoekin. EAJ, eta bereziki EArekin identifikatzen ziren herritarrak ziren autogobernuaren balantze positiboena egiten zutenak, eta berauek dira arlo ezberdinetako lorpenak hobekien baloratzen dituztenak. PSErekin identifikatzen diren herritarrak batezbestekoaren baloraziotik gertu daude hizpide ditugun arlo guztietan.

IV.3.3. Taula: Autogobernuaren 25 urteen balorazioa arlo ezberdinetan begikotasun politikoaren arabera (2005)

	EAJ	PSE-EE	PP	EB	EA	Aralar	Ezker	
							Abertzalea	Guztira
Ekonomia	59	45	42	45	55	49	40	47
Ingurumena	58	49	61	42	48	39	23	49
Gizarte-Ongizatea	74	61	61	52	66	56	50	62
Kultura	78	64	62	62	69	58	49	63
Hezkuntza	81	62	59	65	78	77	64	68
Azpiegiturak	77	70	67	69	68	66	63	69
Euskara	80	68	58	73	68	68	55	69
Osasun arloa	88	83	77	82	83	85	72	81


Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Berriro, PP eta Ezker Abertzalearekin identifikatzen direnak dira, arlo ezberdinetan, baina bereziki gai identitarioetan, balioespen ezkorrena egiten dutenak. PPrekiko begikotasun politikoa adierazten dutenen artean, txikitu egiten da bai hezkuntzan (%59), eta bai euskaran (%58), lorturikoaren inguruan balorazio positiboa egiten dutenen portzentajea. Ezker Abertzalearekin identifikatzen direnak aldiz, arlo guztietan batezbestekoa baino balorazio baikor txikiagoa erakusten dute. Halere, kultura (%49) eta euskara (%55) arloetan eginiko balorazioa da

batezbestekotik gehien aldentzen direnak, elementu sinboliko eta identitarioenak hain zuzen ere (ikus IV.3.5. grafikoa).

Modu honetara, autogobernuaren balorazio orokorrean ikusi bezala, arloz arloko balorazioan ere, PP eta Ezker Abertzalearekiko gertuen daudenak dira balorazio positiboak lausoen azaltzen dituztenak. Bereziki, elementu edo auzi identitario edo sinbolikoak direnean aztergai, batzuentzat auzi horien gehiegizko garapena medio, edota gustuko ez duten norabidea medio, eta beste batzuentzat, garapen ankerra edo ez nahikoa medio. Autogobernuak hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko erdigune politiko-ideologikoan koka ditzakegun herritarren artean du babes gehien. Abertzaletasunaren ardatza medio, bi muturrak ordezkatzeko lituzketen PP eta Ezker Abertzalearen jarraitzaileen artean aldiz, autogobernuaren balantze baikorra ez da hain indartsua.

IV.3.5. Grafikoa: Autogobernuaren 25 urteen balorazioa arlo ezberdinetan begikotasun politikoaren arabera (2005)




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

b) Gernikako Estatutuaren balorazioa

Orain artean, azken hogeita bost urteetako autogobernuaren balorazioa nolakoa den ikusi dugu, orokorrean, eta arloz arloko gai ezberdinak erreferentziatzat hartuaz. Edukiaz aritu gara, autogobernuaz, arlo ezberdinetan lorturikoaz. Jarraian, markoari, egiturari, helduko diogu, autogobernua posible egin duen bitartekoari, Gernikako Estatutuari hain zuzen ere.

Horretarako, herritarrek azken hogeita urteetan Gernikako Estatutuarekiko erakutsi duten gogobetetze maila aztertuko dugu. Euskobarometroko seriearen lehen datuak (1993koak) eta 2014koak alderatzen baditugu, Estatutuarekiko gogobetetze osoa eta Estatutuarekin gustura ez daudenen portzentajeak zertxobait txikitu direla ikusi ahal dugu. Aldiz, Estatutuarekin hein batean pozik diren herritar kopuruak gorantz egin du. Azken bi hamarkadetan, hortaz, eta datu orokorrei erreparatuz, Estatutuarekiko jarrerak matizatuz joan direla esan genezake. Hau da, egun, Estatutua onartu zenetik hogeita hamabost urte pasa diren honetan, gutxiago dira gogobetetzeari dagokionean, bai edo ez posizioetan kokatzen direnak eta, gehiago, gogobetetze baldintzatu edota partzial bat adierazten dutenak.


IV.3.6. Grafikoa: Estatutuarekiko gogobetetzearen bilakaera (1993-2014)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Herritarren jarrera bilakaerari erreparatzen badiogu, 2003-2007 urte bitartean, Estatutuarekin gogobetarik daudela adierazten duten herritarren portzentajeak beheruntz egiten du, eta era esanguratsuan hazten da Estatutuarekin hein batean gustura azaltzen direnen kopurua. Hain justu, aldi honek Ibarretxeren gobernuarekin bat egiten du, eta ingurumaria horretan koka dezakegu Estatutua nolabait auzitan ipintzen duten herritar kopuruaren hazkundera. 2009-2012 bitartean, eta Patxi López lehendakari dela, Estatutuarekiko hiru jarrerak nahiko maila beretsuan kokatzen dira, 2011-2012 tartean Estatutuarekin gustura ez daudela adierazten dutenen kopurua zertxobait igotzen bada ere. 2012-2014 bitartean, eta berriro EAJren gobernupean, Estatutuarekiko aldeko eta kontrako jarrerak lausotu egiten dira eta 2003-2007 tartean bezala, hazi egiten da, Estatutuarekin partzialki gustura daudela adierazten dutenen portzentajea. 2014ko argazkiak 2008koarekin antzekotasun handiak dituela ikus dezakegu. Dena den, aurrerago ikusiko dugu posizio aldaketa hauek edota gertakari puntualen ondorioz azaleratu diren iritzien bariazioak nolakoak izan diren alderdi politiko ezberdinen boto-emaien baitan.

IV.3.7. Grafikoa: Autogobernuarekiko balorazioa eta Estatutuarekiko gogobetetzea (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005) eta Euskoabarometroa (2005)

2005eko autogobernuaren balorazioaren datuekin alderatuz, 2005ean herritarrek Estatutuarekin azaltzen duten gogobetetzea autogobernuaren balorazio baikorra baino baxuagoa dela ikus ahal dugu. 2005eko Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen ikerketari helduz, hiru herritarretatik bik (%65) autogobernua positiboki baloratzen zutela azaldu


dugu. Urte horretan bertan Euskobarometroaren urteroko inkestan Estatutuaren gogobetetzeaz galdetuta aldiz, herritarren %24ak soilik azaltzen du gogobetetze osoa, eta askoz gehiago dira Estatutua ez positiboki ez negatiboki baloratzen dutenak (%43). Gainera, hamar herritarretatik hiruk (%30) Estatutuarekin gustura ez daudela adierazten dute, autogobernuaren balorazio negatiboa egiten duten herritarren portzentajea %7koa den bitartean (ikus IV.3.7.grafikoa).

Zerk eragin lezake Estatutuaren gogobetetzea autogobernuarena baino baxuagoa izatea? Kontuan izanik, beti ere, autogobernuaren egikaritzea ezin dela ulertu berau garatu den markotik kanpo, hau da Estatututik kanpo. Printzipio batean, badirudi autogobernua baikorki baloratzeak ez dakarrela nahitaez konformismo bat azaltzea, hau da, lorturikoa ongi legoke, baina horrekin ez dira asetu autogobernua eta Estatutuarengan ipiniak zeuden espektatiba eta xede politiko guztiak. Beste irakurketa bat ere egin ahal da ordea, gauza bat da edukiekin bat etortzea eta, beste bat, egungo markoaren onarpena, Estatutua bera. Batetik, 1979ko Gernikako Estatutua ez delako bete, edota bere erabateko onarpenak, beste Estatutu baten beharraren ideia lausotu ahal duelako. Bestalde, 1997az geroztik Estatutuaren heriotza adierazi zutenak ere badira eta, dagoeneko, bere defendatzaile nagusiak izan direnak ere, marko eta proposamen berrien aldarrikapena egin dute. Hortaz, lorturikoa aitortzeko arazo handirik somatzen ez den arren, konplikatua dirudi Estatutuaren markoaren erabateko onarpena, honek, beste marko edo aldaketarako nahi eza irudikatu dezakeen beldurrarekin.

Behin autogobernuarekiko eta Estatutuarekiko gogobetetzearen datu orokorrak ikusi ondoren, Estatutuarekiko gogobetetze maila, inkestatuek hauteskunde autonomikoetan emandako bozkaren arabera aztertzeari ekingo diogu 1999-2013 aldian. Urte hauetako eboluzioa aztertzeko hiru grafiko ezberdin irudikatu ditugu. Lehenengoan, Estatutuarekiko gogobetetzea azaltzen duten herritarren eboluzioa irudikatu dugu, bigarrengoan gogobetetze partziala azaltzen dutenena eta, hirugarrengoan, Estatutuarekin gustura ez daudenena. Hiruetan herritarrek hauteskunde autonomiko ezberdinetan eginiko bozka oroitzenari erreparatu zaio; 1999ko inkesta datuetan 1998ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzena hartu da kontuan, eta 2013koan 2012ko hauteskunde autonomikoetakoa. Gainontzeko datuetan, inkestaren urtea eta hauteskunde autonomikoetakoa bat datoz.

IV.3.8.grafikoan ikusi ahal dugun moduan PSEko eta PPko boto-emaileak dira Estatutuarekiko gogobetetze maila handiena azaltzen dutenak serie osoan; jarraian, EAJkoak, eta, distantzia handira, Ezker Abertzaleari botua eman diela adierazten duten herritarrak. 2005ean inflexio puntu bat ikusenezake, bereziki, PSE eta EAJko boto-emaileei erreparatzen badiegu. EAJko eta PSEko boto-emaileen artean Estatutuarekin gogobeteta daudela azaltzen duten herritarren portzentajeak beheruntz egiten du. EAJko boto-emaileei dagokionean, Ibarretxeren proposamenaren testuinguruak eragin zuzena duela uste dugu. Konplexuagoa da PSEko boto-emaileen jarrera aldaketaren nondik norakoa interpretatzea. Dena den, 2009an, bai EAJ eta bai PSEko boto-emaileen artean goruntz egiten du Estatutuarekiko gogobetetzea azaltzen duten herritar portzentajeak.

IV.3.8. Grafikoa: Estatutuarekin gustura dauden herritarren eboluzioa bozka oroitzapenaren arabera (1999-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Estatutuarekin hein batean gustura daudenen herritarren eboluzioari erreparatzen badiogu, orokorrean, goruntzko tendentzia bat ikusi ahal dugu alderdi ezberdinetako boto-emaileen artean. Gainera, eta 2005a salbu, EAJko boto-emaileak dira Estatutuarekin hein batean gogobetarik daudela gehien azaltzen duten herritarrak. 2005ean, salbuespen moduan PSEko boto-emaileak dira Estatutuarekin partzialki gustura daudela gehien azaltzen duten herritarrak, eta hain justu urte hori da, serieari erreparatuz, PSEko boto-emaileak Estatutuarekiko gogobetetze maila baxuena erakusten dutenak. Hortaz, 2005ean PSEko boto-emaileak

Estatutuarekiko zuten gogobetetzea gradua matizatu dutela esan genezake, gogobetetze osoa azaldu baino, gogobetetze partzial bat erakutsiaz (ikus IV.3.9. grafikoa).

IV.3.9. Grafikoa: Estatutuarekin hein batean gustura dauden herritarren eboluzioa bozka oroitzenaren arabera (1999-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Estatutuarekiko gogobetzerik ez dutela azaltzen duten herritarrei erreparatuz, 1999ko eta 2013ko datuen artean aldaketa nabarmenik eman ez dela ikus genezake. Dena den, datu azpimarragarriak ere ikus ditzakegu bilakaera honetan. Honela, Ezker Abertzaleko boto-emaileak dira Estatutuarekiko gogobetetze baxuena adierazten dutenak serie osoan, baina jarrera ezberdinak azaltzen dituzte urte ezberdinetan. 1999- 2001a bitartean gorantz egiten du Estatutuarekiko gogobetetze eza azaltzen duten Ezker Abertzaleko boto-emaileen portzentajeak. 2001etik honuntz aldiz, eta jarrera nagusia izaten jarraitzen badu ere, txikitu egiten da gogobetetze eza azaltzen duen herritar kopurua. Bilakaera honetan, testuinguru politikoaren gorabeheraz haratago, Ezker Abertzalearen hauteskunde sigla ezberdinek ere eragina izan ahal dute. Honela, esaterako, 2012an Ezker Abertzalea EH Bildu koalizioaren baitan aurkezten da hauteskundeetara. EA koalizioaren partaide izateak ere eragina izango du jarrera aldaketa honetan (ikus IV.3.10. grafikoa).

Beste datu azpimarragarria 2005ean EAJko boto-emaileen artean ematen den Estatutuarekiko gogobetetze ezaren hazkundera da; hain zuzen ere,

Estatutuarekiko gogobetetzea era baxuenean azaltzen duten urtea. Honela, PSEkoen kasuan gogobetetze osotik, gogobetetze partzialera bideratzen da 2005eko jarrera aldaketa, aldiz, EAJko boto-emaileen kasuan, gehiago dira gogobetetze osotik ezezko posizioetara aldaketa egiten dutenen portzentajea (ikus IV.3.10. grafikoa).

IV.3.10. Grafikoa: Estatutuarekin gustura ez dauden herritarren eboluzioa bozka oroitzapenaren arabera (1999-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Laburbilduz, eta datuen eboluzio orokorrean ikusi bezala, alderdi ezberdinetako boto-emaileen artean goruntz doa Estatutuarekiko gogobetetzea hein batekoa dela adierazten dutenen kopurua. Halere, alderdi ezberdinetako boto-emaileen jarrera aldaketak ezberdinak direla esan dezakegu. Modu honetara, eta seriean zehar izandako uneko aldaketak salbu, alderdi espainolistetako boto-emaileak dira Estatutuarekiko gogobetetze handiena erakusten dutenak. Badirudi, Estatutua ezinbestean besarkatu behar izan dutela, aurkari abertzalearen aurreko azken euskarri edo defentsa bitarteko gisa. EAJko boto-emaileen artean aldiz, Estatutuarekiko gogobetetze partziala azaltzen dutenak gehiago dira eta Ezker Abertzaleko boto-emaileen artean gogobetetze eza azaltzen dutenak. Zentzu honetan, alderdi abertzale/ez abertzaleen artean ezberdintasunak badira ere, Estatutuaren gogobetetze mailari

dagokionean, ezberdintasunak ardatz horretatik haratago doazela esateko moduan gaudela uste dugu. Alderdi espainolisten artean, boto-emaileen gehiengoa gustura dago (*bai+hein batean* erantzunak) egungo Estatutuarekin, baina EAJko boto-emaileen artean ere. Aldiz, Ezker Abertzaleko boto-emaileen artean Estatutuarekiko gogobetetze eza nagusitzen da.

Hortaz, zeintzuk izan daitezke Estatutuarekiko gogobetetzea baldintzatzen duten faktoreak? Aurretik aipatu dugu, autogobernuaren balorazioari zegokionean, PP eta Ezker Abertzalearekin identifikatzen ziren inkestatuak zirela balioespen ezkorrena azaltzen zutenak. Aldiz, autogobernuaz baino, markoaz, hau da Estatutuaz galdetzean, PPri bozka eman diotela adierazten dutenak ere balioespen positiboa egiten dute. Are gehiago, Estatutuarekiko gogobetetzea sendoagoa da autogobernuarena baino.

IV.3.11. Grafikoa: Autogobernuaren balorazio positiboa eta Estatutuarekiko gogobetetzea begikotasun politikoaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005) eta Euskobarometroa (2005)

Ildo honetan, Estatutuaren bidez, egungo markoaren defentsa ere egingen da, nolabait ere aldaketaren premia edo beharraren ezbaia argudioa ukatzeko. Hori izan daiteke, PPko boto-emaileak, PSEekoekin batera, Estatutuarekiko azaltzen duten gogobetetze handiaren gakoak. EAJkoen artean aldiz, auzi ezberdinen arteko oreka bat lortu nahi dela dirudi. Batetik, gehiago dira Estatutuarekin gustura *hein batean* daudela azaltzen dutenak, baiezko borobila adierazten dutenak baino. Eta hortaz,

baldintzatutako babes baten aurrean geundeke, nahiko gustura daude baina euren xede edo espektatibak egungo Estatutura ez dira mugatu nahi. Baina bestalde, eta 2005eko salbuespenarekin, portzentaje txikia da Estatutuarekiko gogobetetze eza azaltzen duena; finean, ezin dugu ahantzi EAJ izan dela Estatutuaren defendatzaile nagusia eta bere kudeaketaren arduradun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan. Ezker Abertzalearen boto-emaileek erakutsitako Estatutuarekiko gogobetetze ezak ere, marko aldaketaren nahia irudika lezake, autogobernua medio lorturikoaz egiten den baloraziotik haratago.

Aurretik aipatu dugu, Estatutuaren gogobetetze maila autogobernuarena baina ezkorragoa dela eta saiatu gara bi auzien arteko ezberdintasunaren nondik norakoetara hurbiltzen. Jarraian, konparaketa horri helduko diogu baina herritarren begikotasun politikoei (2005eko autogobernu balorazio datuei dagokienean) eta bozkari erreparatuz (2005eko bozka oroitzapena). PSE, eta bereziki 2005eko datuei helduz, PPko boto-emaileak dira Estatutuarekiko gogobetetze maila altuena erakusten dutenak (beti ere “bai” erantzuten dutenak bakarrik kontuan hartuaz) eta, hortaz, egungo markoarekin gustuen sentitzen direnak. Estatutua eurentzat balizko aldaketa baten aurreko defentsa ikur bat bilakatu denaren ideia berresten dugu.

EAJ, PSE eta Ezker Abertzalearen hauteslegoaren baitan autogobernuaren balorazioa Estatutuarena baina baikorragoa da, PSEren boto-emaileen baitan, beste alderdietako boto-emaileekin alderatuz, autogobernua eta Estatutuaren balioespenaren arteko distantzia askoz txikiagoa bada ere. PPren boto-emaileen artean aldiz, eta beti ere 2005 urteko datuei erreparatuz, Estatutuarekiko gogobetetzea adierazten dutenen portzentajea autogobernua positiboki baloratzen dutenena baino handiagoa da. Honela, Estatutuaren bultzatzaile nagusiak izan gabe ere, 2005ean, eta egun ere, eurak dira Estatutuarekin gogobetetze maila altuena erakusten dutenak (ikus IV.3.11. grafikoa).

PPren Estatutuaren defentsa, estrategia erreaktibo edo defentsibo baten baitan kokatu ahal da. Izan ere, eta aurrerago ere ikusiko dugun bezala, 1997az geroztik, Estatutuaren baliozkotasunaren lehen kritikak izan ziren abertzaletasun instituzionalaren esparrutik. Besteak beste, eta ordurarte Ezker Abertzaleak soilik mantentzen zuen diskurtsoaren ildo beretsuan, ELA sindikatuak Estatutua hiltzat eman zuen eta marku berri baten aldeko aldarria luzatu zuen. Zenbaitek ingurumaria honetan kokatzen du euskal prozesu subiranistaren hasiera, eta honen ondotik etorriko da 1998ko

Lizarra-Garazi akordioa. Ingurumaria honetan kokatu ahal dugu, indar espainolistek, eta bereziki PPK, bapatean, eta halabeharrez, Estatutuarekiko erakutsitako atxikimendua. Sortzen ari zen paradigma aldaketa berrian, Estatutuari eustea besterik ez zitzaion geratu. Finean, ireki ziren aukera ezberdinei erantzuteko ikur bilakatu zen, Estatutua baitzen eurentzat *status quo*a irudikatzen zuen marku eta bitarteko. Bapatean, Estatutua euskal herritar ororen elkarbizitzaren berme bezala aurkeztu zuten, izan ere, une hartan, abertzaletasunaren baitan emandako aldaketek ekarri zezaketen eszenatokia are eta ilunagoa zen indar espainolistentzat. PP alderdiak, abertzaletasunaren mehatxu berriaren aurreko defentsa mekanismo bilakatu zuen Estatutua.

Bestalde, autogobernuarekiko balorazio baikorrena adierazi duten EAJko boto-emileen artean, Estatutuarekiko gogobetetze osoa erakusten dutenen portzentajea asko txikitzen da. Ezberdintasuna are eta nabarmenagoa da Ezker Abertzaleko boto-emileen artean, eta ia inork ez du azaltzen Estatutuarekiko gogobetetze osoa, autogobernuaren balantze baikorra egiten duten arren. Agerikoa da, hortaz, Estatutuaren gogobetetzeaz galdetuta, edukiaz baino, markoaren zilegitasuna eta egungo ereduaren jadanekotasuna dela auzitan. Modu honetara, paradoxikoki, alderdi ez abertzaleek hartu dute egungo Estatutuaren defentsa ikurra, eta alderantziz, autogobernuaren aldekotasan eta balioespen positiboena egiten zuten alderdi abertzaleak, EAJ esaterako, kritiko agertzen dira egungo Estatutuarekiko, euren xede politikoen lorpenerako muga baten isla bilakatu (nahi) delarik. Ezker Abertzalearen zaleak dira Estatutuarekiko abstentzioa edota kontrako jarrera defendatu izan dutenak eta Estatutuarekiko kritikoen agertzen direnak, autogobernuaren lorpenak positiboki baloratzen dituzten arren.


Honela, Estatutuaren balioespenaz ari garenean, Estatutua edukiz hustu nahi dela dirudi, eta bere balioespena egungo markoaren onarpenean edota aldaketa beharraren ezbaian koka dezakegu. Autogobernua ametsa, helburua, xedea da; Estatutua, ordea, bere konprezio bat, ez erabatekoa. Egun, abertzaleei erreparatuz, autogobernua eta Estatutuaren arteko balioespen ezberdina, bakoitzak isla ditzakeen muga edota langan baitan ere kokatu ahal dugu.

Izan ere, autogobernua oraindik bere osotasunean bete ez den xede edo helburu politiko bezala ikusi ahal dute. Xede edo helburu politiko horrek badu oraindik jorratzeko ibilbidea, eta printzipio batean, ez luke muga zehatzik. Hortaz, baikorki baloratu ahal da, baikortasun horrek

autogobernuaren zabaltzea edo jarraipena ahalbidetzen duelako. Estatutua aldiz, autogobernu horren garapenerako muga bezala ere interpretatua izan daiteke. Denbora eta eduki zehatz batzuetarako baliagarria izan dena, baina aurrera begirako helburu politiko nazionalistentzat dagoeneko berme nahikorik eskainiko ez lukeen tresna. Modu honetara, Estatutua medio, EAEk izan duen autogobernua positiboki balioetsia da abertzaleen ikuspuntutik, eta era berean, Estatutu horixe da, aldaketarik ezean, askoren irudiko, autogobernuaren zabalpenerako oztopo nagusi.

Estatutuaren balorazioaren nondik norakoekin jarraituz, bere izaeraz eta berau gainditzeko alternatibei dagokioenean herritarrek erakutsitako jarrera ere aztertu nahi izan dugu. 2001eko Euskobarometroan eginiko galdera bati helduko diogu lehenik eta behin. Estatutuarekiko gogobetetze osoa edo partziala azaltzen duten herritarrei Estatutuari ze izaera ematen dieten galdetzen zaie.

IV.3.12. Grafikoa: Estatutuaren izaera herritarren bozka oroitzapenaren arabera (2001)




Iturria: Euskobarometroa (2001)

Herritarren erdiarentzat (%52,8) Gernikako Estatutua pausu bat litzateke eta hortaz, behin behineko bitarteko bailitzan ulertua da. Aldiz, Estatutuarekin gustura dauden herritarren %39,4rentzat behin betiko irtenbidea da. Abertzale eta ez abertzaleen arteko aldea nabaria da honako auzian 2001eko inkesta honetako datuen arabera, eta egungo posizioen isla egokia dela uste dugu. Izan ere, alderdi espainolistei bozka ematen dieten herritarren gehiengoak Estatutua behin betiko irtenbidetzat du, PPko boto-emaitzen %65,5ak eta PSEkoen %58,8ak babesten du jarrera hau.

Aldiz, EHren (%83,3) eta EAJ-EAren (%77,8) boto-emaleen gehiengoak Estatua pausu bat bailitzan ikusten du, eta, oso gutxi dira Estatutua behin betiko irtenbide gisa ikusten dutenak.

Ildo beretsuan, 2005eko Euskobarometroan herritarrei Estatutua agortua denaren ideiaz ze iritzi duten galdetzen zaie. Berriro ere agerian geratzen dira alderdi abertzale eta ez abertzaleetako boto-emaleen jarrera ezberdinak. Honela, ia aho batez, EHAKren boto-emaleek Estatutua agortua dagoela uste dute (%96,3), EAJko boto-emaleen artean ere ideia hau nagusitzen da (%77,9). Alderdi espainolistei bozka ematen dietenen baitan ezberdintasunak handiagoak dira. Modu honetara, PPri bozka eman ziola adierazten duen %80a Estatutua agortuta denaren ideiarekin aurka agertzen da. PSEkoen artean jarrerak bananduak daude, %35,9ak Estatutua agortua dagoela uste du, %29,8ak ez du posizio argi bat auzi honetan eta %26,7a Estatutua agortu denaren aurka agertzen da.

IV.3.13. Grafikoa: Estatutuaren agorpenaren inguruko iritzia herritarren bozka oroitzenaren arabera (2005)




Iturria: Euskobarometroa (2005)

Jarraian, Estatutua agortua denaren ideiarekin bat egiten dutenei Estatutua gaintzeko bide ezberdinak luzatzen zaizkie. PPko boto-emale oso gutxik azaldu dute Estatutua agortua denaren ideia eta hortaz, erantzun aukera bakoitzean kokatzen diren herritar kopuruak ez digu ezer orokortzeko adina informazio ematen. PSEko boto-emaleei dagokienean Estatutuaren agortzea autogobernua handituz (%42,6) edota Estatutua bera osatuz

(%29,8) gainditu beharko litzateke. EAJko boto-emaien artean ere autogobernua handitzea litzateke egoera gainditzeko aukera aipatuena (%39,8), jarraian, negoziazioaren bidea jorratzearena (%19) eta Estatutua osatu beharko litzatekeela azaltzen dutenena (%11,3). EAJko boto-emaien %10,9a da autodeterminazioa edo independentziaren bidea egoera gainditzeko bitarteko egokien ikusten duena. Aldiz, EHAKren boto-emaien gehiengoaren aburuz (%56,9) autodeterminazioaren bidez gainditu beharko litzateke Estatutuaren agortzea. Dena den, %20,6ak autogobernua handitzearen aukera ontzat ematen du eta %13,7arentzat negoziatu egin beharko litzateke.

IV.3.14. Grafikoa: Estatutua gainditzeko bideak herritarren bozka oroitzapenaren arabera (2005)




Iturria: Euskobarometroa (2005)

Laburbilduz, alderdi abertzaleetako boto-emaelek nahiko iritzi bateratua agertzen dute, batetik, Estatutua pausu bat bezala ulertuaz, eta ez behin betiko irtenbide gisa, eta bestetik, Estatutua agortu denaren ideia elkarbanatuz. Ezberdintasunak, Estatutua gainditzearen bitartekoetan leudeke, agerian utziaz zentzu honetan alderdi eta boto-emaike abertzaleen artean aurrera begirako estrategia amankomunen gabezia. Auzi honetan gehiago sakonduko dugu kapitulu honen bigarren atalean.

Behin autogobernuaren balorazioaz eta Estatutuarekiko gogobetetzeaz galdetuta, Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, inkestaturen bozkaren zentzua zein izango litzatekeen aztertzeari ekingo diogu. 1979ko Gernikako Estatutuaren erreferendumaren emaitzak gogoratuko ditugu


lehenik eta behin. Errolda osoaren gaineko datuei erreparatuz, herritarren %53,1ak baiezkoa bozkatu zuen erreferendumean, %41,1a abstenitu egin zen, %3ak ezezkoa bozkatu zuen eta %2ak txuriz (ikus IV.3.15. grafikoa).

IV.3.15. Grafikoa: 1979ko Estatutuaren erreferendumaren emaitza errolda osoaren arabera (%)



Iturria: Ensko Jaurlaritzako Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa

IV.3.16. Grafikoa: 1979ko Estatutuaren erreferendum-aren emaitza botu baliadunaren arabera (%)



Iturria: Ensko Jaurlaritzako Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa


Botu baliodunari erreparatzen badiogu, hau da, bai ala ez erantzunak eta txuriz bozkatu zutenak, herritarren gehiengo zabalak baiezkoaren aldeko hautua egin zuela agerikoa da. Erreferendumean bozka eman zuten hamar herritarretatik bederatzik, baiezkoa eman zion Gernikako Estatutuari (%91,3) (ikus IV.3.16.grafikoa).

Jarraian, Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, herritarren bozkaren zentzua zein izango litzatekeen aztertuko dugu. Datuen konparaketari heldu aurretik, kontuan izan behar dugu, batetik, inkesta hauetako erantzun dietenen artean, 1979ko erreferendumean parte hartzeko aukera izan zuten herritarrak eta 1979an bozkatzeko aukerarik izan ez zuten herritarrak daudela. Bestetik, botu erreala eta inkesta batean azaldutako bozka intentzioaren arteko konparaketatik ezin dugu erabateko ondorioarik atera. Halere, herritarrei pultsua hartzeko baliagarria dela uste dugu.

2013ko Euskobarometroaren datuen arabera, Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, bozkaren zentzuaz galdetuta, %39ak baiezkoa bozkatzeko lukeela azaltzen du, %15,8ak ezezkoa bozkatzeko luke, %18a abstenitu egingo litzateke eta herritarren %7,6ak txuriz bozkatzeko lukeela adierazten du. Esanguratsua da ez dakiela edota galdera honi erantzuten ez dioten inkestatu kopurua altua, %19,6a, hain zuzen ere. Datu hauek 2009 eta 2011koekin alderatuz gero, Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, baiezkoa erantzungo luketeela azaltzen duten herritarren portzentajea txikituz doala ikus dezakegu, eta, handitu, ez dakiela edo galdera honi erantzuten ez dioten herritarren portzentajea (ikus IV.3.17. grafikoa).

Hizpide izan ditugun hiru inkestetan, erreferenduma errepikatuz gero, Estatutuaren aldeko bozka emango luketeela azaltzen dutenen portzentajea, 1979ko erreferendumean baiezkoa eman zutenena baina txikiagoa dela ikusi dugu. Ezezkoa edo txuriz bozkatzeko luketeela azaltzen dutenen portzentajea aldiz, handitu egiten da. Halere, tarte handiena, 1979an abstenitu zirenen eta egun, abstentzioaren alde egingo luketeela adierazten dutenen artean ikus dezakegu. Dena den, egun Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, abstenitu egingo litzatekeen portzentajeari zer bozkatu luketeen ez dakitela edo erantzuten ez dutenen portzentajea gehituz, 2009an salbu, hamarretik lau herritarrek Estatutuaren aurreko posizio argi bat ez dutela azaltzen ikusi ahal dugu. 1979an abstenitu zirenen antzeko portzentajea.

IV.3.17. Grafikoa: Estatutuaren erreferenduz, 1979ko emaitzak eta errepikatuz gero, bozkatuko luketeenaz (1979-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak


Ondorio nagusi moduan, Estatutuaren inguruko indar korrelazioak orain dela hogeita hamabost urte ikusi ahal genuen argazkiarekiko aldaketa handiegirik ez duela esango genuke. Gernikako Estatutuaren inguruko posizioak herritarren artean gehiegi aldatu ez direla esan genezake, baina era berean, Estatutuarekiko edota beste edozein esparru edo antolaketa politikoa lortzeko (estatu federala, estatu propioa edo dena delakoa) dauden, edo ikusi daitezkeen, zailtasunak nolabaiteko *fatiga* bat sortzen duela esan genezake. Neke hau ezberdina da sektoreeka, honela, Estatutuaren aldekoak azken urteetan Estatutua hein batean auzitan ipini dutenen aurrean bere zilegitasuna eta baliagarritasuna defendatzeaz nekaturik leudeke. Eta alderantziz, Estatutuaren aurka agertu direnak Estatutua gainditu beharraren ideia defendatzeaz nekaturik leudeke. Gaur egun, zenbait teorilarik, hizpide izan dugun neke edota fatiga hau Europaren eraikuntzaren inguruan gertatzen dela adierazi dute.

Egun herritarrek Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero izango luketeen jarrera orokorra aztertu ostean, herritarren bozka oroitzapenaren araberako posizioak zer nolakoak diren ikusiko dugu. 2013ko Euskobarometroaren inkestari helduz, EAJko (%58,9) eta PSEko (%60,8) boto-emaitzen gehiengo zabalak, Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, baiezkoa emango lukeela adierazten du. PPko boto-emaitzen artean ere, gehiago dira baiezkoa emango luketeela azaltzen dutenak (%43,8), baina esanguratsua iruditzen zaigu boto-emaitzen herenak (%34,4) galdera

honi ez erantzutea edota erreferenduma errepikatuz gero, euren bozkaren zentzua zeingo izango litzatekeen ez jakitea. EH Bilduko boto-emaileen artean ezezkoa bozkatuko luketeela adierazten dutenak nagusi dira (%44,7), %20,3ak baiezkoa bozkatuko lukeela adierazten duen arren (ikus IV.3.18. grafikoa).

Hortaz, kasu honetan ere, 1979an bezala, ezberdintasunak ez dira bozka abertzale/espainolistaren arabekoak, EAJ eta PSEko boto-emaileen artean aldeko bozkaren jarrera antzekoa da eta. Era batera, hortaz, 1979an bi alderdi hauek batera egindako bidearen edo hautuaren berrespen bat ikus dezakegu. PPko boto-emaileen artean, aldiz, gehiago dira egun, baiezkoaren hautua egingo luketeenak, 1979an orduko Alianza Popularrek ezezkoaren aldeko deia egin bazuen ere. EH Bilduko boto-emaileak dira ezezkoa emango luketeela era indartsuenean azaldu dutenak. Dena den, %20,3ak egun aldeko hautua egingo lukeela adierazten du.

IV.3.18. Grafikoa: Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero bozkaren zentzua herritarren 2012ko bozka oroitzapenaren arabera (2013)



Iturria: Euskobarometroa (2013)

Gogoan izan behar da, 1979an Herri Batasunak abstentzio aktiboaren aldeko deia egin zuela, ezezkoa edota beste errefuxapen bozkek ere ontzat eman bazituen ere, eta hortaz jarrera aldaketa apal bat ikus dezakegu. Hala eta guztiz, kontuan izan behar dugu, EH Bilduren koalizioaren baitan

dagoela EA, eta agian boto-emaile horien posizio ezberdinak ere eragina izan dezake baiezkotik hautu honen hazkundera.


Aurretik ikusi dugu autogobernuaren inguruko balorazioa eta Estatutuaren gogobetetzearen iritziak nahiko bestelakoak dira alderdi berdineko jarraitzaile edota boto-emaileen artean. Bi auzi hauei hirugarren bat gehitu diogu, gainera: gaur egun Autonomia Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero zein izango litzatekeen euren bozkaren zentzua alegia. Hiru auzi ezberdinen arteko konparaketari heldu aurretik, kontuan izan behar dugu Estatutua eta autogobernuaren balorazio datuak 2005ekoak direla eta, erreferendumari dagozkionak aldiz, 2013koak.

Datuei erreparatuz, herritarrek egun balizko erreferendum batean hartuko luketen jarrera, Estatutuarekin duten gogobetetzearekiko nahiko ezberdina dela ikus dezakegu. Alderdi guztietako jarraitzaileen artean, handiagoa da egun erreferenduma izanez gero, baiezkotik emango luketeela adierazten dutenen portzentajea, Estatutuarekin gogobetetze osoa azaltzen dutenena baino, PPko boto-emaileen artean salbu. Ezberdintasun hau txikiagoa da PSEko boto-emaileen artean; hain justu, euren zaleak direlako Estatutuarekiko gogobetetze maila handiena erakusten dutenak, PPren boto-emaileen baino era apalagoan bada ere. PPren boto-emaileei erreparatuz, Estatutuarekiko gogobetetzea azaltzen duten portzentajea %73,2koa da, aldiz, zortzi urte beranduago, bere boto-emaileen erdiak baino gutxiago azaltzen du egun Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero baiezkotik emango lukeela (%43,8) (ikus IV.3.19.grafikoa).

PSEko boto-emaileen ildo beretsuan, alderdi abertzaleen arteko jarraitzaileen artean ere, Estatutuarekiko gogobetetzearekin alderatuz, handiagoa da egun erreferendumean baiezkotik emango luketeela azaltzen duten portzentajea. Honela, EAJren boto-emaileen artean, Estatutuarekiko gogobetetzea askoz ere baxuagoa izanik ere, egun erreferendumean baiezkotik bozka emango luketeela azaltzen duten portzentajea PSEko boto-emaileen adinakoa da. EH Bilduko boto-emaileen %21ak, erreferenduma errepikatuz gero, baiezkotik bozka emango lukeela azaltzen du, 2005ean aldiz, ia inork ez du azaltzen Estatutuarekiko gogobeteterik. Dena den kontuan izan behar dugu, alderaketa honetan 2005ean EHAKri botua eman ziola azaltzen duten jarrera 2013an EH Bildu koalizioari bozka eman ziola adierazi dutenekin konparatzen ari garela. Aztergai ditugun urte ezberdinei erreparatuz, 2005a urte kritikoa dela agerikoa da. Ibarretxeren proposamenaren haritik auzitan ipiniko da

autogobernua egikarrituko duen Estatutua, eta berau gainditu behararen ideia azaleratzen hasten da.

IV.3.19. Grafikoa: Autogobernua eta Estatutuaren balorazioa eta erreferendum-eko bozka (2005-2013)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005) eta Euskobarometroa (2005 eta 2013)

Modu honetara, badirudi Estatutuarekiko gogobetetze maila urria erakusten duten herritar portzentaje esanguratsu batek ere, hein batean, Estatutua medio, Euskal Autonomia Erkidegoak izandako garapena errekonozitzen duela. Honela, erreferendumaren inguruko jarrera, Estatutuaren gogobetetzearekin baino, autogobernuari buruz eginiko balorazioarekin loturik dagoela ikus dezakegu. EAJko boto-emaleei dagokionean, gehiengoak baiezkoa emango lukeela azaltzen du eta, hau, hertsiki lotua dago autogobernuari buruz duten balioespen positiboarekin. EH Bilduren boto-emaleen artean, aldiz, eta autogobernuaren balorazio baikorra EAJkoen adinako positiboa ez bada ere, bestelakoa da erreferendumean izango luketen posizioa, eta %20,3a da baiezkoa emango lukeela azaltzen duena. Hortaz, oraingo markoaren mantenua edota aldaketa/haustura nahiaren inguruko posizioa litzateke erreferendumaren inguruko jarrera baldintzatuko lukeen beste faktoreetako bat.

Laburbilduz, orokorrean lotuak doaz herritarrek autogobernuarekiko egiten duten balorazioa eta egun erreferenduma errepikatuz gero egingo

luketen bozka edota hautua. Alderdi abertzaleen boto-emaileak hartzen baditugu erreferentzia moduan, egun Estatutuaren erreferendumean baiezkoa emango luketenen portzentajea autogobernuaren balorazio baikorra egiten dutenena baino baxuagoa da; halere, Estatutuarekiko gogobetetze osoa azaltzen dutenena baino handiagoa litzateke. EAJren boto-emaileen artean ere, gehiengoak, Estatutua berretsiko luke balizko erreferendum batean. Bestalde, PPko boto-emaileak salbu, gainontzeko alderdietako boto-emaileen artean jauzi nabarmena ikus dezakegu Estatutuarekiko gogobetetze osoa eta egun baiezkoa emango luketeenen artean. Aurretik aipatu dugu, alderdi abertzaleetako boto-emaileek Estatutuarekiko erakutsitako gogobetetze lausoago honek lotura hertsia duela egungo markoaren defentsa edo aldatu nahiaren ezbaiarekin. Hortaz, erreferendumeko baiezko hautua, autogobernuaz lorturikoan oinarrituko litzateke, baina era berean, Estatutuarekiko gogobetetze osoa azaldu gabe, autogobernu hori egikaritzeko ezinbestekoa tresna izan denean hain zuzen ere.

2013ko urtearen ingurumarian hortaz, alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileak dira egungo Estatutuarekin gustuen azaltzen direnak. Alderdi abertzaleetako jarraitzaileak, aldiz, autogobernua positiboki baloratuz ere kritiko agertzen dira Estatutuarekin, bete ez delako edota beste marko edo bide berrien zabalpenerako muga bezala islatzen dutelako.

Egungo autogobernu mailaren inguruko analisiarekin bukatzeko, 2013ko Soziometroan Estatutuari buruz eginiko galderari erreparatuko diogu. Kontuan izan behar dugu 2011ko *Kultura Demokratikoa* ikerketan eta hizpide izan ditugun Euskobarometroaren ikerketetan, Estatutuarekiko balorazioaz baino, gogobetetzeaz galdetzen zela. 2013ko Soziometroan luzatzen den galderaren formulazioa zabalagoa da. Halere, hizpide izan ditugun ikerketetan gogobetetze osoa, eta orain, pozik daudela adierazten dutenen portzentajeak antzerakoak dira. Esaterako, 2011ean Estatuarekin *hein batean* gogobeteta zirela, eta 2013an Estatutua osatuko balitz pozik egongo litzatekeela adierazten dutenen portzentajeak antzekoak dira, konparazioa egitea zailagoa den arren, *hein batean* adierazteak ez baitu derrigorrean Estatutua osatzearen nahia azaldu beharrik.

2013ko Soziometroan, herritarren %29ak egungo Autonomia Estatutuarekin pozik dagoela adierazten du, eta beste %30a pozik egongo litzateke osatuko balitz. Inkestaturen %14ak aldiz, edozein Autonomia Estatutu baztertuko luke. 2011an, Autonomia Estatutuaz galdetuta, %29ak Estatutuak gogobetetzen duela azaltzen zuen, inkestaturen %37ak,

hein batean, gustura dagoela adierazten zuen eta %19a gustura agertzen zen egungo Autonomia Estatutuarekin. Hortaz, galdera eta urte ezberdinetako ikerketak izanik ere, herritarrek Estatutuaz duten iritzia antzekoa da, eta iritzi hauek nahiko bananduak daudela agerikoa da: egungo markoarekin pozik daudenak, Estatutua osatuz gero, pozik egongo liratekenak, eta edozein Estatutu errefuxatuko luketenak (ikus IV.3.4. taula).

2012ko hauteskunde autonomikoen bozka oroitzen errepertzen badiogu, PSE (%42) eta PPko (%39) boto-emaileak dira egungo Autonomia Estatutuarekin pozik daudela gehien adierazten dutenak. PSEkoen %30ak gainera, Estatutua osatuko balitz pozik egongo litzatekeela dio. PPkoei errepertuz %11a pozik litzateke Estatutua osatuz, %15aren aburuz aldiz, Autonomia Estatutuak kompetentzia gehiegi ditu. Alderdi abertzaleei dagokienean, EAJkoen %49a pozik egongo litzateke Estatutua osatuz eta %25a pozik dago oraingoarekin. EH Bilduren boto-emaileen artean aldiz, %43ak edozein Autonomia Estatutu baztertuko luke eta %31a pozik egongo litzateke gaur egungoa osatzearekin.

IV.3.4. Taula: Estatutuari buruzko iritzia 2012ko bozka oroitzenaren arabera (2013)


	EAJ	EHBildu	PSE-EE	PP	UPyD	EB	IU-Ezker	
							Anitza	Guztira
Estatutuak kompetentzia gehiegi	3	6	8	15	24	4	4	6
Pozik Estatutuarekin	25	8	42	39	48	17	21	29
Pozik Estatutua osatuz	49	31	30	11	3	29	57	30
Edozein Estatutu baztertzen dut	9	43	2	6	9	26	8	14
Ed/Ee	14	12	17	30	17	25	11	21
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 51.Sozioetria (2013)

Iritzi ezberdinak ikusi ahal ditugu bozkaren arabera baina ezberdintasunak ez dira abertzale/espainolista ardatzean kokatzen. Izan ere, PSE eta EAJko boto-emaileak dira, eta era lausagoan PPkoak, Autonomia Estatutuarekin pozik gehien agertzen direnak, osatu beharra uste dela adierazten dutenak barne. Ezker Abertzaleko boto-emaileen artean aldiz, gehiago dira edozein Autonomia Estatutu baztertzen dutenak.

Alderdi abertzaleei erreparatuz eta, bereziki EAJren boto-emaileei begira, agerikoa da autogobernuaz egiten duten balorazioa askoz hobea dela, autogobernu hori egikaritu den marko eta bitartekoa baino. Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernua ezin da ulertu Estatutua gabe, baina bere balioespen positiboa egiteko erresistentziak ikusten dira. Halere, EAJren boto-emaileen artean ere gehiengoa da Estatutuarekin pozik dena, hori bai, beti ere osatzearen baldintzarekin. Ezbaian beraz, autogobernua baino, berau egikaritzeko bitartekoetan legoke. EH Bilduren boto-emaileen artean gehiago dira egungo markoa onartzen ez dutenak eta, hain zuzen ere, auzi honetan kokatu ahal dugu Estatutu eta Estatus berri baten inguruko katramila. Printzipio batean, EAJk Estatutu berri baten aldeko plateamendua luzatu du. EH Bilduk, aldiz, Estatus berri bat aldarrikatzen du, baina ez Estatutu berri baten bidez egikaritutako litzatekeena. Beste behin, edukiez haratago, bitarteko eta estrategia ezberdinen aurrean kokatzen gara.

IV.3.20. Grafikoa: Estatutuari buruzko iritzia 2012ko bozka oroitzapenaren arabera (2013)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 51.Sozio metroa (2013)

Azpimarragarria da, egun, PPkoak ere, Estatutuaren defendatzaile bilakatu izana, agian, nahikoa izan da “besteek”, alderdi abertzaleek, Gernikako Estatutua agortutzat ematea bere defentsaren ikurra hartzeko. Eta, alderantziz, behin alderdi ez abertzaleek Estatutuaren zilegitasuna eta egun ere baliagarria denaren aldarria egitea nahikoa izan da, orain dela urte gutxi batzuk arte berau defendatu dutenak distantzia hartzeko. Charles Taylorrek, prozedura edo mekanismo hau *neurotikoen alianza* bezala izendatu zuen. Mekanismo honen arabera, “talde bakoitzak bestearen beldurren gain jokatzeko tendentzia inkontzientea luke” (Taylor, 1999:70).

Taylorrek Kanadako egoera deskribitzeko erabilitako mekanismo hau gurean ere oso barneratua dagoela uste dugu. Hau da, zure ametsak nire ametsgaiztoak lirateke eta, alderantziz, zure ametsgaiztoak nere ametsak dira.

Sintesi moduan, euskal herritarren gehiengoak orain artean izan dugun autogobernuaren balorazio baikorra egiten duela esan genezake. Nortasun subjektiboaren arabera eta begikotasun politikoa edota bozka oroitzapenaren arabera, ezberdintasunak badira ere. Autogobernua medio garatu diren arlo ezberdinek ere balorazio positiboa dute. Ildo berean, EAEko autogobernua egikaritzeko bitarteko nagusi izan den Gernikako Estatutuak ere balioespen positiboa du, partzialki bada ere.

Gaur egun Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero bozkatu luketenari dagokionez, baiezkoaren hautua egingo luketenak nagusitzen dira, baina 1979an bezala, txuriz edo abstenituko liratekeela azaltzen duten herritar portzentajeak ere esanguratsua izaten jarraitzen du. 2013ko Soziometroko datuek ere, orain arte esandakoa baieztatzen dute, euskal herritarren gehiengoa bat datorrela egungo Estatutuaren markoaren baitan jarraitzearekin. Batzuk, pozik daudelako Estatutuarekin eta, beste batzuk, pozik liratekeelako osatuko balitz. EH Bilduko boto-emaileak dira salbuespen, izan ere, boto-emaile hauen artean, edozein Autonomia Estatutu baztertzen dutenaren iritzia da nagusitzen dena, egungo markoa auzitan jarriaz.

Estatutu eta autogobernuaren balorazioaren arteko jauziak oso ondo azaltzen du abertzaleen etnokrazia gogoia, eta espainolisten estrategia defentsiboa. Orokorrean abertzaleek autogobernuaren balorazio positiboagoa egiten dute, euren gobernuaren, etnokraziaren, berme edo pareko bezala ikusten duten zentzuan. Estatutua aldiz, ez litzateke *gure* gobernua bermatuko lukeen tresna gisa ikusten, gaur egun behintzat. Are gehiago, *gure* horren xede edo helburu politikoen bermerako langa moduan ere ikusia izan daiteke. Espainolisten estrategia defentsiboari dagokionean, arerioaren aurrean geratu zaien azken defentsa ikurria litzateke Estatutua. Autogobernua bera baino hobeto baloratu izateak, autogobernuaren garapen bide bat baino, espainolistentek amets edo xede nazionalisten muga edo harresi bezala irudikatuko lukete Estatutua.

Hurrengo atalean autonomia edota autogobernu handiagoa izateko proposamen edo bide ezberdinen inguruan euskal herritarrek ze iritzi duten aztertuko dugu.


3.2. Autonomia eta autogobernuaz etorkizunari begira

Behin autogobernuari buruz eta autogobernua egikaritzeko izan dugun markoaz galdeturik, Estatutuaz, autogobernu horren aldaketa nahia edo premiaz inkestatuek duten iritzia ikusiko dugu. Era zabalago batean, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoarentzat gustukoaren luketen eredia zein den ere aztertuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, autogobernua zabaltzeari dagokionean eginiko proposamen eta ikerketen inguruko datuei helduko diegu.

a) Autogobernua eta Estatutua zabaltzearen inguruko proposamen ezberdinen inguruko jarrerak

Hasteko, 2001.urtean Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eginiko *Autogobernuari buruzko Bilkura* ikerketako datuak aztertuko ditugu. 2001ean, Ibarretxe Lehendakaria buru zela, autogobernuari buruzko bilkura izan zen Gasteizko Legebiltzarrean. Bilkura honetan, besteak beste, Estatutuaren zabaltze baten proposamena luzatu zuen Ibarretxek. Eta hain zuzen ere, 2001ko ikerketa honetan proposamen horren nondik norakoez galdetu zitzairen inkestatuei.

IV.3.21. Grafikoa: Estatutua zabaltzearen inguruko iritzia nortasun subjektiboaren arabera (2001)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Autogobernuari buruzko Bilkura* (2001)

Inkestatuen %56a Estatutua zabaltzearen proposamenaren alde agertzen da, %28ak ez daki, edota ez dio erantzuten galdera honi eta %7a autogobernua zabaltzearen aurka agertzen da. Inkestatuen nortasun subjektiboaren arabera iritziak ezberdinak dira. Modu honetara, euskalduna sentitzen den %73a zabaltze horren alde dago, euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean ere, Estatutua zabaltzearen aldekoak nagusitzen dira (%51a). Espainiarrak sentitzen direnen artean aldiz, aldeko (%23) eta aurkako jarrerak (%20) nahiko parekatuak daude, ahanzi gabe, espainiarren %44ak ez diola galdera honi erantzun. Azpimarragarria da, orokorrean galdera honek duen erantzun kopuru eskasa. Arrazoiak ugariak izan daitezke: Lehendakariak luzatutako proposamenaren inguruan informazio eskasa izatea, interes urria ere adierazi dezake eta hain modu orokorrean luzatutako galdera izateak ere ez du gehiegi laguntzen posizio argi bat hartzeko orduan. Finean, zer esan nahi du Estatutua zabaltzeak?

IV.3.5. Taula: Estatutua zabaltzearen inguruko iritzia begikotasun politikoaren arabera (2001)

	Ezker						
	EAJ	EA	Abertzalea	PP	PSE	IU/EB	Guztira
Alde	74	86	75	33	47	72	56
Aurka	3	0	11	24	19	2	7
Zalantzan	5	2	5	13	17	11	9
Ed/Ee	18	13	10	31	18	14	28
Guztira	100	100	100	100	100	100	100


Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuari buruzko Bilkura (2001)

Estatutua zabaltzearen inguruko proposamena herritarren begikotasun politikoaren arabera ikusirik, agerikoa da alderdi abertzaleekin identifikatzen den herritarren gehiengoa Estatutua zabaltzearen alde dagoela. Kontuan izan behar dugu, Estatutuaren gogobetetzeaz aritu garenean, portzentaje esanguratsu batek *hein batean* erantzun zuela eta era berean, herritar asko Estatutuarekin pozik liratekeela falta diren eskumenak lortuz gero. Bestalde, Ezker Abertzalearekin identifikatua sentitzen den %11a Estatutua zabaltzearen aurka agertzen da, eta ziurrenik erantzun hau egungo markoaren onarpen ezaren diskurtsoan kokatu ahal dugu.

Alderdi ez abertzaleetako zaleei erreparatzen badiegu, iritziak nahiko bananduak daudela ikus dezakegu. PSEkoei dagokienean, Estatutua

zabaltzearen aldeko jarrera nagusitzen da (%47), %17ak ez alde ez aurka dagoela adierazten badu ere, eta %18ak ez dio galdera honi erantzuten. PPko zaleei dagokionean gehiago dira (%33) Estatutua zabaltzearen alde agertzen direnak aurka baino (%24), baina inkestatuen erdiek ez dute posizio argi bat erakusten. Hortaz, alderdi ez abertzaleekin identifikatzen diren inkestatuen jarrera ez da hain definitua.

IV.3.22. Grafikoa: Estatutua zabaltzearen inguruko iritzia begikotasun politikoaren arabera (2001)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuari buruzko Bilkura (2001)

Finen, Estatutua zabaltzeaz ari garenan, autogobernua zabaltzeaz ari gara, baina ez dago hain argi proposamen honek zenbatean jarriko lukeen kolokan egungo Autonomia Estatutuaren egitura. Eta badirudi hor dagoela alderdi abertzale eta ez abertzaleekin identifikatzen diren herritarren arteko ezberdintasun nagusia kapitulu honen lehen atalean ikusi bezala.

Alderdi abertzaleetako zaleek prestutasun edo nahi handiagoa erakutsiko lukete egungo markoa aldatzeari dagokionean eta, hortaz, Estatutua aldatzeko prest leudeke eta, aldiz, alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileek, egungo markoa aldatzearekiko duda gehiago azaltzen dituzte, bereziki, PPko boto-emaeleek. Aurreko atalean ikusi bezala, egun PP eta PSE alderdiak bilakatu dira egungo Autonomia Estatutuaren defendatzaile nagusiak. Hemendik interpretazio ezberdinak egin ditzakegu noski, benetan markuan sinesten dutenaren ideia defenda dezakegu eta, hortaz, bere baliagarritasuna aldarrikatuko lukete, edota, jarrera hau, marko aldaketarekin zerikusia lukeen edozein proposamen alboratzeko hartu ahal

izan dute. Kapitulu honen lehen atalean azaldutako ildo beretsua ikus dezakegu beraz. Abertzaleen artean Estatutua pausu bat bezala ikusia zen, ez abertzaleen artean aldiz, gehiago ziren Estatutua behin betiko irtenbide bezala ikusten zutenak. Berdin Estatutua agortua denaren ideia inguruan, alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen artean Estatutua agortua denaren ideia nagusitzen da, PSEkoek iritzi ezberdinak dituzte eta PPkoak ideia horrekiko aurka agertzen dira.

b) 2002ko Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berriari buruzko jarrerak

Orain artean, Estatutua zabaltzearen inguruko proposamen orokorraz herritarrek duten iritzia ikusi dugu. Proposamen hau 2001ean egin zen Gasteizko Legebiltzarrean eta urte bete beranduago, 2002ko Irailean, Ibarretxe lehendakariak *Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berria* plazaratu zuen.

IV.3.6. Taula: Autogobernuaren garapenerako Lehendakariak proposatutako eskumen berrien inguruko iritzia nortasun subjektiboaren arabera (2002)

		Euskalduna	Bikoitza	Espainola	Guztira
EAE eta Nafarroaren harremanak sendotzea	Ongi	92	78	66	81
	Gaizki	2	7	13	6
Lan harremanetako esparru propioa	Ongi	93	74	56	78
	Gaizki	2	16	25	12
EH-k ahots propioa munduan	Ongi	95	71	43	76
	Gaizki	1	17	40	40
Lankidetzeta Ipar EH-rekin	Ongi	88	68	55	73
	Gaizki	3	11	22	9
Erreferendumak deitzeko gaitasua	Ongi	92	63	46	72
	Gaizki	1	20	37	15
Kirol selekzio propioak izatea	Ongi	90	61	44	69
	Gaizki	1	22	32	15
Baliabide natural eta azpiegituren kudeaketa	Ongi	87	57	43	67
	Gaizki	4	25	26	16
Botere judizial propioa izatea	Ongi	88	51	44	64
	Gaizki	3	30	37	20
Nazionalitate bikoitza aitortzea	Ongi	65	50	26	52
	Gaizki	17	32	53	28

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berriaren inguruan enuskal gizarateak duen iritzia (2002)

Hizpide izango dugun ikerketan, *Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berriaren inguruan euskal gizarteak duen iritzia*, akordio honi buruzko iritzia eskatzen zaie inkestatuei. Akordio berri horretan, Ibarretxe lehendakariak autogobernuaren garapenerako EAErentzat eskumen berriak proposatzen ditu.

IV.3.6. taulari erreparatzen badiogu, inkestatuen gehiengoak eskumen berri horien aldektasuna erakusten duela agerikoa da. Aurkeztu zaizkien eskumen guztietan, euskaldunak dira adostasun maila altuena erakutsi dutenak, eta aldiz, espainolak babes baxuena erakutsi dutenak. Hala eta guztiz ere, espainiarrak sentitzen direnen artean ere, gehiago dira eskumen berri hauen aldektasuna erakusten dutenak aurka daudenak baino. Modu honetara, Estatutuaren zabaltzearen inguruan ikusitakoaren ildo bereko jarrerak azaltzen dituzte inkestatuek.

Hona hemen autogobernuaren garapenerako Lehendakariak proposaturiko eskumen berriei buruzko iritzia herritarren nortasun subjektiboaren arabera (ikus IV.3.6.taula):

- *EAE eta Nafarroaren arteko harremanak sendotzea, nafarrek horrela nahi izanez gero*: Inkestatuen %81a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %92ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen artean %78ak, eta espainiarrak direnen artean %66ak.
- *Lan Harremanetarako esparru propioa izatea*: Inkestatuen %78a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %93ak babestu luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean %74ak eta espainiarrak direnen artean %56ak.
- *Euskal Herriak ahots propioa izatea European eta munduan*: Inkestatuen %76a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %95ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean, %71ak. Espainiarrak direnen iritzia nahiko banandua dago eskumen berri honi dagokionean; %43ari ongi irudituko litzaioke eta %40a ez legoke ados Euskal Herriak European eta munduan ahots propioa izatearekin.
- *Mugaz bestaldeko lankidetzaren sendotzea Ipar Euskal Herriarekin*: Inkestatuen %73a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %88ak babestuko luke eskumen

berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean %68ak eta espainiarrak direnen artean %55ak.

- *Euskal erakundeek erreferendumeak deitzeko gaitasuna izatea:* %72a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %92ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean, %63ak. Espainiarrak direnen artean ere, gehiago dira alde daudela adierazten dutenak (%46), aurka baino (%37).
- *Kirol selekzio propioak izatea:* %69a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %90ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean, %61ak. Espainiarrak direnen artean ere gehiago dira alde daudela adierazten dutenak (%44), aurka baino (%32).
- *Gure baliabide naturalak eta azpiegiturak genk bakarrik kudeatzea:* %67a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %87ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean, %57ak. Espainiarrak direnen artean ere gehiago dira alde daudela adierazten dutenak (%43), aurka baino (%26).
- *Botere judizial propioa izatea:* Inkestatuen %64a bat dator eskumen berri hau izatearekin. Euskaldunak sentitzen direnen %88ak babestu luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean %51ak. Espainiarrak direnen iritzia nahiko banandua dago eskumen berri honi dagokionean; %44ari ongi irudituko litzaioke eta %37a ez legoke ados Euskal Herrian eta munduan ahots propioa izatearekin.
- *Euskal eta espainiar nazionalitate bikoitza aitortzea:* Nazionalitate bikoitzarena da herritarren artean babes maila baxuena jasotzen duen eskumena, %52ari ongi iruditzen bazaio ere. Euskaldunak sentitzen direnen %65ak babestuko luke eskumen berria, euskaldun bezain espainiar direnen artean %50ak. Espainiarrak sentitzen direnen %53ari ez zaio ongi iruditzen nazionalitate bikoitzaren aitortza eta %26a ados egongo litzateke.

Laburbilduz, Lehendakariak autogobernuaren garapenerako proposatzen dituen eskumenen aldeotasuna nahiko argia dela esan genezake. Euskaldunak, eta euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean eskumen orotan ageri da aldekotasan jarrera. Espainiarrak sentitzen direnen artean ere, eskumen gehienetan, gehiago dira aldeko jarrera dutenak aurkakoa baino. Dena den, euskal eta espainiar nazionalitate

bikoitzaren aitortzari dagokionean, aurka daudenak dira nagusi. Gainera, botere judizial propioa izateak, Euskal Herriak ahots propioa izatea Europan eta munduan eta euskal erakundeak erreferendumak deitzeko gaitasuna izatearen inguruan espainiarrak sentitzen direnak erakutsitako aurkako jarrera esanguratsua da.

Elementu identitarioak tarteko direnean edota subirautearekin harremandurik egon daitezkeen auziak barneratzen direnean, nortasun subjektibo ezberdina duten herritarrek jarrera ezberdina hartzen dute. Honela, autogobernuaren garapena, baliabide materialekin lotzen den heinean, espainiar sentitzen diren herritarren babesa ere jasoko luke. Aldiz, autogobernuaren balizko garapen horretan eskumen politikoagoak edo indar sinboliko handiagoa dutenak jasotzen badira, espainiar sentitzen direnen aurkako jarrera indartzen da. Espainiar sentitzen diren herritarren artean botere judizial propioa izateak sorrarazten duen errefuxapena ere kuriosoa da. Badirudi baliabide edo errekurtsioetatik haratago doala eskumen honen ezbaia eta konnotazio ideologiko-politiko estua duela. Autogobernuaren garapenerako eskumeneren aldeotasuna edo aurkakotasunean plano sinbolikoak duen indarra berresten dela esan genezake. Eskumenaren eduki materialaz haratago, eskumen horrek irudikatuko lukeena esanguratsua bilakatzen da.

Jarraian eskumen berri hauekiko adostasun maila inkestaturen begikotasun politikoaren arabera nolakoa den ikusiko dugu. Alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritarrei dagokionean, gehiago oso zabalak Lehendakariak proposatutako eskumen berriei buruzko adostasuna erakusten du. Gainera, ia ez dago ezberdintasunik alderdi abertzale ezberdinekin identifikatzen diren herritarren artean, eskumen batean ezik. Euskal eta espainiar nazionalitate bikoitza aitortzeari dagokionean, Ezker Abertzalearekin identifikatzen diren herritarrak (%48), EA (%67) eta EAJrekin (%71) identifikatzen direnak baino adostasun maila baxuagoa erakusten dute (ikus IV.3.7.taula).

Alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileei dagokionean, jarrera ezberdinak erakusten dituzte luzatzen zaizkien eskumenaren arabera. Esaterako, EAE eta Nafarroaren arteko harremanak sendotzearen alde azaltzen dira bai PP (%65) eta bai PSErekin (%75) identifikatzen diren herritarrak. Ipar Euskal Herriarekin mugaz bestaldeko lankidetzaren sendotzearekin ere bat datoz. Baina eskumen propioei erreparatzen zaienean, hau da eskumena eta kudeaketa bera, euskal instituzioei bakarrik aitortzea aipatzen denean, subirautea adierazle bezala ikus edo irudika daitezkeenak, edota Euskal

Herriari nolabait izate propioa eta berezia ematen zaionean, jarrera bestelakoa da.

IV.3.7. Taula: Autogobernuaren garapenerako Lehendakariak proposatutako eskumen berrien inguruko iritzia begikotasun politikoaren arabera (2002)

	EAJ	EA	Batasuna	PP	PSE	Guztira
EAE eta Nafarroaren arteko harremanak sendotzea	89	98	96	65	75	81
Lan Harremanetarako esparru propioa	94	100	100	38	59	78
EH-ak ahots propioa munduan	93	100	96	28	55	76
Lankidetzaren I.EH.rekin	85	99	96	58	67	73
Erreferendumak deitzeko gaitasuna	91	94	96	29	48	72
Kirol selekzio propioak izatea	86	93	94	27	53	69
Gure baliabide natural eta azpiegituren kudeaketa	86	95	92	36	51	67
Botere judizial propioa	86	100	96	23	42	64
Nazionalitate bikoitza	71	67	48	25	37	52

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berriaren inguruan euskal gizarteak duen iritzia (2002)

Ildo honetan, euskal erakundeek erreferendumak deitzeko gaitasunari dagokionean, PPekin identifikatzen den %29ak azaltzen du bere aldekotasuna, PSEkoen artean portzentajea %48koa da. Botere judizial propioa izateak are eta babes gutxiago du alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileen artean, PPkoen %23ak eta PSEkoen %42ak azaltzen du aldeko jarrera. Ikusi ahal dugun bezala, alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileen artean, aipaturiko eskumenen babesak, alderdi abertzaleetako jarraitzaileen artean baino babes txikiagoa dute. Gainera, alderdi abertzaleetako jarraitzaileen artean nahiko jarrera bateratua ikus dezakegun bezala, PP eta PSErekin identifikatzen diren inkestatuak posizio ezberdinak dituzte.

Modu honetara, eskumen berrien aldeko jarrera gailentzen da euskal herritarrak sentitzen diren eta alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritarren artean. Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen artean ere gehiago dira eskumen berri horiei babes eskaintzen dietenak, PSEtik

gertu dauden herritarrak bezalaxe. Espainiarrak bakarrik eta bereziki, PPrekiko begikotasun politikoa adierazten dutenak aldiz, eskumen gehienengoen inguruko adostasun baxua erakusten dute.

Hortaz, badirudi eskumeneren edukiaz haratago, eskumeneren irudika dezaketenak baduela zerikusirik herritarrek azaltzen dituzten iritzi ezberdinetan. Printzipio batean, baliabide naturalek eta botere judizialak ez dute zertan sinbolismo eta identitate konkretu batekin lotuak egon behar, baina eskumen berri horietako *propio* kontzeptuak badirudi espainiar bakarrik sentitzen diren eta PPretik gertu leudeken herritarren artean erreferentzia bat sortzen duela. Aldiz, Euskal Herriak ahots propioa izatea, erreferendumak deitzeko eskumena izatea edota kirol selekzio propioak izatea askoz ere lotuagoa da auzi identitarioekin eta hortaz, logikoagoa da alderdi ez abertzaleetako hautesleen artean alderdi abertzaleetakoan baino babes maila baxuagoa izatea.

Laburbilduz, *Elkarbizitzarako Akordio Politiko Berriaren* (2002) baitan proposatzen diren eskumen berriak era baikorrean ikusten dituzte euskal herritar gehienek. Halere, espainiar bezain euskaldun eta, era nabarmenagoan, espainiarrak bakarrik sentitzen direnen artean, eskumen horien aldekatasuna baxuagoa da, bereziki, elementu identitario eta sinbolikoekin loturak dituztenak hartzen baditugu erreferentziatzat. Lehenengo kapituluan aipatu izan genuen bezala, borroka sinbolikoak eta errepresentazioen eta diskurtsoen arteko lehiaren garrantzia oso handia da nortasunez mintzo garenean. Modu honetara, alderdi abertzaleentzako ezinbesteko ikur lirakeenak dira, alderdi ez abertzaleek uxatu nahi dituztenak. Eta alderantziz, alderdi ez abertzaleek errekonozitu eta babestu nahi ez dituzten ikurrak eta eskumenak dira, alderdi abertzaleentzako funtsezko bilakatzen direnak. Sarritan, edukitik haratago doaz borroka hauek, autogobernu mailarekin ere harreman lausoak izan dezakete, baina diskurtsoan bere sinboloak ezartzen dituenak du garaipena edozein lehia politikotan.

c) 2005eko Estatutu Berriaren proposamenaren inguruko iritziak

2002ko Elkarbizitzaren Akordioaren ondotik, 2005ean Eusko Legebiltzarrak Estatutu Berrirako proposamena onartu zuen. 2005eko *Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena* ikerketan, proposamen honetan jasotako puntu batzuen inguruko iritziaz galdetzen zaie herritarrei.

Gai eta arlo guztietan autogobernu handiagoa izatearekin ados dago inkestaturen %62a. %19a gehien bat kontra dago eta %10a ez dago, ez ados, ez kontra. Nortasun subjektiboaren arabera, ezberdintasunak nabariak dira Estatutu Berrirako proposamen hauen inguruan. Honela, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen %87a, gehien bat ados dago gai eta arlo guztietan autogobernu handiagoa edukitzearekin. Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen artean, gehiago dira gehien bat ados daudenak (%44), gehien bat kontra daudenak baino (%32). Espainiarra sentitzen den %51a aldiz, gai eta arlo guztietan autogobernu handiagoa edukitzearen aurka azaltzen da eta %19a ados.

IV.3.8. Taula: Estatutu Berriaren proposamenaren edukiekin adostasun maila nortasun subjektiboaren arabera (2005)

		Euskalduna	Bikoitza	Espainola	Guztira
Gai eta arlo guztietan autogobernu handiagoa	Ados	87	44	19	62
	Aurka	3	32	51	19
Gizarte Segurantza eta botere judiziala EAE-n	Ados	86	36	22	59
	Aurka	4	38	46	21
Kirol selekzio propioak	Ados	83	30	13	54
	Aurka	4	36	53	22


Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Estatutu Berrirako Proposamenean jasotzen den bigarren puntua Gizarte Segurantza eta botere judizialaren kudeaketari dagokio. Inkestaturen %59a gehien bat ados dago Gizarte Segurantza eta botere judiziala EAEn bertan kudeatzearekin, %21a gehien bat kontra eta %10a ez ados, ez kontra dago. Proposamen honi dagokionean ere euskaldunak sentitzen direnak dira adostasun maila altuena erakusten dutenak, %86a gehien bat ados dago. Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen artean aldiz, jarrerak nahiko bananduak daude, %36a gehien bat ados dago eta %38a Gizarte Segurantza eta botere judiziala Euskadin bertan kudeatzearen aurka azaltzen da. Espainiarra bakarrik sentitzen den %22a da EAEn Gizarte Segurantza eta botere judiziala kudeatzearen aldekoa.

Azkenik, Estatutu Berrian jasotzen den kirol selekzioen inguruko proposamenaz galdetzen zaie inkestaturei. Inkestaturen %54a ados egongo litzateke Euskadik kirol selekzio nazional propioak izatearekin, %22a gehien bat kontra eta %15a ez ados, ez kontra. Nortasun subjektibo

ezberdinei erreparatuz, euskaldunak sentitzen direnen %83a gehien bat ados dago Euskadik kirol selekzio nazional propioak izatearekin. Euskaldunak bezain espainiarrak direnen artean aldiz, gehiago dira kontra daudenak (%36), alde daudenak baino (%30). Espainiarrak sentitzen direnen artean ere, baina kasu honetan kontra daudenak (%53) eta gehien bat ados daudenen (%13) arteko tartea areagotu egiten da.

IV.3.23. Grafikoa: Estatutu Berriaren proposamenaren edukiekiko aldeketasuna nortasun subjektiboaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Herritarren gehiengoa orokorrean bat dator Estatutu Berrian jasotako proposamenekin baina ezberdintasunak agerikoak dira herritarren nortasun subjektiboaren arabera:

- Euskaldunak sentitzen diren gehiengo zabalak babesten ditu proposamen hauek.
- Euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean aldiz, iritziak nahiko bananduak daude. Gai eta arlo guztietan autogobernu handiagoa edukitzearen aldekoak gehiago dira baina, aldiz, Gizarte Segurantza eta botere judizialaren kudeaketari dagokionean eta kirol selekzio propioei dagokionean, gehiago dira gehien bat kontra daudela adierazten dutenak. 2002ko proposamenaz aritu garenean ikusi genuen hain justu, auzi hauetan ematen zirela herritarren arteko ezberdintasun handienak.
- Espainiarrak sentitzen direnen artean, aurkeztutako hiru proposamenetan aurkako jarrera nagusitzen da.


Ondoren, Estatutu Berriaren proposamenekiko adostasun maila inkestatuen begikotasun politikoaren arabera nolakoa den ikusiko dugu (ikus IV.3.9. taula eta IV.3.24. grafikoa).

IV.3.9. Taula: Estatutu Berriaren proposamenaren edukiekin adostasun maila begikotasun politikoaren arabera (2005)

		EAJ	PSE	PP	EA	Aralar	Ezker Abertzalea
Gai eta arlo guztietan	Ados	84	36	22	85	89	93
autogobernu handiagooa	Aurka	5	41	60	3	6	3
Gizarte Segurantza eta	Ados	83	30	20	85	86	95
botere judiziala EAEn	Aurka	6	44	59	3	6	2
Kirol selekzio propioak	Ados	78	21	10	73	85	95
	Aurka	7	46	64	6	5	1

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

IV.3.24. Grafikoa: Estatutu Berriaren proposamenaren edukiekin adostasun maila begikotasun politikoaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

2002ko ikerketaren ildo beretsuan, alderdi abertzaleekin identifikatzen diren inkestatuen gehiengo zabala gehien bat ados agertzen da Estatutu

Berriaren proposamenean jasotzen diren eduki ezberdinekin. Kasu honetan gainera, 2002ko ikerketan baino antzekotasun handiagoak erakusten dituzte alderdi ez abertzaleekin identifikatzen diren herritarrak. Aurretik aipatu dugun moduan, PP eta PSE alderdiekin identifikatzen ziren herritarrak ziren botere judizial propioa izateari edota kirol selekzio propioak izateko aukerari babes txikiena ematen zietenak. 2005eko ikerketa honetan herritar ezberdinen arteko iritzi ezberdin hau berresten da.

Laburbilduz, bereziki euskal herritar sentitzen direnak eta alderdi abertzaleekin identifikatzen direnak dira aurkeztutako proposamen berriei babes handiena ematen dietenak. Printzipio batean, beraz, herritar guztien iritziei erreparatuz, ez da adostasunik Estatutu berri bat onartuz gero ere, izan beharko lituzkeen eskumenen inguruan. Finean, Euskal Autonomia Erkidegoak izan beharko lukeen autogobernu mailaz, eta garrantzitsuagoa dena, edozein aldaketa egikaritzeko beharrezko litzatekeen markuaren mantenuaz edo aldaketa beharraz dihardugu. Hor dago desadostasunen muin nagusia.


d) Autogobernu handiagoak ekonomian, zerbitzu publikoetan, bakean eta elkarbizitzan izan dezakeen eraginaz

2005eko *Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena* ikerketan autogobernuaren beste erpin batzuk ere aztertzen dira, eta kasu honetan, balizko autogobernu handiago batek arlo ezberdinetan izan lezakeen eraginaren inguruan galdetzen zaie inkestatuei.

Aurretik ikusi genuen autogobernuak arlo ezberdinetan lorturikoa baloratzean ekonomia zela, ingurumenarekin batera, inkestatuen artean balioespen baxuena jasotzen zuen arloa. Ondorengo galderan, balizko autogobernu handiago batek arlo horretan izango lukeen eraginaz galdetzen zaie inkestatuei. %45aren arabera autogobernu handiagoa edukitzeak euskal ekonomiari lagunduko lioke, %21aren arabera kalte egingo lioke, eta %13ak uste du ez liokeela ez lagunduko ezta kalte egingo ere. Azpimarragarria da ere ez dakiela edo erantzuten ez dutenen kopuru altua, eta identitate ezberdinen arteko portzentaje ezberdinak oso esanguratsuak dira. Euskaldunak sentitzen direnen %15ak ez daki edo ez dio erantzuten galdera honi; euskaldun bezain espainiar eta espainiar sentitzen direnen artean aldiz, portzentajea %26koa da (ikus IV.3.25. grafikoa).

Kontuan izan behar da abertzaleek eta euskal nortasun azaltzen dutenek, autogobernu handiago baten aldeko aldarria argudio ekonomizistetan ere oinarritu dutela. Hau da, askok, egungo krisi sozioekonomikoaren ondorioak, gurean, bestelakoak izango lirakeela uste dute autogobernu handiago bat edota gure baliabideak beste era batera kudeatzeko aukera izanez gero. Espainiar sentitzen direnen artean aldiz, autogobernuaren aldeko argudio hori, hein batean, errefuxatu egiten da. Halere, eta egun Espainiak bizi duen krisia medio, ez da erraza posizio hau defendatzea; honela, ezezko jarrerak baiezkoak baino gehiago izanik ere, herritar espainolisten zati esanguratsu batek ez du posizio argi bat erakusten auzi honi dagokionean. Zaila da autogobernuaren aldeko argudio ekonomizistei aurre egitea egun Espainiak bizi duen ingurumaria sozioekonomikoa ikusirik.

IV.3.25. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina egoera ekonomikoan nortasun subjektiboaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Inkestaturen nortasun subjektiboaren araberako posizioei dagokienean, euskaldunak sentitzen direnen %69ak autogobernu handiago batek euskal ekonomia lagunduko lukeela uste du. Euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean, gehiago dira autogobernu handiagoak ekonomia kaltetuko lukeela uste dutenak (%34), lagunduko lukeela uste dutenak baino (%25). Espainiarrak sentitzen direnen artean ere, kalte egingo liokeela uste dutenak (%47), euskal ekonomiari lagunduko liokeela adierazten dutenak baino askoz gehiago dira (%25). Auzi honetan, beraz,

agerikoa da nortasun subjektiboaren arabera edota euskal herritar-espainiar ardatzean duten autokokapenaren arabera, ezberdina dela autogobernu handiago batek euskal ekonomian izan dezakeen eraginaren inguruko iritzia. Ezin dugu ahanzi euskal herritar bakarrik sentitzen direnen gehiengo zabala arlo guztietan autogobernu handiago baten alde agertu dela.

Jarraian, autogobernu handiago batek egoera ekonomikoan izan dezakeen eraginaren inguruko iritzia inkestaturen begikotasun politikoaren arabera aztertuko dugu. Alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritarren gehiengoak autogobernu handiago batek ekonomiari lagunduko liokeela uste du. EAJ (%67) eta EArekiko (%69) begikotasuna azaltzen duten inkestaturen bi herenek horrela uste dute. Autogobernuaren handiagotze batek ekonomian lagunduko lukeela gehien uste dutenak Ezker Abertzalearekin identifikatzen diren herritarrak dira (%81). Gogoan izan behar dugu, azken hogeita bost urteetako autogobernuaren balorazioa izan dugunean hizpide, Ezker Abertzalearekiko begikotasuna azaltzen zuten herritarrak zirela ekonomian lorturikoa baikorki gutxien balioesten zutenak.


IV.3.10. Taula: Autogobernu handiagoaren eragina egoera ekonomikoan begikotasun politikoaren arabera (2005)

	Ezker						
	EAJ	PSE	PP	EA	Aralar	Abertzalea	Guztira
Lagunduko lioke	67	24	11	68	62	81	45
Kalte egingo lioke	8	38	57	7	11	4	21
Zalantzan	9	16	11	4	11	7	13
Ed/Ee	16	22	21	21	17	7	21
Guztira	100	100	100	100	101	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Bestalde, alderdi ez abertzaleekin identifikatzen diren herritarren artean autogobernu handiago batek egoera ekonomikoari kalte egingo liokeenaren ideia azaltzen da. Bereziki, PPko zaleen artean nagusitzen da iritzi hau; izan ere, PSE begiko dutenen artean ere kalte egingo liokeela uste dutenak (%38) lagunduko liokeela uste dutenak baino gehiago dira (%24), baina hamarretik lauk ez du posizio argi bat auzi honi dagokionean (%16), edo ez daki, edo ez du erantzuten (%22).

IV.3.26. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina egoera ekonomikoan begikotasun politikoaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

2013. urtean ere, autogobernu handiago batek ekonomian izan dezakeen eraginaz galdetzen dela ikus dezakegu. 2005eko ikerketako datuekin alderatuz, autogobernu handiago batek ekonomian eragin positiboa izango lukeela uste dutenen portzentajea berdintsu mantentzen da. Kalte egingo liokeela uste dutenena aldiz, txikitu egiten da, eta handitu, autogobernuak ekonomian eraginik ez lukeela uste dutenen portzentajea. Honela, 2013an, inkestaturen %46arentzat, autogobernu handiago batek eragin positiboa izango luke ekonomian, %14aren ustez kalte egingo lioke eta %26arentzat ez lioke ez lagunduko, ez kalte egingo (ikus IV.3.11. taula).


IV.3.11. Taula: Autogobernu handiagoaren eragina ekonomian 2012ko bozka oroitzenaren arabera (2013)

	IU-Ezker							Guztira
	EAJ	EHBildu	PSE-EE	PP	UPyD	EB	Anitza	
Lagunduko lioke	60	79	26	17	0	48	46	46
Kalte egingo lioke	9	4	25	34	55	21	13	14
Eraginik ez	20	14	40	31	28	27	34	26
Ed/Ee	10	4	10	18	17	5	7	14
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

2012ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenari erreparaturaz, alderdi abertzaleen boto-emaileen gehiengo batentzat, EAJ (%60) eta EH Bildu (%79), autogobernu handiago batek ekonomiarik lagunduko lioke. Alderdi espainolistei bozka eman zieten artean, ezberdintasunak nabarmenak dira: PSEko boto-emaileak nahiko bananduak agertzen dira, %40ak ez du uste autogobernu handiago batek eraginik izango lukeenik ekonomian, %26ak lagunduko liokeela uste du eta %25ak, kalte egingo liokeela. PPko boto-emaileen %31ak ere ez du uste autogobernu handiago batek eraginik izango lukeenik ekonomian, baina gehiago dira kalte egingo liokeela uste dutenak (%34), autogobernuak ekonomiarik lagunduko liokeela adierazten dutenak baino (%17) (ikus IV.3.11.taula eta IV.3.27.grafikoa).

IV.3.27. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina ekonomian 2012ko bozka oroitzenaren arabera (2013)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Hortaz, balizko autogobernu handiago batek ekonomian izan dezakeen eraginari dagokionean 2013eko datuek 2005ekoen ildo beretsua erakusten dute. Halere, aldaketaren bat ikus dezakegu, bereziki, alderdi ez abertzaleei bozka eman dietenen artean. 2005eko datuekin alderatuz, 2013an, PSEkoen artean autogobernuak ekonomian eraginik izango ez lukeenaren ideia nagusitzen da. PPkoen artean, 2013an ere, kalte egingo liokeenaren ideia gailentzen da, baina handitu egiten da autogobernuak ekonomian eraginik izango ez lukeela uste dutenen kopurua. Ziurrenik, aldaketa

honetan badu eraginik Espainiako Estatuan bizitzen ari garen krisi egoerak, eta egun, zailagoa suertatzen da argudio ekonomikoari eustea autogobernu handiago bat errefuxatzeko orduan.

Alderantziz, hain justu, Estatuko krisi ekonomikoak, eta beroni aurre egiteko bitarteko propioen gabezia eta ukazioak, autogobernu handiago baten aldeko jarrerak indartu ahal ditu, edo gutxienean aldarrikapen horien beste euskarri ere bilakatu dira azken urteetan. Aldaketa hau, lehen kapituluko Aukera Politikoen Leihoaren tesiaren baitan koka dezakegu eta, noski, ez da mugatzen Euskal Autonomia Erkidegora, Eskozia eta Katalunian independentziak bizi ahal duen susperraldiaren oinarrietako bat ere krisi ekonomikoa eta berari aurre egiteko baliabide propioen gabezia kokatu ahal dugu.

Ekonomiaren funtzionamendu egoki potentziala bat dator etnokraziatik espero denarekin. Etnokraziaren gako nagusia subiranotasuna da, boterearen kudeaketa propioa, eta ardatz ekonomikoa barneratzen ez duen subiranotasuna oso subiranotasun partzialak litzateke. Are eta gehiago garai hauetan, non eremu politikoaren esparrua txikituz doan esparru ekonomikoaren mesedetan. Egungo krisi ekonomikoan agerian geratu da, tresna eta bitarte ekonomikorik gabe, finean, botere ekonomikorik gabe, ia ezinezkoa dela egoeraren irulketa bat. Ondorioz, subiranotasun politikoaren aldeko aldarriak subiranotasun ekonomikoaren eskutik doaz. Subiranotasun ekonomikoaren ezinbestekotasunari azpimarra egin zaio, eta abertzaleek, bereziki Ezker Abertzaleak, subiranotasun politikoa aurkeztu du *autogobernu* ekonomiko hori bideratzeko tresna eta bitarteko posible bakar gisa.

Guk gurea kudeatuz hobeto egongo ginatekenaren premisa honetan, ardatz ekonomikoa oinarritzko faktorea litzateke. Hortaz, autogobernuak, arlo honetan ere, ekonomian, izango lituzkeen onurak berresten dituzte. Eskozia eta Katalunian, itxura batean behintzat, emandako susperraldi independentista ulertzeko ezinbestekoa da ekonomia eta ongizatearen faktoreei erreparatzea. Bigarren kapituluan ere hizpide izan genuen Kataluniako independentista potentzialen artean azken urteetan sumaturiko aldaketak. Nortasun irizpideei garrantzirik kendu gabe, badirudi gero eta herritar gehiagok egingo luketela independentziaren aldeko hautua ongizatearekin loturiko argudioei erreparatuz. Hortaz, hizpide izan genuen *Just a matter of identity* artikuluan zehazki independentzia aipatzen bazen ere, agerikoa da herritar askok autogobernu

handiago baten aldeko jarrera hartuko luketela ongizatearekin loturiko faktoreei erreparatuz.

Alderdi espainolistak aldiz, argudio eta iritzi korronte honen aurka azaldu dira, hain justu ere, aurkako argudioei erreparatuz. Ildo honetan, egun dugun ongizatea Espainiar Estatuak soilik bermatuko luke, eta krisi ekonomikoaren oldarraldiaren ondorioak okerragoak lirateke Estatu horren babes gabe aurkituko balira. Ugariak izan dira, espainiar gobernuak, besteak beste, Kataluniako gobernuari azken urteetan egin behar izan dizkion diru injekzioari buruzko aipuak, Katalunia ez bada izan ere “barne” erreskatea behar izan duen erkidego bakarra.

Argudio ekonomikoak hortaz, gero eta presentzia gehiago dute autogobernuaren inguruko ezbaietan. Aurretik aipatu genuen, Sorensen arabera, Mendebaldeko demokrazietan oso zaila zela prozesu sezesionistak aurrera ateratzea egoera egonkorren ingurumarian. Azken urteetako krisi ekonomikoarekin ordea, zenbaitentzat aukera berriak zabaldu ziren, Katalunia kasu. Ezegonkortasun ekonomikoak herritar askorengan sorturiko ezinegona, autogobernu handiago baten edota independentziaren aldeko aldarriaren hedapenerako aukera berri bat bezala ere ikusia izan da. Dena den, ikusteko dago, krisi ekonomikoaren astinduak zer nolako eragina izango duen. Eskoziako erreferendumaren emaitzek ez dute gehiegi lagundu tesi honen berrespenean eta Kataluniako herritarrek jarraituko duten ibilbidea airean dago oraindik. Halere, autogobernu eta independentismoaren inguruan zabaldutako ezbaian ekonomiak jokatu duen papera aintzakotzat hartu beharreko faktorea da.


Autogobernuak ekonomian izango lukeen eraginaren inguruko hausnarketa honekin bukatzeko interesgarria iruditu zaigu Sorensen (2012) luzatutako hipotesietako bat. Bere aburuz, independentziarekin onura ekonomikoak izango direnaren usteak sezesionismoaren aldeko hautua indartu dezake. Are gehiago, demokrazietan, diru-sarrera handiagoak dituzten lurraldeak sezesionistagoak direla uste du; izan ere, Estatuan jarraituz gero izango lituzketen galera fiskal eta ekonomikoak handiagoak liratekeenaren ustea izan ohi dute.

Hipotesi honek azken urteetan Katalunian ikusiriko susperraldi independentista berretsiko luke. Gainera, zenbaitek gaur egun EAEn ikusten duten barealdi independentista, beti ere Kataluniarekin alderatuz, EAEk, Kataluniak ez bezala, duen Kontzertu Ekonomikoan ikusi dute. Hau da, Kataluniak ez duen autonomia fiskala izateak hein batean, EAEko

mugimendu sezesionistarentzat oztopo litzateke. Dena den, Kataluniako balizko susperraldi horren intentsitatea ez da frogatu oraindik. Hortaz, oraindik goizegi da, batetik, Kataluniaren independentismo handiago batetaz mintzatzeko, eta bestetik, autonomia fiskalaren eragina Sorensek azaldutakoaren bidetik joango dela berresteko. Dударik gabe, balizko ongizate kolektibo baten espektatibak eta norbanakoaren segurtasun ekonomikoak paper garrantzitsua jokatzen dute autogobernu edota independentzia aldarrikapenetan. Honelako zerbait jokatu da Eskozian 2014ko erreferendumean.

Ondoren, inkestatuei autogobernu handiago batek zerbitzu publikoen funtzionamenduan izan dezakeen eragin positiboaz edo negatiboaz galdetu zaie. Inkestatuen %51ak autogobernu handiago batek zerbitzu publikoen funtzionamenduari lagunduko liokeela uste du, %17arentzat kalte egingo lioke eta %13arentzat, ez lioke lagunduko ezta kalte egingo ere.

IV.3.28. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina zerbitzu publikoetan nortasun subjektiboaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Nortasun subjektiboari erreparatzen badiogu, ekonomiarekin ikusi bezala, euskaldunak sentitzen direnak dira autogobernuaren handitzeak zerbitzu publikoetan positiboki eragingo lukeela gehien uste dutenak eta, aldiz, espainiarrak sentitzen direnak, zerbitzu publikoari kalte egingo liokeela gehien uste dutenak. Euskaldunak sentitzen direnen gehiengo zabal batek

(%75) autogobernu handiagoak zerbitzu publiko ezberdinen funtzionamenduari lagunduko liokeela uste du. Euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean iritziak nahiko bananduak daude, %33arentzat lagunduko lioke eta %27arentzat kalte egingo lioke zerbitzu publikoen funtzionamenduari. Aldiz, espainiarrak sentitzen diren %41arentzat autogobernu handiagoak kalte egingo lioke eta %17ak aldiz, zerbitzu publikoei lagunduko liokeela uste du (ikus IV.3.28.grafikoa).

Inkestaturen begikotasun politikoari erreparatzen badiogu, autogobernuak ekonomian izan lezakeen eragina aztertzerakoan esandakoa errepikatzen dela esan dezakegu. Izan ere, hizpide den ardatza baino, hau da ekonomia, edo zerbitzu publikoak, gakoa autogobernu handiagoren ontasun edo kalteetan dago. Alderdi abertzaleei bozka ematen dietenak autogobernu handiago batek hizpide ditugun auzi orotan mesede egingo lukeenaren ustea adierazten dute. Alderdi ez abertzaleei bozka ematen dietenak aldiz, autogobernu handiago batek ekar litzazkeen onura horiek ukatzen dituzte. Finean, horixe da autogobernu handiago baten aldeko edo aurkakoen argudio nagusia, ekarriko lituzkeen onuren aitortza edo ukazioa.

IV.3.12. Taula: Autogobernu handiagoren eragina zerbitzu publikoetan begikotasun politikoaren arabera (2005)


	Ezker						
	EAJ	PSE	PP	EA	Aralar	Abertzalea	Guztira
Lagunduko lioke	73	29	13	74	71	87	51
Kalte egingo lioke	6	31	48	8	8	3	17
Eraginik ez	8	19	14	5	5	5	13
Ed/Ee	13	21	24	13	15	5	19
Guztira	100	100	100	100	99	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Modu honetara, alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritarren gehiengoa, eta bereziki Ezker Abertzalearen jarraitzaileak dira, autogobernu handiago batek zerbitzu publikoak lagunduko lituzkeela uste dutenak. PSErekin identifikatzen direnak aldiz, ekonomiaren auziarekin ikusi bezala, bananduak daude, %29ak lagunduko liokeela uste du eta %31ak kalte egingo liokeela. PPrekin identifikatzen direnen artean, aldiz, gehiago dira (%48) autogobernu handiago batek zerbitzu publikoak kaltetuko lituzkeela adierazten dutenak.

Orain artean, autogobernu handiago batek ekonomian eta zerbitzu publikoetan izango lukeen eraginaz aritu gara. Nolabait esateko, ongizatearekin loturiko arloetan zer nolako eragina izango lukeen ikusi dugu. Bietan, alderdi abertzaleetako jarraitzaileen artean ezberdintasun gutxi sumatu dugu. Alderdi ez abertzaleetako jarraitzaileen artean aldiz, ezberdintasunik badago. PSErekin identifikatzen diren herritarren posizioa nahiko banandua dagoela ikusi dugu, aldiz, PPkoen artean, autogobernuak bai ekonomian eta bai zerbitzu publikoetan sor lezakeen kaltearen ideia gailentzen da.

IV.3.29. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina zerbitzu publikoetan begikotasun politikoaren arabera (2005)




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Jarraian, autogobernuak bestelako bi auzietan izan lezakeen eraginaren inguruan arituko gara, elkarbizitzan, eta bakean hain zuzen ere. Autogobernu handiago batek elkarbizitzan izan dezakeen eraginari dagokionean, herritarren %46a baikor agertzen da eta lagunduko liokeela uste du. %22aren aburuz, kalte egingo lioke, %13arentzat ez lioke lagunduko ezta kalte egingo ere eta %20ak ez daki edota ez dio erantzuten galdera honi.

Elkarbizitzari dagokionean ere, nortasun subjektiboaren arabera autogobernu handiago baten balizko eraginaren iritziak oso bestelakoak dira. Euskaldunak sentitzen diren %69ak autogobernu handiagoak elkarbizitari lagunduko liokeela uste du. Euskaldun bezain espainiar sentitzen diren artean aldiz, gehiago dira kalte egingo liokeela uste

dutenak (%36), lagunduko liokeela uste dutenak baino (25%). Espainiarren artean, %47ak autogobernu handiago batek elkarbizitzari kalte egingo liokeela uste du, %33arentzat, ez lioke lagunduko, ezta kalte egingo ere, eta %14ak bakarrik uste du elkarbizitzan eragin positiboa izango lukeela.

IV.3.30. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina elkarbizitzan nortasun subjektiboaren arabera (2013)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Herritarren begikotasun politikoari dagokionean, ekonomia eta zerbitzu publikoekin ikusi bezala, alderdi abertzaleekin identifikatzen direnak, autogobernu handiago batek elkarbizitzan ere positiboki eragingo lukeela uste dute. Berriro ere, Ezker Abertzaleko jarraitzaileak dira autogobernuaren handitze baten eragin positiboa baikorren baloratzen dutenak. Aurreko bi auzietan, PSErekin identifikatzen diren herritarrek jarrera bananduak azaltzen zituzten; elkarbizitzari dagokionean aldiz, kalte egingo liokeela uste dutenen portzentajea nagusitzen da (%40). PPrekin identifikatzen direnen artean ere jarrera hau gailentzen da, are eta indar gehiagorekin gainera (%58) (ikus IV.3.13.taula).

2013. urtean ere, autogobernu handiago batek elkarbizitzan izan dezakeen eraginaz galdetzen dela ikus dezakegu. 2005eko ikerketako datuekin alderatuz, ekonomian bezala, autogobernuak elkarbizitzan lagundu edo kalte egingo duela adierazten dutenen portzentajea txikitzen dela ikus dezakegu. 2013ko datuen arabera, handituz doa autogobernu handiagoak elkarbizitzan inongo eraginik ez lukeela uste dutenen portzentajea.

Honela, 2013ko datuei erreparaturik, herritarren %41arentzat autogobernu handiagoak elkarbizitzari lagundu lioke, %29arentzat ez luke inongo eraginik izango eta %17arentzat kalte egingo lioke (ikus IV.3.14.taula).

IV.3.13. Taula: Autogobernu handiagoaren eragina elkarbizitzan begikotasun politikoaren arabera (2005)

	Ezker						
	EAJ	PSE	PP	EA	Aralar	Abertzalea	Guztira
Lagunduko lioke	66	22	9	65	68	82	46
Kalte egingo lioke	8	40	58	8	10	4	22
Eraginik ez	10	16	11	8	12	7	13
Ed/Ee	16	23	21	20	10	7	20
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)


IV.3.14. Taula: Autogobernu handiagoaren eragina elkarbizitzan 2012ko bozka oroitzapenaren arabera (2013)

	IU-Ezker							
	EAJ	EHBildu	PSE-EE	PP	UPyD	EB	Anitza	Guztira
Lagunduko lioke	58	68	19	18	0	43	33	41
Kalte egingo lioke	11	7	26	41	64	21	9	17
Eraginik ez	24	19	46	28	33	31	57	29
Ed/Ee	7	7	9	13	3	5	0	14
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 51. Soziometria (2013)

2012ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapena kontuan harturik, EAJ (%58) eta EH Bilduko (%68) boto-emileen aburuz, autogobernuak elkarbizitzan eragin positiboa luke, portzentaje esanguratu batentzat eraginik ez baluke izango ere, EAJ (%24) eta EH Bildu (%19). PSEko boto-emileen artean nagusitzen den iritzia aldiz, autogobernu handiagoaren eragin eza litzateke, ondoren, kaltetu egingo lukeela uste dutenak (%26). PSEko boto-emileen %19arentzat autogobernu handiago batek eragin baikorra luke elkarbizitzan, PPkoen %18ak bezala. Dena den, PPko boto-emileen artean gehiago dira autogobernu handiago batek elkarbizitza kaltetuko lukeela uste dutenak (%41), ez lukeela ez lagunduko, ez kaltetuko uste dutenak baino (%28) (ikus IV.3.31. grafikoa).


IV.3.31. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina elkarbizitzan 2012ko bozka oroitzapenaren arabera (2013)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 51. Soziometria (2013)

Bukatzeko, autogobernuak bakea lortzen zenbatean lagundu edo kaltetu dezakeen galdetzen zaiei. Inkestatuen %48ak autogobernu handiagoak bakea lortzen lagunduko lukeela uste du, %18arentzat kalte egingo lioke eta %12arentzat ez lioke lagunduko, ezta kalte egingo ere.

IV.3.32. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina bakea lortzeko nortasun subjektiboaren arabera (2005)




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Arlo honetan ere iritziak oso ezberdinak dira nortasun subjektiboaren arabera. Euskaldunen %71arentzat autogobernu handiago batek bakea lortzen lagunduko luke. Euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnak nahiko iritzi bananduak dituzte auzi honetan ere, %28ak lagunduko liokeela uste du eta %29arentzat aldiz kalte egingo lioke. Espainiarren gehiengoa (%45) autogobernu handiagoak bakearen lorpenari kalte egingo liokeela uste du (ikus IV.3.32. grafikoa).

Herritarren begikotasun politikoari dagokionean, ekonomia, zerbitzu publikoak eta elkarbizitzarekin ikusi bezala, alderdi abertzaleekin identifikatzen direnak autogobernu handiago batek bakegintzan ere positiboki eragingo lukeela uste du. Berrito ere, Ezker Abertzaleko jarraitzaileak dira autogobernuaren handitze baten eragin positiboa baikorren baloratzen dutenak. Ekonomiaz eta zerbitzu publikoez aritu garenean, PSErekin identifikatzen diren herritarrek jarrera bananduak azaltzen zituzten; bakearen lorpenari dagokionean aldiz (elkarbizitzarekin bezala), kalte egingo liokeela uste dutenak gehiago (%32) dira, lagunduko liokeela adierazten dutenak baino (%23). PPrekin identifikatzen direnen artean ere jarrera hau gailentzen da, eta are eta intentsitate gehiagorekin (%53).

IV.3.33. Grafikoa: Autogobernu handiagoaren eragina bakea lortzeko begikotasun politikoaren arabera (2005)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Autogobernuaren 25 urteen balorazioa eta Estatutu Berriaren proposamena (2005)

Azpimarratzekoa da ere autogobernu handiago batek, ekonomian, zerbitzu publikoetan, bakean edota elkarbizitzan izan lezakeen eraginaz

galdetzean, ez dakiela edo erantzuten ez dutenen kopurua altua. Autogobernu handiago batek arlo horietan eraginik izango ez lukeenaren ideia azaltzen duten herritarren portzentajea ere esanguratsua da, bereziki PP eta PSE alderdiak begiko dituztenen artean. Posible da, herritar hauen artean, autogobernu handiago baten ontasunen inguruko espektatibak baxuak izatea. Edota autogobernu handiago bat ez izateak arlo horietan sorrarazi duen edo lezakeen kaltearen ideia errefuxatuko lukete. Honela, finean, auzi guzti horietako egoera autogobernu maila handiago edo txikiago baten arabera ez dela adierazi nahi da. Alderdi espainolisten jarraitzaileentzat hortaz, autogobernua ez litzateke ekonomia, zerbitzu publikoak, elkarbizitza edota bakegintzan eragin zuzena lukeen faktorea, are gutxiago, auzi guzti horiek hobetuko lituzkeen berme adierazpena. Eta alderantziz, abertzaleentzat, autogobernua litzateke auzi horiei irtenbidea edo hobekuntza ekarriko liokeen tresna posible bakarra. Izenean dago joko.

Balitzko autogobernu handiago batek arlo ezberdinetan izan ahal duen eraginari buruzko iritzi ezberdinak ikusi ditugu. Agerikoa da nortasun subjektiboaren arabera eta bozka oroitzapenaren arabera oso posizio ezberdinak dituztela inkestatuak. Ekonomian, zerbitzu publikoetan, elkarbizitzan eta bakearen lorpenen izan dezakeen eraginaz galdetu zaie eta, guztietan, euskaldunak sentitzen direnak eta alderdi abertzale ezberdinak begiko dituztenak dira autogobernu handiago batek eragin positiboa izango lukeela uste dutenak.

Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen eta PSE alderdiaren zaleen jarrerak nahiko bananduak daude. Halere, elkarbizitza eta bakea hizpide izan ditugunean autogobernuaren handitze batek bi auzi horietan kalte egingo lukeela adierazi dutenak gehiago dira. Hortaz, badirudi ezberdin ikusten dituztela autogobernu handiago batek baliabide eta zerbitzuetan izan ditzakeen onurak, eta, honek, gai politiko/ideologikoagoetan izan dezakeen eragina. Posible da, PSE alderdia Eusko Jaurlaritzan egon izanak, eta kudeaketan parte hartu izanak ere eragina izatea ekonomia eta zerbitzu publikoei dagokionean autogobernu handiago baten inguruan beste gaietan baino jarrera dudakorragoa azaltzeko orduan. Bakea eta elkarbizitzari dagokionean aldiz, autogobernu mailaz haratago dagoen ez bai bat bezala ikusi nahi dute, eta ez lukete ontzat emango autogobernu maila handitzearen premisa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan bakea eta elkarbizitza lortzeko berme edo baldintza.

Espaniar sentitzen direnak eta PPrekin identifikatzen direnak dira, autogobernu handiago batek arlo guzti horietan kalte egingo liokeela uste dutenak. Gogoan izan behar dugu, nortasun subjektibo ezberdinetatik haratago doala azken hogeita bost urteetako autogobernuaren balorazio positiboa. Aldiz, autogobernua handitzearen inguruko jarrerak eta balizko eraginaren usteak oso bestelakoak dira.


e) Euskal herritarrek hobesten duten autogobernu mailaz, bitartekoez eta estatu ereduaz

Behin autogobernua zabaltzearen inguruko proposamen eta balizko eraginak aztertutik, euskal herritarrek hobesten duten autogobernu maila eta bitarteko eta ereduaz arituko gara. 2009ko Soziometroan inkestatuei hobesten duten autogobernu mailaz galdetzen zaie galdera hau medio: *Aukera hauetatik, zein iruditzen zaizu egokiena Euskal Herriko arazo politikoak konpontzeko?*

Inkestatuen %22ak oraingo Estatutua aldatu beharko litzatekeela uste du, XXI.mendera egokitzeko, %20aren aburuz, Estatutua bete behar da, falta diren transferentziak osatuz, %15a Euskal Herriaren independentziaren alde agertzen da eta %10arentzat egokiena Autonomi-Estatutu berria egitea litzateke. Laburbilduz, euskal herritarren gehiengoa aldaketa baten alde agertzen da, aldaketa horren nondik norainokoa edota horrek ekar lezakeen egitura aldaketa beharraren inguruko iritziak ezberdinak badira ere (ikus IV.3.34.grafikoa).

Modu honetara, herritarren %20arentzat egungo Estatutua baliagarria litzateke, beti ere transferentziak osatuz gero, %22arentzat egungo Estatutua aldatu beharko litzateke eta %12arentzat Estatutu berri bat izan beharko genuke. Herritarren %15ak aldiz, ez du uste Estatuaren aldaketak Euskal Herriko arazoak konponduko lituzkeenik eta Euskal Herriko independentziaren aldeko apustua egingo luke. Aipatzekoa da ere %30ak ez dakiela edo ez diola erantzuten galdera honi. Markoari erreparatzen badiogu, herritarren gehiengoa aldaketaz mintzo bada ere, %52ak hobesten duen autogobernu maila egungo markoaren baitan kokatuko litzateke, hau da Estatutuaren baitan, osatuz edo berrituz. Herritarren %15a hausturaren alde agertzen da.

IV.3.34. Grafikoa: Hobetsitako autogobernu maila 2009ko bozka oroitzapenaren arabera (2009)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 41. Soziometra (2009)

Hobetsitako autogobernu maila 2009ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapenarekin gurutzatu ondorengo emaitzak izango ditugu hizpide oraingoan. Estatutua falta diren transferentziak osatzearen aukerarekin adostasun maila altuena PP (%30), PSE (%25) eta EAJren (%28) boto-emaitzen artean ikus dezakegu. Oraingo Estatutua aldatzearen inguruan adostasun maila altuena PP (%33), PSE (%31) eta Aralarreko (%29) boto-emaitzen artean ikus dezakegu. Kontuan izan behar dugu Estatutua aldatzearen jarrerak, ez duela autogobernu handiago edo txikiagoa baten aldeko norabiderik erakusten. Euskal Herriaren independentziaren aukera, baliogabeko botoa (2009ko hauteskunde autonomikoetan Ezker Abertzalearen botua baliogabetua izan zen) egin zuten artean nagusitzen da (%61). Aralarreko boto-emaitzak dira independentziaren aukera gehien babesten duten hurrengoak (%38) (ikus IV.3.34. grafikoa).

Hortaz, PP (%66a) eta PSEko boto-emaitzek (%56) hobesten duten autogobernu maila Estatutua betetzean edota oraingo Estatutua aldatzearen aukeren baitan koka genezake. EAJren boto-emaitzen %50ak

eta Aralarren boto-emaielen %46ak ere, bi aukera horiek hobesten dituzte, baina EAJren kasuan %17ak Euskal Herriaren independentziaren aukera ere aipatzen du, Aralarren boto-emaielen artean, %38ak. Baliogabeko botua eman zuen gehiengo zabal batentzat aldiz, Euskal Herriaren independentzia litzateke Euskal Herriko arazoak konpotzeko aukera hoberena (%61), eta %24a bakarrik azaltzen da, Estatutua bete (%7), aldatu (%8) edota berri bat egitearen alde (%9). Alderdi abertzaleetako hauteslegoaren artean hortaz, agerikoak dira egungo markoaren baliozkotasunaren inguruko iritzi ezberdinak. EAJ bozkatu zutela adierazten dutenen artean iritzi ezberdinak ikus ditzakegu baina gehienek hobetsiko luketen autogobernu mailak Estatutua luke bitarteko edo marku. EA eta Aralarreko boto-emaielen artean antzeko aukerak ikus ditzakegu, hauen artean independentziaren aukera hobesten dutenen portzentajea EAJkoen artean baino handiagoa bada ere (ikus IV4.3.34. grafikoa).

2011ko *Kultura Demokratikoa* ikerketan ere autogobernuaz galdetzen da, baina galderaren formulazioa bestelakoa da: *Aukera hauetatik, Euskal Herriko autogobernuari dagokionean zein aukera duzu gustukoena?* Inkestaturen %20ak ontzat ematen du Gernikako Estatutua baina transferentziak osatzea beharrezkotzat jotzen du. %14arentzat Estatutuak Euskadiren autogobernurako aukera nahikoak eskaintzen ditu. %12ak egungo Estatutua autogobernu gehiagorekin eraldatu beharko litzatekeela uste du, %9aren aburuz, Euskadik estatua izan beharko luke Espainia federal batean eta %21ak Euskadiren independentzia planteatu beharko litzatekeela uste du.

Askotariko iritziak ikus ditzakegu Euskadiren autogobernuaren egikaritzeari dagokionez. %32arentzat egungo Estatutuak bermatuko luke Euskadiren autogobernua, edo formula egokien bezala ikusten dute. %12arentzat erreforma bat beharrezkoa litzateke autogobernu gehiago bermatu ahal izateko eta %30ak aldiz, estatu federal edota independentearen aukera edo bidea du gustukoena Euskadiren autogobernurako bitarteko gisa.

Inkestaturen bozka oroitzapenari erreparatzen badiogu, autogobernurako formulazio guzti hauek oso era ezberdinean ikusten dituztela esan genezake. Alderdi ez abertzaleetako hauteslegoari begira, 2009ko inkestaren datuen ildo beretsuan, PP eta PSEko boto-emaielak dira autogobernuari dagokionean, egungo Estatutuaren formula gehien babesten dutenak. PPko boto-emaielen %35ak Estatutuak Euskadiren

autogobernurako nahiko berme eskaintzen dituela uste du eta %19ak Gernikako Estatutua ontzat ematen du, osatu beharra badago ere. PSEko boto-emaleen iritzia dagokionean, %56ak ontzat ematen du egungo Estatutua, %30ak osatu beharra dagoela azaltzen du eta %26ak aldiz, Estatutuak Euskadiren autogobernurako nahiko berme eskaintzen dituela uste du.


IV.3.15. Taula: Autogobernuari buruzko iritzia 2009ko bozka oroitzapenaren arabera (2011)

	EAJ	PSE-EE	PP	Aralar	EA	Baliogabeko	
						botua	Guztira
Estatutuak autogobernurako nahiko berme	8	26	35	1	4	2	14
Gernikako Estatutua osatu behar da	19	30	19	7	15	3	18
Estatutua aldatu behar da autogobernu handiagorekin	14	14	12	19	14	6	12
Euskadik E ^o -a izan beharko luke Espainia federalean	13	10	9	16	14	7	9
Euskadiren independentzia planteatu beharko litzateke	32	3	0	50	36	78	21
Ed/Ee	13	17	25	8	15	3	26
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Kultura Demokratikoa (2011)

Alderdi abertzaleei dagokionean, EAJko boto-emaleen %32ak Euskadiren independentzia planteatu beharko litzatekeela uste du, %19ak Gernikako Estatutua ontzat ematen du, baina transferentziak osatu beharko litzatezkeela uste du eta %12arentzat egungo Estatutua autogobernu gehiago barneratuz erreformatu beharko litzateke. Aralarreko boto-emaleen artean aldiz, independentziaren aukera da erantzun gehien jaso duen aukera (%50). Jarraian, egungo Estatutuaren erreforma beharrezkotzat jotzen dutenak (%19) eta Euskadik, Espainia federal batean, estatua izan beharko lukeela uste dutenak daude (16%). Bozka baliogabea egin zutenak dira, ia bere osotasunean Ezker Abertzaleko boto-emaleak, autogobernuaren formula bakarrean erantzun portzentaje handiena azaltzen dutenak; %78arentzat Euskadiren independentzia planteatu beharko litzateke (ikus IV.3.35.grafikoa).

IV.3.35. Grafikoa: Autogobernuari buruzko iritzia 2009ko bozka oroitzapenaren arabera (2011)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Kultura Demokratikoa (2011)


Modu honetara, alderdi abertzaleei eta alderdi espainolistei bozka ematen dieten herritarren artean ezberdintasunak antzeman ditzakegu baina, era berean, autogobernuarekiko lehenesten diren bideak ere anitzak dira alderdi abertzaleetako boto-emaileen artean. PP eta PSEko boto-emaileak dira gaur egungo Euskadiren *statusa* gehien defendatzen dutenak. Hau da, Gernikako Estatutua da eurentzat Euskadiren autogobernua bermatuko lukeen eta gustukoaren duten formula.

Alderdi abertzaleen artean, aldiz, gehiago dira egungo ereduaren aldaketaren aldekoak, horretarako proposatutako aukeren artean lehentasunak ezberdinak badira ere. EAJri dagokionean, %32ak Euskadiren independentzia planteiatu beharko litzatekeela uste badu ere, %27ak hein handi batean ontzat ematen du egungo Estatutua, eta beste %27arentzat Estatutuaren erreforma edota Euskadi Espainia federal baten barneratzea lirateke autogobernurako bide egokienak. Aralarren, baina bereziki bozka baliogabetua egin zuten Ezker Abertzalearen boto-emaileen artean aldiz, independentziaren aukera era indartsuagoan babesten da.

2011ko ikerketan Estatuaren antolaketa eredu ezberdinen inguruan eginiko galderari ere helduko diogu autogobernu mailaren posizioetatik haratago, lehenesten diren marko edota bitartekoetara hurbildu asmoz. Herritarren %36ak gogokoen duen estatu eredu gaur egungoa da, hau da, erkidego ezberdinek osaturiko estatu. %19a erkidegoek gaur egun baino autonomia handiagoa izango luketen estatu federal baten alde agertzen da, eta %22ak nazionalitateei estatu independenteak izatea aitortuko liekeen estatu eredu nahiko lukete (ikus IV.3.36.grafikoa).

Auzi honetan ere ezberdintasunak agerikoak dira bozka abertzalea eta espainolista egiten dutenen artean, baina auzi honetan gainera, bozka espainolista egingo luketen boto-emaileen artean ere ikus ditzakegu ezberdintasunak. Modu honetara, PSEko (%59) eta PPko (%42) inkestaturen artean lehenesten den estatu eredu, gaur egungoa litzateke. Erantzun kopuru gehien jaso duen bigarren aukerari dagokionean aldiz, PSEko boto-emaileak estatu federal baten hautua egingo lukete (%22), PPkoek aldiz, autonomiarik gabeko gobernu zentral bakarra lukeen estatuaren alde agertzen dira (%30).

IV.3.36. Grafikoa: Estatuaren antolaketa ereduari buruzko iritzia 2009ko bozka oroitzapenaren arabera (2011)




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Kultura Demokratikoa (2011)

Autogobernu eredu ezberdinekin ikus bezala, EAJko boto-emaileak nahiko bananduak agertzen dira estatu antolaketa ereduaren inguruan,

%36ak egungo estatu eredua defendatzen du, %22arentzat estatuak nazionalitateei estatu independenteak izateko aukera eman beharko lieke eta %19ak estatu federal bat lehenetsiko luke. Aralar eta Ezker Abertzaleko boto-emaileen (bozka baliogabea egin zutenak) gehiengo zabalak aldiz, nazionalitateei estatu independenteak izateko aukera emango liokeen estatu eredua defendatzen du. Erkidegoei gaur egungoa baino autonomia gehiago emango liokeen estatu federala, Aralarreko boto-emaileen %20ak eta bozka baliogabetua egin zutenen %14ak lehenetsiko luketen bigarren aukera litzateke, hori bai, lehen aukeratik oso urrun.

Autogobernuari buruzko iritzia eta Espainiako Estatuaren antolaketa eredu ezberdinaren inguruko jarrerak ikusi ondoren, aurrera begira egoera konpontzeko herritarrek gustukoak dituzten alternatiba nagusiei erreparatuko diegu. 2013ko Euskobarometroaren erantzunei helduaz, euskal herritarrek egungo egoera konpontzeko aldaketaren bat beharrezkoa ikusten dutela agerikoa da.

IV.3.37. Grafikoa: Egungo egoera konpontzeko alternatiba gustukoena herritarren bozka oroitzapenaren arabera (2013)



Iturria: Euskobarometroa (2013)

Egoerak bere horretan jarraitu beharko lukeenaren ideia defendatzen du herritarren %19,3ak. Herritarren erdiarentzat baino gehiago, erreforma bat beharrezkoa litzateke; %27,8ak autogobernu handiagoa izateak egungo egoera konpontzeko luke eta %23,3arentzat transferentziak osatu beharko lirateke. Herritarren %18,4ak ez luke konponbide bezala egungo

markuaren baitako erreformarik onartuko eta ardatz subiranista jorratzea litzateke egungo egoera konpontzeko alternatiba gustukoena.

Euskal herritarren egungo egoera konpontzeko alternatibak zeintzuk diren ikusi ditugu. Jarraian, herritarrek gustukoen dituzten alternatibak bozkaren arabekoak nolakoak diren ikusiko dugu. Alderdi politikoen boto-emaileen arteko ezberdintasunak hemen ere nabarmenak dira. Batetik, ezberdinak dira alderdi abertzaleei eta alderdi espainolistei bozka ematen dieten herritarren jarrerak. Alderdi espainolistei bozka ematen dietenen artean alternatiba gustukoena egoera bere hortan uztea litzateke eta, jarraian, transferentziak osatzearena, behin baino gehiagotan aipaturiko *statu quo*aren defentsa. Halere, alderdi ez abertzaleen baitan ere ezberdintasunak handiak dira. PSEko boto-emaileen %30,8arentzat autogobernua handitzea litzateke egungo egoera konpontzeko alternatiba gustukoena eta aukera honi transferentziak osatzearena gehitzen badiogu (%19,2a), aldaketaren bat beharrezkoa ikusten dutenak gehiago lirake, dagoen bezala uztearen aldekoak baino. PPko boto-emaileen artean aldiz, egoerak ez luke aldatu beharko. Azpimarragarria da PPko boto-emaileen artean auzi honi erantzun ez dietenen portzentaje altua.

Alderdi abertzaleen jarraitzaileen artean ere nabarmenak dira ezberdintasunak. Antzekotasun bakarra egoera bere hortan uztearen aldekoek duten portzentaje baxua litzateke. EAJko boto-emaile gehienak erreformaren aldekoak lirake; %37,5ak transferentziak osatu beharko lirakeela uste du eta %30,9arentzat autogobernu handiago bat litzateke egungo egoera konpontzeko alternatiba gustukoena. EH Bilduren boto-emaileen artean aldiz, hausturaren aldeko apustua nabarmena da, %61,8arentzat erreforma ez litzateke egungo egoera konpontzeko alternatiba eta ardatz subiranista jorratu beharko litzateke. Halere, bere boto-emaileen %23,5arentzat autogobernu handiago batek egoera konponduko lukeela uste du.

Agerian geratzen da hortaz, euskal herritarren gehiengoak aldaketa bat beharrezkotzat jotzen duela egoera konpontzeko. Gehienek, aldaketa hori erreformaren bidetik egitea nahiko lukete, EAJ eta PSEko boto-emaileak kasu. EH Bilduko boto-emaileak aldiz, aldaketa nahi badute ere, ez dute uste egungo markotik abiatuta egin beharko litzatekeenik. Atal honetan honetan behin eta berriro azaldu moduan, abertzaleek puntu amankomunak azaltzen dituzte Estatutua gaingitze bidean. Baina talka, aldaketa hori bideratzeko tresna eta bitartekoan kokatzen da, erreforma eta hausturaren arteko borrokan hain zuzen ere.

Hortaz, eta datu ezberdinak aztertu ondoren, berretsi ahal dugu Connorren seigarren hipotesia? *“Banaketarekiko izan dezaketen jarrera kontuan izan gabe, autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema politikoaren aldaketaren aldekoak dira”*. Atal honetan azterturikoa honela laburbildu dezakegu:

- *Autogobernuaren balantzea*: Inkestatuen %65ak autogobernuaren balantze positiboa egiten du. Ezberdintasunak izanik ere, nortasun subjektiboaren arabera definitu diren hiru taldeetako inkestatuen artean nagusitzen da autogobernuarekiko balantze positiboa. Begikotasun politiko ezberdina duten herritarren artean ere, autogobernuarekiko balantze positiboa nagusitzen da.
- *Gernikako Estatutuaz* galdetuta, inkestatuen %37ak hein batean, gustura dagoela adierazten du eta %29ak Estatutuak gogobetetzen duela azaltzen du. %19a ez dago gustura egungo Autonomia Estatutuarekin eta %15ak ez daki, edota ez dio erantzuten galdera honi. Alderdi espainolisten artean, boto-emaeilen gehiengoa gustura dago (*bai+hein batean* erantzunak) egungo Estatutuarekin, baina baita EAJko boto-emaeileak ere (%73a). Aralarreko boto-emaeilei dagokienean, %45a hein batean Estatutuarekin gustura azaltzen bada ere, %41ari ez dio gogobetetzen, eta erantzun aukera hau %68ra handitzen da botu baliogabetua egin zutenen artean. Autogobernuaren balantzea positiboa izanik ere, Estatutuarekiko gogobetetzea baxuagoa da. Erantzun ezberdintasuna, alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritar askok azaltzen duten marko aldaketaren nahian koka dezakegu.
- *Estatutuaren erreferenduma* errepikatuz gero, 2013an, %39ak baiezkoa bozkatuko lukeela azaltzen du, %15,8ak ezezkoa bozkatuko luke, %18a abstenitu egingo litzateke eta herritarren %7,6ak txuriz bozkatuko lukeela adierazten du. Esanguratsua da ez dakiela edota galdera honi erantzuten ez dion inkestatu kopurua altua, %19,6a, hain zuzen ere. EAJ eta PSEko boto-emaeilen artean aldeko bozkaren jarrera nabaria da. PPko boto-emaeilen artean ere, gehiago dira baiezkoa emango luketeela azaltzen dutenak (%43,8), baina esanguratsua iruditzen zaigu boto-emaeilen herenak (%34,4) galdera honi ez erantzutea edota erreferenduma errepikatuz gero, euren bozkaren zentzua zeingo izango litzatekeen ez jakitea. EH Bilduko boto-emaeilen artean ezezkoa bozkatuko luketeela adierazten dutenak dira nagusi (%44,7), %20,3ak baiezkoa bozkatuko lukeela adierazten badu

ere. Gogoan izan behar dugu, PSE eta EAJko boto-emaileak direla, eta era lausagoan, PPkoak, Autonomia Estatutuarekin pozik gehien agertzen direnak, osatu beharra uste dela adierazten dutenak barne. Ezker Abertzaleko boto-emaileen artean aldiz, gehiago dira edozein Autonomia Estatutua baztertzen dutenak. Honela, Estatutuarekiko gogobetetze osoa izan gabe ere, herritar askok, EAJkoak bereziki, erreferendumean baiezkoa bozkatuko lukete, 1979an eginiko hautua berretsiz honela.

- *Estatutua zabalitzeari* dagokionean, inkestaturen %56a Estatutua zabaltearen proposamenaren alde agertzen da eta %28ak ez daki, edota ez dio erantzuten galdera honi. Inkestaturen nortasun subjektiboaren arabera iritziak ezberdinak dira. Modu honetara, euskalduna sentitzen den %73a zabalte horren alde dago, euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean Estatutuaren zabaltearen aldekoak %51a dira. Aldiz, espainiarrak sentitzen direnen artean, aldeko (%23) eta aurkako jarrerak (%20) nahiko parekatuak daude, ahantzi gabe, espainiarren %44ak ez diola galdera honi erantzun. Gainera, herritarren gehiengoa orokorrean bat dator Estatutu Berrian jasotako proposamenekin. Dena den ezberdintasunak agerikoak nortasun subjektiboa eta begikotasun politikoaren arabera. Alderdi abertzaleekin eta PSErekin identifikatzen direnak Estatutua zabaltearekin ados daude. PPrekin identifikatzen diren herritarrak aldiz, nahiko bananduak daude auzi honetan.
- *Autogobernu handiago batek arlo ezberdinetan izan abal duen eraginari buruz*, ekonomian, zerbitzu publikoetan, elkarbizitzan eta bakearen lorpenen izan dezakeen eraginaz galdetu zaie, eta guztietan, euskaldunak sentitzen direnak dira autogobernu handiago batek eragin positiboa izango lukeela uste dutenak. Euskaldun bezain espainiar sentitzen direnen jarrerak nahiko bananduak daude eta espainiar sentitzen direnak autogobernu handiago batek arlo horietan kalte egingo liokeela uste dute. Gogoan izan behar dugu, nortasun subjektibo eta begikotasun politiko ezberdinetatik haratago doala azken hogeita bost urtetako autogobernuaren balorazio positiboa. Aldiz, autogobernua handitzeari inguruko jarrerak eta balizko eraginaren usteak oso bestelakoak dira.
- *Estatu ereduari dagokionean*, herritarren %36ak gogokoen duen estatu eredu gaur egungoa da, hau da, erkidego ezberdinek osaturiko estatua. %19a erkidegoek gaur egun baino autonomia

handiagoa izango luketen estatu federal baten alde agertzen da, eta %22ak nazionalitateei estatu independenteak izatea aitortuko liekeen estatu ereduaren lehenetsiko luke.

- *Aurrera begira hobetsitako autogobernu maila edo ereduaz*, askotariko iritziak ikus ditzakegu Euskadiren autogobernuaren egikaritzeari dagokionean. %32arentzat egungo Estatutuak bermatuko luke Euskadiren autogobernua, edo formula egokien bezala ikusten du. %12arentzat erreforma bat beharrezkoa litzateke autogobernu gehiago bermatu ahal izateko eta %30ak aldiz, estatu federal edota independentearen aukera edo bidea dute gustukoaren Euskadiren autogobernurako bitarteko gisa. Autogobernuaren edukiaz baina, ezbaia, autogobernu hori sostengatuko lukeen ereduaren dago. Ezberdintasunak gainera abertzale/ez abertzale dikotomia gainditzen dute eta alderdi abertzaleen baitako iritzi eta estrategia ezberdinak agerikoak dira.
- *Egoera konpontzeko alternatiba gustukoarenaz*, euskal herritarren gehiengoak aldaketa bat beharrezkotzat jotzen du egoera konpontzeko. Aldaketa hori, gehienek, erreformaren bidetik egitea nahiko lukete, EAJ eta PSEko boto-emaileak kasu. EH Bilduko boto-emaileak aldiz, aldaketa nahi badute ere, ez dute uste egungo markotik abiatuta egin beharko litzatekeenik.

Herritarrek azken urteetako autogobernuaren balantze positiboa egiten dute eta, hein batean, egungo Autonomia Estatutuaren jadanekotasuna babesten dute, berau osatzea edo eraldatzea beharrezkotzat jotzen badute ere. Connorren hipotesiari erreferentzia eginez, euskal herritar gehienak autonomia handiago baten aldekoak direla agerikoa da. Bestelako kontua da autonomia handiago hori ahalbidezeko tresna egokiena adostea eta zenbatean babesten den egungo sistema politikoaren aldaketa. Estatutua zabaltzearen alde agertzen dira, espainiarrak sentitzen direnen artean iritziak bananduak badaude ere. Gainera, Ibarretxek 2005ean aurkeztutako Estatutu Berriaren proposamenak babesa du euskal herritarren artean.

Autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema edo ereduari dagokionean, iritziak askotarikoak dira. Herritarren zati handi batek ez du beharrezkotzat ikusten marku politikoaren aldaketa, eta egungo Estatutuarekin gogobete ahal dira herritar askoren autogobernu nahiak. Beti ere, erreforma bat behar duela edota transferentziak osatu behar direla uste dutenak kontuan hartuaz. Dena den, ez da nolana hikoia, marku politikoaren aldaketaren alde agertzen den herritar kopurua, estatu federal

edo independente bat lehenetsiz, egungo estatu ereduaren baitan eman daitezkeen aldaketak baino. Hortaz, autonomia handiagoa baten alde leudeke euskal herritarrak, nortasun subjektiboa edo bozkaren arabera ezberdintasunak badaude ere.

Dena den, banaketa ardatz nagusia autonomia edota autogobernu maila handiago hori egikaritzeko erduan legoke. Hor kokatu dezakegu autogobernua hain positiboki baloratzen duten herritar askok Estatutuarekiko azaltzen duten gogobetetze baxua. Baina era berean, berriro ere 1979ko Gernikako Estatutuaren erreferenduma errepikatuz gero, herritar askok baiezkoren aldeko hautua errepikatuko lukete. Herritar asko oreka zail baten aurrean kokatzen direla esan genezake. 1997ean ELAk Estatutuaren heriotza aldarrikatzeak, ordurarte Estatutuaren defendatzaile sutsuenak zirenen aldaketa ere sorrarazi zuen eta, gutxienean, Estatutuaren berriztapen baten aldeko aldarrikapenari heldu zioten. Eta, alderantziz, ordurarte Estatutuari kasu handiegirik egin ez zioten alderdiak, bere defentsaren ikurra hartu zuten. PSEk, eta bereziki PPK azken urteetan erakutsitako Estatutuaren aldeko defentsa, harresi defentsa bailitzan ulertu ahal dugu. Prozesuak suposatzen duen sokatiran posizioak galtzen zihoazela ikusirik Estatutuaren onarpena dute azken erremedioa.

Hortaz, zaila da zehazten, bereziki, EAJri dagokionean, zenbatean ukatzen duen egun bere xede politikoak betetzeko Estatutuak izan dezakeen balioa, edota ia ezinbestean heldu behar izan dion Estatutuaren heriotzaren aldarriari. Badirudi, aldeko eta aurkako diskurtsoek estrategiatik gehiago dutela, benetan Estatutuaren tresnaren egokitasunaren inguruko hausnarketa batetik baino. Batetik, Estatutua osatzeko transferentziak aldarrikatzen dira, eta bestetik, bere aldaketaren beharra azpimarratzen da. Eta hemen kokatzen da hain zuzen ere EAEko eztabaida politikoaren gako nagusia: marko aldaketaren behar edo premia ideia ezberdinak alderdi abertzaleak eta ez abertzaleak banatzen ditu.

Baina alderdi abertzaleen baitan dagoen talka ere handia da. EAJk aldarrikatzen duen autogobernu maila handiagoa Estatutu berri baten bidez egikaritzea posible ikusten du; Ezker Abertzalearen baitan, aldiz, edozein Estatuturen ideia ukatu izan da. Dena den, atal honetan, lau eta bosgarren hipotesietan ikusirikoa berresten da; herritar gehienak ez direla banaketaren aldekoak, autogobernu handiagoa baten aldekoak aldiz, bai. Autogobernu hori ze bitartekoren bidez egikaritu ahal denaren inguruan kokatzen da eztabaida: erreforma edo haustura.

Gutxiengo etnonazionalak hortaz, gutxienean autonomia maila handiagoa suposatu lukeen eredu baten aldekoak dira. Hori bai, Connorrek azaldu bezala, eta laugarren eta bosgarren hipotesietan ikusi bezala, independentziaren aldeko hautua ez da gailentzen den aukera. Etnokraziaren aldekoak lirateke gutxiengo nazionalako kideak eta horren isletako bat litzateke autogobernuaren balioespen positiboa eta autogobernu maila handiago batek ekarriko lituzkeen onuren ideien babes maila altua. Ikusi ahal izan dugun moduan ordea, autonomia edota autogobernu maila handiago batek ez du zertan hausturarik ekarri behar, eta modu honetara, gutxiengo etnonazionalaren parte esanguratsu batek ere, egungo Estatutuaren markuaren baitan kokatzen ditu egin beharreko aldaketak.

Abertzaletasunaren helburu politikoen artean kokatu dezakegu independentzia, baina egun ez da bere helburu politikoa, ez bakarra behintzat, ez eta konpartitua. Autogobernu maila handiagoaren nahia agerikoa bada ere, independentziaren aukera, horixe da, aukera, abertzale askok, baina ez guztiek, babesten duten aukera. Bestalde, autogobernu handiago batek independentzia nahiak baretu ala azkartu ahal dituenaren eztabaida ere hor dago eta zaila da aurreikuspenak egitea. Abertzaletasuna independentismoarekin parekatu baino, etnokrazia berarekin parekatu ahalko genuke, eta independentzia etnokrazia egikaritzeko bide posible bat bezala uler genezake. Zazpigarren hipotesian ikusiko dugun moduan, abertzaletasuna, eta zehazki bere bozka adierazpena, ez da independentzia nahien adierazle egokia.

4. BOZKA ETA SENTIMENDU SEPARATISTAREN ARTEKO HARREMANAZ

Bozka eta sentimendu separatistaren harremana aztertzeko Connorren zazpigarren hipotesia izango dugu kontuan:

7. Hipotesia: “Banaketaren aldeko alderdiak hauteskundeetara aurkez daitezkeen sistemetan, bozka ez da sentimendu separatistaren adierazle egokia”

Connorren hipotesi hau aztertzeko, lehenik eta behin, banaketaren aldeko alderdi bezala zeintzuk izango ditugun kontuan definitu behar dugu.

Alderdien diskurtso eta ibilbide historikoari erreparatuz, Ezker Abertzalea ordezkatu duten sigla ezberdinek banaketaren aldeko hautu argia azaldu dutela esan genezake. Connorrek gainera, hauteskudeetan aurkezteko aukeraren premisa ere barneratzen du. Hizpide ditugun urteetan bada hauteskudeetara aurkezteko aukerarik izan ez duen alderdirik, Ezker Abertzalea hain zuzen ere. Legez kanpo utzi ostean, sigla ezberdinak medio, hauteskunde autonomikoetan bere ordezkaritza politikoa izan du 2009ko hauteskunde autonomikoen salbuespenarekin. Urte horretan, Ezker Abertzalea ordezkatzan zuen alderdia, Batasuna, legez kanpo zegoen eta aurkeztutako hautagaitza alternatiboa ere baliogabetua izan zen.

EAri dagokionean, banaketaren aldeko alderdia dela esan genezake, Ezker Abertzalearekin alderatuz, jarrera lausoagoa erakutsi badu ere. Gainera, kontuan izan behar dugu aztergai ditugun urteetan EA zenbaitetan bakarrik aurkeztu dela, baina 2001 eta 2005ean EAJrekin izan zen koalizioan eta 2012ko hauteskudeetan EH Bildu koalizioaren baitan aurkeztu zen. EAJri dagokionean, banaketaren inguruan jarrera anbiguoak azaltzen dituela esan genezake. Dena den, alderdiaren diskurtsoetik haratago, alderdi ezberdinetako boto-emaitzen independentzia nahiak nolakoak diren ikusiko dugu, bozka eta banaketaren aldeko sentimendu edo nahiaren uztarketa aztertu bidean.

Connorren hipotesiaren nondik norakoak aztertzeko hiru alderdi hauek izango ditugu hizpide. Alderdi hauek EAeko hauteskunde autonomikoetan jasotako bozkari erreparatuko diogu, eta jarraian, urte horretan EAeko herritarren independentzia nahiak nolakoak izan ziren ikusiko dugu. Ondoren, alderdi abertzaleei bozka eman ziela azaldu dutenen independentzia nahiak nolakoak diren ikusiko ditugu, alderdi abertzale ezberdinei bozka ematen dietenen independentzia nahiak nolakoak diren ikusi asmoz. Connorren lau eta bosgarren hipotesietan herritarren nazionalismoak eta nortasun subjektiboak izandako bilakaera ikusi dugu eta zer nolako harremana zuten identitate horiek herritarren sentimendu independentistarekin. Oraingoan, bozka abertzalearen aldagaia ere barneratuko dugu herritarren banaketa nahien nondik norakoak osatzeko.

Horretarako, 1994tik aurrera izandako hauteskunde autonomikoak izango ditugu oinarrian. Hauteskunde hauen ondotik, urte hauetan bertan herritarrek azaldutako independentzia nahiak azalduko ditugu, elkarren arteko harremana edo tartea nolakoa den ikusteko. Hauteskunde

autonomikoen urtea eta inkesta urteak ez datoz beti bat, baina hizpide izango dugun inkesta guztiak hauteskunde autonomiko horietako bozka oroitzen dituzte erreferentziatzat. Esaterako, 1995ko inkestan herritarrek azaltzen dituzten independentzia nahiak 1994ko bozka oroitzen dituzte harturik aztertu ditugu.

4.1. 1994ko hauteskunde autonomikoak

Lehenik eta behin, 1994ko hauteskunde autonomikoetan alderdi abertzaleek jasotako bozka kopuruari egingo diogu erreferentzia. Hauteskunde hauetan alderdi abertzaleek 575.629 bozka jaso zituzten. Bozka kopuru honek botu baliodunaren %55,5a suposatzen du. Errolda osoa aintzat hartuko bagenu, %32,9a.

IV.4.1. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua (botu baliodunarekiko eta erroldarekiko %) (1994)

	Bozka	Botu balioduna(%)	Errolda(%)
EAJ	304.346	29,3	17,4
HB	166.147	16,0	9,5
EA	105.136	10,1	6,0
Bozka abertzalea	575.629	55,5	32,9
Guztira	1.044.085	1.037.901	1.749.250

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa.

1995eko inkestari heltzen badiogu, independentzia nahi handiak adierazten zituztenen portzentajea %30,9koa dela ikus genezake. Hortaz, agerikoa da alderdi abertzaleek jasotzen duten bozka kopurua (%55,5), independentzia nahi handiak azaltzen dituzten herritarrena baino handiagoa dela. Hortaz, bozka abertzalea ezin parekatu ahal dugu sentimendu independentistarekin; askoz gehiago dira alderdi abertzaleei bozka ematen dietenak, independentistak baino.

Bozka abertzalea eta sentimendu independentistaren arteko jauzia agerian geratzen da alderdi abertzaleei bozka eman zieten herritarren independentzia nahiak aztertzean. 1995. urteko datuak aztertuz, independentzia nahie dagokienean, %30,9ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %20,5ak independentzia nahi txikiak eta %26,3ak banaketarako inongo gogorik ez duela azaltzen du. PSE, PP eta EBri

bozka eman ziotela azaltzen dutenen gehiengoak independentziarako nahi txikiak edo batere ez duela azaltzen du.


IV.4.2. Taula: Independentzia nahiak 1994ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (1995)

	EAJ	EA	HB	IU/EB	PSE/EE	PP	Guztira
Nahi handiak	50,4	65,3	95,0	22,2	4,1	6,0	30,9
Nahi txikiak	17,7	18,4	1,0	27,8	29,3	22,0	20,5
Batere ez	13,4	2,0	1,0	23,6	50,3	68,0	26,3
Axolagabe	8,6	12,2	2,0	22,2	7,5	0,0	10,1
Ed/Ee	9,9	2,0	1,0	4,2	8,8	4,0	12,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

Alderdi abertzaleei bozka eman diotela azaltzen dutenen artean banaketaren aldeko jarrera nagusitzen da. Dena den, alderdi abertzaleei bozka ematen diotenen artean ere bada ezberdintasunik independentzia nahiei dagokionean.

IV.4.1. Grafikoa: Independentzia nahiak 1994ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (1995)



Iturria: Euskobarometroa (1995)

Honela, 1994ko hauteskunde autonomikoetan EAJri bozka eman ziola adierazten duen %50,4ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu;

%30,9ak aldiz, nahi txikiak (%17,6) edota batere independentzia nahirik ez duela azaltzen du (%13,3). EAri bozka eman ziola adierazi dutenen %65,3ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak; %20,3ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%18,3) edota batere ez duela azaltzen du (%2). HBri bozka eman ziotenak dira independentzia nahi handiak gehien azaltzen dituztenak (%95) eta %2ak bakarrik azaltzen du nahi txikiak (%1) edota batere nahirik ez duela (%1). Bozka abertzalea eta sentimendu independentistaren arteko jauzia nabaria da EAJko boto-emailengan, EAJ alderdiaren boto-emaileen erdiek soilik azaltzen dituzte independentzia nahi handiak.

4.2. 1998ko hauteskunde autonomikoak

1998ko hauteskunde emaitzei erreparatuz, alderdi abertzaleek 682.958 bozka jaso zituzten; botu baliodunaren %53,9a eta errolda osoaren %37,5a. 1999ean herritarren %39,8ak azaltzen zituen independentzia nahi handiak. Hortaz, berriro ere bozka abertzalea sentimendu independentista baino handiagoa dela ikus dezakegu.

IV.4.3. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua (botu baliodunarekiko eta erroldarekiko %) (1998)

	Bozka	Botu balioduna(%)	Errolda(%)
EAJ	350.322	27,6	19,2
EH	224.001	17,7	12,3
EA	108.635	8,6	6,0
Bozka abertzalea	682.958	53,9	37,5
Guztira	1.275.008	1.268.206	1.821.608

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa.

1999ko inkesta datuei erreparatuz, alderdi abertzaleei bozka eman diotela azaltzen dutenen artean banaketaren aldeko jarrera nagusitzen da, 1995eko datuekin alderatuz independentzia nahi txikiak adierazten dituztenen portzentajea handituz badoa ere. Dena den, alderdi abertzaleei bozka ematen diotenen artean ere bada ezberdintasunik independentzia nahiei dagokionean.

1998ko hauteskunde autonomikoetan EAJri bozka eman ziola adierazten duen %48,8ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %44,1ak aldiz, nahi txikiak (%37,2) edota batere independentzia nahirik ez duela azaltzen


du (%6,9). EAri bozka eman ziola adierazi dutenen %52,4ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak; %40,5ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%36,9) edota batere ez duela azaltzen du (%3,6). EH koalizioari bozka eman ziotenak dira independentzia nahi handiak gehien azaltzen dituztenak (%91,3) eta %4,4ak bakarrik azaltzen du nahi txikiak (%3,3) edota batere nahirik ez duela (%1,1).

IV.4.4. Taula: Independentzia nahiak 1998ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (1999)

	EAJ	EA	EH	IU/EB	PSE/EE	PP	Guztira
Nahi handiak	48,8	52,4	91,3	20,3	12,3	12,2	39,8
Nahi txikiak	37,2	36,9	3,3	48,4	48,0	40,9	32,6
Batere ez	6,9	3,6	1,1	21,9	30,4	44,3	16,5
Axolagabe	3,8	3,6	1,1	6,3	8,2	1,7	7,3
Ed/Ee	3,4	3,6	3,3	3,1	1,2	0,9	3,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

IV.4.2. Grafikoa: Independentzia nahiak 1998ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (1999)



Iturria: Euskobarometroa (1999)

Bozka abertzalea hortaz, ez litzateke sentimendu independentistaren adierazle. Dena den, eta 1995ko inkestan ikusi bezala, bozka abertzalea eta

sentimendu independentistaren arteko desakordioa, bereziki, EAJri bozka eman ziotela adierazten dutenen artean ematen da. EAJren boto-emaileen erdia da independentzia nahi handiak erakusten dituenak, EHren boto-emaileen gehiengo zabala aldiz independentista litzateke. EHren kasuan hortaz, bozka eta sentimendu independentista uztartzen direla ikus genezake.

4.3. 2001eko hauteskunde autonomikoak

2001eko hauteskunde autonomikoetan alderdi abertzaleek orain artean jasotako bozka kopuru handiena jaso zuten: 747.361 bozka. Halere, eta egon zen hauteskunde partehartzea medio, botu baliodunaren gaineko portzentajea aurreko urteetako antzekoa da (%52,4). Bestalde, azterturiko urteetan, errolda osoarekiko azken urteetako pisu handiena (%41,2) lortu zuen bozka abertzaleak.

IV.4.5. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua eta botu baliodunarekiko eta erroldarekiko % (2001)

	Bozka	Botu balioduna(%)	Errolda(%)
EAJ/ EA	604.222	42,4	33,3
EH	143.139	10,0	7,9
Bozka abertzalea	747.361	52,4	41,2
Guztira	1.431.996	1.425.777	1.813.356

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa.

2001ean independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen kopurua aldiz, aztergai dugun serie honetako txikiena da (%25,2). Nola esplikatu ahal da 2001ean ematen den bozka abertzalea eta sentimendu independentistaren arteko jauzi hau? 2001eko hauteskunde testuingurua berezia izan zen, eta alderdi espainolisten garaipenaren beldur edo mehatxuak, boto-emaileak mobilizatu zituen. Ondorioz, EAJ/EA koalizioak aurretik Ezker Abertzaleari bozka eman ziotenen bozka ere jaso zuen eta boto-emaile desmobilizatuak ere hautesontzietara hurbildu ziren. *Gureak* irabaz dezatela leloak laburbildu ahal du bozka abertzalearen gorakada. *Gureak* hori ez bada ere sentimendu independentista, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, abertzaletasunarekin parekatu behar. Paradoxikoki gainera, 2001. urtean independentzia nahi handiek inoiz izan duten babes baxuena lukete.

Behin eta berriro hizpide dugun etnokrazia erakustaldi bat bezala definitu genezake 2001eko hauteskunde prozesua eta emaitza.

2001eko datuei erreparatuz, herritarren independentzia nahi handiak txikitzen direla ikus genezake. Herritarren %25,2ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %54,5ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%37) edota batere nahirik ez duela azaltzen du (%17). Independentzia nahi handien txikitzea 2001eko hauteskunde autonomikoetan aurkeztu ziren bi koalizio abertzaleetan nabari da (ikus IV.4.6. taula).

IV.4.6. Taula: Independentzia nahiak 2001eko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapenaren arabera (2001)

	EAJ/EA	EH	IU/EB	PSE-EE	PP	Guztira
Nahi handiak	39,9	77,1	15,0	2,6	1,6	25,2
Nahi txikiak	37,4	21,4	50,0	48,2	39,1	37,6
Batere ez	7,2	0,0	18,3	36,0	50,0	16,9
Axolagabe	8,1	0,0	13,3	11,4	6,3	10,0
Ed/Ee	7,4	1,4	3,3	1,8	3,1	10,3
Guztira	100	100	100	100	100	100


Iturria: Euskobarometroa (2001)

Alderdi abertzale ezberdinei bozka eman zietela azaltzen duten herritarrei erreparatuz, agerikoa da bozka abertzalea eta sentimendu independentistaren arteko jauzia. EAJ/EARI bozka eman ziola adierazi duten herritarren artean gehiago dira independentzia nahi txikiak (%37,4) edo batere nahirik ez dutela azaltzen dutenak (%7,2), independentzia nahi handiak azaltzen dituztenak baino (%39,9ak). Ezin dugu ahantzi gainera, 2001ean EA, EAJ alderdiarekin aurkeztu dela hauteskunde autonomikoetara, eta honek, EAJ/EA koalizioari independentzia nahi handiak dituztenen boto-emileen handitzea ekarri duela uler dezakegula. Baina bigarrenko kapituluaren azaldu bezala, 2001ean EAJ/EA koalizioak beste boto-emile mota bat ere erakarri zuen. Ezker Abertzaleari bozka eman ziotenen artean ere zertxobait txikitzen da independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea.

Kontuan izan behar dugu EH koaliziotik dagoeneko Zutik eta Batzarre aldeginde zirela eta 1998tik 2001era bozka galera esanguratsua izan zuela koalizioak. 2001ean, 1998an EHri bozka eman zioten herritar ugari Ibarretxe buru zuen EAJ/EARI koalizioari eman zion bozka. Hortaz, esan ahal dugu, Ezker Abertzalearen betiko boto-emileak eman ziotela bozka

koalizioari. Zentzu honetan, harrigarria suerta daiteke independentzia nahi handiak dituztenen portzentajea zertxobait txikitzea, 2001ean EHri bozka eman ziola adierazten duen gehiengo zabalak, %77,1ak, independentzia nahi handiak azaltzen dituen arren. Dena den, 2001eko inkestan EHko boto-emaeleek duten presentzia eskasa medio, ezin dugu haratago doan interpretaziorik egin. EAJ/EA koalizioari dagokionean aldiz, jasotako bozka kopurua sentimendu independentistaren isla bezala ezin dugu inolaz ere ikusi, eta bigarren kapituluan ikusi ahal izan genuen bezala, jasotako bozkaren zati bat abertzaletasunaren oinarrietatik ez zela etorri ere esan genezake. *Gureak* irabaztea zen garrantzitsuena, etnokrazia.

IV.4.3. Grafikoa: Independentzia nahiak 2001eko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2001)



Iturria: Euskobarometroa (2001)

4.4. 2005eko hauteskunde autonomikoak

2005eko hauteskundeetako datuek 1998ko argazki beretsua erakusten digute. Alderdi abertzaleek 646.941 bozka jaso zituzten, botu baliodunaren %53a. Sentimendu independentistari dagokionean, herritarren %37,9ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak eta hortaz, 1998ko tarte beretsua ikus dezakegu bozka abertzalea eta sentimendu independentista azaltzen dutenen artean.

2005eko datuei helduz, herritarren independentzia nahi handiak handitzen direla ikus genezake. 2005ean herritarren %37,9ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %51,6ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%30)

edo independentziarako batere nahirik ez duela azaltzen du (%21,6). 2005ean bada aldaketarik; batetik, alderdi abertzale berri bat aurkezten da hauteskunde autonomikoetan, Batasuna alderdia utzi ondoren eratzen den Aralar alderdia, hain zuzen ere. Bestetik, Batasunaren ilegalizazioaren ondoren, Ezker Abertzalea EHAK alderdiaren bidez aurkeztuko da hauteskundeetara.

IV.4.7. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua eta botu baliodunarekiko eta erroldarekiko (%) (2005)

	Bozka	Botu balioduna(%)	Errolda(%)
EAJ/EA	468.117	38,4	26,0
EHAK	150.644	12,4	8,4
ARALAR	28.180	2,3	1,6
Bozka abertzalea	646.941	53,0	36,0
Guztira	1.223.634	1.219.599	1.799.500

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hauteskundeetako Emaizien Artxiboa.

Independentismoari dagokionean, alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritarrek 1999ean erakutsitako jarrera beretsua erakusten dute. Modu honetara, alderdi abertzaleei bozka eman dietela azaltzen duten herritar gehienek banaketaren aldeko jarrera erakusten dute. Hori bai, alderdi abertzale ezberdinetako boto-emaileen artean ezberdintasunak ikus ditzakegu.

IV.4.8. Taula: Independentzia nahiak 2005eko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2005)


	EAJ/ EA	Aralar	EHAK	IU/EB	PSE/EE	PP	Guztira
Nahi handiak	58,4	80,8	97,2	28,1	0,0	1,8	37,9
Nahi txikiak	24,6	11,5	0,9	46,9	47,7	10,9	30,0
Batere ez	7,3	0,0	0,0	14,1	50,0	87,3	21,6
Axolagabe	2,5	7,7	0,0	10,9	0,0	0,0	4,5
ED/EE	7,3	0,0	1,9	0,0	2,3	0,0	6,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

Honela, EAJ-EAri bozka eman diola azaltzen duten herritarrak dira, gehiengo izanik ere, banaketaren aldeko jarrera era lausoenean azaltzen dutenak. %58,4k independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %31,9ak

aldiz, nahi txikiak (%24,6) edota batere nahirik ez duela azaltzen du (%7,3). Aralarreko boto-emaileen gehiengo zabalak independentzia nahi handiak azaltzen ditu (%80,8). Banaketaren aldeko jarrera hau are eta nabarmenagoa da EHAKren boto-emaileen artean (%97,2). Berrero ere, EAJ (hauteskunde hauetan EArekin koalizioan aurkeztua) eta nazionalismo instituzionala ordezkatzeko duen alderdi edo koalizioak jasotako bozka, sentimendu independentistaren adierazle ez dela agerian geratzen da (ikus IV.4.4. grafikoa).

IV.4.4. Grafikoa: Independentzia nahiak 2005eko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2005)



Iturria: Euskobarometroa (2005)

4.5. 2009ko hauteskunde autonomikoak

2009ko datuei heldu aurretik kontuan izan beharreko bi faktore aipatu behar ditugu. Batetik, Ezker Abertzalea ordezkatzeko duen Batasuna alderdia legez kanpo dago eta D3M hautagaitza aurkeztu bazuten ere, hau ere legez kanporatua izango da eta hortaz, hautagaitza honek jasotako bozkek baliogabetuak izan ziren. Bestetik, eta azken urteetan ez bezala, EA alderdia ez da EAJrekin koalizioan aurkeztuko hauteskunde autonomikoetara.

2009an 100.000 botu baliogabe izan ziren, eta, botu baliogabea normalean 5.000-6.000 inguruan kokatzen denez, baliogabetua izan zen D3M

hautagaitzari 95.000 bozka inguru egotzi dizkiogu. Guztira alderdi abertzaleek 595.312 bozka jaso zituzten, botu baliodunaren %56,8a eta erroldaren %33,5a. Sentimendu independentistari dagokionean, 2009ko inkestan EAEko herritarren %30,5ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak (ikus IV.4.9. taula).

IV.4.9. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua eta botu baliodunarekiko eta erroldarekiko (%) (2009)

	Bozka	Botu balioduna(%)	Errolda(%)
EAJ	399.600	38,1	22,5
Ezker Abertzalea (baliogabetua)	95.000	9,1	5,3
ARALAR	62.514	6,0	3,5
EA	38.198	3,6	2,2
Bozka abertzalea	595.312	56,8	33,5
Guztira	1.148.697	1.047.758	1.776.059

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hantekundeetako Emaizten Artxiboa.

2005eko datuekin alderatuz, independentzia nahi handiak azaltzen dituzten herritarren portzentajea zertxobait txikitzen dela ikus dezakegu (%30,5). Jaitsiera honek ez du eragiten alderdi abertzale guztietako herritarren independentzia nahietan. Honela, EAJri dagokionean nabarmen txikitzen da independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea, eta independentzia nahi txikiak edota batere nahirik azaltzen ez dutenen portzentajea aldiz, handitu egiten da. Beherakada honetan eragina izango du orohar herritarren independentzia nahi handiak izandako txikitzeak, baina ziurrenik EA bere kabuz aurkezteak ere eragina izango du, EAren boto-emaielen artean independentziaren aldeko jarrera handiagoa den heinean.

Honela, 2009ko datuei begiratzuz, EAJren boto-emaielen artean gehiago dira independentzia nahi txikiak (%38,2) edota batere nahirik ez dutela azaltzen dutenak (%10,8), independentzia nahi handiak azaltzen dituztenak baino (%37,5). EAren boto-emaielen %56,5ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %30,4ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%21,7) edo batere nahirik ez duela azaltzen du (%8,7). Aralarreko boto-emaielen ere jarrera beretsua erakusten dute, %63,4ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu, %25,6ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%19,5) edo batere nahirik ez duela azaltzen du (%6,1). 2005eko datuekin


alderatuz, Aralarreko boto-emaileen artean independentzia nahi handiak txikitzen direla ikus dezakegu.

IV.4.10. Taula: Independentzia nahiak 2009ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2009)

	Ezker Abertzalea							Guztira
	EAJ	EA	Aralar	(Baliogabetua)	IU/EB	PSE/EE	PP	
Nahi handiak	37,5	56,5	63,4	96,1	0,0	4,4	4,7	30,5
Nahi txikiak	38,2	21,7	19,5	1,3	53,1	36,1	18,6	32,2
Batere ez	10,8	8,7	6,1	0,0	28,1	50,3	67,4	22,4
Axolagabe	5,9	13,0	8,5	1,3	18,8	7,7	9,3	10,2
ED/EE	7,6	0,0	2,4	1,3	0,0	1,6	0,0	4,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100,0

Iturria: Euskobarometroa (2009)

IV.4.5. Grafikoa: Independentzia nahiak 2009ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2009)



Iturria: Euskobarometroa (2009)

Aurretik aipatu dugu 2005etik 2009ra independentzia nahi handiak azaltzen dituzten herritarren kopurua zertxobait txikitzen dela, baina jaitsiera honen isla ez dugu alderdi abertzale guztietan ikusten. Ezker Abertzaleari erreparatzen badiogu, 2009an bozka baliogabea egin zuen

%96,1ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu. Aurretik ere aipatu dugun moduan, bozka abertzalea eta sentimendu independentistaren arteko jauzia hortaz, EAJri bozka ematen dietela adierazten dutenen posizioak eragiten du batik bat.

4.6. 2012ko hauteskunde autonomikoak

2012ko hauteskunde autonomikoetan ere bada aldaketarik hauteskundeetara aurkezten diren aukera politikoei dagokionean. Izan ere, Ezker Abertzale historikoa, EA, Aralar eta Alternatibarekin batera EH Bildu koalizioan aurkeztuko da. Gainera 2012an alderdi abertzaleek jasotako bozka kopuruak gora egiten du; 662.689 bozka lortu zituzten. Botu balioudunaren %58,8a eta erroldaren %37,3a. 2013ko inkestan herritarren %34,7ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak. Aztergai ditugun aurreko urtetan bezala, alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritarrak independentistak baino gehiago dira.

IV.4.11. Taula: Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua eta botu balioudunarekiko eta erroldarekiko (%) (2012)

	Bozka	Botu baliouduna(%)	Errolda(%)
EAJ	384.766	34,2	21,7
EHBildu	277.923	24,7	15,7
Bozka abertzalea	662.689	58,8	37,3
Guztira	1.135.568	1.126.400	1.775.351

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa.

Alderdi abertzaleetako boto-emaileei erreparatuz, EAJri bozka eman ziotela azaltzen duten herritarrak 2009ko ildo beretsua azaltzen dute 2013an; independentzia nahi txikiak (%36,7) edota batere nahirik ez dutela azaltzen dutenak (%12,8), independentzia nahi handiak azaltzen dituztenak baino gehiago dira (%38,1). EH Bilduren boto-emaileek erakutsitako independentzia nahi handiak, Ezker Abertzale historikoaren boto-emaileenak baino zertxobait txikiagoak dira. Ziurrenik eragina izango du koalizioako kide diren EA, Aralar eta Alternatibako boto-emaileek independentzia nahiekiko izandako jarrera lausagoak. Hala eta guztiz, EH Bilduren boto-emaileen gehiengo zabalak independentzia nahi handiak azaltzen ditu. Alderaketa bat egitearren, 2013an EH Bilduren boto-


emaileek erakutsitako independentzia nahia 2001ean EH koalizioaren boto-emaileek erakutsitakoaren parekoa da.

IV.4.12. Taula: Independentzia nahiak 2012ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2013)

	EAJ	EH Bildu	IU/EB	PSE-EE	PP	Guztira
Nahi handiak	38,1	79,4	32,4	3,9	0,0	34,7
Nahi txikiak	36,7	7,8	37,8	19,4	25,8	22,8
Batere ez	12,8	5,5	10,8	67,4	61,3	28,4
Axolagabe	9,0	6,0	16,2	7,8	9,7	10,8
ED/EE	3,5	1,4	2,7	1,6	3,2	3,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

IV.4.6. Grafikoa: Independentzia nahiak 2012ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzenaren arabera (2013)




Iturria: Euskobarometroa (2013)

1995-2013 bitarteko datuei erreparatu, abertzaletasunaren baitako bi alderdi edo mugimendu nagusien boto-emaileen independentzia nahien bilakaera ikus dezakegu. Boto-emaileen jarrera ezberdintasuna agerikoa da (ikus IV.4.7. eta IV.4.8. grafikoak).

EAJren edo nazionalismo historikoaren jarraitzaileei dagokionean, banaketaren inguruko posizio ezberdinak ikus ditzakegu. 1995 eta 2005 urteetan,

independentzia nahi handiak dituzten boto-emaileak, nahi txikiak edo batere ez dutela azaltzen dutenak baino gehiago dira. 1999an ere, baina aldeko eta kontrako jarreraren gerturatze bat ikusi ahal dugu eta 2001ean gehiago dira independentzia nahi txikiak edo batere nahirik ez dutela azaltzen duten EAJ/EA koalizioako boto-emaileak. Ezin dugu ahantzi 2001a dela, hizpide dugun urteetan, herritarrek independentzia nahi handiak era lausoenean azaltzen dituzten urtea. Gainera, 2001ean koalizioak izugarritzko botu uholdea jaso zuen, PP-PSE balizko gobernu baten mehatxupean. Ondorioz, koalizio abertzale honen gorakada eman zen, baina datuak erakutsi diguten bezala, igoera hau ezin dugu nahasi independentzia nahi handien igoerarekin. Gauza bat koalizioari bozka ematea PP/PSE *tandem*aren beldur, eta bestea banaketaren aldeko jarrera izatea. 2009 eta 2013an EAJ bakarrik aurkezten da eta datuek argi erakusten dute boto-emaileen artean gehiago direla independentzia nahi txikiak edo batere ez dutenak, independentzia nahi handiak dituztenak baino. EAJren kasuan hortaz, bozka ez litzateke sentimendu independentistaren adierazle egokiena; independentzia nahirik ez duen portzentaje esanguratsu batek ere bozka ematen dio EAJri.

IV.4.7. Grafikoa: EAJko boto-emaileen independentzia nahien bilakaera (1995-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Ezker Abertzaleari dagokionean, 1995-2013 tartean, eta ilegalizazioak medio, alderdi edo koalizio ezberdinen bidez aurkeztu da hauteskunde

autonomikoetara. Urte hauetan independentzia nahiek izandako gorabeherak ez dute eragin gehiegirik Ezker Abertzalearen boto-emaielen artean. Urtez urte, eta nazionalismo historikoaren jarraitzaileekin alderatuz, independentziaren aldeko nahi argiak erakusten dituzte. 2001 eta 2013 urteei erreparatuz, Ezker Abertzalearen boto-emaielen artean independentziaren aldeko nahiak zertxobait txikitzen direla ikus dezakegu. 2012an EH Bildurekin aurkeztean jarraitzaileen independentzia nahi handiak zertxobait txikitzen dira. Halere, Ezker Abertzalearen betiko boto-emaielen independentzia nahi handiak 2013an txikitu direla baina, koalizio ezberdinetako kide berrien jarraitzaileen independentziaren posizio ezberdinaz aritu beharko ginateke.

IV.4.8. Grafikoa: Ezker Abertzaleko boto-emaielen independentzia nahien bilakaera (1995-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

Konplexuagoa da 2001ko beherakaren nondik norakoei heltzea, lagin arazo bat izan daiteke edota 2001eko hauteskunde aurreko ingurumariaren ondorio. 2001ean Ezker Abertzalea EH koalizioan aurkeztu bazen ere, dagoeneko Batzarre eta Zutik kanpo zeuden, eta hortaz, EH Bildu koalizioak islatzen duen aniztasunetik nahiko urrun kokatzen da. Dena den, 2001ean eta 2013an ere, koalizio hauen boto-emaielen gehiengo oso zabalak banaketaren aldeko hautu argia adierazten du. Ezker

Abertzalearen kasuan honela, bozka sentimendu independentistaren adierazle egokia dela esan genezake.

Laburbilduz, eta Connorren zazpigarren hipotesiari erreparatuz, bozka sentimendu separatistaren adierazle egokia dela esan genezake? Bozka abertzalea, edo era zehatzago batean esanda, alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritar kopurua eta independentzia nahi handiak dituztenak alderatuz, agerikoa da ezetz.

IV.4.9. Grafikoa: Independentzia nahi handiak eta alderdi abertzaleen bozka bilakaera EAEn (%) (1995-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

IV.4.9. grafikoan ikusi ahal dugun bezala, aztergai izan ditugun urte guztietan, eta 2001ean bereziki, alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritarrak independentzia nahi handiak azaltzen dituztenak baino gehiago dira. Halere, alderdi abertzale ezberdinetako boto-emaleei erreparatzea ezinbestekoa da bozka abertzalea eta independentismoaren arteko jauziaren harreman ezberdinak ikusteko. Honela, EAEko gizartearen baitan ikus dezakegun bozka abertzalea eta independentismoaren arteko tartea, ez da era berean islatzen alderdi guztietan. EAJ edo nazionalismo historikoaren baitan independentista ez diren boto-emale kopuru esanguratsua ikusi ahal dugu. Ezker Abertzaleari dagokionean berriz, bere bozka sentimendu separatistaren adierazle egokia dela esan dezakegu.

Bestetik ordea, eta alderdi bakoitzeko bozka kopurua alde batera utzita, bozka sentimendu separatistaren adierazle egokia dela ere esateko moduan gaude alderdien diskurtsoei erreparatuz. EAJk historikoki

independentziaren inguruan izandako diskurtso eta ibilbide politiko anbigua, bere boto-emaileen independentzia nahiekin bat datorrela esan genezake. Berdin Ezker Abertzalearekin, historikoki independentziaren aldeko hautua egin du, eta bere boto-emaileen independentzia nahiak alderdiak auzi honetan duen diskurtso eta praktikarekin bat datozela uste dugu.


Abertzaletasunaren baitako bi arimen arteko ezberdintasunen nondik norakoekin jarraituz, ezinbestekoa da bere boto-emaileen nortasun subjektiboari erreparatzea. Connorren laugarren hipotesia aztertzean ikusi genuen herritarren nortasun subjektiboak ze mailatan baldintzatzen zituen independentzia nahiak. Modu honetara, euskaldunak bakarrik sentitzen zirenak ziren independentziaren aldeko hautu argia egingo luketenak. Alderdien boto-emaileen nortasun subjektiboari begiratzen badiogu, EAJkoen artean nortasun ezberdinak ikus ditzakegu, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak eta nortasun partekatua azaltzen dutenak. Ezker Abertzaleko boto-emailei dagokienean aldiz, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak nagusitzen dira. Abertzaletasunaren bi arimen arteko independentzia nahien inguruko ezberdintasuna azaltzen duen gakoetako bat izan daiteke honakoa.

Ikusiriko datuek agerian uzten dute bozka abertzalea eta independentismoa ezberdintzearen beharra. Alderdi abertzaleek jasotako bozka kopurua, boto-emaileen independentzia nahietatik haratago doa. Zentzu honetan Connorren zazpigarren hipotesia berresten da, nazionalismoa ordezkatzan duten bi alderdi handien artean ezberdintasunak agerikoak diren arren. Honela, EAJ bozkatzan dutenen artean, independentistak eta independentzia nahirik ez dutenak ikus ditzakegu. Ezker Abertzaleko boto-emaile gehienak aldiz, independentistak lirateke.

Connorren laugarren hipotesia aztertzean nortasun subjektiboak eta nazionalismoak herritarren independentzia nahietan eragin handia zuela ikusi genuen. Halere, euskal nortasuna azaltzen zuten herritarren portzentajea, abertzale bezala definitzen zirenena baino handiagoa zela ikusi genuen eta bigarren jauzi batean, abertzale bezala definitzen zirenen portzentajea independentzia nahi handiak azaltzen zituztenena baino handiagoa zela ere ikusi genuen. Honela, argi ikusten zen euskal nortasuna zuten guztiak ez zirela abertzale, eta, abertzale guztiak ez direla independentista. Connorren zazpigarren hipotesian bozkaren aldagaia barneratu dugu, eta alderdi abertzalei bozka ematen dietenak,

independentistak baino gehiago direla ikusteaz gain, alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen portzentaje esanguratsu bat abertzalea ez dela ere esan dezakegu. Hizpide izan ditugun aldagai guztietatik, euskal nortasuna da bozka abertzalearekin lotura hertsiena mantentzen duen aldagaia (ikus IV.4.10. grafikoa).


IV.4.10. Grafikoa: Euskaldunen, abertzaleen, independentisten eta alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen bilakaera EAEn (1995-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Bozkaren aldagaiari erreparatuz, datuen eboluzioak agerian uzten du alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen kopurua independentzia nahi handiak adierazten dituztenen baino handiagoa dela. 2001eko hauteskundeak desakordio honen isla dira; izan ere, aztertutako aldian, alderdi abertzaleek inoizko bozka kopuru handiena urte horretan jaso zuten. Aldi berean ordea, EAEnko herritarrek serie osoan erakutsitako independentzia nahi txikiak azaltzen dituzte. 2001ean gainera (2005ean bezala), alderdi abertzaleen bozka portzentajea eta euskal nortasuna azaltzen dutenena pareko agertzen dira, eta era berean, independentzia nahi handiak azaltzen dituztenekiko oso urrun. Connorren ideia nagusia gutxiengo etnonazionalak, independentzia baino, etnokrazia nahi dutela da. 2001eko argazkia hipotesi honen isla litzake, baina baita ere seigarren hipotesian azalduzako autonomia handiago baten aldeko posizioa.

IV.4.11. Grafikoa: Euskaldunen, abertzaleen, independentisten eta alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen bilakaera EAEn (1995-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Sintesian, independentzia nahiak baldintzatu ditzaketen aldagaien dagokionean honakoa esan dezakegu:

- Bozka abertzalea eta independentismoaren arteko jautzia handia da. Bereziki EAJko boto-emaleei erreparatu.
- Nazionalismoaren aldagaiak eta euskal nortasunak eragin handiagoa daukate independentzia nahietan bozkak baino. Halere, ez dira determinanteak.
- Independentzia nahien gorabehera batzuk ikus ditzakegu aztertutako seriean, nazionalismoa, euskal nortasuna eta bozka abertzalea aldiz, nahiko egonkor mantendu dira.
- Bozkaren baitan eman ahal diren aldaketak ez dute derrigorrean independentismoan eraginik izan behar. Bozka abertzalea eta independentismoaren arteko lotura hertsia Ezker Abertzalearen baitan bakarrik ikusi dezakegu. 2001ean EAJ alderdiak jasotako bozka uholdea eta urte horretan bertan bere boto-emaleek azaldutako independentzia nahi handi lausoek agerian uzten dute herritarren zati esanguratsu batek etnokrazia nahi duela. *G#*-tarren gobernuaren aldeko hautua ordea, ezin dugu parekatu banaketaren aldeko jarrerarekin.

Connorren hurrengo hipotesietan banaketaren inguruko posizioak beste aldagai batzuen bidez harremanetik ikusiko ditugu. Zortzi eta bederatzigarren hipotesietan, EAEko herritarrek, eta banaketaren aldekoek, talde etnonazionalaren izenean egikaritutako biolentziaren inguruko posizioak nolakoak izan diren ikusiko dugu. Bederatzigarren hipotesitik aurrera, herritarren aldagai soziodemografikoek banaketaren aldeko posizioetan eraginik ba al duten ikusiko dugu.

5. BIOLENTZIAREN LEGITIMAZIOAZ

Connorrek biolentziaren legitimazioaren inguruko auzia ere barneratzen du bere hipotesietan. Batetik, eta iritzi datuak oinarrian harturik, herritarrek biolentziarekiko izan duten balizko aurkakotasuna izango dugu aztergai eta, bestetik, biolentziarekin egileekiko egon ahal den begikotasuna. Biolentziaren auziarekin lotuak dauden hipotesiak honako hauek dira:

8. Hipotesia: Iritzi datuak dauden kasu guztietan, talde etnonazionalak kideak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen dira.

9. Hipotesia: Halere, portzentaje esanguratsu batek, banaketaren alde ez dauden asko barne, biolentziaren egileak begiko dituzte eta biolentzia horren errua beste batzuei egozten diete.

8. Hipotesia: “Iritzi datuak dauden kasu guztietan, talde etnonazionalak kideak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen dira”

Biolentziaren auziarekin loturiko Connorren hipotesi honen bilakaera aztertzeko iturri ezberdinak izan ditugu kontuan. Batetik, Euskobarometroak gai honen inguruan egin izan duen galdera batean oinarritu gara, *ETArekiko duzun jarrera*, hain zuzen ere. Connorrek, aurreko hipotesietan bezala, talde etnonazionalak kideei egiten die erreferentzia. Aurreko hipotesietan egin bezala, talde nazional ezberdinak irudikatze bidean, EAEko herritarrek ETArekiko duten jarrera nazionalismoaren aldagaiarekin, nortasun subjektiboarekin eta bozka oroitzapenarekin

gurutzatuko dugu. Honela, talde etnonazional ezberdinek talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren inguruan zer nolako jarrera azaltzen duten ikusi ahal izango dugu.

Euskobarometroaz gain, beste iturri batzuk ere erabili ditugu. Euskobarometroa 1999tik aurrera hasi zen ETArekiko jarrerari buruz galdetzen, eta aurretiaz eginiko beste ikerketa batetako datuak ere aipatuko ditugu, hain zuzen ere, 1984.urtean Laubidek eginiko iritzi ikerketa. Ikerketa honen ondorio nagusiak *Violencia y ansiedad en el País Vasco* (1985) liburuan jasoak izan ziren eta Connorren zortzigarren hipotesi honekin lotura izan dezaketen edukiak ere erabiliko ditugu. Bukatzeko, interesgarria iruditu zaigu 2001eko CISEko 2407 ikerketako pare bat galdera ere barneratzea Connorren zortzigarren hipotesi honen iturriak eta edukiak osatze bidean.

a) Biolentziaren legitimazio sozialaz

Hipotesi honen nondik norakoak aztertzeko, lehenik eta behin *Violencia y ansiedad en el País Vasco* (1985) liburuaren eduki batzuei erreparatuko diegu. Azterlan honetan azaltzen diren eduki gehienak 1984ean Laubide laborategi soziologikoak eginiko iritzi inkestan oinarritzen dira. Connorren hipotesiari heldu asmoz, azterlan horretan hizpide duten euskal gizartearen biolentziaren balizko legitimazioaren auziari erreparatuko diegu. Azterlanean orokorrean egiten zaio erreferentzia biolentziari, eta ETArek biolentzia aztergaiaren parte bat besterik ez dela ere esan beharra dago. Hala eta guztiz, zenbait datu, Connorrek hizpide duen biolentziaren aurkakotasun hori aztertzeko baliagarriak direla uste dugu eta lehen gerturatze bat egiteko erabiliko ditugu. Kontuan hartu beharrekoa den beste faktorea ikerketaren testuingurua da, hain zuzen ere, 80. hamarkadan EAEn bizi zen ingurumaria biolentzia.

Liburuaren autoreen aburuz, euskal biolentzia, indar emozionaletik sortzen ez den biolentzia den heinean, biolentzia tekniko litzateke. Hau da, biolentzia, kalkulu baten ondorioz egikaritzen da helburu batzuen zerbitzura ipiniaz. Pujanaren (1984) aburuz, biolentzia tekniko honek bi baldintza ditu:

- Biolentzia honen bidez, libre izango balira onartuko ez luketen gizabanako edo taldeen menderatzea lortu nahi da. Hortaz, inposizio prozesu bat da.

- Biolentzia erabiltzen duenarentzat biolentzia izan behar da irtenbide eraginkorra, bestela, beste bideren bat aukeratuko bailuke. Biolentzia irtenbide bezala planteatzen da. Kontuan izan behar dugu, biolentziak legitimazio soziala lor dezan beharrezkoa dela inposizioa “irtenbide” bezala ikusaraztea. Biolentziaitsuak ez du lortzen legitimazio sozialaren prozesu arrazionalizatzailea.

Autoreen ustez, biolentzia tekniko “irtenbide” bezala egitura sozialean legitimatua geratzen da bi bitarteko hauen bidez: uzkurdura eta *vigilantismoa*.

Uzkurdura portaera sozial bat da, zeinaren bitartez, biolentzia egoera baten aurrean, biolentzia beraren kontrolera zuzendutako erakunde, talde edota indarrei laguntzeari uko egiten zaion. Sarritan ez zaio erreparatzen biolentzia tekniko mota honi, bere praktika, biolentziaren zeharkako babesean bilakatzen bada ere. Uzkurdura, biolentziaren kontrol instituzionalaren aurrean, biolentziaren inpunitatearen legitimazioaren testigantza batean bilakatzen da. Uzkurdura honen adibide dira, 1984ean eginiko inkestaren honako emaitzak: EAEko herritarren %48a soilik agertzen da prest GALEko biolentzia ekintza bat epaileen aurrean salatuzko. ETAko ekintzen aurrean, portzentajea are eta baxuagoa da, herritarren %32ak soilik salatuko luke. Beraz, badirudi, biolentziaren giza-onespena dagoela.

IV. 5.1. Taula: EAEko herritarrek duten prestutasuna delitu ezberdinak Justiziaren aurrean salatuzko

	Trafiko istripua	Lapurreta	GALen atentatu edo bahiketa	ETAren atentatu edo bahiketa	Zergak ez ordaintzea
Bai	85	59	48	32	19
Ez	6	13	18	27	51
Dudan	9	27	33	38	29
Guztira	100	100	100	100	100

Iturria: “Violencia y ansiedad en el País Vasco”. Laubidek eginiko iritziko inkestan oinarrituriko datuak.

Bigilantismoari dagokionean, bere adiera zabalenean, autodefentsa bitarteko edo prozesuarekin identifika daiteke, biolentziaren monopolio instituzionalizatua dutenen babes berme eraginkor ezaren aurrean. Bigilantismoa biziraupenerako oinarritzko borroka bezala, lanerako eta

biziraupenerako oinarritzko eskubideak bermatuak ikusteko gai ez den herritarrak praktika dezake.

Baina, ze bigilatismo motak du babes gehien euskal gizartean? IV.5.2. taulan ikus dezakegun bezala, herritarren %77ak biziraupen egoera kritiko batean dagoen langabetu batek justizia bere eskuetan hartzea, eta elikagaiak lapurtzea ontzat ematen du. %11ak bakarrik uste du ez dela zilegi portaera hori. Dena den, bigilantismoaren dimentsio ezberdinen babesa aldakorra da. Bigilantismoak beldurrarazte aztarnak baditu, bere legitimazio soziala askoz ere txikiagoa da. Esaterako, langileek bidegabe jokatzeko duen ugazaba bahitzearen ekintza herritarren %31ak babesten du eta %46ak gaitzetsi egiten du. Bere dendan lapurtzen ari zen lapurra tirokatzen duen bitxigilearen biolentziaren inguruan aldiz, nahiko bananduak leudeke euskal herritarrak; %41ak legitimotzat jotzen du eta %39ak, aldiz, ez luke babestuko bortxa mota hori (ikus IV.5.2. taula).

IV.5.2. Taula: Biolentziaren legitimazioa "irtenbide" bezala (Bigilantismo mota ezberdinen babesa)

	Ados	Aurka	Zalantzan	Guztira
Langabetu batek elikagaiak lapurtzea	77	11	11	100
ETAkideen gartzelaratzeta	51	24	23	100
Bitxigile batek bere lapurra hiltzea	41	39	19	100
Langileek euren ugazaba bidegabea bahitzea	31	46	21	100
ETAren erailketak	5	81	12	100
Poliziaren torturak egia ateratzeko	1,6	92	5	100
GALen erailketak ETAren aurka	1	89	7	100

Iturria: "Violencia y ansiedad en el País Vasco". Laubidek eginiko iritziko inkestan oinarrituriko datuak.

Olabuenaga eta Sobradoren arabera (1985), jasandako biolentzia, biktimizazioa, legitimazio sozialaren prozesuan erabakigarriagoa da erantzun bortxa baino. ETAren erailketei dagokionean, 5ak babestuko luke bigilantismo politiko hau eta inkestatuen %24a ez dator bat ETAkideak gartzelaratzearekin. Poliziaren torturek herritarren %1,6aren babesa lukete eta GALek %1arena. Agerikoa da Euskal Herrian bigilantismo politikoa dela legitimazio sozial baxuena duen biolentzia (ikus IV.5.2. taula).

Ondoren, biolentziaren legitimazio soziala gizartearen estratu eta sektore ezberdinetan nola islatzen den ikusten saiatuko gara. Suminduraren

teoriaren arabera, biolentziaren biktimak lirateke bigilantismo biolento mota batzuk gehien babestuko lituzketenak.

IV.5.3. Taula: Legitimatzen diren biolentziak jasandako biolentzia motaren arabera

	Langile lapurra	Hil duen bitxigilea	Ugazabaren bahiketa	ETAren hilketak	Poliziaren torturak	GALen erahilketak
Poliziak atxilotua	90	36	59	23	0	0
Tratu txarrak jasoa	77	37	48	20	0	0
Estafa biktima	80	44	36	0	0	0
Etxean lapurreta	67	38	20	6	3	1
Lapurreta	75	36	30	7	1	2
Autoa lapurtu diotena	76	45	38	9	3	2
Bortxatua	77	15	16	30	8	8
Guztira	77,1	41,5	30,8	4,7	1,7	1,0

Iturria: "Violencia y ansiedad en el País Vasco". Lanbidek eginiko iritzizko inkestan oinarrituriko datuak.

Jabetzaren aurkako biolentziaren biktimak (kotxea edo etxean lapurreta) eta, bereziki, bortxatuak izan diren pertsonen artean, portzentaje txikiak izanik ere, bigilantismo politikoaren babes handiagoa ikus dezakegu (ETA eta GALen erailketak, poliziaren torturak), baina era berean, bigilantismo zibilarekiko (lapurtu duen lapurra, hil duen bitxigilea eta ugazabaren bahiketa) uzkurrago agertzen dira. Eraso fisikoak jasan dituztenak (tratu txarrak edo poliziak atxilotuak) ETAren bigilantismo politikoa era nabarmenagoan babesten dute. Herritarren bigilantismo politikoaren batezbesteko legitimazio portzentajeen aurrean (%4,7 ETArentzat, %1,7 torturarentzat eta %1a GALentzat), herritar hauen %23ak (poliziak atxilotuen artean) eta %20ak (eraso fisikoak jasan dituztenengan) ETAren bigilantismoa zilegitzat dute.

Biktimizazioa eta biolentziaren legitimazioa, ordea, ez datoz beti bat. Lehen pertsonan biolentziaren biktima izan diren herritar asko ez dira bigilantismoan erori eta erantzun biolentoak ez dituzte legitimatzen. Ez dago biktima izan beharrik bigilantismo motaren bat justifikatzeko. Honela, biktima izan den %39,2ak babesten du lapurreta egiten duen langilearen bigilantismoa, eta biolentzia hau legitimatzen duen %60,8a aldiz, ez da biktima izan. Alderantziz, ETA edo GALen biolentzia legitimatzen duen %60a biktima izan da, baina halere, beste %40a dugu, zeinek biolentziaren biktima izan gabe bigilantismo mota honi zilegitasuna ematen dion (ikus IV.5.4. taula).


IV.5.4. Taula: Biktimizazioa eta legitimazioa (%)

	Bai	Ez
Langile lapurra	39,2	60,8
Hil duen bitxigilea	34,9	65,1
Ugazabaren bahiketa	40,1	59,9
ETAren hilketak	61,4	38,6
Poliziaren torturak	32	68
GALen erahilketak	60	40
ETAkideen gartzelaratzea	32,9	67,1

Iturria: "Violencia y ansiedad en el País Vasco". Laubidek eginiko iritzizko inkestan oinarrituriko datuak.

Baina gizarteko ze estratutan gailentzen da biolentziaren legitimazioa? Autore hauen arabera, biolentziaren legitimazioaren boltsa nagusia Herri Batasuneko jarraitzaileen artean aurkitu dezakegu. Datuei erreparatuz, Herri Batasunako jarraitzaileak dira, GALen erahilketak, poliziaren torturak eta ETAko kideen gartzelaratzeko kasuak salbu, biolentziaren erabilera bigilantismo mota guztietan gehien babesten dutenak. Modu honetara, euskal herritarren artean %4,6a bada ETAren bigilantismo politikoa zilegia dela uste duena, HBko jarraitzaileen artean portzentajea %31ra handitzen da.


IV.5.1. Grafikoa: Herri Batasunaren jarraitzaileak eta biolentziaren legitimazioa (%)



Iturria: "Violencia y ansiedad en el País Vasco". Laubidek eginiko iritzizko inkestan oinarrituriko datuak.

Hala eta guztiz, ezin diogu HBko jarraitzaileei soilik egotzi biolentziaren legitimazio soziala. Ez da nahikoa HBren jarraitzaile izatea, ez bigilantismo politikoa, ez zibila legitimatzeko. EAEn biolentziaren legitimatzaileak, ez daude soilik HBren jarraitzaileen artean, gehienak euren lerroetan dauden arren (ikus IV.5.1.grafikoa).

IV.5.2. Grafikoa: Biolentziaren legitimazioa Herri Batasunaren jarraitzaileen artean (%)



Iturria: "Violencia y ansiedad en el País Vasco". Laubidek eginiko iritzizko inkestan oinarrituriko datuak.

Ildo honetan, langabezian dagoen langileak elikagaiak lapurtzea legitimatzen duten euskal herritar guztien artetik, %10,2a bakarrik da HBren jarraitzailea, eta %9,2a bakarrik bitxigileak autodefentsan lapurra erailtzen duena legitimatzen dutenen artean. HBko jarraitzaileak aldiz, nagusi dira ETArenerahilketak biolentzia politikoa legitimatzen dutenen artean (%57,1). Kontuan hartzekoa da jarraitzaile hauek osatzen duten talde soziala dela euskal gizartea egiturazko biolentzia baten menpe dagoela gehien uste duena (ikus IV.5.2.grafikoa).

Fenomeno hau azaltzeko, egokitzen jotzen dugu Marving Wolfgang eta Marco Ferracutiren *azpikultura* terminoari erreparatzea (Wolfgang eta Ferracuti, 1971 in Olabuenaga *et al.*, 1985:143). Autore hauen arabera, azpikultura hau medio, talde sozial handiagoan gertatzen denetik haratago, hiru elementu hauek indartzera jotzen da:

- Beste talde sozialek jasotzen duten baino oldarkortasun pertzepzio handiagoa (egoeraren definizioa).

- Arrisku pertsonal edo kolektiboaren sentsazioa (biktimizazio sentimendua).
- Biolentziaren errekursoaren balorazioa defentsa legitimorako beharrezko bezala (biolentziaren legitimazioa).

Olabuenagaren (1985) arabera hiru prozesu hauek HBko jarraitzaileen artean euskal gizarteko beste talde sozialen artean baino era indartsuagoan eta maiztasun handiagoarekin ematen dira. Hiruak batera, beste herritarrek bizi ez duten euskal gizartearen interpretazio eta pertzepzio biktimizatu batera daramatza. Gainera, pertzepzio honi hertsiki lotua, taldeko nahiz banakako biktimizazio baten kikildura sentimendua bizi dute. Eta, ondorioz, biolentzia autodefentsa kolektiboko bigilantismo bezala baloratzen dute. Dena den, azpikultura hau gutxiengo baten patrimonioa da.


Laburbilduz, eta aurkeztutako datu hauen arabera, gizartearen gehiengoa talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka azaltzen dela agerikoa da. Halere, 1985ko azterlan honek ez digu ematen aukerarik talde etnonazionalen ezberdintasunak aztertzeko. Dena den, aurretik aipatu bezala, ETaren biolentziaren legitimazio soziala poliziak atxilotuak edo tratu txarrak jasan dituztenengan eta HBko jarraitzaileen askoz ere handiagoa da. Euskobarometroko datuak aztertzean ikusiko dugu ETarekiko jarrerak zer nolako bilakaera izan duen euskal gizarteko sektore ezberdinetan.

b) ETaren aurkako mobilizazioak eta ETarekiko iritzien adierazpen publikoa

Connorren zortzigarren hipotesiaren nondik norakoekin jarraitzeko, hau da, ea talde etnonazionalako kideak euren taldearen izenean egikaritzen den biolentziaren aurka azaltzen diren, 2001eko CISeko ikerketa bati helduko diogu. Bertan, Connorren jarrera honekin zerikusia duten bi galdereci erreparatuko diegu. Lehenak, ETaren aurkako mobilizazioei buruzko jarrera azaltzen du, bigarrenak, jendeak ETA eta talde biolentoekiko sentimenduak azaltzeko moduari egiten dio erreferentzia. Biak baliagarriak iruditzen zaizkigu euskal herritarrek talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren inguruko iritzia osatzeko. Euskobarometroan planteatzen den galdera zuzenagoa da, ETarekiko jarreraz galdetuaz. CISeko bi galdera hauek aldiz, ikuspegi osagarri bat eman diezagukete.

Lehenengo galdera honakoa da: *Ze mailatan babesten dituzu ETAREN aurka EAEn burutzen ari diren mobilizazioak?* Herritarren %57,4ak EAEn baitan ETAREN aurka eman diren mobilizazioak asko edo nahikoa babesten dituela azaltzen du. Heren batek (%34,3) aldiz, mobilizazio hauek gutxi edota ez dituela babesten azaltzen du (ikus IV.5.3. grafikoa).

IV. 5.3. Grafikoa: EAeko herritarrek ETAREN aurka EAEn burutzen ari diren mobilizazioei erakutsitako babesia (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Mobilizazio hauekiko erakutsitako babesia era ezberdinetara interpretatua izan daiteke, partehartze zuzenaz hitzegin dezakegu edota soilik ontzat ematea berauek aurrera eramatea. 2001. urtean herritarren portzentaje esanguratsu batek ez ditu babesten EAEn baitan ETAREN aurka ematen diren mobilizazioak. Galderaren formulazioari erreparatuz, azpimarratu behar da ez dela galdetzen ETAREN jardunaz, baizik eta ETAREN aurkako mobilizazioei buruzko iritziaz. Interesgarria litzateke babes ezaren nondik norakoak aztertzea baina inkesta honetan ez dugu horrelako galderarik.

Iritzi orokorra ikusi ostean, galdera honen emaitzak aldagai ezberdinen arabera nolakoak diren ikusiko ditugu. Inkestatuek azaldutako erantzunen arabera agerikoa da nazionalismoaren aldagaiak duen eragina. 1tik 10era doan nazionalismo eskalan, eta non 1ak gutxieneko nazionalismoa adierazten duen eta 10ak gehienekoa, bere nazionalismo maila 1 edo 2a dela erantzun duen %71,9ak ETAREN aurkako mobilizazioak babesten dituela azaltzen du, 9 edo 10ean kokatu direnen artean aldiz, portzentajea %43,3ra txikitzen da. Eta alderantziz, euren nazionalismo gradua 1 edo 2a

dela azaltzen dutenen artean %23,7ak mobilizazio hauek ez dituela babesten azaltzen du, 9 edo 10 erantzun dutenen erdiak aldiz, ez litzuke babestuko mobilizazio hauek (%50,1) (ikus IV.5.5. taula).


IV.5.5. Taula: ETAREN aurkako mobilizazioei emandako babes nazionalismoaren arabera (2001)

	Gutxieneko nazionalismoa				Gehieneko nazionalismoa	
	(3-4)	(5-6)	(7-8)	Guztira	Guztira	
Asko+nahikoa	71,9	72,8	60,3	48,8	43,3	57,4
Gutxi+Batere ez	23,7	22,7	32,3	43	50,1	34,3
Ed/Ee	8,2	4,4	4,5	7,5	8,1	8,2
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Honela, *continuum* bat irudika dezakegu, nazionalismo maila handitzen doan heinean, txikitzen doa ETAREN aurkako mobilizazioak babesten dituela azaltzen dutenen portzentajea. Euren nazionalismo maila 1 eta 6aren artean kokatzen den herritarren artean, gehiago dira ETAREN aurkako mobilizazioei babes asko edo nahikoa adierazten dietenak. 7-8 bitartean kokatzen direnen artean aldiz, jarrerak bananduak daude eta gehieneko nazionalismoa adierazten duten herritarren artean, gehiago dira, EAEn ETAREN aurka burutzen diren mobilizazioei babes gutxi edo babesik ez dietela eskaini adierazten dutenak.

IV.5.4. Grafikoa: ETAREN aurkako mobilizazioei emandako babes nazionalismoaren arabera (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Agerikoa da hortaz, nazionalismoaren aldagaiak ETaren aurkako mobilizazioei eskaintzen zaien babesean eragin zuzena duena. Dena den, nazionalismoaren arabera irudika ditzakegun bi talde etnonazionalen artean ezberdintasunak ikus baditzakegu ere, euren burua abertzaletzat dutenen jarrera ez da homoginoa (ikus IV.5.4. grafikoa).

Inkestaturen nortasun subjektiboari erreparatuz, espainolak gehiago (%75,5) eta euskaldunak bezain espainiarrak dira (%68,4) ETaren aurkako mobilizazioei babes handiena eskaintzen dietenak. Aldiz, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak dira babes gutxiena eskaintzen dietenak. %37,2ak babes asko edo nahikoa ematen die ETaren aurkako mobilizazioei eta %52,5ak gutxi edo batere ez.

IV.5.6. Taula: ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesa nortasun subjektiboaren arabera (2001)


	Espainola	Espainolagoa	Bikoitza	Euskaldunagoa	Euskalduna	Guztira
Asko+nahikoa	63,5	75,5	68,4	57,4	37,2	57,4
Gutxi+Batere ez	29	20,2	25	36,4	52,5	34,3
Ed/Ee	7,5	4,2	6,6	6,2	10,3	8,2
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Nazionalismo mailarekin ikusi bezala, *continuum* bat irudika dezakegu, nortasunaren ardatzean espainiar nortasunetik euskal nortasunera hurbildu ahala, herritarrek ETaren aurkako mobilizazioei emaniko babesa txikitu egiten da. Hortaz, agerikoa da nortasun subjektiboaren arabera gutxiengo edo gehiengo etnonazionalen baitan koka ditzakegun herritarren artean ETaren aurkako mobilizazioen babesa bestelakoa dela.

Bestalde, eta aurretik aipatu moduan, gutxiengo etnonazionalaren baitako herritarren artean ere badira ezberdintasunak. Zentzu honetan, euren burua euskalduna gehiago bezala definitzen duen %57,4ak ETaren aurkako mobilizazioei babes asko edo nahikoa azaltzen die; %36,4ak gutxi edo batere ez. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean aldiz, gehiago dira ETaren aurkako mobilizazioei babes gutxi edo batere ez dietela eman adierazten dutenak (ikus IV.5.5. grafikoa).

IV.5.5. Grafikoa: ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesaren nortasun subjektiboaren arabera (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Inkestatuak Espainiako Estatuarentzat lehenesten duten ereduaren arabera ere jarrera ezberdinak ikus ditzakegu ETaren aurkako mobilizazioekiko.


IV.5.7. Taula: ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesaren lehenetsitako estatu antolaketaren arabera (2001)

	Asko+nahikoa	Gutxi+Batere ez	Ed/Ee	Guztira
Espainiak gobernu zentral bakarra	71,4	17,1	11,6	100
Erkidego Autonomoekin jarraitu	73,5	21,6	4,8	100
Autonomia Erkidegoa baino eskumen gehiagorekin	56,1	38,9	5	100
Autodeterminazioa EAE independente izateko	41,7	51,1	7,2	100
Guztira	57,4	34,3	8,2	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Gobernu bakarreko estatu zentral bat (%71,4) edota egungo autonomien eredia defendatzen dutenak (%73,5) dira ETAREN aurkako mobilizazioekiko babes maila altuena azaltzen dutenak. Independentziaren aukera gustukoak dutenen artean aldiz, %41,7ak ETAREN aurkako mobilizazioak asko edo nahikoa babesten dituela adierazten du eta %51,1ak gutxi edota ez dituela babesten. Modu honetara, egungo estatu ereduaren haustura nahiko luketen herritarren artean ETAREN aurkako mobilizazioak gutxi edo batere ez dituztela babesten azaltzen dutenak gehiago dira; aldiz, bestelako estatu antolaketa lehenesten dutenen artean babesa handiagoa da, hemen ere gradazio bat ikus badezakegu ere.

IV.5.6. Grafikoa: ETAREN aurkako mobilizazioei emandako babesa lehenetsitako estatu antolaketa araber (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Bukatzeko, herritarrek ETAREN aurkako mobilizazioei emandako babesa 1998ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzen araber nolakoa izan den ikusiko dugu. PP (%79,6), PSE (%70,8), EAJ (%65) eta IU/EBko (%61) boto-emileen gehiengoak ETAREN aurkako mobilizazioak asko edo nahikoa babesten dituela azaltzen du. EAKoen artean ere gehiago dira (%54,9) babesa azaltzen dutenak, babes gutxi edo batere ez adierazten dutenak baino (%40,5). EHko boto-emaeleak dira, distantzia handiarekin, ETAREN aurkako mobilizazioei babes txikiena azaltzen dietenak, %11,5ak babes handia edo nahikoa azaltzen du baina

gehiengo zabal batek (%80ak) ETaren aurkako mobilizazioak gutxi edota ez dituela babesten azaltzen du.


IV.5.8. Taula: ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesa 1998ko bozka oroitzenaren arabera (2001)

	EAJ	PP	PSE/EE	EH/HB	EA	IU/EB	Guztira
Asko+nahikoa	65,8	79,6	70,8	11,5	54,9	61	57,4
Gutxi+Batere ez	29,5	20,4	25,7	80	40,5	31,2	34,3
Ed/Ee	4,7	0	3,6	8,5	4,7	7,8	8,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesa nazionalismo maila eta nortasunaren arabera aztertu dugunean, bietan *continuum* bat irudikatu ahal genuen. Gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen baitan ezberdintasunak ikusi ahal genituen eta azpialde bakoitzeko herritarren jarrerak homogeenak ez zirela ikusi genuen. ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesa bozka oroitzenaren arabera aztertuz ere, gehiengo eta gutxiengo etnonazionalen baitako ezberdintasunak daude, eta, beste aldagaiak baina gaitasun diskriminatzaile handiagoa erakusten dute. Bozkaren araberrako bereizketa agerikoa da, baina banaketa ardatz nagusia ez da alderdi abertzale eta alderdi espainolisten boto-emaitzen artekoa.

IV.5.7. Grafikoa: ETaren aurkako mobilizazioei emandako babesa 1998ko bozka oroitzenaren arabera (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

PP, PSE eta EAJko boto-emaileen artean gehiengoa da ETaren aurkako mobilizazioak babestu dituztela adierazi dutenak. EAkoen artean, maila baxuagoan bada ere, gehiago dira ETaren aurkako mobilizazioei babesa eman dietela adierazi dutenak; aldiz, Ezker Abertzaleko boto-emaileen %11,5ak soilik azaltzen die babesa ETaren aurkako mobilizazioei. Hortaz, eta herritarren bozka oroitzapenari erreparaturaz, maila batean ala bestean, alderdi ezberdinetako boto-emaileek babestu dituzte EAEn egin diren ETaren aurkako mobilizazioak. Salbuespena Ezker Abertzalearen boto-emaileak lirateke (ikus IV.5.7. grafikoa).

Laburbilduz, CISeko 2001eko inkesta honen arabera, ETaren aurkako mobilizazioekiko babes handia edo nahikoa azaltzen dutenak gutxi edo batere ez dutenak azaltzen baino gehiago direla ikusi dugu. Aldagai ezberdinei erreparaturaz, nazionalismo maila handitu ahala, eta espainiar-euskal ardatzean euskal nortasun bakarrera hurbildu ahala, ETaren aurkako mobilizazioei emaniko babesa txikitzen doala ikus dezakegu. Estatu ereduaren nahiak ez du hainbestean baldintzatzen mobilizazio hauekiko erakutsitako jarrera. Aldiz, bozka oroitzapenaren arabera ezberdintasun handiak ikus ditzakegu, baina ez alderdi guztien artean, ezberdintasuna EHri bozka eman ziotenen artean baitago. Ñabardurak badaude ere, gainontzeko alderdietan ETaren aurkako mobilizazioekiko babes handia edo nahikoaren aukera nagusitzen da, EHko boto-emaileen gehiengo zabal batek aldiz, ETaren aurkako mobilizazioak gutxi edo batere ez dituela babesten azaltzen du.

Datu hauek ikusirik, zenbatean eman dezakegu ontzat edo okertzat Connorren zortzigarren hipotesia?: *Talde etnonazionalerako kideak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen dira.* Hau da, noraino aldera dezakegu ETaren aurkako mobilizazioak ez babestea ETaren biolentzia babestearekin? Bi dimentsioak ezberdinak dira eta datu hauetan oinarrituz gutxiengo etnonazionalerako kideen gehiengoak ere ETaren aurkako mobilizazioak babestu dituela esan genezake, hori bai, talde dominanteko kideak baino era lausagoan.

Gehiengo/gutxiengo etnonazionaletik haratago ordea, gutxiengoaren baitako ezberdintasunak ere adierazgarriak direla esan dezakegu. Nazionalismoaren aldagaiari helduz, 5-8 tartean kokatzen direnen artean, gehiago dira ETaren aurkako mobilizazioak babestu dituztela adierazten dutenak; aldiz, euren burua nazionalismo eskalan 9-10ean kokatu dutenen artean gehiago dira mobilizazio hauek babestu ez dituztenak. Nortasun subjektiboari erreparaturaz, euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean

gehiago dira ETAREN aurkako mobilizazioak babestu dituztenak; aldiz, euskaldunak bakarrik direla adierazten dutenen artean gehiago dira mobilizazio hauek babestu ez dituztenak.


Baina benetan, diskriminatzen duen aldagaia bozka oroitzapenera da. Izan ere, ETAREN aurkako mobilizazioei dagokionean, ezberdintasunaren ardatza ez da alderdi abertzale edo ez abertzaleei bozkatu izana. EHko boto-emaileen artean bakarrik gailentzen da mobilizazio hauekiko atxikimendu eza, eta boto-emaile hauen gehiengoak mobilizazio hauek gutxi edo batere ez dituztela babesten adierazten du. Herritarrek ETAREN aurkako mobilizazioei emaniko babes hartzaz, hein batean, euren abertzaletasuna eta nortasun subjektiboak baldintzatuta dago. Helburu eta bitartekoen arteko eztabaidara garamatza honek. ETAK helburu nazionalistak izatea litzateke herritar abertzale askori bere aurkakotasuna azaleratzea eragozten diona? Helburu konpartituak bitartekoen etikotasuna bigarren maila iragatea ahalbidetu du? Auzi honi aurrerago helduko diogu, baina helburuen auzia izan daiteke gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasuna esplikatzen dezakeen faktoreetako bat.

Dena den, gutxiengoaren baitako jarrera ere ez da homogeneous, eta, abertzaleen artean ere, jarrerak ezberdinak dira, batik bat, bozka oroitzapenaren aldagaia kontuan hartzen badugu. Modu honetara, hiruak alderdi abertzaleak izanik ere, Ezker Abertzaleko boto-emaileak dira ETAREN aurkako mobilizazioei ia inongo atxikimendurik erakusten ez dietenak. EAKOEN artean aldiz, eta bereziki EAJKO boto-emaileei dagokienean, ETAREN aurkako mobilizazioekiko babes nagusitzen da. 1984. urteko ikerketan ikusitakoaren ildo beretsuan, ETAREN biolentzia legitimatzen zuten guztiak ez ziren Ezker Abertzalekoak, baina Ezker Abertzalearen boto-emaileen artean nagusitzen zen jarrera ETA legitimatzearena zen. Orain hizpide dugun auziak ez du neurtzen zuzenean biolentziaren babes baina bai bere babes edo errefuxapenaren adierazpen publikoaren irismena. Aurrerago ikusiko dugu gutxiengo etnonazionalak ETAREN aurkako mobilizazioei erakutsitako babes maila baxuagoa eta ETAREKIKO azaltzen duten jarreraren arteko harremana.

CISEKO ikerketarekin jarraituz, hizpide izango dugun bigarren galdera honakoa da: *Lanean, bizilagunen artean eta lankideen artean entzuten dituzun esamesetan, nola uste duzu azaltzen dituztela talde biolento eta ETAREKIKO sentimenduak?* Galdera honek ETAREKIKO sentimenduak azaltzeko moduan eta iritzia publikoki azaltzeko askatasunean ipintzen du fokua.

Inkestaturen erdiak, bere inguruko jendeak talde biolentoekiko duen haserrea publikoki azaltzen duela dio (%52,4). %28,9ak ordea, jendeak publikoki bere sentimenduak ez dituela azaltzen uste du eta %2,9ak, bere inguruko jendeak talde biolentoekiko eta ETArekiko babes publikoki azaltzen duela dio. Hortaz, inkestaturen gehiengo batek bere inguruko jendeak ETArekiko errefuxapena publikoki azaltzen duela uste du eta bere inguruko ia inork ez duela publikoki ETA babesten adierazten du (%2,9).

Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritziaren adierazpen publikoa (2001)




Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Ondoren, talde biolentoekiko eta ETArekiko sentimenduen adierazpen publikoa nazionalismoaren aldagaiarekin gurutzatuko dugu. Euren burua nazionalismo eskalan 5 eta 8 tartean kokatu dutenak dira euren inguruko jendeak ETArekiko haserrea publikoki azaltzen dutela gehien aipatu dutenak eta, era berean, jendeak bere sentimenduak publikoki ez dituela esaten gutxien azaldu dutenak.

Nazionalismo eskalan 1-2an kokatu diren euren inguruko jendea litzateke publikoki bere sentimenduak gutxien azaltzen dituenak eta, era berean, ETArekiko babes publikoa gutxien azaltzen duena. Euren sentimenduak gutxien azaltzen dituztenak ez-abertzaleak izateak zerikusirik izango du herritar hauek ETAREN aurkako iritzia azaltzeko izan dituzten hainbat eragozpenek. Ondorioz, askok zuhurtziaren hautua egin behar izan dute EAEn. Datuei erreparatu, nazionalismo eskalan 5-8 tartean kokaturikoen

inguruko jendea da ETArekiko sentimenduak publikoki gehien azaltzen dituenak. Ezin ahantzi ahal dugu EAEn ETArekin aurka egindako lehen mobilizazioak ez zirela ez abertzaleen eskutik etorri, batez ere sektore kristauekin loturiko jendartetik baizik. Bestalde, eta portzentajea txikia izanik ere, nazionalismo eskalan 10era gerturatu ahala, handitzen doa bere inguruko jendeak ETA eta talde biolentoak publikoki babesten dituztela adierazten dutenen portzentajea (ikus IV.5.9.grafikoa).

IV.5.9. Grafikoa: Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritzia adierazpen publikoa nazionalismo mailaren arabera (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, *Situación social y política en el País Vasco (2001)*

Talde biolentoekiko eta ETArekiko sentimenduen adierazpen publikoekin jarraituz, euskal herritarren nortasun subjektiboaren arabera aztertuko ditugu 2001eko inkesta datuak. Euskaldunak bakarrik sentitzen direla azaldu dutenen inguruko jendearen artean adierazten da gutxieneko publikoki ETA eta talde biolentoekiko haserrea, halere, %43,1ak bere inguruko jendeak horrela egiten duela adierazten du eta %24,4ak ez daki edo ez dio erantzuten galdera honi. Gainera, eta portzentajea txikia izanik ere, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen inguruko jendea da publikoki ETArekin babesa gehien adierazten diotenak (%5,5).

Nortasun subjektiboaren arabera talde ezberdinetan, hamarretik hiru dira, bere inguruko jendeak ETArekiko sentimenduak publikoki azaltzen ez dituztenak. Euskaldunak gehiago direla azaltzen dutenen artean

portzentajea %22,7ra txikitzen da. Zentzu honetan, nazionalismo eskalan 5-8 tartean kokatzen diren herritarrek erakutsitako jarreraren ildo beretsua ikusi ahal dugu, finean, abertzale moderatu bezala definitu ditzakegunak euskaldun gehiago direnaren nortasunarekin egiten dute bat. Eta hauexek dira, ETArekiko gaitzespena publikoa gehien azaltzen duten herritarrak.

IV.5.9. Taula: Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritziaren adierazpen publikoa nortasun subjektiboaren arabera (2001)

	Espainola	Espainolagoa	Bikoitza	Euskaldunagoa	Euskalduna	Guztira
Gaitzespen publikoa	51,9	55,6	56	60,9	43,1	52,4
Adierazpen publikorik ez	31,8	28,9	31,7	22,7	27	28,9
Jendaurreko babesa	1,3	0	1,9	2,9	5,5	2,9
Ed/Ee	15,1	15,6	10,4	13,6	24,4	15,8
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Lehenetsitako estatu antolaketari dagokionean, autodeterminazioa bitarteko, independentziaren aukera gustukoaren dutenen inguruko jendea da ETArekiko haserrea publiko gutxien azaltzen duena (%46,8) eta era berean, ETArekiko babesa publikoki gehien azaltzen duena (%6,8). Bestalde, egungo Erkidego Autonomoen egitura baina eskumen gehiagorekin nahi dutenen inguruko jendea da ETArekiko haserrea publikoki gehien azaltzen duena (%65).

IV.5.10. Taula: Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritziaren adierazpen publikoa estatu antolaketa nahiaren arabera (2001)

	Gaitzespen publikoa	Gaitzespen publikorik ez	Jendaurreko babesa	Ed/Ee	Guztira
Espainiak gobernu zentral bakarra	61,9	30,6	2,5	5,1	100
Aut.Erkidegoekin jarraitu	54	34,2	2,9	9	100
Aut. Erk.-a eskumen gehiagorekin	65	20,3	0,9	13,7	100
Autodeterminazioa Estatua izateko	46,8	28,4	6,8	18	100
Guztira	52,4	28,9	2,9	15,8	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)

Bukatzeko, talde biolentoekiko eta ETArekiko sentimenduen adierazpenei dagokionean, euskal herritarrek azaldutako jarrerak 1998ko hauteskunde autonomikoetako bozka oroitzapenaren arabera nolakoak diren ikusiko ditugu. Alderdi guztietako inkestaturen inguruko jendearen gehiengoak

publikoki azaltzen du ETArekiko haserrea. Baina salbuespen bat dago, izan ere, EHko boto-emaileen inguruko jendearen artean (%30,2) nabarmen txikitzen da ETArekiko haserrea publikoki adierazten dutenen jende kopurua, eta era berean, ETA publikoki babesten dutenen portzentajea handitzen da (%15,5). Gainera, EHri botua eman diola adierazten duen %30,4ak ez daki edota ez dio erantzuten galdera honi. Euskaldunak bakarrik sentitzen zirenen artean ere altua zen auzi honi erantzuten ez zirenen kopurua. Gutxiengo etnonazionalaren parte lireratekeen herritar hautentzat auzi deserosoa dirudi honakoa.

IV.5.11. Taula: Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritziaren adierazpen publikoa 1998ko bozka oroitzapenaren arabera (2001)

	EAJ	PP	PSE/EE	EH/HB	EA	IU/EB	Guztira
Gaitzespen publikoa	57,4	67,4	61,7	30,2	63,1	60,3	52,4
Adierazpen publikorik ez	26	25,1	31,1	24	27,8	32,6	28,9
Jendaurreko babesa	1,7	0	0	15,5	1,2	4,1	2,9
Ed/Ee	14,9	7,6	7,1	30,4	8	2,9	15,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIS, 2407 ikerketa, Situación social y política en el País Vasco (2001)


ETAren aurkako mobilizazioetan bezala, herritarren bozka litzateke jendeak ETArekiko publikoki azaltzen duen jarrera gehien baldintzatuko lukeen aldagaia. Jarrera ezberdintasuna gainera ez legoke ardatz abertzale/ez abertzalean kokatua; alderdi ezberdinetako boto-emaileen inguruko jendearen artean, gehienek, publikoki azaltzen dute ETArekiko haserrea eta gaitzespena, eta, ia inork ez du publikoki azaltzen bere babesa. EHko boto-emaileen artean aldiz, %30,2ak azaltzen du bere inguruko jendeak publikoki adierazten duela ETArekiko gaitzespena.

Laburbilduz, eta inkestatu ezberdinen inguruko jendeari erreparatuz, Connorren zortzigarren hipotesia ontzat eman genezake. Izan ere, gutxiengo bat da ETArekiko babes publikoa azaltzen duena eta bestalde, *jendeak ez ditu publikoki adierazten bere sentimenduak* erantzun aukerak ez du norabiderik eta ezin dugu jakin, azalduz gero, ETA eta talde biolentoak errefuxatzeko edo babesteko izango litzatekeen. Dena den, ezberdintasunak gutxiengo eta talde dominanteetatik haratago doazela esan genezake. Egia da inkestatuen nazionalismo maila handitu ahala eta espainiar euskal ardatzean euskal nortasunari hurbildu ahala, ETArekiko

haserre eta gaitzespen publikoa txikituz doala eta gutxiengo bat bada ere, ETArekiko babesaz azaltzen dutenen kopurua handituz doala.

Halere, ñabardurak egin beharrean gaude; nazionalismo ardatzari erreparatuz, gehiengo eta talde dominanteen arteko muga horretan aurkitzen baita publikoki ETArekiko haserre gehien azaltzen duen jendea. Era berean, euskaldunak gehiago sentitzen diren inguruko jendea da ETArekiko haserre publikoki gehien azaltzen duena. Garrantzitsua iruditzen zaigu ñabardura hau; izan ere, ez gara ari jendeak ETArekiko duen jarreraz, baizik eta jendeak publikoki adierazten duenaz. Eta badirudi zenbait ingurumariak erraztu egin dutela ETArekiko gaitzespen publiko hori bideratzea; abertzale moderatuena esaterako. Posible da, eta ez abertzaleekin konparatuz, errazago izatea herritar hauen zatia ETA publikoki gaitzestea abertzale izanik, espainolista etiketarekin geratzeko arriskua murriztu. Gainera, ez abertzaleak ETArekin mehatxupean egon izanak ere, herritar hauek publikoki bere jarduerak gaitzestea oztopatu duenaren ustea ere badugu.

IV.5.10. Grafikoa: Talde biolentoekiko eta ETArekiko iritzia adierazpen publikoaren arabera (2001)



Iturria: CIS, 2407 ikerketa, *Situación social y política en el País Vasco* (2001)

Baina aurretik azaldu bezala, inkestaren inguruneak ETArekiko sentimenduak azaltzeko modua diskriminatzen duen aldagai nagusia bozka litzateke. Datuek erakusten duten bezala, EHko boto-emaitzen

ingurunea da beste alderdietako boto-emailetako ingurunetik bereizten dena. Batetik, Ezker Abertzaleko boto-emaileen inguruneke jendea da ETArekiko haserrea publikoki gutxien azaltzen duena, eta bestetik, publikoki gehien babesten duena. Gainera, beste alderdietako boto-emaileekin alderatuz, portzentaje handi batek ez daki edo ez dio erantzuten galdera honi.

c) ETArekiko jarreraren bilakaera (1999-2013)

Zortzigarren hipotesi honen azterketarekin bukatzeko, Euskobarometroaren datuei erreparatuko diegu. Lehenik eta behin, 1999-2013 urte tartean ETArekiko jarrera zer nolakoa izan den aztertuko dugu. Ondoren, eta beste hipotesietan aukeratutako urteei helduaz, 1999, 2001, 2005, 2009 eta 2013a, urte bakoitzean EAeko herritarrek ETArekiko ze jarrera azaltzen duten aztertuko dugu, euren nortasun subjektiboa, abertzaletasuna eta bozka oroitzapena kontuan izanik. Modu honetara, talde etnonazional ezberdinetako kideek talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen diren ala ez ikusiko dugu.

1999. urtean inkestaturen %34,9ak erabateko gaitzespena erakusten du ETArekiko eta %19,6ak garai batean ETArekiko existentziak justifikaziorik bazuela uste du, baina ez, demokrazian. Inkestaturen %15a ETArekiko helburuekin bat dator, bere metodo biolentoak gaitzesten dituen arren, eta %9,1ak akatsak izan dituela onarturik ere, ETArekin oinarrian ados dagoela azaltzen du. ETArekiko jardunari erabateko babesa eskaintzen dion herritarren portzentajea %2,5ekoa da.

Erantzun aukera guztiak bi taldetan baneratzeko saiakera egin dugu IV.5.12. taulan. Lehenengoak, zeharka bada ere, biolentziaren legitimazio edo justifikazio bat adieraziko luke, bigarrenak ETArekiko jardun biolentoak inongo justifikaziorik ez duela. ETArekiko jarrera modu honetara aurkeztuaz, 1999ko datuek euskal herritarren artean ETArekiko jarrera nahiko banandua dagoela erakutsiko liguke. Herritarren erdiek (%46,2) ETArekiko jarduna justifikatuko lukete hein batean; gutxiengoa bada ere, erabateko babesa (%2,5) edota oinarritzkoa (%9,1) azaltzen duena.

2001eko datuei erreparatzen badiegu, ETArekiko jarreraren jauzi esanguratsu bat ematen dela ikusi dezakegu; bere jardunaren legitimazioa txikituz doa. Honela, %59,8ra handitzen da ETArekiko jarduna erabat gaitzesten duen herritarren kopurua, eta txikitzen doa ETArekiko babesa, erabatekoa (%0,7) nahiz oinarritzkoa (%2,3) edota helburuekin bat egin

arren, bere metodo biolentoeekin ados ez dagoela adierazten duen jende kopurua (%10,5) (ikus IV.5.12. taula).

2005, 2009 eta 2013ko datuei begira aldaketa nabarmenik ez da eman. Jauzia 2001eko datuetan ematen da, eta urte horretatik aurrera ETAREN gaitzespena %60aren inguruan mantentzen dela ikus dezakegu. ETAREN jardunarekiko babesa adierazten dutenen portzentajea ere 2001eko datuen inguruan kokatzen da serie osoan. Berdina gertatzen da ETAREN helburuekin bat etorri aurren, bere metodo biolentoeikiko desadostasuna adierazten duen jende kopuruarekin.

IV.5.12. Taula: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera (1999-2013)

	1999	2001	2005	2009	2013
Erabateko babesa	2,5	0,7	0,3	0,7	1,2
Oinarrizko babesa, baina akatsekin	9,1	2,3	2	2,3	2,3
Helburuekin bat, metodo biolentoeekin ez	15	10,5	10,9	10,3	11,9
Lehen justifikatua, demokrazian ez	19,6	16,1	21,8	12,9	15,7
Biolentziaren legitimazioa	46,2	29,6	35	26,2	31,1
Axolagabe	6	1,4	1,6	3,4	5,7
Beldurra	5,5	4,3	4,3	3,2	1,7
Erabateko gaitzespena	34,9	59,8	56,1	64,1	59
Biolentziaren deslejitimazioa	46,4	65,5	62	70,7	66,4
Ed/Ee	7,4	4,8	2,9	3,1	2,6
Guztira	100	100	100	100	100


Iturria: Euskobarometroko Serieak

Halere, aldaketa txiki batzuk ikus ditzakegu; 2005etik 2009ra handitu egiten da ETAREN jardunarekiko erabateko gaitzespena azaltzen duen herritarren portzentajea, eta txikitu, lehen justifikatua, baina orain demokrazian justifikaziorik ez duela azaltzen dutenena. Txikitu egiten da beraz, ETAREN jarduna, zeharka bada ere, justifikatzen zutenen portzentajea. 2013an aldiz, ETAREN jarduna erabat gaitzesten dutenen portzentajea txikitu egiten da, eta, zertxobait igo orain demokrazian justifikaziorik ez duela adierazten dutenena. Hein batean, ETAREN ibilbide osoa errefuxatzeko erresistentzia gisa interpreta dezakegu. 2013ko argazkia 2001ekoaren oso antzekoa dela ikus dezakegu beraz.

Laburbilduz, herritarren gehiengo zabal bat ETAk talde nazionalaren izenean egikaritu duen biolentziaren aurka dagoela esan genezake,

2001etik aurrera gutxienean. Horrek ez du esan nahi ordea, aurkakotasuna azaltzen duten guztiak erabateko gaitzespenarekin bat datozenik eta, honela, herritarren parte batek zeharkako justifikazio bat azalduko luke. Esaterako, demokrazian ez, baina lehen justifikatua zela azaltzen dutenak edota metodo biolentoekin ados ez izan arren, bere helburuekin bat egiten dutenak.

IV.5.11. Grafikoa: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera (1999-2013)



Iturria: Euskobarometroa

Euskal herritarrek azken urteetan ETArekiko izan duten jarrera ikusi ondoren, talde etnonazionalen baitan ETArekiko jarrera ezberdintasunik baden ikusiko dugu. Horretarako, eta Connorren beste hipotesi batzuetan egin bezala, ETArekiko iritzia herritarren nazionalismo maila, nortasun subjektiboa eta bozka oroitzapenarekin gurutzatuko ditugu. Horretarako, 1999, 2005 eta 2013 urteetako Euskobarometroko datuak erabiliko ditugu.

d) ETArekiko jarrera abertzaletasunaren arabera (1999, 2005 eta 2013)

Talde etnonazional ezberdinetako kideen jarrerak aztertzeko, lehenik eta behin, nazionalismoaren aldagaiari erreparatuko diogu. 1999ko Euskobarometroaren inkestan euren burua abertzale bezala definitzen duen %23,7ak ETArekin bat datorrela adierazten du, euren

burua abertzaleztat ez dutenen artean aldiz, portzentajea %8,7koa da. Abertzaleen %19,3ak erabateko gaitzespena azaltzen du ETArekiko, ez abertzaleen artean aldiz, portzentajea %50,1era handitzen da. ETArekiko oinarriko babesa erakusten dutenen artean, ezberdintasuna agerikoa da abertzale eta ez abertzaleen artean. Abertzaleen %18,5ak, akatsekin bada ere, oinarrian ETA babesten duela azaltzen du, ez abertzaleen artean aldiz, %2,1ak. Gainontzeko erantzun aukeretan ez dago ezberdintasun nabarmenik abertzale eta ez abertzaleen artean (ikus IV.5.13.taula).

IV.5.13. Taula: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera abertzaletasunaren arabera (1999-2013)

		1999	2005	2013
Erabateko babesa	Abertzaleak	5,6	0,5	1,8
	Ez abertzaleak	0,2	0,2	0,7
Oinarriko babesa, baina akatsekin	Abertzaleak	18,5	4,2	4,7
	Ez abertzaleak	2,1	0,2	0,3
Helburuekin bat, metodoekin ez	Abertzaleak	23,7	18,7	20,5
	Ez abertzaleak	8,7	4,2	3,8
Lehen justifikatua, demokrazian ez	Ez abertzaleak	18,8	22,1	15,1
	Abertzaleak	22,1	18,7	13,2
Biolentziaren legitimazioa	Ez abertzaleak	66,6	45,5	42,1
	Abertzaleak	33,1	23,3	18
Axolagabe	Ez abertzaleak	4,6	1,2	5,4
	Abertzaleak	6	1,4	5,7
Beldurra	Ez abertzaleak	4,8	3,7	1,3
	Abertzaleak	6,5	4,9	2,3
Erabateko gaitzespena	Ez abertzaleak	19,3	43,9	47,9
	Abertzaleak	50,1	69,6	72,3
Biolentziaren deslegitimazioa	Ez abertzaleak	28,7	48,8	54,6
	Abertzaleak	62,6	75,9	80,3
Ed/Ee	Ez abertzaleak	4,8	5,6	3,2
	Abertzaleak	4,3	0,7	1,7
GUZTIRA		100	100	100

Iturria: Euskobarometroko Serieak

Irakurketa orokorrago bat egiten badugu, auzia, biolentziaren nolabaiteko deslegitimazio edo justifikazioan kokatuz, agerikoa da abertzale eta ez abertzaleek ETArekiko izandako jarrera ezberdina. Honela, 1999an abertzaleen bi herenek ETArekiko jardunarekiko nolabaiteko babesa

erakusten dute; aldiz, ez abertzaleen artean portzentaje hau %33,1era txikitzen da. Ez abertzaleek erakutsitako babesa, hein handi batean, lehen justifikatua, baina orain demokrazian ez denaren ideiarda mugatzen da. Erantzun aukera honek interpretazio anitzak izan ditzake baina horietako bat ez abertzale batzuk ETArein jarduna gaitzesteko behar izan duten argudio edo irtenbidea izan daiteke. Ziurrenik, lehen ere ez zela justifikatua pentsa dezakete, baina euskarri bezala balio die, bizi garen ingurumarian interpretazio onargarriago moduko bat litzateke.

2005eko datuei begira, bada aldaketarik, bereziki abertzale bezala definitu direnen artean. ETArekiko oinarriko babesa adierazten dutenen portzentajea %4,2koa da (%18,5a 1999an). ETArein helburuekin bat datorrela (%18,7) adierazten dutenen portzentajea ere zertxobait txikitu da (%23,7a 1999an). Bestalde, bai abertzaleen artean (%43,9), eta bai ez abertzaleen artean (%69,6), ETArein jarduna erabat gaitzesten dutenen kopurua igo egin da. Hortaz, aldaketak eman dira ETArein jardunarekiko, abertzale eta ez abertzaleen iritzi ezberdintasuna antzeman dezakegun arren. Abertzaleen artean, askoz ere handiagoa da metodo biolentoein bat egin ez arren bere helburuekin bat datorrela adierazten dutenen portzentajea (%18,7) eta txikiagoa, erabateko gaitzespena azaltzen dutenena (%43,9) (ikus IV.5.13.taula).


Honela, eta aurretik egindako sailkapenari helduaz, abertzaleek ETArekiko erakusten duten jarrera nahiko heterogeneoa dela ikus dezakegu. Erdiek, era batera edo bestera, ETArein jarduna justifikatzen jarraituko lukete, beti ere kontuan izanik *lehen justifikatua, baina orain demokrazian ez* erantzun aukera azpitalde horren baitan kokatzea erabaki dugula. Ez abertzaleen artean aldiz, gehiengoak ETArein jardunarekiko inongo justifikaziorik ez luke onartuko.

2013ko datuek ere 2005ean ikusiriko argazki berdinerara garamatza. Zertxobait handitzen da ETArekiko erabateko gaitzespena azaltzen dutenen kopurua, bai abertzaleen artean eta bai ez abertzaleen artean, baina oraindik bi taldeek erantzun aukera honetan azaltzen duten babesa oso bestelakoa da. Erantzun honetaz gain, abertzale eta ez abertzaleen arteko beste ezberdintasun gakoak, helburuekin bat, baina metodo biolentoein ados azaltzen ez direnen kopurua da.

ETArekiko jarreraren bilakaera abertzale eta ez abertzaleen artean ezberdina dela ikus dezakegu. Serie osoa aintzakotzat hartuta, eta abertzaleen artean 1999a salbu, ETArekiko erabateko gaitzespena da, bai

abertzaleen artean eta bai ez abertzaleen artean, erantzun portzentaje handiena duena. Halere, ezberdintasunak agerikoak dira. Alderdi ez abertzaleetako boto-emaitzen artean erantzun honek askoz ere pisu handiagoa du, eta, zeharka bada ere, ETAre jarduna hein batean justifikatuko luketen posizioek pisu txikiagoa dute. Abertzaleen artean aldiz, posizioak banandurik leudeke; ia erdiek erabateko gaitzespena erakusten dute, baina beste erdiak, lehen justifikatua, baina demokrazian ez duela adierazten dute edota metodoekin bat egin ez arren helburuekin bat datozela. Gainera, portzentajea txikia bada ere, herritar abertzale batzuk egun ere ETAre jarduna babesten dute.

IV.5.12. Grafikoa: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera abertzaletasunaren arabera (1999-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Ikusirik urte guztietan, abertzaleen artean indar handiagoa du metodoekin bat egin ez arren, helburuekin bat datozenaren erantzun aukerak, eta, hein batean logikotzat jo dezakegu, ETAk bere burua askapen nazionalerako mugimendu bezala definitu izan baitu. Helburuekin balizko batetortze honek gainera, zenbaitetan auzitan jarri du abertzaleek historikiko ETArekiko izan duten, eta, oraindik mantentzen duten jarrera. Hau da, zenbaitentzat, abertzale asko ETAre helburuekin bat etorri

izanak, ETAk bere jarduera armatua uztearen erabakia atzeratzea ahalbidetu du. Javier Villanuevak (2009) esaterako, ETAREN helburu eta bitartekoak bi plano ezberdinetan kokatzen dituztenak kritikatzeko ditu. Bere aburuz, helburu eta bitartekoen arteko elkartzeko da funtsezkoa:

- Batetik, helburuei begira, ETAk bere sinesmenak eta xedeak intolerantziak eta zorrotasunez ulertzen ditu gizarte anitz baten ingurumarian.
- Bestetik, ETAREN helburuen kontzeptio fundamentalista helburu horiek bitarteko biolentzien bidez inposatzeko joeratik banaezina da.

Beste era batera esanda, ETAN funtsezkoa da helburu eta bitartekoen bereiziezintasunaren planteamendua. Villanuevaren aburuz (2009:53): “bere fanatismotik eratorritzen den aniztasunaren aurkakotasuna banaezina da bere autoritarismo harroputzetik, eta alderantziz”. Gainera, bere arabera, ETAREKIKO epai etiko eta politiko hau bateragarria da mende erdia iraun duen fenomeno batek suposatzen duen epai historiko baten konplexutasunarekin.

Aurelio Artetak ere helburu eta metodoen arteko auzi honi erreparatu izan dio. Artetak gogor kritikatzeko du nazionalismoaren alderdi batek ETAREN helburuak ontzat eman izana: “Ontzat ematen den helburuak beraz lortzeko bitarteko zitalei ontasun bat egotzen die edo bere desegokitasuna murrizten du” (Arteta, 1997). Artetaren aburuz gainera, nazionalismoak ez du ETAREN jardunarekiko gaitzespen osorik egingo eta ETAREN biolentziak kausa nazionalistari onura handiak ekarri dizkio. Ildo honetan, eta Villanuevak adierazitakoaren bidetik, ezinezkoa da metodo eta helburuen arteko disoziazioa ontzat ematea.

Hala eta guztiz, badira ETAREKIKO babesean helburu eta eduki nazionalistak baino, bestelako auzi batzuk lehentasuna izan dutela adierazten dutenak. Setienek esaterako, hizpide ditu ETAREN babes sozialaren zenbait gako: “ETA birsortzearen eta bizirik irautearen erraztasunaren ardatza bere barneratze soziala da. Barneratze hau, abertzale sozialistak izeneko sektore baten partetik ematen da, ETAREN izatearen, edota bere dimentsio partzial baten atxikimenduan oinarriturik (bere mezu sozio-ekonomikoa, politikoa edota kulturala), edota preso daudenekin eta aitortuak ez zaizkien eskubideen defentsarekin dauden familia lotura eta afektiboak medio” (Setién, 2007:129-139). Setiennen ustez beraz, ETAREN babesaren oinarria ez lego ke ardatz identitarioan,

ideologikoan baizik. Dena den, hizpide izan ditugun datuei erreparatuz, ukaezina da abertzaletasunak ETAREN jardunaren babesean, edota gaitzespen ahulagoan izan duen papera.

e) ETAREKIKO JARRERA NORTASUN SUBJEKTIBOAREN ARABERA (1999, 2005 eta 2013)

Herritarren nortasun subjektiboaren arabera ere ETAREKIKO JARRERA ezberdinak ikus ditzakegu. 1999an, espainiarrak bakarrik (%57,7), espainiarrak gehiago (%69,1) eta euskaldunak bezain espainiarrak sentitzen direnen artean (%46,2) nagusitzen den ETAREKIKO JARRERA erabateko gaitzespenarena da. Euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean, ETAREKIKO erabateko gaitzespena %29,9ak azaltzen du, %25ak berriz, lehen ETAK bazuela justifikaziorik esaten du, baina orain, demokrazian ez. %19,4a ETAREN helburuekin bat dator, baina ez bere metodo biolentoekin, eta %9,9ak akatsak akats, oinarrian ETAREKIKO babesa azaltzen du. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean, %28,6 bat dator ETAREN helburuekin, metodo biolentoak gaitzesten baditu ere eta %20,4ak oinarrian ETAREKIN bat egiten duela azaltzen du. %15ak uste du lehen justifikatua zela ETAREN existentzia, baina orain demokrazian, ez, eta %11,4ak erabateko gaitzespena erakusten du (ikus IV.5.14.taula).

Agerikoa da talde dominanteko kideek duten jarrera eta gutxiengo etnonazionalaren artean badela ezberdintasunik. Baina gutxiengoa osatzen dutenen artean ere, hau da, euskaldunak gehiago eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnen jarrera ez da homogenea. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnak lirateke ETAREN jarduna gehien hobesten dutenak, izan ere %28,8ak bere babesa erakusten du, %15ak orain justifikaziorik ez duela azaltzen du eta %11,4ak soilik gaitzesten du erabat bere jarduna. Gainera, %72,4ak ETAREN jarduna justifikatu luke era batera edo bestera; euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean ere jarrera hau nagusi da baina babesa baxuagoa litzateke.

2005eko datuei erreparatuz, ETAREN JARRERAREKIKO eboluzio datuetan ikusi bezala, erabateko gaitzespena handituz doa eta, oinarritzko babesa, txikituz. Nortasun subjektiboaren arabera talde ezberdinei erreparatuz, aldaketa nabarmenetariko euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean ikus dezakegu. 1999an euskaldunak bakarrik sentitzen ziren %20,4ak oinarrian ETA babesten zuela adierazten zuen, 2005ean aldiz, %5,6ak. Era berean, azpitalde honen baitan igo egiten da lehen justifikatua zela, baina orain ez, adierazten dutenen kopurua (%22,9). Erabateko gaitzespena azaltzen

duenen igoera talde guztietan ematen da, baina azpimarragarria da euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean izandako gorakada, 2005ean %41,8an kokatuz. Hala eta guztiz, eta 1999arekin alderatuz jarrera ezberdintasunak urritzen badoaz ere, gehiengo eta gutxiengo etnonazionalak oraindik ETArekiko jardunarekiko jarrera ezberdina erakusten dute.


IV.5.14.Taula: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera nortasun subjektiboaren arabera (1999-2013)

		Espainola	Espainolagoa	Bikoitza	Euskaldunagoa	Euskalduna
Erabateko babesa	1999	0	1,2	0	0,9	8,4
	2005	0	0	0	0	0,8
	2013	0	0	0,7	0,8	2,5
Oinarrizko babesa, baina akatsekin	1999	2,1	0	3,4	9,9	20,4
	2005	0	0	0	0,5	5,6
	2013	0	0	0,2	1,2	5,9
Helburuekin bat, metodo biolentoeekin ez	1999	6,2	2,5	7,1	19,4	28,6
	2005	0	1,9	2,6	12,9	20,2
	2013	0	0	2,2	12	24,4
Lehen justifikatua, demokrazian ez	1999	17,5	7,4	24,3	25,6	15
	2005	5,6	8,7	20,6	31	22,9
	2013	4,8	8,3	11,2	19	20,4
Biolentziaren legitimazioa	1999	25,8	11,1	34,8	55,8	72,4
	2005	5,6	10,6	23,2	44,4	49,5
	2013	4,8	8,3	14,3	33	53,2
Axolagabe	1999	5,2	6,2	8,7	5,6	3,5
	2005	2,8	0	1	3,3	1,3
	2013	7,1	8,3	5,1	5,8	5,9
Beldurra	1999	7,2	7,4	6,6	4,3	5,4
	2005	12,5	3,9	4,4	4,4	2,8
	2013	0	5,6	2,7	0,8	1
Erabateko gaitzespena	1999	57,7	69,1	46,2	29,9	11,4
	2005	79,2	85,4	69,4	44,9	41,8
	2013	85,7	77,8	76,4	59,3	35,2
Biolentziaren deslegitimazioa	1999	70,1	82,7	61,5	39,8	20,3
	2005	94,5	89,3	74,8	52,6	45,9
	2013	92,8	91,7	84,2	65,9	42,1
ED/EE	1999	4,1	6,2	3,7	4,3	7,1
	2005	0	0	2	3	4,5
	2013	2,4	0	1,4	1,2	4,6
GUZTIRA		100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroko Serieak

2013ko datuei helduz, euskaldunak bezain espainolak (%76,4) eta euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean (%59,3) berriro goruntz doa ETAre jarduna erabat gaitzesten dutenen kopurua eta aldiz, txikituz, demokrazian ez, baina lehen justifikatua zela uste zutenen kopurua. Euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean, eta 2005arekin alderatuz, zerbait txikitzen da erabateko gaitzespena azaltzen dutenen portzentajea (%35,2). Ia maila berean igotzen da helburuekin bat egin arren, bere metodo biolentoeekin ados ez dagoen jende kopurua (%24,4) (ikus IV.5.14.taula eta IV.5.13. grafikoa).

IV.5.13. Grafikoa: EAEko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera nortasun subjektiboaren arabera (1999-2013)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Abertzaletasunaren aldagaiarekin ikusi bezala, nortasun subjektiboaren arabera definituriko talde etnonazionaltako kideek jarrera ezberdina erakusten dute. Talde dominanteko kideen artean, ETArekiko erabateko gaitzespena gutxiengo talde etnonazionaltako kideen artean baino handiagoa da. ETArekiko erabateko babesa aldiz, jarrera minoritarioa izanik ere, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak azaltzen dute, eta euskaldun gehiago sentitzen direnekin batera, ETArekiko oinarrizko

babes maila altuagoa erakusten dute. ETArekiko helburuekiko adostasun maila ere altuagoa da gutxiengo talde etnonazionalen kideen artean.

Serie osoari erreparatzen badiogu, euskaldunak bakarrik sentitzen diren herritarren artean salbu, ETArekiko erabateko gaitzespena handituz doala ikus dezakegu. Hori bai, nortasun bikoitza azaltzen dutenen artean ETArekiko erabateko gaitzespena euskaldunak gehiago sentitzen diren artean baino indartsuagoa da. Gehiengo etnonazionalen eta gutxiengo etnonazionalen herritarren artean ikus dezakegun beste ezberdintasuna, gutxiengoaren baitan metodoekin ados egon gabe ere, ETArekiko helburuekin bat datoze adierazten dutenen portzentaje handiagoa da. Bereziki, euskaldunak bakarrik sentitzen diren herritarren artean. Bestalde, euskaldunak bakarrik sentitzen zirenen artean, 1999an %28,2ak ETArekiko jarduna babesten zuela ikusi genuen; 2013an portzentajea %8,4koa da (ikus IV.5.13.grafikoa).

Hortaz, herritarren abertzaletasun mailarekin ikus bezala, nortasun nazionalak ere eragina du ETArekiko jarrerari. Nortasunari dagokionean gainera, gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasuna handia da, baina baita ere gutxiengoaren partaide liratekeen artekoa ere.

f) ETArekiko jarrera bozkaren arabera (1999,2005, 2013)

Talde etnonazionalen kideek ETArekiko duten jarrera aztertzeke kontuan izango dugun azken aldagaia bozka da. Nazionalismoa eta nortasun subjektiboarekin ikus bezala, bozkaren aldagaiaren arabera ere inkestaturen jarrera ezberdinak ikus ditzakegu. Bozka irizpidetzat harturik, talde etnonazionalen kide bezala definituko ditugu PP eta PSE-EEko boto-emaileak. EA, EAJ (1998an bereizirik auzeratu ziren hauteskundeetara) eta EHko boto-emaileak aldiz, gutxiengo talde etnonazionalen kide bezala.

1998ko hauteskunde autonomikoetan emandako bozka oroitzen dagoen dagokionean, PP eta PSEko boto-emaileek jarrera antzekoa erakusten dute ETArekiko jardunarekiko. Bi alderdi hauei bozka eman zieten adierazten duen gehiengoak erabateko gaitzespena erakusten du ETArekiko, %58,8a PPko boto-emaileen artean, eta %51,5a PSEkoen artean. Horretaz gain, PPko boto-emaileen %23,7ak ETArekiko garai batean justifikaziorik izan zezakeela uste du, baina ez demokrazian. Iritzi beretsukoak dira PSEko boto-emaileak, eta %26,5ak demokrazian ETArekiko existentziak justifikaziorik ez duela azaltzen du.

IV.5.15. Taula: EAeko herritarrek ETArekiko izan duten jarreraren bilakaera bozka oroitzenaren arabera (1999-2013)

		EH/EHAK/					
		EA	ARALAR	EHBildu	EAJ	PP	PSE/EE
Erabateko babesa	1999	3,7		19,3	1,2	0	0
	2005		0	2,8	0	0	0
	2013			3	1	0	0
Oinarrizko babesa, baina akatsekin	1999	7,4		43,6	8,8	1,8	4,4
	2005		0	15,3	0,2	0	0
	2013			10,4	0	0	0
Helburuekin bat, metodo biolentoeekin ez	1999	27,8		24,3	22,9	3,5	5,9
	2005		23,1	48,6	7,5	0,9	1,3
	2013			42,3	7,4	0	1,7
Lehen justifikatua, demokrazian ez	1999	27,8		5,7	20,9	23,7	26,5
	2005		36,5	19,8	29,1	0,9	13,8
	2013			16,4	22,5	3,3	13,3
Biolentziaren legitimazioa	1999	66,7		92,9	53,8	29	36,8
	2005		59,6	86,5	36,8	1,8	15,1
	2013			72,1	30,9	3,3	15
Axolagabe	1999	3,7		2,9	3,8	5,3	2,2
	2005		5,8	2,3	1,4	0	0,9
	2013			9	3	0	5,8
Beldurra	1999	3,7		0	6,8	7	6,6
	2005		3,8	0	5,7	6,4	6,5
	2013			0	2,3	0	0
Erabateko gaitzespena	1999	20,4		0,7	31,8	58,8	51,5
	2005		28,8	3,4	54,3	91,7	76,3
	2013			13,4	62,4	96,7	79,2
Biolentziaren deslegitimazioa	1999	27,8		3,6	42,4	71,1	60,3
	2005		38,4	5,7	61,4	98,1	83,7
	2013			22,4	67,7	96,7	85
Ed/Ee	1999	5,6		3,6	3,8	0	2,9
	2005		1,9	7,9	1,8	0	1,3
	2013			5,5	1,3	0	0
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa

Bozka abertzalea egiten dutenen artean, bada ezberdintasunik ETArekiko azaltzen duten jarreraren inguruan. EAJren boto-emaielen %31,8ak ETArekiko erabateko gaitzespena azaltzen du, EAkoen artean portzentajea %20,4koa da. EHko boto-emaielen artean aldiz, ia inork ez

du azaltzen ETArekiko erabateko gaitzespena. EHko boto-emaileen artean, akatsekin bada ere, ETArekiko oinarrizko babesak da nagusitzen den jarrera (%43,6), EAko (%7,4) eta EAJko (%8,8) boto-emaileen artean aldiz, erantzun aukera honek askoz babes txikiagoa du. Era berean, EAko boto-emaileen %27,8ak, eta EAJkoen %20,9ak, demokrazian ETAk justifikaziorik ez duela uste du; EHko boto-emaileen artean aldiz, %5,7ak bakarrik. Bestalde, hiru alderdi abertzaleetako boto-emaileen portzentaje esanguratsu batek azaltzen du ETAREN helburuekiko adostasuna, metodo biolentoekin ados ez egon arren. Berrito ere mahai gainean dugu abertzaleek helburu eta metodoen artean egiten duten disoziazioa (ikus IV.5.15.taula)


Laburbilduz, bozka espainolista egiten duten herritarrek ETArekiko erabateko gaitzespen handiagoa erakusten dute, bozka abertzalea egiten dutenak baino. Bozka abertzalea egiten dutenen artean aldiz, metodo biolentoeak gaitzesten badituzte ere, ETArekiko helburuekiko adostasun maila altuagoa erakusten dute, bozka espainolista egiten dutenak baino. Dena den, bozka abertzalea irizpidetzat harturik, gutxiengo talde etnonazionalako kideen jarrera heterogeneoa agerikoa da ETArekiko jardunari dagokionean.

Zentzu honetan, eta 1999ko datuei erreparaturik, EA eta EAJko boto-emaileak PSE eta PPko boto-emaileengandik bereizten badira ere, EHko boto-emaileek erakutsitako jarreratik urrun daude. Aipatu dugu EHko boto-emaileen artean ia inork ez duela ETArekiko erabateko gaitzespena azaltzen. Horretaz gain, %19,3ak ETAREN jardunarekiko erabateko babesak azaltzen du (EAkoen artean %3,7ak eta EAJkoen artean %1,2ak), eta %43,6ak, akatsekin bada ere, oinarrian ETA babesten duela dio (EAkoen artean %7,4 eta EAJkoen artean %8,8).

2005eko datuei begira, agerikoa da 1999arekin alderaturik, herritarrek ETArekiko duten jarreraren jauzi baten aurrean gaudela. 2005eko hauteskunde autonomikoetan, berritasun bezala, Ezker Abertzaleetik banandutako Aralar alderdia aurkeztu zen lehen aldiz, eta EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. Ezker Abertzalearen boto-emaileen artean ikus ditzakegu aldaketa nabarmenenak, hain zuzen ere, EHAKri bozka eman ziotela adierazi dutenen artean. 1999ko datuekin alderaturik, oinarrian ETAREN jarduna babesten zuen portzentajea nabarmen txikitzen da, %43,6tik %15,3ra, eta handitu egiten da helburuekin bat etorri arren, metodo biolentoekin ados ez daudela azaltzen dutenen kopurua (%48,6), lehen justifikatua zela baina orain ez dela uste dutenekin batera. Erabateko

gaitzespenaren erantzun aukerak ia ez du aldaketarik baina Ezker Abertzalearen boto-emaileek ETArekiko azaltzen duten jarrerara 1999arekin alderatuz aldatzen doa (ikus IV.5.14. grafikoa).

IV.5.14. Grafikoa: ETArekiko jarreraren bilakaera Ezker Abertzaleko boto-emaielen artean (1999-2013)




Iturria: Euskobarometroko Serieak

EAJ/EA koalizioari dagokionean, eta EAJren boto-emaileek 1999an azaldutako jarrerarekin alderatuz, aldaketa nabarmenena helburuekin bat etorri arren, bere metodoen aurkakotasuna azaltzen dutenen portzentajearen beherakada da (%7,5) eta era berean, 1999tik 2005era, orokorrean ETAREN gaitzespenean emandako jauzia ere nabarmena da (%54,3ra handituz EAJ-EA koalizioko boto-emaielen artean) (ikus IV.5.15.grafikoa).

Gehiago etnonazionalari dagokionean, PSE (%76,3) eta, bereziki PPko (%91,7) boto-emaielen artean ETAREN jarduna erabat gaitzesten dutenen kopurua nabarmen igotzen da 2005ean. Era berean demokrazian ez, baina hein batean lehen ETAREN biolentzia justifikatua zegoela uste zutenen portzentajea beheruntz doa.

IV.5.15. Grafikoa: ETArekiko jarreraren bilakaera EAJren boto-emaitzen artean (1999-2013)



Iturria: Euskobarometroa

2013ko datuei dagokionean, aurreko urteetako datuekiko konparaketa egitea are eta zailagoa egiten zaigu. Alde batetik, 2013an EAJ bakarrik aurkezten da, eta bestetik, Ezker Abertzalea, Aralar, EA eta Alternatiba batera aurkezten dira EH Bildu koalizioan. Hala eta guztiz, koalizioko boto-emaitzek 2013an ETArekiko azaltzen duten jarrera, 2005ean EHAKkoek azaltzen zutenetik ez da gehiegi aldentzen. Egia da ETArekiko erabateko gaitzespena igo egin dela, EHAKren 2009ko %3,4tik, %13,4ra 2013an behin EA, Aralar eta Alternatiba gehitu ondoren. Baina esaterako, oinarrizko babesa, oso gutxi txikitzen da, %10,4ra. EAJko boto-emaitzen artean aldiz, eta kontuan izanik, 2005ean EArekin aurkeztu zirela, igo egiten da ETaren jardunarekiko erabateko gaitzespena azaltzen dutenen portzentajea (ikus IV.5.14 eta IV.5.15. grafikoa).

Nazionalismoaren aldagaiak eta nortasun subjektiboaren aldagaiak talde dominanteko eta gutxiengo talde etnonazionalako kideen jarrera ezberdinak erakutsi dizkigu ETArekiko. Nortasun subjektiboaren aldagaia medio ordea, gutxiengoaren baitan ETArekiko jarrera ez dela homogenea agerian geratu da. Bozkak ere, zenbait jarreretan gutxiengo eta gehiengoaren jarrera ezberdinak determinatzen baditu ere, agerian uzten du auzi honi dagokionean ere, gutxiengo talde etnonazionalako kideek,

kasu honetan EA, EAJko eta Ezker Abertzaleko boto-emaileak, jarrera ezberdinak azaltzen dituztela. Orokorrean, EA eta EAJko boto-emaileak antzeko jarrera azaltzen dute eta Ezker Abertzaleko boto-emaileak dira ETArekiko jarrera ezberdinena erakusten dutenak. Datu hauei erreparatuz, Ezker Abertzaleko boto-emaileak ETAk talde nazionalaren izenean egikaritu duen biolentziarekiko aurkakotasun gutxien azaltzen dutenak direla esan genezake.

Laburbilduz, eta Connorren hipotesira itzuliaz, talde dominanteko kideek eta gutxiengo etnonazionalak ETAREN jardunarekiko iritzi ezberdinak dituzte. Talde dominanteko kideen artean, hau da, ez abertzale bezala definitu ditugunak, espainiarrak bakarrik edo gehiago, edota espainiar bezain euskadunak sentitzen direnak eta hauteskunde ezberdinetan PP edota PSEri bozka eman diotela azaldu dutenen artean ETArekiko erabateko gaitzespena zabalagoa da.

Gutxiengo etnonazionalaren artean ere, erabateko gaitzespena azaltzen dutenen portzentajea handituz joan da. Halere, gutxiengo etnonazionalaren baitan iritzi ezberdinak ikus ditzakegu. Esaterako, euskaldun bakarrik sentitzen direnen artean, ETArekiko babesa txikia izanik ere, beste taldeetan baino handiagoa da, 2013an ere, eta erabateko gaitzespena azaltzen dutenen portzentajea ere txikiagoa da. Dena den, honekin ez dugu adierazi nahi euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean ez dela nagusitzen ETAk talde etnonazionalaren izenean egikaritu duen biolentziaren aurkakotasuna, baina bai, aurkakotasun hori ere askoz gehiago matizatzen dela, edota beste parametro batzuen bidez azaltzen dela; lehen justifikaziorik bazuela esanez edota helburuekiko adostasuna azalduaz, metodoekin bat ez etorri arren.

Berdina esan dezakegu bozka abertzalea egiten dutenen arteko ezberdintasunez. Ezin genezake esan bozka abertzalea egiten dutenak bat datozela ETAk talde nazionalaren izenean egikaritu duen biolentziarekin. Baina bozka abertzalearen baitan, badago zati bat, hain zuzen ere, Ezker Abertzalearen boto-emaileek ordezkatuko luketeena, oraindik ere, hein batean, ETAREN jardun biolentzia babesten duena. 2013an, %42,3ak ETAREN helburuekin bat etorri arren, bere metodo biolentzoeekin ados ez dagoela adierazten du eta %16,4ak demokrazian ETAk ez duela justifikaziorik adierazten du. Aldiz, EH Bilduren boto-emaileen %13,4ak soilik azaltzen du ETArekiko erabateko gaitzespena.

Euskobarometroko serie honetan ikusiriko jarreraren arteko ezberdintasuna bat dator 2001eko CISEko datuen nondik norakoekin. Honela, ETArekiko gutxiengo eta gehiengoaren artean ikusiriko ezberdintasunak ere antzeman ditzakegu. ETArekiko aurkako mobilizazioek duten babes maila ezberdinarekin. Izan ere, nazionalismo eskalan 9-10ean kokatzen direnak, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean eta bereziki, EHren boto-emaileen artean zuten babes txikien ETArekiko mobilizazioek. Era berean, Ezker Abertzaleko boto-emaileen inguruko jendea da ETArekiko haserrea publikoki gutxien adierazten duena eta alderantziz, ETArekiko babesa publikoki gehien adierazten duena. Dena den, talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren babesaren gutxiengo eta gehiengoaren arteko jauzia, gutxiengoaren baitan ere ikus dezakegu. Ildo honetan, aztertutako *item* ezberdinek ETArekiko jardunarekiko babesa gutxiengoaren baitako azpitalde batera mugatzen da. Azpitalde hori hein handi batean Ezker Abertzaleko boto-emaileek osatuko lukete.

Halere, Ezker Abertzalearen baitan ere aldaketa esanguratsuak eman dira, are gehiago atal honetan hizpide izan ditugun 1984ko datuak hartzen baditugu erreferentzia gisa. Oinarrizko edo erabateko babesa erakusten duten herritar portzentajeak beheruntz egin du, eta goruntz, helburuekin bai, baina metodoekin bat ez datozela adierazten dutenena. Maila baxuagoan bada ere, lehen ETArekiko jarduna justifikatua zela, baina demokrazian ez, uste dutenena eta erabateko gaitzespena azaltzen dutenena ere goruntz egin du. Dena den, erabateko gaitzespenaren jarrera minoritaria izaten jarraitzen du Ezker Abertzaleko boto-emaileen artean. EAjren boto-emaileei erreparatzen badiegu aldiz, azken urteetan ETArekiko jarrera asko aldatu dela ikus dezakegu. Matizaziotik urrunduz, hazten doa ETArekiko jarduna erabat gaitzesten dutenen portzentajea eta txikituz, metodoekin bat egin arren helburuekin ados daudela azaltzen dutenen portzentajea.

Beraz, konklusioetara joaz, gaur egun gutxiengo etnonazionalaren parte liratekeen herritar gehienak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka agertzen direla esan genezake. Azken hogeita hamar urteetako bilakaerari erreparatuz, ETA erakundearekiko gaitzespena handituz joan dela agerikoa da. Aldaketa nagusia, bereziki gutxiengo etnonazionalari erreparatuz, 2001a geroztik ikusi ahal dugu. Izan ere, data horretatik aurrera, ETArekiko erabateko gaitzespena era esanguratsuan handitzen da gutxiengo etnonazionalako kide liratekeen herritarren artean. Hala eta guztiz, gutxiengo horren baitan, badago oraindik sektore bat talde

nazionalaren izenean egikaritutako biolentziaren aurkako posizio argi bat erakusten ez duena. Aurretik esan bezala, hein handi batean, Ezker Abertzalearen boto-emaileek osatuko lukete azpitalde hau.

Ondorioz, azken urteetan ETArekiko babes/gaitzespen korrelazioa aldatzen joan bada ere, esparru horretan kokatzen direnen artean ikus dezakegu oraindik biolentzia mota horren legitimazio poltsa handiena. Ildo honetan, biolentzia mota hau zilegitzat dutenen profila gehiegi aldatu ez dela esan genezake. Aldatu dena talde nazionalaren izenean egikaritutako biolentziaren onespen edo babes maila litzateke. Honela, Ezker Abertzalearen baitan ere, gero eta herritar gutxiagok erakutsiko lioke ETARI erabateko babesa, baina era berean, biolentzia hori ontzat ematen duten gehienak oraindik ere esparru horretan kokatuko lirateke. Hortaz, ETArekiko biolentziaren inguruko posizioak aztertzean ere, ezberdintasunak gehiengo eta gutxiengo etnonazionaletik haratago doaz. Gutxiengo etnonazionalaren baitako jarrerak, auzi honetan ere, ezberdinak dira.

9. Hipotesia : “Halere, portzentaje esanguratsu batek, banaketaren alde ez dauden asko barne, biolentziaren egileak begiko dituzte eta biolentzia horren errua beste batzuei egozten diete”

Connorrek biolentziaren legitimazioaren inguruko bigarren hipotesi hau aztertzeko, lehenik eta behin, Linzen *Conflicto en Euskadi (1986)* liburuari erreparatuko diogu. Bertan, besteak beste, ETAkideen irudiari buruzko galdera ezberdinak barneratzen dira. Guztiak, DATA enpresak 1978-1980 urte bitartean burututakoak dira. Behin Trantsizioaren ingurumariako datuak aztertuta, gaur egun, euskal gizarteak ETAkideei buruz ze irudi duen aztertuko dugu. Horretarako Euskobarometroak 1999an, 2005ean eta 2007ean eginiko galdera izango dugu aztergai, herritarrek ETAKo kideei buruz duten iritzia, hain zuzen ere.

Datu zehatzei heldu aurretik, Linzek biolentziaren legitimazio sozialaz esandakoa aipatuko dugu. Connorren zortzigarren hipotesian ere ikusi genituen euskal gizartean biolentziaren legitimazio sozialaren nondik norako batzuk. Linzentzako (1986) sozialki eta politikoki egoera gatazkatsuen aurrean gaude, biolentzia ilegala izanik ere, sektore batek legitimotzat, edota gutxienean ulergarritzat jotzen dituenen, edota orden

publikoaren ekintza legala ilegitimotzat jotzen denean. Egoera hau gizartearen sektore zabal batek partekatzen duenean ingurumaria aurreiraultzaile edota iraultzaile baten aurrean gaude, aldiz, gutxiengo bat denean horrela pentsatzen duena, ekintza terroristarako baldintzak sortzen dira. Minorien ekintza, babes aktibo gabekoa, baina babes pasiboa duena.

Iritzi publikoaren datuak Euskadiren independentzia lortzeko borroka biolentoaren ingurumarian kokatu behar dira Linzen arabera. Garrantzitsutzat jotzen du Elisabeth Noelle-Neumanen (1995) “isiltasun espiralaren” fenomenoak. Linzek bere ikerketa egin zen urteetan iritzi guztiak askatasun berdinarekin ez zirela adierazten dio. Ildo honetan, EAEn, ETAkideak abertzaleak direla uste dutenak, iritzi sektore zabal batek definizio hau onartzen duela sentitzen dute, nahiz eta agian EAEn era askeenean adierazten den iritzia besterik ez izan. Ondorioz, bestelako iritzia dutenak, isolaturik sentitzen dira, kikildu egiten dira eta isiltasunean erori. Autorearen arabera, urte hauetako inkesta datuak aztertzean kontuan izan beharko genuke aipaturiko fenomenoak.

IV.5.16. Taula: ETAkideen irudia EAEko herritarren artean (1978-1979)

	1978	1979	Erreferenduma aurretik	Erreferendumaren ondoren
Patriotak/abertzaleak	13	16	14	18
Idealistak	35	29	22	36
Manipulatuak	34	29	34	32
Zoroak	11	14	17	8
Gaizkileak	7	13	13	5
Guztira	100	100	100	100

Iturria: DATA

1978ko inkestako datuei erreparatzen badiegu, herritarren %13ak abertzale bezala definitzen ditu ETAkideak, %35arentzako idealista batzuk dira eta %34arentzat manipulatuak daude. %11arentzat zoratuak daude eta %7ak gaizkile bezala definitzen ditu. IV.5.16.taulako datuak 1978-1980 urte tartekoak dira, EAEn aldaketa politiko handiak eman zireneko aldia. Hala eta guztiz, ETAkideekiko legitimitate politikoaren aldeko jarrerak ez dira aldatu bi urte hauetan. Esaterako, Autonomia Estatutuaren erreferenduma eta gero, ETAkideak abertzale bezala definitzen zituztenen kopurua igo egiten da; herritarren %54ak ETAkideak abertzale eta idealista bezala definitzen dituelarik. Datu honen

interpretazioari dagokionean, Linzen arabera, zenbait kasutan posible da deskripzio hau bateragarria izatea ETAREN aurka egotearekin, baina orokorrean, deskribapen baloratibo bat da, eta, gutxienean, terrorismoarekiko “ulermena” suposatzen du, zenbaitetan babesa ere. Linzek dioten bezala, aztertutako urte hauetan, iritzi publiko batek behinik behin, terrorismoa termino sozialetan ez zuela deslegitimatzen agerikoa da.

Ondoren, euskal gizarteak ETAKideekiko duten irudia aldagai ezberdinen arabera aztertuko dugu. Gogoan izan behar dugu, ETAREN jarduna Euskal Herriaren zati baten ideologia politiko baten aldeko borroka ikusarazteko forma bat zela, eta hortaz, testuinguru ideologiko horren baitan aurkitu beharko da ETAREKIKO babes edo errefuxapen jarreraren nondik norakoak. Herritarren nortasun subjektiboaren arabera jarrera oso ezberdinak topa ditzakegu.

IV.5.17. Grafikoa: ETAKideen irudia EAEko herritarren artean nortasun subjektiboaren arabera (1979)

	Espainola	Espainolagoa	Bikoitza	Euskaldunagoa	Euskalduna	Guztira
Abertzaleak	0	2	7	16	33	17
Idealistak	16	25	36	34	38	33
Manipulatuak	42	42	36	25	18	29
Zoroak	16	9	6	9	5	8
Gaizkileak	13	9	4	5	2	5
Ed	17	4	16	15	10	14

Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferenduma eta gero eginiko inkesta

Espainiarrak bezala definitzen direnen artean ez dago inor ETAKideak abertzale bezala ikusten dituenik eta %13ak gaizkile komunak bezala ikusten ditu. Euskaldunak sentitzen diren %33arentzat aldiz, abertzaleak dira, eta, %2ak bakarrik definitzen ditu gaizkile bezala. Espainiarrak gehiago sentitzen diren %2ak soilik definitzen ditu ETAKideak abertzale bezala, espainiarra bezain euskaldunak sentitzen diren artean, %7ak, eta euskalduna bezain espainiarrak sentitzen diren artean %16ak. Modu honetara, *continuum* bat irudika dezakegu, nortasun subjektiboaren ardatzean espainiar nortasunetik euskal nortasunera goazen heinean, handitzen doa ETAKideak abertzale edota idealista bezala definitzen dituztenen portzentajea, eta aldiz, txikituz, zoroak eta gaizkile bezala definitzen dituztenena.

ETAkideak manipulatuak bezala ikusten dituztenen portzentajea nortasun subjektibo espainiarraren aukeretan handiagoa da. Modu honetara, Linzen arabera, espainiarrak edota leialtasuna bi komunitateekiko dutenek, ETArek fenomeno nazionalistikoz ezberdindu dezakete, gatazka euskaldun/espainiarren artean ez kokatzeko. Dena den, Linzek dioen moduan interpretazio anitz egin ditzakegu, eta ezin dugu jakin zergatik hautatu duten inkestak erantzun aukera hori. Halere, Linzek *manipulatuak* erantzun aukeraren hautuaren nondik norako posible bat luzatzen du, Connorren hipotesi honetan azaltzen den erruaren auziarekin ere loturarik izan dezakeela uste dugu gainera. Connorrek herritarrek biolentziaren errua beste batzuei egotzen dietela ere azaltzen du. Nahiko adierazpen orokorra da honakoa, baina uste dugu ETAkideak manipulatuak jotzeak harremana izan dezakeela errua beste batzuei egotzearen premiarekin. Inkestetan orokorrean gertatzen den bezala, ezin jakin ahal dugu *manipulatuak* bezala definitu dituzten herritarrek ze premisaren ondorioz egin duten erantzun aukera hori. Aurreratzen duguna hortaz, erantzun aukera horretatik guk eratortzen dugun interpretazio posible bat besterik ez da.


Ildo honetan, manipulatuak direnaren ustea azaltzean, nolabait, ETAkideei ardura edo errua kentzen zaienaren ustea dugu. Manipulazio horren autoreak ordea, ez dira zehazten. Hau da, ez dakigu, ideologia edo identitate zehatz batetaz ari diren. Kuestioa da, ETAkideek eginiko hautua, era batera, beste batzuei egotzen zaiela, eta, modu honetara, ia kide arduragabetzat hartuko lituzkete. Kontuan izanik, gehiengo etnonazionalaren baitan kokatzen diren herritarren artean gehiengo direla ETAkideak manipulatuak direla uste dutenak, posible da manipulazio hori nazionalismoari egotzea.

Aurretik aipatu dugu, nortasunaren arabera ETAkideekiko jarrera aztertzean, *continuum* bat irudika genezakeela. IV.5.16. grafikoari erreparatzen badiogu ordea, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko puntu amankomunak ere ikus ditzakegu. Honela, 1979an, ETAkideak idealistatzat jotzen dituztenen portzentajean ia ez du eraginik nortasun subjektiboak.

Ziurrenik, testuinguru politikoak eragin zuzena du; Franko hil eta bi urte besterik pasa ez zireneko urteaz ari gara eta. Borroka antifrakista ETAk izandako babesa ez zen nortasun subjektibo bati edo bakarrari atxikitzen. Gainera, ETAkideen inguruko jarrerak, gutxiengo eta gehiengoaren artean ezezik, gutxiengo etnonazionalaren baitako ezberdintasunak ere agerian

uzten dizkigu. ETAkideak idealista bezala definitzen dituztenak dira nagusi nortasun subjektibo ezberdinen baitan, baina, esaterako, euskaldunak gehiago sentitzen direnen artean manipulatuak direla uste dutenen aukera da bigarrenik gehien aipatu dena; aldiz, euskaldunak bakarrik sentitzen direnen artean, eta idealisten erantzunetik gertu, ETAkideak abertzale bezala definitzen dituztenak leudeke.

IV.5.16. Grafikoa: ETAkideen irudia EAEko herritarren artean nortasun subjektiboaren arabera (1979)



Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferenduma eta gero eginiko inkesta

Bozkaren bidez neur dezakegun ideologia politikoaren arabera ere ETAkideekiko jarrera oso bestelakoa da. Alderdi espainolistei bozka eman ziotenen artean, UCD eta PSOE, esaterako, ia inork ez ditu definitzen ETAkideak abertzale bezala. Aldiz, alderdi abertzaleei begiratzen badiegu, ETAkideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea askoz handiagoa da. EEko boto-emaeleen %31ak abertzale bezala definitzen ditu ETAkideak, HBkoen artean potzentaje hau %60ra handitzen da. Baina alderdi abertzaleen artean ere badira ezberdintasunak, eta EAJkoen artean nabaria da ETAkideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentaje txikiagoa, %9a hain zuzen ere (PCkoen artean portzentajea %13koa den bitartean) (ikus IV.5.18.taula).

Bestalde, ideologia politiko ezberdinetako herritarrak definitzen dituzte ETAkideak idealista bezala, ezker muturraren %50ak, EEkoen %54ak, PSOEkoen %41ak, PCkoen %35ak eta EAJkoen %31ak. ETAkideak manipulatutako bezala definitzen dituztenak ere bozka ideologiko ezberdinetan banatzen dira, baina HB eta EEko boto-emaeleen artean du

babes baxuena definizio honek. Aipagarria da ere, ezker muturreko, HBko eta EEko boto-emailerik ez dagoela ETako kideak zoro eta manipulatu bezala definitzen dituenik.

IV.5.18. Taula: ETakideen irudia EAEko herritarren artean 1979ko bozka oroitzapenaren arabera (1979)

	Patriotak	Idealistak	Manipulatuak	Zoroak	Gaizkileak	Ed
Ezker muturra	25	50	33	0	0	0
HB	60	25	7	0	0	10
EE	31	54	6	0	0	10
EAJ	9	31	37	12	6	11
PC	13	35	29	13	10	16
PSOE	5	41	32	10	5	15
UCD	4	13	46	15	15	10
Ez zuen bozkatu	21	36	26	8	4	10
Ed	3	17	3	4	8	0
Guztira	17	33	29	8	5	14


Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendum-a eta gero eginiko inkesta

Aipatu dugun bezala alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritarren artean ere iritziak oso bestelakoak dira ETakideei dagokionean. Are gehiago, esaterako, EAJren boto-emaien iritziei erreparatzen badiegu, PSOERI bozka eman ziela adierazi zutenekiko antzekotasun gehiago dituztela ikusenez, HB edo EEko boto-emaleekiko baino. 1979ko inkesta honetan, EAJ eta PSOeko boto-emaien gehiago zabalak idealistatzen eta manipulatuak jotzen ditu ETako kideak. EEkoen artean aldiz, handitu egiten da ETako kideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea eta, txikitu manipulatuak jotzen dituztenena. HBko boto-emaien artean berriz, ETako kideak abertzale bezala definitzen dituztenak nagusitzen dira (ikus IV.5.17. grafikoa).

Beraz, auzi honetan ere, Conorren gainontzeko ia hipotesi guztietan ikusi bezala, ezberdintasunak ez leudeke soilik gehiago eta gutxiengoaren artean. ETaren biolentziarekiko eta ETakideekiko jarrera ezberdina da gutxiengo etnonazionalaren baitan, kasu honetan bozka oinarrian hartuta. Eta hauxe da hain zuzen ere, abertzaletasunaren baitako bi arimen arteko banaketa edo ezberdintasun garrantzitsuenetarikoa, bakararra ez bada ere. Besteak beste, Ezker Abertzaleak eta EAJk irudikatzen dituzten nazionalismo ezberdinek, talka egiten dute, aurrerago begirako proposamenetan, haustura eta erreformaren arteko hautuan esaterako,

edota bere boto-emaelek azaltzen dituzten independentzia nahi ezberdinetan.

IV.5.17. Grafikoa: ETAkideen irudia EAEko herritarren artean 1979ko bozka oroitzapenaren arabera (1979)




Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendum-a eta gero eginiko inkesta

Azterturiko 1979ko ETAkideekiko jarrera, oso testuinguru politiko zehatzean kokatzen da. Frankoren erregimena bukatu berri da eta urte horretan bertan izango dira hamarkada luzeen ondorengo lehen hauteskunde demokratikoak. Gainera, ETA erakunde bezala sortu zenetik 20 urte igaro dira eta bere jarduna borroka antifrankistarekin hertsiki lotua dago. ETAk bere jardunarekin jarraitu zuen ordea, eta herritarrek ETA kideekiko zituzten iritziek zer nolako bilakaera izan duen ere ikusi nahi izan dugu, bozka oroitzapena erreferentziantzat hartuaz 1979ko argazkiarekin konparatu bidean (ikus IV.5.18. grafikoa).

2005ean EHAKri botua eman ziola azaltzen dutenei helduaz, ETA kideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea asko txikitu dela ikusenez (%27,8). Baina era berean, Ezker Abertzaleak erakutsitako ildo ez da ia aldatu; izan ere, ia inork ez ditu ETAkideak terrorista edo manipulatuatzat jotzen. EAJ, eta, bereziki, PSEri botua eman ziotela adierazten dutenen artean aldiz, jarrera aldaketa nabaria da eta, gehiengoak manipulatu edo terroristatzat ditu. ETAkideen irudi idealista horrek hortaz, pisua galtzen du EAJ eta PSEkoen artean. 1979ko datuen ildo

beretsuan, ezberdintasun nagusiak ez dira gehiengo eta gutxiengoaren arten kokatzen, egon badaude ere. EHAK eta EAJren boto-emaileek ETAkideekiko duten irudia oso bestelakoa da eta EAJkoenak antzekotasun gehiago ditu PSEkoekin EHAK-koekin baino.

IV.5.18. Grafikoa: EAEko herritarrek ETAkideekiko duten iritzia bilakaera bozka oroitzen araberako (1979-2005)



Iturria: DATA (1979) eta Enskobarometroa (2005)

Ondoren, ETAkideen irudia aztertuko dugu herritarrek Autonomia Estatutuaren erreferendumean emandako bozkaren arabera. Baiezko bozka eman zutenen artean ETAkideak idealista (%34) edo manipulatuak (%33) direla uste dutenak nagusitzen dira. %10arentzat aldiz, abertzaleak dira, %9ak zoro bezala definitu dituzte eta %5ak gaizkile bezala. Ez dago ezberdintasun handiegirik baiezko hau justifikatzeko erabili dituzten argudio ezberdinen arabera: pragmatismoa, autonomia edota autogobernua aipatu dituzte euren bozka norabidea justifikatzeko. Halere, arrazoi pragmatikoak medio baiezkoa eman zutela adierazten dutenen artean, ETAkideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea txikiagoa da (%6) eta aldiz, handiagoa autogobernuaren argudiopean baiezkoa eman zutenen artean (%14). Autonomiaz baliatzeko baiezko bozka eman zutenen artean, manipulatu bezala definitzen dituztenen portzentajea zertxobait handiagoa da (%42).

IV.5.19. Taula: ETAKideekiko jarrera Autonomia Estatutuaren erreferendumean emandako bozkaren arabera (1979)

		Abertzaleak	Idealistak	Manipulatuak	Zoroak	Gaizkileak	Ed
ESTATUTUAREN	Arrazoi pragmatikoak	6	32	35	9	6	17
	Autonomia	10	37	42	12	4	5
	ALDE	Autogobernua	14	38	33	10	4
	Guztira	10	34	33	9	5	14
	Pasiboa	22	35	27	10	3	12
ABSTENTZIOA	Desadostasuna	43	25	14	5	5	11
	Arrazoi nazionalistak	61	31	8	2	2	5
	Guztira	33	30	17	6	3	11
AURKA		24	29	32	3	11	8

Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendum-a eta gero eginiko inkesta

1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendumean ezezkoa eman zutenen artean aldiz, ETAKideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea handitzen da (%24). Abstenitu zirenen artean ere, ETAKideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea are eta handiagoa da (%33), eta txikiagoa, ETAKideak manipulatuak daudela uste dutenena (%17), bereziki, arrazoi nazionalistak medio abstenitzea erabaki zutenen artean (%8). Hain justu, arrazoi hau medio abstenitu zirenen artean nagusitzen da ETAKideak abertzale bezala definitzen dituztenen portzentajea (%61), Estatutuarekin ados ez zeudela adierazi zutenetaz jarraituz (%43). Bi abstentzio mota hauek alderdi abertzaleen hautesleen artean ematen dira eta bereziki, HB izan zen Estatutuarekiko jarrera hau defendatu zuena. Ondorioz, agerikoa da ETAKideek Ezker Abertzalearen artean dutela irudi baikorrena, eta hortaz, bere hauteslegoaren baitan jasotzen du jardun armatuak babes sozial zabalena.

Trantsizioaren ingurumariaren datuekin bukatzeko, ETAKideen irudia herritarren independentzia nahien arabera aztertuko dugu. Independentzia nahi handiak dituela azaltzen duen %43ak ETAKideak abertzale bezala definitzen ditu. Portzentaje hau txikituz doa independentzia nahiak ahultzen doazen heinean eta honela, independentzia nahirik ez dutela adierazten dutenen artean, %4ak definitzen ditu ETAKideak abertzale bezala. ETAKideak zoro bezala definitzen dituztenen portzentajea handiagoa da independentzia nahi txikiak (%12) edota independentziarako nahirik ez dutela adierazten dutenen artean (%11). Azpimarragarria da ere independentzia nahi oso handiak adierazten dituztenen artean “besteak manipulaturik” erantzunak duen babes baxua (%9) (ikus IV.5.20. taula).

Honek interpretazio anitz izan ditzake, baina aurretik ere adierazi bezala, Linzek honakoa aurreratzen du: “besteak manipulatuak esateak, ziurrenik Espainia eta Euskal Herriatik kanpo, euren ekintzen atzean benetako gatazka bat ukatzeko modua da, berauetan euskaldunen inplikazioa ukatzeko modua”. Ildo honetan, honela dio Fusik (1981:4): “terrorismoa euskal arazo *bat* da, ez euskal arazo”. Aurretik azaldu dugu manipulatuak erantzun aukeraz guk eginiko beste interpretazio posiblea. Ardura edo errua ETAkideei beraie egotziz baino, ideologia nazionalistan kokatuz.

IV.5.20. Taula: ETAkideekiko jarrera EAEko herritarren independentzia nahien arabera (1979)


	Abertzaleak	Idealistak	Manipulatuak	Zoroak	Gaizkileak	Ed
Oso handiak	43	36	9	5	2	10
Nahiko handiak	28	32	23	5	3	14
Nahiko txikiak	13	36	32	8	2	13
Oso txikiak	8	38	38	12	3	7
Batere ez	4	29	38	11	12	12
E/e	7	27	23	1	0	42
Guztira	17	33	29	8	5	14

Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendum-a eta gero eginiko inkesta

IV.5.19. grafikoan ikusi ahal den moduan, banaketaren aldekoek ETAkideekiko jarrera ezberdina erakusten dute. Halere, aurretik azaldu bezala azpimarragarria da idealistaren definizioaren sostengu zabala banaketaren aldeko jarreratik haratago. Bestalde, banaketarako nahirik ez dutenen artean ere oso gutxi dira ETAkideak gaizkiletzat dituztenak. Jarrera hau inkestaren testuinguru politikoan kokatzea ezinbestekoa da. Independentzia nahiak azaltzen dituztenen artean ere bada ezberdintasunik ETAkideekiko jarrerari dagokionean, independentzia gogo nahiko handiak azaltzen dituztenen artean txikiagoa da ETAkideak abertzaletzat jotzen dituztenak (%28), independentzia nahi oso handiak azaltzen dituztenen artean baino (%43). ETAkideak manipulatuatzat jotzen dituztenen arteko ezberdintasuna ere nabaria da; %9 dira independentzia nahi oso handiak azaltzen dituztenen artean eta aldiz, independentzia gogo nahiko handiak adierazten dituzten %23ak ETAkideak manipulatu bezala definitzen ditu.

Linzek ez du ukatzen ikusi ditugun iritziak ez direla errealitate soziologiko bat, baina ikerketa hauek egin zireneko testuingurua ezin da ahantzi eta hortaz, bere ustez, ikerturikoa ez da “iritzi guztia”, iritzi “publikoa” baizik.

IV.5.19. Grafikoa: ETAkideekiko jarrera EAEko herritarren independentzia nahien arabera (1979)



Iturria: DATA, 1979ko Autonomia Estatutuaren erreferendum-a eta gero eginiko inkesta

Connorren hipotesiari helduaz, nahiko zaila suertatzen da biolentziaren egileekiko begikotasun hori era objektibo batean interpretatu edo neurtzea inkesta honetako erantzun aukerei erreparatuz. Hala eta guztiz, 1978-1979 urteen ingurumarian, iritzi “publikoan” ia inork ez ditu ETAkideak gaizkile bezala definitzen. Idealista edota manipulatuak bezala definitu izanak, zehazki, ez luke adieraziko euskal herritarrek ETAkideak begiko dituztenik, baina bai, zeharkako onarpen bat badagoela. Gainera, independentzia nahi txikiak, edota batere ez dutenen artean ere, ETAkideak idealista edo manipulatuak bezala ikusten dira. Honela, eta Connorren hipotesiaren bigarren auziari helduz, erruarena, hein batean euskal herritarren portzentaje esanguratsu batek, posizio hau babesten duela esan genezake.

Orain artean, oso testuinguru politiko zehatzean azaldutako iritziaz aritu gara. Banaketaren aldekoek eta aurkakoek ETAkideekiko jarreraren eboluzioa ikusi asmoz, 1999, 2005 eta 2007ko Euskobarometroko datuak izango ditugu hizpide. Hori bai, azken datuak 2007koak dira, urte hori izan baitzen Euskobarometroak ETAkideen irudiari buruz azkenengoz galdetu zuen urtea.

IV.5.21. Taula: ETAkideei buruzko iritzien bilakaera EAEko herritarren artean (1999-2007)

	1999	2005	2007
Abertzaleak/Patriotak	12,6	4,0	3,7
Oker dauden ameslariak	35,5	21,0	19,0
Fanatiko krudelak	10,4	9,2	6,2
Terroristak	23,2	40,2	36,5
Hiltzaileen banda	7,8	12,9	18,0
ED/EE	10,5	12,5	16,6
Guztira	100,0	100	100

Iturria: Euskobarometroa


1999. urtean, herritarren %35,5ak ETAkideak oker dauden ameslariak bezala definitzen ditu, %23,2ak terroristatzat ditu, %12,6arentzat abertzaleak lirateke, %10,4arentzat fanatiko krudelak eta %7,8arentzat hiltzaileen banda bat litzateke ETA. 2005eko eta 2007ko datuei begiratzen badiegu, aldaketak soma ditzakegu euskal herritarrek ETAkideei buruz azaltzen duten iritzian. Honela, bai 2005ean (%40,2) eta bai 2007an (%36,5) ETAkideak terrorista bezala definitzen dituztenen kopuruak gora egiten du, eta behera, oker dauden ameslari bezala (2005ean %21a eta 2007an %19a) edota abertzale bezala definitu dituztenena (2005ean %4a, eta 2007an %3,7a) (ikus IV.5.20. grafikoa).

Agerikoa da hortaz, 1979tik honuntz euskal herritarrek ETAkideei buruz duten iritzia aldatuz joan dela; ETAkideekiko gero eta irudi negatiboa dute herritarrek. Connorren hipotesiari helduz, eta begikotasuna eta oker dauden ameslariak parekatu ezin baditugu ere, oraindik euskal gizartearen sektore batek ETAkideekiko zeharkako onarpen bat erakusten duela ere uste dugu.

Ondoren, euskal herritarrek ETAkideei buruzko iritzian izandako bilakera aztertuko dugu euren independentzia nahien arabera. Lehenik eta behin,

independentzia nahi oso handiak edo nahiko handiak dituztela adierazi duten herritarren iritziak izango ditugu aztergai.

IV.5.20. Grafikoa: ETAkideei buruzko iritzien bilakaera EAEko herritarren artean (1999-2007)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Independentzia nahiak dituzten herritarren artean oso era nabarmenean ikus dezakegu euskal gizartean ETAkideekiko iritziak izan duen bilakaera. Independentzia gogo nahiko handiak adierazten dituztenenganan ere, beheruntz joan da ETAkideak abertzaleak bezala definitzen zituztenen portzentajea, baina bilakaera hau, are eta nabarmenagoa da independentzia oso gogo handiak adierazten dituztenengan.

Honela, 1999an independentzia gogo oso handiak azaltzen zituztenen %47,5ak ETAkideak abertzale bezala definitzen zituen, 2007an aldiz, %12,7ak. Independentzia gogo nahiko handiak dituztenen artean ETAkideak oker dauden ameslariak definitzen dituztenen kopuruak zertxobait beheruntz egin du baina independentzia nahi oso handiak adierazten dituztenen artean portzentajea %30aren inguruan mantentzen da. Bestalde, independentzia gogo oso handiak azaltzen dituztenen artean, ETAkideak terrorista bezala definitzen dituztenen kopuruak gora behera nabarmenak izan ditu, 2005ean %22,2ra handituz, eta 2007an berriro ere txikituz. Aldiz, independentzia gogo nahiko handiak adierazten dituztenen artean, 2005ean izandako igoera (%33,2ra), 2007an ere hor mantentzen da (ikus IV.5.22. taula).

IV.5.22. Taula: ETAkideei buruzko iritzien bilakaera independentzia nahi handiak dituzten EAEko herritarren artean (1999-2007)

		1999	2005	2007
Abertzaleak	Oso handiak	47,5	17,5	12,7
	Nahiko handiak	15,7	5,9	6,8
Oker dauden ameslariak	Oso handiak	26,5	30,7	29,1
	Nahiko handiak	44,2	32,2	33,5
Fanatiko krudelak	Oso handiak	3,7	1,9	2,6
	Nahiko handiak	10,4	8,1	3,6
Terroristak	Oso handiak	6,8	22,2	11,6
	Nahiko handiak	15,4	33,2	31,5
Hiltzaileen banda	Oso handiak	2,5	3,8	5,3
	Nahiko handiak	4,5	6,9	11,6
Ed/Ee	Oso handiak	13	24	38,6
	Nahiko handiak	9,8	13,7	13,2
GUZTIRA		100	100	100


Iturria: Euskobarometroko Serieak

Azpimarragarria da ere, independentzia nahi oso handiak azaltzen dituztenen erantzun ezaren kopurua. Izan ere, 2007ko inkestan %38,6ak ez daki, edo ez dio erantzuten galdera honi. Laburbilduz, independentzia nahi oso handiak eta handiak dituztenen jarrera ezberdintasunak agerikoak dira. Halere, bi azpitalde hauek amankomunean dute ETAkideak abertzale bezala gero eta gutxiago definitu izana, eta maila batean, nahiko egonkor mantentzen dira ETAkideak oker dauden ameslariak definitzen dituztenen portzentajeak.

Independentzia nahi txikiak edo batere gogorik ez dutela adierazten dutenen iritziaren bilakaera independentzia nahiak dituztenekin alderatuz ezberdina da. Alde batetik, nabarmena da, hiru azpitaldeetan (nahi txikiak, oso txikiak edo batere ez dutela adierazten dutenak) 1999tik beheruntz doala ETAkideak oker dauden ameslariak definitzen dituztenen portzentajea. Esaterako, 1999an independentzia gogo txikiak azaltzen zituztenen %46,4ak ETAkideak oker dauden ameslari bezala ikusten zituen, 2007an aldiz, portzentajea %21,8koa da. Bestalde, nabarmen egin du gora hiru azpitaldeetan ETAkideak terrorista bezala edota hiltzaileen banda bezala ikusten dituztenen portzentajeak. Honela, adibidez, 1999an independentzia nahi oso txikiak zituztenen %36,2ak ETAkideak terrorista bezala definitzen zituen, 2005ean %54,3ak eta 2007an %50ak. Independentzia nahirik ez zutenen artean, 1999an %16,1ak definitzen

zituen ETAkideak hiltzaileen banda bezala, 2007an aldiz, %26,5ak (ikus IV.5.23.taula eta IV 5.22.grafikoa)

IV.5.21. Grafikoa: ETAkideei buruzko iritzien bilakaera independentzia nahi handiak dituztenen artean EAEko herritarren artean (1999-2007)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Azpimarratu beharra dago ere, independentzia gogo nahiko txikiak, oso txikiak edota independentzia nahirik ez dutela adierazten dutenen iritzi bilakaera nahiko antzekoa dela. Independentzia nahi oso handiak, edo nahiko handiak dituztenen artean ezberdintasunak handiagoak dira.


IV.5.23. Taula: ETAkideei buruzko iritzien bilakaera independentzia nahi txikiak edo batere nahirik ez duten EAEko herritarren artean (1999-2007)

	Nahiko txikiak			Oso txikiak			Batere ez		
	1999	2005	2007	1999	2005	2007	1999	2005	2007
Abertzaleak	4,3	1,1	0	5,4	0	1,3	2,2	0,2	0,3
Oker dauden ameslariak	46,4	24,7	21,8	35,3	9,6	6,3	22,6	4,6	5,2
Fanatikoak, krudelak eta hiltzaileak	40	61,3	57,9	56,1	83,5	79,4	68,3	90,8	89,7
Ed/Ee	9,4	12,9	20,4	3,2	6,9	13,1	7	4,4	4,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroko Serieak

Laburbilduz, agerikoa da herritarrek erakutsitako independentzia nahiaren arabera ETAKideekiko duten irudiaren inguruko iritzia ezberdina dela. Honela, independentzia nahi handiak dituztenak dira ETAKideak abertzale bezala gehien definitzen dituztenak. Alderantziz, independentzia nahirik ez dutenak dira, ETAKideak abertzale bezala gutxien definitzen dituztenak. Bestalde, independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak dira ETAKideak fanatiko, terrorista edota hiltzaile bezala gutxien definitzen dituztenak. Independentzia nahi txikiak edota batere ez dutela azaltzen dutenen artean aldiz, erantzun aukera hauek askoz ere babes handiagoa dute. Hala eta guztiz, deigarria da *oker dauden ameslariak* iritzi aukerak azaltzen duen transbertsalitatea, independentzia nahi txikiak eta oso txikiak azaltzen dituztenen artean erantzun honek babesgabe badu ere. 2007an, esaterako, independentzia gogo nahiko txikiak azaltzen zituztenen %21,8ak ETAKideak oker dauden ameslariak bezala definitzen ditu.

IV.5.22. Grafikoa: ETAKideei buruzko iritzien bilakaera independentzia nahi txikiak edo batere nahirik ez dutenen artean EAeko herritarren artean (1999-2007)



Iturria: Euskobarometroko Serieak

Dena den, hemendik ezin dezakegu ondorioztatu Connorrek aipatzen duen biolentziaren egileekiko begikotasuna berresten denik, matizaziorik egin gabe behinik behin. Are eta gutxiago banaketaren alde ez daudenen artean. Aurretik ere aipatu dugu begikotasun hau neurtzeko zailtasuna,


oker dauden ameslariak direla esateak ETAkideak begiko izatearekin pareka dezakegu? Ziurrenik ez, baina zeharkako onarpen bat bezala ere ikusia izan daiteke, eta hortaz, oraindik ere euskal gizartean, banaketaren alde ez dauden herritar batzuk barne, ez da ETAkideekiko erabateko gaitzespenik ematen. ETAk borroka antifrankistan izandako papera eta irudikatu zuen erresistentzia sinboloa hein batean mantentzen dela esan genezale. Bestetik, posible da ere, Linzek azaldutako ildoan, askorentzat errazagoa izatea ETAkideak oker dauden ameslari bezala definitzea, berak azaltzen duen iritzi publikoa eta iritzi publikoaren arteko harreman horretan.

Connorren bederatzigarren hipotesiaren lehenengo zatiari heldu diogu orain artean, hau da, ea herritarrek ETAkideak begiko dituzten ala ez. Bigarrengoan, beste premisa bat gaineratzen du, herritarrek biolentziaren errua beste batzuei egozten dietenaren ingurukoa hain zuzen ere. Ez dugu auzi hau zuzenean galdetzen duen inkesta edo ikerketarik aurkitu eta, hortaz, auzi honekiko gertu egon ahal diren datuei erreparatzea besterik ez zaigu geratzen.

1979ko datuak hizpide izan ditugunean egin dugu lehen hausnarketa, ETAkideak manipulatuak direnaren ustea, zeharka bada ere, errua beste batzuei leporatzearekin lotuaz. Galdera honek, ordea, testuinguru politiko zehatz batetako informazio ematen digu eta guk, egun, errua edo arduren auziaren nondik norakoetara hurbildu nahi dugu. Horretarako, Euskobarometroan eginiko galdera bat hartuko dugu erreferentziatzat, egun helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe lor daitezkeenaren galdera hain zuzen ere. Kasu honetan, helburu politikoak biolentzia erabili gabe lor daitezkeela ezinezkoa dela adierazten duten herritarrak, errua edo erantzukizuna, egoera edo sistema politikoari ere egozten dietela esango genuke. Ideia hau babesteak, ez du zertan ETAREN bitarteko biolentzietako adostasunik suposatu behar, baina, era batera, ETAk bere jardun biolentzia aurretik utzi ez izana, bere helburu politikoak, biolentziarik erabili gabe ere egikaritzea oztopatuko lukeen sistema, gobernu eta ingurumaria politikoan txertatuko lukete.

Connorren bederatzigarren hipotesiak herritarrek banaketarekiko duten posizioa du oinarrian, baina aurretik, Euskobarometroko galdera honen inguruko iritzia herritarren bozkaren arabera nolakoa den ikusten saiatuko gara. Euskal herritar gehienak egun helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeela adierazten dute (ikus IV.5.23. grafikoa).

IV.5.23. Grafikoa: Helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeenaren inguruko iritzia bozka oroitzapenaren arabera (2013)




Iturria: Euskobarometroa (2013)

Bozkari erreparatuz, EH Bilduri bozka eman ziola azaltzen dutenak dira jarrera ezberdinena azaltzen dutenak. Honela, %51,4ak helburu politikoak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeela uste du, baina, ia beste erdiak, ez du posizio argirik azaltzen auzi honetan (%21,1) edota helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeen ideiarekiko desadostasuna azaltzen du (%23,9). Azpimarragarria da, posizio argi bat azaltzen ez dutenen portzentaje handia. Gogoratu dezagun Conorren zortzigarren hipotesian EH Bilduko boto-emaien artean ETArekiko nagusitzen zen jarrera, helburuekin bat, baino metodo biolentoekin ados ez zeudenena zela (%42,3). Hortaz, metodo biolentoekin ados izan gabe ere, EH Bilduko boto-emaien portzentaje esanguratsu batek ez daki, edo ez du uste, egun helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeenik.

Jarraian, auzi bera aztertuko dugu baino euskal herritarren independentzia nahiei erreparatuz. Banaketaren alde agertzen diren herritarrek eta banaketaren aurka leudekeen herritarren artean, egun, helburu politikoak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeenaren ustea nagusitzen da, banaketaren aurkakoen artean gehiago badira ere ideia hau babesten dutenak.

IV.5.24. Grafikoa: Helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeenaren inguruko iritzia independentzia nahien arabera (2013)



Iturria: Euskobarometroa (2013)

Independentzia nahiak azaltzen dituztenen artean ere iritzi ezberdinak aurki ditzazkegu. Honela, independentzia nahi handiak azaltzen dituen %76,7ak helburu politikoak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeela uste du; %12,5a aurka dago eta %9ak ez du posizio argi bat erakusten auzi honi dagokionean. Independentzia nahi oso handiak dituen %53,2ak ere egun biolentzia erabili gabe helburu politikoak defenda daitezkeela uste du, baina, handitu egiten da posizio argi bat erakusten ez dutenen portzentajea (%22,3) eta egun, helburu politikoak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeenaren ideiarekin bat ez datozenak (%21,6).

Hortaz, zenbatean egozten diete biolentziaren erabileraren errua besteei? Ezberdintasunik badago banaketaren aldeko eta aurkakoaren artean? Auzi honetara hurbildu nahian, atal honen hasieran hizpide izan dugun manipulazioaren gaiari helduko diogu. Aurretik azaldu bezala, ETAkideak manipulatuak direnaren definizioari, Linzek eginikoaz haratago, beste irakurketa bat ere egin genion. Honela, 1979ko ingurumarian, banaketaren aldekoaren artean, eta, era nabarmenagoan, banaketaren aurka zeuden herritarren artean, portzentaje esanguratsu batek ETAkideak manipulatuak zirenaren ideia azaleratzen zuten. Biolentziaren erabilera ardura, hein batean, ETAkideetatik aldentuz, eta beste eragile, mugimendu edota ideologiaren batean kokatuaz. Hemendik errua besteei leporatzen dietela berrestea agian gehiegizkoa suerta daiteke, baina

erantzukizunak kide beraietatik haratago doazenaren ustea azaltzen dutela interpretatu ahal dugu.

Euskobarometroak ETAkideei buruz eginiko galderan ez da barneratzen manipulatuak direnaren erantzun aukera eta, hortaz, ezin dugu konparatibarik egin, egun herritarrak iritzi beretsukoak lirakeen ala ez jakiteko. Ondorioz, Euskobarometroak eginiko beste galdera bati heldu diogu, zeharka bada ere, egun erruaren egozpen hori nolakoa den jakitera hurbildu asmoz. Herritar gehienek, bai banaketaren aldekoek eta bai aurkakoez, egun helburu politikoak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeenaren ustea azaldu dute eta, hortaz, biolentziaren errua beste eragile edo faktoreei ez dietela egozten esango genuke. Helburu politikoak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeela uste izanez gero, biolentzia edo jardun biolentoa ETAkideei egozten zaiela esango genuke, ideia honen baitan, bestelako bitartekoen bidez ere posible bailitzateke helburu politiko horiek defendatzea.

Independentzia nahi oso handiak adierazten dituzten herritarrek lukete jarrera ezberdina; izan ere, %43,9ak ez du posizio argirik auzi honetan edota ez dator bat helburu politikoak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeenaren ideiarekin. Hortaz, herritar hauek jardun biolentzaren errua beste batzuei egotziko liekete? Ez derrigorrean, baina helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu ezin daitezkeenaren ideiak ETAkideen erantzukizuna lausotzen duela esan genezake. Izan ere, errealki ez legoke beste biderik, bitartekoekin bat ez etorri arren. ETA aktibo zen bitartean, erakundearen jarduna jartzen zen independentzia bezalako helburu politikoak oztopatzeko argudio gisa. Behin ETAk bere jardun armatua utzi ostean, ordea, zenbaitek auzitan ipini dute biolentzia gabe ideia politiko guztiak defendatu ahal zirenen premisa.

Laburbilduz, Connorren bederatzigarren hipotesiaren ondorio nagusiak honakoak lirakeke:

Biolentziaren egileekiko begikotasunaz:

- 1979ko datuei helduz, euskal herritarren artean ETAkideekiko begikotasun bat badela esan genezake. Begikotasunak ez du zertan onespenean bat ekarri behar, baina gaitzespenaren hautua minoritarioa da 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoan. Banaketaren alde agertzen den herritarren zati esanguratsu batek abertzale edota idealistatzat ditu ETAkideak. Banaketaren alde ez daudenen artean ere, askok, ETAkideak idealistatzat jotzen ditu,

manipulatuak direnaren ustearekin batera. Euskal herritarrek ETAkideekiko azaltzen duten iritzian ETAk borroka antifrankistan izandako paperak harreman zuzena duela uste dugu.

- 1999-2007 tartean aldiz, ETAkideekiko begikotasunak aldaketak izan ditu. Banaketaren alde daudenen artean, abertzaletzat jotzen dituztenen portzentajeak beheruntz egin du eta goruntz terroristatzat dituztenak. Halere, herritar portzentaje esanguratsu batek 2007an ere oker dauden ameslari bezala definitzen ditu ETAkideak, zeharkako begikotasun bat azalduaz. Banaketaren aurka daudenen artean, aldaketa nabarmenagoa da, eta, askoz gehiago handitu da ETAkideak terroristatzat jotzen dituztenen kopurua. Halere, bada oraindik ETAkideak oker dauden ameslariak bezala ikusten dituenik, bereziki independentzia gogo nahiko txikiak azaldu dituztenen artean. ETAkideekiko begikotasunak beheruntz egin du hortaz, bereziki banaketaren aurka daudenen artean. 1979ko datuekiko, aldaketa nabarmena eman da beraz ETAkideei buruzko iritziari dagokionean.

Biolentziaren errua beste batzuei egozteari dagokionean:

- 1979ko datuei helduz, erruaren auzi hau, guk ETAkideak manipulatuak direla adierazi dutenekin harreman du. Banaketaren alde daudenen artean askoz gutxiago dira erantzun aukera hau egin dutenak, independentzia nahi oso handiak eta handiak dituztenak jarrera berekoak ez badira ere. Banaketaren aurka azaltzen diren portzentaje esanguratsu batek ETAkideak manipulatuak direnaren ustea dute. Iritzi honek, era batera edo bestera, biolentziaren erabileraren errua edo ardurua, ETAkide beraietatik haratago doanaren ustea azaltzen duelakoan gaude. Abertzaletasuna edo nazionalismoaren ideologiaren manipulazioaz ari direnaren ustea dugu. Hein batean, beraz, eta erruaren auzia klabe honetan kokaturik, banaketaren aurkako herritar batzuk biolentziaren errua beste batzuei egozten dietela uste dugu.
- 2013ko inkestako galderari dagokionean, hau da, ia egun helburu politiko guztiak defenda daitezkeen biolentzia erabili gabe, herritar gehienek bere adostasuna erakutsi dute. Halere, banaketaren aldekoen artean eta, zehazkiago, independentzia nahi oso handiak eta EH Bilduri bozka eman ziola adierazten dutenen artean, portzentaje esanguratsu batek biolentzia erabili gabe helburu politiko guztiak defendatu ezin direnaren ustea azaltzen dute.

Hemendik, banaketaren aldekoek biolentziaren erabileraren errua beste batzuei leporatzen dietela berresteko moduan geundeke? Agian ez, baina beste era batetara, erantzukizunak mugatu nahi direla interpretatu ahal dugu. Sistema politikoak berak helburu politikoak biolentzia erabili gabe defendatzea ahalbidetzen ez duen ustea babestuz, ia ETAkideei beste aukerarik geratzen ez zaienaren ideia garamatza, eta ETA gabe ideia politiko guztiak defendatu ahal zirenaren ideia auzitan jartzen da. Horrek ez du esan nahi ETAREN bitartekoekin ados izatea, izan ere, egun helburu politiko guztiak biolentziaren erabilera gabe defenda ezin daitezkeenaren ideia azaltzen duten askok ere, ez dute ontzat ematen jardun armatua. Beste era batera esanda, ETAREN jarduna ontzat ez emateak ez dakar derrigorrean gaur egun, eta ETARik gabeko eszenatoki berrian, helburu politiko guztiak defenda daitezkeenaren ideia berrespenera.

- Agerikoa da, hortaz, 1979tik honantz ETAkideekiko jarrera aldaketa, eta begikotasunaren, zeharkakoa bada ere, beherakada. Halere, banaketaren aldekoen artean bereziki, ETAkideen irudi idealista horrek hor darrai. Biolentziaren erabileraren errua besteei egoztearen inguruan, dagoeneko euskal gizartean ia babesik ez duela esan genezake. Banaketaren aldeko zenbait herritarrek egun helburu politiko guztiak biolentziaren erabilera gabe defendatu daitezkeenarekiko mesfidati agertu arren, 2013an inork gutxi defendatzen du biolentziaren erabileraren ezinbestekotasuna.

6. BANAKETA NAHIAK PERFIL SOZIODEMOGRAFIKOAREN ARABERA

Aurreko hipotesietan independentzia nahiak nortasuna, nazionalismoa eta bozkaren arabera nolakoak diren ikusten saiatu gara. Jarraian aurkezten ditugun hipotesietan aldiz, herritarren perfil soziodemografikoari helduko diogu. Independentzia nahiak maila soziala, adina, hezkuntza, errenta eta lanbidearen arabera nolakoak diren ikusiko dugu.

10. Hipotesia: Banaketaren aldekoek babesa dute maila sozial guztietan eta adin talde ezberdinetan.

11. Hipotesia: Babes gehien ordea, hogeita hamabost urte baino gutxiagokoen artean eta batezbestekoa baino hezkuntza eta errenta maila altua dutenengan kokatzen da.
12. Hipotesia: Profesionalak gainordezkatuak dira.
13. Hipotesia: Babes eza berrogeita hamabost urtetik gorakoengan nabaria da.

10. Hipotesia: “Banaketaren aldekoek babesa dute maila sozial guztietan eta adin talde ezberdinetan“

Connorren hamargarren hipotesia aztertzeko, lehenik eta behin, EAEko herritarrek azaltzen duten independentzia nahia klase sozialaren aldagaiarekin gurutzatu dugu. Emaitzen interpretazioari ekin aurretik kontuan izan behar dugu klase sozialaz ari garenean inkestatuen autokokapenez ari garela. Hein batean, klase batean ala bestean kokatzearen hautua ideologikoa ere badela esan genezake, zeharka bada ere, errentak, ikasketa mailak edota lanbideak eragina izan ahal duten arren. Klase soziala bera era ezberdinean neurtua izan daiteke eta zenbaitek klase sozial objektiboa eta subjektiboa ezberdintzen dituzte. Klase sozial objektiboa neurtzeko, besteak beste, lanbidea, hezkuntza eta diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Klase sozial subjektiboa aldiz, inkestatuen autokokapenean oinarritzen da. Baina, bietako zeinek baldintzatan du gehien herritarren hauteskunde portaera? Sarritan, identifikazio subjektiboak hauteskunde portaeran posizio sozial objektiboak baino eragin handiagoa duela azaldu dute ikerketa ezberdinek (Gunther eta Montero, 1994).

Aurrerago ikusiko dugu independentzia nahiak ze mailatan dauden baldintzatuak aipatu berri ditugun aldagai hauek medio. Inkestatu gehienek, euren burua klase ertainean kokatzen dutela ere esan behar dugu, 2013ko datuetan euren burua klase baxuan kokatzen dutenen portzentajea handitzen bada ere. Aztergai ditugun lagin ezberdinetan, euren burua klasea altuan kokatzen dutenen portzentajea oso baxua da eta hortaz, urte edo inkesta batean ezberdintasunak ikusi baditzaiegun ere, ezin dugu haratago doan interpretazio orokorrik egin.

a) Banaketaren aldekoak klase sozialaren arabera

1995ko datuei erreparaturaz, euren burua klasea altuan kokatzen dutenak dira independentzia nahi handienak erakusten dituztenak (%41); jarraian, klase ertainean kokatzen direnak (%35,7) eta klase baxuan kokatzen direnak (%23,2).

IV.6.1. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (1995)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	41,0	35,7	23,2	30,9
Nahi txikiak	14,8	21,8	19,1	20,5
Batere ez	31,1	23,6	31,0	26,3
Axolagabe	4,9	9,6	11,9	10,1
Ed/Ee	8,2	9,3	14,8	12,1
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

Hala eta guztiz, eta sarreran aipatu moduan, ezin dugu ahantzi oso herritar gutxik kokatzen dutela bere burua klase altuan, eta ondorioz, beste datuekiko ezberdintasunak ikus ditzakegun arren, tentuz irakurri behar ditugu datu hauek. Klase ertainean eta baxuan kokatzen direnen arteko posizio ezberdinei dagokionez, agerikoa da klase baxuan kokatzen direnak azaltzen dituztela independentzia nahi handi txikiak (%23,2). Gainera, %50,1ak independentzia nahi txikiak (%19,1) edota independentziarako batere nahirik ez duela azaltzen du (%31).

1999ko datuei helduz, euren burua klase altuan edo ertainean kokatzen dutenak dira independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak. Klase ertainean kokatu diren herritarren %41,5ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %49ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%34) edota batere independentzia nahirik (%15) ez duela azaltzen du. Klase baxuko herritarrak definitzen diren herritarren artean aldiz, txikitu egiten da independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea (%32,2). Independentzia nahi txikiak edota batere independentzia nahirik ez dutela azaltzen duten herritarren kopurua antzekoa da hizpide ditugun hiru klase sozialetan. Hortaz, ezberdintasunak txikiak izanik ere, bai 1995ean eta bai 1999ean klase baxuan kokatzen direnen artean independentzia nahi handi txikiagoak ikus ditzakegu (ikus IV.6.2. taula).

IV.6.2. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (1999)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	43,7	41,5	32,2	39,8
Nahi txikiak	34,7	34,0	26,1	32,6
Batere ez	12,0	15,0	23,9	16,5
Axolagabe	7,8	6,0	11,6	7,3
Ed/Ee	1,8	3,4	6,2	3,9
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

2001eko datuei helduz, banaketaren aldekoen babesa klase sozial guztietan beretsua dela esan genezake. Hori bai, nahi txikiak azaltzen dituztenen portzentajea handiagoa da beren burua klase altua kokatu dutenen artean (%45,2) eta klase sozialean beheruntz joan ahala independentziarako nahi txikiak azaltzen dituztenen portzentajea ere txikituz doa. Gainera, 1995eko datuetan ikusi bezala, ez daki edo erantzuten ez dutenen kopuru handiena euren burua klase baxuan kokatu dutenen artean ikus dezakegu (%15,2).

IV.6.3. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (2001)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	22,6	24,9	26,6	25,2
Nahi txikiak	45,2	39,6	28,1	37,6
Batere ez	15,5	16,8	17,6	16,9
Axolagabe	11,9	9,3	12,5	10,0
Ed/Ee	4,8	9,3	15,2	10,3
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2001)

2005eko datuei helduz, klase altuan kokatzen direnak dira independentzia nahi handiak era ahulenean azaltzen dituztenak (%29). Dena den, hasieran azaldu bezala inkestatu oso gutxi dira euren burua klase altuan kokatzen dutenak eta hortaz, haratago doan interpretaziorik ezin dugu egin. Klase ertainean kokatu direnen independentzia nahi handiak (%38) eta klase baxuan kokatu direnenak (%38,8) oso antzekoak dira 2005ean. Bestalde, nahi txikiak edo independentziarako batere gogorik azaltzen ez dutenen portzentajea oso antzekoa da hiru klase sozialetan.

IV.6.4. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (2005)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	29,0	38,0	38,8	37,9
Nahi txikiak	32,3	27,4	34,3	30,0
Batere ez	25,8	23,5	17,5	21,6
Axolagabe	3,2	5,1	3,6	4,5
Ed/Ee	9,7	6,0	5,8	6,0
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

2009ko datuei erreparatuz, beren burua klasea altuan kokatu dutenen %44ak independentzia nahi handiak erakusten ditu. Klase sozialean beherantz egin ahala independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen kopurua txikituz doala ikus dezakegu. Gainera, bere burua klase baxuan kokatu dutenen artean, independentziarako nahi txikiak (%36,3) edo batere gogorik ez dutela (%24,7) adierazten dutenenen portzentajea bere burua beste klase sozialetan kokatu dutenen artean baino handiagoa da.

IV.6.5. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (2009)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	44,0	32,4	23,3	30,5
Nahi txikiak	26,0	31,4	36,3	32,2
Batere ez	24,0	21,2	24,7	22,4
Axolagabe	6,0	9,9	12,0	10,2
Ed/Ee	0,0	5,1	3,7	4,7
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

Bukatzeko, 2013ko datuei helduko diegu. IV.6.6. taulan ikus ahal dugun moduan independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajeak oso antzekoak dira hiru klase sozialetan. Independentzia nahi txikiak edo independentziarako batere nahirik azaltzen ez dituztenak ere antzeko babesa dute hiru taldeetan.

Connorren hamargarren hipotesiari erreferentzia eginez, maila sozialei dagokionean, bere hipotesia hein batean EAEn betetzen dela esan genezake. Hau da, banaketaren aldekoek babesa dutela maila sozial guztietan. Aztertutik urteetan bada ezberdintasunik klase altua, ertaina

edota baxua adierazten dutenen artean baina ezberdintasun nabarmenik ez da ikusten. Ez daukagu tendentzia argi bat esateko klase batean ala besteak kokatzen direnen independentzia edo banaketaren aldeko jarrera ezberdina dela adierazteko. Esaterako, 2005ean klase sozial altuan kokatzen zirenak ziren independentzia nahi handiak era ahulenean azaltzen zituztenak, 2009an aldiz, independentzia nahi handienak erakusten dituzte. Gainera, 2001 eta 2005 urteetan, klase altuan kokatzen zirenak ziren independentzia nahi txikiak edo batere gogorik ez zutela gehien azaltzen zutenak. 1995, 1999 eta 2009an aldiz, euren burua klase baxuan kokatu dutenak dira independenttziarako nahi gutxien erakusten dutenak (*nahi txikiak*+ *batere ez* azaltzen dutenak).

IV.6.6. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak klase sozialaren arabera (2013)

	Altua	Ertaina	Baxua	Guztira
Nahi handiak	37,7	34,9	34,5	34,7
Nahi txikiak	19,7	22,3	24,3	22,8
Batere ez	29,5	28,7	26,8	28,4
Axolagabe	8,2	10,1	12,4	10,8
Ed/Ee	4,9	4,0	1,9	3,3
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

Modu honetara, ezberdintasunak ikusi ditugun kasuetan, zenbaitetan klase altuan kokatzen zirenak ziren gehien ezberdintzen zirenak, independentzia nahi handiak era indartsuenean edo ahulenean erakutsiaz. Kontuan izanik oso herritar gutxi direla euren burua klasea altuan kokatzen dutenak, ikusitako ezberdintasun hauetatik ezin dugu erabateko ondoriok atera. Dena den, zertzelada orokor batean, eta klase ertaineko eta klase baxuan kokatzen diren herritarrei dagokionean, ezberdintasunak dauden kasuetan, klase baxukoak dira independentzia nahi handiak era ahulenean azaltzen dituztenak. Halere, eta hizpide izan ditugun beste aldagaiekin ikusiriko loturekin alderatuz, nortasun subjektiboa eta nazionalismoa esaterako, badirudi herritarrek klase sozialean duten autokokapenak independenttziarako nahietan eragin urria duela.

b) Banaketaren aldekoak adinaren arabera

Connorren hamargarren hipotesian adinaren aldagaia ere barneratzen da. Hamaika eta hamahiru hipotesietan ere adinaren aldagaiari erreferentzia egiten diola ikusi ahal dugu. Atal honetan bertan ikusiko dugu Connorrek adinaren inguruan luzatutako hiru hipotesiak zenbatean betetzen diren. Connorrek banaketaren aldeko babesa adin ezberdinetan nolako den ikusarazteko hiru adin tarte ezberdin aipatzen ditu: 35 urte baino gutxiagokoak, 35-55 urte bitartekoak eta 55 urte baino gehiagokoak. Guk adin tarte hauek errespetatuz egin ditugu taulak, baina osatze aldera, inkesta gehienetan erabiltzen diren adin tarteekin ere gurutzaketak egin ditugu, herritarren independentzia nahien gorabeherak xehetasun gehiagorekin aztertze bidean.

IV.6.7. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (1995)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	37,8	37,5	28,6	26,1	27,8	30,9
Nahi txikiak	23,5	17,5	22,2	20,6	19,1	20,5
Batere ez	21,4	22,5	26,4	31,3	28,2	26,3
Axolagabe	9,2	12,7	10,8	9,6	7,9	10,1
Ed/Ee	8,2	9,8	11,9	12,4	17,0	12,1
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

1995. urteko datuei erreparatuz, 18-24 urte bitarteko inkestatuak (%37,8) eta 25-34 urte bitartekoak (%37,5) dira independentzia nahi altuenak erakusten dituztenak (%53). 35 urtetik aurrera aldiz, txikitzen doa independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajea. Adin horretatik aurrerako tarte ezberdinetako herritarren independentzia nahiak antzekoak direla ikus dezakegu; 35-49 urte bitartekoen %28,6ak azaltzen ditu independentzia nahi handiak, 50-64 urte bitartekoen artean portzentajea %26,1ekoa da eta 64 urte baino gehiago dituztenen artean %27,8koa.

Connorren adin tarteari erreparatuz, nabarmena da 35 urte baino gutxiagokoak direla (%37,3) independentziaren aldeotasuna gehien erakusten dutenak. Aldiz, 35 urtetik gorakoak lirateke independentzia nahi baxuenak azaltzen dituzten herritarrak (ikus IV.6.8. taula).

IV.6.8. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearan arabera (1995)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	37,7	27,1	27,9	30,9
Nahi txikiak	20,1	20,7	20,9	20,5
Batere ez	22,0	29,4	27,4	26,3
Axolagabe	11,2	11,1	7,9	10,1
Ed/Ee	8,9	11,7	15,9	12,1
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

1999ko datuei erreparatu, adinean aurrera joan ahala independentzia nahi handiak txikitzen doazela ikus dezakegu. Honela 18-24 urte bitarteko herritarren %49,3ak independentzia nahi handiak erakusten ditu eta %40,1ak, independentzia nahi txikiak (%26,9) edota batere independentzia nahirik ez duela azaltzen du (%13,2). Aldiz, 64 urte baino gehiagoko herritarren %59,4ak independentzia nahi txikiak (%38,1) edota batere independentzia nahirik ez duela azaltzen du (%21,3). %29,9 da independentzia nahi handiak azaltzen dituen herritarren portzentajea; ildo beretsua jarraitzen dute 50-64 urte bitartean kokatzen diren herritarrak (%31).

IV.6.9. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (1999)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	49,3	47,7	42,4	31,0	29,9	39,8
Nahi txikiak	26,9	26,7	34,2	35,3	38,1	32,6
Batere ez	13,2	11,7	13,6	22,4	21,3	16,5
Axolagabe	8,2	10,3	5,4	5,3	8,2	7,3
Ed/Ee	2,3	3,6	4,5	5,9	2,5	3,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

Connorren adin banaketari dagokionean, agerikoa da 35 urte baino gutxiagoko herritarren artean duela independentziak babes zabalena (%48,3). 35-55 urte bitartekoen artekoen %38,5ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %51,6ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%36,2) edota batere nahirik ez duela azaltzen du (%15,4). Connorrek azalduko hipotesiarekin bat eginez, 55 urte baino gehiago dituztenak dira

independentziarako nahi txikiak azaltzen dituztenak (%31) (ikus IV.6.10. taula).

IV.6.10. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearen arabera (1999)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	48,3	38,5	31,0	39,8
Nahi txikiak	26,9	36,2	35,4	32,6
Batere ez	12,4	15,4	22,5	16,5
Axolagabe	9,4	5,6	6,8	7,3
Ed/Ee	3,0	4,3	4,4	3,9
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

2001eko datuei erreparaturaz, 25-34 urte bitartean kokatzen direnak dira independentzia nahi handienak erakusten dituztenak (%30,9), jarraian 18-24 urte bitartean kokatzen direnak (%27,5). Aldiz, 64 urte baino gehiago dituzten inkestatuak dira independentzia nahi handiak portzentaje txikienean erakusten dituztenak (%17,8). Ildo honetan, esanguratsua da *batere ez* erantzuten dutenen kopurua handituz doala adinean aurrera joan ahala.

IV.6.11. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (2001)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	27,5	30,9	26,6	23,0	17,8	25,2
Nahi txikiak	38,1	36,1	37,2	38,5	38,3	37,6
Batere ez	7,5	15,3	17,9	19,2	21,0	16,9
Axolagabe	15,0	9,2	9,3	9,8	8,4	10,0
Ed/Ee	11,9	8,4	9,0	9,4	14,5	10,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2001)

Connorren adin tarteari begiraturaz, nabarmena da 55 urte baino gehiagokoen artean dela ahulena banaketaren aldeko nahia (%19,6). Bestalde, eta Connorren hipotesiari helduz 35 urte baino gutxiago dituztenak dira banaketaren aldeko jarrera indartsuena erakusten dutenak (%29,7) baina 35-55 urte tartean kokatzen direnetik oso getru leudeke (%26,4) (ikus IV.6.12. taula).

IV.6.12. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearen arabera (2001)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	29,7	26,4	19,6	25,2
Nahi txikiak	37,0	35,7	40,2	37,6
Batere ez	12,3	18,2	19,8	16,9
Axolagabe	11,5	9,1	9,7	10,0
Ed/Ee	9,6	10,6	10,7	10,3
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2001)

2005eko datuei dagokienean, 18-24 urte tartean kokatzen direnak dira independentzia nahi handiak era indartsuenean azaltzen dituztenak (%50,9), jarraian 35-49 urte tartean daudenak (%35,6). Aurreko urteetako tauletan ikusi bezala 64 urte baino gehiago dituztenak dira independentzia nahi handiak gutxien erakusten dituztenak (29%). Halere, 2009ko datuek aurreko urteetan ikusi ez ditugun gora beherak azaltzen dizkigute.

IV.6.13. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (2005)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	50,9	35,6	42,7	36,5	29,0	37,9
Nahi txikiak	24,5	27,0	28,0	30,7	36,5	30,0
Batere ez	13,8	21,5	18,2	23,4	28,1	21,6
Axolagabe	5,7	6,0	3,9	5,7	2,6	4,5
Ed/Ee	5,0	9,9	7,2	3,6	3,9	6,0
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

Connorren adin tarteei begira, aurreko urteetako tendentziari jarraiki, 55 urte baino gehiago dituztenak dira independentzia nahi baxuenak azaltzen dituztenak (%31,1). 2005ean gainera, 1999an bezala, 35 urte baino gutxiagokoen (%41,6) eta 35-55 urte tartean (%42) kokatzen direnek erakusten dituzten independentzia nahi handiak oso antzekoak dira (ikus IV.6.14. taula).

2009ko Euskobarometroan oso agerikoa da adin tartean arabera inkestak erakusten dituzten independentzia nahi ezberdinak. Modu honetara 18-24 urte bitartean kokatzen diren inkestak erdiak (%49)

independentzia nahi handiak erakusten dituzte. 64 urte baino gehiagokoen artean berriz, %20,8ak azaltzen du independentziarako nahi handia. Honela, 2009. urteko datuen arabera adinean gora joan ahala txikitzen doa independentzia nahi handiak erakusten dituztenen portzentajea (ikus IV.6.15. taula).

IV.6.14. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearen arabera (2005)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	41,6	42,0	31,1	37,9
Nahi txikiak	26,1	28,6	34,5	30,0
Batere ez	18,3	18,8	27,0	21,6
Axolagabe	6,1	4,1	3,6	4,5
Ed/Ee	7,9	6,5	3,9	6,0
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

IV.6.15. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (2009)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	49,0	31,5	33,0	28,8	20,8	30,5
Nahi txikiak	29,4	31,5	29,7	33,3	36,5	32,2
Batere ez	9,8	22,2	23,0	21,3	27,7	22,4
Axolagabe	8,8	9,9	9,5	11,6	10,4	10,2
Ed/Ee	2,9	4,9	4,9	4,9	4,6	4,7
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

Connorren adin tarteteri begiraturaz, 35 urte baino gutxiago dituztenak dira banaketaren aldeko babes handiena erakusten dutenak (%37,4). Banaketarekiko babes gutxiena aldiz, 55 urte baino gehiago dituztenen artean ikus dezakegu (%24,2) (ikus IV.6.16. taula).

2013an ere 2009ko tendentzia berdina ikus dezakegu. 18-24 urte bitartean kokatzen direnak dira independentzia nahi handiak gehien azaltzen dituztenak (%48,6). Aldiz, 64 urte baino gehiago dituztenak dira independentzia nahi handiak gutxien azaltzen dituztenak (%19,4). Honela, berriro ere, adinean aurrera joan ahala independentzia nahi handiak txikitzen doazela ikus dezakegu (ikus IV.6.17. taula).

IV.6.16. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearen arabera (2009)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	37,4	31,7	24,2	30,5
Nahi txikiak	30,5	32,1	33,7	32,2
Batere ez	18,4	21,8	26,2	22,4
Axolagabe	9,5	10,1	10,5	10,2
Ed/Ee	4,3	4,3	5,4	4,7
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

IV.6.17. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak adinaren arabera (2013)

	18-24	25-34	35-49	50-64	64<	Guztira
Nahi handiak	48,6	41,3	41,0	31,9	19,4	34,7
Nahi txikiak	15,0	23,8	22,6	21,5	26,9	22,8
Batere ez	25,2	22,1	23,4	27,4	41,8	28,4
Axolagabe	9,3	8,1	10,7	14,9	8,6	10,8
Ed/Ee	1,9	4,7	2,2	4,2	3,4	3,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

IV.6.18. Taula: EAEko herritarren independentzia nahiak Connorren adin tartearen arabera (2013)

	35 >	35-55	55<	Guztira
Nahi handiak	44,0	39,2	24,0	34,7
Nahi txikiak	20,6	22,2	24,9	22,8
Batere ez	23,0	23,1	37,6	28,4
Axolagabe	8,9	13,4	9,3	10,8
Ed/Ee	3,5	2,1	4,1	3,3
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

Hortaz, zenbatean betetzen dira Connorrek adinaren inguruan azaltzen dituen hiru hipotesiak?:

- *Banaketaren aldekoak babesa duten adin maila ezberdinetan (10.hipotesia):* ontzat eman dezakegu hipotesi hau baina adinaren

aldagaiak eragina duela ezin uka dezakegu Connorren hurrengo hipotesietan ikusi ahal den bezala.

- *Babes gehien ordea, hogeita hamabost urte baino gutxiagokoen artean* (11.hipotesia): Azterturiko urteetan 35 urte baino gutxiago dituzten inkestatuak dira independentzia nahi handienak erakusten dituztenak. Hala eta guztiz, esan beharra dago ere zenbaitetan 35-55 urte tartean kokatzen direnen independentzia nahietatik oso gertu kokatzen direla.
- *Babes eza berroigeta hamabost urtetik gorakoengan nabaria da* (13.hipotesia): 55 urtetik gorakoek azaltzen duten independentzia nahi txikiagoa are eta nabarmenagoa da. Gainera, gure adin tarteekin egindako gurutzaketetan ikusi ahal dugun bezala adin nagusiagokoen jarrera hau are eta indartsuagoa da 64 urte baino gehiago dituzten inkestatuengan. 2014ko Irailaren 18 eta 19an erreferenduma eta gero Eskozian eginiko inkestan ere agerian geratu zen 55 urtetik gorakoek independentziaren aldeko hautua nabarmen txikitzen zela. Gazteek normalean aldaketarako prestutasun handiagoa izan ohi dute eta adin nagusiagokoen artean egoera bere hortan mantentzearen jarrerak indar gehiago izan ohi du. Adinekoei begira, ziurgabetasun ekonomikoaren mehatxuak izan dezake eragina, esaterako pentsioen auziak. Pentsioen mamu hau gainera behin eta berriro azaleratzen da herrialde batetan sezesioaren aldeko mugimenduak indartzen doazenean.

11. Hipotesia: “Babes gehien ordea, hogeita hamabost urte baino gutxiagokoen artean eta batezbestekoa baino hezkuntza eta errenta maila altua dutenengan kokatzen da”.

Connorren hamaikagarren hipotesia EAEn zenbatean berresten den ikusi asmoz inkestatuen independentzia nahiak euren hezkuntza eta errenta mailarekin gurutzatu ditugu. Hipotesi honetan adinaren aldagaiari egiten zaion aipua hamargarren hipotesiaren baitan barneratua dago.

a) Banaketaren aldekoak hezkuntza mailaren arabera

1995eko inkestatuen hezkuntza mailari erreparatzen badiogu, ikasketarik ez dutenak (%20,6) eta lehen mailako ikasketak (%29,2) dituztenak dira

independentzia nahi handiak gutxien erakusten dituztenak. Bigarren mailako ikasketak (%35,5) eta unibertsitate ikasketak (%37,5) dituztenen artean aldiz, independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea zertxobait handitzen da.

IV.6.19. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (1995)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2.mailakoak	Goi-mailakoak	Guztira
Nahi handiak	20,6	29,2	35,5	37,5	30,9
Nahi txikiak	20,0	20,9	21,5	17,6	20,5
Batere ez	32,9	26,7	23,0	23,9	26,3
Axolagabe	10,6	11,1	9,7	9,1	10,1
Ed/Ee	15,8	12,0	10,2	11,9	12,1
Guztira	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1995)

1999ko datuei erreparatzen badiegu, ikasketa maila baxuenak dituztenak dira independentzia nahi handiak era baxuenean adierazten dituztenak. Kasu honetan, lehen mailako ikasketak dituztenak dira (%32,1) independentzia nahi handi txikiak azaltzen dituztenak, jarraian, ikasketarik ez dutela azaltzen duten herritarrak kokatzen dira (%39). Dena den, ezin dugu esan ikasketa maila handitzen den maila berdinean handitzen direnik independentzia nahi handiak. Esaterako, 1999ko datuei helduz, bigarren mailako ikasketak dituztenak lirateke independentzia nahi handienak erakusten dituztenak (%51,3); %38,5ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%29,5) edota batere independentzia nahirik ez dutela azaltzen du (%9).

IV.6.20. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (1999)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2. mailakoak	Lanbide Heziketa	Goi-mailakoak	Guztira
Nahi handiak	39,0	32,1	51,3	44,4	45,4	39,8
Nahi txikiak	29,5	36,1	29,5	30,5	29,8	32,6
Batere ez	21,9	20,4	9,0	14,3	13,1	16,5
Axolagabe	4,8	7,0	8,3	7,5	7,8	7,3
Ed/Ee	4,8	4,5	1,9	3,2	3,9	3,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (1999)

Lanbide Heziketako ikasketak eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean independentziaren inguruko posizioak nahiko banandurik daude. Honela, Lanbide Heziketako ikasketak dituztenen %44,4ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu; %44,8ak aldiz, independentzia nahi txikiak (%30,5) edota batere independentzia nahirik ez duela azaltzen du (%14,3). Goi-mailako ikasketak dituztenak ere ildo berean kokatzen dira auzi honi dagokionean, %45,4ak independentzia nahi handiak azaltzen ditu eta %42,9ak nahi txikiak (%29,8) edota batere nahirik ez duela azaltzen du (%13,1). Hortaz, ikasketa maila baxuak dituztenak independentzia nahi txikiagoak dituztela ikus dezakegu baina ikasketa maila eta independentzia nahien arteko korrelazio zuzen baten aurrean ere ez gaude; ez behintzat, 1999ko datuei dagokionean.

2001eko datuek ere 1995eko joera beretsua erakusten digute. Ikasketarik ez (%7,7) edota lehen mailako ikasketak dituztela adierazten dutenak dira (%19,7) independentzia nahi handi txikiak azaltzen dituztenak. Bigarren mailako ikasketak (%30,1), Lanbide Heziketako ikasketak (%29,9) eta goi-mailakoak dituztenen artean aldiz (%31,3) goruntz doa independentzia nahi handiak erakusten dituztenen portzentajea. Kontuan izan behar dugu ordea, independentziarako inongo nahirik adierazten ez dutenen artean goi-mailako ikasketak (%21), eta bereziki, bigarren mailakoak dituztenak nagusitzen direla (%26,3). Hortaz, ikasketa maila handitzen joan ahala independentzia nahia ere zertxobait handitzen dela ikusi badugu ere, independentziarako nahi txikiak edota batere nahirik ez dutela adierazten dutenei dagokionean ikasketa maila ezberdinen arabera ezberdintasunik ez dugu somatzen.

IV.6.21. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (2001)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2. mailakoak	Lanbide Heziketa	Goi- mailakoak	Guztira
Nahi handiak	7,7	19,7	30,1	29,9	31,3	25,2
Nahi txikiak	46,2	44,7	21,8	36,4	32,7	37,6
Batere ez	7,7	13,8	26,3	13,9	21,0	16,9
Axolagabe	0,0	10,7	11,3	10,0	8,1	10,0
Ed/Ee	38,5	11,2	10,5	10,0	7,0	10,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2001)

1995 eta 2001eko datuen interpretazioen ildo beretik, 2005ean ere hezkuntza maila txikiena dutenak dira independentzia nahi handi txikiak erakusten dituztenak. Honela, ikasketarik ez dutela azaltzen dutenen %18ak adierazten du independentzia nahi handiak dituela, lehen mailako ikasketak dituztenen artean portzentajea %27koa da. Bigarren mailako ikasketak (%41,7), goi-mailako ikasketak (%41,3) eta bereziki, Lanbide Heziketa egin dutenen artean (%45,4) aldiz, goruntz doa independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea.

IV.6.22. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (2005)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2. mailakoak	Lanbide Heziketa	Goi- mailakoak	Guztira
Nahi handiak	18,0	27,0	41,7	45,4	41,3	37,9
Nahi txikiak	34,4	35,2	28,6	26,2	29,8	30,0
Batere ez	42,6	31,5	17,7	16,5	16,5	21,6
Axolagabe	4,9	2,6	4,6	4,6	5,8	4,5
Ed/Ee	0,0	3,7	7,4	7,3	6,6	6,0
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2005)

2009an ere, ikasketarik ez dutenak, edota lehen mailako ikasketak dituztenak dira (%17,7) independentzia nahi handiak dituztela gutxien adierazten dutenak. Portzentajea handituz doa ikasketa maila gora doan heinean, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean %31,7ak azaltzen du independentzia nahi handiak dituela, goi-mailakoen artean portzentajea %33,7koa da. 2005ean ikusi bezala Lanbide Heziketa egin dutenak dira independentzia nahi handienak erakusten dituztenak (%38,7).

IV.6.23. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (2009)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2. mailakoak	Lanbide Heziketa	Goi- mailakoak	Guztira
Nahi handiak	0,0	17,7	31,7	38,1	33,7	30,5
Nahi txikiak	81,8	46,5	27,6	31,4	26,8	32,2
Batere ez	9,1	25,7	23,5	19,9	20,8	22,4
Axolagabe	9,1	5,8	13,3	7,2	11,7	10,2
Ed/Ee	0,0	4,4	3,8	3,4	6,9	4,7
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2009)

Hizpide izan ditugun beste urteetan bezalaxe, 2013an ere ikasketarik ez dutenak eta lehen mailako ikasketak dituztenak dira (%23,2) independentzia nahi handiak dituztela gutxien adierazten dutenak. Jarraian, Lanbide Heziketa dutenak (%31,1) eta goi-mailako ikasketak dituztenak (%36,3) ditugu. 2013an, bigarren mailako ikasketak dituztela azaltzen dutenak dira independentzia nahi handiak dituztela gehien azaltzen dutenak (%43,4).

IV.6.24. Taula: Independentzia nahiak hezkuntza mailaren arabera (2013)

	Ikasketa gabe	1. mailakoak	2. mailakoak	Lanbide Heziketa	Goi- mailakoak	Guztira
Nahi handiak	0,0	23,2	43,4	31,1	36,3	34,7
Nahi txikiak	38,5	30,8	18,0	25,6	20,3	22,8
Batere ez	46,2	36,8	25,1	27,0	27,5	28,4
Axolagabe	15,4	5,9	9,2	13,3	13,2	10,8
Ed/Ee	0,0	3,2	4,3	3,0	2,7	3,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

Connorren hamaikagarren hipotesiari helduz agerikoa da banaketaren aldekoek babes handiagoa dutela bigarren mailako hezkuntza edota hezkuntza maila altuagoa duten inkestatuengan. Azterturiko urte guztietan nabaria da ikasketarik ez dutenen artean edota lehen mailako ikasketak dituztenen artean independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak txikiagoak direla. Bigarren mailako ikasketak, Lanbide Heziketa eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean aldiz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak handituz doaz.

Halere, ezin dugu esan ikasketa maila handiagotzen den neurri berean handitzen direla independentzia nahi handiak. Honela, 1999 eta 2013ko datuei erreparatzen badiegu bigarren mailako ikasketak dituztenak dira independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak. 2005 eta 2009an Lanbide Heziketako ikasketak dituztela azaltzen dutenak dira independentzia nahi handiak era indartsuenean azaltzen dutenak. Ikasketei erreparatuz beraz, independentziaren auziari dagokionean bi talde nabarmendu ditzakegu: lehen mailako ikasketak edo baxuagoakoak dituztenak eta bigarren mailakoak edota hezkuntza maila altuagoa dutenak. Bigarren talde honetako herritarrak dira independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak, urteen arabera bigarren mailako, lanbide hezkuntza edota goi-mailako ikasketak dituztenen artean ezberdintasun txiki batzuk

ikus baditzakegu ere. Connorren hipotesia baieztatu ahal dugu beraz, hau da, banaketaren aldeko babes handiagoa dela hezkuntza maila altuagoa dutenengan. Bukatzeko, kontuan izan behar dugu, ikasketa mailaren aldagaiak adinaren duela lotura. Aurreko hipotesietan adin gehien zuten herritarrak independentzia nahi txikiak azaltzen zituztenak zirela ikusi ahal izan genuen; eta hauexek dira, hain zuzen ere, ikasketa maila baxuenak dituztenak.

b) Banaketaren aldekoak errentaren arabera

Connorren hamaikagarren hipotesian errentaren aldagaia ere barneratua dago. Connorren aburuz, banaketaren aldekoak babes gehiago dute errenta maila batezbestekoa baino handiagoa dutenen artean. Errentaren aldagaiarekin erabateko ondorioz ezin dugu atera, besteak beste, erantzuten ez dutenen kopurua altua delako eta ezin dugulako jakin erantzuten ez dutenen errenta maila nolakoa den. Ondorioz, normalean errentaren aldagaia ez da bere hortan erabiltzen eta, estatusaren aldagaia operazionalizatzeko beste bi aldagai hartzen dira kontuan, ikasketak eta lanbidea. Estatusaren aldagaia azpikapitulu honen amaieran landuko dugu.

Dena den, Connorrek marraztu duen perfil soziodemografikoa osatu bidean, eta 2013ko Euskobarometroa oinarrian harturik, EAEko herritarren independentzia nahiak familia errentaren aldagaiarekin gurutzatu ditugu.

IV.6.25. Taula: Independentzia nahiak familia errentaren arabera (2013)

	900 euro arte	901-1200	1201-2400	2400<	Ed/Ee	Guztira
Nahi handiak	28,4	31,0	37,5	38,9	34,4	34,7
Nahi txikiak	20,1	28,2	23,5	22,2	20,9	22,8
Batere ez	35,1	27,6	26,6	25,7	28,9	28,4
Axolagabe	9,7	12,1	10,9	9,7	11,1	10,8
Ed/Ee	6,7	1,1	1,4	3,5	4,8	3,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskobarometroa (2013)

2013ko datuen arabera, eta beti ere aurretik aipatu dugun erantzun ezaren kopuruak eskatzen duen zuhurtzia kontuan izanik, errentaren arabeko independentzia nahi ezberdinak ikus ditzakegu. Honela, 900 euro baino gutxiagoko familia errenta (%28,4) edota 901-1200 euro bitartekoa duten

herritarren artean (%31) independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen portzentajea baxuagoa da. Gainera, 900 euro baino gutxiagoko familia errenta dutenen artean independentziarako batere nahirik ez dutela adierazten dutenen portzentajea handiagoa da (%35,1). Errenta handiagoa dutenen artean aldiz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak gorantz doaz. Esaterako, 2400 euro baino gehiagoko familia errenta dutela adierazten duen %38,9ak independentzia nahi handiak adierazten ditu.

Hezkuntzaren aldagaia aztertzean esan dugu ikasketa maila baxuenak zituztenak zirela independentzia nahi baxuenak azaltzen zituztenak. Errentari dagokionean ere baieztatu dezakegu Connorren hipotesia, hau da, banaketaren aldekoak babes handiagoa dutela errenta maila handiagoa jasotzen duten herritarren artean. Dena den, eta gero estatusaren aldagaiarekin ikusiko dugun bezala, independentzia nahi handiak eta errenta eta hezkuntza maila altuaren artean harremana egonik ere, lotura estuena errenta eta hezkuntza maila baxuak eta independentzia nahi txikiak dituztenen artean kokatzen da.

13. Hipotesia: “Profesionalak gainordezkatuak dira”

Banaketaren aldekoen perfil soziodemografikoari dagokionean Connorrek hizpide duen azken aldagaia lanbidearena da. Errentarena bezala, lanbidearen aldagaiaren azterketa ere konplexua izan daiteke. Horregatik, sarritan lanbidearen aldagaia ez da era independentean aztertzen eta beste aldagai batzuekin harremanetan aztertu ohi da. Azpikapitulu honen amaieran estatusaren aldagaia jorratuko dugu, eta horretarako, lanbidea eta ikasketa mailak hartuko ditugu kontuan.

Hala eta guztiz, Connorrek lanbide mota duenez hizpide, guk ere era independentean aztertuko dugu. Esan bezala, nahiko konplexua izanen da lanbidearen aldagaiaren azterketa, besteak beste, ikerketa gehienetan, kategoria anitz barneratzen direlako, eta ondorioz, kategoria bakoitzean bil daitekeen herritar kopurua baxuegia izaten da ondorio estatistiko fidagarriak lortzeko. Hau kontuan izanik, Euskobarometroko datuak erabili orde, oinarri bezala, Ikuspegiko 2014ko Barometroko datuak erabiltzea erabaki dugu, lanbidearen aldagaiaren kategoriak Connorrek hizpide dituen *profesionalak* era egokiagoan jasotzen dituelakoan. Gainera, estatusaren aldagaia ere Barometro honetan dago oinarritua.

Datuak aztertu aurretik, Barometroak independentziaren auzia zuzenean ez duela lantzen esan behar dugu, eta ondorioz, lanbidearen aldagaia nortasun subjektiboaren aldagaiarekin gurutzatzea erabaki dugu. Aurretik gure tesian zehar aipatu izan dugu, independentismoak gurean lotura oso hertsia duela nortasun subjektiboarekin. Esaterako, independentzia nahi handiak azaltzen dituztenen gehiengo oso zabalak euskal nortasuna azaltzen zuen, eta zehazkiago, *euskaldun bakarrik* definitzen zen. Hortaz, eta independentziaren auziari zuzenean ez badio heltzen ere, lanbidea eta nortasun subjektiboaren arteko gurutzaketa Connorren hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko baliagarria zaigu.

IV.6.25. Taula: EAEko herritarren nortasun subjektiboa lanbidearen arabera (2014)

	Ez kualifikatuak	Autonomoak	Enpresariak	Profesionalak	Arduradunak	Besteak	Guztira
Espainola	0,0	0,0	4,0	1,2	5,6	2,0	1,8
Espainolago	4,8	4,6	4,0	3,1	1,9	2,6	3,1
Bikoitza	44,0	32,3	20,0	33,5	33,3	31,9	33,4
Euskaldunago	27,4	27,7	28,0	27,3	25,9	33,3	30,1
Euskalduna	22,6	26,2	40,0	26,1	18,5	25,9	25,5
Ed/Ee	1	9	4	9	15	4,3	6,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Ikuspegiko Barometroa (2014)

Lanbidearen araberako nortasun subjektiboari erreparatzen badiogu, kualifikaziorik gabeko langileen artean nortasun bikoitza adierazten dutenen portzentajea handiagoa dela ikus dezakegu (%44). Kontuan izan behar dugu, EAEn inor gutxik definitzen duela bere burua espainiar bezala, eta espainiar sentitzen direnen portzentaje esanguratsu batek ere nortasun bikoitza azaltzen duela. Enpresariei erreparatzen badiegu, %20ak bakarrik definitzen du bere burua espainiar bezain euskaldun eta bestalde, enpresarien baitan euren burua euskaldun bakarrik bezala definitzen dutenen portzentajea gainontzeko taldeetan baino altuagoa da (%40). Ardura postuak dituztenen artean aldiz, %18,5ak bakarrik definitzen du bere burua euskaldun bakarrik. Azpimarragarria da ere arduradunen %15ak ez erantzun izana nortasun subjektiboaren galderari. Bukatzeko, profesionalak izango ditugu hizpide, hauexei egiten baitie erreferentzia Connorrek. IV.6.25. taulan ikusi dezakegun bezala, profesionalen nortasun kokapena batezbestekoaren inguruan kokatzen da, eta zentzu honetan, ezin dugu Connorren hipotesia berretsi.

Dena den, aurretik esan bezala, lanbidearen aldagaia era independentean aztertzea konplexua da eta zaila izaten da erabateko ondorioak ateratzea. IV.6.25.taulan aurkezturikoa guk lanbidearekin eginiko operazionalizazioaren emaitza da, jatorrian kategoria gehiago baizituen lanbidearen aldagaiak. Hala eta guztiz, era orokorrago batean, eta Connorrek perfil soziodemografikoaren inguruan luzatzen dituen hipotesi ezberdinak aintzat harturik, kualifikazio baxuenekoen artean nortasun bikoitzaren indarra handia da eta hortaz, independentzia nahi urriak lituzkete tesian azalduko beste datuei erreparatu. Aldiz, kualifikazio handiena eskatuko luketeen lanbideetan, esaterako, enpresariak, edota arduradunak, ezin dugu erabateko ondorioak atera.

EAEko herritarren nortasun subjektiboa perfil soziodemografikoaren arabera

Connorrek aurkezturiko perfil soziodemografikoan, klaseari, ikasketei, errentari eta lanbideari erreparatzen zaio. Connorrek gainera, perfil zehatz bat irudikatzen du independentzia gehin babestuko luketen herritarrei dagokionean. Guzti hau aintzakotzat harturik, eta Connorren perfil hori osatu asmoz, interesgarria iruditu zaigu estatusaren aldagaia ere barneratzea azpikapitulu honetan. Finean, Connorrek estatus ertain edo altuko herritarrek irudikatzen ditu banaketa nahi handienak lituzketen herritarrez mintzo denean.

Aurretik esan bezala, lanbidea eta estatusaren aldagaiak aztertzeko 2014ko Ikuspegiko Barometroa izango dugu kontuan. Barometro honetan ez dago independentzia nahiei zuzenean erreferentzia egiten dion galderarik, eta ondorioz, nortasun subjektiboa hartuko dugu oinarrian.


Jarraian, EAEko herritarren ezaugarri soziodemografikoak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu euren nortasun subjektiboa oinarrian harturik. Hau da, nortasun subjektiboaren arabera perfil soziodemografiko ezberdinak badiren aztertuko dugu. Horretarako, korrespondentzia anitzeko analisi faktorial bat egin dugu, datu multzo osoa laburbiltzen duten faktoreak zehaztu asmoz. Erabili ditugun aldagaiak honakoak izan dira: sexua, adina, bizilekua eta estatusa. Estatusaren aldagaia eraikitzeke, herritarren ikasketa maila eta bere lanbidea (egungoa edo esaterako, jubilatua bada, aurretik zuena) hartu dira oinarrian.

Behin analisi faktoriala egin eta gero, EAEko herritarren perfil soziodemografikoa ezaugarritzeko aldagaiak bi dimentsioen arabera nola

irudikatzen diren aurkeztuko dugu. Irudiaren interpretazioari dagokionean, faktorea bereziki estatusa eta adinaren aldagaiak osatuko lukete. Hodei puntuak aztertu ondoren, bi asoziazio laino nagusi ikus ditzakegu:

- Irudiaren ezkerrean espainolak edota espainolak gehiago sentitzen diren 64 urte baino gehiagoko eta estatus baxuko herritarrak ikus ditzakegu.
- Irudiaren eskuinaldean aldiz, estatus altuko eta ertaineko eta euskaldun bezain espainiar, euskaldunak gehiago edota euskaldunak bakarrik sentitzen direnak ikus ditzakegu.

IV.6.1. Grafikoa: Korrespondentzia anitzeko analisi faktoriala



Laburbilduz, eta bereziki estatusaren aldagaiari erreparatuz, herritarren nortasun subjektiboak ezberdinak direla ikus ditzakegu. IV.6.1. grafikoan ikusi ahal izan dugun bezala, harremana bereziki estua da estatus baxua, 64 urte baino gehiago dituztenen artean eta nortasun subjektibo espainola adierazten dutenen artean. Talde hau izango litzateke beraz,

independentzia nahi urrienak erakutsiko lituzkeena. Beste muturrean aldiz, euskaldun bakarrik sentitzen diren 18-24urte bitarteko gazteak ditugu.

IV.6.26. Taula: Neurri diskriminanteak

	1.dimentsioa	2.dimentsioa	Bataz-bestekoa
Sexua	0,45	0,22	0,13
Adina	0,68	0,07	0,37
Bizilekua	0,27	0,30	1,63
Estatua	0,65	0,56	0,61
Guztira	1,66	1,20	1,43

IV.6.26. taulan ikus dezakegun moduan, adina eta estatusaren aldagaiak dira herritarren nortasun subjektiboa gehien laburbildu edota diskriminatzen dutenak. Bat dimentsioa x ardatzari dagokio eta y ardatza bigarren dimentsioari.

Guzti honek perfil soziodemografikoaren atalean azalduko laburbiltzen digu. Izan ere gazteak, maila ertaineko edo maila altuko hezkuntza maila eta errenta maila altuagoa azaltzen zutenak ziren independentzia nahi handienak azaltzen zituztenak. Eta alderantz, klase baxukoak, ikasketa maila baxuak eta errenta baxuena zutenak ziren independentzia nahi urrienak erakusten zituztenak. Ezin dugu ahantzi aldagai hauek era berean harremanetik daudela, gazteak dira ikasketa maila altuenak dituztenak, eta bestetik, estatusa, ikasketa eta lanbidearen aldagaietan oinarritua eraikirik dago.

Dena den, eta analisi honetan barneratua izan ez bada ere, jatorriaren aldagaiak ere nortasun subjektiboan, eta ondorioz independentzia nahietan eragin estua izango zuelakoan gaude. Aztertu dugun irudian batera agertzen zaizkigu 64 urte baino gehiagokoak, estatus baxua eta espainiar nortasuna azaltzen dutenak. Perfil honi erreparatuz, eta ikerketa ezberdinek erakutsi bezala, portzentaje esanguratsu batek jatorri espainiarra luke, eta estatusaz gain, edo estatusari lotuta, jatorriak indar diskriminatzaile handia izango lukeenaren ustea dugu independentziaren aldeko eta aurkakoen perfil soziodemografikoaren irudikatze honetan. Estatus baxukoak dira espainiar identitatea adierazten dutenak, eta kontuan izanik jatorriak eragin hertsia duela identitate horretan, jatorri espainiarrekoak estatus baxuagoa dutela esaten ari gara, objektiboki

gainera, ikasketa eta lanbidez ari baikara eta ez eurek klase sozialean luketeen autokokapenaz.

V. ONDORIOAK

Tesi honen helburu nagusia Walker Connorrek luzatzen duen tesia Euskal Autonomia Erkidegoan orohar berresten den jakitea da. Connorren arabera, estatu ezberdinetako iritzi inkesta eta hauteskunde datu ezberdinak erreferentziatzen hartuaz, estatu demokratiko moderno bateko gutxiengo nazionalak etnokrazia nahi dute, baina ez independentzia. Etnokraziak independentzia ez duela auresuposatzen baieztatzen du, baina, gutxienean, autonomia esanguratsu bat auresuposatzen duela dio.

Tesi hau berretsi ala ukatu dezaketen datu enpirikoei heldu aurretik, Connorren tesian uztartzen diren kontzeptu teorikoei erreparatu diegu tesian zehar. Lehen, etnokrazia da. Etnokraziaz aritzean, printzipio batean, helburu politikoei buruz arituko ginateke, eta hortaz, nazionalismoaren helburu politikoei buruzko auziaren baitan kokatu behar dugu etnokrazia terminoa. Lehenengo kapituluaren ikusi ahal izan dugun bezala, besteak beste, estatua eta nazioaren inguruko nahasmen terminologikoa handia da. Maiz, kontzeptu trukagarri bezala erabiliak izan badira ere, ebidentzia enpirikoei argi utzi dute nazio-estatuaren kontzeptuak mundu mailako estatu ezberdinetako errealtatearen portzentaje txiki bat islatzen duela. Gainera, estatu eta nazio kontzeptuak era trukagarrian erabiltzeak leialtasun iturri ezberdinen azterketa oztopatu du, nazioarekiko leialtasuna estatuarekiko leialtasunarekin parekatzen baita.

Honela, nazio bakarra duten estatuak edota nazio orok bere estatua duenaren ideiak ez luke oinarri enpiriko handiegirik. Ezberdintasun honen ildotik, nazionalismoaren helburuen haritik bigarren ezbaia bat genuke aurrean: zeintzuk dira nazionalismoaren helburuak? nazioa? estatua? naziogintza edo estatugintza?

Etnokrazia non kokatu ahal dugu? Connorri jarraiki, autodeterminazio nazionala demokratikoa da talde nazional bati bere atxikimendu politikoak

aukeratzeko eskubide politikoa aitortzen zaion heinean, baina ez badu taldeak aukeratu behar duen gobernu sistemaren inguruko aurreuposiziorik, etnokrazia da. Etnokraziaren kontzeptua hortaz, hein batean, helburu zehatz bati baino, bitartekoei lotua aukezten digu Connorrek, autodeterminazioaren egikaritzeari hain zuzen ere, emaitza edo xede zehatz bati baino.

Herri subirautza aipatzen du Connorrek. *Gemeinschaft* printzipioa aldarrikatzetik haratago, hau da, nazioa bera dela giza talde garrantzitsuena eta leialtasuna merezi duena, nazionalismo terminoak edukirik ez duela adierazten du, ez dela ideologia bat. Halere, Connorren aburuz, *Gesellschaften* garrantzia ezin uka daiteke; bereziki ongizate estatu modernoan, estatutik eratorritako onurak galtzeko beldurak banaketarako grina ahuldu dezake. Ondorioz, eta estatuarekiko sinpatia gutxienekoa izanik ere, ez da inkongruentea gutxiengo nazional bateko kideen gehiengo autonomiarekin konformatzea. Xede etnonazionalak, arrotzen domeinutik aske izatearen ametsarekin leudeke itsutuak, bi nazioen arteko harremanen aldaketaren aldeko bilakatuz.

Etnokraziaz ari garenan, zertaz ari gara beraz? Autodeterminazio edota subirautza ariketaz, edota egun hizpide den erabakitze eskubideaz. Autodeterminazio eskubideak nazioa du oinarrian, erabakitzeko eskubidea, aldiz, printzipio demokratikoarekin lotu nahi da. Dena den, bata ala bestea erreferentziatzat hartuaz, bitartekoez ariko ginateke, helburu edo xede politikoetaz baino. Etnokraziaz aritzean, hortaz, talde nazionalaren erabakitzeko gaitasunaz ari gara, subirautza horren egikaritzeak ekar lezakeen autodeterminazio *praxis*az, erabakiaren ondotik sor daitekeen eszenatokiaz baino. *Guk* erabaki, *guk* kudeatu, hau da, talde nazionalaren hautatzeko aukera bera litzateke ia helburua, etnokrazia hain zuzen ere, bigarren maila batera iraganez autogobernu mailaren nondik norakoak. Honela, subirautza ariketa horrek ez luke zertan independentzia nahietan isla zuzenik izan behar.

Etnokraziaz aritzean, bitartekoen garrantzia azpimarratu badugu ere, *gureei* emandako lehentasun horrek zeharka bada ere helburu edo espektatiba batzuk barneratu ditzakeela uste dugu. Hau da, gutxiengo etnonazionalak, *gureek*, bereziki nortasun nazionalarekin zerikusia duten auzi ezberdinei heltzea ere espero dute.

Nazionalismo ororen xedea halabeharrez nazioa edo estatua denaren ezbaira iraganez, edota naziogintzaz ala estatugintzaz arituko beharko ginatekeen, etnokraziaz aritzean bereziki, naziogintzaz ariko ginateke.

Bigarren kapituluan, Connorrek luzatzen duen hipotesiaren subjektuari heldu diogu; gutxiengo etnonazionaleri hain zuzen ere. Gutxiengo etnonazionalak hiru aldagai ezberdinen arabera definitu ditugu; nortasun nazional subjektiboa, abertzaletasuna eta bozka. Bozkari helduaz, eta Connorrek iritzi inkesta eta hauteskunde portaerari erreferentzia egiten dionez, gurean, hauteskunde portaeraren nondik norakoak argitzen saiatuko gara. Besteak beste, hauteskunde portaeran eragiten duten faktoreei eta hauteskunde portaerak banaketa nahietan duen eraginean ipini dugu fokoa. Gure aztergaiari dagokionean, gutxiengo etnonazionalen helburu politiken auzian hain zuzen ere, bozkaren aldagaia erabakiorra da. Bozka abertzalea, edota alderdi abertzaleek jasotzen dute bozka, abertzaletasunaren adierazpen gisa dugu, kontuan izanik beti ere, alderdi abertzaleek jasotzen dute bozka, abertzale bezala definitzen diren herritarretatik haratago doala eta irismen zabalagoa duela. Halere, Euskal Autonomia Erkidegoan, bozka izan da historikoki, gizartea bitan banatu duena. Abertzaletasun gradua, eta abertzaletasunaren helburuaren intentsitate gradua botuak emango liguke.

Bozkaren arabera, abertzaletasun instituzionalaz eta arradikalaz mintzo gaitzke, eta bereizketa hau, erabakiorra da hizpide izan ditugun auzi ezberdinetan. Tesi honen helburu nagusiari dagokionean, abertzaletasunaren bi arima edo familiek jarrera ezberdina erakusten dute independentismoari dagokionean. Baina nazionalismo instituzionala eta arradikalaren arteko banaketa ardatza ez da auzi horretara mugatzen. Connorrek luzatutako hipotesi ezberdinetan ikusi bezala, helburu politikoaren lorpenerako bitartekoetan eta egungo ereduaren balioespenean ere iritzi ezberdintasuna agerikoa da. Biolentziaren deslegitimazioari dagokionean ere, abertzaletasunaren bi familiek posizio ezberdinak mantendu izan dituzte. Tesian zehar aztertu ditugun hipotesi ezberdinetan gutxiengo eta gehiengo etnonazionalaren muga gainditzen zuten auzi hauek ikusi ahal izan ditugu. Auzi horietan, gutxiengo etnonazionalaren parte liratekeen herritarren arteko jarrera ezberdintasunak bozka du oinarrian.

Gutxiengo etnonazionalaren adierazpen ezberdinek hortaz, lehen kapituluan hizpide izan dugun etnokrazia gurean zenbatean berretsi ahal den ikusten lagundu ahal digute; nazionalismoaren helburu politikoak

argitzen, hain zuzen ere, eta bozka abertzalea eta independentismoaren arteko elkarrekintzaren irismena neurtzen. Euskal herritarren bozkan, posizio sozialari dagokionean, nortasun nazionala da gehien eragiten duen aldagaia. Nortasun nazional hau gainera balio politiko batean bilakatzen da, nazionalismoan, eta hortaz, euskal herritarren bozkan eragin zuzena du, guztiz determinantea ez bada ere.

Ondorio orokorrei heldu aurretik, Connorren hipotesietan barneratzen diren kontzeptu teoriko nagusien inguruan zertzelada nagusiak azaldu ditugu; etnokrazia eta gutxiengo etnonazionalak aritu gara. Tesiaren galdera nagusiari erantzun asmoz, hau da, ea EAEko gutxiengo etnonazionalak etnokrazia nahi duten, eta ez independentzia, Connorrek luzaten dituen jarrera eta hipotesi bakoitzaren ebidentzia enpirikoak aztertu ditugu.

1. Leialtasuna aztergai

Hauexek dira Connorrek luzaten dituen lehen hiru hipotesiak:

1. Gutxiengo etnonazionalak kideek estatuarekiko talde dominanteko kideak baino afektu gutxiago erakusten dute.
2. Estatu bereko gutxiengoek jarrera ezberdina izan dezakete.
3. Jendartearen gehiengoak ordea, leialtasun hori ez du bai edo ez terminoetan kokatzen. Estatuarekiko lotura afektiboak kontzientzia etnonazionalarekin batera existitzen dira.

Hiru hipotesi hauek medio, gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko duten leialtasuna aztertu nahi izan dugu. Connorren arabera gutxiengo nazionalak, *Gemeinschaft* leialtasuna eta estatuarekiko *Gesellschaft* leialtasuna bateragarri izatearen pertzepzioa dute, erdiguneak autonomia esanguratsu bat emateko prest dagoen heinean. Hori bai, gutxiengo nazionalak estatuarekiko leialtasuna eta nazioarekiko leialtasuna bateragarri ez baditu ikusten, nazioarekiko leialtasunak irabaziko luke lehia. Leialtasun edo afektuaren auzia funtsezkoa da nortasun nazionalen ezberdinen arteko harremanen nondik norakoak aztertzeke. Izan ere, Linzek azaltzen duen moduan, funtzionatzen duen sistema politiko demokratiko orok herritarrek estatuarekiko duten leialtasuna du bere oinarrian. Boterean dagoen erregimen edo gobernutik haratago, estatuarekiko leialtasuna beste estatu batekiko edo sortzen bidean dagoen beste batekiko baino handiagoa izan behar du.

Linzekin jarraituz, espainiar gehienentzat Espainia nazio-estatu bat litzateke, eta, horrek, beste inongo talde sozialarekin lortzen ez den elkartasun sentimendu bat suposatzen du eurentzako. Gutxiengo garrantzitsuentzako, ziurrenik, bere autoritatea obeditu behar den estatu bat izaten jarraitzen du. Hortaz, gutxiengo horientzako Espainia estatu bat da; baina ez euren nazioa eta hortaz, ez litzateke nazio-estatu, ezta nazioa ere, soilik estatu. Egun, bai Katalunian, eta bai EAEn, abertzaleen artean ere, Espainiako Estatuarekiko lotura afektiboak existitzen dira, baina gutxiengo talde etnonazionalak kideek lotura afektibo sendoagoak dituzten euren nazioekiko. Eta horixe da hain zuzen ere, nazio batekiko atxikimendu hori, elkartasun sentimenduaren sortzaile eta euskarria.

Leialtasunaren irismena neurtzeko CISen *Identidad nacional* ikerketako *item* batzuk aukeratu ditugu. Connorrek estatu bereko gutxiengoak ditu hizpide; eta horretarako, Katalunian eta EAEn gutxiengo nazionalak kideek auzi ezberdinetan zer nolako leialtasuna adierazten duten izan dugu aztergai.

- Connorrek aipatzen duen estatuarekiko gutxiengoen afektu urriagoa berretsi daiteke, EAEn bereziki. Katalunian ere, *item* gehienetan gutxiengoek gehiengoek baino afektu gutxiago erakusten dute, baina EAEn ere alderatuz, gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen arteko tartea txikiagoa da.
- Gaztelaniarekin edota katalanera eta euskara espainiar hizkuntzak direnaren *item*etan agerikoa da Katalunia eta EAEn gutxiengoen jarrera ezberdintasuna, Katalunian afektu gehiago erakutsiaz. Kataluniako gutxiengo etnonazionalak gaztelania euren nortasunaren oinarritzko elementua denarekin ados daude, baina EAEn adostasuna baxuagoa da. Katalunia eta EAEn gutxiengoen arteko ezberdintasuna are eta nabarmenagoa da bigarren adierazpenean; izan ere, Katalunian ia ez da eztabaidagai katalaneraren espainiartasuna, EAEn gutxiengo etnonazionalaren artean aldiz, sostengu baxuagoa du.
- Konstituzioaren balioespenaren inguruko jarrera ezberdintasuna EAEn bakarrik ikus daiteke, Katalunian ez da eztabaidarik auzi honetan eta gehiengoek adinako leialtasuna erakusten dute gutxiengo etnonazionalak. EAEn gutxiengoaren baitan babes txikia duen bitartean, Katalunian gutxiengo etnonazionalak ere Konstituzioa era baikorren baloratzen du. Gainera Konstituzioa

hizpide duen adierazpenaren babesa transbertsala da, eta Katalunian gehiengo nahiz gutxiengoaren babesa du.

- Hizkuntzak salbu, Espainiako elementu sinboliko edota identitarioei dagokionean gertuago daude Katalunia eta EAeko gutxiengoak, ereserki nazionala eta Espainiako bandera hizpide dituzten *itemetan* ikus dezakegun bezala.
- Gainera, ereserki nazionala eta Espainiako banderaren auziaz gain, Espainia estatua denaren ideiarengatik inguruan eta kirol selekzio propioak izateko aukeraren inguruan, gehiengo etnonazionalak ere, bereziki Katalunian, nahiko afektu ahula erakusten dute Estatuarekiko. Azpimarragarria da ere, hain justu gutxiengoaren jarrerak antzekoak diren auzi sinbolikoenetan, gehiengoaren jarrera ere gutxiengoetik gertu dagoela ikustea. Ereserki eta banderaren auzian, kirol selekzio propioak izateko aukeraren, baina baita ere Espainia estatua denaren auzian, gehiengoaren parte batek ere, bereziki Katalunian, leialtasuna urria adierazten du Estatuarekiko.

Hortaz, eta leialtasunaren auzia laburbildu asmoz, gutxiengoek orokorrean Estatuarekiko afektu gutxiago erakusten badute ere, gai askotan lotura afektiboak daudela ezin uka daiteke, Katalunian bereziki. Eta alderantziz, gehiengo etnonazionalak ere ez dute leialtasun osoa Estatuarekiko hizpide izan ditugun auzi batzuetan. Katalunia eta EAeko gutxiengoek Estatuarekiko azaltzen duten leialtasun maila ezberdina da; halere, auzi sinboliko eta identitarioenetan gertuko posizioak azaltzen dituzte.

Bi herrialde hauetako gutxiengo etnonazionalen jarrera ezberdintasuna nabarmena da eta agerian uzten du euskal eta katalan nazionalismoaren izate eta euskarriak ez direla berdinak. Katalunian indar gehiago du nortasun bikoitzak eta Kataluniako nazionalismoa ez da oinarritu espainiar nazio eta identitatearen ukazioan. Gainera gutxiengo eta gehiengo etnonazionalen posizioak ez dira antagonikoak. Euskal nazionalisten artean, aldiz, nortasun subjektibo bakarra gailentzen da eta abertzaletasuna hein batean espainiar nazionalismoaren ukazioan ere oinarritzen da. Euskal nazionalismoaren baitan ere Espainian egokitzapen bat bilatzearen aldeko jarrerak egon dira, eta badaude, baina hausturaren aldeko jarrera Kataluniakoa baino indartsuagoa izan da. Ikusiko dugu Katalunian azken urteetan ikusirikiko aldaketak direla eta ideia hau berresten jarrai dezakegun edota uneko gertakarietatik haratago doan eszenatoki berri baten aurrean gauden.

2. Banaketaren aldekotasunaz

Leialtasunaren auzia azaltzean, Connorren arabera, gutxiengo nazionalak, *Gemeinschaft* leialtasuna eta estatuarekiko *Gesellschaft* leialtasuna bateragarri izatearen pertzepzioa dute, erdiguneak autonomia esanguratsu bat emateko prest dagoen heinean. Leialtasunaren auzia aztertzean ikusi dugu EAEko herritarrei dagokionean, gutxiengoek Estatuarekiko afektu ahula erakusten dutela bereziki elementu sinboliko eta identitarioei erreferentzia egitean. Auzi hauetan, hortaz, eta beti ere gutxiengoei helduz, *Gemeninschaft* lotura nagusituko litzateke.

Baina, estatuarekiko ez, eta nazioekiko diren lotura sentimental hauek ze mailatan dute bere isla banaketaren aldeko jarreran? Galdera honi erantzuten saiatuko gara, Connorrek luzatzen dituen bi hipotesiei helduz:

4. Banaketaren aldeko mugimendua aktiboa den kasu askotan, jende asko, normalean inplikaturik den taldearen gehiengoa, ez da banaketaren aldekoa.
5. Zenbait kasutan, banaketaren aldekoek ordezkaturako portzentajea egonkor mantendu da, beste batzutan aldiz, aldaketa nabarmenak izan ditu.

Banaketaren aldeko portzentajeari dagokionean, gurean portzentajea nahiko egonkor mantendu dela esan genezake. Ez dago intentsitatea mantentzen duen aldaketarik eta uneko fluktuazioak egon badira ere, azterturiko serie osoa oinarrian harturik, hasierako puntuan gaudela esan genezake. Hau da, banaketaren aldekoek egun EAEn ordezkatzeko dutenen argazkia orain dela 30 urte genuenaren antzekoa da.

Laugarren hipotesiari heltzen badiogu, azterturiko datuek banaketaren hautua egingo luketeela azaltzen dutenen eta banaketaren aldeko izan daitezkeen arteko jauzi bat ikusarazten digute. Modu honetara, euskal nortasuna, abertzaletasuna eta independentismoa loturik egonik ere, parekidetzat ezin ditugu jo. EAEn gehiago dira abertzale definitzen direnak, independentzia nahi handiak edota estatu independente baten hautua egingo luketenak baino. Bestalde, gehiago dira euskal nortasuna azaltzen dutenak abertzale bezala definitzen direnak baino. Hortaz, euskal nortasuna azaltzen duten guztiak ez lirateke abertzale, eta abertzale guztiak ez lirateke independentista. Berretsi ahal dugu beraz, inplikaturik den taldearen gehiengoa ez dela banaketaren aldekoa? Euskaldunak bakarrik eta abertzale sentitzen direnen zati esanguratsu batek independentzia maila

handiak azaltzen dituen heinean, ez. Baina bestalde, ezin ahanzi ahal dugu inplikaturik legokeen herritar kopuru esanguratsu batek ez duela independentzia nahi handirik azaltzen; esaterako, euskaldunak gehiago sentitzen direnak. Inplikaturik den taldea gainera EAEko gizartearen erdi bat isla besterik ez da, banaketaren aldeko hautua murriztagoa litzatekeelarik. Connorren laugarren hipotesia, hortaz, hein batean soilik berretsi edo ukatu ahal dugu aurkezturiko ebidentzia enpirikoekin.

3. Autonomia handiagoa aztergai

Connorren hitzetan, etnokraziak ez du auresuposatzen independentzia; baina gutxienean autonomia esanguratsu bat suposatzen duela dio. Honela dio bere seigarren hipotesi edo jarrerak: “Banaketarekiko izan dezaketen jarrera kontuan izan gabe, autonomia handiagoa ekarriko lukeen sistema politikoaren aldekoak dira”.

Hipotesi hau aztertu bidean, Soziometroak eta Euskobarometroak eginiko inkesta ezberdinei erreparatu diegu. Horretarako, autogobernuaz eta Gernikako Estatutuaz eginiko galderak aukeratu ditugu, orain arte izan dugun autonomia edota autogobernu mailarekiko euskal herritarrek duten gogobetetzea neurtu asmoz. Ondoren, aurrera begirako proposamen edo proiektuei heldu diegu; herritarrek gustukoak luketen autogobernu maila eta bitarteko eta ereduaren argazki bat egin ahal izateko.

Euskal herritarren gehiengoak autogobernuaren balorazio baikor bat egiten du; autogobernu hau egikaritzeko bitarteko nagusi izan den Gernikako Estatutuaren gogobetetzea aldiz, partziala da. Halere, egun 1979ko erreferenduma errepikatuz gero, baiezkoren hautua nagusituko litzateke euskal herritarren artean, txuriz edo abstenituko litzateken herritar kopuruak esanguratsua izaten jarraitzen badu ere.

Aurrera begira, Connorren hipotesia berresten da, eta euskal herritar gehienak autonomia handiago baten aldekoak dira. Dena den, ez dago adostasunik, estatu ereduari dagokionean, hobetsitako autogobernu mailaz edota egoera konpontzeko alternatiba gustukoenez. Euskal herritarren artean banaketa ardatz nagusia autonomia edota autogobernu maila handiago hori egikaritzeko ereduaren legoke. Herritar askorentzat, egungo Estatutuaren bitartez bermatua legoke autogobernuaz, edota bere erreforma bitartez posible litzateke egungo autogobernu maila handitzea. Beste herritar batzuentzat aldiz, ezinbestekoa da marku aldaketa, eta

hausturaren alde agertzen dira. Aldaketaren beharraren aldeko dira euskal herritarrak; baina gehienek erreformaren bidetik egitea nahiko lukete.

4. Bozka eta banaketa nahiak aztergai

Connorren laugarren eta bosgarren hipotesietan euskal herritarren banaketa nahiak izan ditugu hizpide eta autoidentifikazio aldagaiak izan ditugu oinarrian; nortasun subjektiboa eta abertzaleetasuna. Biak oso maila altuan baldintzatzen zituzten independentzia edo banaketa nahiak; guztiz determinanteak ez badira ere. Era berean, euskal nortasun subjektiboa eta abertzale ziren guztiek independentzia nahi handiak ez zituztela azaltzen ikusi genuen. Jarraian, independentzia nahietan bozkak ze mailatan eragiten duen izango dugu aztergai. Honela dio, Connorren zazpigarren hipotesiak: “Banaketaren aldeko alderdiak hauteskudeetara aurkez daitezkeen sistemetan, bozka ez da sentimendu separatistaren adierazle egokia”.

Independentzia nahi handiak eta alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritar kopuruari erreparatzen badiegu, banaketaren aldeko alderdiak hauteskudeetara aurkez daitezkeen sistemetan bozka sentimendu separatistaren adierazle egokia ez dela esateko moduan geundeke. Azken urteetako datuei erreparatuz, alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen herritar kopurua independentzia nahiak azaltzen dituztenena baino handiagoa da.

Halere, alderdi abertzaleei bozka ematen dieten herritarren artean oso bestelakoa da sentimendu separatista eta bozkaren arteko uztarketa. EAJ edo nazionalismo historikoaren baitan, independentista ez den boto-emaile kopuru esanguratsua ikusi ahal dugu. Ildo honetan, EAJk historikoki independentziaren inguruan azaldutako jarrera anbiguoak bere boto-emaileen aniztasunarekin bat datorrela esan genezake. Ezker Abertzaleari dagokionean aldiz, bozka sentimendu separatistaren adierazle egokia dela esan genezake. Gainera, bere boto-emaileen independentzia nahi handiak alderdiak auzi honetan duen eta izan duen diskurtsoarekin bat datozela uste dugu.

Hortaz, alderdi abertzaleen bozka osotasun bat bailitzan hartua, ez litzateke sentimendu separatistaren isla egokia. Aldiz, bi alderdi abertzale nagusiak bananduz gero, bakoitzaren diskurtso eta ibilbideak bere boto-emaileen independentzia nahiak era egokian uztartzen dituela esan

genezake. Bi alderdi hauetako boto-emaileen jarrera ezberdintasuna hein batean, lau eta bosgarren hipotesietan adierazitakoarekin bat dator. Nortasun subjektiboak eta nazionalismoak independentismo nahietan eragin handia zutela ikusi genuen. Zentzu honetan, alderdi abertzaleen boto-emaileen autoidentifikazio aldagaien pisu ezberdinak banaketaren aldeko edo aurkako jarretan eraginik baduela uste dutela, beste faktore batzuen eragina ukatu gabe noski. EAJko boto-emaileen artean nortasun eta abertzaletasunari dagokionean heterogeneitate handiagoa ikus dezakegu. Esaterako, EAJren boto-emaileen artean nortasun nazional partekatua azaltzen duten herritarrek pisu handiagoa lukete; Ezker Abertzalearen baitan, aldiz, euskaldunak bakarrik sentitzen direnak nagusitzen dira. Gogoan izan behar dugu, gurean, independentismoak oinarri identitario eta sozial sendoa duela.

5. Banaketaren aldekoak eta biolentziaren legitimazioa

Behin banaketaren aldekoen nondik norakoak aztertutik, talde etnonazionalak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurrean eta biolentzia horren egileekiko duten iritziari erreparatu dio Connorrek. Horretarako honako bi hipotesi hauek luzatzen ditu:

8. Iritzi datuak dauden kasu guztietan, talde etnonazionalak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka azaltzen dira.

9. Halere, portzentaje esanguratsu batek, banaketaren alde ez dauden asko barne, biolentziaren egileak begiko dituzte eta biolentzia horren errua beste batzuei egozten diete.

Hipotesi hauek aztertzeko iturri eta inkesta ezberdinak erabili ditugu. Biolentziaren aurkakotasuna eta biolentziaren egileekiko begikotasuna neurtzearen zailtasun enpirikoak agerikoak dira. Ondorioz, eskura ditugun datuek bi hipotesi hauei zeharkako begirada bat luzatzea besterik ez digute ahalbidetu eta, hortaz, ondorioek ebidentzia enpirikoetan oinarrituak izanik ere, interpretazio anitzak izan ditzakete. Aurkezturikoak, beraz, datu horietatik guk eratortzen ditugunak lirakeke, bestelako interpretazioen baliagarritasuna ukatu gabe.

Aztergai izan ditugun datuei erreparatuz, Connorren zortzigarren hipotesia berretsi dezakegu, eta gaur egun gutxiengo etnonazionalaren parte liratekeen herritar gehienak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka daudela esan genezake. Halere, matizazio ezberdinak egin beharrean gaude. Esaterako, eta biolentziaren aurkakotasuna maila batean bakarrik neur dezakeela kontziente izaki, ETAREN aurkako mobilizazioei erakutsitako babesari dagokionean, alderdi ezberdinetako boto-emaileen artean ETAREN aurkako mobilizazioekiko babes handia edo nahikoa ikusi dugu, EH-ken boto-emaileen gehiengo zabal batek aldiz, ETAREN aurkako mobilizazioak gutxi edo batere ez dituela babesten azaltzen du.

ETAREN babesa neurtzeko erabili dugun beste galderak, *zein den ETAREKIKO duten jarrera*, Connorren zortzigarren hipotesiari era egokiagoan heltzen diola uste dugu. Galdera horretako azken datuei helduz, eta aurretik esan bezala, gutxiengoak talde nazionalaren izenean egikaritzen den biolentziaren aurka leudeke, egun. Eta egun esaten dugu, ETAREKIKO jarrera asko aldatu delako azken hogeita hamar urteetan. Gutxiengo etnonazionalari helduz, 2001a data klabea da, hortik aurrera ETAREN erabateko gaitzespena era esanguratsuan handitzen baita gutxiengo etnonazionalako kide liratekeen herritarren artean. Halere, gaitzespen hau ez da gutxiengo osoak partekatzen duen jarrera nagusia. Ezker Abertzalearen boto-emaileen artean ez da oraindik erabateko gaitzespenik, bere baitan ere lausotu egin bada ere orain dela urte batzuk gailentzen zen babesa.

Connorren bederatzigarren hipotesiak biolentziaren egileekiko begikotasunari heltzen dio. Begikotasun hau neurtzeak baditu bere zailtasunak. Halere, 1999-2007 tartean ETAKIDEKIKO begikotasunak aldaketa nabarmenak izan dituela esateko moduan geundeke. Banaketaren alde daudenen artean, beharuntz egin du ETAKIDEAK abertzaletzat jotzen zituztenen kopuruak eta gora, terroristatzat dituztenak; banaketaren aurkakoen artean are eta argiagoa da ETAKIDEAK terroristatzat jotzen dituztenen hazkundera. Halere, banaketaren aurka daudenen artean ere, oraindik bada ETAKIDEAK ameslaritzat jotzen dituenik, ziurrenik ETAK borroka antifrankistan izandako rolak pisua izaten jarraitzen du. Linzek beste azalpen bat ere ematen du jarrera honi dagokionean, hau da, oraindik ere errazagoa izatea ETAKIDEAK oker dauden ameslari bezala definitzea, berak behin eta berriro azpimarratzen duen iritzi publikoa eta iritzi publikatuaren arteko tarte horretan.

Bederatzigarren hipotesiak erruaren auziari ere erreparatzen dio. Egun, euskal gizartean biolentziaren erabileraren errua besteei egozteak ez du ia babesik. Era berean, ia inork ez du defendatzen du biolentziaren erabileraren ezinbestekotasuna, banaketaren aldeko zenbait herritarrek egun helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defenda daitezkeen ideiarekiko mesfidati agertu arren. Azpimarratzekoa da 2013an EH Bilduri bozka eman ziola adierazi duten herritarren ia erdiak posizio hau azaltzea. Honela, %51,4ak helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeela adierazi arren, %21,4ak zalantzak ditu eta %23,9ak ez du uste egun helburu politiko guztiak biolentzia erabili gabe defendatu daitezkeela.

Zortzigarren hipotesian ikusi bezala, banaketaren aldekotasunetik haratago, bozka da biolentziaren legitimazioa gehien baldintzatzen duen faktorea. ETAkideen irudiari buruzko azken datuak 2007koak dira eta datuek Ezker Abertzaleko boto-emailen artean (urte honetan EHAKri bozka eman ziola adierazi dutenak) ia inork ez dituela ETAkideak manipulatu edo terroristatzat jotzen erakusten dute. Gutxiengoaren parte lirakeen EHAK eta EAJren boto-emailek ETAkideekiko duten irudia oso bestelakoa da; EAJkoen boto-emaileen jarrerak antzekotasun handiak dituelarik PSEko boto-emailek erakutsitakoarekin. Beste behin, gutxiengo eta gehiengoaren arteko ezberdintasunak ukan gabe, gutxiengoaren baitako ezberdintasunak agerian daude. Bozkaren arabera ezberdindu ditugun gutxiengoaren baitako boto-emailek jarrera ezbedina erakusten dute ETAREN biolentziarekiko eta bere egileekiko. Baina baita ere, banaketaren aldekotasunean edota aurrerako begirako autogobernu maila handiagoa egikaritzeko tresna eta bitartekoen inguruan ere. Bozkaren aldagaia, beraz, klabea da tesi honen ardatz nagusiaren nondik norakoak, eta Connorrek hizpide dituen hipotesi bakoitzean ikus ditzazkegun ezberdintasunak interpretatzeko.

6. Banaketa nahiak herritarren perfil soziodemografikoaren arabera

Orain artean banaketaren nondik norakoak herritarren nortasuna, abertzaletasuna eta bozkaren arabera nolakoak ziren ikusi dugu. Jarraian herritarren perfil soziodemografikoaren arabera independentismoa aztergai izango dugu. Connorrek klase soziala, adina, hezkuntza, errenta eta lanbidea ditu hizpide. Honakoak dira luzatzen dituen hipotesiak:

10. Banaketaren aldekoek babesa dute maila sozial guztietan eta adin talde ezberdinetan.
11. Babes gehien ordea, hogeita hamabost urte baino gutxiagokoen artean eta batezbestekoa baino hezkuntza eta errenta maila altua dutenengan kokatzen da.
12. Profesionalak gainordezkatuak dira.
13. Babes eza berroigeta hamabost urtetik gorakoengan nabaria da.

a) Banaketaren aldekoak eta klase soziala

Klase sozialaren araberako independentzia nahiei heldu aurretik, herritar gehienek euren burua klase ertainean kokatzen dutela esan behar dugu, 2013ko datuetan euren burua klase baxuan kokatzen dutenen portzentajea handitzen bada ere. Aztergai ditugun lagin ezberdinetan, euren burua klasea altuan kokatzen dutenen portzentajea oso baxua da eta hortaz, urte edo inkesta batean ezberdintasunik ikusi baditza kegu ere, ezin dugu haratago doan interpretazio orokorrik egin.

Connorren hamargarren hipotesiari erreferentzia eginez, klase sozialei dagokionean, Connorren hipotesia hein batean EAEn betetzen dela esan genezake. Hau da, banaketaren aldekoek babesa dutela maila sozial guztietan. Azterturiko urteetan bada ezberdintasunik klase altua, ertaina edota baxua adierazten dutenen artean baina ezberdintasun nabarmenik ez da ikusten. Ez daukagu tendentzia argi bat esateko klase batean ala besteak kokatzen direnen independentzia edo banaketaren aldeko jarrera ezberdina dela adierazteko. Esaterako, 2005ean klase sozial altuan kokatzen zirenak ziren independentzia nahi handiak era ahulenean azaltzen zituztenak, 2009an aldiz, independentzia nahi handienak erakusten dituzte. Gainera, 2001 eta 2005 urteetan, klase altuan kokatzen zirenek independentzia nahi txikiak edo batere gogorik ez zutela gehien azaltzen zutenak ziren. 1995, 1999 eta 2009an aldiz, euren burua klase baxuan kokatu dutenak dira independentziarako nahi gutxien erakusten dutenak (*nahi txikiak + batere ez* azaltzen dutenak).

Modu honetara, ezberdintasunak ikusi ditugun kasuetan, zenbaitetan klase altuan kokatzen zirenak ziren gehien ezberdintzen zirenak, independentzia nahi handiak era indartsuenean edo ahulenean erakutsiaz. Kontuan izanik oso herritar gutxi direla euren burua klasea

altuan kokatzen dutenak, ikusitako ezberdintasun hauetatik ezin dugu erabateko ondorioz atera. Dena den, zertzelada orokor batean, eta klase ertaineko eta klase baxuan kokatzen diren herritarrei dagokionean, ezberdintasunak dauden kasuetan, klase baxukoak dira independentzia nahi handiak era ahulenean azaltzen dituztenak. Klasean gorantz joan ahala ez dira independentzia nahiak handitzen, baina egia da klase baxukoak direla independentzia gogo eza edo axolagabe direla gehien adierazten dutenak.

Halere, eta hizpide izan ditugun beste aldagaiekin ikusiriko loturak medio, nortasun subjektiboa eta nazionalismoa esaterako, badirudi herritarrek klase sozialean duten autokokapenak independentziarako nahietan eragin urria duela.

b) Banaketaren aldekoak eta adina

Connorren hamargarren hipotesian maila sozialaz gain, banaketaren aldekoek adin talde guztietan babes dutela azaltzen du. Datuei erreparatu, ontzat eman dezakegu hipotesi hau baina adinaren aldagaiak eragina duela ezin uka dezakegu Connorrek hurrengo hipotesietan planteatzen duen bezala. Honela, eta Connorren hipotesiari helduz, EAEn ere, aztertutako aldian, 35 urte baino gutxiago dituzten inkestatuak dira independentzia nahi handienak erakusten dituztenak. Hala eta guztiz, esan beharra dago ere zenbaitetan 35-55 urte tartean kokatzen direnen independentzia nahietatik oso gertu kokatzen direla, agian klase eta segurtasun maila altuagoak dituztelako.

Connorrek adinaren inguruan luzatzen duen beste hipotesia, independentziak babes gutxien 55 urtetik gorako artean duela da. EAEko datuei erreparatu, 55 urtetik gorakoek azaltzen duten independentzia nahi txikiagoa agerikoa da. Gainera, gure adin tarteekin egindako gurutzaketetan ikusi ahal dugun bezala, adin nagusiagokoen jarrera hau are eta indartsuagoa da 64 urte baino gehiago dituzten inkestatuengan. Esaterako, Eskoziako erreferendumen inguruko datuek ere hipotesi hau berresten dute: 64 urte baino gehiago dituzten artean ezezko jarrera nagusitu baitzen. Seguruenik, bizitza segurtasunaren ahultzeak eragin handia du.

c) Banaketaren aldekoak eta hezkuntza maila

Connorren hamaikagarren hipotesiaren arabera banaketaren aldeko babesa handiagoa da hezkuntza maila altua dutenengan. EAEko datuei helduz, agerikoa da banaketaren aldekoek babes handiagoa dutela bigarren mailako hezkuntza edota hezkuntza maila altuagoa duten inkestatuengan. Azterturiko urte guztietan nabaria da ikasketarik ez dutenen artean edota lehen mailako ikasketak dituztenen artean independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak txikiagoak direla. Bigarren mailako ikasketak, Lanbide Heziketa eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean aldiz, independentzia nahi handiak adierazten dituztenen portzentajeak gorantz doaz. Hortaz, Connorren hezkuntzaren inguruan luzatzen duen hipotesia gurean ere berresten dela esan genezake.

Halere, ezin dugu esan ikasketa maila handiatzen den neurri berean handitzen direla independentzia nahi handiak. Honela, 1999 eta 2013ko datuei erreparatzen badiegu bigarren mailako ikasketak dituztenak dira independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak. 2005 eta 2009an Lanbide Heziketako ikasketak dituztela azaltzen dutenak dira independentzia nahi handiak indartsuen azaltzen dutenak.

Ikasketei erreparatuz beraz, independentziaren auziari dagokionean bi talde nabarmendu ditzakegu: lehen mailako ikasketak edo baxuagoakoak dituztenak eta bigarren mailakoak edota hezkuntza maila altuagoa dutenak. Bigarren talde honetako herritarrak dira independentzia nahi handienak azaltzen dituztenak, urteen arabera bigarren mailako, lanbide hezkuntza edota goi-mailako ikasketak dituztenen artean ezberdintasun txiki batzuk ikus baditzakegu ere. Bukatzeko, kontuan izan beharko dugu, ikasketa mailaren aldagaiak adinarenarekin duela lotura. Adin gehien zuten herritarrak ziren independentzia nahi txikienak azaltzen zituztenak; eta hauexek dira hain zuzen ere ikasketa maila baxuenak dituztenak.

d) Banaketaren aldekoak eta estatusa

Connorren hamaika eta hamabigarren hipotesiak herritarren estatusarekin lotuak daude. Aurretik aipatu dugu herritarren errenta eta lanbideari dagokionean datuak zuhurtziaz irakurri behar direla. Halere, errenta altueneko herritarrek independentzia nahi handiak era indartsuagoan azaltzen dituztela esan dezakegu, eta alderantziz, errenta baxuena jasotzen dutenak independentzia nahi urriagoak azaltzen dizkigute. Lanbideari dagokionean, ezin dugu erabateko ondoriorik atera baina kualifikazio

gabeko langileen artean independentziaren aldeko babesaren lausagoa dela baieztatu dezakegu.

Independentziaren babesaren atzean egon daitezkeen herritarren perfil soziodemografikoa marrazte bidean korrespondentzia anitzeko analisi faktorial bat egin dugu. Horretarako, herritarren nortasun subjektiboa hartu dugu erreferentziatzat, eta analisiak estatusa, adina eta nortasun subjektiboaren arteko harreman estua erakusten digu. Modu honetara, estatus baxua duten eta 64 urte baino gehiago dituzten herritarrak dira espainiar nortasuna adierazten dutenak. Ondorioz, perfil hau litzateke independentziaren aldekatasun urriena erakutsiko lukeena. Aldiz, gazteagoak direnak eta estatus ertaina edo altua dutenak, nortasun bikoitza eta euskalduna lukete. Egia da bigarren talde hau askoz heterogeneagoa dela eta ondorioz, analisiak bereziki independentziaren aldekoa ez litzatekeen perfila marrazten digula era argiengan.

Behin Connorrek aurkeztutako hipotesien ondorio nagusiak banaka aztertu ostean, tesi honetako galdera edo premisa nagusiari erantzuteari ekingo diogu. EAeko hiritarrek etnokrazia nahi dute, baina ez independentzia?

Tesi honetan aurkeztutako datuek, EAeko herritarren artean ere etnokraziarik badela azaltzen digute. Independentzia nahiei heltzen badiegu, herritarren heren batek azaltzen du bere aldekatasuna eta gainera portzentaje hau nahiko egonkor mantentzen da aztergai izan dugun serie osoan. Bestalde, eta Connorren azaltzen duen moduan, etnokraziak independentzia ez duela auresuposatzen baieztatzen du, baina, gutxienean, autonomia esanguratsu bat auresuposatzen duela dio. Hipotesi hori ere berretsia izan da. Etnokrazia ari garenean hortaz, helburu zehatzei baino, bitartekoei erreparatu beharko genioke. Hau da, autodeterminazio nahiei, erabaki nahiari, *guk* erabaki nahiari, subirano izateari. Subirano izatea *guk* erabakitzeko, *gu* hori gutxiengo etnonazionaleri mugatuaz.

Subirautza ariketa horretatik ordea, ez da nahitaez, banaketaren aldeko hautua egin behar. *Guk, gurea*, kudeatu eta erabaki ahal badugu, bigarren plano batera iragaten dira banaketa edota estatu propio baten aldeko aldarrikapenak. Bestelako kontua da, zer aukeratuko litzatekeen, edo zer nolako apustua egingo litzatekeen, sezesioa edo estatu propioa lortzea errazagoa balitz. Hortaz, eta nazionalismoen helburu politikoei

dagokionean, ez da zertan estatugintzaren aldeko hautua egin behar. Etnokraziaz ari bagara naziogintzaz ari gara.

Nazioarekiko leialtasunaren garrantzia berretsi ahal izan da. *Gemeinschaft* printzipioa aldarrikatzen da eta gutxiengo etnonazionalak estatuarekiko lotura afektibo urriak azaltzen ditu. Baina jarraian, leialtasun urriago hau ez da banaketaren aldeko babes maila berean kokatzen; bai ordea, autogobernu edo autonomia handiago baten aldarrikapenean.

Etnokraziaren ideiak, mahai gainean ipinitako beste auzia abertzaletasuna eta independentismoaren arteko tartea da. Jauzia are eta handiagoa alderdi abertzaleei bozka ematen dietenen eta independentzia nahiak azaltzen dituztenen artean. 2001eko hauteskunde autonomikoak etnokrazia honen adierazgarri direla uste dugu. Hauteskunde lehia *gu* abertaleak eta *zuek* espainolak bezala irudikatu ahal dugu. Ibarretxe Lehendakariak botu zaparrada jaso zuen, Ezker Abertzaleko boto-emailetatik batetik, etnokrazia berretsiz, *gureak* irabazten jarraitzeko bozka aldaketa egiteko prest zirela agerian utziaz. Dena den, eta bigarren kapituluan azaldu bezala, 2001ean abertzale ez zirenek ere eman zioten bozka Ibarretxeri.

Baina hauteskunde haiek beste etnokrazia bat ere ipini zuten mahai gainean, tesian zehar *kudeaketaren etnokrazia* bezala izendatua; izan ere, 2001ean EAJk jasotako bozka berrian ez ziren boto-emaile abertzaleak soilik. 2009koetan ere etnokrazia kutsurik izan zen. Agian hauteskunde lehian baino, hauteskunde ondorengo emaitza eta gobernu berriari dagokionean. Lehen aldiz abertzalea ez zen lehendakaria izan genuen EAEn eta hautsak harrotu zituen. Ezker Abertzalearen ilegalizazioa baliatzeaz aurpegiratu zioten gobernu berriari, baina atzean *gurea* ez zen gobernu baten onarpen eza ere bazen. Are gehiago, PSEko lehendakari baten aukera egiazkoa zela uste izango balukete herritar askok, 2001aren ildo beretsuan, EAJk bozka etnokrata jasoko zuenaren ustea dugu. 2001ean nazionalismo instituzionalak oso emaitza onak lortu zituen urte berean, independentziaren aldekotasun baxuena ikusi ahal izan genuen EAEn. Connorren zazpigarren hipotesia berretsiz hortaz.

Connorren etnokraziaren ideia hein batean autogobernua eta Estatutuaz aritzean ere azaldu dela esango genuke. Autogobernua baikorki baloratzen da baina, paradoxikoki, berau egikaritzeko tresna nagusiak, Gernikako Estatutuak, gogobetetze partziala du. Gogobetetze partzial hau gainera esanguratsua da Estatutua bultzatu eta bere medio EAEk izan duen autogobernua eta eskuduntzak kudeatu dituztenen artean.

Nola uler daiteke balizko kontraesan hau? Behin Estatutuak urte luzeetan izandako alderdi babesa ahultzean, hau da, EAJko sektore batzuk Estatutua gainditu beharraren ideia plazaratu ostean, alderdi espainolistak bilakatu ziren bere defendatzaile nagusiak. Ondorioz, abertzaletasunetik Estatutua distantziaz babesten da; dagoeneko ez da euren Estatutua. Estatutua medio lorturiko autogobernu maila beraz bigarren maila batean geratzen da. Berriro ere *gurearen* gailentasuna, tresnak guri ekar ahal digukeen autonomia eta autogobernu handiago bat bigarren maila batera iraganez. Eta hemen kokatu ahal dugu ere abertzaletasunaren parte batek estatu propio baten proiektuarekiko erakutsitako enfasi urria. Azken batean, noren esku geratu ahal dira estatu erakundeak? Nazioingintzak ez du estatugintzara iragan beharrik, proiektu ezberdinak izan daitezke, eta dira. Baina alderantziz ere, estatua izateak ez du zertan nazioa indartu eta, hortaz, zertarako eman lehentasuna estatuari?

Aurretik azaldu bezala, EAEn independentismoak oinarri identitario oso sendoa du. Halere, gutxiengo etnonazionalaren baitako independentziaren aldeko jarrerak anitzak dira. Ontzat eman dugu euskal herritarrek independentzia baino, etnokraziaren aldeko direla. Dena den, bozkaren arabera gutxiengoaren parte batek, Ezker Abertzaleko boto-emailek irudikatzen dutena hain zuzen ere, independentziaren aldeko hautua egiten du. Hortaz, etnokrazia nazionalismo instituzionala irudikatuko lukeen EAJren baitara mugatu ahal dugu? Ez dugu uste. Etnokrazia subirautza eta helburu politikoekin baino bitartekoekin lotu dugun arren, *gureen* gobernu eta kudeaketa ez dugu uste EAJren patrimonio denik. 2001 eta 2009eko hauteskundeek etnokraziaren irismena zabalagoa dela irudikatzen digute.

BIBLIOGRAFIA

- Aldrich, John (1993): Racional Choice and Turnout, *American Journal of Political Science*, N° 37, pp. 246-278.
- Alford, Robert (1963): *Party and Society: The Anglo-American Democracies*. Chicago: Rand McNally.
- Almond, Gabriel and Verba, Sidney (1989): *The Civic Culture: Political Attitudes and Democracy in Five Nations*. Newbury Park: Sage.
- Almond, Gabriel and Verba, Sidney (1992): La cultura política. In *Diez textos básicos de Ciencia Política* (pp. 171-201). Barcelona: Ariel.
- Altuna Belén. (2012): *El buen vasco. Génesis de la tradición "euskaldun fededun"*. Donostia: Hiria.
- Anderson, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Méjico: Fondo de Cultura Económica.
- Anduiza, Eva and Bosch Agustí (2012): *Comportamiento político y electoral*. Barcelona: Ariel.
- Aierdi, Xabier (2009): Posnacionalismo, *Crítica*, N° 961, pp. 78-83.
- Apaolaza, Jose Miguel (1993): *Lengua, etnicidad y nacionalismo. Su concreción en Salvatierra (Álava)*. Barcelona: Anthropos.
- Aranzadi, Juan (1981): *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Madrid: Taurus.
- Armstrong, John (1982): *Nations before Nationalism*. Chapel Hill: University of North Carolina Press.
- Arteta, Aurelio (1997ko Apirilaren 10). Medios terroristas, fines nacionalistas. *El País*.
- Banducci, Susan and Karp, Jeffrey (2009): Electoral systems, efficacy and voter turnout. In Klingemann, Hans- Dieter, *The Comparative Study of Electoral Systems* (pp.109-134). USA: Oxford University Press.

- Barker, Ernest. (1927): *National Character and the Factors in its Formation*. London: Methuen.
- Barbería, José Luis and Unzueta, Patxo (2003): *Cómo hemos llegado a esto. La crisis vasca*. Madrid: Taurus.
- Barth, Fredrik (1976): *Los grupos étnicos y sus fronteras*. Méjico: Fondo Cultural Económico.
- Bartolini, Stefano and Mair, Peter (1990): *Ideology, Competition and Electoral Availability; The Stabilisation of European Electorates 1885-1985*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bartolini, Stefano (2005): La formation des clivages. *Revue Internationale de Politique Comparée*, Vol.12, N°1, pp. 9-34.
- Beck, Ulrich (2004): *Poder y contrapoder en la era global. La nueva economía política global*. Barcelona: Paidós.
- Berger, Peter (1989): *La revolución capitalista. Cincuenta proposiciones sobre la prosperidad, la igualdad y la libertad*. Barcelona: Península.
- Boudon, Raymond (1986): *Theories of Social Change*. Berkeley: University of California Press.
- Bourdieu, Pierre (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.
- Bourdieu, Pierre (1988): *Cosas dichas*. Buenos Aires: Gedisa.
- Bosch, Agustí and Rico, Guillem (2003): Leadership effects in regional elections: the Catalan case, *Working Papers de l'ICPS*, Barcelona.
- Brass, Paul (1976): Ethnicity and Nationality Formation, *Ethnicity. An Interdisciplinary Journal of the Study of Ethnic Relations*, Vol.3, N°3, pp. 225-241.
- Brass, Paul (1991): *Ethnicity and Nationalism*. New Delhi: Sage.
- Breuilly, John (1993): *Nationalism and the State*. Manchester: Manchester University Press.
- Buchanan, Allen (2013): *Secesión*. Barcelona: Ariel.
- Budge, Ian (1976): *Party identification and Beyond*. Londres: John Wiley and sons.
- Buonicore, Augusto (2006): Gramsci, Lenin y la cuestión de la hegemonía. *Rebelión*. Helbidea: <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=27959>

- Burnham, Walter (1970): *Critical elections and the mainsprings of American politics*. Nueva York: Norton.
- Burt, Ronald (1987): Social contagion and innovation: cohesion versus structural equivalence, *American Journal of Sociology*, N° 92, pp. 1287-1335.
- Butler, David and Stokes, Donald (1969): *Political Change in Britain: Forces shaping electoral choice*. London: Macmillan.
- Campbell, Angus; Converse, Philip; Miller, Warren and Stokes, Donald (1960): *The American Voter*. Nueva York: John Wiley.
- Carmines, Edward and Huckfeldt, Robert (1988): Political Behavior: An Overview. In Goodin, Robert and Klingemann, Hans-Dieter, *A new handbook of political science*. USA: Oxford University Press.
- Carmines, Edward and Huckfeldt, Robert (2001): Comportamiento político: una vision general. In Goodin, Robert and Klingemann, Hans-Dieter, *Nuevo manual de Ciencia Política* (pp. 329-373). Madrid: Istmo.
- Clark, Terry and Lipset, Seymour (2001): *The breakdown of class politics: a debate on post-industrial stratification*. Woodrow Wilson Center Press.
- Cobban, Alfred (1969): *The Nation State and National Self-Determination*. Londres: Collins.
- Coleman, James Samuel (1964): *Introduction to Mathematical Sociology*. New York: Free Press.
- Connor, Walker (1972): National-building or Nation-destroying? , *World Politics*, N° 24, pp. 319-355.
- Connor, Walker (1978): A nation is a nation, is a state, is an ethnic group, is a ... , *Ethnic and racial studies*, Vol.1, N°4, pp.377-400.
- Connor, Walker (1989): Democracia, Etnocracia, y el Estado multinacional moderno: paradojas y tensiones. In Pérez Agote, Alfonso (ed.) (pp.111-139), *Sociología del Nacionalismo*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua eta Eusko Jaurlaritza.
- Connor, Walker (1998): *Etnonacionalismo*. Madrid: Trama.
- Converse, Philip (1964): The nature of beliefs systems in mass publics. In Apter, David (ed.), *Ideology and Discontent*. Nueva York: Free Press.

- Conversi, Daniele (1997): *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative Routes to Nationalist Mobilisation*. Londres: Hurts and Co.
- Cordero, Guillermo and Martín, Irene (2011): *Quiénes son y cómo votan los españoles de izquierdas*. Madrid: Catarata.
- Criado, Henar (2003): Elección racional y comportamiento electoral: más allá de la paradoja del voto, *Zona Abierta*, N°102-103, pp. 1-14.
- Dalton Russell (1996): *Citizen Politics in Western Democracies*. Londres: Chatman House.
- Del Río, Eugenio (2015): ¿Es “populista” Podemos?, *Página Abierta*, N° 236.
- Deutsch, Karl (1966): *Nationalism and Social Communication*. New York: MIT Press.
- Deutsch, Karl (1969): *Nationalism and Its Alternatives*. Nueva York: Random House.
- Diani, Mario and Melucci, Alberto (1983): *Nazioni senza Stato*. Milano: Feltrinelli.
- Díez Medrano, Juan (1999): *Naciones divididas (clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña)*. Madrid: CIS (Monografías).
- Downs, Anthony (1957): *An Economic Theory of Democracy*. Nueva York: Harper and Row.
- Duverger, Maurice (1992): Influencia de los sistemas electorales en la vida política. In Battle, Albert (coord.) (pp. 37-76), *Diez textos básicos de Ciencia Política*. Barcelona: Ariel.
- Eleizalde, Luis de (1911): *La lucha por el idioma propio*. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas.
- “Erabakiaren hutsa betetzen”. (2013ko Azaroak 28). *Berria*.
- Eulau, Heinz (1986): *Politics, Self and Society. A theme and variations*. Harvard: Harvard University Press.
- Ferejohn, John and Fiorina, Morris (1974): The paradox of non voting: A decision theoretical analysis, *American Political Science Review*, Vol.68, pp. 525-536.
- Finifter, Adam (1974): The friendship group as a protective environment for political deviants, *American Political Science Review*, N°68, pp. 607-625.

- Fiorina, Morris (1976): The Voting Decision: Instrumental and Expressive Aspects, *Journal of Politics*, Vol. 38, pp. 390-413.
- Fusi, J.P. (1981): Reflexiones sobre el problema vasco, *Cuenta y Razón*, N° 4.
- Gellner, Ernest (1964): *Thought and Change*. London: Weindenfeld and Nicholson.
- Gellner, Ernest (1988): *Naciones y nacionalismo*. Madrid: Alianza.
- Green, Donald and Shapiro, Ian (1994): *Pathologies of rational choice theory: A critique of applications in Political Science*. New Haven: Yale University Press.
- González, Juan Jesús (1996): Clases, ciudadanos, y clases de ciudadanos, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, N° 74, pp. 45-76.
- Goodman, Nelson (1976): *Los lenguajes del arte*. Barcelona: Seix Barral.
- Goldthorpe, John (1968): *The affluent worker: industrial attitudes and behaviour*. London: Cambridge University Press.
- Gunther, Richard and Montero, Jose Ramón (1994): Los anclajes del partidismo: Un análisis comparado del comportamiento electoral en cuatro democracias del sur de Europa. In Castillo, Pilar del (ed.) (pp.467-540), *Comportamiento político y electoral*. Madrid: CIS.
- Gurr, Robert (1993): *Minorities at risk*. Washington: US, Institute of Peace Press.
- Gurr, Robert and Harff, Barbara (1994): *Ethnic Conflict in World Politics*. Boulder: Westview Press.
- Gurrutxaga, Ander (1991): *La refundación del nacionalismo vasco*. Leioa: Universidad del País Vasco.
- Gurrutxaga, Ander (1996): *La transformación del nacionalismo vasco*. Donostia: Haramburu.
- Habermas, Jürgen (1997): *Más allá del estado nacional*. Madrid: Trotta.
- Hale, Henry (2008): *The foundations of ethnic politics: separatism of states and nations in Eurasia and the world*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Harrop, Martin and Miller, William (1987): *Elections and voters: a comparative introduction*. London: MacMillan.

- Hechter, Michael (1975): *Internal Colonialism: The Celtic Fringe in British National Development*. Berkeley: University of California Press,
- Herreros, Francisco (2011): *La ideología y la práctica. La diferencia de valores entre izquierda y derecha*. Madrid: Fundación Alternativas.
- Hobsbawm, Eric and Ranger, Terence (eds.)(2005): *La invención de la tradición*. Barcelona: Crítica.
- Holmberg, Sören (2007): Partisanship Reconsidered. In Dalton, Ruseell and Klingemann, Hans-Dieter (eds.), *Oxford Handbook of Political Behavior*. Oxford: Oxford University Press.
- Horton, Paul and Hunt, Chester (1994): *Soziología*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hroch, Miroslav (1985): *Social Preconditions of National revival in Europe: a comparative analysis of the social composition of patriotic groups among the smaller European nations*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hroch, Miroslav (1993): From national movement to the Fully-formed Nation, *New Left Review*, N° 198, pp. 3-20.
- Huckfeldt, Robert (1983): Social contexts, social networks, and urban neighborhoods: environmental constraints on friendship choice, *American Journal of Sociology*, N° 89, pp. 651-669.
- Huckfeldt, Robert (1984): Political loyalties and social class ties: the mechanisms of contextual influence, *American Journal of Political Science*, N°28, pp. 399-417.
- Huckfeldt, Robert (1986): *Politics in Context: Assimilation and Conflict in Urban Neighborhoods*, Nueva York: Agathon.
- Huckfeldt, Robert and Sprague, John (1991): Discussant effects on vote choice: intimacy, structure, and interdependence, *Journal of Politics*, N°. 53, pp. 122-158.
- Inglehart, Ronald (1977): *The Silent Revolution*. Princeton: Princeton University Press.
- Inglehart, Ronald (1991): *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*. Madrid: CIS.
- Isajiw, Wsevolod (1974): Definitions of Ethnicity, *Ethnicity*, Vol.1, N° 2, pp.111-124.
- Iyengar, Shanto and Kinder, Donald (1987): *News that Matters*. Chicago: University of Chicago Press.

- Jáuregui, Gurutz (1981): *Ideología y estrategia política de ETA: análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madrid: Siglo XXI.
- Jennings, M. Kent and Niemi, Richard (1974): *Political Character of Adolescence. The influence of Families and Schools*. Princeton: Princeton University Press.
- Jennings, M. Kent and Niemi, Richard (1981): *Generations and Politics: A Panel Study of Young Adults and Their Parents*. Princeton: Princeton University Press.
- Johns, Robert, *et al.* (2009): Valence politics in Scotland: Towards an explanation of the 2007 election, *Political Studies*, Vol. 57, N°1, pp. 207-233.
- Kahneman, Daniel and Tversky, Amos (1974): *Judgment under certainty: heuristics and biases*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Key, Valdimer and Munger, Frank (1959): Social determinism and electoral decision: The case of Indiana. In Burdick, Eugene and Brodbeck, Arthur (eds.) (pp.281-299), *American Voting Behavior*. Glencoe, Free Press.
- Klapper, Joseph (1960): *The effects of mass communication*. Nueva York: Free Press.
- Knight, Kathleen and Marsh, Michael (2002): Varieties of election studies, *Electoral Studies*, Vol. 21, N° 2, pp.169-187.
- Kohn, Hans (1949): *Historia del Nacionalismo*. Méjico: Fondo de Cultura Económica.
- Kroh, Martin (2009): The ease of ideological voting: Voter sophistication and party system complexity. In Klingemann, Hans- Dieter, *The Comparative Study of Electoral Systems*. USA: Oxford University Press.
- Kymlicka, Will (1996): *Ciudadanía multicultural*. Barcelona: Paidós.
- Langton, Kenneth and Rapoport, Ronald (1975): Social structure, social context, and partisan mobilization: urban workers in Chile, *Comparative Political Studies* N° 8, pp. 318-344.
- Lau, Richard and Redlawsk, David (2006): *How voters decide: Information processing during election campaigns*. New York: The Free Press.
- Lazarsfeld, Paul; Berelson, Bernard and Gaudet, Hazel (1944): *The People Choice: How the voters makes up his mind in a presidential campaign*. Nueva York: Columbia University Press.

- Lecours, André (2001): *Political Institutions. Elites and Ethnonationalism in the West: Belgium, Spain and Canada in Comparative Perspective*. Canada: National Library of Canada.
- Leduc, Lawrence and Niemi, Richard (2014): Voting behavior: Choice and Context. In Leduc, Lawrence; Niemi, Richard and Norris, Pipa (ed.) (pp.133-149), *Elections and Voting in a Changing World*. London: Sage Publications.
- Letamendia, Francisco (1997): *Juego de Espejos. Conflictos Nacionales Centro-Periferia*. Madrid: Trotta.
- Linz, Juan José (1973): Early State-building and Late peripherals nationalisms against the State, The Case of Spain. In Eisenstadt, Samuel and Rokkan, Stein: *Building States and Nations*. Beverly Hills: Sage.
- Linz, Juan José (1985): From Primordialism to Nationalism. In Tiryakian, Edward and Rogowsky, Ronald (comps.)(pp.203-253), *New Nationalism of the Developed West*. Boston: Allen and Unwin.
- Linz, Juan José (1986): *Conflicto en Euskadi*. Madrid: Espasa-Calpe.
- Linz, Juan José (1987): *La quiebra de las democracias*. Madrid: Alianza Universidad.
- Linz, Juan José (1993): State Building and Nation Building, *European Review*, Vol.1, N°4, pp.355-368.
- Linz, Juan José and Stepan, Alfred (1996): *Problems of Democratic Transition and Consolidation*. Baltimore: J. Hopkins University Press.
- Lipset, Seymour and Rokkan, Stein (1992): Estructuras de división, sistemas de partidos y alineamientos electorales. In Batlle, Alfred (coord.), (pp.231-273), *Diez Textos Básicos de la Ciencia Política*. Barcelona: Ariel.
- Llera, Francisco José (1994): *Los vascos y la política*. Leioa: Universidad del País Vasco.
- Llera, Francisco José (1994): La construcción del pluralismo polarizado vasco. In Castillo, Pilar del (ed.) (pp.275-295), *Comportamiento político y electoral*. Madrid: CIS.
- Llera, Francisco José (2009): Spain, Identity Boundaries and Political Reconstruction, *Nationalism and Ethnic Politics*, Vol.15, pp. 303-335.

- Mair, Peter (2006): Cleavages. In Katz, Richard and Crotty, Williams (eds.), *Handbook of party politics*. London: Sage.
- Máiz, Ramón (1997): Nacionalismo y movilización política: un análisis pluridimensional de la construcción de las naciones, *Zona Abierta*, N° 79, pp.167-216.
- Máiz, Ramón (2003): Politics and the Nation: Nationalist Mobilisation of Ethnic Differences, *Nations and Nationalism*, Vol.9, N°2, pp.195-212.
- Manza, Jeff; Hout, Michael and Brooks, Clem (1995): Class voting in capitalist democracies since World War II: dealignment, realignment or trendless fluctuation?, *Annual review of Sociology*, N°21, pp.137-162.
- Mata, José Manuel (1993): *El nacionalismo vasco radical: discurso, organización y expresiones*. Leioa: Universidad del País Vasco.
- Mayer, Nonna (2006): Qui vote pur qui et pourquoi? Les modeles explicatifs du choix electoral, *Pouvoirs*, Vol. 120, N°1, pp. 17-28.
- McKay, James and Lewins, Frank. (1978): Ethnicity and the Ethnic Group. A Conceptual Analysis and Reformulation, *Ethnic and Racial Studies*, N° 4, pp. 412-425.
- McCrone, David and Lindsay Paterson (2002): The conundrum of Scottish Independence, *Scottish Affairs*, Vol.40, pp. 54-75.
- Mcphee, William; Smith, Robert and Ferguson, Jack (1963): A theory of informal social influence. In Mcphee, William (ed.) (pp.74-103), *Formal Theories of Mass Behavior*. Nueva York: Free Press.
- Miller, Warren (1956): One-party politics and the voter, *American Political Science Review*, N° 50, pp. 707-725.
- Miller, Warren and Shanks, J. Merrill (1996): *The New American voter*. Cambridge: Harvard University Press.
- Montero, José Ramón and Font, Joan (1989): *El voto dual en Cataluña: dimensiones, sujetos y factores*. Barcelona: Mímeo.
- Montero, José Ramón and Font, Joan (1991): El voto dual: lealtad y transferencia de votos en las elecciones autonómicas, *Estudis Electorals*, N°10, pp. 183-221.
- Montero, Txema (2009): Táctica con estrategia, condición para el éxito, *Hermes*, N°29, pp.24-30.
- “Mugimendu berri bat sortzen ari da”. (2014ko Abuztuaren 14a). *Berrria*.

- Nagel, Joane and Olzak, Susan (1982): Ethnic mobilization in Old and New States: An Extension of the Competition Model. *Social Problems*, Vol.30, N° 2 (December), pp. 127-143.
- Nagel, Joane (1986): The Political construction of Ethnicity. In Nagel, Joane and Olzak, Susan (eds.) (pp.93-112), *Competitive Ethnic Relations*. Orlando FL: Academic Press.
- Nairn, Tom (1977): *The Break up of Britain: Crisis and Neonationalism*. London: New Left.
- “Nazioa husteko garaia”. (2014ko Abuztuaren 14a). *Berria*.
- Nevitte, Neil; Blais, André; Gidengil, Elisabeth and Nadeau Richard (2009): Socioeconomic status and non voting: A cross national comparative analysis. In Klingemann, Hans- Dieter, *The Comparative Study of Electoral Systems*. USA: Oxford University Press.
- Nielsen, Francois (1980): The Flemish movement in Belgium, *American Sociological Review*, N° 45, pp. 76-94.
- Nielsson, Gumar (1989): Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado. In Pérez-Agote, Alfonso (ed.) (pp. 193-225), *Sociología del Nacionalismo*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua eta Eusko Jaurlaritza.
- Nöelle Neuman, Elisabeth (1995): *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- Norris, Pippa (2006): *Electoral engineering: voting rules and political behaviour*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Olabuenaga, José Ignacio; Fdez. Sobrado, José Manuel y Novales, Fernando (1985): *Violencia y Ansiedad en el País Vasco*. Bilbao: Tarttalo.
- O’Leary, Brendan and McGarry, John (1993): *The politics of antagonism: understanding Northern Ireland*. London: Athlone Press.
- Overbye, Einar (2003): Una defentsa del votante racional, que busca su propio interés, “ético”, y de paso una resolución de la “paradoja del no voto”, *Zona Abierta*, N° 102/103, pp. 15-56.
- Pallarés, Francesc and Font, Joan (1994): Las elecciones autonómicas en Cataluña 1980-1992. In Del Castillo, Pilar (ed.) (pp. 178-210), *Comportamiento político y electoral*. Madrid: CIS.

- Pallarés, Francesc (2002): Las elecciones autonómicas de mayo 2001 en el País Vasco. *Informe de las Comunidades Autónomas 2001*.
- Paramio, Ludolfo (2000): Clase y voto: Intereses, identidades y preferencias, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, N°90, pp.79-93.
- Pasquino, Gianfranco (1988): Participación Política, Grupos y Movimientos. In Pasquino, Gianfranco *et al.* (pp. 179-215), *Manual de Ciencia Política*. Madrid: Alianza Universidad.
- Paterson, Linsay (2003): *Scottish education in the twentieth century*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Pattie, Charles; Denver, D.; Mitchell, J., and Bochel, H. (1999): Partisanship, national identity and constitutional preferences: an exploration of voting in the Scottish devolution referendum of 1997, *Electoral Studies*, Vol. 18, pp. 305-322.
- Pérez-Agote, Alfonso (1984): *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas, CIS.
- Pérez-Agote, Alfonso (1989): Hacia una concepción sociológica de la nación. In Pérez-Agote, Alfonso (ed.) (pp.177-192), *Sociología del Nacionalismo*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua eta Eusko Jaurlaritza.
- Pérez-Agote, Alfonso (1993): Las paradojas de la nación, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, N° 61, pp. 7-21
- Pérez-Agote, Alfonso (1994): Modelo fenomenológico-genético para el análisis de la dimensión política de la identidad colectiva. In Beramendi, Justo, Maíz, Ramón and Nuñez, Xosé, *Nationalism in Europe. Past and Present*. Santiago de Compostela: Universidad Santiago de Compostela.
- Pérez-Nievas, Santiago and Bonet, Eduard (2005): El voto a partidos nacionalistas en Europa. El impacto de factores individuales sobre el voto a partidos nacionalistas periféricos en Bélgica, España, y Reino Unido. *Departamento de Ciencia Política y Relaciones Internacionales, Serie Estudios/Working Papers*, N° 56.
- Pérez-Nievas, Santiago and Bonet, Eduard (2006): Identidades regionales y reivindicación de autogobierno. El etnorregionalismo en el voto a partidos nacionalistas de Bélgica, España y Reino Unido , *Revista Española de Ciencia Política*, N° 15, pp. 123-161.

- Petrosino, Daniele (1991): *Stati, nazioni, etnie*. Milano: Angeli.
- Plano, Jack and Olton, Ray (1969): *The International Relations Dictionary*. Nueva York.
- Przeworski, Adam (1974): Contextual models of political behaviour, *Political Methodology*, N°1, pp. 27-61.
- Przeworski, Adam and Sprague, John (1986): *Paper Stones*. Chicago: University of Chicago Press.
- Pujana, Luis (1984): Violencia y Estructura Social, *Letras de Deusto*, pp.243-255.
- Putnam, Robert (1966): Political attitudes and the Local Community, *American Political Science Review*, N° 40, Sept. , pp.640-656.
- Ragin, Charles (1977): Class, status and reactive Ethnic Cleavages: the social bases of political regionalism, *American Sociological Review*, Vol. 42, N° 3, pp. 438-450
- Recalde, Jose Ramón (1982): *La construcción de las naciones*. Madrid, Siglo XXI.
- Riker, William and Ordeshook, Peter (1968): A Theory of the Calculus of Voting, *American Political Science Review*, Vol.62, N°1, pp. 25-42.
- Riker, William and Ordeshook, Peter (1973): *An introduction to positive political theory*. New Jersey Prentice-Hall, Englewood Cliffs.
- Riker, William (1995): The Political Psychology of Rational Choice, *Political Psychology*, N° 16.
- Rokkan, Stein and Urwin, Derek (1982): *The Politics of Territorial Identity*. London: Sage.
- Rokkan, Stein and Urwin, Derek (1983): *Economy, Territory, Identity*. London: Sage.
- Rose, Richard (2000): *International encyclopedia of elections*. London: Macmillan.
- Scarrow, Susan (2006): The nineteenth-century origins of modern political parties: The unwanted emergence of party-based politics. In Katz, Richard and Crotty, Williams (eds.), *Handbook of party politics*. London: Sage.

- Serrano, Ivan. (2013): Just a matter of identity? Support for Independence in Catalonia, *Regional and Federal Studies*, 2013, Vol. 23, N° 5, pp. 523-545.
- Setién, Jose María (2007): *Un Obispo ante ETA*. Barcelona: Crítica.
- Siavelis, Peter (2006): Party and social structure, In Katz, Richard and Crotty, Williams (eds.), *Handbook of party politics*. London: Sage.
- Smith, Anthony (1981): *The Ethnic Revival*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Smith, Anthony (1984): Ethnic myths and Ethnic revivals, *European Journal of Sociology*, N°25, pp. 283-305
- Smith, Anthony (1986): *The Ethnic Origins of Nations*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Smith, Anthony and Gellner, Ernest (1996): The nation: real or imagined? The Warwick Debates on Nationalism, *Nations and Nationalism*, Vol.2, N°3, pp.357-370.
- Smith, Anthony (1997): *La identidad nacional*. Madrid: Trama Editorial.
- Smith, Anthony (2004): *Nacionalismo*. Madrid: Alianza.
- Sorens, Jason (2005): The cross-sectional determinants of secessionism in advanced democracies, *Comparative political studies*, Vol.38, N°3, pp. 304-326.
- Sorens, Jason (2012): *Secessionism: Identity, Interest and Strategy*. Canada: McGill-Queen's Press.
- Sprague, John and Westfield, Lewis (1979): An interpretive reconstruction of some aggregate models of contextual effects, *Annual meeting of the Southern Political Science Association*.
- Stavenhagen, Rodolfo (1996): *Ethnic Conflicts and The Nation State*. London: MacMillan.
- Sulmont Haak, David (2010): Los enfoques teóricos sobre el comportamiento electoral.
- Taylor, Charles (1999): *Acercar las soledades. Federalismo y nacionalismo en Canadá*. San Sebastián: Gakoa.
- Taylor, Rupert (2009): *Consociational theory: MacGarry and O'Leary and the Northern Ireland conflict*. New York: Routledge.

- Thomaseen, Jacques (ed.) (2005): *The European voter: a comparative study of modern democracies*. Oxford: Oxford University Press.
- Tilly, Charles (eds.) (1975): *The formation of national states in Western Europe*. Princeton: Princeton University Press.
- Torcal, Mariano (1989): La dimension materialista/postamaterialista en España: las variables del cambio cultural, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, N° 47, pp. 227-254.
- Torcal, Mariano and Chhiber, Pradeep (1995): Elites, “cleavages” y sistema de partidos en una democracia consolidada: España (1986-1992), *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, N° 69, pp. 7-38.
- Torcal, Mariano and Medina, Lucía (2002): Ideología y voto en España (1979-2000): los procesos de reconstrucción racional de la identificación ideológica, *Revista Española de Ciencia Política*, N°6, pp. 57-96.
- Türsan, Huri (1998): Introduction: Ethnoregionalist parties as ethnic entrepreneurs. *Regionalist Parties in Western Europe*, pp.1-16.
- Tyryakian, Edward and Rogowsky, Ronald (1985): *New Nationalism of the Developed West*. Boston: Allen and Unwin.
- Villanueva, Javier (2009): Nacionalismo vasco y ETA. In Duplá, Antonio and Villanueva, Javier, *Con las víctimas del terrorismo*. Donostia: Gakoa.
- Weber, Max (1966): On the concept of sociology and the meaning of social conduct. In Secher, H.P. (pp. 29-58): *Basis Concepts in Sociology*, Nueva York: Citadel Press.
- Weber, Max (1979): *Economía y Sociedad*, Fondo Cultural Económico, Madrid.
- Wolfgang, Marvin and Ferracuti, Franco (1971): *La Subcultura de la Violencia: Hacia una Teoría Criminológica*. Méjico: Fondo de Cultura Económica.
- Zabalo, Julen (1994): Alternatiba bat independentziari: euskal nazionalismo ez independentziazalearen jokabidea, *Inguruak*, N°8, pp.169-183.
- Zabalo, Julen (1998): Euskal nazionalismo motak-nazioaren ikuskeraren arabera, *Uztaro*, N°26, pp.27-46.
- Zabalo, Julen (2004): ¿Es realmente cívico el nacionalismo catalán y étnico el vasco?, *Papers*, N°72, pp.67-85.

- Zabalo, Julen (2006): Nacionalismo vasco: el discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica, *RIPS*, Vol.5, N°1, pp. 83-94.
- Zabaltza, Xabier (2003): *Lengua, territorio y conciencia nacional en España (1833-1975)*. Tesis doctoral inédita. Pamplona: Universidad Pública de Navarra.
- Zabaltza, Xabier (2006): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*. Barcelona: Gedisa.

